KARDABERAZ BILDUMA - 15

ODOL - ANTZERKIAK - B

KARDABERAZ BILDUMA - 15

ODOL - ANTZERKIAK - B

W. SHAKESPEARE'REN ANTZERKI GUZTI-GUZTIAK EUSKERAZ

LAKRAKOETXEA'lar BEDITA Y.'ek
euskerazturik

L's propiedad

Antor; il' Shakexpenre
Etlitn: Juan Jnsé GirntenrJÍa - Lib'ería Técnicas de Difusión - Tolosa
[rnprinie: G'dficas E^t'.T - Semiimrio Vitoria
Drpósitt, Letnl VI 7Hu - 1976
/ S B. t\. Hn-4D0-mt-7



IV ATALA

SEÍ ODOL-ANTZERKI

N O N Z E R

Grrlalda

KINBELIN 9

YULIKAISAR 63

ANDONI TA KELOPATERE 107

KORIOLAN 157

TITA ANDORNIKA 211

PERIKEL TIRO'KO ERREGE 253

IZTEGI-ERASKIN 291

KINBELIN

(CYMBELIN El

ICINBELiN

(CYMBEUNEj

ñNTZERKI ONETAKO NOTINAK

KINBELIN (Cymbeline), Biritonderri'ke Errege.
KOLTEN (Clolen), Erregenoaren seme lenagoke senargandik.
POSTUMU LONATU (Posthumus Leonatus), aitonen >ime, IMOGENE'a senarra,
BELARI (Belarius), andiki erbestetu, MORGAN izen-ordekoz ezaguna.
GIDERI, (Guiderius) } KINBELIN'en semeak, POLIDOR eta KADUOL
ARBIRAGA (Arviragus) } izenez ezagunak eta, ustez, BELARI'n semeak.
PILARI (Philario), POSTUMU'n adiskide, } Itali'arrak.
YAKIMU (Iachiino), PILABI'n adiski.de. }

Pantze'tar ailonen seme, PILAHI'n adiskide.
KAI LUKI (Caius Lueius), Erromar gudarostearen Gudalburu nagusi, Erromar Gudalburu.
Biritandarren Gudallju.ru bi,
PISANI (Pisanius), POSTUMU'n sisein.
KORNELI (Cornelius), Osagiile,
KINBELIN'en yauregiko Andíki bi.
KINBELIN'en yauregiko aitoneu seme bí.
Baitegizai bi,

ERREGENO. KINBELIN'en emasts.
IMOGENE, KINBELIN'en alaba, lenageko erregenegandik,
ELENE, IMOGENE'n tagunizake emakume.

Andikiak, emakums andikiak, Erroma'ko Agure.batzarrekoak, Tirbunak, Agertuak. Astu, Nederlandatar aitonen seme, Españar aitonen seme, Ereslariak, Ertzainalc, gudaJburuak, gudariak, gezna« riak, eta enege.otseintzalco beste batzuk.

AGEHLEKU.-Batzuetan BIHITANDEHBIi beste batzuetan ITALL

I EKITALDI

I AGERLEKU.-BIRITANDERRI. KINBELIN'en Yauregi-osteko Baratzo.

Aitonen seme bi aurrera.

I AITONEN S.—Betozks ílunaz dabil emen gizon eres yauregiksak "eguzkia nera zapiak ara" dabiltzuz; naibageturik ba'dage errege, nalbagetuarena dagie; iñon ezta agiri zintzotasunik.

II AITONEN S.—Zer yazeten da ba?

I AITONEN S.—Erregeren alabea, aren bskalderriaren oñordekoa, ak oraintsu emaztetzat artu izan dauen alargunaren **sem»** bakarrakin ezkondu gura izan dauene altonen seme beartsu-aintzakegarriaz maiíemindu da. Alaba ori dagoneko ezkondu dai alaba orren senarra erbesteraturik dago; alabea bera baitegiraturik: dirudienez eta azalez dana yatzu naibaga, nire ustez errege beraren naibagea benetako ta biotzeiiko izan-arren.

II AITONEN S.—Errege berarena bokarsik?

I AITONEN S.—Bai aren elabea gaídu dauenarena be; baita gzkentzearen aldekoen ízan dan erregenoarena be. Baña ez yauregitar batenik be: oneik, erregeri eder egite-arren betarte ilunak erabili-arren, pozik dagez naibugetuarenu egiteke bide ta gei izan danagaitik.

II AITONEN S.—Zegaitik olan?

I AITONEN S.—Errege-alabea galdu dauena beratíaz txurto esuteko be zukurregi *áas* errege-alabea dauena barriz, ukiii ezkondu duiiú osan yuru det» a bui gizon on! btii orixe. etu errexegaitik, on duluko, erbesteratu dabs; alcmgorik, aren antzekorik mundu seoan be idorotea ezinezko litzake. Nik sztot uste arena lango soin osobete lerdendunik beruz besterik iñon aurkitu leitekeanik.

II AITONEN S.—Orrake orí gorogl eragiten ete dozun nago.

I AITONEN S.—Dagon lekurañe be eztet ers. gi nik a; aziagotu burik, estutu, txikertu ía merrotu egiten ete dodan nage tii.

II AITONEN S.~Zer yako izeno ta neren se-1116 da?

I AITONEN S.—Aren aurretikoen sustar-susturrerario ezin eldu neinteke; aren uítari Sikili yakon izena tu Kusibelan'ekin butesa Erromarren aiuku gudu eginik, Kasibelan bera legetxe osputsu egin zan, buriu ok bere andiki-agiriak Tenanti'ren uldumenean irabazi tu loríu ebazan: Tenanti'n bendeko ízan zan; aintzaz eto gurendaz bere buruu batu lu edertu eban eta Lonatu izengoitia ezarri eutaoen: etu aitonen seme onez ganera, guduetan, ezpatak eskuetan ebezala il ziran besíe seme biren aita be izan zan a; aita zar eta ondorengo--zalea serneon srietzeaz artu eban naibageuien naibagez ii zan; eiu uren emazte uiuitayurriu, onako aitonen seme onegaz aurdun zala, uu erdiulu il zan, Erregek artzen dau umea bere ardurapean eta bere etxeke egiten duu: eta Postumu damotao izentzat; umeak beretu daiken yakituri guz-Ua emoien dautso, eta umeak guk arnasea artzen dogun bestean erraz beretzen dau damotsoen yakituriu-tu, bere adineko udubun-íun uzta lunyo uztea bcre etxerutu dau; íer bakan yatzu au, baña errege-yauregian «denok rnuite dau a; gazteentzako eredu da; elduagoak bizkortu egíten dauz; zur•samarrentzat bideerakusla da; beronen emazteagaitik erbesteraturik dagon gizon gazte au uk zertzat eta nortzat dauen ikusteko eztuyo ourtu bañs ak bere aenurtzat cmtua? bere buruaz bardindu duuelú, gizona ts glzonaren en-indarrak bere eutespenez agiri agirian imini ta aldarrikatuz.

II AITONEN S.—Zeuk esaneUk be gizon orl laintzat eta aintzakotzat dot nik; baña, esaidazu, arren, neska orrez beste seme•alabarik ez ete dau erregek?

I AITONEN S.—Ez, eztau besterik. Izan, seme bi izan ebazan, bañu (oar zakioz oni. uintzakotzat ba'dozu) zarrena iru urteko zulu, etu gazteena oraindik ume-mantarretan bulurik egoala, euren añearenetik norbaitek ostu egin ebazan, etu ondiño ezta susraorik be ze bide artu eben,

II AITONEN S.~Urte askotsu *ete* diro orrako ori yazo zala?

I AITONEN S.—Ogei bat urte.

II AITONEN S.—Erregeren semerik olan ostu izana andia daí eta buí orren gitxi yu. gonda egon izana be! etu ezetariko lorra> tzik be ez izateko bestean arein blllu orren gelde ibili izana be!

I AITONEN S.—Iñondíko ba'da be» ta errenbesteko arduragatasuna sinisgarri izan ez> arren be, egia da, yaun.

II AITONEN S.~-Sinistu, sinisten dautzut.

I AITONEN S.—Epea bear dogu: emen da. toz uitonen geme ori, erregenoa, to erregealabea (Alde dagie),

ERREGENOA, POSTUMU, ta IMOGENE aurrera»

ERREGENO.—Ez, seguru zagoz, ene alaba, amordekorik geienai erantsigiten yokíeii iruinu ejera-bera, ni enaiatsu izango begi txarrez ikusiko zauzanik: nire utxílo zura zu izan, baña zure baitegi-yageleak zeurí emongo doutzuz zure yoan-etorriak lotzsn dabezan giItzak.--Zugazko, Fostumu, errege íraindua nik Irabazi-aia, neu izange natxatzu zure uldeko ta aldezle: arrano! úndiño usarre biziaren sutan dago a; eta on litzakizu aren epaiaren aldera itzuli zure yakituriak irukatsi leiskizun epez.

POSTUMU.—Eder izango al yako zure nagusitasunari, gaur alde egingo dot emendik.

ERREGENO.—Zeuk dakizu zelango galdu-gordean zagozan.- Esituriko leiaen zaztaden errukiz, neuk billatuko dot baztarren but burutzeuu, erregek zuok oikarrekin iti egitea galazo izan-arren. (Alde dagi).

IMOGENE.—Azaluts-txera ori! Biotz-gogor orrek bai ba-dakiula berak egindako zauriuri gili-gili tu utz polito egiten!... Ens sen?r kutun-kutun, nire aitaren asarrs gorriuri bildurrik ureun ba-duutsut, Izan; ba-

fia neuri nire aitak egin legiskedanaren bildurrik arean be eztot, nik nire aitaganako egitekoak beteazkero. Alde egin bear dozu zuk; eta ni geldituko naz emen aren begi asarreen zaztadak une oro yasateko; biziteko nire poz bakarra zu pitxi ori nik barriro Ikusi aí izateko munduan dala uste izatea izango da,

POSTUMU.—Ene erregeno! ene andera! andera orrek ez egizu gelctgo negarrik egin, gizoni dagokion baño samurtasun geiago Iragarri bearrean aurkitu enadin! Eguño berbarik emon izan dauen senarrik zintzoena baño zintzoago izango natxatzu ni; Errotna'ko nire bizilekua Pilari dalakoarena izango da; orrako ori nire aitaren adiskide liana *úa*, *baña* nik idazkiz bakarrik dot ezagun: ara idatzi, ene erregeno orrek, eta beaztunaz idatzi ba'dagizu be, begiz Iruntsiko dodaz zuk bidaliko dozuzan itzak.

ERREGENOA aurrera ostera be.

ERREGENO.—Ez luzatu ,arren; errege ba'letor, aren asarretan yausiko nintzake, eta eztakit zenbaterañokoan. (Bere kitean). Eta erraiUño orretaraxe bultzauko dot nik *a;* irainik egiten dautsadan guztietan ak nire irainak adiskidetzat artzen dauz,- Ondo ordaintzen dausiaz nire okerrak eta irai nak. (Alde dagi).

POST.—Biziko garean arte guztian alkarri agur egiten ba'gengoz be, alde egiteko nagikeria azi egingo litzakigu. Agur!

IMOGENE. Etxon ,etxon apur baten: ortik zear zaldiz egurasten yoateko agurra ba' liiz be, agur rnotzegi litzake ori. Begira, maite: diamante au nire amarena zan: artu egizu, nire biotzeko orrek: baña Imogene il dadinean beste emakumeren bati maitemindu zakiozan arte euki egizu.

POST.—Ostera! ostera! beste emazterik nik? Yainko maitagarriok, ez egidazue emon, dodan emazte onez besterik, eta besterik nire besartean estututera el ba'nadi, eriotzeaz banandu nagizue! Emen arraikit, emen arraikit (Erestuna bere atzean sartu-ala) sentzuak or euki aiken artean! Eta, eztien ori, lerdenik lerdenen ori, zure galtze andiíako nik zure ordez nire buru beartsua emon izan neuntzunez, gure aletz-uskeriotan be ni nozu zugandik irabazten dodana: au erabili egizu nire aldeiik eta nire izenez (Esku-muturr-estun bat dimintso esku-muturrean); maiiasunlokarri yaizu; neuk ezarriko dautzut atxilo lerdenik lerdenen orri.

IMOGENE.—Yainkook! Noi alkar ikusiko ele dogu barriro?

POST.—Ene! errege dator!

KINBELIN eta Andikiak aurrera,

KINBEL,—Zerik zirtzilen orl, zatar ori. alde egik emendlk! alde nire begien aurretik! Agindu au-azkero gure yauregia zapaldu ba'dagik ire zirtzilkeriaz, ireak egin yok; alde! odolak usteldu egiten daustazak.

POST.—Yainkoak lagun izango al yatzuz! eta yauregian gelditzen diran on guztiak onetsiko al dabez! Ba-noa ni. (Alde dagi).

IMOGENE.—Eriotzean be ezin izan au baño zaztada zorrotzagorik.

KINBEL.—Zer ez-zintzo ori, gazletu sgin beor nindukezun orrek beste urtebeteren zamea ezarten daustazu bizkarrean!

IMOGENE.—Arren, yaun, ez egin okerrik zure buruari zure asarreaz; nik eztot mlnik artzen zure asarreaz: ukutu bakanagok benderatzen daustaz min zorrotz eta bildur guztiak.

KINBEL.—Maitasunik eztaustazu, ala? Bendekotasunik ez?

IMOG.—Itxarorik ez ník, eta etsita nago: tsl-de orretaUk bai ba-nagola ni maitasunik eta eskerrik ezagaz.

KINBEL.—Eta nire erregenoaren seme bakarra zure izan zengikean zuk!

IMOG.—Zori onez eneban egin olangorikl arranoa artu neban nik, eta mirurik ez artu aintzakotzat.

KINBEL.—Eskeko da zuk arlu dozuna: zuk nire errege-aulkia zirtzilkerlaren yezarleku egin gura izan dozu,

IMOG.—Ez: nik, besiera, arglagotu egln izan dot.

KINBEL.~Zu bai ba-zareala zirtzil!

IMOG.—Yaun, zeu zara nik Postumu maite izanaren errudun: zeuk azi zeban a nire yolas-laguntzat; eta a edozein emakumeren lain da: ia nazan baño geiagotan ordaindu nau,

KINBEL.—Ostera! burutik egin yatzu, ala?

IMOG.—la, ia, yaun: yainkoak leneratuko al nabe!... Beizairen alaba al nintz, eta nire Lonatu gure auzoko artzaiaren seme!

KINBEL,.—Ero ori!

ERREGENOA aurrera ostera be.

(Erregenoari) Ostera be alkarrekin egon dira: zuk eztozu egin guk agindua. Ken emakume ori emendik, eta baitegiratu egizu.

ERREGENO.—Epe artu egizu, crren.-- Ixilik.

alaba andera malto ori, ixilik! Nagusien mai. iagarri ori» gu biok biotara ilxi gagizuz; eta zure huruaren nasaigarriizat *zerbait* <ts-mau egizu.

KINBEL.—Bai, egunean-egunesn odol-lanian bat galdu dagiala: eta zarren zarrez ©ro-keri orregaz !1 dodilla! 'Alde dciqi Andi-kiekin),

ERREGENO.—tJl, ut! men egin bear dozu.

PISANI aurrera.

Amen zure otseinct.—Kaljco, yaun! ze barri dogu?

PISANL—Nire yaun zure semsak ezpatea *ale-* JXJ dau nire ugnzabarí erasoteko.

ERREGENO.—Ori be! ez al daulse alkarri okerrik egin!

PISANI.—Egin eikioen, nire ugazaba burru-kan bavik olgetan ibili izan ezpa-litz, eta laguntzat asarrerik izan ba'Jeu; an urrean egon diran aitonen seme batzuk banandu izan dabez,

ERREGENO,—Pozlu be poztuten nau orrexek

IMOG.—Nire aitaren adiskiie da zure se-*m^a;* a da zure semearen aldeks.-Andia da e-rbesteturi erasGteaJ--.fi bal yaun ado-veísu! ftpirka'n «1 legoz biak batercs; eto ni be an, eskuetem yostorratza dodala, atze-ra dagianori zaztadea emoteko.-Zegaitik etovri zara zure ugazabagandik?

PISANI.—Berak aginduia; eztau gura izan nik kaira lagun egiterik; zor batzuk itxi daustaz idatzita zuri deretxatzunean zure otseintzan erabiliko nozunean zer egin bear dodan yakin dagidan.

ERREGENO.—Au zure otsein zintzs izan da; nire omena yokaizen doí baietz izan au olangoxe aurrerantzean be,

PISANI.—Eskerrik apalenak damoatMdaz zu-re nagusiíasunari.

ERREGENO.—Arren. gabiltzazan apur batsn.

IMOG. Emendik ordu-erdirantza, arren, eto-rri *zaáiz* nikin ilz etjiteko; gita'enez yoan beaf dozu nire yauna ontziratzean ikusten: bein-beinean alde egizu, 'Álde dagie).

II AGERLEKU.-BIHITAIi IERRI. Guztltarikoen ieku.

KOLTEN ela ANDIKI bi aurrera,

I ANDIK.—Yaun, aíorra ori aldatsea oba li-tzakizu; ekinaren gogorrak izerdia atera dautzu eta orain lurruna dariozula zagoz, yainkoal eskinitako oparia legetxe; eguratsa urteten dan lekura eguratsa doa; eta atelakoa ezta zuri urteten yatzuna baño zindoago.

KOLTEN.—Aldatuko neunke, nire atorrea odoldurik ba'lego. Minik egin ete dautsat?

II ANDIK.—(Bere kiiean). Ez, ez orixe; ezta aren epeari be.

I ANDIK.—Minik egin! Aren soña azur-uls, mami-bako ta bide utsa da, ak minik artu ezpa'dau: minik artu ezpa'dau aren soña galtzaiduarentzako bidezabal da.

II ANDIK.—(Bero kitean). Orren ezpatea zo-rretan egon da, eta orregaitik alde egin dau,

KOLTEN.—Dollor-kikilak iges egin izan dau.

II ANDIK.—(Bere kitean). Ez; ak aurierantza #gin izan dau, zure arpegirantza.

I ANDIK.—Zuri etxon! Lendik dof.u zuk lu-rrik asko, baña ak, atzeraka eginik, zure lurrak nasaitu egin dauz.

II ANDIK.—(Bere kitean). Zuk itxasotan do-zun beste atzondo emon dautzuz ak, Arro-putzok!

KOLTEN.—Ez al ziran sartu gure bitartean.

II ANDIK,—(Bere kitean). Neuk be orixe gu-rako neunkean, ik ire ero orren soña be-teko lurra neurtu arte.

KOLTEN,—Eta ak neskeak urli ori maite bear dauela, niri ezetza emonik.

II ANDIK.—(Bere kitean). Autespen onik egi-lea oben ba'da, *a* neskea galdua da.

I ANDIK.—Yaun, nik beti esan izan dautzu. danez, aren edertasuna ta aren aentzuna eztoaz bide batetik: a ispillu eder da izan, baña agandik buru-argitasun gibrik argi egiten dau, nik ikusi dodanez.

II ANDIK,—(Bere kitecm). Ak argi egiten dau, baña ez eroai, aren argiak bers bu ruari kalterik egín eztagion,

KOl.TEN.—Tira, ui nire gelara noa. Minik ar-tu izan al neu!

II ANDIK.—(Bere kilean). Nik eztot olangoren gurariik; astoren bat lurrera yaustea ez izatekotan, ori ezta oker andirik-eta,

KOLTEN,—Gukin zatoz, ala?

I ANDIK.—Ni or noatzu zure lagun.

KOLTEN.—Bai, zatoz, batera goazen.

II ANDIK,—Tira ba, yaun. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--BIRITANDERRI, KINBELIN'en yaureglks gela.

IMOGENE la PISANI aurrera.

IMOG.—Zure soña, cindien andiz, kai ertzernño elduko gl litz, ara datezan ontziai banan-banan ilantzeko; ak idaizi ba'legi, ta nik artu ez, papel galdua litzateke, opatuko errukia eldu etxakienentzat danez, Zeintzuk izan dira ak zuri azkenengoz esaneko itzak?

PISANI.—Itzok izan dira: "Imogene, Imoge. ne, nire erregeno!".

IMOG.—Eta orrazkero, suí-zapiari eragin yautsok, eztsk?

PISANI.—Bai, eta mun be egin dautso, andera.

IMOG.—Zapi oarmen bako ori! orretan ni baño zori ontsuago izan az!... Ori baño ez. ala?

PISANI.—Bai, andera: nik bere ontzi-lagunekandik berezi al izan dodan arte guztian ontzi-ganetik esku-zorroz, naiz txapelaz, nalz sur-zapiaz, eurak aztindu-ala berak al izan dauenik ondoen íragarten izan daust, bere biotza astiro yoiala, ontzia bizkor e!a arin yoan-arren.

IMOG.—Zuk an yarrai bear zendun a belea besteko txiker naiz txikerrago egin arteño.

PISANI.—Oríxe egin be egin izan dol, andera.

IMOG.—A begiratu ta ikusteko nik nire begien lokarriak urratu ta tarrat eragingo neunskien, a an eguratsetan nire yostorratza bafio meago íg laburrago biurtu arteñej bai, ní yarraíko nintzakion *a* txikien txikiz eltxoaren neurriratu ia gero ezebeztu arteño; eta gero, begiak bestera itzulirik, negar egingo neunkean,- Baña, Pisanl on, noz izango ete dogu aren barririk?

PISANI.—Lenengo erea datorkonean idatzlko dauela eaan dau ak, andera.

IMOG.—Ezlautsat nik agurrik egin, baña zer ederrik asko izan dot ari esateko; onango ta onango gogaketak izango dodazala aretaz ordu izentauetan, nik esateka yoan da a; baita bere ta nire omenaren kaltez Itali'ko neskak iruzurrik eztagioen ari zin eragiteko nintzan; baita goxeko seiretan, eguerdian, gaberdian bere otoitzak niganatu dagizala esateko nintzan, ordu orreitan zeruan aurkituko ninduala-ta; itz lilurakor biren bitartean alde egiterako muna egiteko be ba-nintzan, baña nire aita etorri da-la, aren elorrereak, negu-axe biotzgogsrrak lez, gure lora-pipilak, azteko astirik emoteka, aztindu dauz,

EMAKUME andikl aurrero.

EMAK. AND.—Andera, zure laguntzea gura dau erregenoak.

IMOG.—Nire esanak bete egizuz... Erregenoaren guraria egiten nsa.

PISANI.—Beteko dodaz, andera. ÍAlde dagi«).

IV AGERLEKU.--ERROMA. PILARI'neko gela.

PILARI, YAKIMU, Pantzetar. Nederlandatar eta Españar bat aurrera.

YAK.—Sinis egidazu, yaun, nik ikusi izan dol <s Biritanderri'n; itxarogorri zan a aldi atani aldean eroan izenaren lain izango zala uste zan: baña aldi atan nik arritzeka begiratu neinkean *a;* bai aren alde onak aren aldamenean urrengorik urrengo ídatzita egon eta banan-banan irakurri izan ba' neuz be.

PIL.—A osotuten daben barruko ta azaleko emaitz eta apaingarriz a orain baño urriago zan aldiaz daragoiok ik.

PANTZ.—Pantze'n dot nik a ikusirik: eta asko be asko genduzan guk ak bestean begiai zirkinik egiteka eguzkia artez arlez begiratu eikienak.

YAK.—Erregeren alabeakin ezkonduz, emaztearen laintasunak goratu dau s bereak baño geiago eta, nire ustez, zuk *a* bera dan baño geiagotzat dozu.

PANTZ.—Ela gero erbesteratu egin izan dabe...

YAK.—Bai, eta aren emaztearen zurigamtzat, senarr-emazteon banakuntza negargarriari negar egiten dautsoenak dan baño andiago egiten dabe a; zuriketa ela negarrok aren emaztearen eretxia sendotzeko baño ez dl-*va,* ostanlxean eskekokin ezkondu dalako.

ezkontzea manalzeko erasorik txikiena asko litzakio-ta. Baña zer dala-ta dator zurera bizilen? Nondik datorlzue alkar ezagutzea?

PIL.—Aren aita ta ni gudari hatera Izanak garas jiik sarritan zor izan dautsat ari nire bizin. Emen dator Biritandarra: arena lango laintasundun erbestetarrari ta zuon azikera onari dagokionez artuko al dozue,

POSTUMIJ aurrera.

(Guztiok, arren, ondo artuko al dozue aiíonen seme au, nire adískide zindotzat gorantziten dautzuet; noragiño lain dan orain bere aurrean barik gero Iragarriko dautzuet).

PANTZ.—Yaun, guk Orleans'en alkar ezauiu geban.

POST.—-Arrazkero beti nozu zure bcerai zordun, eta zure txerak ordaintzen beti ibiliarren, beti izango naz arei zordun.

PANTZ.—Yaun, zuk geiegi esten dozuz nire txera txiro-apalak: beti izan yat pozkarri zu ta nire arako abeikidearen artean onezkoak egin izana: negargarri litzatekean zuok aldi atan alkarri zeuntsoen gorroto biziaz alango uskerigaitik zuoi burruka egiten iztea.

POST.—Parkatu, yaun, baña ni aldi atan gazte ibiltari nintzan; eta iñoren esanera barik neure eretxiz zerak egitera itzuliago nintzan aldi atan; baña orain, orduko aldean nire bereizmena obatua dala esatea arrokeri ezpa'da, nire oraingo eretxiz nire orduko asarrebidea etzan ain uskeri,

PANTZ.—Bai, benetan uskeri zan ezpataz ebazteko; eta uskeriago zuok lango bik ezpatetara yoteko, ezpai barik bata edo bestea edo biak lurreratu barik nekez ebatzíko zan-eta,

YAK.—Era-mera onai utsik egiteka, yakin ete geinke arako eztabaidea zertaz zan?

PANTZ.—Bai, nire ustez: eztabaidea agiria izan zanazkero, agirian esan leitekela uste dot, Guk bart erabili genduanaren antzeko eztabaida zan; gutarik bakotxak bere emko neskak goratzen eragoion; aitonen seme onek aldi atan eragoionez, bere emaztegeia lango emakume lerden, on-indartsu, zur, garbi, yarri ta Pantze'ko neskatorik bakanena baño benderagatxago zala eragoion eta eragoionaren alde burrukara yoteko be gertu egoan.

YAK.—A emakumea edo ezta bizi orain, edo aitonen seme onen aldi atako eretxia onazkero yoana da.

POST.—Ak aldean dau ondiño be bere on. -indarra, ta bai nik be nire eretxia.

YAK.—Eztozu a orrenbestean obetsi bear gure Itali'koen aldesn.

POST.—Pantze'n bestean zkikatuko ba'nindue, eneunskio izperrik b® gitxituko; eta ©rraitiño emakume orretaz eztaragoiot neure danez, ni bere yauresle nazanez baño.

YAK.—Gure Italiar emakume batzuk bestean eder eta on dan emakumerik eztozu Biritandeni osoan be; zuk aldean daroazun diamanteak nik ikusi izaneko askok baño argiago egiten dausnez, arako zure emakumeak be bere edertasun eta ontasunez beste asko atzean itxiko ba'Ieuz, a beste asko baño ederrago ta oba dala autortu bearrean aurkituko nintzake: baña nik eztot ikusi diamanteiik ederrena, ezta ?uk be emakumerik ederrena,

POST.—Nik zertzakotzat dodan, aintzakotzat goratu dot: olantxe goratzen dot nire ikatz--arri au be,

YAK.—Zenbatean esten dozu ikatz-arri ori?

POST.—Munduko atsegin guztiak baño geiagotan.

YAK.—Edo zure bardinbako emakumea ilik da, edo zertxobait geiegi esten dozu a,

POST.—Oker zagoz: bata saldu naiz emon neinke, bera erosteko dirurik asko ba'le» go, edo-ta emongo neunskiona onen lain ba'litz: bestea ezta saldu leitekenik, eta bai yainkoen emaitz,

YAK.—Yainkoak egin dautzue emaitz ori. ala?

POST.—Bai, eta euren eskarrez neuk eukiko dot.

YAK.—Izenez zuretzat etsi zeinke emakums ori;baña, dakizunez. iñondiko egaztiak kokatzen dira auzoko osinetan. Zure erestuna be ostu leiketzue: olantxe yazoten da zure bikote saneurririk ezarri -ezinagaz be, bata auskor da ta bestea galtzoritsu: lapur maltzurrek eta yauregitar atara eginek bata ota bestea kendu leisketzuez.

POST.—Zuon Itali'k eztau yauregitar ain ga-Ilenik nire anderea etsita Iztekorik, a auskor dala diñozun arloan aren omena benderatzekorik. Eztot ezpairik zuok lapur-taldeak dozuezanik; eta orraitiño eztot nire erestuna ostuko daustienaren bildurrik.

PIL.—Bego .aitonen semeok.

POST.—Yaun, nigazko biota biotzez, Eskerrak dagiodazan yaun onek enau erbestetartzat; beingoan egin gara alkarren ezagun,

YAK.—Izan dogun autu onen luzeroko bost autugaz zure maite Uramaren yabe nin-

tzake, eta aganako biderik ba'neu, zugandik alde eragingo neunskio ta bni nire esanera yarriazo be.

POST.—Ez, okmgorik ez,

YAK.—Baietzaren alde zure erestunaren alderako nik nire ondasunetatik erdia egingo dot; naiz ta nik egiten dodana zurea baño zerbait geiago izan, nire ustez: baña nik tematzen dodana aren entzute onagaitik baño geiago da zure usteagaitik: eta, arazo onetan zu ez minduts-arren, munduan dan edozein emakumeren aurka beste ainbeste egiten azartuko nintzaks.

POST.—Oksr be oker zagoz zure uste azarriegi orretan; eta eztot ezpairik zure aleginez zuri zor yatzunaz besterik eztozula iritxiko.

YAK.—Zer da orrako ori?

POST.—Izetz garbia zure musturrean: zuk alegina deitzen dozun zer orrek besterik be irabazi-arren, zigorra esan gurot.

PIL.—Bego, aitonen semeok: eztabaida au otoz-otoan etorri da; sortu dan fcestean arin it::ungiko al da, eta, arren, alkarganako txeratsuago izango al zarie.

YAK.—Nire esanaren alde nire oniasun guztiak eta auzokoarenak be egin izan al neuz.

POST. Zein emakume andiki autuko ete zenduke zuk erasotsko?

YAK.—Zsurea: ak berean irauteaz zu orren seguru zagozana. Amar milla duket egingo dautzuiaz zure erestunaren alde, emoteko zuk zure gorantziak zure anderea bizi dan yauregikoai nik zure andereagaz alkarr-ikustaldi bi bakarrik izateko, *eta* baietz ekairi nik zuk orren gordetzat dozun aren omena (1).

POST.—Zure urrearen alderako, urrea egingo dot; nire erestun maitsa nire atzean eukiko dot; atzaren atal d« au.

YAK.—Zu bildur zara ta. orr3xegaitik, zurrago, Emakume-aragia ontzako milloiean erosi ba'dagizu, ezin euki zeinke orbanga; eta bildur zareanazkero, yaureskuntzarik ba-dozula uste dot.

POST.—Ori benetan diñozunik eztot uste; eztot uste zure biotzean olangorik uste dozunik; zuk txantxetan daragoiozu, urrean.

YAK.—Neu naz nire esanen yate; emen nozu nire esanai erantzuteko, zin dagidanez.

POST.—Bai ete? Zu atzera etorri arteño zorrean emongo dautzut nire erestuna: dagigun gure arteko egiunea: nire rnailearen on--indarra ire eretxi zirtzil-iraingarria baño andiago dok; auxe ternatulso dauskat: autss nire erestuna.

PIL.—Dlango temarik estaustazue egingo.

YAK.—Bai, yciinkoak-arren, eginda dago... Agiri argirik asko ezpa'yakat ire maitearen soñeko zerik gordeena gozaiu izan dodala, ire izango dozak nirs amar milla duketak eta ire erastuna be; nik nire aleginetan porrot egin bn'yagiat, ak ik aregan dokan usteari erantzunaz bere omena yagon ba'yagik, *a* ire pitxia, pitxi au, eta nire urrea ire dozak, ni an azke ta nasai ibi'i al izateko ire gorantziak emon ba'dagistazak.

POST.—!re baldintza guztiak emotsn yoazat ontzat; idatzi dagiguzan egiunearen atal eta txatal guztiak. Auxe bakarrik izango da zuk erantzungo dozuna: zu yoan ba' zakioz nire maiteari ta zerorrek erakutsi ba'dagistazu a benderatu dozula, andik ara ni enozu izango arerio; a ezta aurrerantzean gure eztabaidagarri: baña, a benderatzeka, liluratzeka geltíitu ba'datíi, -olangotzat etsiko dot, zuk fcesterik erakutsi ezik, ortarakotan, zure eretxi okerragaitik eta aren garbitaEunari egin izan dautsctzun erascagaitik ezpataz erantzun bearko dozu.

YAK.—Ekak esku ori; egiunea eginik yagok: baldintzok idatzi egingo doguz legelarien baten onuz eta bein egikizun ori egindakoan artez Biritanderri'ra, egiunekizuna otzitu ta bertan-bera itxi baño len: ba-naioak nire urre-billa, ta guk egina legelariri idatziazoten.

POST.—Olantxe bedi. (YAK. eta POSTUMU'k alde).

PANTZ.—Eutsingo ete dautsoe egiune orreri? Ez ete dabe yango?

PIL.—Yakimu'k eztau iruntsiko. Goazen euren yarrai, arren. (Alde dagie).

(1) Emakume ezkonduren omena bere senarraz beste gizanekin aragizko artu-emonik ez izatea da, baita olangoren susmorik be iñori ez emotea.

V AGERLEKU.--BIRITANDERRI. KINBELIN'en yauregiko gela.

ERREGENOA, emakume andikiak eta KORNELI aurrera.

ERREGENO.—Iñontza aldean daben artean batu egidazuez lorok: bizkor eta zoli zabize: zuotariko zeinek dau izen-erreskadea?

I EMAK.—Neuk, andera.

ERREGENO.—Zoazie ba. (Emakumek alde).—OsagiIIa, ekarri dozuz arako osakaiak, *ála?*

KOR.—Bai, ta eder izango al yako zure goikolasunari: zegaitik eskatu dauslazuz naste edentsuok, euren egitekoa astiro egin, baña iristuaz iristuaz eriotzea dakarrenok?

ERREGENO.—Eztakit, osagilla, zegaitik egiten daustazun olango itaunik. Enatxatzu izan aspaldi onetan zure iltasla, ala? Eztaustazu irakatsi lurrun gozoak zelan egin, zelan lurrunurtu, zelan gorde, ala? Bai, eta ez ete nau ondiño be gure errege andiak kutuntzen nik egiten dodazan osakaiekaitik? Onenbesteraño eldu gareanazkero, txerrentzat ezpa'nozu, ez ete da egoki beste zeretarako osakaien batzuk gertatzea? Zure nasteon indarra norañoko dan ikusi gura neunke biziteko be osta-osta lain diran zer bizietan, -ez gero gizakitan-; eta ortik atera euren ondoren askotarikoak zeintzuk diran.

KOR.—Onango zeretan ba'daragoio, zure goikotasunari biotza gogortu egingo yako: kaltegarri ta intsigikor egingo yatzu.

ERREGENO.—Ba! nasai zagoz. Emen dator zurilzalletariko bat; orri ezarriko dautsadaz lenen osakaiok, zelango diran ikusteko: ori bere ugazabaren aldeko ta nire semearen arerio da...

PISANI aurrera.

Kaixo, Pisani!—- Osagilla, bein-beinean zure egitekoa amaitu da: zeuk nora-gura yoan.

KOR.—(Bere kitean).Ba-dot, andera, zure susmo txarrik; baña eztozu egingo kalterik.

ERREGENO.—(PISANI'ri) I, entzun itz bat.

KOR.—(Bere kitean). Emakume ori etxat bape begiko. Euren egitekoa astiro egingo daben edenak dauzala uste dau emakume orrek: ezagun yataz orren lerak eta eztot ezetariko uste onik orren lukikerietan, orri ©lango osakai askarririk emoteko. Orrek dauzan osakaiak sentzunak apur baterako moteldu ta sogortu bai egingo dabez: eta ba-leiteke orrek osakaiok zelango diran lenen katu ta txakurretan ikustea, gero aurrerago ta gorago yoteko: baña eriotza-antza emoten daben ondorenotan eztago ezetariko galbiderik, indarrak aldikada baterako lotu ta gero biziago agertzeko baño. Guzurrezko ondorenoz ziri ederrik sartuta geldituko da emakume ori: eta ni orregonako ustelago ta zindoago izango naz,

ERREGENO.—Eztozu emen egitekorik geiago, osagilla, zuri barrien-barri ots egin arte.

KOR.—Agur dagitzut apal-apalik. (Alde dagi).

ERREGENO.—Ondiño be a negarrez dago'a diñozu, ala? Nozbaiten eztauela men egingo, ta orain erokeria dagon lekuan zindotasuna eztala sartuko uste dozu, ala? Ekiok ik orretarako lanari: ak nire semea maite dauelakoaren barria ekarri dagistakanean bertatik esango dauskat i ire ugazaba besteko azala; a baño be andiago azala; izan be, ire ugazabaren etorkizuna ixilik yagok, eta aren izena azkenengo arnasetan ak etxok atzera etorterik, ezta dagon lekuan yarraitzerik be: zori txarretik zori txarrera alie egitea baño eztok arentzako lekua aldatzea; eta egunetik egunera a yauBiago, ezebezago dok. Ze itxarokizun dok ik, zugatz ero ta zedenak yanari deutsokala egonik? Etxagok *a* barriro zutuntzerik, ak etxok adiskiderik be. (Erregenoak lurrera izten dautso eskuetako kutxari: PISANI'k eragi dagi).

Etxagok ari eustekorik, aren irozogarririk.-Ik eztakik zer eragi dokan: baña artuik euretzako ire nekeen alderako: orrako ori r.euk egina dok, eta erregea eriotzatik bost bider yarei izan yok: biotzari laguntzeko etxoat ezagun ori baño zer oberik: tai, artuik, arren: ori nik geroago egingo dauskatan onaren bai baño eztok. Ire ugazabandereari bere arazoa zelan dagon esaiok; eure kitetik dalakotzat egik ori. Gogora egik ori egitekotan zelango aldakuntzea egiten dokan: or izango dok ire ugazabanáerea ondiño, eta, orrez ganera, nire semearen adiskide egingo az, ire on eginaz a eztok aztuko-ta. Erregeren aurrean ire aldeko

Izango nok, ak i euk zelan-gura gorago eragiteko. Nigazko barriz, ire ondo eginak ondo be ondo sarituko yoazat. Ots egiek nire emakumeai eta nire esanak ausmer egizak. (PISANI'k alde).

Gizon maltzur eta berean irautskoa auxe; eztago orri zirkinik eragiterik. Au bere ugazabaren bitarteko da, aren oroipena Imogene'ri bizi-bizirik eukiazoteko ta Imogene'ri bere senarrari zintzo izaten lagun egiteko. Nik emon izan dautsadan emaitzetik arean artu ba'dagi, laster geldituko da Imogene bere maiteaganako bitarteko barik, eta Imogene'k berak be artu bearko dau geroago edabe orretatik, bere buru--gogorkerian yarrai ba'dagi.

PISANI **aurrera sstera** fce **emakume andikiekin.**

Ori ondo, ori ondo;. ire egítekoa ondo be ondo egin dok: eroan nira gelara udabarrilorok eta lili ubelok.—Agur, Pisani, eta ez aztu nire itzak. (ERREGENOAk eta emakume an dikiak alde.

PISANI.—**Ez, eztodaz aztuko: baña nire ugazabari zintzo ezpa'nakio, neure burua itoko dot: ori *ia* zure alde egingo dodan guztia.** (Alde dagi).

VI AGERLEKU.-BIRITANDERRI. Errege-yauregiko beste gela.

IMOGENE **aurrera.**

IMOG.—**Aita . biotz-gogor eta amorieko ustel: gizon eroetarikoa maitemindu da ezkondurik nagon onekin, nire senarra erbesteraturik dodan emakume onekin; -ene! *u* bai ba-dala senar lango senar! nirs naigageen naigaba da a! eta nik agaitik yasaten doiazan lorrak! Zori ontsu nintzake ni, nire neba biak legetxe ostu izan ba' nindue! Baña gure gurarietan, gu goragoko garean eta zori txarragoko gara: apal eta zirtzilik zirtzilenak izan-arren, zori ontsu dira euren guraritxoak beterik ikusita nasai bizi dlranak. Nor ete dogu ezezagun au? Ul, ut!**

PISANI **ta** YAKIMU **aurrera.**

PISANI.—**Andera, Erroma'ko aitonen seme zindo au datortzu nire ugazabaren aldetik aren idazkiekaz.**

YAK.—**Zegaitik aldatu zure arpegi-margoak, andera? Lonatu laina onik dago, ta gorantzirik biotzetikoenak bidaltzen dautsaz zure goikotasunari.** (Idazkiak opatzen dautsaz).

IMOG.—**Eskerrik asko, yaun on; ondo etorria zauguz,**

YAK.—(Bere kitean). **Eder-eder da emakume onek agirian dauen oro: bere barruan, bere gogoan dauen oro orren bakan ba'da, au Arabi'ko txoria (2) bera da; eta nik galdurik dot nik egina. Adorea bekit lagun! Adore, iskilloz ornidu ta yantzi nagizu buruko ertzetik beatzetaraño! Ostantxean. arako Fartiarren antzera (3) igesiala burruka eragin; edo obeto, igesi utsa eiagin.**

IMOG.—(Irakurri dirakur). **"Gizonik zindoenetariko yatzu ori, ta orren txerai beartu--bearturik nago. Beraz, zure zintzo-zintzo au aintzakotzat nozun bestean orregazko yokatu egizu. Lonatu'k".** Onagiño besteak entzun al izateko eraz irakurri dot: baña enparauak biotza barru-barruraño berotzen daust eta eroan daroast nire pozerako.-Itzez iragarri al dodan bestean ondo etorria zauguz, yaun: eta olangotzat aurkituko nozu ni nik egin daikedan guztian.

YAK.—**Eskerrik asko, andera-ik lirainen orri. Burutik eginik dagoz gizonak, ala? Ez ete dautsez emon izantzeak gizonai begiak ortzeko makoa ikusteko, eta ortzeko zer borobil suzkoak itxas-baztarreko ondar zenbatu-ezinetatik berezteko? Eta ezin banandu ete dogu ederra zakarragandik olango betaurreko bikainez?**

IMOG.—**Zer da zu arritzen zauzana?**

(2) Arabi'ko txoria Poinitz txoriari eretxoen eta Arabi'n bizi zala uste eben antxiñaíekoak. Soñez arranoa añako ei zan, buruan kukutz txairo-txairoa ebalarik; bere egaki edo lumak urre-antzeko, gorri, naiz gorri-ilunak, eta buztanean.begi biziak ei ebazan. Laster ilgo zala igarten ebanean abarrezko abien bat egin eta bertan etzaten ei zan eguzki-kaldeak an iristu, erre, kiskali ta austu arte; baña aren auisetatik txori barririk sortzen ei zan.

(3) Partiarrak iñoz guduan igesi-bearrez aurkitzekotan, igesi-ala be atzetik erraikiazan arerioai iskilloz ekiten ei eutsen, geziak•eta yaurtinaz.

YAK.—Ezin izan leiteke begikorik ezer; eta izan be, matxangoai eurai be olango eme bi iminiko ba'litzakiez aurrean, batari, ederrari, txeratsu itz egingo leuskioe, eta besteari, itsusiari, yaramonik egin ez, edo-ta zipladaka ta surr-oska ezetsi, zapuztu; ezin izan leiteke ebazpenekorik be, eroak eurak be onango ereucm autespen zuzena legikie-ta: ezin izan leiteke leiatikorik be, eta izan be, lizunkeria onango garbiaren aurrean yarri ba'ledi, onango edertasun gurenez asetzeko gogorik iragarteka, barruan dauena bera be okadaka egotziko leuke.

IMOG.—Zer yazoten yatzu?

YAK.—Asebetea; asebeterik egon eta geiago gura izatea; usUi-ala beteten dan upelaren antzeko asebetea; artxoa yan eta bertatik ondakinez sabela bete gura leukean asebete asegea.

IMOG.—Zer diñozu, yaun? Zer dala-ta zure urteera ori? Ondo-ezik zagoz, ala?

YAK.—Eskerrik asko, andera; onik nagotzu ni. (PISANI'ri) Arren, yaun, lagun zakioz nire otseinari nik itxi dodan lekuan, a erbesteko uxo yatzu-ta.

PISANI.—Agana yoateko nintzan, yaun, ari ondo etorria emoteko. (Alde dagí).

IMOG.—Nire yauna onik ete dago? Osasun on ete dau, yaun?

YAK.—Osasun ona, andera.

IMOG.—Olgetako gogorik ete dau? Baietz uste dot.

YAK.—Gogoaídi ezin argiagoa dau ak; eztago an a bestean gogargi ta olgetazale dan erbestetarrik: Biritandar iskanbillatsu eresten dautsoe.

IMOG.—Emen zanean goibelti zan a; eta sarritan berak be ez ekian zegaitik.

YAK.—Bein be eztot ikusi a gotilun eta itun. Dirudianez, Pantze'ko neska maite dauen Pantzetar zaldun bikain bat dau ak laguntzat: Pantzetar ori beti dago bere maiteagaitik intzirika; zure yaun Biritandar poza dariola dagonak, ostera, barre itzalak egiten dauz eta onetara itz egiten dautso: "Ene! zelan ez egiteko nik barreka iztenak, gogoratuaz zelanizan leiteken gízonik edestiak diñonetik, entzun dauenetik eta berak ikusi izan dauenetik yakin emakumea zer dan, nai-ta-nai-ez zer dan, eta alan eta guzti be lokarri seguruagaitik ordurik onenak intzirika emoten dauzanaren lepotik?".

IMOG.—Nire yaunak olangorik esan dau, ala?

YAK.—Baí, andera: barrearen barrez begiak gorriturik. Ezta nasaialdi makala aren aldamenean egon eta ak Pantzetarrarl egiten dautsazan irri ta barreak entzutea. Baña, yainkoak lekuko diranez, olango gizonak ez dira ontzat artzeko.

IMOG.—Eztot uste nirs senarra olangorik danik.

YAK.—A ez, baña yainksaknndik Izan dauen eskuzabaltasunagazke izan leitekean *a* dan baño esker obeko. Ori agan astunik asko da, baña beste edozer baño andiago zatxakozan zuri erruki dautzut.

IMOG.—Zeri dautsazu erruki?

YAK.—Izaki biri dautset nik erruki be erruki.

IMOG.—Ni nozu biotarik bata ezta, yaun? Ni begiratzen nozu zuk; ze zori txar dakusazu nigan nire eiruki izateko?

YAK.—Au bai ba-dala negargarri! Ez ete da negargarri eguzki-argitatik ígesi ta bai. tegi ilunean argizagi-argiaz poztutea?

MIOG.—Arren, yaun, argiago erantzun egidazu. Zegaitik daustazu erruki?

YAK.—Beste batzuk gozatzen "dabelako zure... Baña olangoak zigortzea yainkoai dagokie, ez niri olangoetaz itz egiterik.

IMOG.—Zuk nire naiz nigazko zerbait ba-dakianarena dagizu: arren, iragarri egidazu zu ez esango bai esango zagozana; eta Izan be, sarritan zerak txarto yoango ete diranaren bildurra, txarto doazala ssguru yakitea bera baño kctltegarriago izaten da; eta zer seguruak edo arteztu-ezinak, edo, tertzioz yakitekotan, arteztu leitekezanak dira.

YAK.—Mosu ori al neu, nire ezpanak or murgiltzeko; esku ori a! neu.orren ukutuak, orren ukutu bakotxak, orren ukutuaz oartzen danari zmtzotasun-zina eragingo leuskiona; nire begi uxoen igikuneak benderatzen dauzan, benderatu ta or yosirik daukazan zer ori al neu; olangorik ba'neu, gizon gaiztetsi nintzateke Kapitoli'rako zurubia bestetan bider zapalduak izan diran ezpanez mun egingo ba'neuntse orrei; une oroko ustelkeriz gogortuak izan diran eskuz, ustelkeriz barik lanez gogortu izan ba' lira lez; eta gero nire begiak yosiko ba' neuz koipe ustelezko argi ketsuaren antzeko begi motel, zirtzil eta ilunetan, olango sakaikeriaren garera su-lezako izuiri guztiak etortea egoki litzake.

IMOG.—Ene yaun, nire senarra Biritanderri' az aztu ete dan bildur naz,

YAK.—Bai bere buruaz be. Barri au zuri emotera itzulia izan-arren, ni enozu eskekori dagokon aren aldakuntzea diragarrena; zure edertasunaren lilurak izan dira nire ya-

kinkidetia ixiletik nire miñera otercr dabenak.

IMOG.—Bego, ez egidazu esan geiagorik.

YAK.—Maite be maite ori! Zure zori txarretik nire biotzari datorkon errukiz gexotu egiten naz! Zu langO andera lirain-lerdena ta nagusienaren alabea, erregerik andiena dana langO bi egingo leukena emakume lizunakin kideturik, bardindurik ikusteak, eta emakume lizunok zure diru-kutxetatiko diruaz beragaz ordaindurik ikusiak, olangO Iizunkeriak edena bera be edendu egingo Ieuke! Oi'dea emoiozu ari; ostantxean zure ama eizan erregenorik, eta zuk zure sorburu anditik alde dagizu.

IMOG.—*Oriea* emon! zelan emoteko nik ari ordekorik? Au egia ba'da, -nire belairi biak be iraduz ziririk sartu bear eztautsoen biotza dot-eta-, orrako ori egia ba'ledi, zelan emoteko nik ordeazkorik ari?

YAK.—Dine'n yauparinoaren anlzera ízara otzen bitartean biziazoko ete niniuke, bera zu zapuztu tct ezetsiz etct zure diruz bein emagaldu bategaz bein bestegaz dabilen artean? Ordea emoiozu. Neu nagotzu gertu zure atsegin gozoetarako; zure oerako a ustela baño zindoago nozu: maite kutun, intsigi ta seguru izango natxatzu ni.

IMOG.—Ostera! Pisani!

YAK.—Nire otseintzearen agiritzat zure ezpanetan mun egiten itxi egidazu.

IMOG.—Alde emendikí-Gaiztstsi bediz nire belarriak onen luzaro yaramon dautzudalako.-Zu zindo ba'zintzaz, eralgi daustazun ipuina on-indarrez eralgi izango zeunstan, ez zure asnio zantar eta iñondikoetarako. Zuk irain dagiozu zu omenstik bestean zuk esanetik urrin dagon aiteneri semeari; zuk obenerako zirika daragoiozu zu txerrena bera bestean ezetsi tct zapuztuten zauzan andereari.-Eee! JPisani! Nire aita erregeri iragarriko dautsat zuk egin daustazun erasoa; ari eder ba'derebto erbestelar lotsabakok bere yauregian, Erroma'ko emagaldutegirik ba'Iitz lez, emakumek erostea, eta olangok niri bere abere-Ierak agiri-agirian iragartea, ak gitxi ardura dautson yauregia dau, eta begirapenik eztautson alabea. Eee! Pisani!

YAK.—Ire zori ontsu, Lonatu! esan neinke nik: ire andereak igan dauen sinismena ire uste onaren lain dok; eta ire ontasun osoa ire anderearen sinisgarri dok! Luzaro bizi-ko al zarie zorí ontsu! Errik beretzat euki Ieiken gizonik lainenaren emazte zara zu! eta zu, aren anderea, gizonik lainenarentzako zara egolci! Azketsi (parkatu) nagizu. Zure zíntzotasuna sustarrak emona danentz yakite-arren bakarrik esan dot esan dodana; eta zure yauna dana langotzat eukiko dot ostera ta ostera be: eta *a* era-merarik begikoenduna ia bere ingurukoak beragana liluratzen dauzan sorgina da; gizon guzlien biotzetik erdia ak bere dau.

IMOG.—Orain zorrak ordaintzen, okerrak arteztuten áaragoiozu, ezta?

YAK.—Goietaiik yatsiriko yainko ba'Iitz íez yezarten aa a gizonen artean: iikorrek baño omen anáiagoa dau ak. Etzakidaz izan asarre, errege-aiaba aitsu ori; guzurrezko barriak zelan artzen dozuzan ikusi gura izan dot, e-ía sure yokuciaeaz, zure ebazpide sentsuntsuaz argitan imini dozu beste orrenbeste egin zebaia a Iango yaun bakctna zutzako autu zebanean: ari dautsadan maitasunak buitzau nau zu zirikatzera; *ba*ña yainkoak iiesterekin egin eztaoena egin dabe zugaz: akarro bako gajazi egin zabez. Azketsi nagizu, arren,

IMOG.—Ondo dago, yaun; zure bediz nik yauregian dodazan eskuoideak.

YAK.—Eskerrik asko, apal-apalik. Ia ia aztu egin yat zuri beste eskaritxo bat egitea, eta orraitiño garrantzilsu da eskari QU, arazo onetan kide gareaiako, zure yaunari, neuri ta beste adiskide aitonen semeai dagokie--ta.

IMOG.—Arren, zer da bera?

YAK.—Amabi bat Erromarrek ela gure egoko lumarik ederrena dan zure yaunak. alkarrekin itunduta, Erroma'ko nagusienari esku-erakutsien bat erosteko eraoagia artu izan *áace;* eta nik, arein agindu ta izenez, orrako ori Pantze'n erosi dot; iñondiko egikerazko mai-ontzi saila yatzu, eta pitxi ederr-bikainak; diru-mordoa dira gei; eta erbestetar nozuiiazkero, tokí seguruan euki gura neunkez; zeuk gordeko ete zeunskidaz?

IMOG.—Gogoz be gogoz; eta euren segurantzearen alde neure omena iminten dot baitzat; zerotan nire yaunak zer-ikusirik ba--dauenazkero, neure lo-gelan yagongo dodaz.

YAK.—Kutxatzarrean dagoz, nire gizonak yagonda: gau onetarako bakarrik bidaliko dautzudaz, itxas-ontzia tiar artzeko naz-eta.

IMOG.—Olangorik ez, ez, ez.

YAK.—Bai, arren; nire atzera yoatea geroratuko ba'neu, nire itza yango neunke. Pantze'tik onako itxasoa beren-beregi zearkatu dot eta zu ikusteko agindua betete--arren bakarrik etorri naz.

IMOG.—**Eskerrik asko zure nekeen alderako: baña biar etzara yoango!**

YAK.—**Sne! bai, andera, biar yoan bear dot: orrazkero, arren, gogoko ba'yatzu, zerbait idatzi egiozu zure yaunari, eta arratseon idatzi be. Luzaroegi egon naz erhestean lendik be;** gtire esltu-ogiria **emotekoari emotoráu da.**

IMOG.—**Idatziko dautsat, Bidali egidazu zure kutxatzarra; seguru yagonda egongo da, ta zintzo-zintzo emongo yatzu atzera. Ondo be ondo etorria zauguz.** (Alde dagie).

íí hK :TALDI

I AGERLEKU.–BIRITANBERRI. KI JBELIN'en yauregi-aurreko arrazpel.

KOLTEN eta Andiki b'i **aurrera.**

KOL.—**Eguño gizonek eztau izan onango zori txarrik! Nire bolatxoa burrundadaka yaurtiteko nintzala, bitartean sartu da a kirtena ta gelci or" gedarregin izan daust! Eun esterlin libera neunkazan yokaturik (4): eta ori gitxi baMtz Iez, kirtentzarrak asarre ta agirika egin daust nire biraoakaitik; nire biraoak ari zorrean artuak ba'lira lez eta nik zsn:at-gura yaurtitsko eskubiderik ezpa'neu Iez.**

I AND-K.—**Zer irabazi dau ak egin dauenagaz? Zuk zure boleaz burua ausi dautsazu.**

II ANDIK.—(Bere kitean). **Yoak yoleak baño garaun geiago izan ezpa'Ieu, osorik atera euskion.**

KOL.—**Gizonek birao-urtika ekiteko gogorik dauenean, aldamenekoak eztahe eskubiderik ari galazoteko. Ez ete da olan?**

II ANDIK.—**Bai, ene yaun, olan da;** (Bere kitean) **olangoii entzuteko eskubiderik be eztabe.**

KOL.—**Sasikumea, alangoa!--Nik nire burua zuritu aren aurrean? Bai, níre mallako ba' litz.**

II ANDIK.—(Bere kitean) **a i langO ba'litzok, ero-sundea izateko.**

KOL.—**Munduko ezek enau geiago asarretzen. Izurriak eroango al dau! Ez al nintz nazan bestean aitonen sams; ez dira azartzen nikin burruka egiten, nire ama erregeno dalako; euren arteko zirtzilik zirtzilena be berak gura-aña burruka egiteko da, r.ik ostera or ibi'I biar dot batera ta bestera, burruka egiteko lagun-billa dabilen ollarra legetxe.**

II ANDX—(Bere kitecn). **I ollar az, izan, baña ollar irendu; ollarrenik eztok ik kukurrukua ta gangarraz besterik.**

KOL.—**Zer dere!::2tzue?**

I AN-IK.—**Ztxatzu egoki, zuri yaun orri. iraintzen dozun edozeinekin burruka egiterik.**

KOL.—**Ez, orl neuk be ba-dakit; baña niri egoki yat ni baño beragokoai irain egitea.**

II ANDIK.—**Bai, ori zuri, yaun orri bakarrik yatzu egoki.**

KOL.—**Ba! orixe diñot neuk be.**

I ANDTK.—**Entzun ete dozu erbestetarrik etarri dar.ik arratseon yauregira?**

KOL.—**.Erbestetarrik! eta nik ezer yakin ez?**

II ANDIK.—(Bere kitecn). **Au berau be iñondikorik asko da, beronek be eztakiala.**

I ANDIK.—**Italiarrik etorri da; eta uste danez Lonatu'n adiskidetaviko da.**

KOL.—**Lonatu! dollor erbestetua; eta orrako ori be ,dana dala, a langO baño ezta. Nok ernon dautzu erbestetar orren barri?**

I ANDIK.—**Zeure esku-mutiletarikok.**

KOL.—**Sgoki ete litzakit orrako ori iltusten yoatea? Olangorik eginaz ez ete dot eratsiko nire burua?**

I ANDIK.—**Zu ezin yatsi zeintekez, ene yaun,**

KOL.—**Ori ezta erraz, nire ustez.**

II AND'K.—(Bere kiíean). **I ero uts-arro az, orrazkero igandiko oro ero ta arro danazkero, ezin yatsi berago.**

KOL.—**Goazen; italiar ori ikusten noa, eta bola-yokoan galdu doduna arrats onetan**

(4) Gu euskotarron bola-yokoa ta Ingela,ndarrena ez dira bardinak. Guk bola bat erabílten dogu ta lur gorrian yokatzen dogu toki luzanga-bedarrean, oñean ol edo zur luzanga-bedarren bat lurrean sarturik, eta buruan zu'jila dagola, bolea aurrerago yoan eztadin, *eía* zubiletik ur iru-lau txirlo zutunik.

Ingelandarrak geien baten bedar motzaren ganean yokatzen dabe bola bat baño geiagogaz, bola bategaz besteak yotera; besteak yoteko erabilten dan bolea besteak ba*ño* txikitxoago izaten da ta orreri "jack" edo "bolatxo" deretxoe.

irabaziko doi. Goazen. (KOLTEN'ek eta I ANDIKIAK alde).

II ANDIK.—**Zure yarrai noa ni be.** (Bere kitean) **Andia *áa* orren ama lango txerren maltzurrek onango astakorik mundura bi-'daltzea! Bere zurlasun eia asma-bidez edozer aurrean daroan orren amak ogeitik bi kenduazkero amazortzi gelditzen dirala be eztakian eroa egin izan dau. Ene! Errege--alubeuren zori txarreko! yainkozko Imogene ori, suk bai yasaten dozula yasatekoa aure amordekoak bers eaanera darabilen zure aita, ta egunoro maltzurkeri barriak asmetan daragoion zure amordekoaren bitariean; eia orrez ganera, zu maite zauzana zure senar maitearen erbesteratze askarria ta zuri eragin gura dautzuen ezkontza-austea baño be gorrotagarriago yatzu! Yainkoak sendo eutsingo al dautse zure omenaren ormai, yausi eztadizan; eta zure gogoa, yauretxe deun ori, ikararik egiteka yagongo al dabe; zuk zutunik iraun dagizun, zure senar erbesteratua ta lurral <ie andi au gozatzeko!** (Alde dagi).

II AGERLEKa.-BIRITANDERRI. IMOGENE'n lo-gela; an nonbaiten kutxa.

IMOGENE **oean, irakurten; Emakume andiki laguntzat,**

IMOG.—**Nor dage or? Nire lagun Elene, ala?**
ELENE.—**Zer gura dozu,** andera?
IMOG.—**Ze ordu da?**
EIENE.—**Gaberii-inguru, andera.**
IMOG.—**Orrazkero, iru ordu egin dodaz irakurten: astun dodaz begiak; irakurtea itxi dodan lekuko orria tolestu egizu: zoaz oera; ez itzali argia, ixiturik dagola; eta goxeko iruretan aizarri al ba'zara, iratzarri nagizu, Loak artu nau oso osorik.** (ELENE'k alde). **Yainlcook, zuon ardurapean ízten dot nire burua! Gabazko maitagarri ta zirikatzeetatik yagon nagízue! arren!**

(Loak artu *dau.* YAKIMU urteten da kutxatzarretik).

YAK.—**Abestuten daragoioe txirritxirriak, eta gizonaren soin unatu-unatua atsedena artzen dago. Gure Tarkin zanak (5) onantxe bigun zapaltzen ebazan iiak, beralc muskklldu eban garbitasuna iratzarri-aurrelik.- Kiteretar ori (6), zure oegarri zara zu benetan! Lili gazte-mardul ori! eta zure izarak baño zuriago ori! Ukutu al ziniukedaz! Mun egin al ba'neuntso, muntxo bat beintzuti-Bardínbako errubi orreitako munak bai ba-Iitzatekezala gozo!-Orren arnasea da onan lurrun gozoz gela au beteten dauena. Argizaiaren garra andera orreganantza makurtzen da. eta orren betazalpea begiratu gura leuke euren barruko argiak ikusteko, orain estalgion azpian dagozanak, zuri-urdinak, urdinez eta ortzearen margoz ukutuak.- Baña nire asmoa gela onen ezaugarriak buruan artzea da: idatzi egingo dot dan dana: onango ta onango lrudiak; oi leioa; onango apaingarriak bere oekoak...: gelako ormen aurrean dlngilizka dagozan oial eskegiak, eta euretako irudiak onango ta onango; eta or margozturik dagozan ipuin-yazokuneak...,** *baáa* **bere soñeko ezaugarrí batzuk osteango uniur milla ezaugarri buño askozaz obe 11tzakez nire ipuina sinisgarri egiteko.** *Lo* **ori, eriotzearen irudi ori, astun eta motel ago. no orren gansan! Eta no orren oarmenok, yauretxean etzanik dagon oroigarriarenak langoxe izango al zarie! Urten, urten ortik** (Esku-muturr-estuna kendu egiten dautso); **Gordo'ko korapila (7) gaitz izan zan bestsan laban da au!... ueure du orain;**

(5) Tarkin dalako au Erromarren errege zan eta gau batez, lizunkeriak bultzauta, Lukertze andera andiki ezkonduarenera ixilka elduta, Lukertze, beronen gogoaz bestera, indarrez, laidotu ta orbandu egin eban. Lukertze, bere on-indarrai eskerrak, Erromarrak aintzakotzat eukí ta maíte-rnaite eben-eta, Tarkin'ek ari egindako iraina Erromarrak eurei egintzat artu ta Tarkin erbesteratu, bakalduntzea zuzitu ta Erkalgoa artu eben euren yaurtza-bidetzat.

(6) Kiteretarra emen Benuts maitasun-yainkonoaren beste izentzat dogu. Benuts edo Kiteretar ori soñez ederr-eder zan, gogoz ez eder, zantar baño.

(7) Gordium Asi Txiki'ko Galati erkiko uriburu zan beñola. An bizi zan bein Gordo bakalduna. Bakaldun onen gudu-burdíaren buriiguna buztarriari korapilo askaezin-askaezinez ei egoan lotuta. Ez ei zan agiri iñondik korapíllo-ugela ez non asten zan ez non amaitzen zan. Alesander Andiak korapillo ori askatzen astirik galtzeka, bere ezpateaz ebagi egin si eban.

eta zer enek azal-agirian yakinkidetzeak barru ezkutuan egiten dauen bestean egingo dau autortzea, no orren senarra zoratzeko. Ezkarreko bularrean, udabarri-lorealt ondoan dauzan gorri-unetxoen antzeko bost orañentxoz osoturiko orañena dau. Amen legek iñoz ekarri leiken bairik seguruena baño seguruagoa; ixilkizun onek sinistuazoko dautso nik gíitzea artu ta emakume onen omenaren alíxorraz yabetu nazala. Asko dtt. Zetarako idatzi guzti su, nire oroimenean giltzaz @ta untzez yosi-yosirik dagonazkero? Andera au Tereu'ren ipuina (8) irakurten egon izan da oraintsu; Pilomele'k men egiten dauela diñoan lekuan dagoz orriak tolestuta.-Bego, geiagorik eztot bear; noan atzera kutxatzarrera, eta itxi dagiian mollez. Arin, arin, gabeko irantsugeok, argiabarrak belearen begiak idigiazo dagizun! Lauorritan nago; or zeruko angerurik egon--arren, sulezea dogu emen. (Erloiuak yoten dau). **Bat, bi, iru,.., Tertzioa da, tertzioa da!** (Kutxatzarraren barrura sartzen da).

III OGERLEKU.–BIRÍTANDERRI. IMOGENE'n lo-gela-aurreko gela.

KOLTEN eta ANDIKIAK aurrera.

I ANDIK.—**Galtzen dozunean zu, yaun ori, gizonik epetsuena zara, eguño batekoa azpikoaz gora imini izan dauer.ik otzena.**

KOL,—Galtzea langorik sztago ni otz eta ardurabako egiteko.

I ANDIK.—**Baña ezta edouor epeteu zuk yaun orrek langO gogaldi zindorik izan-azkero. Irabazten dozunean izaten zara zu beroen eta asarreen.**

KOL.—Irabazteak edonor egiten dau adoretsu. Imogene ero au iritxi al ba'neu, urrerik asko neunkake, Ia ia goxa da, ez ete da?

I ANDIK.—**Eguna da, sne** yaun.

KOL.—**Rrako ereslariak al letoz: goxetan no orri eresia yoteko onua emon izan dausts; barruratuko yakola dirauste.**

Eres'ariak aurrera.

Tira; yo: zuon eresiaz eragingo al dauísazue; itzak bs abestuko doguz orretarako: eragin ezpa'dagio, dagola; baña edozelan be ni enaz geldituko etsita. Eresirik bikainenetariko bat yo lenen; gero, agoa zabalik iztekoetariko doñu eztien bat itz ederr--arrigarririk lagun dauela..., eta gero ausi-er egin dagiala.

ABISTI

Adi, adi! Iarratxoria zeru-atetan abesten,
Eta eguzkia yagiten,
Bere zaliiak loretako uretan
Eradateko arin egiten;
Eta eguzki-lorea asten da
Bere urre-begia idigitsn;
Lirain dan oroz, arran, arren,
Er.e andera e-ti, yagi;
Yagi, yagi!

Ederto, gizonak; zoaze. Onako onek eraso ba'dautso, ondo sarituko dot zuon eresia; ezpa'dautso, no orren belarriak gexorik dagoz; eta olangoren belarriak osatzeko ez dira gauz ez ereskinik onenak, ez mutil irenduren afcotsik **be.** (Ereslariak alde).

II ANDIK.—**Errege dator emen.**

KOL.—Pozik nago onen beranduraño yagita egon izan nazalako, orrexegaitik nago onen goiz yagirik-eta: ezina da erregek, aita da-

(8) Mitu-íztiak dirauskunez, Tereu dalako au Arets yainkoaren seme zan eta Elade'n Tebaitarrak eta Atenai'arrak alkarri guduan eragoienean, Atenai'ko Pandion bakaldunari lagun egin yakon. Esker ona erakustearren, Pandion'ek bere alaba Prokne emon eutson emaztetzat, eta ezkontza orretatik yaio zan Itis. Zori txarreko egunen baten Tereu Prokne'n aizta Pilomele'ri maitemindu yakon eta irritsaren irrí!sez bai indarrez izortu be egin eban Piiomele. Yazokune lotsagarri onen barririk Pilomele'k bere aizteari, ez besten emon al ez izateko, Tereu'k miña ebagi eutson Pilomele'ri, alperrik baña. Eta izan be, Pi lomele'k berak eundu ta apaindu eban eunean orratzez idatzi eban yazoa ta euna bere aizta Prokne'ri bidali. Prokne'k, asarrearen asarrez, Itis bere ta Tereu'ren semea txiki txiki egin, erre ta maira atera eutsan Tereu' ri yaki'zat. Orrazkero, aizta biak etxetik igesi egin eben, baña bidearen azkeneraño Tereu atzetik yarrai yoakela eldu baño len, yainkoen batek Tereu amilotxatu egin ei eban, Prokne urretxindortu ta Pilomele elaitu. "Tereu eta Prokne" izeneko ipuin bat 1578'gn. urtean argitaratu zan, eta Shakespeare'k ipuin ori irakurri ebala dirudi, emen Pilonele tere gogoz obenera makurturik agiri da-ta,

nez, bere alabeari egin dautsadan oiseintza au ontzat ez artzea.

KINBELIN eta ERREGENOA aurrera.

Egun on zuri, nagusien orri, ela n-ire arna maitagarriari.

KINBEL.—Emen gure alaba mukerraren atetan aren begira ago, ala? Etxok uiten gura, ala?

KOL.—Eresiz eraso dautsat, baña eztau iragarten eresiari yaramonik egin dautsanik.

KINBEL.—Barriegi dok bere kutunaren eriesteratzea; oraindik etxok aztu orrek a: luzarolxoago etxon egik bai, eta aren oroitzeak alie egingo yok orren burutik, eta orduan ire izango dok.

ERREGENO.—I zordun be zordun atxako erregeri, onek etxok alperrik galtzen ezetariko erarik iri bere alabea emoteko-ta. Eskabidea aldi egokian eta egokiz egiok; ezetzak artuago ía otseinago izan akio no orreri; ik no orreri egiten dautsazakan otseintzak yainkoak orretara bultzauia egiten dozakanarena egik; Orrek zer agindu, *a* egik, baña ez i ortik zear yoanda bera geldi izteko agintzen dauskanean, orretan gorrarena egin bear dok eta.

KOL.—Gorrarena egin! ez orixe.

GEZNARI aurrera.

GEZN.—Gogoko izango al yatzu, yaun; geznariak daiortzuz Erroma'tik; Kai Luki da bata.

KINBEL.—Aintzako gizon dok orrako ori. Orraitiño be ba-leiteke orain asmo asarrerik ekartea; baña olangorik izatekotan, ori ezta errudun: berori bidali dauenari dagokion omenez artu bear dogu ori: eta berorigazko, orrek egin izan dauskuzan on-eginak iragarri bear <dautsaguz.--Gure seme on ori, ik bein ire biotzeko maiteari eguncnak emonazkero, ator gure erregeno ta gugana; Erromar onegazko zereginen bat iri emonbearrez aurkituko gozak.-- Goazen, gure erregeno.

(Alde KINBELIN, ERREGENO, Andiki \a Geznariak)

KOL.—No ori yagi ta'da, itz egingo dautsat; yagi ezpa'da, ostera, etzanik eta amesetan bego.- Zure baimenaz (Atea yoten dau), es.,„ Ba-dakit no orren emakumek orrekin dagozana: zegaitik ez urrez igurtzi euretaiko baten eskuak? Urrea da biotzak beratu ta irabazten dauzana, aterik ítxienak zcibal--zahal egiten dauzana; sctrritan egin daroa olangorik; bai, eta Dine'n yagolak eurak ustelizen be ba-daki, eta eurak yagoten daben oreina lapurraren bcrrulira ekartsn dabe; eta urrea da gizon zindoa erail cta lapurra yareiten dauena; ori bai, batzuetan lapurra ta gizon zindoa biak eskegiten dauz: zer ez egiteko ta rnanatzeko urreakr No orren emakumeeíarik bat nire onulariizat artuko dot: zer egin bear dodan neuk be eztakit-eta. Zure eder etsiz (Ate-yoka daragoio).

EMAKUME andiki aurrera.

EMAKUME A.—Nor dago or ate-yoka?

KOL.—Ailonen seme.

EBAKUME A.~Ori baño ez?

KOL.—Bai, aitonen alabearen seme be bai.

EMAKUME A.—Zuk dozuna langO yostunik daueri edonok esan leí ori, Zer gurozu, yaun orrek?

KOL.—Zuon anderea: geriu ete dago?

EMAKUME A.—Bere lo-gelan yarraitzeko bai.

KOL.—Eutsi urre au; zure barri onak saldu egidazuz.

EMAKUME A.—Ostera! nire entzute on-gariia, ala? Ala zure barri onak emotekotan nik ontzat dodana esango dot? Errege-alaba!

IMOGENE aurrera.

KOL.—Egun on, lerdenen ori! Arreba, ekazu zure esku ezti ori.

IMOG.—Egun on, yaun. Buru austea bakarrik erosteko neks lar artzen dok: nik emoten dauskadazan eskerrak, eskerr-urri nazala eta emotekorik osta-osta dodala esatea izango dok,

KOL.—Eta orraitíño, zín dagit nik maiie zaudazala. .

IMOG.—Zinik egítoka estm izan ba'eunst, bardin yatan; oraindik be zin ba'dagik, bape eztaustala ardura esango dauskat saritzat.

KOL.—Ori ezta erantzuna.

IMOG.—Ni ixiiik egotekotan men dagidala esango ezpa'zeunke, eneuskizu itzik te egingo. Alde egizu, airen; sinis egidazu, zure era-merarik onenai eta labanenai be nik era-mera zakarrez erantzungo dautset. Zu langO gizon yakitunak beingoan aitu bear leuke ta alde egin.

KOL.—Oben negike zure eroaldian itxiko ba' zindudaz: etzaudaz itxiko.

IMOG.—Burutik eraginak ez dira ero.

KOL.—Erotzat nozu, ala?

IMOG.—Ni burutik egintzat ba'nozu bai: epe artu ba'dagizu. ni enaz izango burutik eginik; olan biok osatuko gara. Nire gogoaz besiera, yaun, anderari dagokozan eramera onak aztuazo egin daustazuz, bear baño geiago itz eraginik: eta orain bein betiko yakizu, nire biotza dazaudan onek biotz--biotzez dirautzudala zugaitik eztaustala ardura arean be; eta goimaitasunari uts dagiodala autortu bearrean imini nozu-ta, gorroto dautzudala esango dautzut; eta ori nik barik zeuk autortzea gurago neunkean.

KOL.—Zuk oben dagiozu zure aitari zor dautsazun esanekotasunari; errukizko ogiz eta yaki otzez. errege-yauregiko ondakinez azitako zirtzil-zatar arekin zuk egindako egiunea ezta egiunerik, ezta ezebe: zirtzilterian, yente zatarren artean, umeak eta eskekoak egiteko eurak asmauriko lokarriz alkargtma tzen dirunen artean zuok egin dozuen egiune ori zillegi ta sori ba'ledi be, eta zure laguna zirtzilik zirtzilena bario be zirtzilago izan-arren, zugazko besterik da, zuk eztozu olango eskubiderik, zu errege-burestunari loturik zagoz-eta; orregaitik, zuon arteko egiune dalako ori ezta egiunerik; eta eztozu loitu bear errege-burestunaren argitasuna yopu zirtzil-zatarregaz, oisein-yantziak erabilteko yaks dan zirtzil aregaz, zaldun--otsein izateko be zakarregi dan dollor aregaz.

IMOG.—Zakartzar ori! Yupiter'en serae ba' intz, eta orrez ganera orain aiana bario ez, zirtzilegi intzake i aren zaldi-zain izateko be: itzako ogibiderik goiko asko ta iri txibiz izateko be asko litzatekek, i aren on-indarren aldamenean iminiazkero, i aren aginterrian giza-eskegitzallearen ordeko izatea be; eta aínbestek gorroto leuskike 1 eurak baño gorago engokelako.

KOL.—Egoe-axeak ustelduko al dau a!

IMOG.—Ari etorri lekikion zorí txarrik andiena ík aren Izena aitatutea litzakek. Ak soñsan erabili izan dauen soñekorik zakarrena be maitagarriago ta begiragarriago yatak ik buruan dozakan ule guztiak baño, euretaiko bakotxa i langO gizon ba'litzok be,

PISANI aurrero.

Egun 021, Pisani!

KOL.—Aren saSekea! DenganiSoen dengani. ñoa...

IMOG.—Oa arin eta bertatik nlre lagun Derots'gana...

KOL.—Aren soñekoa!

IMOG.—Lauorritan nau ero onek; ikaratuta eta asarrerik asarreen. Oa, esaíok nire lagun emakumeari billatu dagiala oartzeka besotik galdu yaian pitxia; nire ugazabarena zan: nirearena Europa'ko erregerik andienaren etorrlekaítik galduko ba'neu be. Goiz onetan ikusi idodalakotan nago: seguru nago bart nire beagun egoala; mun egin neuntson; ez al da yoan izango nire yaunari esaten beraz besteri mun egin dautsadala.

PISANI.—Ezta galdu izango.

IMOG.—Uste orretan nago neu bes zoaz aren billa. (PISANI'k' alde).

KOL.—Zuk irain egin daustazu... Aren soñekorik zirtzilena?

IMOG.—Bai, orixe esan dat yaun: orregaitik auzitara eroan gura ba'nozu, dei egin autorleai.

KOL.—Zure aitarí iragarriko dautsat zer esan dozun.

IMOG.—Bai ta zure amari be: a da nire andera on: eta nigazko usterik okerrena sortuko yaka bere buruan, Orrazkero, emen izten zaudaz, yaun, zure gogoaz besteren, (Alde dagi).

KOL.—Bereak eta erdi artuko daviz: aren soñekorik zatarrena!... Tira *ba.* (Alde dagi).

IV AGERLEKU. ERROMA. PILARI'neko gela

POSTUMU ta PILARI aurrera,

POST.—Ez izan bildurrik, yaun: nire emazteak bere omena yagongo dauen bestean seguru al nengo erregeren biotza irabazteaz.

PIL.—Erregeaz zer egiteko asmo dozu?

POST.—Eztot ezetariko asmorik orretaz: aldiaz a aldatukoaren begira nago; oraingo negu onetan otz-ikaraz bizi eta eguraldi epelagoren begira nagotzu: ilxaro makal-mengelotan nazan artean zure maitasuna yat pozbide bakarra; nire itxaroak uts egin ba'dagiste, zuganako zor andiz ilgo naz.

PIL.—Nik egin daikedan guztia ondo ta ondoegi orriaintzen dauste zure ontasunak eta zure laguntzeak berak. Onazkero zure erregek ba-dau Augustu andiaren barririk: eta

nire ustez ak ©rdainduka dau zergea Iendik zor dauzanakaz batera, edo ostantxean aik emondako *naizaçiea* oraindik aren oroitzean bizi-bizi dauen Erromarrakin aurrez-aurre aurkitu bearko dau.

POST.—Ni erriketalaririk izan ez, eta izaterik be gogoko izan ez-arren, ortik gudua sortuko dala uste dot nik; eta ezetariko zergarik ordaindu dala guk entzun baño len yakingo dozu orain Gallia'n diran gudaritaldeak gure Biritanderri hildur bakoan legorreratu dirala, Gurs aberkideak erain gertuago ta eratuagorik dagoz Yuli Kaisar'ek arein baldarkeriari irribarre eginarren, arein adoreak *arí* betozkoa okertuazo eutsoenean baño: orain aik adoreagaz batera daben ezipenak, adore ta ezipenok zelango diran ikusi gura dabenai argi erakutsiko dautse aldiaz gure erritarrak zelango obakuntza izan daben.

PIL—Ara! Yakimu!

YAKIMU aurrera.

POST.—Oreinik bizkorrenak erabili izan aue i legorrez; eta alderdi guztietatiko axerik arinenak mun egin izan yautsiek ire itxas--ontziaren zapiai, ire ontzia bizkortzeko,

PIL.—On/Jo etorria, yaun.

POST.—Ik an izan dokan erantzun laburrak ekarri au i orren arin, nire ustez.

YAK.—Ire anderea nik eguño ikusi dodazanetatik lerdenenetaiko dok.

POST.—Eta, beraz, onena; edo-ta leioa zear eralrutsi yok bere edertasuna biotz ustelak liluratu, ta liluratuai ziri ederrik sartzeko.

YAK.—Amen zutzako idazki bat,

POST.—Berak dakarrena ona, eztok?

YAK,—Ba-leitekek.

PIL.—Kai Luki Biritanderri'ko errege-yauregiun zoan i an intzanean, ala?

YAK.—iiren begira egozan an, egon, baña oraindik e'tzeko zan.

POST.—Bein-beinean dana dago ondo... Pitxi onek len bestean argi egiten ets yok? Ala motelegitzat dok ik eraiilteko?

YAK.—Galdu izan ba'yoat, ori gei dan beste urre ordaindu bearko yoat. Nik Biritanderri'n egindako gau laburra bestean gau gozorik barriro egit3-arrer, arakoa ta beste ainbeste bide egingo neunke; izan be, erestuna irabazi dot.

POST.—Onen arria gogorregi dok orren arin beratzeko.

YAK.—Bai, zera! Ausi-erraz dok ire emaztea.

P03T.—Yaun, ire galtzeaz ez egik txantxetarik: nire ustez aurrerantzean ezkozak izango alkarren adiskide.

YAK.—Yaun on, izan bear yoagu, ik egiunea iruntsi ezik. Ire emaztea aragiz ezagutu dodanaren barririk ekarri ezpa'neunskik, egiunearen arauz burrukara yo bearko giñoan: buña orain no aren orr.enaien irabazla ta ire erestunarsn irabazla be ba-nazala dautortanazksro, etxagok olangorik; eta aren eto ire gogoaren arauz ibiii uan nazanazkero, ez ari ez iri, batari be eztautzuet okerrik egin.

POST.—Erakutsi al ba'dagik no a oean gozatu dokala, nire eskuu tci erestuna biak dozak ire: olangorik ezin ba'dok, ostera, ik agazko izan dokan uste ustelak irabazi, naiz galtzen yok nire edo ire ezpatea, edo-ta biak geldituko dozak yabe barik, idoro dagizanarentzat.

YAK.—Yaun, erakutsiko dautzudanez, nire zertzeladak onen zeatz eta sinistuazotekoak círanazkero. sinistuazo egingo dautzue lenen: zertzeladok erakusten daber.a egitzat etsi dagizun, euien eurenezko indarrari nire zina erantsiko dautsat sendogarritzat; eta eztot ezpairik zin egiten eztaustazula itxiko orretarako bearrik eztagola zeuk ikusi dagizunean.

POST.—Aurrera, aurrera.

YAK.—Lenen, arsn lo-gelea..., ba-dautort, lorik eneban egin an; bañu autor dautort atzarrik an egotea atzarrik egotegarri izan zala. Lo-gelea seda ta zidarrezko oial dincjilíz atondutu daçjola,- oial dingilietako ipuina Kelopatere (9) arroarena, Erromarrakin trikitx egin ebanarena. Kidnu ibaia ibui--ertzen ganetik ganaz eginda agiri da, ontziak sakatzen dabelako, naiz arrokeriz: erti-lan ori ain bikain eta ederto dago eglnik-eta, trebetasuna ia aberastasuna alkarren leiaz dabiltz an; alango lan bakan eta zeatzik zelan egin leitekean sinistu-ezinik arriturik gelditu nintzan, zer bizi dirudi-ta.

POST.—Egia da ori; baña zuk ori entzun egin zeinkean neugandik, naiz besteren bategandik,

(9) Kelopatere (Kleopatra) au Aigitu'ko erregeno ospa'su izana da. Erregeno onek maiterik asko iz^an eban eta euren arteko izan ziran Yuli Kaisar eta batez be Marka Andoni Erroma'ko nagusiak. Emakume au zala-ta galdu ebazan bere agintaritzea ta bere burua Marka Andoni'k.

YAK.—Zsrtzelada geiagok egin bear dabs sinisgarri nik diñodana.

POST.—Bai, ori egin bearko yoek, ostean ire izen onari min egingo dautsak.

YAK.—Ke-zuloa lo-gelako egoe-aláera dago; eta ke-zulo ganeko irudian Dine garbia agiri da bere soña ikuzten: eguño eztot ikusi izan nik lauko atakoak baño irudi egiantzekoagoyk: a egin ebana bere ganoran izadi berberaren neurriko izan zan, bañа izkx Ak Dine dan baño be ederrago egin eban, igikunerik eta arnasarik ezagaitik ezpa'litz,

POST.—Ori be bestek esanez biribildu zeinkean zuk; dalako dala, orretaz itzik asko egiten da-ta.

YAK.—Lo-gelako goia, sapaia, urrezko kerubez dago apcrindurik; aztuta nebazan, aren lo-gelako su-burdiñak ziiarrezko Kupida kiñulori bi ziran, alde banatan, eta zango banaren ganean, egurrai polito eusten eutsela.

POST.—Ori da aren omena, ala? Dctgigun orrako guzti ori ikusi dozula, eta goratua bedi zure oroimena; aren lo-gelea zelango dan eta an zar dagon esateaz eztozu irabazten zuk yokatua.

YAK.—(E'sku-muturr-estuna atera-cilci) Orrazkero, al ba'dozu, zurbildu zadiz; pitxi au zuri arakusten iixi egidazu. Begiraí... nire da orain. Zure ikatz-arriagaz ezkondxi bear dogu au; neuk euki gura dodaz tiak.

POST.—Yupiter-arren!,,. Beín barriro ikusten itxi egidazu: neuk ari emon neuntscma ete da, gero?

YAK.—-Berbera, yaun, eta pozik nago; no ak bere esku-muturretik erantzi eban; ikusi dakust a oraindik nire begien aurrean; aren emokera liraina emona bera baño be zoragarriago izan zan, eta biie batez emaitza ederragotu egin eban neutzako emon eustan, eta bein aintzakotzat ebala esan eustan.

POST.—Ba-leileke ak ori esku-muturretik niri bidaltzeko kentzea.

YAK.—Olangorik ba-tíirautzu, ala? Bai ete?

POST.—Ez, olangorik ez, olangorik eztiño! egia da. Autso, artuik au be (Erestuna damotso); sugegorri yatak au, *cm* begiratzeak berak il egiten naiok. Ez al da egongo omenik edertaauna dagon lekuan; ez egirik, egi-antza dagon lekuan; ez benetako maitasunik beste gizonik dagon lekutin; emakumeen zinak ez al dabe iñor lotuko, zinak laguntzat on-indarrik ezpa'dabe; eta eztago on-indarrik euretan. Onangorik! neurriz gorako ustel ori!

PIL.—Epe ar egik, yaun, eta barriro ar egik eresiuua; orciindik etxok írabazi orrek: nok yakik aren emakumeetatikoen batek. diruz erosita, ire andereari ostu izan dautsanentz?

POST.—Egia da; eta orren eskuetara olan eldu dalakotan nago. Ekak atzera erestun orij nire emaziearen soñagazko ezaugarriren bat emoidak, au baño agiriagoen bctt; au ostu egin yok norbaitek-eta.

YAK.—Yupiter-arren, nik aren besotik iritxi naioan.

POST.—Entzun, onek zin dagi; Yupiter-arren zin tlagi onek. Egia da.:.. baí, eukik erestun ori..., egia dok; seguru nago ak ez ebala galduko: zintzo dira aren lagunak; zelan ostuko aik, erbestetarri emoteko? --Ez, orrek arekin pozartu ta gozartu dau: ori da ak izen ona galduaren ezaugarri; orrenbestetan erosi dau ak emagaldu-izena. Autso, artuik ire saria; eta su-lezako txerren guztiak banandu dadizala zuon bion artean!

PIL.-~Yaun, epe ar egizu, Agiri ori ezta asko emakume aren zintzotasunaz orren etsita egon izan danari sinistuazoteko.

POST.—Geiago ez egidazu aitatu be arazo ori; benderatu ta gozatu dau orrek a.

YAK.—Argitasun geiagorik gura ba'dozu, sakagarri dan aren bularraren azpian, toki ain bigun eta samurrean aurkitzeaz arro be arro dagon orañen bat dago: nire biziarren, ari mun egina nozu; eta iendik aserík egon-arren, ostera be yateko gosea emon eustan, Gogoan ete dozu aren soñeko orban ori?

POST.—Bai, ela orban orrek, beraz besterik ezpa'lego be, su-lezea bete-beteko leukean beste orban bat dakast gogora.

YAK.—Geiagorik entzun gura dozu, ala?

POST.—Ez egik aitatu geiagorik; ez egidak s»fln zenbat aldiz arekin aragiz batu azan, Bein batu izana milloi bider batu izana legetxe yatak niri!

YAK.—Zin egiten yoat,..

POST.—Ez egik zinik. Zinik ba'dagik, ik eztok irabazi a. guzurra diñok; kukuarena egin daustak ik.

YAK.—Nik etxoat ezer ukatuko.

POST.—Ene! emen al neu nik a; txiki-txiki. tu, zeatu egingo neunke! Ara yoango naz ori egiteko; errege-yauregira; bere aitaren aurrean egingo dot; zerbait egin bear doL (Alde dagi).

PIL.—Epea galdurik, etsita daçjo! irabazi dok ik: goazen aren yarrai, eta beste biierik ©mon dagiogun bere buruaren aurkako aren asarre gorriari.

YAK.—Biotz-biotzez. (Alde dagie).

V AGEBLEKU.-ERROMA, PILARI'neko beste gela,

POSTUMU aurrera.

POST.—Ez et® dago gizonak egiteko beste biderik, gizonaren erdikinaren egille emakumerik izateka? Guztiok gara sasikume; niri giza-irudia ezarri eustenean nik eztakít nón zan nik níre aitatzat neban *a* gizon begiragarri-begiragarria; bere lankiz irudiginen batek eçin nindun ni enazanaren antzeko: eta orraitiño nire ama aldi atan D'ne'n antzeko zan: nire emaztea be aldiotako emakumerik zindo ta zintzoenetarikotzat dago... Onangorik! apena artu bear dot, ordea emon bear dautsat; bai, ordea emon bear dautsat!... Ni nire legezko atseginetatik aldendu nindun ak, eta, arren, epe artzeko eskatzen eustan: eta ori eskatzen eustanean larrosa-antzeko lotsortasunaz, bere liluraz Saturna zarra bera be berotuko leukeanaz eskatzen eustan; eta nik a eguzkiak ukutu bako edurra bestean garfcitzat netan… Onangorik! Txerren guztiak... laruena dauena baño bellegiago dan Yakimu orrek ordu baten, edo gitxiagotan... bertatik?... Eear ba'da, itzik be eztautso egin, eta Germanitar apo ezkurrsz betearen antzera urrume egin eta ganera yoan yako; eta eztau aurkitu orretarako beste eragozpenik, bere burua emoteko gertu dagon emakumearen aldetiko mukerr-irudiaz bestsrik. Nire soñean zer dan emakumegandiko al r.enki! eta izan be, seguru nago soñean eztagola okerreko bíderik artzekorik ezer emakumegandik datorrenaz besterik: gizonak guzurrik ba'diño, emakumegandiko dau ori; zurikeririk ba'dau, emakumegandiko dau; iñor iruzur ba'dagi, emakumegandiko dau; lizunkeririk eta gogaksta zantarrik, emakumegandiko; ordea emon-gurarik ba'dau, emakumegandiko yako ori fce; geiagokeririk, txibizkeririk, arrokeri-aldatzerik, zapuzkeririk, lirainzalekeririk, iñor baltzitueririk, aldakorkeririk, izenik dauen eta su-lezeak berak bakarrik daltian beste akatzik ba'dago, osorik, naiz euren atalen bat beintzat, emakumegandiko da: atalen bat? Ez, osorík; eta izan be, gaiztakerietan euretan be emakumek aldakor yatzuz; gaiztakeritik gaiztakerira doatzuz; lengoak minuto bat iraun baño len bestera yoten dau tzue emakumek. Emakumeen aurka idatzi bear dot, iguindu egin bear dodaz, fciraoka erabili... Baña arei gorroto izaterik onona eursn naikeri guztiak b'ete dadizala gura izatea da. Txerrenak eurak be eleukie asmauko emakumeen aurka ori baño lor eta elorrio andiagorik. (Alcle dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-BIKITANDERRI. KINBELIN'en yauregiko erri-arazo gela.

Alde batetik KINBELIN, ERREGENOA, KOLTEN, eta ANDIKIAK aurrera; bestetik KAI LUKI eta aren yarraigokoak aurrera.

KINBEL.—Esaiguzu orain, zer gura dau Kaisar Augusta'k gure aldetik?

LUKI.—Oraindik aren oroitea gizonen begietan bizi, ta belarri-miñentzat fcetiko gei izango dan YuU Kaisar Biritanderri'ratu ta benderatu ebanean, zure osaba Kasibelan'ek, bere egite gallenai egokiene2 Kaisar'ek ain goratu ta taalotu ebanak, bere izenez eta bere ondorengoenez, Erroma'ri urtsro iru milla liberako zergea ordainduko eutsoela agindu eban; eta zuk azkenengo urteotan ordaintzeka dozu orrako zerga ori.

ERREGENO.—Eta arritu baño eztozu, baña guk iñoz be eztogu ordainduko.

KOL.—Yuli zana lango Xaisar'ik ezta Cigertuko beingoan Erroma'n. Biritanderri mundu berezi da ta bere buruaren yabe; eta guk eztogu ezer ordainduko arnasea artzeko surrik dogun artean.

ERREGENO.—Aik guri kentzeko izan eben eretia bera dogu guk orain geurea barriro artzeko... Gogora egizuz, yaun, nive nagusi orrek, zure arbaso erregeak; baita gogora egizu izarotarron eurenezko adorea be; izaro au emen dago Netun'en bciio ba'

litz lez aitz iñok igon-ezinez eta ur orroalariz, saietsez eta esiz lez inguraturik; bertoko ondarrak eztabe yasan gura euren bizkar-ganean «rerioen ontzirik-eta, etorri-ala íruntsi egiten dabez euren aga nausien tontorreraño. Zerbaitariko benderatzerik egin eban emen Kaísar'ek; baña emen ez ebazan esan arako arroputz-itzak: "Eldu nintzan", eta "Ikusi nebazan", eta "benderatu nebazan": eguño lenen artu izan eban lotsariz birritan uxatu eben gure itxas-ertzetik, birritan garaitu eben; eta aren itxas--ontziak..., gaxoak, ez ekien nora etozan!... aren itxas-ontziak, itxaso bildurgarriotara etorrita, ur-ganean arrautza-mokolak legetxe batera ta bestera ibilirik, erraz arrakaldu ziran atxakaz tupust eginda: garaite ciu gogoratzeko, bein Kaisar'en ezpateaz yabetu-aginik egon izan zan Kasibelan ospatsuak Lud (10) urian suak egin ebazan poza iragarteko, eta Biritanderritarrak euren adorea iragarteko arro ibili ziran lerroka uri atako etxartebideak zear.

KOL.—Tira, ezkoaz zergarik geiago ordaintzen: gure bakalderria orduko aldean ssndo da; eta, esan dodanez, arrazkero eztago alango Kaisar'ik: arez bestak be izan lei sur okerrlk; baña arena langO beso artezik ez batek be.

KINBEL.—Seme, .it-iok ire amari amaitzen.

KOL.—Oraindik gurs artean Kasibelan'ek bestean gogor egitekorik asko dago: eztiñot nik ni orrstaikorik nazanik; baña neuk be ba-dot eskurik. Zergaitik ordaindu zergarik? Zer dala-ta ordaindu bear dogu zergarik? Kaisar'ek artillezko estalgiz eguzkia ostondu <ú ba'legi, guri argirik egin eztagiskun, rraiz iretargia bere sakelean sartu, argi-zergea ordaínduko geunskio; ostantxean, yaun, ez aitatu emen zergarik, arren.

KINBEL.—Zuk yakin bear dozuna da, Erromar kaltegarriak guri indarrez zergea ordainduazo arteño, gu azke, geure esku gintzazala: ia munduari saietsak zabalduazoteraño arrotu zan Kaisar'en geiagokeriak, orretarako ezetariko bide barik, guri buztarria ezarri euskula gure iiuneaní eta gu langO errí adoretsu-burrukariari buztarri ori aztindu ta egoztea dagoko.

KOL.—Bai, orixe dagoku.

KINBEL.—Orrazkero, esaiozu Kaisar'erí, guri legeak emon euskuzana gure arbaso Mulmuli Izan zala, eta aren legeak erabi'tea Kaisar'en ezpatsak luzaroegi galazo ta lorrindu dauskula; eta gure egikizuna, dogun indarrez aik legeak indar-barritu ta leneratzea Izango dala, orregaz Erroma asarratuko ba'dogu be: Mu'.muti'k egin ebazan gure Iegeak, eta a izan zan Biritanderri'n eguño lenengoz bere burua urrezko buruntzaz apaindu ta errege deitu ebana.

LUKI.—Tamal dot, damu -dot, Kinbelin, Augusta Kaisar aitatu bearragaitik, zuk gudalburutan baño ak otseintzat errege geiago dauzan Kaisar zure areriotzat aitatu bearragaitik: orrazkero, au yakizu nigandik... Kaisar'en izenez guJu ta nasteari dei egiten dautset zure aurka: ezin esituko dozun asarre biziaren begira zagoz. Euparlea onan yaurtinik, nire aldetik eskerrak damotzudaz.

KINBEL.—Ondo etorria zauguz zu, Luki. Zure Kaisar izan zan ni zaldundu ninduna; nire gaztearorik geiena aren otseintzan igaro neban: Omena iritxi neban agandik: eta orain ak berak emona kendu gura daustanazkero, nik, nai-ta-nai-ez, gogor egin bear dot, Ondo dakit nik orain Panonitarrak eta Dalmatiarrak, iskilloak eskuetan dabezala, burrukan daragoioela euren buru ta esku izate-arren. Olango irakastetik ezer ikasiko ezpa'gendu, ' Biritandarrak oztzat eukiko gindukiez, eta Kaisar'ek ezkauz olan otzik idoroko.

LUKL—Tflgiteak begie itz, ez itz utsak.

KOL.—Ondo-etorria damotzu gure erregek. Gurean gelditu ta astia emoizu egun baten, bitan, naiz luzaroago; geroago tn beste gogalditan blllatu gura ba'gozuz, emen idoroko gozuz ur gazizko esi onen barruant garaitu ta emendik egotzi ba'gagizuz, Izaro au zure izango da: galdu-gordeko ekinean yausi ba'zadiz, gure sai eta ok3la-belak pozago izango dira zugaz bazkalduta. Au yatzu esan bear izan dodana.

LUKI.—Olan bedi.

KINBEL.—Ba-dakizu zure ugazabaren gogoa, eta bai nirea be, Basterik eztot esateko, zu ondo etorria zareala baño. (Alde dagie).

(10) London'en beñolako izena yatzu Lud, eta izen ori ango beñolako bakaldun Lud' etik etorri yakon.

II AGEHLEKU.-BIRITANDEHHL Errege-yaureglko beste *qela.*

PISANI aurrera Idazkiaz,

PISANI.—Ostera! ezkonlza-kutsaketa dogula? Zegaitik eztozu idatzi nor dan olango salakunlzea egin dauen biduizia?... Lonatu! ene ugazaba ori! ze iñondiko izurri sartu yatzu belarrietara! ze Italiar. miñez eta eskuz edentsulc benderatu dau zure entzumen sinisperegia?.... Ustel! Ez; andera au beronen zintzotasunagaitik dago zigortuta: illcorri bnño yainkori obeto legokion adorez gogor egin izan dautse beste edonoren on-indarrak benderatuko leukiezan erasoai... Níre ugazaba orí! andera onentzako zure gogo ona orain, len zure ondasunak ziran bestean urri da. Onangorik! Neuk erail bear dodala andera au? Zuri dautzudan maitasun, zintzotasun eta zure aginduz nik egin izan dodazan zinak-arren? Nik? Andera au?... Andera onen odolik ixuri? Olangorik egitea otseintza onaren egitetzat ba' dozu, gaurdanik ara ez al nozu otsein ontzat etsiko, Zeren antz ete dot nik arpegian, niri egite au eragiterañoko biotz-gogorren, biotz bakoren antzik izateko? (Irakurri-ala) "Egik: Imogene'ri bidali dautsadan idazkiak, Imogene berberaren aginduz emongo dauska orretarako eretia":... Papel askarri ori! eure ganeko idazkura bestaan baltz az i! aletz sentzun bako ori, egite onetarako i be kide izan, eta azalez orren erru bako antza dok? Ara! emen dator bera. Gogoratu be eztot egin gura aginiu izan yatana.

ÍMOGENE aurrera.

IMOG.—Kaxo, Pisani!

PISANI.—Andera, nire ugazabagandiko idazkirik ba-dozu emen.

IMOG,—Nogandiko? Ire yaunagandiko, ala? Agandikorik ba'dolt, nire yaunagandiko be ba-dok... Lonaíu'na, ala? Ene! yakintsu litzatekek nik Lonatu'n idazkerea dazagudan aña ondo izarrak lezagukezan izarlaria; alangok etorkizuna agirian iminiko leuskigu.-Yainko onok, idazki onek dakarrenak maitasun-sundea, nire yaunaren osasunarena, aren pozarena, -baña ez a ta ni alkarregandik bananduta gagozalako-, izango al dau, eta onantzengo zer onek naibagerik emongo *a*\ dautso; naíbage batzuk osasungarri dira; eta orrako ori orreitariko da, orretaiko naibageak maitasuna osatu egiten dau-ta: orretan ez, beste edozetan aren poz-nasaitasunaren sundarik al dakar idazkiak! -Argizai on ori, ire baimenaz; onetsiak zuok, erlok, onango ixilkizunen lokarriak egiten dozuszalako! Maitaleak eta zor-agiri galbidetsuak izenpetu dabezanak ez dira asmo bereko: ik baitegira bidaltzen dozak ordaintzen eztabenak, baña maiteak euren idazkiak ikurraztuteko be gauz az. Barri onik al dakar, yainkook! (Irakurri dirakur) "Zure aitak bere bakalderrian goatuko ba'nindu, aren zuzentzea ta asarrea elitzakidaz gogor zu, izakirik maitagarrien ori, niri bizi barria emoteko, zure begiakaz begiratzelto ez etortekotan bestean. Yakizu ni Cambria'n nagola, Milford-Haven'en (1,1): zure maitasunak burura lekarkizuna egizu ereti onetan. Zuri aginduari zintzo natxakon onek zori ona opa dautzu, eta zure maitasuna geroago ta andiago izango al da. LO. NATU POSTUMU'k".

Egoiun zaldirik al neu!.,. Entzun dok, Pisani? Milford-Haven'en yagok a: irakurrik, eta esaidak zeinbat bide dagon ara. Arazo zirtzilek ara astebetean iñor eroan al ba' yok, zegaitik ez nik ara egun baten zlrrist egin?... Orrazkero, Pisani zintzo, eu be, ni legetxe, ire ugazaba ikusleko luze eretxita ago-ta; luze eretxita ago-ta... apur bat eratsi ta gitxitu dagidan... ez ni bestean luze eretxita; baña orraitiño be luze eretxita ago, ni bestean izan ez-arren: ene! ez ni bestean, ni neurri barik nago luze eretxirik-eta, esaidak, eta arin esan be, (eta izan be, maitasunaren onulariak itz-umtuz

(11) Kambria dalako au oraingo Wales erriaren beñolako izena yatzu, baña ez euren izkuntzako izena, Erromarrak ezarria baño. Biritanderri Andi deretxon erria iru errik osotuten dabe: Ingelanda, Eskolanda ta Wales'ek; azkenengo au Ingelanda'ren erdirantza aurkitzen da eguzki-sarreratik, bitartean itxas-adarra dala, eguzki-sarrerarago Eira erria dala. Wales'ko itxas-ertzean aurkitzen da emen aitatzen dan Milford-Haven itxas--ate edo kaia.

belarriak bete ta oarmena sogortu egin bear leukeV zeinbat bide yagok emendik Milford zori ontsu orretara? Eta, bide batez, esaidak zelan egin izan dan Wales orren zori ontsu olango itxas-aterik yarauntsiz izaieko; *bañci*, beínen, zelan alde egin geinke ixilka emendik; eta zelan zurituko doguzan gure buruak emendik alde egin eta atzera etorri arterañoko aldiaz. Baña lenen, zelan alde egingo emendik: zelan zuritzeko gurs buruak orretaz? Geroago itz egingo dogu orretaz. Itz egik, arren, ordu bakotxeko zeinbat milla (12) egin leitekez ondo, zaldiz?

PISANI.—Eguzkiiik eguzkira ogei milla, andera, zutzako asko ta geiegi be ba-da.

IMOG.—Ba! gizon, eslcegitera daroena be elitzake itiliko orren astiro; entzunda daukat nik zaldizkoen nor-geíagoketan zaldiak oniarr-erloiuetako ondarrak baño arinago egin izan dabela; baña au astia uskerietan emote utsa da: zoaz eta gexoarena egin dagiala esaiozu nire emakumeari; eta bere etxera-gogoa iragarri dagiala: eta zaldiz i'cilteko soñekoren bat arteztu egidazu, gure baserritarrena bailo txairoagorik izango eztana.

PISANI.—Andera, arazo ori ondo oldoztu egizu.

IM3G.—Gizon, nik eztakusi ezer ez aurrean, ez atzean, ez alboetan, ezta aragotik zer letorkeanik be, bitarteko lañoak ikusten ga-Iszo egiten daust-eta. clde dagigun, arren; neuk agintzen dautzudana egizu: eztot nik beste esatekorik; nik dakusadan bide bakarra Mi ford'erakoa da. (Alde dagie),

III AGERLEKU.~WALES. Toki menditsuan Artzu.o.

BELARI, GIDERI, ta ARBIRAGA aurrera.

BEL.—Au bai eguraldi ederra gurea langO etxe zapa'eiik landa ibilteko! makurtu, mutillak: ataka onek irakaeten dautzue zelan yauretsi yainkoak, eta goxeko egikizun gurena egiteko burua makurtuazoten dautzue: erregeen ateak ateburuko makoak goi-goian dabez-eta, gizatzarrak egin leikie bidea eurak zear euren txapel yainko-lotsa bakoak aldean dabezala, eguzkiari egun-onik emoteka... Agur! gora! ortze eder ori! atxa da gure etxea, eta orraitiño gu ez gaíxatzuz etxe arroagoetan bizi diranak arro diran bestaan gogor.

GIDERI.—Gora, yainkook!

ARB.—Gora, yainkook!

BEL.—Goazen orain mendietako yolasera: igon ara aragoko mendira, zuok zango gazteak dozuez-eta; toki lauok zapalduko dodaz nik. Gogoratu, zuok andik goitsgitik belearen neurriko nakusazuenean, tokia dala gizona txikertu naiz azten dauena: eta an barriztau ta erabili daikezuez zuon buruetan nik yauregi errege-seme, ta guduetako marroetaz esan izan dautzuedazan ipuinak: dagizun otseintzea ezta otseintzarik zuk egin izan dozulako, aintzakotzat artzen dabelako baño: onan gogoratuazkero, edozetatik atera geinke onurarik; etct sarritan, gure nasaitasunerako. kakarraldo ego-koskolduna arrano ego-andia baño seguraago bizi dala aurkituko dogu; mundu onetan ba-da zer lainagorik iñoren aginduak artzen buru-makur yoatea baño; uskeriren alderako ezer egiteka egotea baño aberatsagorik, zorrean eiositako sedatan "zirin zirin" iiiltea baño arroagorik: saldu dautzuenaren betozko ilunik ikusi ez-arren, zure zorra an dago aren idaztietan ezabatzeka: eztago gurea langO tizitzarik.

GIDERI.—Zsuk ikusiaz daragoiozu zuk: guk, oraindik lumatu bako txorikumet::ook, oraindik eztogu egazik egin afcia agirian dogula baño; eztakigu etxetik landako eguratsa zelango danik be. Zori onez, bizitza au da onena, bizitza atsedentsua ba'da onena; eztiago zutzako, sakonago dazaguzulako; zure azur gogortuai be ondo datorkena: baña gutzako ez-yakintzaren gela baño ezta; ibili ba'gabiltz, oean gabiltz; igesi ezin dauen zordunaren baitegia da au.

ARB.—Zer esango ete dogu guk zu langO zar izan gadizanean? Axeak eta euriak Lotazilla ilunari kaskarreko ederrak damotsoezala entzun dagigunean, otzak biribilduta eukiko gauzanean, zetzaz itz egingo

(12) "Milla" itza ezta emen eta 15'karren deian bederatzireun larogeta emeretzi ta bat iragarteko, bide-neurri íragarteko baño. Yatorriz, bide-neurri onek milla oinkada neurtzen ebazan, eta ortik datorko izena. Izan, bitariko millak doguz: legor?milla ta itxas-milla, onantzengo au bestea baño andiago dala; legor-millea, gitxi gora-bera, kilometro añako da; itxas-millea, ostera, kilometro ta erdikoa.

ete dogu artzulo leitu onetan? Guk eztoçu ezer ikusi; piztien antzeko gara gu; azeriak baño begi zorrotzagoa dogu zerbait goatzeko; otsoa fcestean adoretsu gara gure yana*ría* eskuraizeko; gure adorea igesi doanaren yarrai yoatea da; gure txoritegiaz guk abesbatz egiten dogu, txoritegiko txoriak egin daroenez, eta gure baitegian azkatasun-abestiak abesten doguz.

BEL.—Zuok bai ganora barik itz egiten dozuela! An urietan dirua zelango irabazitan aurreratzen daben ba'zenkie ta ori zeuon narruan min arturik ikusi: andik alde egitea bestean an yarraitzea zail dan errege-yauregiko marro ta iruzurrak fca'zenkiez; eta an fcein gallurrera igoteak andik bera yaustea seguru dakarrela, edo-ta ga-Uurra ain laban dalako andik laban egiu eta yausteko bildurra yaustea bera bestean txarra dala: gero or dozuez guduetako lorrak, ospa ta omenaren izenez galbide gorriaren billa artzen diran nekeak; or zabiltz urduri ospa ta omen billa, zeregin orretan ilten zara, ta ospa ta omsna beste sarritan zure egite onaren saritzat eta oroigarritzat zure obi-ganean idazkune laidogarri dozu; bai, sarritan on eginaren saritzat *laídoa* iristen dozu; are ckerrago dana, laidoari txera argia ta irribarre egin bear dautsazu... Onangoiik, mutillak! neugan irakurri lei munduak ipuin au: emen dodaz nire soñean Erromarren ezpatak egindako zaulien lorratzak, eta beñola bein nire entzutea gorengo izan- zan: Kinbelin'ek maite nlndun; eta gudaririk aitatuten zanean, ni enintzan andik urrln; aldi atan ni igaliren igaliz adairak makurturik dauzan zugatzaíen antzeko nlntzan; baña zori txarreko egun baten ekatxak edo lapurreteak, zeuok zelan gura deitu, astindu eban zugatza, lurreratu ebazan nire igali umoak, baita orriak be, eia an itxi nindun billusik, eguraldiaren bendean.

GIBERI.—Onberatasuna be aldakor dolako, ala?

BEL.—Nik eneban ezetariko errurik, sarritan esan dautzuedanez, baña gizon zakar biren guzurrezko zinak nire orban bako omena baño gelago izan ziran-eta, aik zin egin eben Kinbelin'en aurrean ni Erromarren aldeko ta zinkide nintzala: ortik etorri zan ni erbesteratzea: eta ogei urteotan aitz au eta inguruok izan dira nire mundu; emen bizi izan naz azkatasun zindoz; eta yainkoai nire ^engo fcizitza osoan fcaño yaureste geiago egin izan dautset,., Baña ni3ndi toniorrera, mutillak! Stz-egikera mi ezta eiztariei . *da*gokien iizaldirik. Oreina lenen zauritu da. giana izango da oturunizako yaun; aren otsein izcngo íira bests biak; guk eztogu 'zango goragoko tskietakoak izaten daben eden-bildurrik. Ibarrean aurkituko nozue nl. (GIDERI'k eta ARBIRAGA'k alde).

Izamenaren txatarrak ostondutea bai fca-dala gaitz! muti'ok gitxi dakie, eztabe susmorik be errege-seme diranenik: Kinbelin'ek be eztcm amesik be oneifc bhirik diranenik. Nire semetzat dobsz eiiren buruak oneik: eta onango azikera zakarra izanarren euren buiuak makurtu bearrean aurkitzen diran artzulo onetan, euron gogapenak yauregietako goiko gallurretaiaño yagiten dira; eta izamenaren indarrez eta bultzaz orreik euren egiterik bakunen eta apalenetan fce errege-seme lez agertzen dira, besteak euren aleginsz baño gorago. Bera aitak izentzal Gideri ezarri ta Kinbelin'en eta Biritandsrri'n yarauala ta oñordeko dan Polidor au... Yupiter ori! nire iru oñeko avilkian yezarrita nik buruíuriko gudaliiko egite andiak erallen dautsodazanean, orren gogoa urduri ta artega yarten da: nik esan ba' dagit "Onan yausi zan nire arerioa, eta onan imini r.euntsan idunean nire oña, onan zapaldu neban", bertatik doako bere errege-seme odola arpegira, izerditan yarten da, zanak eta kirioak estututen yakoz, etc nire itzak diñoena berak egiteko yasa artzer. dau. Anai gazteagoak, Kaduol'ek, bein Arbiraga zanak, ari len aitatu doguna langorik eralgiazkero, entzuten dauenari bizia eme, ten dautso, eta beretiko geiago iragartea dau... A3i! atera dabe eizea bere etzangotik!.., Kinbelin ori! yainkoak eta nire yr« kinkidetzeak ondo r'akie erruaarik erbesteiatu ninduzulr- baña orrexegaitik ostu neumzuzan zure semetxo biok, bi U. iru urieKo zlrala; zu oñordeko barik itxi gurq zinaudazan zuk ni nire lur barik itxi ninduzunez, Euripile, zu ízan zíntzazan oneln iñude; oneik zu euron amatzat zindukiezan eta egunoro egiten dautsoe omen-agirien bat zure c'íari; nirí, Belari nazan oni. Mor. gan deitzen dauste ta euron berezko aitatzai nabe. Eragi dabe eizea. (Alde dagi).

IV AGERLEKU.–WAI^ES. Milford-Haven'dik ur

PISANI ta IMOGENE aurrera.

IMOG.—Zaldi-ganetik yatsi gareanean arako Iekua ur egoala esan daustazu. Nire amak ez eban izan ni lenengoz ikusteko ainbesteko gurariri k, nik orain dodcrna bestekorik. Pisani! gizon! non da Postumu? Zer darabiltzu gogoan olango begirakunerik izateko? Zegaitik eten eta austen da arnasea zure barrutik urtekeran? Margozturik legokena bakarrik esango geunke olan ez egingo bai egingo dagola berak zegaitik eztakiala- bildur gitxiagodunen antzik ar eglzu, uxotasunak nire biotz sendoagoa benderatu eztagian. Zer yazoten yatzu? Zegaitik opatzen daustazu papel ori begirakune gogorrez? Udarako barriak ba'dira, aurreztik irribarre egizu; negurakoak ba'dira, ostera, betozko ori oraindik be euki baño eztozu... Idazkera au nire ugazabaren eskuzko da! osakai askarriz beteriko Itali'k benderatu dau a, eta estukura larrien baten aurkitzen da... Itz egizu, gizon: zure miñak gertau lei nire biotza, ostantxean ilgo nindukien barri txarrak irakurteko.

PISANI.—Zeuk irakurri, eder ba'yatzu; eta emen aurkituko nozu, zori txarreko gizon au, zoriak iñondiko zapuzkeriak eginik.

IMOG.—(Irakurri dirakur). "Pisani, ire ugazabandereak emagalduarena egin yaustak nire oean; orrako egite orren agiriak odola darlodala naiaukiek. Susmo makalez etxoat itz egiten; nire naibagea besteko agiri sendoz eta ik ordea emongo dautsakala bestean seguruz baño. Egiteko ori euk egin bear dok nire izenez, Pisani ,ire zintzotasuna be no orrena lez orbandu ta usteHu ezpa'dok. Eure eskuz kenduko al dautsok bizia; orretarako eretia Milford-Haven'en emongo dauskat; or yok orrek asmo orretarako nire idazki: ori yo ta itzulteko bildur ba'az, eta egitekoa burutu dokala iragarri ezpa'dagistak, kide az 1 orren omena galtzean, eta ori bestean ez-zintzo, ustel niganako".

PISANI.—Eta? Atera bearko ete dot nire ezpatea? Papelak berak ebagi dau dagoneko orren iduna... Ez, laido da; eta laidoaren erbatza ezpatearena baño zorrotzago da; aren miñak Nil ibaiko sugegorriak baño eden geiago dau; aren arnaseak egaz egiten dau bidea, ta baztar guztietan sortzen dau asarrea; sugegorriaren laido au edonora sartzen da: errege, erregeno, erri, otsein, etzanderakanaño, baita obi ixileteraño be... Zelan zagoz, andera?

IMOG.—Aren oeaz ustel ni? Zer ete da ustel izatea? Oean atzarrik etzan eta *a* gogoratzea, ala? Ordutik ordura bitartean negar egitea, ala? Loak izamena benderatzekotan, agazko ames bildurgarriz atzarri ta beín atzarriazkero negar egitea, ala? Ori da aren oeagazko ustel izatea, ezta?

PISANI.—Onangorik! andera on ori-

IMOG.—Ustel izan be ni! Zure yakinkidetzea bedi lekuko, autorla: Yakimu, zu izan zara ni ustelkeriaz salatu nozuna; aldi atan zuk dollor-antza zeban; orain nire ustez, onik asko zara,.. Italiko mosu-apcin pinpinen batek iruzur egin ríautso ari: ni enozu gaur oituten eztan soñeko baño; eta beste soñeko zarren artean eskegiteko gei ederregiz egina nazalako ebagi egingo nabe ni: ebagi ta zatitu ni!... Ene! gizonen zinak emakumeai iruzur egiteko baño ez dira! ene senar ori, zure dollorkeri orregaitik edonok uste izango dau zure on-antza zitalkeriz yantzi izan dozula iñori iruzur egiteko... on-antz ori ez egoala bere lurrean, ziria sarturik anderak goatzeko baño.

PISANI.—Andera on, entzun nagizu,

IMOG.—Enea'ren zintzotasunik ezagaltik aldí atako gizonik zintzoenak zintzo eztzat etsi ebezan, Sinon (13) azalutsaren negarrak

(13) Sinon. Birgili'ren Eneana'tik {En. II) agiri danez, Sinon dalako au Elendar zan. Bederatzi urtean iraun-arren, Elendar eta Troi'tarren arteko gudu ospatsua ez batzuen ez besteen alde ezin ebatzi izan zan, alkarren arteko gudaketa gogorrak gora-bera. Elendarren arteko Oduseu'k, bere lukikeri ta marroz indarrez baño ots andiagokoak, azkenean be iñondiko iruzurra asmau bear izan eban Toroitarrak benderatzeko.

Irudiz ela antzez gudua bertan-bera itxita, euren ontzíetan sarturik etxerako bidea artu ta Tenedots izaroan ostondu ziran, baña ez alde egin-aurretik zurezko zalditzar itzal barru-arroa, bere sabeltzarra gudaririk adoretsuenez beterik euren le.ngo gudaltegian

62 eben Jtxi ainbat negar zintzori slnisien; benetako zori txarragaitik negar egitea galazo eben: olan zuk be, Postumu, benetako gizonai ustslkerirako azkarrla ezarriko dautsezu; zugaitik, zure yauskera andiagaitik, gizon on eta zintzo ta akatz bakoak ustel eta zinaus'etzat etsiko dabez.., Tira, lagun, zintzo zadiz: egizu zure ugazabaren agindua: eta a ikusi dagizunean nire bendekotctsunaren autorla zadiz: begira! neuk ateraten dot ezpatea: artu au ta yo egizu nire maitasunaren erru tako ontzia, nire biotza: ez Izan bildurrik: naibageaz beste edozerez utsik dago: eztago emen zure ugazaba: a izan da emengo aberastasuna: egizu aren esana: ye. Egileko obetan Izan zeintekez adoretsu; baña orain kikil-antza dozu.

PISANI.—S.lde ortik, lanlci zirtzil orrek! ik ez. tok gaiztetsiko nire eskua.

IM3G.—**Ostera! il egin bear dot nik: eta zure eskuz ez iltekotan, zure ugazabaren otsein etzara zu: norbere burua iltea yainkoak ainbestean ga'azoa da-ta, nire eskua kikil ida olangorik egiteko.-Tira, amen nire biotza; zeozer ba-dago beronen aurrean... Astiro, astiro! eztot gura yagolarik; zorrora bestean erraz eta eragozpen barik sartu dadilla ona. Zer dogu emen? Lonatu'n idazkiak: orain eztabe besterik guzur eta iruzurrak baño.** Alde, alde emendik, nire zintzotasunari iruzur egin dautsazuenok! oinganik ara etzare izango nire biotzaren bularreko (14). **Benetako eroak sinistu dagioela irakasia ustelai: iruzur egin yakenak min zorrotzik artu-arren, iruzurginak berak artzen dauena are zorrotzago da. Eta zuk, Postumu, zuk aztinduazo ta uxatuazo zeunstan nire aitaganako bendekotasun eta esanekotasuna, ta maitasun-eske etorkidazan errege-semeak zapuztuazo; zeuk ikusiko dozu geroago zuk egina eztala aletzik, obenik iñondikoena baño: eta orain maite dozunaganako yangarra moteldu ta amustu dakizunean eta ak gogait eragin dagitzunean nire oroiteak emongo dautzuzan elorrioak gogoratuaz naibagatu egiten naz. Egizu nigazkoa, arren: arakin-eske dagotzu bildotsa; non dozu aiotza? Geldoeg! zara zure ugazabaren agindua egiten, neuk be arexena bera gura izan-eta.**

PISANI.—Andera **maitagarri ori! egikizun au burutzeko agindua artu nebanazkeio begi it::i-idigi bateko lorik be eztot egin.**

IMOG.—**Orrazkero egizu egitekoa ta zoaz oera.**

PISANI.—**Olangorik egin baño len atzarriaren atzarriz niie begiak itsutu egingo dodaz.**

IMOG.—**Orrazkero, zegaitik artu dozu orretarako biderik? Zegaitik egin dozu orrenbeste millako (15) biderik egingoarena eginaz? Eta leku onetara etorri? Ni ta zu, tiok nekaturik? Gure zaldiak be unaturik? Zure astia alperrik galdurik? Errege-yauregikoak r.ik andik alde eginagaitik artegaturik; eta onazkero ni ara iñoz geiago atzera yoateko asmorik eztodalarik? Zegaitik eldu zara orren urrin, zuk zure iekua artu ta zuk begiz yotako oreina yo ta lurreratzeka izteko?**

PISANI.—Olango egikizun askarrian nire astrik galdu baño gurago izan idodalako

Atene aainkonoaren opaz zalakotan itxi barik.

Gabaz alde egin eben Elendarrak. Urrengo goxean Toroi'tarrak euren uriaren arresibarruíik Elendarrak alde egin ebela ikusirik, uriko aíeak idigita arein gudaltegi izaneko lekura yoan eta arako zurezko zalditzar itzala idoro eben. Zalditzar au ikusirik, Toroitarren artean eretxi bi agertu ziran: batzuk marrokeriren baten bildur ziran eta zalditzarra suntsitu ta erre egin bear zala eragoioen; beste batzuk, os'era, ezetz, olangorik etzala egin bear, Atene yainkonoaren asarrea euren ganera eratorriko ebela-ta.

Onetan, Toroitar artzai bi datoz Sinon izeneko Elendarretaiko atxiloa eskuak alkarri loturik dakarrela. Atxilo ori Elendarretaiko zala-ta il egin bear zala eragoioen Toroitarrak, baña il-aurretik itz egiteko eskubidea emon *e\a* ari iñondiko guzurrak entzuten yarri ziran. Elendar ori beretarrak beren-beregi itxi eben atzeari, Oduseu'k aurreztik irakatsirikc guzurrak esateko. Negar errukarriz eta intzirika, Sinon'ek gura ba'eben bera ilteko baña ezetara be- Elendarren eskuetan ez iminteko eskatu ta eskatu eutsen. Sinon'en negarrez errukiturik eta aren guzurrak sinisturik, Toroitarrak arako zalditzarra uriko Atene'n yauretxera eroan eben yainkonoarentzako opari ba'litzan lez. Gabaz, uritarrak lotan egozala, zalditzarraren barruko Elendar gudari adoretsuak andik urten eta uriari lau ertzetatik •*sua* emon eutsen. Suak deiturik, Tenedots'en ostonduta egozan Elendarrak be Toroi'ra etorri ziran atzera ta guztien artean, len indarrez ezin benderatu izan eben uriaz yabetu ta suntsitu eben.

(14) Bularreko. Bularreko dalako au emakumeak bular ganean aldi atan erabilten eben soñekoa da, baña emen arako bularrekoarena Postumu'n idazkiak egiten dabe.

(15) Ikusi 12'garren oarra.

onan astia emon ela bien bitartean ze bide artuko oldoztu ta erabagi *a* izan dodalako. Andera on, epez entzun nagizu.

IMOG.—Zure miña nekatu arte itz egizu: itz egizu: ni emagaldu nazala entzunik dozu: eta nire belarriokaz guzur ori entzunaz ar-!u dodan zauria baño zauri andiago ta sakonagorik ezin artu izango dot, Orraitiño be itz egizu.

PISANI.—Orrazkero, andera, zu atzera etxera etzareala yoango uste izan dot.

IMOG.—Ez ba, zuk ona ilteko ekarri nozunazkero.

PISANI.—Ezta olangorik be; baña ni zindo nazan bestean burutsu ba'nintz, nire asmoa ondo letorke. Agirian dago nire ugazabari ziria sartu izan dautsoela: bai, trebetasun andi ta bakandun dollorren batek egin dautzue zuoi bioi irain askarri au.

IMOG.—Erroma'ko zirrildaren batek.

PISANI.—Ez, nire bizia-arren: zu ilik zareala iragarriko dautsat, eta odol-lorratzen bat bidaliko dautsat; olangorik egiteko agindua dot-eta: zu etzara agiriko errege-yauregian, eta orrek sendotuko dau zu ilik zarealako ustea.

IMOG.—Ba! lagun on, eta ník zer egiteko bitartean? Non biziteko? Zelan? Edo-ta ze poz izateko nik nire bizian nire senanarentzako iltzat izatekotan?

PISANI.—Zu atzera errege-yauregira yoatekotan...

IMOG.—Eztago errege-yauregirik nitzako, ezta aitarik be; ezta egitekorik be aurrerantzean arako uskeri uts, latz, aitonen seme aregazko. Kolten aregazko, aren maitasuneskea ormarantza estututea bestean bildurgarri izan yat-eta.

PISANI.—Errege-yauregian ez izatekotan Biritanderri'n be ezin bizi izango zara gaurdanik ara.

IMOG.—Non ba onazkero? Biritanderri'k berak bakarrik dau argi egiten dauskun eguzkia, ala? Egunik eta gaurik Biritanderri'n bano eztago, ala? Mundutzar onetan Biritanderri'k onen txatal dirudi, baña berton eztagola; osin andiko zisne-abi dirudi: Arren, Biritanderri'tik landa be iñor bizi dala gogora egizu.

PISANI.—Pozarren nago zuk beste tokirik be gogoratzen dozulako. Biar dator Milfoid-Haysn'era Luki Erromarra, Erroma'ren bidalia: zure zori motzari dagokon erabagi mo-Izilt artzeko adorerik ba'dozu, eta bein-beinean, zeure galbidez izan ezik, erakusterik eztagokizuna estali ta kokomarrotu gura izanazkero, bide ostondua bai, baña ondoren onik lekarkizuna artuko zeunke; bai, zori onez, Postumu'n fcizi-lekutik ur zengokez... gitxienez aren egiteak ikusteko bestean ur egon ez-arren, bai aren barririk ordurik ordura zure belarrietara eldu al izateko bestean ur, eta aien gora-berak zeatz yakingo zeunkez.

IMOG.—Ene! nire lotsortasunaren galblderik izan-arren, eriotz-galbiderik elekarken edozer egiteko gertu nozu ni.

PISANI.—Ba, orrazkero, amen zure egikizuna: emakume zareala aztu egin bear dozu: aginpidea esaneko izatera aldatu; emakume guztien otsein, edo obeto esateko emakume beraren izate apaina díran bildurra ta liraintasuna adore txsratxura aldatu; iñori adarra yoteko gertu, arin erantzuteko zai, zakar, eta ogigaztaia baíío burrukalariago agertu; are geiago. zure arpegiko altxorrik bakanena be aztu egin bear dozu, eta galtzorian imini... baña, ene! biotz gogorragorik bear eta orretarako biierik ez!... Bai, zure arpegia edonori mun egitsn dautsan eguzki saloaren ukutuai emon fcear: eta eurekaz Yune andia bera txibizkeriz asarre iminten izan dozun zurs adatseko ainbeste nekez iritxitako apainketa bardinbakoak be aztu bearko dozuz.

IMOG.—Tira, arin eta labur esaizu; zuia atzenaren begira nagotzu, eta dagoneko nozu ia gizon.

PISANI.—Lenen, zure burua euretaikoren antzeko egizu. Onetaz aurreztik oldozturik, dagoneko gerturik dodaz nire txartes-sakelean, azpiko bat, txapela, zango-zoiroak. gizonen guztitariko yantziak: yantzioi erantzunaz, eta zure urteai dagoken iruditua eginaz, Lukí aitonen semearen aurrera agertu, aren otseintzea eskatu, eta zetariko otseintzea gogoko yatzun ari iragarri ba'dagiozu, a eresi-zale izatekotan pozik artuko zauz; eta izan be, a gizon zindo da, eta zindotan lango bi yaungoikozale. Zure bizi-bideaz erbestean ez izan larri, neuk zuzenduko dautzut-eta; eztozu ezeren bearrik izango ez orain, ez aurreiantzean.

IMOG.—Zu izango zatxataz yainkoak emongo dausten nasaitasun guztia. Goazen, arren. Geiagorik be ba-dago egon guk gogoan erabilteko; baña orretaiako asti onik izango dogu: gerturik nozu zure asmo ori burutzeko, eta enege-alabari dagokon adorez burutuko dot. Goazen, arren.

PISANI-—Tira ba. andera, arin egin beai dautsagu alkarri agur, erregs-yauregitik alde egina nazala oarturik, zu errege-yauregitik nik ekani zaudazanaren susmorik

izan eztagien. Nire andera zindo ta aitonen alaba ori, eutsi kutxa au; erregenoak niri emona da; baliotsu da or dagona; itxasoan larri ba'zadiz, naiz legorrean ondoezik, orren apurtxo batek uxatuko dautzu ondo-ezo. Zoaz okuluen batera ta yantzi egizuz giza-yantzioki... yainkoak lagun izango al yatzuz zure onerako!

IMOG.—Olan izango al da; eskerrik asko zuri. (Alde dagie).

V AGERLEKU.--BIRITANDEHRI. KINBELIN'en yauregiks gels.

KINBELIN, ERREGENOA, KOLTEN, LUKI eta Andikiak,

KINBEL.—Esan dot esatekoa; orrazkero, agur.

LUKI.—Eskerrik asko, errege yaun. Idatzi daust nire nagusiak: alde egin bear dot emendik; eta damu dot zu nire ugazabaren arerio zareala nik iragarri-bearraz,

KINBEL.—Yaun, gure bendekoak eztabe ya. san gura aren buztarririk; eta guk geuk gure eskuko ta gure buruen yaba ízateko aik baño gogo gitxiago erakustea, siegokio ondo erregeri.

LUKI.—Orrazkero, yauu, Milford-Haven'erako biie-laguna emoidazu, arren. Andera, poz utsa opa dautzuet zuri ta erregeri!

KINBEL.—Ene Andikiok, zuok zagoze izentaurik egikizun orretarako; omenari utsik txikienik egiteka eroan egizue. Orrazkero, agur, Luki, aitonen seme orrí.

LUKI.—Efcazu esku ori, yaun.

KOL.—Adiskidearentzakotzat artu egizu; baña gaurdanik ara zure areriotzat erabiliko dot.

LUKI.—Yaun, oraindik ikusizun da nok írabaziko dauen: onik eta ondo ibili.

KINBEL.—Ene andiki onok, ez a!de egin Luki zintzoagandik ori Severn ibaiaz beste alderatuarte. Zori ontsu izango al zara! (LUKl'k eta Andikiak a!de).

ERREGENO.—Betozkoa okerturik doa; baña gure omenerako da guk orretarako biderik einon izona.

KOL.—Oba olan; ori da gure Biritandar adoretsuak gura dabena.

KINBEL.—Dagoneko iragarri idautso Luki'k Erroma'ko nagusienari emengo yazokunen barri. Orrazkero, gurí dagokiguna gure guda-burdi ta zaldizkoak tertzioz gertu eukitea da: ak Gallia'n daukazan indarrak laster egingo dabe onakoa, Biritanderri'ri gudu andik egiten dautsoe-ta.

ERREGENO.—Arazo au ezta lotan egotekorik; arin eta gogoz eldu ta ekin bear dautsagu.

KINBEL.—Yazoko zanaren begira egon naz aspaldidanik, eta orregaitik gerturik gagoz. Baña, ene erregeno maitagarri, nondík da gure alabea? A ezta agertu Erromarraren aurrera, eta guri be eztausku emon egun-osiik; a esaneko barik buru gogor irudiizen yakti: orretcrz oarturik gagoz. Dei egiozue datorrela gure aurrera, aregazko ederretsíegi izan gara-ta (Lagungoko bcttek alde).

ERREGENO.—Erregs yaun, Poatumu'k alde egin ebanazkero *a* ezkutu-ezkutuan bizi izan da; eta gaítz ori aldiak osatu bearko dautso, Arren, nagusien orrek ez egiozu egin itz gogorrík; a ein samui da-ta, zartadak dira arentzako asarre-itzak, eta zartaiak aren eriotza.

Lagungokoa atzera aurrera.

KINBEL.—Non dok a, yaun? Zer egiteko aren yaramonik ezari?

LAGUNG.—Eder izango al yatzu, aren gelak giltzaz ibsita dsgoz; eta gurs zaratarik andienai be an eziautise iñok erantzuten.

ERREGENO.—Ene yaun, azkenengoz ikusten yoan nintxakonean, arren bakarrik izteko eskatu eustan; eta bere gelan egon-bearrak beartu eban zuri egunoroko egikizuna betetzeka iztera: au zuri iragarteko gogoa iragarri eustan; bañu yauregí andi onetako egiteko ta atzera-aurreakaz niri aztu egin izan yat.

KINBEL.—Aren atea giltzaz itxita yagok, ala? Iñok ez ete dau ikusi oraintsu? Yainkook, nik lendik neban bildurra ustel urtetea emongo al daustazue! (Alde dagi).

ERREGENO.—Seme, erregeri yarrai oakio, gero,

KOL.—Aren gizona, Pisani aren otsein zarra, eztot ikusi egun biotan.

ERREGENO.—Oa, billatu egik a... (KOLTEN'ek alde). Pisani, orrenbestean Postumu'n aldeko! nik emondako edena dau ak: ez da iñoz agertuko a iruntsita; ak nik emona zex ezin obetzat dau-ta. Baña neskatoagazko, nora yoan ete da a? Zori onez, etsipenak benderatu dau a; eio-ta maitasunaren beroaldiak egoak emonda, bere maite Postumu'gana egaz egina da: eriotzara, naiz bere laidora yoanik da a; eta nire elburu-

rako bata naiz bestea ondo letoike: a aurretik kenduazkero, ba-dot nik Biritandarren buruntzea nori ezarri,

KOLTZN aurrera ostera be.

Ostera! nire semea!

KOL.—Seguru da ak igesi egin dauela, Zoaz barrura ta nasaitu egizu errege: asarre bizitan dago: iñor ezta azartzen ari urreratzen.

ERREGENO.—Oba olan; biar barik gau onetantxe ilgo al da! (Alde dagi).

KOL.—Maite dot neskato a, baña bai gorroto be: a lerden eta errege-alaba dalako, yauregikori dagokozan zer onak ak beste anderak eta emakumek baño bikainago dauz--eta; emakume bakotxaren zerik onena idau ak, eta zerik onen guztiok beragan bat--eginda, a guztiak baíío ederrago da. Orregaitik maite dot nik a, baña niri yaramonik be egin ez ta Postumu beeko-zirtzilari eder eretxirik, bere ebazpenari oker eginik, dauzan apaingarri guztiak, eta apaingarri bakanak, gero, alperrik galdu ta ezabatu egiten dauz; eta alde orretatik gorroto dautsat; areago, orregaitik bereak eta erdi artu bearko daustaz. Eta izan be, zoroak.

PISANI aurrera.

Nor dogu emen? Zer batzen daragoiok, yauntxo? Ator ona: bai, i bi'.arteko ori, alango ori! zirtzil ori, nondik dok ire etzanderea? Arin esaidak; ostantxean bertatík oa txerrenai lagun egiten.

PISANI.—Ene! ene yaun ona!

KOL.—Nondik dok ire etzanderea? Esaidak. oslean, Yupiter-arren, eztauskat itanduko beste bein. Zatar orrsk edo iragarten dauskat ixiikizun ori, edo bíotza aterako dauskat, or idoroteko. Postumu'kin yagok, ala? Attun baño astunago izan-arren lainaren bilderrik ezin atera leion gizon akin ete yagok?

PISANI.—Ai ene! zelan egoteko nire anderea akin? Noz alde egin dau nire andereak? Erroma'n dago Postumu.

KOL.—Nondik dok a, yaun? Ator onago; ez akit itili meikiarena egiten: argi ta garbi esaidak Imogene nondik dan.

PISANI.—Ene! ene yaun aintzako-aintzako ori!

KOL.—Zirtzil aintzako-aintzako ori! Len baño len, bertatik iragarri egidak non dagon ire anderea; aintzako yaunik asko yoagu; itz egik, ostantxean ire ixillasuna ire ondamendi ta ire eriotza dok.

PISANI.—Orrazksro, yaun, aren igesaz nik dakidan guztia ingi onek dakar. (Idazki bat eskeintzen dautso).

KOL.—Dakusagun. Augusta'ren bakaulkiraño be yarraiko natxako ari.

PISANI.—(Bere kitean). Edo au egin, edo il bear gorrian aurkitu ncz. Urrinik asko da a; eta iidazki orrek a bidean dala erakutsiko dautso, baña arenizako galdu yorde burik.

KOL.—Um!

PISANI.—(Bere kitean). Imogene iiik dala idatziko dautsat nire yaunari. Imogene ori, onik ibiliko al zara ortik zear eta onik etorri atzera!

KOL.—Yauntxo, Postumu'n eskutiko ete dok idazki au?

PISANI.—Bai, yaun, nire ustez,

KOL.—Bai, Postumu'k idatzia dok; bai, ezagun yoat aren idazkerea. Yauntxo, ik dollorrarena egiiigo ba'eu, eta níri otseintza zlntzorik egin, eta arduraz beteko ba'euz nire aginduak, zera, nik agindutako dollorkeriak zintzo ta zeatz beteko ba'euz, nik i gizon zindotzat induket: bizibidearen ardurarik ez eunkake, eta gorago igoteko bear danaren bearr-izanik be.

PISANI.—Ori ondo, ene yaun on.

KOL.—Nire otsein izango az, ala? Izan be, Postumu eskeko aren etorkizun bako zoriari orren yarraila zintzo ta intsigi izan azanazkero, etxoat ezpairik esker onak nire yarrui'a zintzo egingo auela. Nire otsein izan gurok, ala?

PISANl.—Bai, izan gura dot.

KOL.—Ekak esku ori: autso katanarru au. Ire ugazaba zanaren soñekorik ete dok ire zeren artean?

PISANI.—Ba-dot, ene yaun .nirean, eta nire andera ta ugazabandereari ak agur egin eutsanean aldean ebana bera euki be.

KOL.—Niri egingo daustakan lener.go otseintzatzat oa ta ekarri egidak *a* soñekoa; ire lenengo otseintzea izan dadilla: oa.

PISANI.—Bai, ekarriko dautzut, ene yaun. (Alde dag;).

KOL.—Mi:ford-Haven'en billatuko zaudaz!... Zertxo bat itandutea aztu yat; baña laster gogoratuko dot: Postumu zatar ori, antxs ilgo aut. Soñsko ori emen al lego. Imogene'k esan eustan bein, eta orain esan ori andik uxatzeko nire biotza goraka dabilkit; ak esan eustan bein Pos'umu'n scñekoa bera be ni neu ta nire apaingarri guztiak baño be beinegotzat ebala. Soñeko ori aldean do-

dala muskildu ta lorrinduko dot nik Imogene'n garbitasuna: lenen, Postumu il, eta Imogene'n aurrean il be; an ikusiko dau Imogene'k nire adcrea, eta aren elorrio izango da aintzakotzat artu eztauelako. A lurrean zerraldo, ni aren gorpuari be irainka; ori burututakoan Imogene'n soñean asetuko dot nire irritsa, eta laido ori mingarriago izan dakion, egiteko ori Postumu'n soñekoak aldean dodazala egingo dot, Imogene'k ainbestetan eukazan aren soñekoak aldean dodazala, eta gero errege-yauregira Imogene aurretik oñez dodala, nozik-bein aurrera eragiteko bizkarreko ta ostikada batzuk emonaz. Ak pozarren zapuztu nau, eta neuk be pozarren emongo dautsadaz bereak eta erdi.

PISANI aurrera ostera be, soñekoakaz,

Orreík dozak arako soñekoak, ala?

PISANI.—Bai, *ene* yaun, aitonen seme,

KOL.—Zenbat aldi dok Imogene Milíord-Haven'era yoan zala?

PISANI.—Nekez eldu izango da ondiño ara,

KOL.—Nire gelara ekarri egidazak soñekook: ori dok nik bigarrenez agindutako zera: írugarrena *zeia* dok, nire asmoa ik eure kitatik ixilik eukitea. Esaneko izan akit bai, eta zori ona ire dok,-Nire apenkizuna orain Milíord'en dago: egoak al neuz *aien* yarrai yoateko, Ator eta zintzo akit, (Alde dagi).

PISANI.—Ik nire ondamendira eroan gura nok: eta ízan bo. iri zintzo izatea, zintzo-zintzo danarentzako ni ustel izatea litakek, eta nik etxoat iñoz be olangorik egingo. Oa Milford' era baña ez al dok idoroko i aren yarrai oan Imogene. Zerutiko onespenok, yalgi, yalgi zuok Imogens'n ganera! Ero onen bizkortasunari geldotasunez itxiko al dautsazuez bideak; nekea izango al da onen irabazia! (Alde dagi).

VI AGERLEKU.--WALES.

BELARI'n artzulo-aurrea.

IMOGENE aurrera, mutil-yantziz yantzirik.

IMOG.—Ba-dakust gizenaren bizia aspergarri dala: unaturík, pot eginda nago; eta gau bitan lurra izan da nire etzaleku. Nire erabagiak indarrik emongo ezpa-leust, gexorik nengoke. Miiford, mendi-tantorretik Pisani'k erakutsi industakanean, 1 agirian engoan: Yupiter ori! zapaltzen dauen lurrak be igesi egiten dautso zori txarrekoari, nire ustez: nik esan gura dodana zera da, lagun izan bear litzakiozanak bertanbera izten dabela. Eskeko bik esan daustenez, nik ezin galdu neinke bidea: euren naibageak zigor dirala dakien beartsu errukarriak be guzurra esango ete dabe? Bai, eta ezta ori bape arritzekorik, aberatzak be egirik nekez esaten dabe-ta: asebeterik uts egitea bearrak eraginda guzurra esatea baño mingarriago da; eta guzurra eskekoen artean baño erregeen artean okerrago da... Ene Postumu maits, zu be usteletariko zara: zu gogoratzen zaudazanean nire gosea yoana da; baña lentxoago gosez yausteko izan naz.--Baña zer da au? Amen orrako bide-zidorra: basatiren baten etzategi da: oba litzakit deirik ez egitea; eztot adorerik deitzeko; baña goseak, izamena guztiz lurreratu baño len adoretu egiten dau. Ugaritasunetik eta baketik sortzen dira kikilak; bizitza latz-•gogorretik datoz gizon latz-gogorrak. Eee!.. Erantzunik ez? Orrazkero, noan barrura. Oba dot ezpatea atera: eta nik bildur dautsadanez nire arerioak be bildur ba'dautsa ezpateari, eztaust gogor egingo, Yainko onok, olango areriorik aurkituko al dot, (Artzulora sartzen da).

BELARI, GIDERI ta ARBIRAGA aurrera.

BELARI.—I, Polidor, ik erakutsi dok ire burua eiztaririk onentzat-eta, i izango az oturuntzako buru: Kaduol'ek eta nik sukaldariurena ta otseinarena egingo yoagu; ori da aurreztik egindako egiunea: iñok eleuke aterako izerdirik, ezta erakutsiko terbetasunik, lanak saririk ezpa'leu. Tira: gure goseak egingo dau gozo egunoroko dana; gizon nekauak lo-arrantzaka egiten dau lo suarri-ganean, gizon nagi-alperrak, ostera, gogortzat dau egakizko burupekoa. Etxe apal ori, bakea bekik lagun ire yagola eu azan orri!

GIDERI. Meko eginik nago ni.

ARGIR.—Nekearen nekez ebainduta nago ni be, baña yateko gogo onagaz.

GIDEPI.—Okela otzik ba-dago artzuloan; arl ekingo dautsagu il-barri doguna errebitartean.

BELARI.—Geldi; ez sartu barrura. (Artzuloa begiratu-ala). Gure yakiak yaten ezpa'leragoio, maitagarritzat etsiko neunke ori.

GIDERI.—Zer yazeten da, yaun?

BEL.—Yupiter-arren, angeruen bat! edo, olangorik ez izatekotan, Iurreko zerik ederrena! Begira yainkozko zer ori, mutiko baño zarrago eztana!

IMOGZNE auirera osteia be.

IMOG.—Ugazaba onok, ez egiiazue kalterik: dei egin izan dot ssrtu-aurrelik; eta artu dodana eskatu naiz erositzat aitu dot; egia esateko, eztot ostu ezertxo be; eta eneunkean ostuko luria unez estaliiik ikusi izan ba'r.eu te. Eutsie tíirua yan dodanaren alderako; bein nire bazkaria eginazkero, mai--gar.ean itxiko neuntzuen; eta yaten emon Izan daustenen alde otoi eginda alde egingo neunkean.

GIDERL—Diiua, gazte?

ARB.—Urre ta urregorri gu^tia lenago lupetz egingo al da! urrea ta zidarra yainko zakarrak yauresten dabezanak bakarrik dabez aintzakotzai.

IMOG.—Asarre zariela dakust: yakizue, egin dodan utsa egin izan ezpa'neu, egin ezagaitik il egin bearks nebald.

BSL.—Norako bidea daroazu?

IMOG.—MLford-Haven'erakoa,

BEL.—Zer yatzu izena?

IMOG.—Zintzo, yaun. Iíali'ra yeateko dan senide det; Milíord'en artu dau ontzia; agana noala, iu goseak ilik, egin dot egin dodas utsa.

BEL.—Arren, gazte lirain, ezkaizuz etsi mukertzat, eta gure biotz onen neurritzat gu bizi go.rean toki zakar au ez egizu artu. Ondo idoroa zara! ía gau da: alde egin baño len izango <dozu bazkari obarik; eta orrez ganera. gure esker onak emen egon eta yan izanagaitik. Mutilek, emon oni zuon ondo-etorria.

GIDERI.—Emakume ba'zintzaz, gazte, labankeririk asko egingo neunskizu zure otsein izate-arren. Diñodana zintzo egingo neunke.

ARB.—Gizon dalako poztuten naz ni; nire onaien bat ba'iitz lez maite izango dot: iuzaroan altíe eginik izan dan neure anaiarl legetxe damotzut ondo-etorria: ondo etorria ba! gogargi izan, adiskideen aitera eldu zara-ta.

IMOG.—Adiskideen artera, anai-artera ba'da. (Bere kitean). Nire aitaren seme al litzazl olan ba'litz ni gitxiago gei nintzake: eta olan, or orrenbaten zeure neurriko, Fostumu.

BEL.—Lorren batek artega ta larri dauko.

GIBERI,—Nasaitu al al neu!

ARB.—Naiz neuk; orretarako edozein neke naiz galdu-gorde artu bear ba'iitz be! Yainkook!

BEL.—Entzun, mutilek. (Txutxupulxuka).

IMOG.—Artzulo au baño yauregi andiagorik ez, ctseintzat euren buruez besterik ez, on--indarrik euren yakinkidetzeak iragarten dautsenaz besterik ez, ez yentetza aldakorrak emoten dauen uskeri utsezkoa, etu orraitiño oiangorik leukien gizon andikiak e.itzakez anai biok diran baño andiago. Azketsi nagizue zuok yainkook! Orrein lagun izate-arren emakume izatsari agur egingo iieunskio. Lonatu uatel danazkero.

BEL.—Ba-dakizue. Goatu dogun eizea erre egin bear dogu. Gazte lerden, sartu barruru: baraurik dagonarentzako nekor da itz egitoo:; apai-ostean eraigiko dauskuzuz zure atzera-aurreak, esan al dozuzanak.

GIDERI.—Arren, barrurago zatoz.

ARB.—Zu gutzako ondo etorria zarean bestean ezta mozolloarentzako gaua ta larratxoriarentzako goiza.

IMOG.—Eskerrik asko, yaun.

ARB.—Arren ,zatoz aurrera barrura. (Alde dctgie).

VI! AGERLEKU.-ERROIv \. Guztitarikoentzako leku.

AGURE-batzarreko bi ta Tirbunak aurrera.

AGU. I'ak.—Au *éa* Bakaldunaren idatziak diñona: Erri-gizonalc Fanoni tci Dalmatitarren aurka guduan daragoioenazkero ta orain Gallia'n diran gudari-taldeak gugandik alde egindako Biritandarrai gudu egiteko makalegi diranazkero, etxagunei be dei egiten dautsegu arazo orretarako. Ak Luki izentau dau UonsuI-ordekDtzat; eta zuoi, tirbunoi, gudalgcti-batze onetarako bere al osoa damotzue. Gora Kaisar!

I TIRBUNAK.—Luki da indarren gudalburu, ala?

AGUR. I'ak.—Bai.

I TIRBUNAK.—Gallia'n dago, ala?

AGUR. I'ak. Len aitatu dodazan eta zuok geitu bear dozuezan gudari taldeekin: gudalgai-batzerako idatzizko aginduan irakurriko dozue zenbat eta nozko batu bear dozuezan.

I TIRBUNAK.—Egingo dogu gure egikizuna. (Alde dagie).

iv EKITALDI

I AGERLEKU.--WALES. BELÍLARI'n artzuloondoko oíanu,

KOLTEN aurrera.

KOL.—Aik alkarrekin trikilx egiteko tokitik ur naz, Pisani'k zeatz azaldu ba'daust. Soñekook bai ba-datorkidazala ondo! Ez ete yat ondo etorriko Postumu'n maitea be, *a* be Postumu yantzi dauen yostunak berak yantzia danazkero? Areago, emakumek (parkatu) euren leiaen bendeko ta otsein dirata. Egikizuna egiten asi bear dot. Esaten azartzen naz (izan be, ezta arroputz izaterik norbere gelan ispilluagaz, itz egitea) nire scñeko neurriak Postumu'nak besteko ba-dirala. A bestean gazte naz, *a* baño sendoago; ondasunez enaz *a* baño gitJtiago; a baño obeto aurkitzen naz ni; yaiotzaz *a* baño goragoko naz; edozetan naz a besteko, eta bion arteko zein-geiagoketan a baño gallenago naz; eta orraitiño be burukeritsu enek ni ezetsirik a maite dau. Zer da bizitzea? Postumu, sorbalda-ganean dokan ire buru ori ordubete barru lurrean dok; ire maiteaz aragizkoa egingo yoat indarrez eta ire soñekoak ire begien aurrean txiki-txiki egingo yoazat; eta dan au burutu-ala ostikoka eroango yoat Imogene bere aitaren aurrsra; *a* ba-leitekek zerbait asarretzea bere alabea orren zakar erabili izan dolalako; baña nire amak, aren mukerraldien yabe dok-eto, dana biurtuko yok nire alde. Gogor loturik yagok nire zaldia: urten zorrotik, ezpata, zeregin odolteuri eldu bear dautsagu-ta! Zcri, eskueíaratu egidazu a! au:;e da arein batzarlekutzat azaidu dausten lekua: eta urli a ezin azarri eitekean guzurrik esaten. (Alde dagi).

II AGERLEKU.--WiLES. Artzulo-aurrea.

BELARI, GIDERI, ARBIRAGA, ta IMOGENE ,dotoz aurrera artzulotik.

BEL.—(IMOGENE'ri). Zu etzagoz onik: zagoz emen artzuloan; eiza-ostean etorriko gatxatzuz.

ARB.'—(IMOGENE'ri). Anai, emen zagoz; ez ete gara anai?

IMOG.—Gizonak ori izan bear leuke gizonarentzako; baña buztinetik buztinera badago alderik, buztin guztiak auts bardina emonarren. Benetan nago ondo-ezik.

GIDERI.—Zoaze zuok eizeo.n. Oni lagun egiten geldituko naz ni.

IMOG.—Orren ondo-ezik be enago... baña orraitiño be onik enago; baña gazte minbera batzuen antzera, enaz gexotu-aurretik il-aginik dagonarena egitekorik: orrazkero, eiier ba'yatzue, bakarrik itxi nagizue; ekiozue zuon egunoroko bideari: ekandua ausíea bizitza osoa austea da. Gexorik nago; baña zuok nire aldamenean egonak enau osatuko: lagunik gura eztauenarentzako lagunak ez dira bape nasaigarri: enago gexogexorik, orretaz oartzen eta itz dagidanazkero. Arren, emen itxi nagizue ezetariko kezka barik; neure buruaz besterik eztot osiuko; eta onen txiro nazanazkero, ilten itxi nagizue.

GIDERI.—Maite zaudaz; lendik be esanda dautzut: nire aita maite dodan baño bape gitKÍago etzaudaz maite.

BEL.—Ostera! zer esan dok?

ARB.—9ri esatea obenik ba'da, yaun, nire anaiearen uts berberagaz buztartzeko gertu nagotzu: neuk bo eztakit zegaitik maite dodan gazte au: eta zeuri nozu entzuna maitasun-arloan eztagola zegaitirik: gorpu-kutxea atetan ba'iego, eta itanduko ba'leuste orrek ala nire aitak il bear dauen, "Nire aitak, ez gazte orrek" nesake nik.

BEL.—(Beie kitean) Biozkadearen zindo! Euron yatorriaren lain dira! andikien seme! Kiki'ak beti kikilkume, eta zirizil-dollorrak beti zirtzil-dollorkume: izateak uruna ta zaia dauz, ederra ta zakarra. ISîi enaz orrein aita; baña nor ete da ezezagun ori? Zegaitik

et# dabe ni baño maiteago? Goxeko bederatziík dira gero, mutilek.

ARB.—Agur, anai,

IMOG.—Onik eta ondo ibiliko al zarie.

ARB.—Osasuna zuri... Zeuk noz-gura, aita,

IMOG.—(Bere kitean). Txeratsu ta maitagarri dira aita-semeak. Yainkook, nilt entzun izan dodazan guzurrak. Gure yauregitarrak yauregikoez beste guztiak basati ta zakar diraia esan daroe: nire begiok ikusiak durakus eretxi ori guzur dala! Itxaso itzalak bidutziak (mamuaís) sortzen dabsz; íbai-•adarrak be itxasoak besteko arrain gozorik sortzen dabe mairako. Oraindik be gexorik nago ni; biotaa dot nik gexorik. Fisani, orain ikusiko dot n'lc zalango dan zure osakaia. (Iruntsi egiten dau arean).

GlDERI.—Ezin eragin izan dautsat: aitonen seme, baña zori txctrrekc dala esan dau; zakarkiro mindua, baña bera zindo.

ARB.—Neuri be orixe esan yaustak; orraitiño be aurrerantzean zerbait geiago yakin neinkela be esan yausiak.

BEL.—Basora, basora, mutilek!,, Bein-beinean emen itxiko íauguz; zoaz atsedena artzera.

ARB.— amen gozuz aizera luzaro barik.

BEL.—Arren, ez gexotu, yure etzandera izan *bacn* dozu-ta,

IMOG.—Onik, naiz gexorik, zuokanako bearturlk eta zcrrsan nogo.

BEL—Setiko izan boai-ko dozu. (IMCGENE artzulora sartzen da). Zori txarreko izanarren, gazte ori guraso onen seme íala dirudi.

ARB,—Orrek bai abestuten dauela angeruak legetxe!

GIDERI.—Orren sukalde-lana bai garbiikuzia! Era zeragarriz ebaten izan dauz gure sustarrak, izki-antza emoník; etu saldea bai egin dausla bikain; Yune gexorik egon izan ba'iitz eta gazte ori aren yanari-gertatzaila ,eleukean egingo salda gozoago-bikainagorik.

ARB.—Sta orren irribarrea bai polito bustar-Izen da!a orren antziaz, antziari lrribarreak irribarre egingo ba'lsutso lez, bear langO antzi ez dalako, eta antziak irribarreari sntzi egin, bear dana langO irribarrerik eztalako: irribarreak irri dagitxo antzlari itxasgizonak asarre yakozan axe zakarrakaz bat egiteko alanga yainko-yauregitik egaz egiten dauelako,

GIDERI.—Orren biotzean sustarrak sakon emon izan dabezan naibagea ta epea *ál*karren lagun dirala oartu naz,

ARB.—Epea a2iko al da, eta inbtusa andurtsuuk, naibageak, bere sustar eta enbor usielak aterako al dauz maaisaren besarie. tik, maatsa azi dadln.

BEL.—Goxa aurrera doaku. Goazen, alde!... Nor dogu or?

KOLTEN aurrera,

KOL.—Ezin idoro dodaz aldarrai dabiltzanok; zatar ak irri egin daust.-Meko eginik nago.

BEL.—Aldarrai datiltzanok diñok? Gutzaz esan ete dau? Ori arean ezagun yat; Kolten da ori, erregenoaren seme. Marrokerien baten bildur naz. Urteokaz eztol ikusi izan, baña orraitiño be ba-dakit a dala. Legetik landakotzat gaukiez gu; alde dagigun emendik!

GIDERI.—Bat baño ezta ori; zoaze zu ta nire anaiea, emen urrean orren lagunik agiri danentz ikusten: aide, arren; neu bakarrik iixi nagizue orrekin. (BELARI'k eía ARBIRAGA'k alde).

GOL.—Astiro! Nortzuk zarie zuok nigantik olan igesi egiteko? Menditar zakarren batzuk, ala? Olangoren entzuterik ba-dot ízan, Ze yopu az i?

GIDERI.—Orainlse baño yopukeri andíagorik ehtoat egin eguíío, yopurl yo ta zerraldo egotzi barik eranízunaz,

KOL.—Lapur augu i, lege ausla, ta dolior: benderatu akií, lapur orL

GIDERI.—Nori bemiercitu? Iri, ala? Nor az ba i? Ez ete dok nire besoa Irea besleko? Ez ete yoat nik irea bestaka biotzik? Ire ítzak bai, ori autortzen yoat, ba-dszak nireak baño andiago ta arroago; eta izan be, nik ez yaroat ezpatarik agoan, Esaik zer eía nor azan, zegaitik benderatu bear yoaí nirs burua ire aurrean?

KOL.—Zirízil-zakar orí, enok ezagun nlre soñekoetatik, ala?

GIDERI.—Ez i, ez ire yostun izan dan ire aita be etxoat ezagun, kakanarru. Ak, ire aitaitak egin yoazan ire soñekoak eta, agiri danoz, ire soñekoak egiten aue i,

KOL.—Otsein lotsa-galdu ori, ni enaiok egin nire yostunak.

GIDERI.—Orrazkero, alde egík emendik, ela eskerrak emoiozak soñekook emon izan dauskazanari, Eroen bat az i; I yoteko lotsa nok,

KOL.—lapur iraintzalla ori, nire izena entzunaz beste barik ikaratu adi.

GIDERI.—Ze izen yak, ba?

KOL,—Kolten, zirtzil.

GIDERI.—Kolten ba'az, gaizto baño gaiztoogo ba'az, ire izenak enaiok ikaiatuko; ire ize-

na kunkun, sugegorri, naiz armiarma ba'Iitzok lenago eragingo leuskidak.

KOL.—Bildur geiago izan dagikan, bai, i nastuago gelditu adin, yakik ni erregenoaren seme nazala.

GIDERI.—Damurik asko yoat orregaitik: ire yaiotzearen lain ez azalako,

KOL.—Ez ete dok bildurrik?

GIDERI.—Loísa dautsedanai bakarrik yautset nik bildur..., zurrai yautset nik bildur: eroai nik barre ta irri egiteii yautset, ez bildurrík izan.

KOL.—Orrazkero, il adi: bein i nire eskuz ildakoan yoango nok emeudik igesi-barri diranen yarrai, eta Lud uriko atetan eskagiko yoazat zuon buruak: benderaiu akit, menditar zakar ori. (Burruka egin-ala alde dc,-gie).

BELARI ta ARBIRAGA aurrero beste bein.

BEL.—Emen inguruan ezta agiri iñor.

ARB.—Iñortxo bez: zu oker zengozan, urrean, agazko.

BEL.—Sztakit ba: aspaldi da *a* ikusi nebala, baña aldiaz ez dira ezabatu bape be aren arpegiko ezaugarrialt: aren abotsaren lasterra ta zakarra lengoxeak dira, arenak ba' dira: eskier nago a Kolten berbera izan dala.

ARB.—Emen itxi izan doguz aik: nire anaíeak ez al dau okerrik izan akin. Orren zakar eta itzal ete da?

BEL.—Oraindik gizon izatera eldu baño len, galtzoririk andienak ez eutsoen ezetariko zirkinik eraglten; eta izan be, sarritan bildurraren osapiderik onena burubiderik eza yatzu.-Ara! begíra, or yatok ire anaiea,

GIDERI aurrera barriro, KOLTEN'en baruagaz.

GID.—Kolten au eroetariko zan, sakel uts..„ barruan ez eukan dirurik: Erkul'ek fce yoka eleuskion aterako garaur.ik, ezetarikorilt be ez eban-eta: orraitiño, egín izan dodana egin izan ezpa'neu, sro onsk leroakean nire burua orain berea nik daroadanez.

BEL.—Zer egin dauskuk?

GID.—Ondo dakit zer egin dodan: burua moztu dautsat Kolien zalakorl, berak iñoanez erregenoaren seme zunari; saltzalla ta menditar deiiu nau; eta zin egin izan dau berak bakarrik benderatuko gauzaía, eta yainkoai eskerrak azten diran gure buruak euren lekuetatik kenduta Lud'eko ateetatik eskegiko e-azaia.

BEL.—Gureak egin yok; galduak gozak.

GID.—Ba! aita aintzako ori, zer galtzeko guk ak guri kentzeko zin egin dauena, gure biziak baño? Legea eztogu gure alde: orrazkero, zegaitik erabili samurkeririk aragi utsezko arroputzari gu zemaitzen izteko? Guk legeari bildur dau!sagu!ako ari ebazlearena ta eiikeçjiízaUearena bíak egiten ízteko, a!a? Nortzuk idoro dozuez ortik zear?

BEL.—Iñortxo bez, baña ori lagun barik eztala etorri izango uste ízateko du. Orren gogaldia aidakor uis eta gaiztakari batetik txarragora alde egitekoa izan-arren, ezin egon eitekean ain ero, ain burutik egirik ona bakarrik elorteko, Onaitiríío, baleiíeke yauregian entzun izuua gu langoen baizuk emen artzuloetan tizi dirala, eizetik -bizi dirala, legetik landako dirala sta aldiaz indartsu egin leitekezala: eta slangoren bat entzunik, agan bape amizekorik ezíanu, arropuzkeriak eraginda ak zin egin izan dauela gure billa urtengo uala; baña ezta ainisgarri bakarrik etorri ízar.go danik bere buruz, naiz besteak oni oiangorik egiten itxita: orrazkero, ba-dogu bihtur izateko biderik, gorpu onek beronen burua baíío fcildurgarriago dan buztanik ba-duuelaren bildur ba' gara.

ARB.—Yainkoak aurrezíik erabagia bedi beiis dana dala, ondo egin dau nire anaieak.

BEL.—Sztot izan nik gaur sizean ibilteko gogorik; Zintzo'n ondo-ezak bidea luze egin daucl.

GID.—Niri saraea ebaleko erabiii isan dauen ezpaieaz beragaz kendu dautscit fcurua bere soñetik: gure atxarsn osteko latsera (errekaixura) egctziko dot fcuru au; doala Hxasora Kolten erregenoaren seme dala arrainei esaten: besie ezeren ardurarik eztot, (Alde dagi).

BEL.—Orrctko orren ordea ernongo dauskuenaren biiiur naz; ez al enduan egin olangorik, Poiidor! orraitiño adorea iri ondo datorkik.

ARB.—Neuk egin al neban eta orren ordeazko guztia nigana etorri! Polidor, anairi dagokonez maite aut; baña itzako txibizkeri yoat, egikizun andi ori ostu izan daustakalako: gizonaren indarrak erantzun-aleko apenak etorriko al dira gure ganera, guk gogor eglnaz erantzuteko!

BEL.—Tira ba, eginda dago ori: gaur eztautsagu ekingo eizean barriro, ezta onik ekarriko eleuskigun gaitzori-billa ibiliko be. Arren, oa i gure artzu'.ora; ik eta Zintzo'k sukaldariarena egizue: ni emen egongo nok

Polidor bizkorra atzera etorri ta a bazkaltzen eroan arte.

ARB.—Zintzo gexo errukarria! Pozik eta gogoz noa agana: aren margoak gorritze-arren Kolten'ena lango amaikaren ocoia ixuriko neunke, orretan goi-maitasuna erakusten dodalakotan. (Alde dagi),

BEL.—Yainkono ori, yainkoakandiko izantza oii, zuk bai ondo diragartzula zure burua mutil errege-semeotan! aren buruari zirkinik eragiteka lora ubelaren azpitik zear putz egiten daben axe bigunak baño be txerakorrago 'áira oneik: eta orraitiño, euron errege-odola asarratuazkero, mendi-gallurreko lerra sustarretik atera ta ibarreko sakonera luze itzmten dauen axerik zakarrena baño latzago ta zakarrago dira. Arritzeko da erregetasunik ikusi ta ikasi bakooi zelan eragiten dautsen ezkutuko indarren batek errege-antzez yokatzeko; iñok irakatsi bako omenera yoten dabe; gizabidera, iñogan Ikusteka; adorea bera beretara azten da orreikan, baña orraitiño, emofen dauzan igaliak landuarenak langoxe dira. Orraitiño, batek ba-daki zer lekarken Kolten emen izanak, aren eriotzeak ze ondoren ekarri leiskigun.

GIDERI auirera ostera be.

GID.—Nondik da nire anaiea? Kolten'en buru utsa errekatxua-bera bidali dot, aren amaganako geznaritzat: emen eukiko iogu baitzat aren gorpua a atzera etorri arte. (Eresi geldi-andiki).

BEL.—Entzun, nire ereskin terbearen otsa! Entzun, Polidor, aren otsa dok! baña zek bultzatzen ete dau Kaduol eresi ori yoteko? Adi!

GID.—Artzuloan dago Kaduol, ala?

BEL.—Oraintxe yoan iok ara.

GID.—Zer iragarri gura ete dau? Ereskin ori ixilik egon da nire ama maite-maitea il zanazkero. Zer andiak yazokune andietan erablli bear litzakez. Zer yazoten ete da? Utsagaitiko gorasarreak eta yostalluakaitik negar egitea matxangoen pozkarri ta umeen naibaga dira. Barutik egin ete yako Kaduol'eri?

BEL.—Begira, or dator bera, eta or dakur besoetan, guk besterik ustez, txarto esaka ibili garean negarkizuna!

ARBIRAGA aurrera barriro, IMOGENE iltzat besartean dakarrela.

ARB.—Guk ainbestetan etsi izan dogun txoria il da. Au ikusi baña gurago neunksan nik amasei urtetik irurogeíra yciuzi egin, eta gazte-bizkortasunaren ordez makilaren laguntza-bearrez aurkitu.

GID.—Lilirik eztien, lirainen ori! Nire anaieak etzaroaz, bere biotzari deutsazula, zu zure aldorraren ganean azten zintzazan gatzaren erdiagaz be.

BEL.—Gogo-iluntasun ori! nor eldu da eguño zure ondoraño? Nok idoroteko zure itxasontzi-ondoak bere ifciikera astiroaz errazen yoko dauen ilxas-kaia? Zu, onetsi ori! Yupiter'ek bakarrik daki zu zelango gizon izatera elduko zintzazan; baña nik. Mutil bakanbakan ori, zu gogo-naibagez il zara! (ARBIRAGA'ri) Zelan idoro dok?

ARB.—Gogorturik, dakusazunez. onantxo irribarreka, lo egoalarik eulien batek gili-gili egin izan ba'leutso lez: ez barre egiten yakon eriotzeareu geziak yo ízan ba'leu lez: bere eskoako arpegi-aldea burupeko-ganean atsedeu urtzan dauela.

GID.—Non?

ARB.—Lurrean: eta besoak onan alkarregaz baturik. Lotan egoala uste izan yoat; eta nire abarka zakar odolduak erantzi egin yoazat, oñots zakarrak iratzarri dagiana-*len* bildurrez.

GID.—Ba! ori lotan yagok: II ba'dok be il, orren obia oe izango yakok; maitagarri emeak yoango yakozak ilobian lagun egiten, eta eltxarrik etxako urreratuko.

ARB.—Zintzo, udeak dirausn artean sta ni bizi nazan artean lorarik lirainenen sunda ezti-gozoz usainiuko dot nik zure obi ituna: zure arpegiaren antzeko dan udabarri-loraren bearrik eztozu izango; ezta zure zanen antzeko txilin urdinenik; ezta asuar gozoaren orrireník be, arí írainik egiteka, aren sundea zure arnasea bestean gozo izan ez-arren: eta ni enazanean, txindorra, gurasoakandik ondasunak artu ta gurasoak oroigarri barik izten dabezan seme-alabak lotsatzen dauzan txindorra etorriko da zure ilobira, orrako guzti ori zuri bere mokotxoan ekarten; bai, eta neguan, ezstariko lorarik eztagonean oroldizko yantzi berorik be ekarriko dautzu, zure gorpuak negu-yantzirik izan dagian.

GID.—Bego, arren ;eta ez egik erabili olango neska-iletarik onango aldi benean. Obiratu dagigun, eta ez luzatu ago-zabalka orain egiteko dana. Goazan ilobira!

ARB."—Non iminiko dogu?

GID.—Gure ama Euripile zanaren aldamenean.

ARB.—Ondo yagok: eta, Polidor, orain gure

abotsak giza-abotsaren laztasuna izanarren, au lurrera daroagun bitartean abestu egin bear yautsaguk, gure amari egin geuntsanez; aldi atan erabiliko doñu ta ilzak eurak erabiliko yoguzak, Euripile'n ordez Zintzo sarturik.

GIO.—**Xaduol. nilt, ezin yoat, abestu; nik negar egln eta itzak esango yoazat ikin; izan be, doñutik landako nai^aga-agiriak abade gaizto guzur-dariosn abestiak baño txarrago dozak.**

ARB.—Osrazkero, abestu baiik, itzak esango yoguzak.

BEL.—**Ikusirik dodanez, naibaga andiagoak ito egiten dabez txikiagoak, Kolten aztu yaku-ta. A erregenoaren sema zan, mutilek: eta gure areriotzat etorri izan-arren, gogoan euki egizue, orrako orren ordaina artu dauela. Bein ilazkero, zirtzilak eta alisuak auts bardina emon-arren, orraitiño be lotseak, mundu onetako angeru dan lotseak, alderik aurkitzen dau goiko ta bekoen artean. Gure arerioa errege-semeetaiko izan da; eta arerio zalako bizia kendu--arren, errege-semetzat eta olangori dagokonez obiratu egizue.**

GID.—**Arren, ekarri ona, Tersitetz'en soña Aiatz'ena (16) besleko da, bata ta bestea ilik diranean.**

ARB.—**Ekarri, gura ba'dozu, guk bitartean abestiaren itzak esango doguz. Asi, anai.** (BELARI'k alde).

GID.—**Bai, Kaduol, burua eguzkí-sorkaldera dauela imini bear yoagu; gure «itak bayakik zegaitik egin bear dogun olan.**

ARB,—**Sgia dok.**

GID.—**Ator ba, ta aldatu egik.**

ARB.—**Dlantxe,--Asi orain.**

ABESTI

GID.—Gaurdanik ara ez izan blldurrik beroii, naiz eguzkiari,
Ezta neguaren asarre gorriai be;
Egin dok ik mundu onetako ire egitskoa, Eureratu az, eta artu dozak ire alogerak;
Mutil eta neska gazte lerdenak, guztiak, Ke-zulo-garbitzalleak legetxe ausluko dozak.

A.RB.—**Ez izan gaurdanik ara andiki-betozko--bildurrik:**
Agintari biotz bakok ez iri emongo zartadarik:
Ez izan geiago yantzi ta yakien ardurarik; Itzako iia ta aretsa bardin dozak:
Agintaritzak, yakituriak eta osalaritzeak Guzliak antu bear bide au, eta austu egin bear.

G!D.—Ez **izan geiago yusturi itsukorraren bildurrik;**

ARB.—Ezta oñaztarri itzalarenik be:

GID.—Sz izan laídoaren bildurrik, zurrumurru zakarrenik;

ARB.—**Ire pozak eta negarrak yoanak dozak:**

BIAK.—**Maitale gazteak oro, maitale guzti--guztíak**
Ire bidea artu bear yoek. eta auts biurtu.

GID.—**ñraogillek eztausk egingo gatxik!**

ARB.—ílzta sorginkerik i liluratuko be!

GID.—Maitagarriak alde begie Iganiik!

ARB.—**Ez yak ezertxo be urreratuko!**

BIAK.—Urduritasun barik lo egik;
Eta ire ilobia ots andiko bedi!

BELAR1 **aurrera barriro** KOLTEN'en **gorpuagaz.**

GID.—**Egin doguz illetaerostak; tlra, lurra damotsagun orri be.**

BEL.—**ílmen doguz lora banaka batzuk; baña gaberdirantza geiagorik izango dogu: aldean gabeko iñontz ozkitria 'áaben beda-/rak dira egokien Dobietarako. Euren arpegien ganean zabalduko doguz: lorak langoxe zintzazen zuok, baña orain zimeldu zarie: olantxe zimelduko dira zuon ganean zabaltzen doguzan bedarrok be.--Tira, alde daigun: alde egin apur bana, belaunbikotzeko.** Atzera **yoan dira euren ama lurrera: orrein emengo atsegin-pozak yoanik dira, eta bai euren neke-minak be,** (BELARI, GIDERI tcr ARBIRAGA'k alde).

(16) Tersitets dalako au Omer'en Ilias' enean (Ilías'ena II) agiri da. Elendar zan eta bere aberkideakin batera ciu be Ilion edo Toroi'rci yoan zan gudarien artean. Gizonik itsusienetaiko zan bai soñez, bai gogoz. Makur, bizkar-konkordun, betoker, meiki, buru--zorrotz, eta erdi buru-soil zan soñez eia gudalburuen aurka iñondiko txakurkeriak esaten eragoion al ebcm guztietan. Orrenbeste mctrmar eta txakurrenez asperturik, alango baten Oduseu gudalburuak bizkarreko ederrik emon eutsan Tersitets'eri negar eragin arteño.

Aiatz izeneko Elendar bi agiri dira Ilias' enean, baña biotarik ospatsuena Oileu'ren semea da.

IMOG.—'Atzarrí-ala). Bai, yaun, Mi'ford-Hctven'era noa; zein da nrako bidea? Eskerrik asko. An aragonn tjtaraka-aldamenekoa, ala? Arren, zenbat bide dago nra? Ene baía! sei milla oraindik? Gau osoan ibilia nozu. Bct! etzan ela lo egingo clol. Bnña, astiro! eztol gura oe-Iagunik;,., yainko ta yalnkonook! (Gorpua ikusi-ala) lorok munduko atseginen antzeko dira: gizon odoldu cra, ludiko kezkaen antzeko... Amesetan al nago: eta izan be, artzulo-yagola la gizaki nindoen sukaldari nintzalakotan nengoan; baña eztogu olancjorik; irudipon utsa izan da, garaunetako lurrunak sorturiko uskeri utsa: gure begicik eurak be batzuetan, gure adimena legetxe, itsu dira. Bene-benetan, oraindik ba bildurrez ikaraturik nago: bafsa -yainko bildurgarriok, oraindik be zeruan txepeticaren begia bestelto errukirik ba'dago, ekazue aren apurtxo bat! Nire amesa emen dago oraindik: atzarten ncizanean be emen dacjo nigar.'iik landa, nire barruan dagon legetxe; mi ezta bururaltizunik, ukututen dana baño, buru bako gizona!... Soñekoak Postumu'nak dira! badazagut aren zcmgoa zelango zan; aren eskua da au; Merkuri'na langO aren oña; Marte' na iango aren iztarra; Erkul'nak langO aren giarrak: baña non da aren Yupiter'ena langO arpegia? Zeruan be giza-eraileak doguz, ala? Onangorik! arenak egin dau... Pisani, Hekube (17) burutilc eginak Eladetarrai egotziriko birao guztiak, eta nireak ganercr, igana yoko al yoek! Ik, Kollen txerren zantarragaz alkartu ta kideturik, ik moztu ckmtsalc burua nire yaunari... Gaurdanilc ara idazten eta ircikurten yakitea marro-bídetzat etsiko al da!„„ Pisani askarriak bevak asmauriko idazklz,,, Pisani askarriak eratsi dau lurrera ludíko itxasontzirik lerdenenaren aga nausia! Postumu ori, ai ene! non rja zure buruci? Pisctni'k biotzean yota il zindukezan, ta burua aldean itxi. Zelan egin dok olangorik, Pisani? Bai, a ta Kolten izan dira: euren gaiztaksriak eta geiagokeriak egin izan dabe egiteko askarri au. Susmoz beterik nago, susmoz ganezka! Ak bikaintzat eta biotz-lagungarritzat emon izan eustan osaltaia ez ele da izan nirs oarmenak ilteko edenik? Orrako orrek ondo baño obeto darakus egite au Pisani ta Kolten'ena dala: ene!... nire arpegi zurbila zure odolez gorritu egizu, alanbearrez gu idoro gagiezanentzako ilzal-bildurgarriago izan gadizan: onangorik! ene yaun, ene yaun ori!

LUKI, ta Gudalburu ia mallako besfe gudarl botzuk ela Aztu aurrera,

GUOALB.—Goazen eurekana. egotez Gallia'n egoten diran gudu-indarrak, zure gurariz, itxasoz beslalderatu diro; eta zure ta zure onizien beqira dngoz emen Miiford-Haren' en: gerturik dagoz aik.

LUKI.—Baña ze barri dok Erroma'tik?

GUDAL.— Rgure-batzarrak eragin dautse albo-errietalcoai eta Itali'ko ctitonen semeai; gogatsu-gogciisu dagoz burrukarako, eta otseintza onik egingo daLenaren i.txaro onik ba-da: eta euren gudnlburutzat Yakimu, Eiena'ren anaia adoretsua dakcsrre.

LUKI.—Hoz elduko diralcr uste dok?

GUDAL.—Euren alde axeak lenen putz daglanean.

LUKl.—Azkarlasun onek ilxaro cnik emoten yauskuk. Gure gudariak ikuskatzeko agindua emoik; zenbatu dagiezala; gudalburuai agindu egiek egikizun ori egiteko... (Aztuari). Orain, yaun, ze ames izan dozu oraintsu gudu oneti ondorenaK?

AZTUAK.—Bcirt yciinkocik eurak ikuskizunik erakutsi izan dauste... eurekcindiko irctgarpenik izateko baraurik eta arrer.ka nengoala, onako au ikusi neban: Yupiter'en egaztia, Erromaj arranoa ikusi neban egoe-al*íe* astin ekaiztsulik sarka'de onetciranantza egaz etorrelct; gero eguzki cizdizetan ondatu zan: eta íkuskizuneko zerlzeladalc niri zirio sartzeko ezpa'dira, orrek esan eta iragarri gura dauena Erromar gudari-ialdeentzat garaitea da,

LUKI.—Sarri izan egik olango ikuskizuna, eta bein bez guziurezkorik, Astiro, eee! ze gorpu-aldor dogu emeu bere buru 'oarik?,.. Ondakinok eíxe bikainen bciienak izan dira. Ostera! esku-muli'ik be bai!... ilik, cila beste orren ganean lotan? Ilik, urrean; izan be, izatetiko lereak iguin dcmtso oe-laguntzat ilik artzeari, naiz gorpu ganean lo egiteari... Dakusagun mutilaren arpegia.

GUDAL.—Bizirik dago, ene yaun,

LUKI.—Orrazkero, orrek esango dausku gorpu au norena dan. Gazte, iragarri egiskuzak ire gora-bera ta atzera-aurreak; itaun•eske dagozala dirudi-ta. Nor da au zuk

(17) Hekube Pirama Toroi'ko bcikaldunaran emazte ta Eklor'en ama yatzu. Akileu'k Ektcr eureri bien arteko burrukan benderatu, il eta bere guda-burdíari atze- aldetik loturík tarraz erabili ebanean Elendarren aurka birao gogorrak eralgi ebazan. (Ikusi Ilias' ena XXII ta XXIV).

burupeko odoldutzat dozun au? E3o, nor zan, izantza zíndoak eginaz bestera bere antz ona aldatu dauen au? Zer dozu zuk zer-ikusirik ondatze goibe! onetan? 7,elan yazo izcin da? Nor da? Nor eta zer zara zeu?

IMOG.—Ni enaz ezer be: edo ezer ba'ntrz, ezer ez izatea oba litzakit. Nire ugazaba izana da au, Biritandar adoretsu ta on, menditarrak emen eraila: onangorik- a lango beste ugazabarik eztago iñon; ibili neindeke ni batetik bestera, sorkaldetik sarkaldera, otseintzea eskatu gedarrez, asko ikusi zelango diran, guztiak onak, otseintzrsa zindo egin, baña iñoz be eztot idoroko onango ugazabarik.

LUKI.—-Andia da *orí, gazle onl* zure aloJteak enau eragiten, zure ugazaba odola dariola dagonak baño: esaizu izena zer yakon, adiskide on orrek,

IMOG—Richard 'du Champ zcin nu (18). (Bere kitean). Guzurrik esan ba'dagil eta iño ií okerrík egin ez, yainitoak enlzun-arren, azketsiko nabela ditxarot.--Zer esan dozu, yaun?

LUKI.—Zure izena?

IMOG.—Zintzo yatzu nire izena,

LUKI.—2ure izenak zure izana bera diño: zure izena ondo datorko zure zintzotasunari, zure zintzotasuna zure izenari, Nire otsein izan gurozu, ala? Eztautzul esango lengoa besteko ugazabarik izango nalxatzunik; baña, seguru zagoz, nik etzaudaz gitxiage maite izango.. Konsul-bitartez bidalitako Erroma'ks bakaldunaren idazkik eleuskit zu bizkorrage artuazoko zeure lainíasunak ba. ño: zatoz neukin.

IMOG.—Yarraiko natxatzu, yaun. Baña lenen, yainkoai eder izatekotan, nire ugazaba eulietatik yagongo dot, atxur mengelok abturtu al daben eta sakonen atxurturik; eta bein onen ganean basoko orbelak eta bedarrak zabalduazkero ta gero a! dodazanak lango eundaka arren egin, birritan edo iru bidar negar egingo dol; eta bein orregazkoa eglnazkero, yarraiko natxatzu, zuretzat artu gura ba'nozu,

LUKI.—Bai, gazte on; eta aitago izango naixatzu, ugazabago baño. Ene adiskideok, gizonaren egitekoak irakatsi dauskuz muti! onek: lurr-arlorik lirainena ta lora bellegiz beteena billatu dagiogun, eta ilobirik arrolu dagiogun gure aztamakii luze ta laburrez: goazen, artu besoetan gorpuct. Mutil, zuk ori gu baño obalzat esten dozu; eta gudariak al dabenik ondoen lurra emongo yako. Nasaitu ta poztu zadiz: legorlu zure begiok: yauskera batzuk yagite obarik izateko yazoten dira. (Alde dagie).

HI AGEHLEKU.-KIN) ELIN en yauregiko gela.

KINBELIN, ANDIKIAK, PlñANI, la Laguntzakoak aurrera.

KINDEL.—Oa barriro; eta esaidak erregenoa zelan dagon, Sukarrak artu dau bere semea aide eginik dalako (Lagunlzakok alde\' burutik egin yako, eta ortik bere bizia galtzeko galdu-gordean dago... Yainkook! zuok bai bereala ta gogor yoten nozuela! Imogene, nlre zori onaren zatirik andiena zana. yoanik da; nire erregenoa oean, etsita, eta guzti au guiu bildurgarriak ate-yoka dabilkidazanean yazoten yat; erregenoaren semea, aldi onetan ain bearreko genduana, a be yoanik; zartadok nik yasan -aleko ba= ño gogorrago dira: eztauste izten nasaialdiren itxarorik.-Igazko, lagun, nire alabeak norako bidea artu izan dauen yakin-arren ez-yakinarena egiten dokan orregazko, elorrio biziz esanazoko dauskagu.

PISANI.—Yaun, or dozu nire bizia, zure eskuetan dimint apal-apalik: baña, nire ugazabandereaz nik eztakit ezertxo be *a* nondik dan, ez zegaíiik yoan dan, ezta atzera noz etorteko asmorik dauen be. Arren, zure otsein zintzotzat etsi nagizu nagusi orrek.

I ANDIK.—Ene nagusi on, ak alde egin ebala oartu gintzazanean emen zan ori: neure burua egingo neunke orrek egia diñola, ta bendekoren bere egitekoak zintzo beteko dau?.ala. Kolten'egazko, eztago zetan ibili yoranez eta arduraz eta kezkaz aren billa, *a* ezpaibarik agertuko da-la.

KINB. -Nastetsu dira aldiok... (PISANl'ri) Bein. beinean eztauskagu ezer egingo; baña orraitiño nik nire crasmoa aldean yaukat.

I ANDIK.—Eder izango al yatzu, nagusien orri, Erromarren gudari-taldeak, Gallia'tik ate-

(18) Emen gure Shakespeare'k Imogene'n agotan daragoion aldiari eztagokon izkuntzarik ba-dakar, zera, Pantzerea, baña aldiri eztagokozan zerak ezlautsoe emoten Shakespeare'ri kezka andirik, ez emen, ez besle ainbat tokitan.

reak guztiak, zure izpazterrean legorreraturik dira; eta, orrez ganera, agure-batzarrak bidaliriko erromar aitonen seme-eraskinik be bai, geigarritzat.

KINB.—Nire erregenoaren eta aren semearen onurik *a*\ neu orcin! nasturik nauka arazg onek.

I ANDIK.—Ene nagusi on, zure gertakunlzak zuk entzunari arpegi emoteko lain badira, gitxienez: betoz geiago be, zu geiagorentzat zagoz gerturik-eta: igitzeko luze eretxita dagozan zure indarrak bidean imintea da zure egikizun bakarra.

KINB.—Eekerrik asko. Coazen, eta dagigun aldiari dagokona. Italiarrak emon leiskiguen zereginak eztausku emoten ez kezkarik, ez bildurrik; etxean yazo lokikenak nau ni bildurrez. Goazen! (PISANl'z beste guztiak alde).

PISANI.—Sztot ariu nire ugazabagandiko idazkirik, Imagene erail nabala idalzi neunlsanazkerokorik: andia da; barriak «arritan bidaliko eustazala agindu eustan nire ugazabandereaganaikorik be eztot; Kolten'i zer yazo yakon be eztakit; zer guztiok kezkaz beterik naukie: yainkoak oraindik onik iragarri bear dauskue. Zindo naz ni ustel nazanean; zintzo ezpa'naz, zintzo izate-arren naz: gudu onetan erakutsiko dot nik nire aberria maite dodala, erregea bera oartuarteraño erakutsiko dot, edo gudaketan yausi egingo naz. Beste ezpai guztiak aldiak ezereztuko dauz: Zoriak berak iñoz ekarri izan dauz itxas kaira endaitza galdutako ontzi batzuk. (Alde dagi).

IV AGERLEKU.-WALES. Artzulo-aurrea.

BELARI, GIDERI ta ARBIRAGA aurrera

GID.—Zaratak dira gure inguruan.

BEL.—Alde dagigun.

ARB.—*Ze* atsegin dogu guk gure bizitzan, yaun, egitekoaren eta ustebakoren bildurrek gu loturik eukiteko?

GIR,—Bai, zer itxaroteko guk gure buruak ezkutauaz? Onan yarraitzekotan, Erromarrak edo il egingo gabez Biritandar garealako, edo gudaldian, legez besterakotzat, euren otseintzan erabili asaldari basatitzat, eta gero 11.

BEL.—Semeok, mendi garratzetsra yoko dogu; eta an egon seguru. Erregeren aldekoetara yoterik eztogu: gu ezezagun eta gudari-•taldeetarako batuetarikorik ezkareanazkero, Kolten'en eriotzea yazo-barri izateak gu non bizi izan garean iragarriazotera beartu gengikez; eta, olan, indarrez esanazo legiskue guk egin izan doguna, eta elorrio gorriz guri autortuazoak gu eriotzara eroango gindukez.

GID.—Yaun, aldi onetan eztagokizu olango kezkarik zuri, eta gu geu b@ ezkauz olangok gogabetetzen.

ARB.—Ezta egi-antzekorik, Erromarren zaldien irrintzek entzun eta arein gudaltegietako suak ikusi dagiezanean, gure aberkideak euren begi-belarriak orain dabezan bestean itxirik eukitea, gu euren artean ikusirik gu nondiko garean yakiten astirik alperrik galtzeko.

BEL.—Ene! gudarosteko aínbat eta ainbatek ezagun nabe ni: Koltgn aldi atan gazte izan-arren, urteak aztautsoe alde eragin nire burutik aren oroiteari. Eta, orrez ganera, errege ezta nire otseintza ta zuon maitasungarri; eta izan be, erbesteraturik nozue ni; zuok eztozue bear dana añako azi-ezikerarik, bizitza latz au baño; eztoue zuon yaiotzeari legokion era-mera landurik izateko erarik, eta udako eguzkiak zuon arpegiak erre-baltzitu ta negu latzak tximurtu-bear gorrian ibili-bearrez aurkitzen zarie oraindik.

GID.—Olan yarraitu baño oba ori amaitzea, Arren, yaun, goazen gudarostera; ni ta nire anaiea ezkabez ezagun; zu zeu be orren aztu, ta orren aguretu zareanazkero, zure itaunik eztau iñok egingo.

ARB.—Argi dagiskun eguzki au-arren, nl ba-noa ara: au be banda ba, oraindik ikusteko nago zer dan gizonik iltea! nekez ikusi izan dot oraindik odolik, erbi bildurti, aker bero ta oreinena ezik! eguño eztot igon zaldi-ganera, neu lango zalduna ganean eukanarenera ezik: eta ak ez eban bere orpoetan burdinik, ezta agindun txirrinkatxorik (aztalik)! eguzki gurgarria begiratzeko be lotsa naz ni, aren izpi onetsiak niri mosuan mun eginaren lotsa, onen luzaro ezezagun errukarri iraunaz.

GID.—Yainkoak-arren, ni ba-noa: onetsi ba' nagizu, yaun, eta zure ederretsia emon, zer obarik egingo dot nire bizian; itxi ezpa'dagistazu, ostera, ortiko galdu-gordeen errua nire ganera betor eta Erromarren eskuz ordaindu dagidala!

ARB.—Nik be orixe diñot... olanixe bedi.
BEL.—Zuok zuon biziak orren gitxl esten dozuezanazkero, nire zartzaroan eztot etsi bear nirea geiagotzat. Gura dozuena egin, mutilek! Zuon aberriaren aldeko guduetan Sl ba'zadize, zuok ílten zarien lekuan Hgo naz ni be, muti'ek, e!a an etzango naz: aurrera, mutilek; ni be ba-noa. (Bere kitean'. Orduak luze egiten yakez; odola ixuri arterañoko aldia luze ta iguingarri egiten yake. ta errege-seme dirala erakutsi gura dabe.

V EKI TALDI

J AGERLEIU.-BIRITANDERRI, Biritandar ta Erromar gudaltegien bitarteko Iurr-arloa.

POSTUMU aurrera surzapi odolduagaz.

POST.—Bai, zapl odoldu ori, emen eukiko aut; neure gurariz ago emen odoldurik-eta. Gizon ezkonduok, zuotariko bakctzak nire bide au artu ba'Iegi, ainbatek eta ainbatek ilgo leukiez eurak baño oba diran euren emazteak iduna apur bat biurturik! Pisani ori! Otsein guztiak etxoezak betetan agindu guztiak: zuzenez beste agindurik bete--bearrik etxagok... Yainkook! nire utsen ordeazkoa emon izan ba'zeunste zuok, ni enintzakean biziko emon izan dodan au emoleko: biziten itxiko zeunskioen Imogene zindoari, damu izateko astirik izan egian: eta neu yoko nireduzuen, neu naz a baño gaxo askozaz ordeazkogarriago-ta, Baña, *a*\ ene! zuok emendik batzuk uts txikiekaitik ateraten dozuez; maitasunak eragiten dautzue ori, yausterik geiago izan eztagien: zuok batzui okerrak okerren ganera egiten izten dautsazue. geroago ta oker andiagorik egiten, gero euren onerako damutu dadizan. Zuonetaiko dozue Imogene: bete bediz zuon gurariak, eta zuon gurarien aurrean nire burua makurtuko al dot!... Ona ekarri nabe ni Italiar erriko semeen artean, nire andera zanaren bakalderriaren aurka erasoteko: Biritanderri, asko da nik zure errege-alabea il eragin izana; geldi! eztautzut egingo zaurl barririk... Orrazkero, yainko onok, entzun epez nire asmoa: erantzl egingo dodaz Italiar sorkiok, eta Biritandar baserritarrenen antzeko soñekoz yantziko naz: olan, nire laguntzat ekarri dodazanen aur-Ita yokatuko dot; olan, Imogene, zure a^de ilgo naz, nire biziko arnasa oro eriotza yat--eta; eta olan, ni iñok ezagun enauela, iñok ez errukirik, ez gorrotorik eztauslala, guztitariko galdugordeai opatuko dautset nire burua. Gizonai nigan r.ire soñekoak darakusena baño adore geiagorik iragarriko al dautset, Yainkook, Lonatu'tarren adorea emongo al daustazue! Munduaren bideak lotsatzeko, bide barrien bat artuko dot nik: azalez baño barruz yantziago, orniduago izango naz. (Alde dagi).

II AGEHLEKTJ.-BIRITANDERHI. Gudaroste bien bitarteko lurr-ailoa.

Aurrera. alde batetik, LUKI, YAKIMU, IMOGENE, eta Erromar gudarostea; bestetik, Birltartiarren gudarostea: LONATU POSTUMU atzetik yarrai gudari errukarri antzez. ñurrera egin-ala alde dagie. Gudu-ekite-otsak. Gero barrlen-barri aurrera, eurak euretarako burrukan, YAKIMU ta POSTUMU: bein benderaturik, YAKIMU'ri POSTUMU'k ís>killoak kendu egiten dautsoz, eta ori egindakoan bertan itxi YAKIMU.

YAKIM.—Biotzaren astunaren astunak eta erruak gizatasun barik itri izan nabe: ondera andiki laidotu izan dot, erri onetako errege-alabea laidotu be, eta emengo eguratsak, niri ordeazkoa emonaz, erkindu ta kikildu egin nau; olangorik ez izatekotan zelan benderatzeko ni nire ogibidean izatearen ondakin utsa dan merro ta mirrin onek? Biritanderri, zure aitonen semeak gure andikiak baño geiago dan kirten au baño geiago ba'dira, nire zalduntzea ta nire beste omenak izen uts eta irrigarri baño ez dira; gu osta-osta gara gizon, zuok, ostera, yainko zarie. (Alde dagi).

Gudua yarrai darrai: Biritandarrak ígesi: KINBELIN atxilo geralzen da; gero a yareiten aurrera BELARI, GIDERI ta ARBIRAGA.

BEL.—Geldi! geldi! gagozan lekua gure aldeko da; ondo yagonda dago estu-une au: bildur utsa *iia* gu galtzen gauzana.

GIDERI ta ARB,—Geldi, geldi ta yo!

POSTUMU aurrera ostera be, eta Biritandarrai lagun yake: KINBELIN yareita alde dagie. Orretan, LUKI, YAKIMU ia IMOGENE aurrera barrien-barri,

LUKI.—Alde, mutil, guiari-artetik, eta eure burua yareik; eta izan be, adiskideak adiskide ilten yaragoioek, eta naste langO nastea sortu dok, gudu au zorosn arteko ba'Iitz lez.

YAKIMLI.—Bai ba, indar barriak etorri yakez.

LUKI.—Egun onek iñondiko itzulietarakoa egin yok: eta, indar barririk ezpa'yatorkuk, igesi egin bearko yoagu, (Alde dagie),

m AGERIEKU.--BIRITANBERRI. Guda-lekuko beste arle,

POSTUMU *ta* Biritandar Andikl aurrera.

ANDIK.—Aik gelditu diran lekutik ator, ala?

POST.—Bai .andixik: zu, ostera, agiri danez, igeslarietatik zatoz.

ANDIK.—Bai, izan be.

POST.—Orregaitik lotsatu-bearrik eztozu, yaun; izan bs, dana egoan galdurik, yainkoak lagun izan ezpa'litxakuz: erregea bera bere aldamen bietakoak galdurik gelditu izan da, gudarostea birrinduta, eta BiritaBdarrenik atzealdeaz besterik ezta agiri izan, bide estu zear guztiak igesari emonik; Arerioa, adorez ganezka, iltearen iltez miña aterata. lanerako lankitan baño lan geiagogaz; arerioak batzuk betiko luze egotzi dauz lurrera, batzuk ukutu arinez, eta beste batzuk bildurrak berak yaurtin dauz lurrera; bidezidor estua atzetik ara ildakoz eta eriotza lotsagarria geroagoratu baño egiten ez izan daben dollor-bildurtiz ganaz eginik agiri izan da.

ANDIK.—Non izan da bide estu ori?

POST,—Guda-lekutik bertan; estu-une ori sakon da ta aldamenetan ormatzat zoiz yantzitako aldapak dauz, eta gudari zar batek toki ori bere alderakotzat artu izan dau; a bai gudari zimáo. gero; ak bai irabazi izan dauela bere bizar zuriak diragarren adinera eltzea, bere aberriaren alde egin izan dauena eginaz... orrako agure orrek, gudurako baño yolaserako egokiago dirudien (izan be, arein arpegi lirain-samurrak gudarien arpegien antzik baño liraintasuna naiz lotsea yagotearren euren arpegia marroz estaltzen daben emakumeen arpegien antz geiago dabe) mutil gaztetxo bi laguntzat dauzala, bidezidorra zearretara ebagi dau; igesi yoazanai gedar egin dautse: "Gure Biritanderri'n basauntzak ilten dira igesi doazala, ez gure gizonik; zoaze «rin su-lezara, atzeraka zoazen gogook! Geldi or; ostantxean, Erromar izango gatxatzuez, eta erruki barik emongo dautzuegu baga-piiien anizera zuok basa-pizlien antzera baztartu gura dozuena, eta betozkoz atzera begiraturik zeuok yarei zeinkisna: geldi or, geldi or "...Orreik, irurok, itxaroz iru milla, eta egitsz beste ainbeste izan diran orreik, irurok; eia izan be, iru gizon egille gizon-sail dira beste guztiak ezertxo be egiten eztabenean, "Geldi or, geldi or!" itzak esanala, lekua euren slde ebela, baña euren zindotasunez liluragarriago, goruz aztamakillak egin eikiezan aik irurak, arpegi zurbiilak gorritu efoezan, bai lotsaz, bai adore barriaz; orrei eskerrak, batzuk, besteak kikildurik ikusi izanagaitik eurak be kikildu ziranak. Ene! kikilkeri-ikasbidea askam yatzu gero guduetan, alan be lenen kikiltzen diranena!... Asi yatzuz ba batzuk eurak len ibiliko bidea begiratzen (atzera begiralzen\ eta leoien antzera eiztarien iskToai aginak erakusten, Orduan eiztaria gelditu egin izan da, gero atzeraka egin dau; bertatik sakabanatzea ta iñondiko nastea sortu da. Gure ganera arranoen antzera len yausi ziranak, olloak lez igesi egin dabe. Yopu ba'Iiran les atzeraka egin dabe len benderatzalletzat eurreraka eginiko bide berbeia: eta bein orraazkero, gure lengo klkilak lagungarri egin dira, uste baño luzeago egiten dan bidaldian yaki-ondakinak egiten diran antzera. Yainkook, ikusgarri izan da zelan yoten izan daben arerio kikildua, zelan zauritzen izan daben! Batzuk lendik illak zauritzen dabez; batzuk il-aginik dagozanak; beste batzuk, arerioen atzerantzako bultzadan aurrean eroandako adiskideak: lentxoago, guretaiko amarrek igesi eragoioen arerio baten aurrean; orain, amarrotaiko bakotxak arerioetaiko amar ilten dauz; arerioari gogor egin baño il gurago

ebenak, orain gudu-lekuko pizti ikaragarrl blurtu dira.

ANDIK.—Iñondiko alarifcearra izan *da* au,,. bide estu-une, agura, ia mutil gazte bí!

POST.—Bai, eta agoa zabalik etzadiz gelditu; *xu* egokiago te itzuliago *zara danlzuzunaz* agoa zabalik gelditzeko, ezer egiteka bnño. Bertso barriak egin eta txantxetan abestuko ete deguz? Amen bat:

"Mutil bik, agura zar batek, bido estuk
Yarei dabez Biritandarrak,
Eta Erromarrak boti-betiko dabez uxatu".

ANDIK.—Tira, ez asarratu, yaun,

POST.—Ba! zetarako asarratu?

ñrerioari gegor egin gura ezlautsanaren adiilcide ni izango
Izan be, olangok bere izatsari bete-be-tean beti erantzungo;
Olangok ni ago fcete açinegaz itxiía arin alds egingo,

Bertsslari egin nezu,

AMDIK.—iigur; asarrs r,ara zu. (Alde dagi).

POST.—Orainái k be igesi doaku ori?... Eta orraitiño aniikitzot dabe! zirtziikeriz bai ba--az i andiki... guda-lekuan bertan ago ta ze barri dan itaunka atorkit, eta nigana etorri be! gaur amaikatxok eroongo eukiezan euren omenak euren narrua osorik aterate--arren! Igesa artu izan dabe orretarako, eta orraitiño ii egin dira! Ni, barriz, lorrez eta naibagaz Mluraturík, ni or ibiii naz urrumeka eragoion sriotzearen urrumak entsunik eriotzearen bills, eta iñon ezin idoro izan dot, ezta aren zartadarik nigan somatu be: eriotzsa, mamu ikaragarri dakirik, andi ta iñondiko da zelan eia zsgaitik yakon ari begikoago bere burua edontzi ozkirri, oe bigun eta itz eztitsuetan ostondutea; eta zegaitik dauzan gu guduetan ezpatak aterata gabiltzansk baño otsein geiago... Tlrc ba, neu yoango naz aren billa: idoroko dot nonbolten; eta izan be, Biriiandarren aldeko izan naz, baña Biritaraiar enazanazkero, ostera bs nire lagunen arteke izango naz; oraindik *aia* eziot egingo burrukarik, sorbaldan ukutu uagían zirtzilenarl benderatuko natxako. Itzala da egin izan dan sarraskia, Erromarrak egin dabena; andia izango da Biritandarrak emongo dautsen ordeazkoa: nignzko, ni yareiko nauena eriotzea izango da; elde batekoak, naiz bestekoak ni II, eztaust bape ardura; alde enetan be eztot euki gura nire bizia, ezta bizitea yagan be; zelan edo alan il egin bear dot Imegene'n alde.

Biritandar gudalburu fcl *ta* gudarialt *auneia.*

I GUDAL.—Gora Yupitsr andia! atxilo yausi da Luki: angeruizat daguz agurea ta aren semeak.

II GUDAL,—laugarren gizoník be izan da, soñeks barregarriz yantzia, aikin batera arerisarí gogor egin ízan dautsana,

I GUDALB.—Olan diñoe or; baña euretarik bal bsra bg *e'tla* agirl.., Geldi or! rser augu?

POST.—"r-oraarretarlko; omen buru-makux elegokena, iñor laguntzat izan ba'Ieu.

II GUDALB.—^nkuak egotzi orri; txakur atsitu sri!... Erroma'ko gudarirík eztok yoango atzera smen zetariko belak mokoka eratili izan dabezan an esateko: arrosko diño onek beronek egins, zer andiren bat egin izan ba'leu lez; erregegana eroan egizue.

KINBEUN aurrera, laguniuta; BELARI, GIDERI, ARBIRAGA, PISANI, ta Erromar atxilotuak. POSTUMU dakatsoe gudalburuak KINBELIN'i, eta onek Baitegibururi damotso: orrazkero, guztiak alde,

IV &GEHLEKU.–B1 SITANDEHHI. Baitegi,

POSTUMU ta Baitegiburu bl aurrera.

I BAIT.—Iñok ez au ostuko, ondo esturik ago; orrazkero, bedarra yaik, al bok.

II BAIT.—Bai, urdallarik ba'dok (gegorik *ba'* dok). (Baitegiburuak alde).

POST.—Ondo etorriak, lokarríok! eta izan be, nire ustez, zuok zarie ni yareiteko bide: orraiiiño be, azur-giltzetako minez gexorik dagona baño ebeto naga ni; ak gurago dau elorrie gorrien bendean cl ene baten bizi, osagille seguru dan eriotzeak osatzea baño, eta eriotzea da rúre lokarriok azkatzeko giltzea, Ene yakinkidetza ori, i nire zangoak *eta* esku-rrjuturrak baño estuago ago; yainko onok, ekazue lokarriok urratu ta betiko yareiko nauen damua, garbaia! Asko eie da ni garbaiturik egoiea? Umeak garbaiaz egiten dabez onezkoak euren aragi-gura-soakaz, eta yainkoak aik baño errukiorra-

go dira. Garbaitu egin bear ets dot? Orretarako biderik onena iñok beartuta barik nobere kitetik baitegiratzea da, nik egin izan dodanez. Yainkook, nire zorra ordainduazoteko zer eta zenbat artuko begira egeteka, dana artu egizue. Ba-dakit zuok gizon zirlzilak baño biozperago zariena, aik euren ^ordun porrot-eginai irurena, seirena, amarrena k^ntzen dautse, eta orrazkero, euren murritz-aldian biziten itxi: ori ezta nik gura dodana: Imogene maitagarriaren biziaren «Iderako nirea kendu egidazue: eta arena bestean maitagarri ezpa'da, bizi da orraiti. ño be; zuok egina da, ta zuon antzera egina: emen gizonak euren artean eztabe astatzen txanpon bakotxa; arinago izan-arren, íruíia aldean ba'dau, artu egin daroe. irudiagaitik: zuok areago artuko dozue nirea, zuon irudia dau-la: eta orrazJ^ero, al andidunok, nire argibide cra onlzat ba'dozue, artu nire bizi au, eta urratu zorragiri otzok, lokarri otzok. Imogene ori! ixilik itz egingo dautzut zuri. (Loak artzen dau).

Eresi ben. Agerpen edo itzal-antzez, POSTUMU'n *aila* SIKILI LONATU aurrera, gudari yantziriko agurea, bere eskutik bere emazte la POSTUMU'n ama etzandera zarra dakarrela, eta ereslariak euren aurretik datozala: gero, beste eres-aldiren ostean, Lonatutar gazte biak, POSTUMU'n anaiak, guduetan euretatik il ziran zauriekaz, POSTUMU lotan dagola erdian artzen dabe.

SIKILI.—Ostots-yabe orrek. ez erakutsi zure zapuzkeririk euli ilkorragazko: Marte'kin egizu burruka zure ezkontza-kutsuketak zenbatu t« euren ordeazkr-a emoten dautzun Yune'ri asarre egiozu, Ze oker egin izan dau nik eguño arpegia ikusi eztautsadan nire semeak? Amaren sabelean zan. yaioteko izanlzearen legea noz beteko begira, ni il nintzanean: eta gizonak diñoenez, zu zara umezurtzen aita-ta, zuk izan bear zeunkean orduan, eta lur onetan naibagatzen daben min eta sñazeetatik zuk yagon bear zeunkean a.

AMAK.—Lukine (19) eixatan lagun izan, eta ume-minetan il nintzan. A bai zori tsarra! Postumu, nire erraietctik atera-ala, arerioen artean agertu zan negarrez, Aren errukarri!

SIK.—Bere guraso ta arbasoen antzera, Izantza andiak a lirain-lerden eratu eban, eta Sikili andiaren seme zalako munduaren gorasarre ta omengarri zan.

I ANAIEAK.—Gizon eHu izatera eldu zanean non eta nor zan Biritsnderri'n *a* añakorik eta aren laintasuna ondoen etsi eikean Imogene'n senargeiagorik?

AMAK.—Zageitik ezkondu eben irriz, ezkondu-ala erbesteratu ta Lonatutarren etxetik egotzi, ta Imogene maiterik maiteen eztiagandik aldentzeko?

SIK.—Yupiler andi ori, zegailik ilxi zeuntsan zuk Takimu Itali'ko sastamarrari bereak baño zindoago ziran aren biotza la burua tukukeriz kulsalzen, besteen dollorkeriaren barregarri ta irrigarri izateko?

II ANAIEAK.—Ona emen zegaitik etorri izan garean ona gure gurasoak eta gu ana! biok, gure aberriaren alde adoretsu burruka egin eta il gintzazanok, gure zintzotasuna ta Tenanti'n eskubideak omenez yagote-arren. Orregaitik itxi doguz gure yarleku ta bizileku baketsuak.

I ANAIEAK.—Alangoxe adorea erakutsi dau Postumu'k Kinbelin'en alde! orrazkero, Yupiter, yainkoen bakaldun orrek, zegailik geroratu dozuz orren irabaziai zor yakezan ederrelsi ta eskerrak, guztiak oñaze biurturik?

SIKIL.—Idigi egizuz zure ieiarrezko leioak; begira euretatik; ez egizu azkatu ta enda aidoretsuren ganera bídali zure asarre gorria.

AMAK.—Yupiter, gure semeo on danazkero, aren zori txarrak agandik uxatu egizuz.

SIKIL.—Kirika begiratu zure atxurdinezko etxetik; lagun zakiguz; ostantxean guk, itzalok, gure etenbako gedarrez zure yainkotasunaren aurka beste yainko guztien batzairo batuko dogu.

ANAI BIAK.—Lagun zakiguz, Yuplter; ostean beste yainkoakana yoka dogu íuzentzaeske.

YUPITER ostots eta yusfuri artectn yasten da, arrano-gonean yezarrita: oñaztarria yaurtiten dau. It™alak belaunbikatu egiten dira.

YUPITER.—Ez egizuez mindu gaurgero gure belarriak, bealdeko itzal alakariok: ixilik, gero! Zelan azartzen zarie, itzalok, ostoskaria salatzen, zeuok ondo dakizuenez, aren oñaztarriak ortzean sorturik asaldarien izpazter guztiak yo ta auts egiten dauz-eta? Eleusi'ko (20) ilzal errukarriok, alde emendik; eta atseden artu ango Iñoz be zimel-

(19) Lukine dalako au ernakumeen erditzearen arduradun yainkono yatzu.

(20) Eleusi dalako au Elendarren zeru edo zintzoen erioíza-osteko toki zori ontsu zan.

izen ez díran lora-muneían: arazo au ezta zuoi dagokizuenik; zouok dakizue niri dagokidana daia, Maiteen dodana zigortzen dot nik; nire emaitza itxaroago ta gozoago egiteko. Nasai egon; zuon seme beera eratsia gure yainkotasunak goretsi ta goratuko dau: aurrera-bidean dira aren pozak, amaiturik dira aren lorrak. Gure izarra zan nagusi aren yaiotzean, eta gure yauretxean ezkondu zan.„ Yagi, la ondutu! Imogene anderearen yaun izango da *a,* ta naibagalorrez zori ontsuago eginik geldituko cia. Imini aren bular-gauean gure ederretsiz uren etorkizuneko zori on osoa idatzitu daukien oltxook (21): eta orrazkero, alde emendik: zuon gedar-kallaziz ez iragarri zuon epsrikeza, eurekaz nireai eragin eztagiezuen. Gora, arrano, igon nire leiarrezko yauregira (Igon digo).

SIKIL.—Ostots-artean etorri yaku a; sulbur--atsa erion aren arnasa zeruíarrari: areii yainko-arranoa gurl erpaka egiteko ba'litzan lez yatsi da: arsn igoerea gure zelai loratsuak buño be ezíiago izan da: aren egazti yaukalak bere mokoaz bere ego ílezinak apaindu ta orraztu dauz, bere yainkoa pozik dagonean egin daroanez.

GUZTIAK.—Eskerrik asko, Yupiter!

SIKIL.—Atsturdinezko areti etxeko azpio ezta agiri, sartu da a bere yauregiko tellatu argipean... Goazen, eta aren onespenç/arri Izateko, aren agindua arduraz bete dagigun. (Itzalak alde dagie).

POST.—(Atzarri egiten da). Lo ori, benetako aitaita izan zatxataz zu, eta aita sortu daustazu; eta ama ta anai bi egin daustazuz: baña au bai ba-dala iñori adarra yo-bearra! yoanik dira! yaio-ala aíde egin dabe emendik. Dana ezereztu da *ia* ni orain atzarrik. Andikien on eginaren begira dagozan zorí íxarreko errukarriak amesetan bizi dira, nik ames egin izan dodanez: atzerten yatzuz eta ezebe barik aurkitzeit yatzuz. Baña, ai ene! okerreko bidea artu dot nik: batzuk idoroteko amesik eztabe egiten, eta olangorik írabazi be ezlahe egin, eta orraitiño, eskuerakutsitan igerika aurkitzen dira; orraitariko uaz ni be, neuk eztakidala, alanbearrez, urrezko ikuskizuna izan dol-eta. Zelariko maitagarriak ete dabiltz toki onetan? Idaztirik ba-dogu emen. ala? Idaztia, ta iñondikoa berau! gure mundu ero-arroa danez, ez al az izango azalez mamiz baño zindoago: gure yauregilasrei yazoten yakenez besterako izan eta ire ondorenak aginduak bestean on izango al dozak.

{Irakurri dirakur) "Bere burua be ezagun eztauen leoikumek, bíllatu eztauena ídoro. ta ats samurdunak besartean estutu dagianean; eia aspaldi izai garraztaiik moztu ta luzaroan ilik egon izan diran adarrak ostera be biztu ta lengo aldorrari barriro intsigirik barrien-bani azi ta loratu dadizanean amaituko dira Postumu'n nekelorrak, zori ontsu izango da Biritanderri, ta gentzaz eta ugaritasunaz loratuko da". Oraindik be ni ameseian: edo osiantxean zoi'ok bez onangorik esan, ezta usmtiu be: butu tu bestea, edo utsa; tentelkeri utsa, edo iñok ezin azkatu leiken esangurea. Dana dala. onako onen antzeko da nire bizitzea be, eta bizirik iraungo dot, orrako orren antzeko izate-arren baño ezpa'da be.

BAITEGIBURUA aurrera ostera be.

BAITEG.—Ator, yaun, ilíeko gertu ago, ala?

POST.—Uteko geitu? Adakaia ilteko geriu ezeze, ilík eia yateko erreegi be ba-yagok; uspaldidanik gertu.

BAITEG.—Eskegiteko esan bear enduan, yaun; orretarako gertu ba'ago, ondo erreta ago.

POST.—Olan izatekotan, begiralarientzako yaki ona ba'nok. ordaindu dubeiuiren ordekoa artu yoelc

BAITEG.—Ordainkízun andia dagokik begira, yaun. Baña ba-dok pozkarririk, a/.tok izango geiagotan ordaindu-bearrik, ez izan ardandegi-ordainkizunen bildurrik; izan be, ulango lekuetan, bertan azan bitartean poza dok, baña andik alde egitaldian goibel ago: larri sartzen az alango lekura goseak ilik, ziboka urteten az andik edari lar adanagaitik; tamalez, giegi ordaindu izanagaitik eta mozkorregi eginagaitik; sakela ta burua bíak utsik... burua astunegi, arinegi dagolako; sakela arinegi, barruko astuntasuna utera yakolako: ene! olango buruausterik eztok izango auirerantzeau... Ene! txakurrandi buteko lokarriak dakarren errukia! unetxo batek millakak ordaintzen yozak: lokarria ire zor-artuenen zenbatzalla bizkorra dok; berealaxe emongo dauska len-aldi, orain--aldi ta geroaren garbitasuna: ire idunak egingo yok idazkortzarena, sartu-urtenen idaztiarena ta ordaintze-maiarena; egozten dok ire burua ta zorra kituturik dok.

POST.—I biziteko baño ni ilteko pozago nok.

(21) Oltzoak, Erromarren aldian idazteko, papelaz ganera oltxo meak be erabilten ebezan euren ganean idazteko, eta orretaiko dira emen aitatzen diran oltxoak.

BAITEG.—Izan be, yaun, lotan dagona eztok oartzen aginetako minaz: baña irea lango lorik egiteko Iitzaken gizonak, oera eroa. teko eskegitzallerik ba'íeu aldamenean, alangca, nire ustez, eskegitzallearena egiteko gertuago legokelc, berea egiteko baño; eta izan be, yaun, ik eztakik norako bidea artzen dokan,

POST.— Bai, mutil, nik ba-yakiat.

BAITEG.—Orrazkero, ire eriotzeak ba-yok begirik bere buruan; nik etxoat ikusi eguño eriotzea olan iruditurik: ik, eda bein ildukoan norako bidea artzen dan ba-dakiela diñoenai itandu ta arein esanera ycirri bear dok, edo eure lepora artu ik eztakika'a seguru nagona: naiz, gero zer izangoari yarcimonik egiteka, begiak itxirik, ire galtzorira egotzi egík ire burua; eta íiik etxoat uste ire ibiiíaíciiaren atzenean atzerct ona etorriko azanik, an zekm ibili anan esateko,

POST.—Lagun, nik diñodana zora dok, nik eroango dodan bidea egiteko edonok ie begirik asko dauela, itsi ta ercikiii gura eztabezanez besteak.

BAITEG.—Auxe bai ba-dala atzenbako irri egitea, gizonak tere begiak ezer ikusten ezian lekuan darabiltzala ondoen eBatsa! orain dakusí argi eskegl-lekurctke bidea be itsu©-na dalct.

GEZNARI aurrora.

GEZN.—Azkatu egiozuz eskumutur-lokarriok; erregegana ekcirri egizu zure atxiloa.

POST.—Barri onik ba-dakak orraitiño... azkatzeko deitzen nabe,

BAITEG.—Orrazkero, neu eskegiko nabe.

POST.—Olangorik izatekotan, baitegibururik baño yareiacje izango az; ilek etxoek bear morrol'.orik, (POSTUMU'k eta geznariak alde).

BAITEG.—Gizonik urkctmendiaz azkendu ta urkamendikumerik ez izatskotan, nik eztot eguño ezaçjutu izan au baño urkamenáizaleagorik. Ori Erromar be Errornar izan-arren, nire yakinkidetzeak diraustanez, ori baño zantnrragorik ezagun izun dot nik biziguraz, eta euretaiko batzuk euren gogoaz bestera ba ilten dira; orreitariko nintzake ni b@ iltekotan. Guziiok *al* gintzaz eietxi bateko, eta eretxi oneko; baña olcmgorik yazotekotan. ori urkamendi ta baitegiburuen atzena ta ondamendict iitzake! nik nire oraingo ogibidearen aurka daragoiot, bciria alan eta guzti be obcs litzake. (Alda dagi).

V AGEHLEKU.-BIHITANDÉRRI. KINBELIN'en txoznea.

KINBELIN, BELARI, GIDERI, ARBIRAGA, PISANI, Andikiak, Erri-otseinak, eta Laguntzakoak aurrera,

KINBEL.—Nire aldameneratu zadize, yainkoak nire bakaulkiaren yagola egin zabezanok. Atsakabez beterik dot biotza, orren bikain eta adoretsu eraso ta yokatu izan dauen gudari beartsua, aren sorkiak iskillo urreztauak lotsaturik itxi izan dabezcma, iskiiloelburuaren aurrean bere bular gorria imini izan dauena iñonáik iñora ezin idoro dalako: zori ontsu izango da a idoro dagiana, gure eskuzabaltasunak iñor zori ontsu egin al izatekotan.

BEL.—Hguño eztot ikusi izan arena lango adore sutsurik eta zindorik alango zer zirtzilegan; ez alango egite bikainik, eskekota-Buna erakutsi ta errukia eskatzen izan dauen alangogandik.

KINBEL.—sz ete dogu aren barririk?

PISANI'k.—Bizi ta ilen artean ibili gara aren billa, baña ezta iñon arsn lorratzik.

KINBEL.—IBELARI, GIUERI, ta ARBIRAGA'ri). Nire naibagerik askogaz aren sariaran yarausle ta oñordeko neu naz izan, baña ori be zuoi erantsiko dautzuet, zuok zarie ba Biritanderri'ren buru, biotz ets gogo, dautortanez zuoi eskerrak blzi da-ta. Eldu da orain zuok nondiko zauguezan itcinduteko aláia: esan ba.

BEL.—Yaun, gu Kambria'n yaioak eta aitonen seme gara: an baño arrokeri geiago erakustea elitzake ez egiazko ez lotsor, orrez ganera zindo gareala erantsi ezpa'dagigu.

KINBEL.—Makurtu zuon belaunak. Yagi, guduetctrako nire zaldunok: nire laguntzat artzen zauedaz, eta zuon goi-izenai dagokiezan goi-izanak emongo dautzuedaz.

KORNELI ta Emakume andikiak aurrero,

Artegcitasuna ta urduritasuna davakusez arpegiok... Zegaitik egiten dautsazue ondo-etorri orren motel-iluna gure garaiteari? Erromar dirudizue zuok, *ez* Biritanderriko yauregiko.

KORN.—Gora, errege ancli! zure zori ona mingoztuteko, erregenoa il dala iragarri-bearrez nozu.

KINBEL.—Oktngo barririk ekarteko nor osagillea baño egekiezagorik? Baña gogaketabidez oartzen naz osakaiz bizia luzatu egin leikala, baña orraitiño be eriotzeak osagillectrl berari be eltzen dautsala, Zelan il da?

KORN.—Ikara baten, burua galdurik, bizi izan dan legetxe; eta aren bizia munduarentzako gogor izan zanez, beretzalco be gogorgegor izan da atzenean. Eder ba'yatzu, autortuko dautzut ak iragarri ta autortu dauenai emakumeok guzurtauko uabe eztanik esatekotan nik; ak atzenengo arnasea emon dauenean onoik negarrez cm egon izan dira-ta.

KINBEL.—Esan ba, arren.

KORN.—Lenen, zu eguño etzauzala maite izan autoriu dau ak; zugandik iribciriko anditasuua bakarrik maite izan dau ak, zeu ezs zure erregetasunagaz ezkondurik, zure lekuaren emazte izan da a: zuri zeuri iguin eutzun.

KINBEL.—Berak bakarrik ekian ori; eía ilaginik egoalct berak autortu izan ezpa'Ieu, beiak bere ezpanez esan izan ba'leust be eneuskion sinistuko. Ekin,

KORN.—Zure alabea, arentzako ak maite-irudia ain polito egiten ebana... zure alabea ikustea bera lupua bera ikustea yakcla autortu dau; eta ak zure alabeari bizia edenez kenduko euskion, igesi izan ezpa'leu.

KINBEL.—A bai izan da benetan txerren samur! Nok ezagutzeko emakumerik? Geiagorik b# ba-dogu, ala?

KORN.—Bai, yaun, eta txarragorik be bai. Zutzuko osakai erailkorrik be ba-ebala autortu dau; zuk *a* artzekotan, zure bizia geldi-geldi ta apurka-apurka iristu ta galduko litzakean; eta bitarte orretan aren asmoa zera zan, gauak atzarrik emonaz, negar eginaz, zuri mun eginaz zu bere azaluskeriz benderatzea; eta bein erea letorkonean, bein zu bere marrokeriz atara imini ta itzulitakoan, bere semea izentauazo zuri, erregetzarako: baña bere semearen alde-egiteaz aren uamoak ustel urtenik, etsipenik andienaren bendean yausi da; gizon eta yainkoai yaramonik egiteka, iragarri dauz bere asmoak; berak kutundu dauzan asmoak bete-ezinez naibagatu ta garbaiturik, etsipenik gorrienaren besartean il da.

KINBEL.—Aren emakumeok, orrako guztia entzun dautsazue ari, ala?

I EMAK.—Bai, entzun dautsagu, ta eder izango al yako zure nagusitasunari.

KINBEL.—Nire begiak eztabe izan errurik. *a* eder zan-eta; $_{ez}t_{Q}$ nire bolarriak be, lubankerlak esaten eustazan-eta; ezta nire biotzalc be, irudia egiten ebana langoxo zala usto neban-eta: gaiztakeri litzakean ari ez sinistea: orraitiño, nire akibearena, nire alabearena! zuk bai, ene alabcilxo, zuk bai bctdozu ni burutik eginda ibili izan nazala esateko bíderik. eta nire okerraren ondorenak zeugan oartu dozuzala. Yuinkoak arteztuko al dabe guztia!

LUKI, YAKIMU, Aztua, eta beste Errsmar atxi. lo batzuk aurrera, yagonilc; POSTUMU ta IMOGENE arein atzetik.

Kai, orain etzatoz zei'ga-eske; utaean itxi izan dabe ori Biritandarrak, orreturuko euretaiko adoretsu asko galdu izan ba'dira be. Ilen senideak zuok, euren atxilook, il zagiguezalu eskatu dauskue, ilen gogoeri atsedenerako, ta guk eskari ori ederretsi dogu: orrazkero, gertau zadize ilteko.

LUKI.—Yaun, gutiuko gora-berak eta aktnbea. (ícilt gogora egizuz: alanbear utsez irabazí dozue; guk irabazi izan ba'gendu, bein edolak otzituazkero, guk ez geunkezan erabiliko gure atxilocdc ezpataz zemaika. Baña yainkoak zeralc yazo diranez yazotea eiabagi dabenuzkeii), gure biziak birrerosteko biziak eurak emoteaz beste biderik eztagonazkero, betor etortekoa: Erromarok Erromarri dagokionez yasango dogu. Augusta bizi da, ta berak ikusiko dau zer egin: nigazko eztot beste zer esanik. Zertxo au bakarrik eskatuko dautzut: nire otseina, Biritanderri'n yaioa, birrerosi al dagidala: eguño ugazabak eztau izan au Iango esku-mutil txerakor, zoli, saniur, zintzo, azkar. eta ugazabari intsígirik; orren on-indarra batu bekio nire eskariari eta zuk ezetzík eztozu-*a* emongo esaten azartzen naz; Erromarren otsein izan-arren, orrek eztautso egin okerrik eta kalterik Biritandarri: ori yarei egizu, yaun, eta ez parkatu beste iñoren odolari.

KINBEL.—Nonbaiten ikusirik dot neuk be: ezagun yat orren arpegí atsegina. Mutil, ire arpegia begiko egiten yatak, eta neuretzat artzen aut. Etxakiat zek eta zegaitik, baña zerbaitek iri esanazoten yaustak bizi adí, mutil: eztautsak eskerrik zor orregaitik ire ugazabari; bizi adi: Kinbelin'i eska egiok euk gura dokan esku-agiria, nire eskuzabaltasunari ta iri dagokiena izatelcotan, nik emongo dauskat-eta; baita atxilootatik zindoena eska ba'dagistak be.

IMOG.—Nire eskerrik apalenak zuri, nagusi orri,

LUKI.—Mutil on, nik eztauskat eskatzen nire bizia eskatzekorik; eta orraitiño ba-yakiaí Ik eskatuko dokaia.

IMOG.—£z, ez: ai ene! besto egitekorik dot eskuartean: eriotzea bera baño mingotsago yatan zera dakust: zure tiziak, ugazarxt on. berak urratu bearko dau fcere biiea.

LUKI.—iztaust yaramoten mutilak, bertan-bera izten nau,irri dagist: bizitza laburra dabe neska-mutiien zintzotasunaren ganean era-Cjitako pozak... Zer dala-ta ete dago orren zalantzaz beterik?

KINBEL.—Zer çjura dok, mutil? Geroago ta moiteago aut: ondo baño oiseto gogora egik zer eskatu. Ezagun dok begiratzen dokana, aia? itz-egik, ori tizirik iztea gurok, ala? Senide yak, ala? Ala, adiskide?

IMOG.—Erromar da ori; zu nire baño ez senideago nitzat; zure bendeko yaio nintzanazkaro, ni arean senidcige natxatzu ta.

KINBEL.—Zegaitik yosten dautsazak iro begiak olan?

IMJG.—Biok biotara esangs dauteui, yaun. ni anizutea eder ba'dakitsu.

KINBEL.—Bai, eder be eder yat, eta adirik aáien entzungo auí. Zer yak izena?

IMOG.—Zintzo, yaun.

KINBEL.—I nire serne, nire esku-mutíl az; neu izango nok ire ugasaba; arraikit; bildur barik itz egidak. (KiNBELINíek e;a IMOGENE' k eurak euretara itz dagie).

BELARI.—Sz ete dok ori arako gure mutila? Berbiztu egin ete 'iok?

ARB.—Ondarrik ez ondarren antzekoago gazte ori arako gazte guri Zintzo eretxonaren eta il zanaren antzeko dan baño, Zer uste dozu zuk?

GID.—li zan zera bera bízirik.

BEL.—Ixilik, ixiiik! etxon dagiguní gu ezkauz tegiratzen; epe artu; izakirik izan leiteke besteren antzeko; seguru nago a izatekotuii onazkero itz egingo euskula.

GID.—Baña a iiik ikusi gendun.

BEL.—Ixiiik egon; et::on dagigun.

PISANI.—<Bere kitean) Nire ugazabanderea da ori: bizi danazkero, geroak erakutsiko dau onerako ala txorrerako dan. (KINBEL. eta IMOG. aurrera).

KINBEL.—Srdu, nire aliamenean yarri; gedarrez egin zure eskakizuna. (YAKIMU'ri) Yaun, ator i aurrera; erantzuiok mutil oni, eta bildur barik erantzuiok; ostantxean, gure nagusitasuna-arren eta bere ederra-arren, eta gure ederra gure omena dok, elorrio gorriz eralgiko yoagu egia guzurretik... Tiruk, itz egiok.

IMOG.—Nik eskatzen dautzudan esku-erakutsia aitonen seme anek aldean daraan erestuna nogandik artu izan dauen erantzun dagiala ria.

POST.—(Bere kitean) Zer ardura ete dautso orri zer orregaitik?

KINBEL.—Esaik, ire atzeko ikatzarri ori zelan egin dok ire?

YAK.—Nik escsn ezik elorrio gorriak ikusiazoko daustazuz, baña esan ba'dagit zeuk ikusiko dozuz elorrio yorriak.

KINBEL—Onangorik! nik, ala?

YAK.—Ni pozik nago ostonduta eukiteak elorrioak damostazana esanazoten daustazulako. Zatarkeriz iritxi neban nik erestun au. bai, zatarkeriz; Lonatu zuk erbesteratuaren pitxietariko zan erestun au; eta nirea lez zure naibagea andiago egiteko, a baño gizon zindoagorik ezta izan eguño ortze ta lurraren bitartean, Geiago entzun gura dozu, ala, ene yaun?

KINBEL.—Bai, zeatz zeaiz azaldu arazo au.

YAK.—Baráinbako zure alabeak.... agaitik nire biotza odola dariola dodanak, eta nire biotz ustelak a gogoratzeko adorerik be eztauksnak... ezin dot yarrcsi; larri naz.

KINBEL.—Nire alabea! zer nire alabeaz? Adoretu adi: gurago naieunkek i eurez il arte bizi, nik gsiagorik entzuteka al bcrio: alecjinak egizak, gizon, eta itz egik.

YAK.—Beñola..., baí zori txarreko aldi atan orduak yo ebazan erloiua! orrako ori Erroma'n izan zan,.., Lirao bedi toki arentzako! Oturuntzan gintzazan... Ene! edendurik egon al ziran gure yakiak, nik agora sartuak beintzat!... Postumu onak... zer esateko nik? A onegi zan gizon gaiztoak egozan lekuan egoteko; eta *a* on bakan guztien artean onena zan... a goibel yezarririk egoala, guk Itali'ko gure maiteen edertasuna goratzen geragoion, eta emakumeon edertasunari ez eutson urrik be emoten geien goratzen ebazanak; arein marrak eta soin-lerdentasunak ctzean urrin izten ebezan Benuts eta Minerbe'ren mami-irudienak; aik, gure eretxiz, gizonari emcskumea maite eragiten dautsen zer snen denia edo olangotsu zíran; orrez ganera, emakumegan gizonen begia yo, liluiulu ta, amuaren antzera, ekarri dtikarrena, liraintasuna aitatu ta goratzen gendun...

KINBEL.—Erreten nago: arira ator.

YAK.—Arinegi elduko naz, len baño len atsekabetutea gura ezpa'iozu... Postumu au..., sinisgarri be Einisgarri zanez andiki maitemindua, eta emaztegeitzat errege-alabaren bat ebana, gure zipladak eraginda, guk goratzen gebazanak zapuzteka (a bere onin-

darrak andi ziran bestean nasai egean orrelan) alango baten asi zan bere maitea goratzen, a azaltzen; aren gorapen-Ltzen nldean eta aren itz-egikerako benetakotasunaren aldean, gure gorapenak eta gure arropuzkeriak kedarra baño geiago etziran,

KINBEL.—Bai, bai, arira.

YAK.—Zure alabearen garbitasunaz itz egiten asi zanean, -eta eldu garu arira-, uk esan ebuna zera da: Dine'k ames berorik Izaten ebalu. zure ulabou bakarrik zalu otz: a onetura eldu zanean nik, zori txarreko onek, aren gorapenak sinistu ezarena egin nebun; eta diruak egin neuntsazan nik uri, ak uldí ulan bere atz omentsuan ekarren erestun onen ulderako baietz bete nik aren oean uren lekua, etu baietz irabazi nik erestun uu nire tu aren maitearen urteko ezkontza-kutsaketa-bidez: Ak, benetako zaldun izan ba a, ak *ez* eban bere maitearen zintzotasunaz nik ugan idoroko nebana baño usta gitxiagorik-eta, erestun uu egin (yokatu) eban; etu uk burdin egingo eukean Poiba beraren burdiko ikatzarri-pitxietariko izan ba'litz be; eta seguru yokatu eikean aren burii osoa bestean gei izun ba'iitz be. Artez nator Biritanderri'ra asrao onegaz. Oroitu zeintekez, yaun, ni zelun elorri ninlzan zure yauregira, eta *emen* irakatsi eustan zure ulabu guriiuk zelango uldea dagon rnuitasunetik muitekeriru. Nire usteak onun guldurik, ustirik galtzeka, or usi ziran nire Italiar garaunak zantarkiro lun egiten zuon Biritanderri motelago onetun, etu zuon moteltasun ori ezin obeto etorri yalan: labur esateko, nire lukikeria ezin obeto urten yatan-eta, atzera yoan nintzan Itali'ra Lonatu'ri burutik eragiteko egi-antzeko ugiririk askogaz, emakume andiki tu entzute andiko aregazko aren sinisteari, onango ta onango agiri-bidez, lur yoazota; sinisgarritzat, underearen lo-gelako oiul eskegiak, irudi-laukoak azaldu neunlsazan eta eskumutur-estun au ari erakutsi... Nireu bai lukikeria ta trebetasuna au kendu neuntsanean!... bui, anderearen soñeko ezkutuko ezaugarri batzuk be azaldu neuntsazan, eta ník ixilkizun ori ostuazkero, uk ezin egin eikean besterik bere maitearen garbitasunak larrat egin ebala sinislu baño, Orrazkero..., a orain ikusi dakusadala dirudit...

POST.—(Aurreralu-ala) Bai, ba-nakusak ikusi be, Italiar txerren orrek!... Nirearen baltza! ero siniskorregi uu, iltzallerik andien au, lapur au, len-aldian, orain-aldian, eta gero izan leitekezan zantar eta dollorrik andiena baño andiago au! Ene! ekazue lokarrlrik, alztorik, aiotzik, naiz edenik, ebszle artezen bat! Zuk, errege, billa egizuz elorrio-emollerik errukibakoenak eta burutsuenak: ni nozu munduko zer gorrotagarri guztiuk kitutzen dauzana eurak baño okerrago izanik. Postumu nozu ni, zure alabea il ebana: zantarreri dagokionez, guzurra esan dot, nik lapur askarri onek ni besteko zantar eztanari u il erugin neuntsan-eta: on-indarren yaurelxe zan u! ei, on-indarra bera. Txu egidazu arpegira, eta arrika be egidazu, satsu egotzi egidazu arpegira, etxartebideetako txakurrak ezarri egidazuz niri erasoteko: Lonatu'n izena beroe zuritar guztiak; eta zantarkeria len izan dan baño oba bedi! Imogene zintzazan ori! nire erregeno, nire bizi, nire emazte! Imogene. Imogene, Imogene ori!

IMOG.—Ixilik, ene yaun; entzun, entzun...

POST.—Barre-antzerkiren bat egin gura dozu onegaz, alu? Mutil iiriluri ori, autso irea (Yo ta lurrera egozten ciau Imogene).

PISANI.—Aitonen semeolc, lagun zakioez! Nire ta zure anderea! Onangorik! ene yaun Fostumu! Eguño oruinurte eztozu il izan Imogene. Luguri zakioez, lugun! ene undera maite-maitagarri ori!

KINBEL.—Munduarenak egin dau, ala?

POST.—Burutilc eginda nago, ala?

PISANI.—Atzarri zadiz, ene andera!

KINBEL.—Au onan izatekoisn, yainkoak pozaren pozez il guru nube.

PISANI.—Zelan dago nire eizanderea?

IMOG.—Ene! alde egik nire begien aurretik; ik edena emon izon eunstan: ulde emendik, lagun kaltegarri ori! ez egik artu arnasarik erregeren seme-alabarik dagon lekuan.

KINBEL.—Imogene'n itz-egíkerea dogu au,

PISANI.—Andera, yainkoak sulbur-amz arrika egingo ul dauste nik emon izan neuntzun kutxeak zer bikainik ez ebalu nik uste izatekotan: erregenoak emonda neunkan nik a.

KINBEL,—Zer barririk oraindik be?

IMOG.—Ak edendu egin nindun.

KORNEL.—Yainkook!... Erregenoak autortuetatik zer bat aztu izan yat, eta orruko orrek i zindo uzulu erakutsiko yok: "Pisani'k bere etzandereari emon izan ba'dautso, -autortu dau ak-, nik biotz-lagungarritzat emon ízun dautsadan osakuiu. ak urena egin izango dau, nik agaz sagutoena egingo neunkean legetxe".

KINBEL.—Zer esan gurozu, Korneli?

KORN.—Erregenoak, yaun, sarritan ekiten eustan beretzako edenak gertau nengiozala; orroitiño *h&* Izaki aantarruk, osateruko

fcatuak eta txakurrak, aintzakotzat artzen ez tíiran zerak lilen yakiteak poztu egiten ebala erakusteko bcskarrik zala esaten eustnn: ak zer txarragorako ercibili eikezaktren bildurrak eraginda, osaltairik gertau neuntsan gertau, baña ez bizia kentzekorik, bein-beinerako bizia sogortu ogingo ebana baño; baña, luzaro barik, soñak eta soñeko sentzuak euren egikizun guzíícik bamsn-barrí egin eta beteka obezan, Osakai alatilt cireiin artu dozu, ala?

IMOG.—Urrean bafio urreesnago, ílík gelíitu nlntzan-eta,

BEL.—Ene semeok, oker egon gintzazan.

GID.—Izan be, Zintzo da au.

IMOG.—Zegailik egotzi dozu zure undera ezkondua zugautíík? Atxorrsn galiurrean dagonarenct egizu orain, eia orain barriro egetzi nagizu (Besartean estututen dau POSTUMU).

POET.—Yarraí ortlk dingi'izka, zugatz-adarretik igaliak lez, • ene bioiz sii, ene bizi ori, sugatza il cirteño!

KINBEL.—Osierai nire arc.gi *oA,* nire alaba ori! Zar da au? Egileko onetan ni arrilzat nozu, ctla? Ezitiustazu itsík egingo, alu?

IMOG.—Ekazu zure onespena, yaun (Belctunbiko yarten da).

BEL.—(GID. ía ARBIRAGA'n; Zuoít gcizte au rnaite izan-arren, eziozue okerrik egin ízesm ba-zendusn orretarako bíderik.

KINBEI..—Begíetciiik dariodazun negarrok ur onetsi izango al yatzuz! Imogene, zura arna Dik da,

IMOG.—Ba-dct úrren damurik, ene yaun,

KINBEL.—Ene! gai-toetariko *rxm a:* eta ari eskerrak batzsn gara eraen iñendiko eraz: baña aren semea yoana da, ez zelun ez nora yoan danik guk eztakigula.

PISANI.—Ene yaun, orain bildurrik eziodanazkero, egia esango dautzui. Kolten yauna, nire ugazctbanderea ondatu zanean, ezpatea eskuetan ebala etorri yatan: agotik fcitsa eriola zin egin eban, nik nirs etzanderaak norako biiea artu eban ez iragurtekotan bereala ilga niuduala. Alanbearrez, cildi atan nik nire ugazabctgandiko idazki maitzurkeritsu bat neban sakelean; idazki ak zuzendu eban a Milford'eko mendietara; asarreareií asarrez itsuturik, niri emonazo eustazan nire ugazabaren soñekoz yantzirik, arako bídea artu eban, ez asmo garbiz, nire ugazabanderearen garbitasuna indarrez orbandu ta loitzeko zin eginda baño: eztat nik aren arrazkeroko barriik,

GID.—Ipuin GU amaitzen ititi egidazue; neuk il neban *a* au.

KINBEL.—-Yainkoak-arren, ez al dok egin olangorik! nik enaioan gura ire egite onak nire egotik epai gogorrik ateraterik: arren, gazte adoretsu, ukatu egik esan dokana.

GID.—Esana esanda dago, eta nuuk il neban a.

K'INBEL.—Errege-seme zoan *a.*

GID,—Bai, baña bai oudo zakar be: ak niri egindako irainak ez dira errege-semeri da. gokiozunak; eta izan be, ak esan eustazanakaz niri eupada egiiictzkero, nik itxasosri be ostikadak emongo neunskioz, ak lez orroa eginazkero: burua moztu neuntson; eta pozik be pozik nago a emen eztagolako nire ipuin au esatelco.

KINBEL.—Ea-yoat ire damurik; eure agoz ago i gaiztetsirik, eta gure legearena artuko dok: íreak egin yok.

IMOG.—Arako buru bako gizona nik nire s>enartzat artu neban.

KINBEL.—Estu erruduncs, eta 'keudu gure csurretik.

BEL.—Elxen, errege yaun; gízon au onek II ebana baño oba da, zeu bestectn guraso onen seme; eta eguño zauri-lorratzik erakutsi izan daueu Kolten-taldek bctño geiago irabazi dau zugandik. Geldi itxi orren besoak (Ertzainari): orren besoak esturik egoteko ez dira yaio,

KINBEL.—Ostera! guJarl zar, oraindik ordaindu etsatzun zurs trabazia alperrik galdu riura ete dozu gure asarrea zelango dan ikusiaz? Zekui íz'.iu lelteke ori gu bestean guraso onen seme?

ARB.—Orretan arinegi ibili da ori.

KINBEL.—íGIDERI'n) Eta il egingo az orregaitik.

BEL.—Irurok ilgo garai baña nik erakutslko dot gu irurotatik bi orí dala esan dodan besiean on dirala. Ene semeok, nitzako galbidetsu izan leitekezan itzak esau bear dodaz, zuontzuko, zori onez, zori-ou-blie izan-arren.

ARB.—Gure da zure galtzoria.

GID.—Eta guro ona, orrena.

BEL.—Orrazkero, ilz egilen noa!„. Zure balmenaz, errege andi, Belari eretxon bendekorik ba-zendun zuk bein,

KINBEL.—Bai, eta zer esateko aregazko? Saltzalla erbestetu da a,

BEL.—*Rxe* dozu aurrean urtez beterik: benetan, erbesteratuko gizon; baña nik eztakit zegaitik dan saltzalla.

KINBEL.—Ken egidazue aurretik: ludi osoak be eztau yareiko ori.

BEL.—Ez berotu orrenbestean: lenen, zure senieak azi izana ordcdudu egidazu; eta or-

daín ori, nik artu-ala, erri-lcutnara bsa,

KINBEL.—Nire semeak azi izsna!

BEL.—Argiegi ta zakarregi ítz egiu dautzut: belauntiko nozu: emendik yagi baño len nire semeen alde ítz egingo dautzut; gero, ez izan agure onen errukirik, Y'aun altsu ori, aitonen seme gazte biok, ni aitatzat nctbenok eta aita izenez deitzen nabenok, ez dira nire seme; zugandiico dira oneik, ene nagusi, zure odolaliko,

KINBEL.—Ostera! nire sems!

BEL.—Bai, zu zure «itaren serao zarean bsstean seguru, Ni, Morgan agure au, ni nezu zuk beñola erbesteratu zendun Belari: sure susme utzazkoa izan zan nire crrua. tE nire salkeri guztia; zure eíerretsízkoa, niri ezarriko zigorra. Nik yasana izan da nik egin izan dautzudan kalte bakarra, Errege-sem@ maitagarriok, izan be oIsngoKe dirata, ogei urteokaz neuk azi ta ezi izan do= dazs nik irakatsi «1 izan dautsedazan orte ta trebetasun guzliak ikcisí dabez; nire *a:á*--ezikerea, yaun, zure nagusitasunak áakíana izan zan. Orrein iñude, Euripílek, lapurretarako nik ezkondu nebanak ostu eutzuzan zure semeok ni erbesteratu ninduzunean: neuk zirikatu neban a orretarako; nik orduan egin nebanaren zigorra lendik neban 0rturik-eta! nire burua zlntzoiasuna--arren zigorturik ikusiak saltzalla izatera bultzan ninduu; zuk zure semeez rnin andiago artuko-ta, nik gego bizicigo areik ostuteko. Baño, yaun maitagarri, ernsn dozuz osteru be zure semeok; eta nik ludi onetan izcn leitekezan lagunik eztienak gaidu fcear dodazs Goiko yainkoen onespena iñoutzaren antzera yatsiko al da euron buruen ganera! izan be, oneik zeruko izar izateko krin dira.

KINBEL.—Negarrez deragaiozu ítz egiten. Zuok irurok egin daustazuen otseinízea zure ipuin au baño be arrigarriago da. Galdu nebazan nilc nire semeak; oneik ba" dira aik, eztakit zelan gura neinkezan oueik baño seme lainagorik.

BEL.—Etxon apur baten,., Nik Polider deitzen dodan aitonen seme eu, zure danazkero, errege-seme lain-lain au, au yatzu benetako Gideri: beste aiton seme au, nira Kaduol au, Arbiraga, zure errege-semerik gazteena yatzu; au, yaun, beronsn amaic egindako sein-oial bakanez baturik aurkitzen zan ostu zanean, eta diñodana argiago erakusteko, oial ori erraz ekarri neinketzu aurrera.

KINBEL.—Glderí'k idunean ba-eban orañeník, izar gorri antzekorik; lorraíz arrigarri.

BEL.—Au dszu a; emen dau onek oraíndik be aldean berezko lorraíz ori: ízantza zurrak emona áau ori, otain argíbide izan dakion.

KINBEL.—C'ncingonk! ctma ete naz ba ni gaur iru aerne-ai'„b;* erdi ia argiíaratéeko? eguño amak eziau izan cuiengo pozaldirik bore erdítza-ostean. Zori ontsu izaugo al zarie, zuon ifcilpiie biribiletatik orren iíiondiko eraz aldendurik ibili-onáaron atzsra euretan orain sintzstsu ibili zeínlekeis-is!.,. Imogeno ori, yozokune onelc bakccicumlzara--bidea çjalazgtGii dauízu,

IMOG.—*Ez.* ene yaun; ortik luál bi irltxi ílodsz, En@ neba iriaiíagarríok, oncni bísiu gara alkctrrskin? Ez esosi gaurdanik ara nik egia esaten eztodanilc: zuon arreba nhuzan eta Aiiok anai tíeitzen runduzuen; nik, 03-tera, anai disitzen zinduedazan (22) eia bazirtzazen ízr.n be,

KINBEL,—Eguño a.Ikar ikusi isan dozue, aia?

ARB.—Bai, eia alkar ikusi-ala ciiísar maiis iuan geban; eta olan ekln geunlsan ori iltzat etsi gsbaii arteño.

KORN,—Ak iruntsi izun eban erregenoaren osakui zantarrari eskerrak.

KINBEL.—Berezko lerearen bakani noz eralgiko ete dausíszue asi tct atzeneraño? Zuok labur esanak ba.duuz bere adarrak, eía adarrok bs zer-esanik asko izango dabela ník usts... Non eta zoian fcizi izan zcsrís? Eta zelan egin zínizcizan au Erromar atxiloaren ot3SÍn? Zslan ai:'endu zinísesan sure nebakandik? Zelan batu zintzcizan lonengoz zurs nebalcin? Zegaitik igesi ?.endun errecje-yaiii'egitik? Kovuko bidea artu zendun? (G:DERI, BELARI ta ARBIRAGA'ri) Zuokazko oraiii. zek ejagin eulzuen zuoi gudurako, eta beste zertze'ada ta garbitasun asko iiandu neitsue nik; eta gero gerokocik, yazo-ala, alkarren urren; baña olango itami luzerih egiteko eíiogu ez astirii:, ez leku egokirik. Bsgira, Postumu'k besartean estutu dau Imogsne; eta Imogene'k, yusturi errug-3 ba'lira lsz bere begiradak Posiumu'ri, bere nebcl, eta niil bere aitari egozten dauskuz; banari begiratu-ala poz barririk ba-dau; guztiak alkar fcogiratuaz, poz-eztitan, Alde dagigun toki onetatik, eta yauratxea tete dagigun oparien lurrunez,

(22) Gipuzkeraz bai guraso bereko neba--arreban artean arrebak euren nebak anai deitzen dabez, baña Bizkaya'n neba deitzen dabez.

(BELARI'ri) Nire *anailzal* zaukadaz: olangotzut etsiko zauguz beti.

IMOG.—(BELARI'ri) Nire aita be ba-zara; zuk bizkortu ninduzun egun zori ontsu HU ikusi *a* izateko.

KINBEL.—Guztiok gagoz pozez ganezka, loturik dagozan orreiz besteok: orreik be poztu dadizala, gure nasaialdia zelango dan ikusi dagien.

IMOG.—Nire ugazaba on» oraindik be egingo dautzut otseintzarik.

LUKI.—Zori ontsu izango al zaral

KINBEL.—Ain zindoro ta adoretsu yokatu Izaa dauen gudari galdua ederto letorkean toki onetan; nik bcd emongo neunskioz ari ni-?e esker onak!

POST.—Neu nozu, yaun, soñeko txatxarrez yantzirik onako iruron lagun izan zan gudaria; aldi atako nire asmoetarako ezin obeto etorkidan a soñekoa. A neu nintzala ik esan einke, Yakimu: benderaturik indudan i, eta ireak egín yoan, nik gura izan ba'nevu

YAK.—Ostera be bendean nozu ni: (Belaunbikotu egiten da) baña aldi atan zure indarrak benderatu ba'nindun, orain nire yakinkidetza astuna da belaunak makurtuazoten daustazana, Ainbeste bider zor dodan bizi au ken egistazu: baña ori egin-aurretik eutsi erestun au; eutsi eguño bere zintzotasunas zin egin izan dauen errege-alabarik zintzoenaren eskumutur-estun au be.

POST.—Ez akit belaunbikotu; ba-yoal nik igazko alik, i bizirik izteko dok; igazko gogo txarrik ba'yoat, i azkesteko dok: bizi udi, eta besteakazko, nigazko baño obu izan adi.

KINBEL.—Ori bai ba-dala zindori degokion epaia! biotz-zabai izaten darakusku gure suñak; purkatzea du nagusi.

ARB.—Yaun, izan be zu gure unai ba'zintzaz lez lagun izan zatxakuz; pozarren zakusaguz gure anaitzat.

POST.—Zuon otsein nozue ni, errege-semeok. Nire yaun Erromar on ori, zuon aztuari deí egiozu: iolan nengoaia .Yupiter andia bere arrano-ganean agertu yatala uste izan dot, nire senitorteko batzuen itzalakaz batera: atzarri nazanean oltxo au idoro dot idatzirik nire bular-ganean; onek diñona igarkatxetan be igarkaitz da-ta, nik ezin dot ortik zer garbi ta argirik atera: onako au igarten erakutsi dagíaia bers trebetasuna.

LUKI.—Pilarmoni...

AZTUAK.—Emen nozu, ene yaun on.

LUKI.—Irakurri ta azaldu egik orren esangurea.

AZTUAK.—(Irakurri dirakur) "Bere burua *be* ezagun eztuuen leoikumek, billatu eztauena idoro, ta ats samurdunak besartean estutu dagianean; eta aspaldi izai garraztatik moztu ta luzaroan ilik egon izan dirau adarrak ostera be biztu ta lengo aldorrari barriro intsigirik barrien-barri azi ta loratu dadizanean amaituko dira Postumu'n neke-lorrak, zori ontsu izango da Biritanderri, ta gentzaz eta ugaritasunez loratuko da".

Zu, Lonatu, zu zara leoikume ori; ondo aituazkero, zure izen Lonatu'k berak diño orí; arnasa epel-samurra, yaun, (KINBELIN'i) zure alabea da. guk mollis aer deretxoguna (23); eta mollis aer idalakoari guk mulier eresten dautsagu: eta mulíer ori, nik digurtanez, beti batean dirauen emazte au da: eta izan be, oraintxe, yainkoaren irugarpenak diñonez, zuk billatzeka, zuk yu kiteka, besartean dozula somatu dozu orren arnasa epel-samurra.

KINBEL.—Ba-dau orrek egi-antzik,

AZTUAK.—Izai garraztea, errege Kinbelin, zure irudi du: eta zuri moztutako adarrak zure seme bien irudi dira, Belari'k ostuak. ainbat urtetan iltzat eukiak, orain barriro biztuak, izai garrazteari intsigiak: eta lzal garrazta orren azitiko landarok Biritanderri'ri gentzea ta ugaritasuna agintzen dautsoe,

KINBEL.—Ondo dago, gentzatik asiko gara: eta, Kai Luki, guruile gu izan-arren, Kaisor" en bendean iminten doguz gure buruak, Kaisar'en eta Erromarren bakalderriaren bendean; eta ez ordaintzera gure erregeno gaiztoak bultzau giniuzan zergea be ordainduko dogu: ari ta arenaí zuzena egileko, esku gogorra erabili izan dabe yainkoak.

AZTUAK.—Goiko aiak isalotzen dabe geaíza onen doñu gozoa. Nik Luki'ri oraindik otzitu eztan burruka au asi baño len azaldu ízan dautsadan ikuskizuna oso osorik bete da; eta izun be, Erromar arrauoa egoe-aldetik sarkalderantza gora-goraka egaz eginda, geroago txikerrago eginik, eguzki-izpitan ondatu zan: eta orrako arrano orrek iragarten ebana, Kaisar bakalduna ostera be Kinbelin argiaz adiskideluko zala da, sarkaldeko eguzki argio. Kinbelín da-ta,

KINBEL.—Goratu dagiguzan yainkoak; eía gure opu-mai onetaietutiko ke kirimilduak

(23) "Mulier" latel-itzaren itxorkune au eglz. ko danaren alde eneunke yokatuko nire burua, ezta gitxiagorik be.

arein surretaraño elduko *i*\ dira. Gentza au gure bendeko guztiai diragartsegu. Goazen emendik: gure aurretik boaz Erromar eta Biritandar ikurriñak batera ta adiskidetsu, eguratsak mun dagitsela; goazen slan Lud uriks ertz batetik bestera, uirengorik urrengo, lerroka: eta Yupiter andlaren yauretxean baietsi dagigun gure arteko gentzea; yai-bidez ikurraztu dagigun. Aurrera ba! Eguño ezta amaitu gudarik onan eta onango gentzaz, esku odolduak ikuzi bañe be lenago. (Ide dagie).

Períee de Son Antonle (Juluy)'n 1961-11-8'gerreneon,

LAN ONEÍAKO ITZ GITXI EZAGUN ETA BARRI BATZUK

ATXILO.—Loiurik, *azkalasun* barik *áagona.*
AKARRO.—Gal-aziaren eslalgia.
ARRAZPEL.—Erderaz "patio" esaten dautsoena. (Zeanuri'n bizi da itz au).
EDEN.—"Posoi", "bereno", silcilikitu.
EGAKI.—Gure soñean uleak egiten dabena egaztien ege ta soin enpajauan egiten dabenak. Euskel-gaiztoz "luma".
EGURATS.—Guk ikuai ez-arren, gu barruan artu la arnasatan arlzen dogun zera,
ELTXAR,—Eltxo-ar; aragi ustelari egiten yakozan arrai deriixegu Zeunuri'n beintzat, eltxarrak.
ERESI.—Euskel-gaiztoz "musika",
ERESKIN.—Eresia aterateko erabílten dan edozein lanki, esaterako, fcdstu, ndar, danbolin...
EZABATU.—Euskel-gaiztoz "bgrrau"j idatzita dagona ondatu.
GEZNARI.—Norbaiteri beren-beregi barriren bat daroatsona.
ISKILLO.—Norbaiteri erasoteko, naiz norbere byrua yagoteko erabilten dan edozer yatzu "iskillo"; esaterako, aiolza, ezpatea, gezia, eta abar iskíllo yatzuz,
LURRUNURTU—Ura naiz beste onetaiko lurrundu ta ostera be leneratu. Erderaz "destilar" esaten dautsoe guk luminurtu esaten dautsogunari,
MEIKI.—Naparroa'ko Arbizu urlan beirstzat itz *aa* erabilten dabe, guk "koxo" naiz "erren" esaten dauisagunari, Meikiak bere ibilkeran mozkor dirudi,
OIAN.—Guk sarkaldeko euskeldunok baso deitzen doguna, sorkaldekoak oian deitzen dabe, Oian zugatzez yantzitako lurra yatzu.
ON-INDAR.—*Onetako* ináar! zer borbera sarritan eginaz, naiz Yaungoikoz iristen doguz on-indarrak. Zerbaiterako on-indarrik ba'dogu, zer ori errez-errez egingo dogu. Ezbearrak sarritan epez artu ba'dagizuz, esaterako, epe-on-indarraren yabe zara. Euskel-gaizioz "birtute" be esaten dautsoe eusksra mordollozale batzuk,
OREIN.—Basauntz-antzeko basa-abero Ibilten bizkorra ta adarduna.
ORTZE.—Gure begiz dakusagun zeru urdlna,
TXATAR.—Euskeldun batzuk "txinparta" ereisten dautsoena, Suarria galtzaiduz yo ba' dagizu, txatarrak aterako dautsazuz.
TXIRO.—Ez-euki, beartsu, eskean ibill ez--arren. Gure artean txirorik beti izango dogu'a esan eutsan Yosu-Kista gure Yaunak Yuín txindi-zcleegiari Madalen zirrildeak oñetara lurrun gozoa ixuri eutsalako asorra. tu zanean,
URUTU.—Uin; euskel-gaiztoz "olatu".
YAKINKIDETZA.—Euskel-gaiztoz "kontzentzi".
YAUPARINO.—Abadetza edo yauparitza egiten dauen emakume.
YAURETSI.—Yaungoikoari gure bendekotasuna burua naiz belaunak makurtuz iragarri.
YAURESKUNTZA — Yaungcíkoa, naiz yainkoaizunak yaurestea eta eurak yauresteko bide ta euretaz sinisten doguna. Euskel-gaiz. toz "erlejiño".
YAURETXE.—Yaungoikoaren etxe; guk geien baten "elexn" eresten dautsagun etxea.
YAURESLE.—Yaungoikoa yauresten dauena.
ZAMA.—Euskel-gaiztoz "ka-ga", zer gitxi-asko astuna.
ZERGA.—Norbaiteri aldirik-aldi ordaintzen dautsaguna, Euskel-gaiztoz "petxu".

YULI KAISAR

(JULIUS CAESAR)

SARRERA - BIDEZ

Gizatzar, buru-soil begl-bizi-zorrotz, mosu-zurbil, ezpan-lediska, ogo-tsdki, sur-artez, okstz urten, Yuli Kaisar Erroma'n yaio zan Y. K. *R.* 100 edo 108'gn. urtean, eta bertan il, iñoren eskuz, 44'gnean.

Ekandunasai agertu yakun bere gaztearoan gerora ludia bere estikopean yarriko eban Erromar au: dirua eurrez eralgi, zorrak zorren ganera egin, lizunkeriarí ateak zabal-zabal Idigi, adiskideentzako esku-zabal agertu...

Baña dana ez da nasaikeri; buru-lantzeari be ekingo dautso; irakaslerik onenak zuzendu dautsoez Yuli'ri bere gurasoak eta onek izkuntzetan, elertian, edeitian, edestlan eta ganetiko yakingeietan aurrerakada andiak egiten dauz, gerora ikusiko danez.

Geien lege-arloan gallendu dirala Erromarrak an-orr-emenka idatzita ikusiko dozu. Ezetzik ez diñot nik, baña Erromariak geien eta beinen guáa-nrloan e!du dirala gorengo mallara nok ukatuko, srl argia bera baño be argiago da-ta? Egin-eginean be, egufio ludi onetan izan diran gudalburuetatik ospatsuenetariko dogu Kaisar. Luginak lurra beln alde baterantza, bein besterantza ta gora-beraka goldea erabiliz, zustarrak atera ta lurra azpikoaz-gora apitz-apitz yarten dauenez, Kaisar'ek bere gudaroste bildurgarriakaz ludi au (aldi atan ezagun zana) batetik bestera bein eta bairiro arakatu eban, eta leoi orroatiren bat ba'litzan lez, urialt eta eiriak lau-orritan yari ebazan.

Bere adiskideentzako eskuzabal zala esan dogu. Olangoxe ízan zan bere gudarienlzako be, ta, orregaitik eta euren gudalburua bildurra zer danik ez ektana zalako, maite-maite eben a gudariak, eta edonora yarraiko yakozan. Zeisbatu ezin-ala dira Kaisar'ek irabaziriko gudaketa ta guduak.

Gudari zori ontsu Izateko bakarrik ez zan Kaisar bere ustez; guda-arazoetan ebilen bitartean Erroma'n egoan bere gogoa eta ez eban astirik galtzen Erroma'n adiskide barriak egiieko ta Erromarren biotzak jrabazleko, aldi ta une egokian Erroma'ko nagusitzara eltzeko; bein bide au artu, bein beste ori; bein Ponpeí'ren adiskidetu ta alkartu, bein Karso'ren adiskidetu ta agaz alkartu; fcein bata ta bestea yo; atzenean, eta bere elbururako beste biderik ez dagola ikusi dauenean, arako "Alea iacta est" (zotza urten da) esanda, Errubikon ibaiaren Erroma-aldeko ertzean yarten da bere gudari kementsuakaz, agure-batzarraren agindua ausi ta zapaldurik, eta bere gudari adoretsuen buruan Erroma'rako bidean yarten da.

Erromarrak, bildurrak ilik, ondik alde egiten dabe la an geldltu diran agura-batzarreko banakak aren eskuetan yarten dabe Erroma'ko nagusitzea; txali%a ta goragoraka artzen dau erri zeak. Kaisar'en andikeri-amesak bete dira.

Oraindio Indartsu dira Ponpei'ren gudarosteak bai España'n, eta bai Apirka'n be. baña banan-banan eta urrengorik urrengo zeatu ta deuseztuko dauz Kaisar gudalburu andiak, gudariak ordaindu ta iskilloz orniduteko Erroma'ko diru-kutxetako diruak bere eskuetan dauzeta.

Ordu orretatik alxina agur Erroma'ko aspaldiko Erkala! Ireak egin yok. Ostera be ik beñola ortik zear uxaturiko bakalduntzea yatok, eta zati baterako etorri be.

Gizadia beti da bera. Txiki gara gizonok, gitxi batzuz besteok. Bigunegí erabilten dogu bizkarrazura indarraren aurrean. Geuk egiten doguz bakaldunak gure kikilkeriz.

Kaisar'en iskilloak, ez zuzena, garaile urten Eiraneko, betirako "dictator" eta "imperator" izentau eban agure-batzarrak Kaisar eta, orrez ganera, bai ari erdi-yainks izen-goitia ezarri be. Betikoa! Goian yarri adi, ire ederretsirik baga iñok zirkinik ez dauela egingo, ezta arnasarik artuko be erakutsi egik bai, ta or yoango yakaz gizonak mordoka iñondiko labankeriz eta txakurkeriz, ogi-zati urdindu ta ustel-eske! Bizitzarik zakarrena maiteago bein gizonki il baño!

Bakalduntzea ta bakaldun-burestuna be opatu dautsoez agure-batzarrekoak Kaisar'eri; Kaisar'ek ez dau2 artu gura izan. Zegaitik artuko be? Izena baño oba da izana.eta bere dau izana, iñor be bere aurka zirkinik egiten atometan ez dalako: guztiak Iabankerika, guztiak bizkarrazurra nsk makurtuagoka; banakatxo bat bakarrik aldl egokíaren begira ta asma-asmaka, legerik bagako aglntari yainkotua zelan kenduko.

Gizadi, gizadi!
Lotsatu adl,
Gizonago izan *a't.*

EUSKERATZAUEAK

YULI KAISAR

(JULIUS CAESAR)

NOTIN ANTZEZTUAK

YULI KAISAR
OTABI KAISAR)
MARKA ANDONI > Iru-agintzaMdeak Yuli Kaisar'en eriotza-ostean.
M. EMILI LEPIDA)
KIKERO
Pulbi
POPILI LENA
MARKA BURTA \
KftSI
KASKA |
TERBONI
LIGARI) Asmakideak Yuu Keisar en aurka.
DEKI BURTA [
METEL KINBER 1
KINA. /
PALBI ta MARUL, Tiibunak.
ARTEMIDOR, Kinido'tar Zimardikail.
Aztuetaiiko bat
KINA, O'erkari.
Beste oleikaii bat.
LUKILI, TITINI MESALA, KATO GAZTE ta BOLUMINI, Buita ta Kasi'ien adiskideak oneik.
BARRO, KILTA, KAULDI, ESTARTO, LUKI, ta DARDANI, Buita'ien otseinak oneik.
PINDAR, Kasi'ien Otsein.
KALPURNE, Kaisai'en Emazte
PORTZE, Burta'ien Emazte.
Agure-batzarrekoak, Erritarrak, Zalnak. Beglraleak, eta abar.

AGERLEKU.-ERROMA. antzerkiaren arloiik andienean; SARDITS geroago, eta PILIPI'tik urrean *alzenean.*

I EKITALDI

I AGERLEKU.-Erroma. Etxarteetatik bat.

PALBI, MARUL, etcs Errltar-sastamarra aurrera.

PALBI.—Alde emendik! Etxera, alperrontziok, etxera emendik: yai-egun da ala? Eskulangille zarienazkero. ez ete dakizue astegunez ezin ibili zaitekezela zuon ogibide-ezaugarri bagarik? Esaik, zetariko dok ire ogibidea?

I ERRIT.—Ba, yaun, zurgin nozu ni.

MARUL.—Non dozak nariuzko ire amentala ta araua? Zer darabilk ik ire soñekorik onena aldean dokala? I, txotxo, zetariko dok iie ogitidea?

II ERRIT.—Egiz, yaun. beargin aitugazkorik ba'da zure itauna, oski-adabatzallaz besterik ez nozu ni,

MARUL.—Baña zetariko ogibidedun augu? Artez erantzun egistak.

II ERRIT.—Ez dot uste nire ogibidea dala-ta nire yakinkidetzeak asarrerik egingo daustanik, yakinkidetzea bera be gogo txarren adabatzalla da-ta.

MARUL.—**Zein ogibide, zitaL zeln egibide dok, gizatxar zital orrek?**

II ERRIT.—Ba, csrren-bai-arren, yaun, ez *za*kidaz asarratu; orraitiño be, asarratu ba' zakidaz, nik adabau zaikedaz.

MARUL.—Zer esan gura dok orregaz? Ik, ugertsu orrek, ik adabau ni?

II ERRIT.—**Ba, yaun, zure oñetakoak adabau.**

PALBI.—Oski-adabatzalla ez ala?

II ERRIT.—**Ooorixe, yaun. eztenez bakarrik irabazten dot nik bizibidea; ez dot nik zerikusirik ez beste gizonen, ez emakumeren arazogaz, nire eztenagaz baño. Benetan, oski zarren osagila nozu ni; galbide gorrian dagozanean zuzpertu egiten dodaz nik oskiak. Eguño abelgorri-narrurik zapaldu izan dabenak bestean benetako gizonak ibili dira nire esku-tanen ganean.**

PALBI.—Eta zegaitik ez ago gaur ire lantegian? Zegaitik daroazak gizonok etxartebideak zear?

II ERRIT.—**Egin-eginean be oñetakoak urratuazoteko daroadaz, yaun, lan geiago izan dagidan. Baña egia esateko, Kaisar ikustearren eta aren gurenda-goratsarrea dalata poza erakustearren dagigu gaur opor.**

MARUL.—**Zer dala-tó poztu? Ze'm gurendaagiri dakar ak etxera? Nondiko zergapekorik dakar ak bere atzetik Erroma'ra, bere burtxirrinkak atxilotuen lokarriz edertuteko? Kirtenok, adakiok, ziztrinok, bizirik bagako zera baño be ziztrilagook! Zuok biotz-gogorrok, zuok Erroma'ko gizon errukirik bagakook, ez ete zeniuen ezagutu zuok Ponpei? Bein baño geiagotan, sarritan igon zarie zuok arresien eta arresi-orrazien ganera, torre ta leioetara, baita ke-bid@en ganera be, won umeak besoetan zenduezala, ta atzenik bagakg egunez an egon, epe ikusguratsuz, Ponpei andia Erroma'ko etxartebidectk zear igaroten ikustearren, eta aren burdia agertuten ikusi-ala, ez ete zenduezan Tiber'eri (I) be bere ibai-bastarren bitartean ikara eragiterañoko txaloak yo ta gedarrak egiten, ibai-ertzeko sakostak zuon zaratai erantzuterañokoak? Eta orain Zuon soñekorilc onenak yazten dozuez? Eta orain opor egitsn dozue? Eta orain Ponpel'ren odola zapalduta gurendari datorrenaren bidean lorak zabalduten dozuez? Alde egizue emendik! zuonetara zoaze arin, belaunbikotu zadize. arren egiezue yainkoai, izurriak aurrera egin ez dagian, esker txarrekokeri onen ganean ezinbestez kgkatu-bearreko da-ta.**

PALBI.—Zoaze, zoaze, aberkide onok, eta oker au dala-ta, zuok langO gizon txiro guztiak batu: Tiber'en ibai-ertzera eroan ta zuon negarrak ibaira ixuri, ibaiko berengo urai ibai-ertzeko gorengo munek yoazo arleño. (Alde dagie Erritarrak). **Ikusi dok? Geirik zakarrenezko izanarren erreik, biotzean ukuturik yoan dozak; euren erruak euren miñak loturik egin yoek alde. Bide ori bera Kapitoli (2) aldera oa i; bide au artuko yoat nik; erantzi egizak irudiak, apaingarrfz yan. tzita idoro ba'dsgizak.**

MARUL.—Zillegi ete yak olangorík egitea? Ba-dakik Luperka-yaiak (3) diiana.

PALBI.—**Ez dau ardura,* Kaisar'en gurendairagarkirik ez dagiala izan irudik. Ortik zear yoango nok ni ta erri zea etxarteetatik uxatuko yoat eta ik be beste ainbeste egik, erritar-mordorik ikusi ba'dagik, Aztsn daragoioen lumok Kaisar'en egoai kendu ba'dagieguz, egazkada andirik ez dau egingo ak; ostean, gizonek ezin ikusi-ala gora egaz egingo leuke ak eta yopu-bildurretan eukiko gindukez.** (Alde dagie).

(!) **Tiber.** Itali'ko bizkarrazurrean, Toskana' ko mendietan yaio ta, Erroma zear, sugetzar geldoren antzera astiro-astiro igarota, Ostia'n itsasoratuten dan ibaia.

(2) Kapitoli. **(Mons capltolinus**\ Erroma'ko uri zarreko zazpi mendietatik bat yatsu. Gagokozan aldian mendi orreton ambat yauretxe egozan, eta euren artean Erromarren yainkoburu Yoba edo Yupiter'ena. Mendi orretan egoon agure-batzartegia be, Erromarren izkuutzaz "Senatus" eretxoua. Azoka edo salerostegj bat be un zan eta, geroago dakuskegunez, azoka orretara atera eben Marka Andoni'k Kaisar' en gorpua, ileta-itzaldia an egiteko,

(3) **Luperka-yaiak,** Zezeilaren 15'gnean izaten ziran Erromarren yaiok urtero, Luperka edo Pon yainko aizunaren otnen eta gomutaz. Yaiotarako, Erromarrak edergalluak ezarten eutsezan Erroma'ko gizon ondi izanen zutiiko inidiai, zera, txairo yazten ebezan írudiok, kistarron artean Gurenen eta batez be Andera Miren'en irudiak yazten doguzanez.

u AGEHLEKU.-ERROMA. **Leku erekar.**

Eresiz urrengorik urrengoraka ibilteko sartzen dira: KAISAR; ANDONI, **ariñeketarako au;** KALPURNE, PORTZE, DEKI, KIKERO, BURTA, KASI, **ta** KASKA; **lagun-talde asarre bat atzetik; euren artean** Aztu **bat.**

KAIS,—**Kalpurne...**

KASKA.—**Ixilik. ee! Itz egiten daragoio Kaisar'ek.** (Eresia ixildu egiten da),

KAIS.—**Kalpurne...**

KALP.—**Emen nozu, ene yaun.**

KAIS.—**Andoni'k daroaken bide-bidean yarri** zu, a ariñeketan asi dadinean. Andoni...

ANDONI.—**Kaisar, ene yaun.**

KAIS.—Andoni, Kalpurne ukututerik ez al yak aztuko ire ariñeketan, gure zarrak diñoenez. onango ibilketu gurenean ukututen yaken antzuak antzutasun-izurris uxatu egiten yoek-eta.

ANDONI.—Gogotan izango det orrake arí; "Egik au" Kaisar'ek esanekoxe, eginda egongo da.

KAIS.—Aurrera; **eta egilekorik txikienik be ez itxi egiteka.** (Eresí).

AZTUA.—**Kaisarl**

KAIS.—Ara! **nor dago deiez?**

KASKA.—**brilazo zaraia oro.-lxilik osíera be.** (Ixildu egiten da sresia).

KAIS.—**Nor da or laguntza orretan deiez dagotana? Eresiak baño zoliago "Kaisar" gedar dagian miñen baten otsa dantzut. Itz egik; bira egin yok Kaisar'ek entzuteko,**

AZTUA.—**Epaileko "idus" ai yaramon.**

KAIS.—Nor da orrako gizon ori?

BURTA.—**Epaileko "idus" ai yaramon dagiezula dirautsu aztuk (4).**

KAIS.—Aurrera **ekadazue, mosua jkusi dagiodan.**

KASI.—I, txotxo, lagun artetik ona ator; Kaisar begiratu egik,

KAIS.—Zer diraustak orain? Ostera be itz egik.

AZTUA.—Epaileko "idus" ai yaramon egiezu,

KAIS.—Amesetan **dago ori; itxi dagigun ori. Aurrera.**

(Adarr-ots, Burta ta Kasi'z beste guztiak alde dagie).

KASI.—**Arifieketea zelan doan ikusten yoan gura ete dok?**

BURTA.—**Ez nik.**

KASI.—**Ator, arren.**

BURTA.—Yolas-gogorik ez yoati Andoni'ren gogo bizitik zerbailen bearra yoat nik. Kasi, ire gurarien ozloporik ez yoat izan gure nik; i iretara itxiko aut nik.

KASI.—**Burta, oartu natxak oraintsu; len ebena lango maitatasun samurraren erakutsirik ez yoek nitzako ire begiak; gogorregi ta iñondikoegi darabilk ik i maite auen adiskidea.**

BURTA.—**Kasi, okerreko usterik ez egik ízan; nire arpegia estali ta ilundu ba'yoat nik, neutzako dok nire arpegiko ilun-moteltasuna. Oraintsutik ara artega ta kezkatsu narabile garrantzi geiago-gitxiagoko yasanak eta neutzako bakarrik ecjoki diran irudipen edo bulko batzuk, eta ba-ledike orixe izalea nire yokakerearen argigarri; baña, Kasi. i euren artekotzat uudun nire adiskideak ez *a)* dozak mínduko onsgaitik, ezta emendik beste ondorenik ateralto be, bere buruagaz bumika daragoion Eurta gaxoak beste gizonukanuko maitatasun-agiriak uztu egiten dauzala baño.**

KASI.—**Orrazkero, Burta, osoan bestelangotzat etsi yoat nik ire yasana, eta orrexegaitik lurperatu egin yozak nire biotz onek garrantzi andiko oldozpenak, bulko aingarriak, ausmergarriak. Esaidak, Burta on, ikusi ete daikek eure mesua?**

BURTA.—**Ez, Kasi; begiak bera ezin yok ikusi, beste zeren buten bitartez atzera datorrela ezik, kakoketaz ezik.**

KASI.—**Olantxe dok egin-eginean; eta íamalgarri be tamalgarri dok, Burta, ik ire itzala ikusteko ta ire aintzakotasun ezkutua ire begietara ekarteko oiango izpiliurik ez izatea. Kaisar il-ezina ez zoan an tarteko, baña bai entzuterik andieneko Erromarrak;**

(4) Iru zati egiten eben Erromarrak euren ilebetea; bai'dinak ez ziran zatiok, ezbardinak baño; "kalendak" (calendai), "nonak" (nonai) eta "idusak" (idus) eresten eutsen zatioi. Kalenda-eguna beti ilaren lenengo egun a izaten zen; nonak ilaren boskarren egunez izaten ziran, eta amairuan idusak, baña Epail, Orril, Garagarril eta Urrilean nonak ilen zazpian, eta idusak ilen amabostean izaten ziran. Orrazkero, Epailaren amabostean eran eben Kaisar Burta'k eta beste zinkideak, ile orretako iñusetan eran eben-eta. Emen ez dogu zetan azaldurik Erromarrak ileko egunak zelan izentetan ebezan euren kalenda, nona ta idusen bidez. Au ez da gure oraingo arlorik.

itzaz yerageioen aik, eta aldi enetako buztarpean urrumeka egozan ai gizonai au entzun neuntsen "Begirik *a*\ leu Burta zindoak!".

BURTA.—Iñondiko galfcideetara eroan gura nok ik, Kasi, nigan ez dodanaren fcilla yarri gura nok eta.

KASI.—Orrazkero, Burta on, gertau adi entzuteko; eta ik eure fcurua kako-bidez izan ezik ezin ikusi dokanazkero, neuk, ire izpillu onek, lotsortasunez ikusiazoko dauskat ik oinoiño ezagun ez dokan arako ire zertxoa. Eta ez izan niganako susmo txarrik, Burta zindo; edozein irrilari ba'nintzok ni, naiz, edonor aiakatu-aia, maite dodaia ari zinka esateko ekanáu usteiik ta'neu; ik ba' enki maite dodazanena egin eta besartsan estu-estu egiten dodazala gizonak gero laidoz betetekc; naiz edozein zajorragaz yanedanetan Uiltekorik nazola ba'enki, gizon ka^tegarritzat etsi nengikek eta atakotzat etsi nagik. (Eresi argi ta zaratak).

BURTA.—Zer ete diragar zarata orrek? Erriak Kaisar erregetzat artu dauenaren bildur nok.

KASI.—Ostera! orren bildur az? Orrazkero, ik ez eunke gura olangorik, nire ustez.

BURTA.—Ez, ez neunke gura, Kasi; eta orraitiño benetan maite yoat nik a. Baña zegaitik naukak emen onen luzaro? Zeren yakitun egin gura ete nok? Guztien onerako zerbait ba'dok orrako ori, begi batean omena ta bestean eriotzea imini egistak, eta fciak begi bardir.ez kegiratuko yoadaz; eta izan be, eriotzeari fci:dur dautsadan fcaño maiteago ez ba'yoat omena, yainkoak epaitu nagiela.

KASI.—Ba-yakiat ekandu on ori ba-dokala, Burta, ire arpegia ezagun doian bestean ondo. Ara ba, omena da izan fce nire itzaldi or.en geia. Nik ezin esan ez zuk ez beste gizonak bizitza onegazko zein uste ta bulko dozuenik, baña nik nire aldetik ez izatea ez neunke gitxiago gurako, bildur-ikaraz bizi baño. Kaisar leget::e nire buruaren yabe yaio r.intzan ni; bai i eu be; ak bes tean ondo be yan izan dogu guk kiok, eta neguko otzarí ak bestsan erantzun-ezinik ez dogu guk. Izan be, fcein, egun gordin eta axetsuz, Tifcer asarreak ibai-ertzak yo ta igurdiUn ebazanean Kaisar'ek esan eustan: "Ur asarre-artegotara nigaz fcatera yauzi etrin eta ara aragoko lekura uger egiten yarriko ete intzake orain, Kasi?". Au entzunik ara, aldean nebazan yartzi eder ta guzti, uretan murgiicu r.intzan ni ta nire yarrai etorrela egindu ari: yarrai yatan, bai. Orroa egiten eben urak, eta guk ukubiikadak emoten geuntsezan gure giarra mardulez, urak baztarreratu ta guk aurrera bidea urratu gure bularren erasoz; *baña* izentauriko lekura gu eldu baño len Kaisar'ek gedar egin eustan: "Lagun akit, Kasi, ostean iioko nok-eta!", Beñola gure aurreko Enea'k Toroi'ko su-garretatik Ankisa (5) zarra bere sornaldetan atera e;an legetxe atera neban nik Tiber'ko uretatik Kaisar unatua, eta yainkotu egin da oraín gizon au; Kasi, ostera, utsaren urrengo izaki da, ta Kaisar'ek, oartzeka, bere burua makurtu ba'dagio, bere soña makurtu bear dautso Kasi'k. Bein fceroena izan eban España'n zanean, eta beroenaren aldikadeak yo ebanean dardaraka egoala oartu nintxakon; egia da yainko au ikara zana; aren ezpan dollorrak igeti egin eutsoen euren koloreari; eta aren zirkinek ludiari bildurra sartzen dautson aren hegiak berak fcere argitasuna galdu egin eban; urrumeka to intzirika egoala oartu nintxakon ari; eta orain berari yaramon dagioela ta fcere itzaldiak euren idaztietan idatzi dagiezala Erromarrai agindu dautsen miñak berak, enee' gedar au egin eban orduan: "Titini. edariren bat ekadak", neska gexoren antzez. Yainkook, arriturik nozue ni, olango gei *ma*kal-mengslezko gizonik ludi anci-ten onetan gorengo mallara eldu ta saria berak bakarrik eroateaz. (Zaratak; eresi argi-alai).

BURTA.—Zarata orokar barril Kaisar'eri erantsiriko omen barrien batzukaitik dira txalo barriok, nire ustez.

KASI.—Ba, gizon. ludi fcedarraren ganean iztartolaka dago *a*, Koloso'ren (6) antzera, eta

(5) Ankisa. Erromarrak euren azitzat eta asabatzat eben Enea'ren aita yatsu Ankisa au. Cnetaz geiagorik yakin gura ba'dozu, Enearena deritxcn Birgili'ren entzute andiko olerkia irakurri egizu, euskeraz be argitaraturik dago-ta. Amar urteko gudate luze cstecn Elade'.arrak Toroi uriari lau alderdietatik su emon eutsoenecn Enea'k bere aita Ankisa bizkarrean kalloka atera eban andik, Birgili'k dirauskunez.

(6) Koloso. Zutiko iruditzar eskargai ezarten yake izen au. Erroda izaroan izen bereko urian zan irudi eskargon artecn ezagunena. Irudi eskarga au Eguzki-yainkoarena yatsun, itsasatearen sarrera-sarreran yagiten zan eta Karets irudigin cspe Gndikoa izan zan bere

gu gizontxook aren zangatzarren bitartean eta azpian gabiltz arat-onaka, ta irristuak zear begira omenik bagako gure ilobien fcilla. Furen elorkizunaren yabe dira gizonak aldiz; bendeko ba'gara, Burta maite, gure izarrena ez da errua, geurea baño. Burta ta Kaisar: zer dau Kaisar'ek? Zegaitik aitatu aren izena zurea baño geiago? Alkarren ondoan idatzi egizuz izenok; arena bestean lirain da zurea; ebagi (agoz esan) egizuz, arena bestean aztun da zurea; beste mundukoai egindu izenokaz, eta Burta'k Kaisar'ek bestean arin zirkin eragingo dautse iratxoai. (Zarata) Yainko guztiakarren, ze okela yan ete dau gure Kaisar onek orren anái egitera eltzeko? Aldiok, lotsaz estali egizue arpegia! Erroma, odol zindoen azia galdu egin dozu zuk! Arako uriol andiazkero noz izan da aldirik gizon batek baño geiagok entzutetsu egin ez zauzanik? Erroma'z eragoioenak orain arte noz esan eikeen zure arresi nasaiak euren barruan gizonik bat baño ez ebela? Orain da au benetan Erroma (7), eta lekurik askogaz, barruan gizon bat baño ez dauenean. Ara! zuk eta nik, guk biok, entzun izan dautsegu gure gurasoai, beñola izan zala Erroma'n Burta izeneko bat betiko txerrenari berari be erregeri baño lsn Erroma'n lekurik emongo euskiona,

BURTA.—Ik maite nokanaren kezkarik ez yoat; ik zetara la «ora eroas gura nokanaren susmotxorik be ba-yoat; onetaz eta aldiotaz ze eretxi dodan be geroago eralgiko dauskadaz itzen batzuk; bein-beinean eneunke gura iñok ni aurrerago bultzatuterik, nik maitakiro eskatuten dauskadanez. Ausmeríuko yoat ik esana; epez entzungo dauskat esateko dokctna. eta billatuko yoat aldiren bat guk biok batera garrantzi andiko onango zerez aikarreri entzun eta erantzuteko. Tertzio atararte au ausmer egik, adiskide zindo; dirudinez aldi larriotan guk emen Erroma'n bizi bearko dogunez bizi baño baserrin bizi be gurago leuke Burta'k.

KASI.—Pozik nago nire zartadeak Burta'ren suarriari orrexenbeste txatar eta su baño atera ez ta be.

BURTA.—-Amaitu dozak yolasak eta Kaisar bayatok atzera.

KASI.—Soñekoaren besotik eldu egiok Kaska'ri gure aldamena zear a igarokeran; eta berak emongo dausk, berak oi dauenez latz, gaur yazo dan guztiaren barri.

KAISAR eta aren Yarraigoa aurrera ostera be.

BURTA.—Orixe egingo yoat egin be. Baña begira, Kasi, aziaz yoak Kaisar'en betozko asarrea, eta agirika egin yakon yarraigo dirudie beste guztiak; zuri yagozak Kelpurne'ren matrallak; eta Kapitoli'n bere itzaldian agure-batzarrekoen batzukaz asarratuten danean legetxe pitoxaren begirakune sua darienakaz agiri dok Kikero.

KASI.—Kaska'k esango dausku zer yazo dan.

KAISAR.—Andoni.

ANDONI,—Kaisar?

KAISAR.—Gizon gizenak ekarri egistazak ondora; gizon mosu-beteak eta gabaz lo egiten dabenetarikoak; arpegi me ta asarrea yok an dagon Kasi'k; buruari lan geiegi I eragiten yautsak ak; bildurgarri dozak a I langa gizonak.

ANDONI.—Aren bildurrik ez izan, Kaisar; j Erromar zindo ta lera oneko da a.

KAIS.—Gizenago al litzok a! Baña, orraitiño be bildurrik ez yautsat; alan ta guzti be, nire izenak iñori bildurrik izatekotan, ez yoat ezagun gizonik Kasi zimelak baño lenago beragandik alde eragingo leuskidanik. Asko irakurten yok ak, begi-zorrotz dok eta argi ikusten yok ak gizonen egiteak zear; yolas-zalerik ez dok *a* i iez, Andoni; eresirik ez yok entzuten ak; gitxitan egiten yok irribarrerik eta egitekotan bere buruari egiten dautsala dirudi, ezeri irribarre egiteko gogaldi etorri yakolako zapuztuteko asmoz. Oiango gizonik ez yagok nasai bera baño andiagorik ikusiazkero; eta orrexegaitik dozak olangoak bildurgarri. Bildur nazala bagarik, zeren bildur izan bear litzateken dirauskat, ni beti Kaisar nok-eta. Nire eskoatara ator, belarri au gorturik yoateta, eta ik atzaz dokan eretxia esaidak.

(Kaisar'ek *eta* Yarraigokoak alde dagie. Atzean gelditzen da Kaska).

KASKA.—Soñeko luzetik indar egin daustak ik; nigaz itz egin guia dok ala?

egilea; burdingorrizko zan geiz, eta goi-beraz eun oin neurtzen ei ebazan. Kisto gure Berreroslea yayo baño 280 urte lenago amaítu ta andik 60 bat urte geroago lurr-ikareak itzuli ei eban.

(7) Emen gure Shakespeare "Rome" (indar) eta "Room) (leku) itzakaz zimardika olgetan datorku bein geiagotan, olango zeren zale baño zaleago da-ta. Ingelandarren ebakeraz itzok bardintsu dira-ta, gure idazle trebea ezin egon bere lan eder onetan be zimardika-arloan garagar batzuk irabazi bagarik.

BURTA.—Bai, Kaska; gaur yazea aralgi egiskuk, zer yazo dan Kaisar orren betilun egoteko,

KASKA.—Ba, zuok zeuok be an ir.an zaris agaz, ez zarie izan ala?

BURTA.—Izan ba'gintzaz, ez neunskizun itanduko zer yazo danik.

KASKA.—Ba, burestuna opatu dautsoe; eta ari opatu-ala, baztartu egin dau ak bere esku-ganaz; eta orduan gedar egin dau erriak.

BURTA.—Eta zegaiiik izan dok bigarren gedaraldia?

KASKA.—Ba, errexegaitik a be.

KASI.—Iru aldiz I?,an dok durundua; zegoitik izan dok atzenengo oio eskargea?

KASKA.—Ba, zer bardlnagaitik a be.

BURTA.—Iru bider opatu yeutscek burestuna ala?

KASKA.—3ai, eia tximisteak eroango al yok, iru biiar, eta ak iruretan baztartu yok, baña aldian bigunago; eta *ok* eskuz utikan! turestunari esaten izan dautson bakotxean gogozago gedar eta oio egiten izan yoek nire oncoko orritarruk.

KASI.—Nok eskeñi yeutsok burestuna?

KASKA.—Nor bestek eskeñiko yeutsan ba? Andoni'k.

BURTA.—Zelan izaa dan esciiguk, Kaska dndo.

KASKA.—Eskegi nagizue zelan isan dan esanazo fcaño len; zorakeri utsa izan dok; ez yeutsat yaramon. Marka Andoni ikusi yoat nik arí burestuna eskainizen; burestunik be ez dok izan a, onako burestuntxo izan dok a, ela, esan dautsusdanez, bertatik eragin yeutsok ak baztarrera; taña ori ia guzti be, nire eretxiz, ak gura izan yok a. Orrazkero, ostera be eskeñi yeutsok, eta besteak ostabe baztarrera eragin; baña, nire ustez, bestea lotsa izan dok bere atzak burestunetik baztartuten. Orrazkero, beste bein opatu yeutsok ak, eta besteak irugarrenez ukatu yok; eta ostera be ak zer ori baztartuez bal, erri-sastamarrak gedar egin, txaloak yo, euren gau-lxapel izsrditsuak gora-goraka yaurtin yoezak, eta Kaisar'ek burestunik artu gura izan ez daueiako egotzi daben arnasa andurtsuaren arnasa andurtsuz larri-larri ito egiten yaustek Kaisar; eta izan be, larritu ta lurrera yausi dok une atan; ni neu barre egiten be ez nok atomau. ezpanak idigi ta egurats ustela artzekoren bildurrez.

KASI.—Ixilago, arren. Ostera! larritu egin dok Kaisar?

KASKÁ.—Azokan yausi dok bera betean, agetik bitsa dariola, eta itzik baga gelditu dok.

BURTA.—Egi-egi dirudi orrako orrek, aldiengatxa dau ak-eta.

KASI.—Ez, Kaisar'ek ez yok olangorik; ik eta nik eta Kaska zindoak bai ba-yoagu iurrera yausi eragiteko gatxa.

KASKA.—Ez yakiat nik zer esan gura dokan orrako orregaz, baña ondo yakiat nik Kaisar yausi dala. Antzeztegian antzezlariai egiten dautsenez, gogoko izan yakenean erritar-sastamarrak Kaisar'eri txaloak yo. eta gogoko izan etxakenean txistu egin ez ba'yeutsoek, gizon ez nok ni.

BURTA.—Zer esan yok ezaguerea boiriro etorri yakonean?

KASKA.—Ene bada! lurrera yausi-aurretik, berak burestuna ez artzeak erri-zaborrea poztu egiten izan dauelari earhi yakonean, bere yakaa azkatu dagioela eskatu dau eta iduna opatu dautse moztu dagioen. Zereginík izan ba'neu nik an, berbatik goatuko neunskion, eta ori ez egitekotan su-lezara yoango al nintzok zitulakaz batera. Eta orrazkero lurrera yausi dok luze ta zerraldo. Ostabe bereratu danean, bear ez danik esan edo egin izan ba'dau, bere gatxetik datorrena dala ori uste izan dagiela eskatu yeutsek bere ondoko andíkiui. Ni aurkitu nazan lekuan iru-lau neska txatxulek "Ai ene! ganoa! gedar egin yosk, eta biotz-Motzez azketsi yoek; baña ez yagok zetan egin yaramonik ai; Kaisar'ek euren ameak ezpatakadaka il izan bu'leuz be aik burdin egingo eukien-eta.

BURTA.—Ela orren motei eta belozketau alde egin yok orrako orren onioan?

KASKA.—Bai.

KASI.—Kikero'k ezer esan ete yok?

KASKA.—Bai, baña erderaz, eladeraz esan yok.

KASI.—Zetarako?

KASKA.—Ez eragln nire miñari, olangorik esan ba'dagitsuet sekula geiago zuon arpegia begiratuten lotsa izango nok-eta; alkarreri irribarre egin yeutsoek aitu dautsoenak. eta buruari eragin; baña eladera (8)

(8) Eladetar edo elendarren izkuntzea yatsu eladera, baña emen Kaska'k diñonetik Kíkero'k itz zantarren batzuk esan ebazala dirudi, eurak barriro bere adiskideen belarrielara eralten lotsa da-ta. Yakin ba-dakigu Kikero'k eladeraz itz egiten ondo ekiala.

iztxn dok nitzako. Baríi geiagorik be emen neinketsue: Kaisar'en irudiai idunekoak kenduagaitik betiko ixildu yoezak (9) Marul eta Palbi. Onik eta ondo Ibili. Zorakeririk geiago be izan dok, gogoratu al ba'neuz.

KASI.—Arratseon nigaz apaldu gura dok ala, Kaska?

KASKA.—Ez, aurreztik besteri itza emonik naiagok.

KASI.—Biaj etorriko az bazkaltzen nirera ala?

KASKA.—Bai, bizi ba'nek, eta 1 ssmo erretan ba'agoke ta ire bazkarla aintzakotzat artzekorik ba'dok.

KASI.—Ori ondo; iro begíra egongo nok.

KASKA.—Ondo yagok; agur, bioi. (Alde *da*gi).

BURTA.—Moteldu ta amustuaz yoakuk laguu ori! bizi-zorrotz zoan ori irakastogira ebílenean.

KASI.—Oraintsse te alangoxe yatsu erí, egíkizun luni ta zindoren bat egin bear dauenean, orrako irudi ta anti motel-geldo ori artuarren. Bere buru-argitasunak gozagarritzat artzen dausn gatz eta piperra yatsu trakeskeri ori, entzuleen urdallak orren itzak yangale biziagogaz yan-ausi dagiezan.

BURTA.—Olantxe dok izan be. Bein-beinean emen izten aut; biar nigaz itzik egin gura ba'dok, eta gogoko ba'yak, irera yoango nok; naiz, ik gurago izanazkero, eu atorke nirera, ta an etxongo dauskat.

KASI.—Orixe egingo yoat; munduaz ausmer egin ararte. (Burla'k alde). Cndo yagok, Burta, zindo az i; orraitiño, nik dakustanez, egiteko danetik alderatu ledikena dok ire mstal zindoa; orrexegaitik gogo zindoak zindoakaz ibiltea egcki be egoki dok; sita izan be, non dozu besterantza eragln ezin leion gogo sendorik? Baps gogoko ez natxako ni Kaisar'eri, baña Burta maite dau ak. Burta ba'nendi ni, eta a Kasi ba'iedi, *a* ez lilzake yarriko nire gogora. Ainbaten eskuz idatziriko idatziak leioetatik borrura egotziko dautsadaz arratseon, ainbat erritargandiko ba'iha lez, guztiak aren izena Erromarrak aintzako-aintzakotzat dabela erakusters yoten dabela; eta, bide batez Kaisar'en andikeri-irritsari be ukutuiítorik egingo yakoj eta orrazkero, tinlto yarri dagiala Kaisar'ek bere yarlekua; guk ede a aztindu ta itzuli, edo egun txarragorik yasango dogu-ta.

III AGERLEKU.-ERHOMA. Etxarte-bide bai.

Odel oñsztuak. Alde banatatik sartzen dira Kaska, ezpatea ateratu, ta Kikers.

KIKERO.—Gau on, Kaska; etxeratu dezua Kaisar? Zegaitik ago arnasa bagarik? £tu zegaitik dok begirakune ori?

KASKA.—Zelan ez ago i biotza ausita, tinke ez dugon zera lez ludi osoa dardaraka dagonean? Ene Kikero, ezagutu yoadaz nik ekatxak, aretx lakaztsuak urratu ta ausi dabezan axete usarreak; buitu ikusi izan yoat itsaso andikeritsua andituten, asarratuten eta bitsa dariola, odei zemaikorrakaz bat egin gurarik; baña arrats onetararte eguño be ez nok lbili sua darion ekatxetan, ez, eguño bez, Edo zeiuak bere artekoen gudua yok, eda, ostean, ludia manatuteragiño asarratu yozak ludiak yainkoak, yainkoakazko lotsarik bagakoegi izan-eta.

KIKERO.—Izan be, ikusi ete dok ezer ikaraga. rriagorik?

KASKA.—Erriko yopuk (arpegiz ondo ezagun yatsu a) bere esku ezkerra eragi dau, gorra dariola egon da eskua ta ogei zuzik batera bestean su egiten izan dau; eta orraitiño aren eskua, surik so-egiteka, ez dts ez erreton ez muzkilduten izan. Orrez ganera (eta arrazkero ez dot ezpatea zorroan sartu) leoi bategaz egin dot trikitx Kapitoli-ondoan, begiak yosi daustaz, eta nire uldamena zear youn da muker, niri okerrik egiteka; eun emakume egon dira an mordoan ikaraturik, euren bildurrak arei antza aldatu eraginda, eta etxartebídeak zear batera ta besteraka dabiltzan suak arturiko gizonak ikusi dabezala zin egiten izan dabe aik. Eta atzo eguerdi-eguerdian gau-txoria, azoka-ganean kokaturik, oioka ta garrazika ibili zala. Alatzok bateia yoten dabenazkero, iñok ez dagiela esan "Onegaitik eta onegaitik yazo dira... berezko dira"; izan be, alaztzat dodaz nik zerok eta zarbuit iragarten dauskue.

KIKERO.—Izan be, iñondiko yatsu aldi au? azaldu bai gizonak euren era tu goguru, azaldu ta atondu daikiez zerok, zerak eursnezko bide tu elburutik okertu tu ulboratu-

(9) Iltea *áa.* betiko Ixildutea, Orrazkero, il egin ebezan.

rik. Ete yatok biar Kaisar Kapitoli'ra?
KASKA.—Baí, etorteko da, biar an ízango dala zuri esateko agindu dautso Andoni'ri-ta.
KIKERO.—Orrazkero, gau on, Kaska: atetan ibiltekorik ez dok gabaro asarre-nastu au!
KASKA,—Agur, Kikero. (KIKERO'k alde dagi).

KASI aurrera.

KASI.—Nor dogu or?
KASKA,—Erromar bat.
KASI.—Kaska az i, ire berbaroz.
KASKA.—Belarri motelak ez dozak ik erraitiño. Kasi, au dok gabaroren gabaro!

KASI.—Gabaro atsegingarria gizon zintzoentzako.

KASKA.—Nok eguño ezagutu yozak zeruak olun zemaika?

KASI.—Ludia onenbeste oker-gaiztakeriz beterik ikusi izan dabenak. Nigazko, nire buruu gau galbidetsuaren eskuetan itxita ibili nok ni etxartebideak zear; eta, Kaska, euk dakuskanez, soñekoak onan bularrean azkaturik, nire bular gorria erakutsi yeutsat tximistarriari, eta yusturi ubel-asarreak ortzearen bularra idigi bear ebala irudianean, bera etorteko zan bide-bidean opatu yeutsat nire burua.

KASKA.—Baña zer dala-ta zirikatu <do2ak orrenbesteraño zeruak? Gu arriturik iztsko, eurak zelango diran guri erakusteko, yainko aitsu-altsuak olango aurrelari ikaragarriak bidalten dauskuezanean, 1-ildurtu ta ikaratutea dok gizonari dagokiona.

KASI.—Motel az i, Kaska, eta edo ik *ez* dok Erromarrek izan bear leuken arako bizitxatarrik, edo ik erakutsi ez egiten dok olangorik. Zurbil ago i, begiak zabal-geldi, bildurrak ilik, eta arriturik ago zeruaren iñondiko epebakotasuna ikusirik: fcaña ik gogotan artu ta ausmertu ba'endu orrako suen eta orrako koko zirristarien fcenetako 2egaitia, zegaitik aldatu dahezan egaztiak eta piztiak euren eurentasunak eta izakerak, mamuen geitasunak artzeko; ba, or aurkituko dok, zeruak orrako izakiai orrako indarrak emon eta barruan sartu ba'yeutsezak. mamu-egokeraen bateri fcildurra sartzeko ta oartzeko emon eta sarlu izan dautsezala. Gau itzal onen antzeko gizonik izentau neinskik orain, Kaska, ostotsa yoten dauena. yusturiak yaurtiten dauzana, ilobiak idigi, ta Kapitoli'ko leoiak lez orroa egitsn dauena... fcere egitez i ta ni baño altsuago ez dan gizona; eta orraitiño, iñondiko zaldarrok legetxe, itzalez azi ta bildurgarri dana.

KASKA.—Kaisar esan gura dok ik; ez dok. Kasi?

KASI.—Dana dala bedi; oindiño be Erromarrak euren asaben giarrak eta besoak yaukiezak-eta, baña bien fcitartekoarena! gure asaben gogo-indarrak yoanak dozak, eta gure ameen gogo-indarrez yaurriak gozak gu; daroagun eta yasan daroagun buztarriak emakumezko gareala gu erakusten yok.

KASKA.—Iza;^ be, or diñoenez, Kaisar erregetzan biar yarteko dozak agure-batzarrekoak, eta ak bere fcurestuna Itaii'z beste edonon eroango ei yok, bai legorrez, bai itsasoz.

KASI.—Orrazkero, neuk be ba-yakiat non eroan nire sastakai au; Kasi'k yareiko dau Kasi yoputasunetik; orretan, zuok yainkook, benderatu egiten dozuez legerik bagako agintariak; ez dctgo arrizko gaztelurik, ez malluzkauriko boronízezko ormarik, ez eguratsik bagako baitegirik, ezta burdinazko estuntza edo katerik gogoaren indarra estuta euki daikenik; baña munduko lokarrioz asperturik egonazkero, biziak ez dau iñoz be. re buruari agur aginezinik. Ba-dakit nik au, Iudilco beste guztiak be bekie, neuk noz-gura aztindu ta nigandík uxatu daikedala nik daroadan legerik bagako gogorkeria. (Oindiño be ostotsak).

KASKA.—Nik be ba-daiket ori eta bu-dakit; ori dala-ta, edozein fcendeko la yopuk dau fcere eskuetan bere bendeko- yoputasunarí atzena emoteko fcidea (10 .

KASI.—Orrazkero, zegaitik da Kaisar legerik bagako agintari? Aren gaxo! ba-dakit nik a ez litzatekela otso, Erromarrak ardi dirala ez ba'lekus; leei ez litzateke a, orein ez ba'Iira Erromarrak. Lasto zirtziletik asten dira sutzarrak iradu egin gura dabezanak, Erroma'ko sasíamar, zaiorra ta zarramarrea Kaisar ziztrinari argi egiteko gei eta errekin ziztril baño ez danazkero! Baña au

(10) Bere buruaren yabe ez da gizona, berak eginik *ez* dalako. Besíegandik artu dau gizonak bizia, ta erabilteko artu dau, ez berak noz-gura rnanatu ta ortik zear botateko; berari berak emona ba'ledi fcai itxi ta manatu be egin lei, ez baña iñok emona dauenazkero, emon dautsanaren baimenik baga. Lor eta elorriorik gorrienak ba'datorkoz be, gizona gizonago agertuko da, lorr-elorrioak epez eta adoretsu eroanda, bere burua rnanatu ta naibageoi olan dollorkeriz atzena ernonda baño.

naibegeorena! nsra eroan nok ik? Bcs-Iedike nik au bere kitetik yopu danaren aurrean esan izana; orrazkero, ba-dakit nik erantzun hear dodana, baña izkilloa aláean dot-eta, galbidek ez daust ardura.

KASKA.—Kaska'ri itz egiten daragoiok ik, eta ik itz egiten dautsakan gizona ez dok barritsu irriginik. Autso nire eskua; eragina adi, okerroi erantzuteko bideak asmatuteko, eta nik nire oin au urrinen doanarena bestean urrin iminiko yoat.

KASI.—Eginda yagok egiunea. Yakik orain, Kaska, dagoneko eragin yeutset nik biotzik zindoendun Erromar batzui ondoren bildurgarridun egitskoa nigaz batera aurrera eroateko; baita ba-dakit onazkero aik Ponpei-reneko atetako larrinean nire zai dagozana; eta izan be, orain, gabaro itzal onetan. etxartebideetan ez da zirkinik, naiz iñor ibilterik, eta guk esku artean dogun egitekoaren antzeko áok lengeiaren izakerea, zera, odoltsu, sutsu ta itzal-itzal.

KASKA.—Urreratu akit apur baten, norbait ernen iraiuz yatok-eta.

KASI.—Kina dok ori, bere ibilkeratik yoat ezacjun; adiskide dok ori.

KINA aurrera.

Kina, nora oa orren iraduz?

KINA.—Ire billa naiatok. Nor dok ori? Metel Kinber ala?

KASI.—Ez, Kaska dok au; gure asmakide dok au. Nire begira ete zagoze, Kina?

KINA.—Pozkarri dok emon daustakan barria. Gabaro onen itzal! iñondika ikuskizunak ikusi yoezak gutaiiko bi edo iruk.

KASI.—Bañci, ez ete zagoze nire begira? Esaidak.

KINA.—Bai, ba-gagozak. Ara, **Kasi, Burta zindoa ik gure alderako irabazi al ba'endu irabazi...**

KASI.—Pozik egon; Kina, papel cu artu egik eta pertoraren (11) yariekuan imini egik, Burta'k an idoro dagian, eta aren leiotik barrura egotzi egik beste au; Burta zarraren zutiko irudiaren ganean argizagiz erantsi egik beste au; ori eginazkero, Ponpei' ren atstaks atarira ator estabe, ta an aurkituko gozak gu. Delti Burta ta Terboni an ete dozak?

KINA.—**Metel Kinber'ez beste guztiak, eta a irera yoana dok ire billa. Ondo yagok, arin yoango nok, eta ingi edo papelok ik aginduaren arauz euran lekuetaratuko yoadaz.**

KASI.—Ori egindakoan Ponpei'ren antzeztegira ator. (Kina'k alde dagi).

A**tor, Kaska, Burta ikusi bear yoagu berean ik eta nik, guk hiok, oindiño, eguna baño len; dagoneko gure dozak aren iru laurenak, eta urrengo ikustaldian gizon osoa bere burua guri emona dok.**

KASKA.—Eneee! erri osoaren biotzean goigoian yarrita yagok, a eta aren arpegiak, alkimirik (12) aberatsenak legetxe, oniidetu ta aingarritu egingo yok gugan iguingarri lecikena.

KASI.—**Ondo igarri dautsak ik aren aingarritasunari ta gure aren bearrari. Gaioazan, garerii-ostea dok-eta; eta eguna argitu baño len a iratzarri ta gure aldera dagonentz zsatz yakingo yoagu** (Alde dagie).

(11) **Pertor.** "Praetor" lateraz. "Kontsulak" ziran Erroma'ko agintaririk nagusienak; perlorak urren. Legegin-lzea bagarik, epaitza-arlca zan Perloren egikizuna. Guda-perlorak be ba-ziran, eta oneík bai yaurten eben eurai izentauriko Erkian. Cnantzengoon artean bere zori txarrerako gutzat ezagunena Yosu Kisto gure Yauna epaitu ta eriotzara bidali ebana, Ponti Pilatu dogu.

(12) **Alkimi.** Kimi edo kimikaren aurrendari da **ulkími** dalakoa, ta aspaldi-aspalditik erabili izan dabe norbaitzuk. Metalen urtze, naskeía ta margozketeari intsigi yakozan lenen alkimilariak. Gerora, yakintzazale-arria eretxon zera asmatzera yo eben. Zetarako eben onako arrí au? Ba, egin-eginean be metal zakarragoetatík urrea egiteko. Yakintzazale-arria espiritutco ur':uazkero ta edan, betiko gaztetasuna lekarkela uste eben ameslari azarriok.

II EKITALDI

I AGEBLEKU.--ERBOMA. Burta'ren Igali-zugaztia.

BURTA aurrera.

BURTA.—Eeee! Luki, eee! Izarren bidez ezin igarri nei eguna ur ala urrin dan. Luki, tirukj Neuk *al* neu oiango lo gogorru! Noz, Luki, noz? Atzarri udi. tiruk! Eet»! Luki!

LUKI aurrera.

LUKI.—Deiez egon zatxataz ala, ene yaun?

BURTA.—Argizaia imini egistak nire lantegian, Luki; ixitu dagikanean dei egiten atorkit.

LUKI.—Bai, ene yaun. (Luki'k alde).

BURTA.—Aren eriotzeagaz Szan bearko: nire aldetik, aren aurka iñor zirikatuteko ezetariko zisrik ez dst nik, baña bai erriaren onagaiíik; burestuna ezarri duyíoela gura dau ak; burestunak aren izakereará ze aldakuntza ekarri leion *áa* igarkizuna ta yakitekoa: eguraldi argi-sargoriak ateraten dau sugegorria bere zulotik, utu orrazkero arduraz ibili bear da, Burestunik ezarri ari? Orrek... Eta orrazkero (bai orixe), miztoa (eztena) ezarten dautsagu ari, beragaz ak nez-gura ta norí-gura kalte egíteko. Nagu-Bitasuna txarte erabilten da agintzea ta biotz-kezksa alkarregandik bananduten dixuneun; etu Kaisar'gazko esateko, ez dakit nik nsz uyindu dausn aren biotzak uren adimenak baño yeiugorik. Buña erakuspide oitu-oitua da zitalkeria dula andikeri gaztearen zurubi; zurubia begira doa gora igoten daragoionean, bañu bein gorengo mallara eldu danekoxe, bizkarra emoten dautso zurubiari ta ortzea begiratzen dau, igoteko lagun izan yakon zurubi apala ezetsi ta zapuzturik, Orixe egin lei Kaisar'ek be; oŕazkero, aurreak arturik, eragotzi dagiogun olangorik egitea. Baña zerak bein-beinean olangoren antzik ez dauenazkero, onetara iruditu bear dogu: orain danean a aziazkero, onango ta olango geiegikerietara eldu leitekela; eta, orrazkero, a orain suge-arrautza dalu uste Iítin. bein opeletan eukitu, beretarikoak legetxe okerreriak egiteko lain azl ledlkela, eta arrautzearen mintz.barruan il.

LUKI aurrera ostabe,

LUKI.—Ixiturik dago argizaia zure lantegian, yaun. Suarri-billa leioa arakatuten neragoiola papel au idoro dot an (Idazki bat dcrmotso), onantxe ikurratzez Itxita; eta ondo dakit ori @z egoala au ni etzaa nuzanean,

BURTA.—Oera os ostabe, oindiño ez dok egun. eta. Biar ez ete dozak Epaileko "idus"ak?

LUKI.—Ez dakit nik, yaun.

BURTA.—Egutegia begiratu egik, eta erantzun egistak.

LUKI.—Begiratuko dot yaun. (Alde dagi).

BURTA.—Aidera, eguratsetora yagiten díran lurrunak emoten daben argiaren argiz irakurri daiket idazki au {Idigi *ta* ba-dirakur idazkia): "Burta, io ago i; atzarri adi ta eure burua ikusi egik. Zertuko et9 dau Erroma'k... Itz egik, yo egik, ordeazkoa emon egik! Burta, lo ago i; atzarri adi...". Sarritan zabaldu izan daustez onango zirikaketak nik eurak eragi izan dodazan lekuetan. "Zertuko ete dau Erroma'k...". Onaa osotu bear dot nik erdi-esan orii gizon bate« bilduri-ikarapean bizi bear ele dau Erroma'k? Erroma'k, Erroma'k bildurr-ikarapean? Erroma'ko etxartebideak zear nire asabak aurrean eroan eben Tarkin, a bakaldun zala, "Itz egik, yo egik, ordeazkoa emon egik!". Orrazkero, ítz egiteko ta yoteko dei egiten dauste! Ene Erroma! Orderik emon ba'dagit aik, zuk eskutua Burto* ren eskutik osorik artuko dezula agintzen doutsul!

LUKI atzera be aurrera.

LUKI.—Yaun, Epailaren amalau egun yoanak díra, (Barruan norbait ale-yoka).

BURTA.—Ondo yagok. Ate nagusira oa; ateyoka yaragoiok norbaitek. (Lukl'k alde). Lorik ez dot egin Kaisar'en uurku Kasi'k zirikatu nindunazkero. Irudipen edo ames askarriren antzeko da zer itzalen bat egiteko lenengo zirkinetik egitekoa egin arterañoko aldia; beste mundukoak eta bitarteko ilkorrak batzarrean dira aldi atan. eta gizonaren izakerea lege ta nagusien aurka yagiten du aro atan, bakalderrikoen antzera.

LUKI ostera be aurrera,

LUKI.—Kasi zure *analea dagc* atetan eta *m* ikusi cjuru zauz.

BURTA.—Bakarrik yagok ala?

LUKI.—Ez, yaun, beste batzukaz dago.

BURTA.—Ezagun ete dozak?

LUKI.—Ez, yaun; belarrietaraño sarturlk dabez euren txapelak, eta euren arpegiak es-

talgipean erdl-aarturik-eta, ezln dodast seindu ezetariko ezagungarriz.

BURTA.—Aurrera datozala, (I.uki'k alde). Ma. txinadea dira orreik. Matxinada ori! Ire betozko blldurgarria gabaz be erakusten lotsa az, gaizkin guztiak iñozkorik nasaien eta azkeen gabaz ibili-ta? Ara! orrazkero. non idoroko dok egunez ire mamu-mosua estaliteko lain ilun dan artzulo ilunik? Ez egik billatu bat be, matxinada; irribarrez eta txeraz ostondu egik ire mosu ori, ire eurezko arpegia agirian izanazkero, iri ez igarteko lain Sulezeak berak be ez cm ostonduko-ta«

KASI, KASKA, DEKI, KINA, METEL KINBER eta TERBONI aurrera.

KASI.—Azarriegi gozak gu iri loa galazoteko, nire ustez; egun on, Burta; gogoaz besterako ete gatxakaz?

BURTA.—Tertzio onetarako yagita egon nok ni; gau osoan atzarrik. Ezagun ete yoadaz igaz batera datozan gizonok?

KASI.—Bai, guztiak banan-banan; eta ire edergarri ez don gizonik *ez* yagok emen, eta euretatik bakotxak ez yok gura besterik ik eure buruaz edozein Erromarrek itaz dauen eretxla Izatea baño. Terboni yak au,

BURTA.—Ondo etorria dok ori ona.

KASI.—Deki Burta yak au,

BIJRTA.—Ondo etorria ori be.

KASI.—Kaska dok beste au; eta Klna beste au; eta Metel Kinber au.

BURTA.—Guztiak dira ondo etomak. Ze kezka, ze ardura atzarri yagi da zuon begien eta gabaren bitartean?

KASI.—Itz bat iri esaten itxiko ete daustak? /Alkarregaz txulxuputxuka daragoioe Burta' k eta Kasi'k).

DEKI.—Au da eguzki-aldea; emendik ez ete dau urratuten egunak?

KASKA.—Ez.

KINA.—Ba! parkatu, baña emendik urratuten dau; eta an aragoan odeian ertzetan agiri diran zerrenda nabarrak egunaren iragarla ta geznari dira.

KASKA.—Biok autortu bearko dozue oker sa. gozela. Emendik, nik ezpata-mokoz erakusten dodan lekutik yagiten da eguzkia; askozaz be egoe-alderago yagiten da, urtearo gazte onek eguzkiari berantza sakaturik. Orainganik ile bitsu iparralderantza goren dala erakutsiko dau bere argia; eta emendik artez dagoz Kapitoli ta eguzki-sortze garaia.

BURTA.—Eskuak ekadazuez guztiok, bananban<zn$_B$

KASI.—Eta zin dagigun gurs erabagiaz,

BURTA.—Ez, zinik ez; gizonen arpegiak, gura gogoetako naibageak, aldion gaiztoa..., maknltzat ba'doguz eragileok, len baño len manatu dagigun batzar an eta bakotxa bere oe nagira doala; orrazkero, nasai ota bere naierara dabilela goitik begira dagon legerik bagako agintzea, gizon bakotxa bere zotza urten dakionean yausi arte. Baña, nire ezpairik bagako ustez, ziook dollor-bildurtiak sututeko be ta emakumeen gogo-biotz kikilberak adorez galtzaidututeko be asko diranazkero, aberkideok, zetarako bear dogu gure zioaz beste gankadarik, okerrarí erantzutera gu zirikatuteko? Zer beste lokarririk bear dogu bein emondako itza iruntsiko ez daben Erromar ixilpeko-yagontzalleentzat? Ete dago zintzoen arteko egiunea baño zin obarik, emondako itza bete ezik guztiok galduak gara-ta? Yaupariak eta dollorrak, eta gizon bildurtiak, agure zar erdi-ustelak, eta biderik bagako irainal ondo-etorria ernoten dautsen gogo epetsu-makalak begie zin; olangoak begie zin elburu txarretarako, gizonai susmo txarra dakatse-ta; baña ez orbandu gure asmoaren garbitasuna, ezta gure gogoen zintzotasun ausi-ezin eta ito-ezina be, gure asmoak, naiz gure egikizunak zin-bearrik badauela uste Izanaz; eta Izan be, Erromar bakotxak daroan, eta zindo daroan odolaren tantanak sasikume-oáol-tantan banaren errudun izango dira, berak agindukotlk txatalik txikienik be ausi ba'dagi.

KASI.—Baña zer egiteko Kikero'gaz? Zetara dagon zirikatuko ate dogu? Nire ustez a sendo egongo da gure alde.

KASKA.—Ez dagigun baztartu a.

KINA.—Ez, ezetara bez.

METEL.—Geuganatu dagigun a; aren ule urdinak erebsiak gure aldera ekarri ta gizonen itzak gure egitekoaren alderako erosiko dauskuez-eta; aren eretxi ta onura ibili dirala gure eskuak esango dabe; gure gaztetasun eta artegatasunaren izpirik be ez da agertuko, onako zerok aren bentasun eta yarritasunak estali baño.

BURTA.—Enee! ez egistazue aitatu be egin *a;* ez gadizan asarratu agaz, a iñoz be ez yako yarraiko bestek asiri-ta.

KASI.—Orrazkero geldirik itxi a.

KASKA.—Izan be, a ez da egoki.

DEKI.—Kaisar'ez beste iñor ez ete dogu ukutuko?

KASI.—Edeito esanda, Deki.- Nire ustez, Kaisar ilazkero Marka Andoni bizirik Iztea ez da egoki, Kaisar'ek *a* maite-maite dauenaz-

ksro; Kaisar'en antzeko maltzur litxakigu a; eta ba-dakizue, aren bideak obatu ba' dagiz, gu guztiok artegatzeraño nasaitu ta eldu leitekezala; eta olangorik aurreztik eragozteko, Andoni ta Kciigar biak batera yausi beitez.

BURTA.—Kai Kasi, odoMsuegi, gordinegi eretxiko yeutsoek gure egipideari, burua kenduaz ganera beso-oñak be ebagi ba'dagioguz; eriotzan asarrea ta gero bekatxa izatea Htzatekek ori; eta izan be, Kaisar'en beso baño ez dok Aníoni; opagin izan gaitezan, bai, boña ez arakin. Kaisar'en gogoaren aurka gagozak gu guztiok, eta gizonen gogoak ez yok odolik; orrazkero, Kaisar'en gogora eldu al izango al gozak eta ez kendu Kaisar'eri beso-oñik! Baña, ene! odola ixuri bearko yok Kaisar'ek orretarako! Eta, adiskide kutunok, adoretsu il dagigun a, ez baña asarrez; yainkoen mairako arrain ba'ledi legetxe emeki ta txukun zatitu dagigun, ez txakurrentzako gorpu ustel elt::arrak eginen bat ba'ledi legstxe edozelan trakets urratu; eta gure biotzak ugazabc maltzurrak egiten dabena egin, zera, gero asarre egiteko euren otseinak egikizun askarrien baterako zirikatu, ta gero agirika egiten dautsenena egin. Onan, ezinbestekotzat agertuko da guk egina, ez gorrotagarri; eta erriarsn begietan ori o'an agertuazkero, garbitzalla deituko dauskue, ez gizerala. Marka AnJoni'gazko, yaramonik be ez ari; eta izan be, ak ezin daike geiagorik Kaisar'en besoak, Kaisar'eri burua moztuazkero, egin daiken baño.

KASI.—Orroitio be bildur yeutsat nik ari; eta izan be, ak beragan mentaturik dauen Kaisar'ganako maitatasuna...

BURTA.—Ba! Kasi on, aren ardurarik ez egik izan. Kaisar maite ba'yok ak, bere buruari egin leiona dok ak geien egin laikena, zera, orretarako asmoa artu ta Kaisar'gaitik il; eta gitxi ez ledikek ori arentzako; izan be, yolaszale, eziga, izkanbillatsu ta lagunzale dok a.

TERB.—Ez dogu aren biHurrik; ez dadila, ba, il; bizi ba'dadi barre ederrik egingo dau ak onetzaz-eta (13) (Erloiuak yoten dau).

BURTA.—Ixilik, erloiuaren takadak zenbatu.

KASI.—Irurak yo dauz erloiuak.

TERB.—Alde egiteko tertzio da.

KASI.—Baña oindiño yakiteko da Kaisar gaur etxetik urtengo dan ala ez; izan be, azturu egina da a oraintsuazkero; aldatu egin dau orain ak beñola irudipsn, ames eta yaureste-arauez eban tretxia-ta, ba-ledike alatz agiriok, gau onetako oiez besterako yazokune ikaragarriok eta azturuen esanak gaur a Kapitoli'ra etortzeka eukitea.

DEKI.—Orren bildurrik ez izan; ez etortera erabagirik ba'lego, neuk itzuli daiket a bestera-ta; eta izan te, adarbakarrai zugatzakaz, artzai izpilluakaz, elepanteai zuloakaz, leoiai sareakaz, eta gizonai zuritzalleakaz ziria sartu leikiela entzutea gogoko izaten yako ari; baña nik esan ba'dagiot iguin dautsala ak zurutzalleri, baietz erantzuten dau ak, egin-eginean be orduantxe iñozkorik zurituen izanda. Nigan itxi lan au; eta izan be. aren gogaldia neuk nora-gura itzuli daiket-eta, neuk ekarriko dot *a* Kapitoli'ra.

KASI.—Bai, guzUok yoango gara ara aren billa.

BURTA.—Zortziretan; zortziretan beranduenez?

KINA.—Zortzirak bedi beranduenez, eta ez egin utsik garai atan.

METEL.—Kai Ligari'ri ez yako begiko Kaisar, tein Ponpei'ren alde ondo esanagaiUk agirika egin eutsalako; andia da zuok gogoratu eza.

BURTA.—Metel on, arenera oci orain; maita naiok ak, eta berak yakik zegaitik; ona bidalik a, ta neuk bideratuko yoat.

KASI.—Goxaldea ba-dator; alde egingo dauskagu guk, Burta; eta zuok, adiskideok, sakabanatu zadize zuok; baña guztiok gogoan euki esan doguna, ta benetako Erromar agertu.

BURTA.—Gizon gordin eta pozdarioena egin, yaun onok; gure arpegiak ez dagiela iragatTi gure asmoa; gure Erromar antzszlariak lez yokatu, kemen adoretsuz eta arpegirik yausteka; eta orrazkero egun-on bana zuoi. (Burta'z beste guztiak alde). I. txotxo, Luki! Lo-zorroan! Ez dau ardura; loaren ezUki astuna artu egik; ez dok ik ardura urduriak gizonen buruetara ekarten daben ez irudirik, ez amesik; orregaitik dok ik orren lo gogorra.

PORTZE aurrera.

PORTZE.—Burta. ene yaun!

BURTA.—Portze, zek zakaz *ona?* Zegaitik yagi zara oindiño? Goizaro gordin-otz au ez datorko ondo zure osasun makalari.

(13) Gero dakuskegunez, arazo onetan Burta on-zindoak baño begi zcrrotzagorik izan dau Kasi'k; Iauso-Iauso Terboni'k. Ziri ederra sartu dautse Andoni'k guztiai be.

PORTZE.—Ezta zureari be. Burtct, ixilka-muxilka gizonki ez dozu alde egin nire oetik; eta bart, aparitan, maitilc bat-batean yagita, ibilten ekin dautsazu zulc, zerbaitez ausmer egiten eta asperenka, besoak aume eginda; eta zer yazotsn yatzun itandu dautsudanean, maitakor ez dira izan zuk egin daustazuzan begirakuneak; ostera be erago dautsut nik, eta zuk orduan buruari atz egin eperik ezaz ostikadea emon dautsazu lurrari; ostera be nik ekin, baña zuk erantzun ez; erantzun ordez, zure eEkuari asarrez eraginda, zugandik alde egin dagidala iragarri daustazu; alde egin dot nik, zugan biziegi ixiturik egoala irudituten yatan zure eperik eza ez geitutearrsn; eta orraitio be, arako a zure gogaldiaren ondorena baño ez zalakotan, olango gogaldiak nozipein edonok izaten dauz-eta. Orrek ez dautsu izten ez yaten, ez itzik egiten, ezta lorik egiten be; eta gogaldi orrek, zure izakereaz yafcetu danez, zure antzaz be yabetu ba'ledi, zu ezaututen be ez leuskit itxiko, Burta. Ene yaun maite, naibage ori nondik eta zetatik datortsun iragarri egistazu.

BURTA.—Osasun txarra dot, eta orixe baño besterik ez da.

PORTZE.—Zur da Burta, ta ondoezik ba'Iego, osasunerako bidealc artuko leukez.

BURTA.—Ba, egin-eginean be orrexeri daragoiot. Portze maits, oera zoaz.

PORTZE,—Gexorik dago Burta ala? Eta osasungarri ete da erdí-yantzirik ibili ta goxaldeko ezoaren lurrunak edoskitea? Zer? Gexorik egon Burta, ta ixilka alde egingo ete dau oe osasungarritik, gabaren kutsu zikinari eupada egin, eta bere gatxa txarragotu dagioen ubileria ta egurais kutsutua zirikatuteko? Ez, ene Burta; irain mingorren bat dozu zuk zure biotzean. eta nik nire eskubidez eta dagokidan lekuz ori zer dan yakin bear neunke; eta nik, nire belaunen ganean yarrita, zuk bein goraturiko nire edertasunarren, niganako zure maitatasun-zinakarren, eta arako gu alkarregaz bat egin ginduzan zin andiarren liluraiu egin gura zaudaz nik, zure burua erakutsi dagistazun eta esan dagistazun zegaitik zagozan motel, ni zure erdikina nozu-ta; eta nortzuk diran gau onetan zugana erdu diran gizonak; eta izan be, sei edo zazpi izan dira, ta ilunbeari be estali egin izan dautsoez euren arpegiak.

BURTA.—Ez zakidaz belaunbikatu, Portze maiie.

PORTZE.—Ez neunke belaunbikatu bear, Burta, samur ba'zendiz zu. Esaidazu, Burta, ezkontzako lokarri ta egiunez ete dago eraba girik zure ixilpekorik nik ez yakitea? Mu gatua ta ni zu zeu zertxo batzuetan baka. rrik izatekorik ete naz? Zuri yaten emoteko, zure oya poztuteko, ta zuri nozipein itz egiteko bakarrilc? Orren urrin bizi ete naz zure maitatasunetik? Ori baño ezpa'da, Burta' ren iztarr-andera da Portze, ez emazte.

BURTA.—Nire emazte benetako ta zindo za*va* zu; eta nitzako, nire biotz naibagetura datozan tantan gorriak aña maite zara zu.

PORTZE.—Egia ba'ledi ori, ixilpeko ori be yakin bear neunke nik. Autortuten dot emakume r.azala ni, baña Burta yaunak bere emaztetzat arturiko emakumea, Kato'ren alabea. Olango aita ta onango senarra dodazanazkero, nire emekideak baño sendoagotzat ez ete nozu? Zure asmoak iragarri egistazuz, nik ez dodaz iragarri ta zabalduko: neuk neure kitetik zauritu egin dot nire iztarra ementxe, nire linkotasuna noragiñoko dan ikusteko; epez yasan ete daiket au, etct ezin euki nire senarraren ixilpekorik?

BURTA.—-Emazte zindo onen senargarri egin. go al nozue zuok ene yainkook! (Ate-yoka barruan norbail). Entzun, entzun! ate-yoka daragoio norbaitek; Portze, barrura zoaz bein-beinean, eta gesu baten nire ixilpekoen kide izango da zure biotza; nik emondako itzaren barri zeatz emongo dautsut, baita nire betozko ilunaren zegaitiarena be. Arin alde egizu. (Portze'k alde dagi).--Luki, nor dok ate-yoka daragoiona?

LUKI aurrera LIGARI'gaz.

LUKI.—Zugaz iiz egin gura leuken gizon gexo bat dozu emen.

BURTA.—Metel'ek beronetzaz itz egin dauskun Kai Ligari dogu au.-I, txotxo, alde egik ik. Ara! Kai Ligari... Zelan ago?

LIGARI.—Miñ makaletiko egun-ona artu egizu.

BURTA.—Aldi lango aldia artu dok ire bu. rua estaliteko, Ligori adoretsu! Ez al engo gexorik!

LIGARI.—Ez nengoke ni gexorik, entzute onaren izengarri litzaken egiteko andirik ba' leu Burta'k eslcu artean.

BURTA.—Esku artean yoat orrako egiteko andi ori, Ligari, bera entzuteko osasunez ba' yagozak ire belarriak.

LIGARI.—Erromarrak gurtuten dabezan yainkoakarren, emen baztartuten dot nire gatxa!

Erroma'ren gogo ori! seme adoretsu, kuntzurrun-alde zindoetatiko ori! nire gogo yausia zuzpertu ta eragi dozu zuk, araotzallaren antzera. Arin eta zoli ibili naitela agindu egistazu orain, eta ezinezko dirudien zeren ganetik aurrera egiten aleginduko naz; bai, al dodana aterako dot eurelatik. Zer da egin bear dana?

BURTA.—Gizon gexoak osatuko dauzan lanarloa.

LIGARI.—Baña ez ele dago guk gexotu bear geuken osasuntsurik?

BURTA.—Ori be egiteko dogu. Ene Kai, orrako ori egitera goazala bidecin azalduke dauskat nori egin bear dautsagun.

LIGARI.—Eragin zure oñari, eta biotz sutubarrigaz yarraike natxatsu zetarako dan ez dakHala; Burta aurrendari dodala yakitea asko yat niri.

BURTA. Orrazkero, yarrai akit. (Alde dagia),

II AGEBLEKU.--ERROMA. Kaisar'en yauregiko leku.

Ostotsak eta yusturiak. KAISAR aurrera bere gau-atorraz yantzita.

KAISAR.—Ez ortzea, ez lurra ez dira íxilik egon barl; iru bider egin dnu gedar Kalpurne'k amesetan, "Lagun, ene! Kaisar eraten (ilten) daragoioe!". Nor dogu or bartuan?

OTSEIN bat aurrera.

OTSEIN.—Ene ycran?

KAISAR.—Oa ta opariak eskeini dagíszala agíndu egiek spaginai, ta ondorenazke euren erelsria ekarri egistak.

OTSEIN.—Egingo dot zurs agindua, ens yaun. (Alde dctgi).

KALPURNE aurrero.

KALP.—Zer egitsko zara, Kaisar? Urteteko asrnorik ba-dozu ala? Gaur ez dozu urten bear etxstik.

KAISAR.—Kaisar urtengo da; estetik bakarrik zemaitu nabe orain arte zemaitu naben zerak; atzerafu egingo dira Kaisar'en mosua ikusi-ala (14).

KALP.—Kaisar, eguño ez naz izan sinispera, baña bildurturik naukie oraingo zerok. Guk geuk entzun eta ikusiko zerez ganera, gabazko etxe-zainalt ikusiriko ikuskizun itzalak eralten daragoio emen gurean dagon batek. Etxartean egin ei dauz umeak leoi emek; eta i!-obiak agoa zabaMu ta euretako ilak egotzi egin ei dabez; gudari sutsu itzalak burruka ei daragoioe odeietan, guda-lerroka ta gudari-mordoka, ta odol-euria yalten ei da Kapitoli-ganera; guda-otsak durundu egiten izan ei dau eguratsean, zaldiak irrintze egiten izan ei dabe, eta urruma gizonak; eta iratxoak oio latz eta irrintzek egiten izan ei dabez etxarteak zear. Ene Kaisar, oituaz besterako dira onako zerok eta bildur dautset nik!

KAISAR.—Nok alderatu ta galazo lei yainko altsuak erabagita dabenik? Orraitio be Kaisar urtsngo da etxetíks eta izan be, Kaisar'entzat lez, ludi osoarentzal be badira aurre-iragarpenok.

KALP.—Eskekoak ilten diranean ez da ikusten izarrik yausten; ortzeak berak argi-argl egiten dautso erregegeien eriotzeari.

KAISAR.—Kikil-bildurtiak sarritan ilten dira benetako euren eriotza-aurretik; eriotzea zelango dan fcein baño ez dabe ikusten adoretsuak. Orain arte entzun dodazan zer arrigarrietatik iñondikoena, nire ustez, glzonak eriotzeari bildur izatea da; eta izan be, eriolzea, berezko atzena danazkero, etorri bear dauenean etorriko da.

OSTERA be OTSEINA aurrera.

Zer diñoe gure "ogur" (1S) edo azturuak?

OTSEIN.—Gaur zuk etxetik zirltinik egitelto eretxidun ez dira aik. Opagei baten erraiak aterata, aberearen barruan iñon ezin idoro izan ei dabe biotzik.

KAISAR.—Kikilkeriaren lotsariz egiten *daba* yainkoak onako au; biotzik bagako abere izan bear leuke Kaisar'ek, bildurragaitik gaur etxoan gelditu ba'leái. Ez, Kaisar ez da geldituko; galbideak berak ondo daki Kaisar galbidea bera baño bildurgarriago ta galbidetsuago dala; egvm berean yaiori-

(14) Argí ta garbí agíri dct emen Kxrísar'en arrokeria. Yainko dalct esatera bíde gitxi dago ortik.

(15) "Ogur", lateraz "augur". Aztu edo azturu yatsuzan ogur edo augurak. Orreik eta "aruspikeak" Erromarren yaupari edo abadetalde egiten eben, Egaztien egazkada, garrankada ta irrintzetalik igartan ei eben ogurak etorkizuna; aruspikeak, ostera, aberreen erraieíatik. Azturuon ardurapean egoan Erroma'n yauretxeak mustutea, eta ogur eta aruspike barriak euren kidegoan artzea.

ko leoiak gara gu, ta zarrena ta itzalena ni naz; eta Kaisar urtsngo da etxetik.

KALP.—Ai ene! ene yaun, entziteak. uste onik geiegiak zurtasuna yan egin dautsu zuri. Ez urten gaur etjtetik; nire bildurrak zaukazala etxean esan, ez zureak. Marka Andoni bidaliko dogu agure-batzartegira, eta zu gaur onik ez zagozala esango dau ak an; belaunbiko yarrita, neu urtengo al naz nagusi eztabaida onetan,

KAISAR.—Ni ondo-ezik -agola esango dau Marka Andoni'k, eta zurr gogaldiari amore egitearren etxean geldituko naz ni.

DEKI aurrero,

Deki Burta dogu emen, onek esango dautse arako a.

DEKI.—Gora, Kaisar! egun on, Kaisar aingarri; zure billa nator agure-batzartegirako.

KAISAR.—_ta etorri be garaiz ator, agure-batzarrekoai nire agurrak eroateko ta ni gaur ez nazala yoango esateko; guzurra dok ezin yoan neindekela; guzurra ni yoaten ez nazala azarten fce; es yoat gura gaur; auxe esan egiek, Deki.

KALP.—Onáo-ezik dagola esan.

KAISAR.—Guzurrik bidali bear ete dau Kaisar'ek? Guduak iratazteko nire besoa urrin be urrin iuzatu dodan onek bildurrik izango ete dot bizarr-urdinai egia esateko? Kaisar ez dala yoango esaiek, Deki, eta kitu.

DEKL—Kaisar altsu-altsu, zegaitiren bat iragarri egístazu, nik ori esan-ala harreka artu ez nagien.

KAISAR.—Nirs gogoa dok zegaitia, ez yoatea emon yeustak gogoak; asko dok au agurefcatzarrekoak zegaitirik askotzat artzeko. Baña i maite aut-eta, ire buruaren zurigarritzat, iri iragarriko dauskat zioa edo zegaitia; aiko, nire emazte Kalpurne onek etxean gelcituazoten yeustak; ames egin yok onek bart eta nire zutiko irudiak eun erioko iturriri lez odol utsa dariela ikusi ei yozak; eta Erromar mardul askok, ara elduta, irribarre egin eta euren eskuak an busliten izan ei yoezak; eta onek onako zerok etorri-aginiko gatxen aurre-iragarkitzat artzen yozak, eta belauntiko yarrita, gaur etxetik alde ez egiteko eskatu yeustak.

DEKI.—Osoan oker eta bestera aiturik dago ames au; ikuskizun eder eta zori ontsu orixe; auxe esan gura dau zure zutiko iruditik odola borborka ainbeste oditik urten eta beste ainbeste Erromarrek euren buruak an irribarreka ikuzteak, zera, zugandilc edoskiko dauela Erroma andiak bera biztuko dauen odola; eta gizon andiak alkarri bultzaka ta estu-estuka etorriko dirala zugana margo-eske, orban-eske, oroigallu edo gumutagarri-eské ta andiki-ezaugarri-eske. Au esan gura dautsu Kalpurne'ren amesak.

KAISAR.—Eta ik olan itzalez ederto azaldu dok.

DEKI.—Eta ezaldu izango dot, nik esan daikedana entzun izango dozunean; eta agurebatzarrak Kaisar altsuari burestuna gaur ezartea erabagi dauela yakin egizu. Ez zarala yoango ai esanazo ba'dagistazu, baledike arein asmoak beste fciderik artzea. Orrez ganera, ai irri egitea litzake ori, eta aik irriari erantzuu norbaitek au esanda. "Eeste beinerarte banatu agure-batzarra, Kaisar'en emazteak ames obarik egin arte". Kaisar oslondu ba'daite, ez ete dabe esango txutxuputxuka, ara! fcildur da Kaisar? Azketsi, parkatu, Kaisar, zure egipideari au esatera zuganako nire maitatasun andi-andiak tuítzau nau- ta; eta emen zer batera yoten dabe argibideak eta nire maitatasunak.

KAISAR.—Oñarririk bagako diruíie orain zure bildurrak, Kalpurne! eurai amore eginaren lotsa naz orain... Ekadazu nire gainyantziluzea, ni ba-noa-ta.

PULBI, BURTA, LIGARI, METEL, KASKA, TERBONI ta KINA aurrera.

Eta ara non datorren Pulbi nire billa.

PULBI.—Egun on, Kaisar.

KAISAR.—Ondo etorric!, Pulbi. Ara! Burta, ik be orren goiz egin dok zirkin? Egun on, Kaska... Kai Ligari, Kaisar ez dok izan eguño i iristu auen beroena baño ire arerioago. Ze ordu da?

BURTA.—Zortíirak yo-barri dira, Kaisar.

KAISAR.—Eskerrik asko zuon neke ta begiruneakaitik.

ANDONI aurrera.

Ara! Andoni, gau berandurarte iskanbil-zarataka Ibi^{n}i izanarren yagi da Andoni.-Egun on, Andoni.

ANDONI.—Beste orrenbeste Kaisar zindo-zindoari.

KAISAR.—Gertau daitezala esaiek barrukoai. Onen luzaro iñor nire begira euki izanaren errudun eta lotsa nok. Kina orain, -Metel orain; ara! Terboni! ordubetsko itzaldia yoat go:ur iretzako; ni ikusten ator gaur; nire ondoan agoke, gogoan euki agidan.

TERB.—Zure ondsan izango nozu, Kaisar; (Be-

re kitean) eta ni zure ondo-ondoan izanda, ni urrinago ez izanaren tamalik izango dabe zure adiskiderik onenak.

KAISAR.—Barrura goazen, adiskide onok, eta ardao apur bana artu daigun; eta gu, adiskide antzera, bertatik guzliok batera yoango gara.

BURTA.—Ara, Kaisar, zer bi dira antzeko izatea ta bardin izatea; orretzaz ausmer daragoio Burta'ren biotzak (18). (Alde dagie).

III AGERLEKU.-ERROMA. Kapiteli'tik urreko Etxerteblde.

ARTEMIDOR papel bat dirakurrela aurrera,

ARTEM.—"Kaisar, Burta'ri yaramon; ardura izan Kasi'ii; Kaska'gana ez urreratu; ez izan uste onik Terboni'gan; ez aldendu zure begiak Metel Kinber'gandik; Deki Burta'k ez zauz maite; iraindu egin dozu zuk Kai Ligari. Gogo bateko dira gizonok eta Kaisar'en aurka itzulirik dago bera. Yagon zure burua, il-ezinik ezpa'zara; asmakidetzearen aldeko da bildurrik eza. Yainko altsuak zainduko *a*\ zauez! Zure maitale Artemidor'ek". Emen egongo naz Kaisor emendik zear igaio aiteño, ta eskaiien bat ba'litz lez emongo dautsat au. Negarrez dago nire biotza bekatxak aginak ezarteka ezin bizi dalako onindarra. Ene Kaisar, au irakurri ba'dagizu irakurri, hizi zatekez zu; ostean. alanbearrak eta saltzalleak batera yoko dabe. (Alde dagi).

IV AGERLEKU.--ERROMA. Elxartebide bereko beste arlo bat, Burta'ren etxe-aurrean.

PORTZE ta LUKI aurrera.

PORTZE.—Arren-bai-arven, mutil, arin egik agure-batzarrera; niri erantzuten ez agik galdu «stiiik, len baño len yoan baño; zegaitik ago or geldi?

LUKI.—Eroan bear dodan geznea yakiteko, andera.

PORTZE.—Emen eta an, bietan, gura induket nik, ik an zer egin bear dokan esan al izan baño len... Tinkotasun ori! zirkinik egiteka ago nire aldamenean! mendi eskargaren bat imini nire biotzaren eta nire miñaren bitartean! Gizonarena dot nik gogoa, baña emakumerena ala. Emakumeentzat bai badala zail eta gatx erabagiri eustea! Oindiño be emen ago ala?

LUKI.—Zer egiteko nozu, andera? Kapitoli'ra arin yoan baño besterik ez? Eta orrazkero atzera etorri baño besterik ez?

PORTZE.—Bai, mutii, ire ugazaba gexorik yoan dok-eta, ak arpegi argia dauen ala ezko barria ekarri egistak; eta Kaisar'ek egiten dauenari ondo oartu akio, zeintzuk eskakizundunek a estututen daben. Adi, mutil, ze zarata dok orrako ori?

LUKI.—Nik ez dantzut ezetarikorik, andera.

PORTZE.—Arren-bai-arren, adi ago buru-belarri: zaparrada-antzeko zurrumurru eragina entzuten yoat, eta Kapitoli-aldetik yakak axeak,

LUKI.—Egia esateko, andera, nik ez dantzut ezer.

ARTEMIDOR aurrera.

PORTZE.—Ona ator, lagun; non egon az i?

ARTEM.—Nirean ni, andera on.

PORTZE.—Ze ordu dok?

ARTEM.—Bederatziak gitxi gora-bera, andera.

PORTZE.—Kapitoli'ra yoanik ete dok Kaisar?

ARTEM.—Oindiño ez, andera; nire lekua artzen noa ni, Kaisar ikusteko Kapitoli'ra bidean.

PORTZE.—Kaisar'entzako eskakizunen bat dok ik, ez dok?

ARTEM.—Bal, ba-dot, andera; Kaisar'en alde niri entzutsrañoko on izatea eder ba'dakio Kaisar'eri, bere buruaren adiskide izan daitela eskatuko dautsat nik.

PORTZE.—Zer ba? Arentzako okerren bat asmaurik dagolaren barri dakik ala?

ARTEM.—Etorri etorriko yakonik ez dakit, baña yazo ledikelaren bildur andia dot. Egun on zuri; bedar da emen etxartebidea; gizon makala larri-larri ilteraño estutuko dau agure-batzarrekoen, "pertor" eta guztitariko eskakizundunen orpoz orpo Kaisar'en atzetik

(16) Burta'ren zirikada ta ziplada au ez dot uste Kaisar'ek ulertu ebanik. Burta'k esan gura dauena da, Kaisar'en antzeko ba'da bera, azalez bakarrik dala, ez gogoz eta biotzez. Izan be, gizon zindo-apal-abertzale da Burta, andikeriti Kaisar.

datorren lagur.talde asarreak; leku zafcalago ta utsagora alde egingo dot, eta andik itz egin Kaisar'eri, andik zear yoan doala. (Alde dagí).

PORTZE.—**Barrura noa ni.** Ai **ene! Emakuraearen biotzoren raakal! Burta, Burta, Zerukoen laguntzarik izango al dok ire egitekoan! Mutilak entzun daust, urrean. Burta'k ez dau iritxiko Kaisar'gandik ak egingo dautsan eskakizuna. Ene! larrituaz noa; atzera ator orrazkero, eta ak esan dagiskanaren barri ekarri egistak.** (Alde dagie banazean).

III EKITALDI

I AGERLEK0.-ERROMA. Kapil ili; agure-batzarrekoak yezarrita,

Erritar-laguntaldea Kapitoli'rako etxartebidean; ARTEMIDOR **eta** AZTURUA **euren artean.** ERESI **alai.** KAISAR, BURTA, KASI, DEKI, METEL, TERBONI, KINA, ANDONI, LEPIDA, POPILI, PULBI, **ta abar.**

KAISAR.—**Epaileko "idus"ak eldu dira.**

AZTURUAK.—**Bai, Kaisar, baña yoan ez.**

ARTEM.—**Gora, Kaisar! papeltxo au irakurri egizu.**

DEKI.—**Astirik dozunean bere eskakizun au irakurri dagizula eske dagotsu Terboni, aren eskakizun apal au.**

ARTEM.—**Ene Kaisar, nirea irakurri lenen, nire eskakizuna zugazkoago da-ta; irakurri egizu, Kaisar andi.**

KAISAR.—**Gugazkoa egingo da azkenen.**

ARTEM.—**Gerorako ez itxi, Kaisar; bertatik irakurri egizu.**

KAISAR.—**Ba! zoratu egin ete yako urli orreri?**

PULBI.—**I, txolxo, leku egik.**

KASI.—**Zer? Etxartebidean egiten dozak ire eskariak? Kapitoli'ra ator.**

Kapitoli'ra sartzen da Kaisar, besteak aren atzetik ara doazala. Yagi egiten dira agure-batzarreko guztiak.

POPILI.—**Ondo urtengo al da zuon gaurko egitekoa.**

KASI.—**Zein egiteko, Popili?**

POPILI.—**Onik eta ondo ibili.** (Kaisar'eri urreratuten yako).

BURTA.—**Zer esan yok Popill Lena'k?**

KASI.—"Ondo urtengo al da zuon gaurko egitekoa". Gure asmoa agertu danaren bildur nok.

BURTA.—**Aiko zelan doan Kaisar'ganantza; zaindu a.**

KASI.—**Kaska, arin eta bizlcor abil, eragotziko ete dauskuen bildur nok-eta. Zer egingo dogu, Burta?** Au **yakin ba'dagie, edo Kasi, edo Kaisar ez da yoango emendik atze-va. nik neure burua ilgo dot-eta.**

BURTA.—**Kasi, nasai ago, gure asmoaz itz egiten ez daragoio Popili Lena'k; eta izan be, begíra, irribarreka yagok a, eta Kaisar'en arpegia ez dok aldatu.**

KASI.—Terboni'k ba-daki gure aldia ta tertzioa; eta izan be, begira, Burta, baztarreratu egin dau ak Marka Andoni. (Alde dagie Terboni'k eta Marka Andoni'k. Yezarri egiten dira Kaisar eta agure-batzarrekoak).

DEKI.—**Non da Metel Kinber? Doala a, ta bere eskakizuna eroan dagiola Kaisar'eri.**

BURTA.—**Ba-yoak a; eldu akio ondora ta eragiok eta lagun akio.**

KINA.—**Kaska, i az eskua lenen eragi bear dauena! (17).**

KASKA.—**Guztiok ete gara gertu?**

KAISAR.—**Zer okerrik dago, Kaisar'en eta agure-batzarrekoen artean arteztu dagigun?**

METEL.—**Kaisar goi-goiko ta indartsu-indartsu, zure oñetan iminten dau biotz apal bat Metel Kinber'ek** (Belaunbiko yarlen da).

KAISAR.—**Kinber, aurreztik yakitun egin bear aut. Edozelango gizonen odolari bai eragin leioe olango makurtze ta zurikeri larrok, eta lengo erabagia ta eretxia ume-legetu (18),**

(17) Eskua atzeratuten lenengoa. Ezpatea zorrotik aterateko, atzera eroan bear da eskua-ta, eskua atzeraíuten lenengoa ba'da Kaska, bera da ezpatea zorrotik iñok baño lenago aterako dauena, eta izan be orixe yazoko da.

(18) **0me-lege.** Umeak eurak egindako legeak egin-ordukoxe ezereztu naiz aldatu egin daroez. Kaisar'ek ez ei dau egingo olangorik. Errukiak, beraz, ez dau izango lekurik aren agintzapean. Agina sartuko dau sugegorriak, eta sartu dagionak il egin bearko dau. Burta'k ondo diñonez, buru uisez ez dau agindu bear agintariak, buruz eta biotzez baño. "Misericordiae Domini quia non sumus consumpti". Yaungoikoak damosku orretan ikasbide ederra.

baña ez egik uste izan Kaisaren odola bere izatetik umekeriekaz urtuterañoko aldakor danik; itz labanak, adei makur-ziztrilak, txakur-labankeriak dozak nik esan gura dodazan umekeriak. Lege-bidez erbesteratua dok ire anaiea; aren alde makurka ibili ba'akit, aren alde eskatu ba'dagik, eta labankeríakaz nigana eiorri ba'adi, txakurra lez ostikoka baztartuko aut nire bidetik. Yakik, irainik ez yok egiten Kaisar'ek, eta ziorik baga *a* ez dok aldatuko bere erabagitik.

METEL.—Ez ete dago Kaisar'en belarrietarako nirea baño gozoago dan abots aintzakoagorik nire anaiearen erbesteratzea ezereztuteko?

BURTA.—Kaisar, roun egiten dautsat zure eskuari, baña zurikeriz ez, Pulbi Kinber erbesteratu dauen agindua manaturik, a bertatik azke ta bere buruaren yabe gelditu daiten zuri eskatuteko,.

KAISAR.-~Ara! Burta!

KASI.—Azketsi, parkatu, Kaisar; zuie oñetaraño erasten dau bere burua Kasi'k Pulbi Kinber'entzako azkatasun-eske.

KAISAR.—Zuok langorik ba'nendi ni, niri be eragingo leuskide eskariak, baña ipar-izarra legetxe iñok eragin-ezína naz ni; aren kiderik ez dago ortzean, aren benetako ezin-eiagintasuna eta tinkotasuna bardindutekoiik. Zenbatu ezin-ala txatanez yosi-yosirik dago ortzea, suzko dira guztiak, eta argi dagie; baña guztien artean bat bakarrik dago igitzeka, zirkinik egiteka, zirkinga bere lekuan; olangoxeak dira ludiko zeiak be... gizonik asko dozu munduan, eta aragi ta odolezko dira gizonak, eta bildurtiak; orraitiño, ainbesten artean bat baño ez dazagut bere kideen artean zirkinik egiteka, igiga, bere lekuari deutsona; eta orrako ori neu nazala arazo onetan be apurtxo bat erakutsiko al dot: Kinber erbesteratu bear zala erabagi nebanean zirkin-ezin nintzala ta, a erbestean eukiaz, zírkin-ezin nazala.

DEKI.—Kaisar andi...

KAISAR.—Alde eraendik! Olinpu'ra (19) igon gura dok ala?

KAISAR.—Burta ez dok alperrik belaunbikatu ala?

KASKA,- -Besook, zuok itz egin nire ordez!

(Kaska'k sastakaia sartzen dautso Kaisar'eri idunean. Beso'ik eltzen dautso Kaisar'ek. Gero besle Zinkide batzuk sartzen dautsoez sastakaiak Kaisar'eri, eta Marka Burta'k azkenen).

KAISAR,—"Et tu, Brute?" (Euskeraz, "Ik be bai, Burta?")... Orrazkero, yausi adi, Kaisar! (II egiten da. Agure-batzarrekoak eta Erriak alde dagie iñond'ko izkanbil eta nastean'.

KINA.—"Azkatasuna, buztarnrik ez aurrerantzean, legerilc bagako csgintzea il da!". Arin emendik, aldarrikatu. etxarteak *zear* gedarrez esan au,

KASI.—Erri-iztegietnra yoan baizuk, eta gedar egin andik: "Azkatasuua, norbere yabetzea, buztarririk ez oraindik ara!".

BURTA.—Erri ta agure-batzarreko! bildurrik ez izan; ez igesi; geldi egon; bere zorra oriaindu dau andikeriak.

KASKA.—Burta, itzaldítegixa zoaz.

DEKL—Eta bai Kasi be.

BURTA.—Nondik dct Pulbi?

KINA.—Emen, asalda onek guztiz nastaurik.

MHTEL.—Gogor eutsin alkarreri, Kaisar'en adiskideren batek ez al dau...

BURTA.—Geldi egotekorik ez esan. Poztu adi, Pulbi; iri gatxik egiteko asmorik ez yagok, ezta beste Erromarri be; ori esan egiek, Pulbi.

KASKA.—Eta alde egik gugandik, Pulbi, erria gure ganera etorri ba'ledi, ire urteakaz okerren bat artu ez dagikan.

BURTA.—Bai, orixe egik; eta geuk egi'eoz beste iñok ez dagiala ezer yasan egite onegaitik,

TERBONl «urrera osiera be.

KASI.—Nondik dok Andoni?

TERB.—Ikaraiu ta arriturik berera yoana dok a; begirakur.e larriak dabez gizonak, emazteak eta umeak, gedarrez dagoz, eta ariñeketan dabiltz, azken-epai-eguna ba' ledi legetxe.

BURTA.—Alanbearrekoak! zuou gurariak yakin gura geunkez... II bear dogula ba-dakigu; ori noz izango dan, bakotxari zotza noz urtengo yakon, ortixik dago dingilizka gizona,

KASl.—Ba! bizia ogei urtez laburtuten dauenak beste ainbeste urte moztuten dautsaz bildurrez ilteari.

BURTA.—Olan ba'dok ori, on-egite dok eriotzea; eta orrazkero, Kaisar'en adiskide gozak gu, bildurretiko aren eriotzea laburtu dogunok. Makurtu, Erromarrok, makurtu, Kaisar'en odoletan ukondoetaraño ikuzi dai-

(19) Elcide'ko mendi da Olinpu. Mendi orietan bizi ei ziran eladetarren yainkoak. Goi-goikotzat eben Eladetarrak mendi ori, ba ña izan ez da andi andirik.

guzan gure eskuok, eta odoleztau dalejuzan gure ezpatak; eta orrazksro, azokara eldu ta, gure izkillo gorriai gure buru-ganean eraginik, gedar egin dagigun; "Gentza! Azkatasuna! eta nor bere buru-yabe!".

KASI.—Makurtu, ba, ta ikuzi... Oindiño sortzeko diran lege-errietan eta izkuntza oindokoarren ez-ezagunetan orainganik zenbat gízaldira barriztauko ete da antzeztegiatan ctsieratik atzeneraño gure egite andi au!

BURTA.—Zenbat aldiz egin bearko ete dau yosta-bidez odola dariolarena orain Ponpei' ren oñarri-ganean autsa baño aintzagarriagorik ez dan Kaisar'ek!

KASI.—Orrako ori yazo-ala, euren aberria azkatu eben giza-mordo eretxiko dautse gure mordotxo oneri.

DEKI.—Eta? Urten egingo ete gara?

KASI.—Bai, guztiok alde einendik; Burta izango da gure zuzendari ta aurrendari; eta gu orren orpoen edergarri izango gara, Erroma'k dauzanik eta biotzik azarrien eta onenakaz.

BURTA.—Ijcil, nor dator emen?

OTSEIN bat aurrera.

Andoni'ren adiskideren bat da.

OTSEIN.—Nire belaunak onantxe makurtu dagidazala agindu daust nire ugazaba Andoni'k; zure aurrean enantxe yausi naitela agindu daust Marka Andotii'k; eta onan belaunbiko nagola, auxe esan dagidala agindu daust: "Zindo, zur, adoretsu ta zintzo da Burta; altsu, azarri, errege-antzeko ta maitakor izan da Kaisar; Burta maite dodala ta ari oiren egiten dautsadala esaiok; Kaisar'eri bildur neuntsala, omen egiten neutsala ta a maite nebala esaiok; agana Andoni galbiderik haga yoateari eder etsí ba' dagio Burta'k, ta Kaisar'en gorpua omenez eta begirunez eortzitea erabagi ba'dai, Kaisar ila baño gitxiago ez dau maite izango Burta Marka Andoni'k; eta Burta zindoaren zori ta arazoetan kide izango yako zintzotasun oso ta benetakoz, iñoz iñok zapaldu ez dauen lege-erri onen galtzorietan". Auxe diño nire ugazaba Andoni'k.

BURTA.—Eí'romar zurr-adoretsu dok ire ugazaba; gitxiagotzat ez yoat euki a eguño. Ona~ storteari ondo eretxi ba-dagio, ez yakola damuiuko esan egiok; eta nire itza emoten dodala, emendik iñok ukutu baga al. de egingo dauela.

OTSEIN.—Bereala yoango naz aren billa. (Alde dagi).

BURTA.—Ondo dakit nik a gure adiskide egin bear dogula.

KASI.—Egingo al dogu; baña orraítiño be bildur andia dautso ari nire gogoak; eta a ta guzti be osmo orren aldera itzulten da nire bildurra.

BURTA. Emen dator Andoni,

ANDONI aurrera ostera be(

Ondo etorria augu, Marka Andoni,

ANDONI.—Kaísar altsu orí! orren bean atza? Neurritxo ori artzeraño txikertu dozak ire gurenda, aintza, arrera zaratatsu, erri-ondasun-lorreta guzliak? Agur... Yaunak, zuon asmorik ez dakit nik, ez dakit nik nor bestek odola ixuri bear dauenik, nor testerik dagon orretarako izentaurik; ni neu ba'naz, Kaisar'en eriotza-aldia baño aldi egokiagorik ez dago orretarako; ezta zuon izkilloen erdirik be gei dan izkiiorik be orretarako, ludi onetako odolik zindoenez ederturik dagozanazkero,, Begiko ezpa'natxatsue, orain-txe bete, arren, zuon asmoak, zuon esku gorríai lurruua ta kea darien bitartean. Milla urte biziarren be, iñoz ez naz aurkítuko orain baño gertuago ilteko; iñon be ez dot idoroko leku atsegingarriagorik, eriotza-bide atsegingarriagorik emen Kaisar'en aldamenean baño, ta zuok ni ilda, gizaldi onetako gizonik bikainenak eta gogorik gurenenak zuok zarie-ta.

BURTA.—Andoni, ire eriotzarik ez egistak eskatu. Euk dakuskanez, gure eskuotan eta gure egite egin-barri onetan gu orain odoltzale ta gordin agertu-bearrean aurkituarren; gure eskuak eta eurok egin daben egiteko odoltsu au ikusten dozak ik, baña ik ez dozak ikusten gure biotzak, errukibera dozak oneik: eta suak sua uxatuten dauenez, Erromar guztiakanako errukiak errukia uxatuazo egin yok-eta, egiteko au egin yeutsak Kaisarr-eri. I eugazko, Marka Andoni, berunezko mokoak yaukiezak gure ezpatak iretzako; gaiztakerirako ez yoek sendotasunik gure besoak, eta gure artekotzat artzen aue i gure biotzak maitatasun txeratsuz, asmo onez eta lotsaz.

(20) Kasi'ri esanazoten dautso Shakespea. re'k berak antzerki onetan egina geroan egingo zala. Ederto erantzuten dautso Burta'k, eta gero oso-osoan bete da Kasi'k diñona. Eta izan be, aik gizonak, ak gizon-mordotxoak, euren ezpatak odolez gorriztau ba'ebezan, eu. ren aberriaganako maitatasunak eraginda egin eben, Burta'k beintzat, Andoni'k berak be autortuko dauenez.

KASI.—Beste edozsin gizonenak lain indar izango dau zure abotsak agintari burriuk uutetsi bearko diruneun.

BUfiTA.—Bakar-bakarrik, eps artu egik guk lugun-tul.ieu baretu urteño, bildurruren bildurrez burutik egindu dugoz-etu, etu orruzkero neuk ozulcuko dauskat zeguitik yo dodun nik maite-maite izun dodan Kaisar,

ANDONI.—Zuon zurtasun eta yakituriaren ezpoirik ez dot nik. Bonun-bonon luzotu egistazue zuon esku odoltsuu ta nireu estutu; lenen, Marka Burta, irea estutuko yoat; urren, ire eskua artzen yoat, Kul Kasi; ireu orain, Deki Burta; irea orain, Metel; irea, Kinu; etu irea, Kaska adoretsu; atzenengo izanarren, gitxien maite ez dodanarena, irea, Terboni on. Yaun guztiok, ai ene! zer esango nik? Niganako zuon sinlstea ta entziteu orain lur labanaren ganean dago-ta, nigazko eretxi t;tar biotatik bata edo bestea izan bear dozue, edo bildurti, eio zuritzalla nazala ni. Kaisar, muite izan aut nik, ara! egia da au; orrazkero, gu begira yagok orain ire gogou-eta, ire eriotzeak baño min andiagorik ez ete dausk emongo ire Andoni ire arerioen aciskidetu ta euren esku odoltsuak estututen ikusteuk, zindoenik zindoen! ire gorpuaren aurre-aurrean? Ik zuuritan dokan *aña* begi ba'neuz, ai odola uriolka darien bestean fcizkor eta eurrez negar egiieko, egokiago litzakidak ori, ire arerioen udiskidetu ta arazoa orretan amaitu baño. Azketsi, parkatu nagik, Yuli!... Emen estutu induen i, biotz adoretsu; ernen yausi az; eta emen yagozak ire eiztariak, ire ondakinez orbandurik, ire Lete'an (21) gorriturik. Mundu, mundu, zu izun zara biotz onen baso (22); etu au izan be, mundu ori. benetan zure biotza. Benetan, erregegei askoren eskuz ildako oreinaren antzera atza i emen!

KASI.—Marka Andoni...

AÑDONI.—Azketsi nagik, Kai Kasi; Kaisar'en arerioak esango yoek nik esana; eta orrazkero, neurrikotasun utsa dok adiskidek esatea.

KASI.—Zuk Kaisar olan goratutearen eiruiik ez duutsut ezarten nik; baña zetan izungo zatxakuz kide? Guk zuri aáiskide-atza ezartea gura dozu, ala gu aurrera yoan, eta zugun uste onik ez dogu izungo?

ANDONI.—Orretarako ta orregaitik estutu dautsuedaz eskuuk, baña, nire begiak Kaisar'gan yarriagaitik, tenetan, bidetik aUendu egin naz nl. Zuon guztion adiskide nozue, ta guztiok rnaite zauedaz, Kuisar zegaitik eta zetan zon kaltegarrlren zegoitiak emongo daustazuezalarsn itxaroz.

BURTA.—Ostean ikuskizun basati Iitzatekek onuko uu; gure ziouk, gure zegaitiak, Andoni, begirunez bete-beteak dozuk-etu, Kuisar'en seme ba'endi be, sintzakotzat artuko eunkez eta asebeterik gelditu,

ANDONI.—Orrejcen begira bakarrik nago; eta, orrez ganera, aren gorpua azokara aterateko zuon ederetsiaren eske nozue; baita aren gorpu-lorrean, adiskideri dagokionez, itzaldítegitik itz egitekoaren eske be.

BURTA.—Egingo dok ori, Marka Andoni, gura ba'dok.

KASI.—(Burta'ri biak bietara). Burta, itz bat iri. Bai ete dakik zer egiten dokan? Gorpu-lorrean itzik egiten ez egiok itxi Andoni'ri; bai ete dakik ak esan leienagaz erriari noraño eragin leion?

BURTA.—Parkatu egistak; neuk igongo yoat lenen itzaldítegira, eta guk Kaisar zegaitik il dogun esango yoat; eta neuk esango yoat Andoni'k esango duuenu gure baimen eta ederretsiz esuten dauela; eta gure ederretsia dala Kaisar'eri gorpu-lor egokia ta oi diran erakutsiz egitea. Gure uurkuko baño gure alderagoko izango dok ori.

KASI.—Zer yazo ledikenik ez yakiat nik; ez yatak gogoko.

BURTA.—Marka Andoní, aiko, Kaisar'en gorpua artu egik. Errupik ez duuskuk ezarri bear gorpu-lorreko ire itzaldian, Kaisar'en alde al dokan ona esan baño, eta ori gure baimenez egiten dokala esan; ostean ik ez dok izango arterik aren gorpu-lorrean; eta neuk itz egiteko igongo dodan itzolditegitik itz egingo dok ik, bein nire itzaldia amaituazkero.

ANDONL—Olcn bedi; besterik ez dot eskatuten.

BURTA.—Orrazkero, gorpua gertau eglk, eta gure yarrai ator. (Andoni'z beste guztiak alde).

ANDONI.—Eneee! arakinontzako bigun eta

(21) Lete. Ez da euskel-abizenik emen. "Aztutea" esan gura dau itz onek eladeraz (Lethe), eta izan, Elade'ko mitu-iztiz, su-leza edo il-erriko ibai da. Ilak bein ibai onetako urik arean edanazkero, lengo bizitzako oro az'u egiten ei yaken. "Ire Lete'an gorritu"k ire odoletan gorritu esan gura dau.

(22) Kaisar'egazko orein-irudi bikaina darcifcil Andoni'k, eta basauntz-antzeko oreinak basoetan bizi ta ibilten dira.

adeiisu Izana parkatu egístak, odoia darion lur-zaií orrek! ctldien yoan-etorrietan eguflo bizi izan dan gizonik zindoenaren ondakina az i, Odol eder ori ixuri dauen eskuaren askarri! Ire zauriak euren ezpan gorriak idigiten yoezak, itzik bagako agoantzera, nire abotsaren eta nire miñaren itzen eske; aiko, ba, ire zaurion aurrean iragarten yoat añena yausiko dala gizonen beso- oñetara; asarre etxetiarra ta erríkídeen arteko burruka itzal-askarria etorriko dala Itali osoaren ganera; odol-ixurtzea ta baztarrak zuzitutea oitu-oituak, eta zer ikaragarriak egunoroko izango dira-ta, ameak irribarre baño ez dabe egingo euren umetxoak guda-eskuz zatiturik ikusiko dabezanean; eta errukia itorik geldituko da egite iguingarriak egitearen egitez; eta Kaisar'en gogoak, sulezako Ate (23) bere aldamenean kiguntzul dauela, ara ta onaka apeneske, lurralde onen muga-barruan, errege-abotsez, "Ondamendi!" gedar egingo dau, ta guda-txakurrak azkatu ta aiazo egingo dauz; eta egite zantarr-askarri onek lurra baño gorago egotziko dau bere anduna, eortzi-eske urrr.ina egingo dabeu giza-gorpu ustelen andurrez,

OTSEIN bat aurrera.

Otabi Kalsar'en otsein az i, ez dok?

OTSEIN.—Bai, Marka Andoni.

ANDONI.—Erroma'ra etorri eitela idatzi yeutsan Kaisar'ek ari.

OTSEIN.—Artu ebau ak aren ídazkia ta bidean da; eta zuri itzez esateko agindu eustan... Ara! Kaisar! (Gorpua ikusi-ala).

ANDONI.—Biotz-andi az i, ondoratu adi ta negar egik. Ba-dakusl, intsigikor da naibagea; eta izan be, ire begietan negar-tantanak ikusirik ura emoten asi dozuk nireak. Bidean dok ire ugazaba ala?

OTSEIN.—Gau onetan Erroma'tik zazpi legoaburruan dalza.

ANDONI.—Atzera oa arin eta zer yazo dan esan egiok; erostaka yagok Erroma au, bildurgarri dok Erroma au, Oiabi galtzoririk baga etortekorik ez dok oindiño Erroma au; arin oa, eta au esan egiok. Orraitiño, etxoik apurtxo baten; gorpu au nik azokara eroan arte ez dok alde egingo ik; an ikusiko yoat, nire itzaldian, erriak zelan artzen dauen gizon odolzaleon ondoren gordina; eta itzaldiak ze ondoren dakarren ikusitakoan emongo dautsak Otabi gazteari zerak zelan dagozanaren barri. Lagun akit. (Alde dagie Kaisar'en gorpuagaz).

II AGERLEKU.-ERROMA, Batzartegi (Forum) BURTA ta KASI ta ERRITAR-talde bat aurrera,

ERRITARRAK.—Nasaituko gabez; nasaituko al gabez.

BURTA.—Orrazkero, niri yarrai, ta niri entzun, adiskideok... Kasi, beste etxartebidera oa i ta erria erdibitu egik. Niri entzun gura daustenak emen gelditu dadizakt: Kasi'gaz doazala Kasi'ri entzun gura dautsoenak, eta erri osoari emongo yakoz Kaisar'en eriotzearen zio ta garbitasunak.

I ERRIT.—Burta'ri entzun gura dautsat nik.

II ERRIT.—Kasi'ri nik; eta euren zegaitiak alkarren ondoan imini, banazean emonik ikusita.

(Kasi'k alde dagi Erritar batzukaz: "Rostrum" erako bidea artzen dau Burta'k)

III ERRIT.—Burta zindoa igon da; ixilik!

BURTA.—Epe artu atzenerarte. Erromarrok, aberkide ta adiskideok! entzun egistazue auzi onetan, eta ixilik egon, entzun al dagizuen; nire omenarren sinistu egidazue; eta lotsa izan nire omenari, sinistu dagistazuen; zuon yakituriz emon gero niri nigazko zuon erabagia ta eretxia, eta iratzarri zuon sentzunak, obeto erabagi dagizuen. Kaisar'en adiskide mamirik ba'dago batzar onetan, orrako orrek beki orrek baño gitxiago ez nebala maite nik Kaisar. Orrazkero ba. adiskide orrek eskatu ba'dagi Burta zegaitik yagi dan Kaisar'en aurka, au da nire erantzuna "Kaisar gitxiago maiie nebalako ez, Erroma maiteago nebalako baño". Gurago ete zenduen zuok Kaisar bizi, eta zuok guztiok yoputzan il, Kaisar il eta zuok guztiok zuon buruen yabe bizi baño? Kaisar'ek muite nindun-eta, negarrez nago; zori ontsu zan a-ta, orrek poztu egiten nau; omen egiten dautsat aren adoreagaitik; baña andikeri-

(23) Su-lezako Ate. Tzeu ta Erita'en alaba da Ate. Eladetarren mituiztiz gaiztakeri neurria bete arte gaiztoa gaiztakeri geiago egitera bultzatuten dauen yainko aizun edo guzurrezko da Ate.

tsu zan a-ta, 11 egin dot; neganez nage ak eustan maitetasunagaitik; poztu egiten nau aren zori onak; omen egiten dautsat aren adoreagaitik, eta or da eriotzea aren anítksriagaitik, Nor da ernen ziztrinik asko yopu izan gura leukenik? Olangorik ba'dago egon, itz egin begi; orrako orreri nik min egiten dautsat-eta. Nor da emen bere aberria maite ez izateraño ziztrin? Oiangorik ba'dago, itz begi, orrako erreri min egin dautsat-eta. Ixildu egiten naz erantzunaren begira.

ERRIT.—Iñor bez, Burta, iñor bez.

BURTA.—Orrazkero, iñer ez dot mindu. Kaisar'eri ez dautsat egin nik zuok Burta'ri egingo zeuskioenaz besterik. Kapitoli'n dago idatzita aren eiiotzearen zegaitia; aren aintzarik ez da gitxitu aintzagarri izan diran zeretan; eta eriotzea ekarri dautsoen irainetatik be bat be ez da azi ta geitu. Emsn dator aren gorpua, erostaritzai Marka Andoni dauela.

MARKA ANDONl ta beste batzuk aunera KAISAR'en gorpuagaz.

eta orrek be, aren eriotzan eskurik sartu ez izanarren, aren eriotzatiko onik artuko dau, zera, lege-erri onetan lekurik izango dau, zuotatik beste edonok lez. Eta emencik alde egin-aurrelik auxe esango dautsuet: Mre adiskiderik onena Erroma'ganako maitetasunak eraginda il dodan legetxe, sastakai berbera dot neuretzako be, nirs aberriak aren bearrik ízan ba'dagi egunen baten, beragaz ni il nagian.

ERRITARRAK.—Gora, Burta! gora, gora!

I ERRIT.—Berenera eroan dagigun goratzarrez.

II ERRIT.—Zutiko irudi emon orreri bere asabenen artean.

III ERRIT.—Kaisar izan daitela.

IV ERRIT.—Kaisar'en zerik onenak Burta'gan burestundau bear doguz.

I ERRIT.—SL'iera eroango dogu oio ta santzoka.

BURTA.—Aberkideok...

II ERRIT,—Geldi, ixilik! Itz egiten daragoio Burta'k.

I ERRIT,—Ixilik, eee!

BURTA.—Aterkide onok, bakarrik alde egiten itxi egistazue; eta neugaitik geldi emen Andoni'gaz; eder egin Kaisar'en gorpuari, ta eder egin Kaisar goratuteko orrek egingo dauen itzaldiari te; ori egiteko gure baimenik ba-dau Marka Andoni'k; gizonek batek ie alde ez dagialt; eskatuten dautsuet, neu ez bestek, Aridoni'k itz egíri aite. (Alde dagí).

I ERRIT.—Gelíi, eee! ela Marka Andoni'ri entzun dagiogun.

III ERRIT.—Guztien yarlekura igon daitela; entzun egingo dautsagu.-Igon, Andoni zindo.

ANDONI.—Burta'k esana dala-ta, zuokanako bearturik nago. (Ba-digo gora).

IV ERRIT.—Zer diño orrek Burta'z?

III ERRIT.—Burta'k esana dalc-ta guztiokanako bearturik dagola diño orrek.

IV ERRIT.—Burta'gazko zei txarrik ez esatea oba litsakok orri emen.

I ERRIT.—Legsrik bagako agintari zoan Kalsar ou.

III ERRIT.—Bai, orretaz ez yagok zalantzarik; zori ontsu gozak Erroma'k ori kendu dauenazkero.

II ERRIT.—Ixil! entzun dagigun Andoni'k esan leikena.

ANOONI.—Srromar maiíeok...

ERRITARRAK.—Ixilik, eee! entzun dagiogun.

ANDONI.—Adiskide, Erromar, aberkideok, entzun egistazue; Kaisar eortzitsn nator ni, ez a goratuten. Aik ilazkero be bizi da gizonak egiten daben okerra, ona, ostera, lurpera doa euren azurrakaz; olan bedi Kaisar'gazkoa. Andikeri-zale zala Kaisar esan dautsue Burta'k; olan ba'ledi ori, uts eta oker astuna litzake, eta erantzun aztuna izango dau Kaisai'ek, Burta'ren baimenez, eta izan be, gizon argi-garhi da Burta; eta beste guztiak be gizon argi-garhiak dira, Burta'ren baimenez nator emen Kaisar'en gorpu-lorrean itz egiten. Nire adiskide izan da a, zintzo ta zuzen nitzako; baña andikeri-zale izan dala diño Burta'k, eta gizon zindo da Burta. Aixilotu asfco ekarri ebazan ak Eiroma'ra, eta aik barriro erosi-bidez, diruz bete ziran erri-kutxak; andikeri-zale izan ete zan Kaisar onetan? Errukarriak negar egin dabenean, negai egin dau Kaisar'ek; gei gogorragozkok izan bear leuke andikeriak; orraitio andikerizale zala a diño Burta'k, etu gizon zuzen da Burta. Zuok zeuok ikusi zenduen Luperka-yaietan (24) nik ari iru bider opatu neuntsala errege-burestuna, eta ak iru aldiz ukatu ebala; andikeririk ete zan ori? Orraitio andikerizale zala a diño Burta'k; eta, ezpairik baga gizon artez da Burta. Nik díñodana ez da Burta'k esana txartzat emoteko, baña ni be dakidana esateko

(24) Irugarre.n oarra ikusi.

nsge emen, Zuok guztiok maite zenduen bein G, ta ez orretarctko fciderik baga; orrazlcero, zek eragozten dautsue ari negar egitea? Burucide, burubide, abere basalietara igesi dok ik, eta euren ebazpidea galdu egin yoek gizonak! Epe artu nigazko; zeiraldo orretan dago nire biotza Kaisar'egaz batera, ta mlciu egin bear dot, ori atzera niganatu arte.

I hRRIT.—Izpide andi dogo orren esanetan, nire ustez,

II ERRIT.—Ik zera zuzen begiratu ta ausmertu ba'dagik, Kaisar'eri oker ondia egin yakola ikusiko dok.

III EfIRIT.—Bai ete, yaunak? Bildus nok ni aren ordez txarragoren bat etorriko ete yakun.

IV ERRIT.—Entzun dozuez orren itzak? Buresiunik ez yoan artu gura izan ak; orrazkero argi yagok ez zala a andikerizaierik.

í ERRIT.—Olan ba'dok ori, gorríak ikusi bearko yozak norbaitek.

il ERRIT.—Gaxoa! negarraren negarrez sua lez gori yagozak orren begiak.

III ERRIT.—Andoni baño gizon zindoagorik ez yagok Erroma'n.

IV ERRIT.—Begira a orain, ostera be itz egiten asten dok.

ANDONI.—Atzo baño ez dala munduari erantzun eikion Kaisar'en itzak; or datza orain, eta errukarrienik bez orain orren aurrean burua makurtuteko. Yaunak, gogoak emongo ba'leust emon zuon biotz-gogoai zírkin eragin eta matxinada ta asarre gorrira eragileko, irain egingo neunskio Burta'ri, Kasi'ii be iiain, zuok dakizuenez, aik gizon zuzanak diia-ta; ez dautset egingo iiainik; olango gizon zuzeneri okenik egin baño gurago dot ilari oker egin, neure buruari ta zuoi be, baña Haz-narru bat dago emen Kaisar'en ikunatzagaz, aien etzangoan ídoio dot, aren ilburukoa da; erri zeak entzun dagiala ilburuko au, azken-gurari au..„ parkatu zuok, baña nik ez dot au irakurteko asrnorik; erri zeari irakurri ba'neio orrako ilburuko ori, mun egingo leuskie Kaisar zanaren zauriai eta euren mosu-zapiak odol guren orretan bustiko Jeukiez; ars geiago, orren ulerik be eskatuko leukie gomutagarritzat eta, eriotza-aldian, ilburukoa egiterakoan, a aitatu, euren ondorengoai emaitz eder *a* izten dautsela.

IV ERRIT.—Azken-guraria, ilburukoa entzun gura dogu guk; irakurri eiguzu, Marka Andoni.

ERRITARRAK.—Azken-guraria. azken-guraria! Kaisar'en azken-guraria entzun gura dogu.

ANi)ONI.—Epe artu, aáiskide maiteok, ez dot irakurri bearr-eta; Kaisar'ek noragiño maite zinduezan zuok yakiterik ez da egoki. Zurezkorik ez zarie zuok, arrizkorik bez, gion baño; eta gizon zarienazkero. ta Kaisar' en azken-guraria entzun, sutu egingo zindukiez orrek; burutik eragincjo ieuskizue; zuok aren yaaegei zariela yakitea asko da zuontzako; eta izan be, ori ba'zsnkie zuok, zek urtengo ete leuke ortik?

IV ERfIlT.—Azken-guraria Srakurri; entzun egin gura dogu, Andoni; irakurri egin bear dauskuzu azken-guraria, Kaisar'en azken-gurari ori,

ANDONI.—Eperik artuko ete dozue? Apur baten ez ete dozue etxongo? Urrinegi yo dot orrako ori zuoi aitatuaz; Euren sastakaiz Kaisar il daben gizon zindoak irainduko ete dodazan bilaur naz; bai, orren biidur naz.

IV ERRIT.—Saltzalla izan dira aik; gizon zindoak... bai, zera!

ERRITARRAK.—Azken-guiaria! azken-guraria betor!

II ERIT.—Zital, erala izan dira aik; azken-guraria! azken-guraria irakum!

ANDONI.—Orrazkero, azken-guraria irakurtera beartu egingo ete nozus? Orrazkero.uztaia egin Kaisar'en gorpuaren baranoan inguruan, eta azken-guraria egin ebana zuoi erakusten itxi egistazue. Yatsiko ete naz? Eta zuon baimenik emongo eta daustazue?

ERRITARRAK.—Yatsi zadiz,

II ERRIT.—Yatsi. (Yatsi egiten da Andoni).

III ERRIT.—Ba-dozu gure ederretsia orretarako.

ANUONI.—Uztaia egin; baranoan, inguruan yarri.

I ERRIT.—Zerraldotik aldendu, alie egin gorputik.

II ERRIT.—Leku egin Andoni'ri. Andoni zindozindo ori!

ANCONI.—Bai, ez nagizue estutu; leku; urrin egon.

ERRITARRAK.—Atzeratu; leku; atzerago zoaze!

ANDONI.—Negarrik ba'dozue, negar egiteko gertau orain. Zuok guztiok dozue ezagun gan-yantziluze au; gogoan dot eguno lenengoz noz yantzi eban au Kaisar'ek; udako gau zan, bere txoznan, Nerbitarrak benderatu ebazan egunean; Begira! Emendik zear sartu zan Kasi'ren sastakaia; ikusi Kaska bekaiztiak egindako urratua; einendik zear sartu eban sastakaia Burta maite-maiteak;

éta ak *bsse* sastakai askarria emendik otera-a!a, begim zelan yarrai yakon Kaisar'en odola, Burta'k orren begirune gitxigaz yo eban ala ez ikusten atetara ariñeketan ba' lioan lez. Eta izan be, zuok be ba-dakizuenez, Kaisar'en angeru izan da Burta: zuok yainkook erabagi noragiño maite eban *a* Kaisar'ek! Au izan da epai guzlietatik iguingarriena; eta izan be, Kaisar zindoak sastakaia sartzen a ikusi dauenekoxs, etoien besoak baño sendoago dan eskertxarrak osoan benderatu dau *a;* orduan ler egín dau aren biotz kementsuak; eta hitarte osoan odola dariola ta fcere arpegia soñeko luzez estalirik, Ponpei'ren zutiko irudiaren oñetan yausi da Kaisar andia. A bai izan dala eguñoko yaustea, ene aberkideok! Une atan yausi gara ni ta zuok, eta gu guztiok, gure ganean azpikeri odoltia mardulduten izan dan bitartean. Ara! negarrez zagoze orain zuok, sta errukiaren zirri ta ukutua so egiten dozuezala ba-dakust nik; negar ederrak dira orreik. Gogo txerakorrok, zer? Kaisar' en yantzi zulatuaz besterik ikusleka negor egiten dozue? Au begiratu, emen dozue zera bera, dakusazuenez, zartada zitalez manaturik.

I ERRIT.—Ikuskizunaren errukarril

II ERRIT.—Kaisar zindoarena!

III ERRIT.—Egunaren negargarri!

IV ERRIT,—Etoiok, zitalok!

I ERRIT.—Ikuskizunaren odoltsuren odoltsu!

II ERRIT.—Azazkatu egingo gara gu, azazkatu„.., euren billa goazen,.., erre..., su emon, il..„ sakaildu..., bizirik ez bedi gelditu etoirik!

ANDONI.—Geldi or, aberkideok.

I ERRIT.—Ixxxx, ixílilt or! entzun Andoni zindoari.

II ERRIT.—Orreri entzungo dautsagu, orreri yarrai, orregaz il.

ANEONI.—Adiskide onok, adiskide maiteok, nik ez al dautsuet zirkinik eragingo olango matxinada itsurako. Gizcn zindoak dira egite au egin dabenak; ai ene! ez dakit eurekazko zein irainek eragin dautsen egite au; yakintsu ta zur dira aik-eta, ez dot ezpairík, argibidez erantzungo dautsuela. Adiskideok. zuoi biotzik ostuten ez nator ni, ez naz ni izlaririk, Burta bai ba-da; guztiok dakizuenez, nire adiskidea maite dodan gizon amuts-lau naz ni; eta ondo be ondo dakie au erriaren aurrean itz egiteko euren ederretsia emon daustenak (25); eta izan be, nik ez dot ez buruargitasunik, soineraiterik, ez esakerarik, ez itz-yabetasunik, ez itzik, ez geitasunik, gizonen odolari sirkin eragiteko; artez itz egiten baño ez dakit iiik; zuok zeuok dakizuena dirautsuet nik; Kaisar maitagarriaren zauriak, aren ago ixil-motela darakustsuedaz nik eta euraí agindu nire ordez itz egin dagiela: Burta ba'nendi ni, eta Burta Andoni ba'ledi, or zendukie zuon gogoak latzitu ta asarre blzitan yarri, Kaisar'en zauriai miñ bana emon, eta Erroma'ko arriai eurai be yagiazo ta matxinadara urienazoka leuskien Andoni.

ERRITARRAK.—Matxinadarik sortuko dogu guk.

I ERRIT.-—Burta'ren etxea erre ta kiskali egingo dogu.

III ERRIT.—Orrazkero, goazen! Etoien billa goazen.

ANDONI.—Bein niri entzun, aberkideok! entzun bein nire itzak,

ERRITARRAK.—Ixilik, eee! entzuu Andoni'ri, Andoni zindo-zindoari.

ANDONI.—Ara, adiskideok, zer egiten zoazen ez dakizue zuok; zetan irabazi dau Kaisar' ek zuon maitatasuna? Ai ene! ori be ez dakizue zuok..., orrazkero neuk esan bearko zuoi... Aztu egin yatsue zuoi nik aitaturiko arako azksn-guraria.

ERRITARRAK.—Bai izan be!... azken-guraria; #men egon eta azken-guraria entzun doigun,

ANDONI.—Amen azken-guraria Kaisar'en ikurratzagaz, eta irurogei ta amabosna "darkama" (26) izten dautsez ak Erromarrai.

II ERRIT.—Kaisar'en zindoren zindo! aren eriotzeaz azazkauko gara, bai orixe.

III ERRIT.—Kaisar'en erregetarraren erregetar!

ANDONI.—Epez entzun egistazue.

ERRITARRAK.—Isil, ee!

ANDONI.—Orrez ganera, beie ibiltokiak, bere zugatzak, eta Tiber-ertzetan sartu-barri diran igali-zugaztiak itxi dautsuez ak..., guztientzako gogo-nasaigarri, etxetik urten eta zuok an zuon naierara ta ezlitan egon al zadizen. Emen izan dozue Kaisarl noz etorteko beste alangorjk?

(25) Yakin izan ba'lebe yakin, ez euskioen emongo olango ederretsirik edo baimenik, ez antzekorik be. Ziplada ederra yaurtiten dautso Andoni'k Burta'ri.

(26) Eladetarren eta Erromarren diru da "darkama" (drachma). Ez zan dirutza andirik. Esku-erakutsi ori gora-bera, landerrak lander yarrai bearko eban, baña Andoni izlari trebe danik ezin ukatu.

I ERRIT.—Iñoz bez, ifiez bez.-Goazen emendik, goazen! erre egingo dogu aren gorpua leku gurenean (27), eta ilintiakaz su emon saltzalleen etxeai. Eragi gorpua.

II ERRIT.—Zoaze, sua ekarri.

III ERRIT.—Indorka atera yarlekuak, eta lurrean pilatu.

IV ERRIT.—Aulkiak, leioak, edozer atera.

(Erritarrak alde dagie gorpuagaz)

ANDONI.—Bera beretara itxi orain; okerreri, zutunik ago. £uk gura dokan bidea artu egik orain!

OTSEIN bat aurTera.

Ze barri, lagun?

OTSEIN.—Yaun, dagoneko aldu da Otabí Erroma'ra.

ANDONI.—Non yagok?

OTSEIN.—Kaisar'enean dagoz a ta Lepida.

ANDONI.—Ara naioak neu be bertatik aik ikusten; gura izanda bs ezin eldu eitekean aldi egokiagoan. Taeratsu dogu zoria ta gogaldi orregaz edozer emongo dausku,

OTSEIN.—Burta ta Kasl Erroma'ko ateak zear zoroak lez urteten ikusi dauzala difio ak.

ANDONI.—Erriari nik zelan eragin dautsadanaren barririk izan yoek aik, urrean. Otabi'gana eroan nagik. (Alde dagie).

III AGEHLEKU.-ER] OMA. Etxertebide bat.

KINA olerkaría aurrero.

KINA.—Kaisar'egaz yataldi langO yataldia izan dodala egin dot bart ames, eta zori txarreko zerez beterik dago nire irudimena; etxetik urteteko gogorik ez dot, orraitiño zerbaitek urten eragiten daust.

ERRITARRAK aurrera.

I ERRIT.—Zer yak izena?

II ERRIT.—Nora oa?

III ERRIT.—Non bizi az?

IV ERRIT.—Ezkondua, ala mutilzar az?

II ERRIT.—Artez erantzun egiok gizon bakatxari.

I ERRIT. Bai, eta labur.

IV ERRIT.—Bai, eta zur.

III ERIT.—Bai, eta egiz.oba yak euretzako.

KINA.—Zer yatan izena? Nora noan? Non bizi nazan? Ezkondua, ala mutilzar nazan? Eta orrazkero gizon bakotxari artez, labur, zur eta egiz erantzun dagiodala. Zur erantzuteko, mutilzar nazala dirautsuet.

II ERIAT.—Ori esatea ta ezkonduten diranak zoro dirala esatea bat dok; orregaitik belarrondoko on bat artuko dok, urrean. Yarrai, artez.

KINA.—Artez, ba, Kaisar'en gorpu-lorrera noa ni artez-artez.

I ERRIT.—Adiskidetzat, ala areriotzat?

KINA.—Adiskidetzat.

II ERRIT.—Artez erantzunda yagok arlo ori.

IV ERRIT. Ire bizilekuaz orain, labur.

KINA.—Labur, labur... Kapitoli-aldamenean bizi naz,

III ERRIT.—Ire izena, yaun, egiz.

KTNA.—Egiz, Kina yat izena.

I ERRIT.—Denganiñoak sroango aí au; txlki-t:;ikitu tu zeatu egizue au; zinkidetuetatiko da au.

KINA.—Kina olerkaria nozue ni, Kina olerkaria nozue ni.

IV ERRIT.—Bere olerki zatarrakaitik urratu egizue, urratu ori bere olerki zatarrakaitik.

KINA.—Kina ziukidetua ez naz ni.

IV ERRIT.—Ez dau ardura, Kina yako izena; izena bakarrik atera egiozue biotzetik, eta doala gero.

III ERRIT.—Urratu, zeatu ori! Goazen ee! ilintiak!; Burta'nera, Kasi'nera; baztarrak guztiak erre; Dski'nera batzuk, eta Kaska'nera beste batzuk; Ligari'nera batzuk; alde, zoaze! (Alde dagie).

(27) Erromarrak guk Iez Iurperatu-ordez, erre egiten ebezan gorpuak, eta errautsak ontzietan euki.

IV EKITALDI

I AGERLEKU.--ERHOMA. Andoni'neko leku

ANDONI, OTABI ta LEPIDA mai-inguruan yezarrita.

ANDONI.—Orrazkero, onenbeste ilgo dira; atza ezarrita dagoz euren izenak.

OTABI.—Ire anaieak be il bearko yok; erlzkide augu, Lepida?

LEPIDA.—Erizkide.

OTABI.—Atza ezarri egiok, Andoni.

LEPIDA.—Ire arrabearen serae Pulbi ez bizitekotan, Marka Andoni.

ANDONI.—Eizirik ez da geldituko a; begira, orbantxorik txikienik ba'yok be gaiztetsi egiten yoat a. Baña, Lepida, Kaisar'enera oa i; azken-guraria billatu egik an, ta emen ebatziko yoagu aren azken-gurariko agindueta tik zeintzuk txatal kendu,

LEPIDA.—Eta ona etorriko ete uaz zuon billa?

OTABI.—Eraen ezik Kapitoli'n izango gozak. (Alde Lepida'k).

ANDONI.—Arin eta zustar gitxiko yatsu gizon ori, aginduak egiten bidaltzeko on; egoki ete da ludia iru zati egin, eta íruretatík bat orrek artzea?

OTABI.—Olan uste izan dozu; eta gure erabagi baltz eta erbesteratze ía ilteko atza nortzui ezarri erabagiteko orieri be eskatu dautsagu eretxia.

ANDONI.—Otabi, zuk baño egunik geiago ikusia nozu ni; eta, guganako txarto-esate askori biieak aurreztik istearren guk gizon orreri omenak ezarriarren, astoak urrea eroan daroanez baño ez dauz eroango orrek oraenok, zaraapean urruma ta putz egin eta izerdia mara-mara dariola, guk erakutsiko dautsagun lekura edo aurretik yoan, eáo atzetik eroanda; eta bein gure altxorra guk gura dogun lekurct ersanazkero, bizfcarretik namea eratsi, ta ostikada bat emonda ortík zear bidalteko, zamariic bagako astoaren antzera belarríai eragin eta erri-lurretan bedarra yateko.

OTABI.—Gogoko yakana egik; baña sri gudari egín- azterlu ta adoretsu dok.

ANDONI.—Olangoxe yatsvi nire zaldia be, Otabi; eta orregaitik dot arentzako garagarpiloa; burruka egiten, arnassa artzen, geldituten, aurrera artez eta arin yoaten inakasten dautsadan abere yatsu a, aren soñaren igikunek nire gogoak erabiii ta yaumta. Eta orrako orren antzekotsu yatsu Lepidas irakatsi egin bear yako, ezi egin bear da, ta agindu egin bear yako aurrera yoateko; gizon gogo-antzu da; ondakinak eta bestek eginak yatekoa yatsu; bestek erabiliak erahiliaren erabi.iz zartuak áiran zerak, barri egíten yakoz ari; zarkintzat etsi daigun ori. Eta zer andiak entzun orain, Otabi; indarrak batzen asiak dira Burta ta Kasi; aurrea emon bear dautsegu len baño len; orrazkero, elburu batera yoazo dagiagun gure arteko alkartasunari; geugaz euki dagiguzan gure adiskiderik 2intzoenak, gure eskuarteak nasaiiu ta azi daiguzan; eta bertatik batzarrean yarri gaitezan, asmo ilunak argitaratu ta argitan dagozan galtzoriai ondoen erantzuteko.

OTABI.—Orixe dagigun; eta izan be, iztillu gorrian gagoz gu, eta arerio askok erdian artu ta estuturik; eta tildur naz irri,:arre egiten dauskuen batzuk eureu bioízetan asmorik txarren^i ez ete daukiezan. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Burta'ren Txorna-i [urrea, Sardits etik urreko zabalean.

Danborr-ots. BURTA, LUKILI, LUKI ta Gudariak aurrera; TITINI'k eta PiNDAR'ek trikitx egiten dabe aikaz,

BURTA.—Geldi, ee!

LUKILI.—Zabaldu ezagun-itza, ee! eta geldi.

BURTA,—Ze barri, Lukili? Ur ete dok Kasi?

LUKILI.—Eraen da gesu baten; eta Pindar etorri da bere ugazakaren aldstik zuri txera egiten. (Idazki bat daraotso Pindar'ek).

BURTA.—Gogoko yataz aren agur-txerak, Pindar, edo bera aldatu dalako, edo beste agintariak ari onu txarrik emon izan dautselako, bide zuzenik asko emon yeustak ire ugazabak, eginik dagozan zer batzuk egiteko ba'legoz gurago izateko, baña gesu baten emen ba'dok, berak zurituko yok bere burua.

PIND.—Bera danez, zurtasunez eta zindotasu-

nez beterik agertulco dala nire ugazaba zindoa, osoan usle dot nik.

BURTA.—Ez yoal orren zakmtzarik.-Ilz bat iri, Lukili; ak zelan artu indun esan egistak.

LUKILI.—Adeiz eta begiiunerik askogaz; ez baña ak ol dauen besteko txeiaz, ezta len izaten eban itz-egikera ardurarik bagako la adiskidez.

BURTA,—Oztuaz-oztuaz doan adiskide beroarena azaldu daustak ik; indarrez ateratako txerak erabi'ten dauzala beti be gexotu ta berantza egiten asten dan maitatasunak ez egik aztu, Lukili. Biotz garbiak ez yok ezer ostondu-bearrik; baña gizon azaluts-ustelak, eskura bizi diran zaldien antzera euren adoreagazko arrolceri ta agindurik asko izaten yoek izan, baña aztal odoltsua so egiten dabenean makurtu egiten yoek euren burua, eta zaldizar zin-sartzalleen antzera, meko egiten yoek ekinean. Aurrera ete yatok aren gudarostea?

LUKILI.—Euren gudaltegitzat gau onetan Sardits artzeko asmotan dira; Kasi'gaz datoz geienak, zaldizkoetatik geientsuak. (Ibilketa-ots barruan).

BURTA.—Adi! eliu dok; agaz trikitx egiten oci cistiro.

KASI ta GUDAEIAK aurrera.

KASl.—Geldi, eee!

BURTA.—Geldi, ee! ezagun-itza esan,

BARRUAN.—Geldi!

BARRUAN.—Geldi!

BARRUAN.—Geldi!

KASI.—Anai zindo-zindo, iraindu egin nok ik.

BURTA,—Zuok yainkook epaitu nagizue! nire areriorik be iraindu nik? Ela areriorik be ezean, zelan iraindu nik nire anaiarik?

KASI.—Burta, irainen estalgarri dok ire bentasun ori, eta ilt irainduten dokanean...

BURTA.—Kasi, nasai ago; zaratarik baga esan egistazak ire kezka ta naibageak, ezagun-ezagun aut nik; emen gure guiaroste bien begien aurrean gure artean orreik maitatasunaz besterik ez yoek ikusi bear-eta, burrukarrik ez yoagu egin bear; alde egin dagiela esan egiek; orrazkero, nire txoznan azkatu ta ustu egizak ire naibageak, an azazkatu adi, Kasi, eta entzungo dauskat nik.

KASI.—Kndar, bakotxak bere bendeko indarrak apur bat arago eroan dagizala esan egiek gure gudalburuai.

BURTA.—Lukili, beste orrenbeste egik ik, eta ez. daitela iñor etorri gure txoznara guk gure autua amaitu arte. Luki'k eta Titini'k yagon dagiela gure atea. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Burta'ren Txozna-barrua.

BURTA ta KASI aurrera.

KASI.—Onetantxe agiri dok ik íraindu nokala; Luki Pela gaiztetsi dok ik; eriotza-atza ezarri dautsak ik aii, emen Sardistarrakandik eskupekoak artu dauzalako; ondo ezagun dodan gizon orren alde nik idatziarren, aintzakotzat ez nok artu.

BURTA.—Eure buruari egin áautsak ik irain, olango arazoan aren alde idatziaz.

KASI.—Olango oben eta uts txiki-arinik guztien aurrera ateraterik ez dok egoki onango aldietan.

BURTA.—Esaten iteri egistak, Kasi, i eu be gaiztetsita agola, diru-egarriz, urreagaitik, irabazi ez dabenai ire ktguntzea salduagaitik.

KASI.—Diru-egarri ni! Ba-dakik ik Burta dala ori diñona, ostean, yainkoakarren, itzok litzatekezak ire atzenengoak.

BURTA.—Kasi'ren izenak itzal egiten dautso gaiztakeri oni-ta, bururik ateraten be ez dok atometan zigorra.

KASI,—Zigoira!

BURTA.—Epaila gomutau egik, Epaileko "iáus" ak gomutnu egizak! Zuzentzeagaitik ez ete yoan odola ixuri Yuli'k? Nongo zitalek ukutu ta sastakaitu yoan aren soña zuzentzeagaitik izan ezpa'zoan? Zer? Mundu guzti onetako gizonik andiena zana a lapurren aldeko zalako bakarrik zeartau gendunetatik iñok bere atzik zikiníuko ete yok eta gure omen anditik olango arlo zabalik uskerigaitik salduko ete yok? Gurago neunke txakur izan be, ta iretargiari ausi- egin, olango Erromar izan baño.

KASI.—Burta, ez nagik estutu, olangorik ez dauskat yasango; eure buruaz aztuta ago i, ni onan ormarantza eroanda; gudari nok ni, ik baño lenagotik yakiat ezpatea erabilten, i baño ikasiago nok zerak nire aldera iminten.

BURTA.—Ekiok, Kasi ez az i.

KASL— Bai, ba-nok.

BURTA.—Ez *azala* dirauskat.

KASI.—Ez nagik estuagotu, nire buruaz aztuko nok; ire osasuna begiratu egik, ta ez nagik zirikatuago.

BURTA.—Alde emendik, gizonlxo!

KASI.—Onangorik!

BURTA.—Entzun ©gistak, itz egin gur« yoat-eta. Biáea zabal itxi bear ete yeutsat ire asarre bizi-latzari? Gizon zororen begirakunek ikaratu bear ete nau?

KASI.—Zuok yainkook, zuok yainkook! dan au yasan bear ete dot?

BURTA. Dan au! bai, eta bai geiagorik be: ire biotz arroak iztenak egin arte sumindu adi; oa, ire yopuai ekakutsi egiek zenbaterañoko asarrea dokan, eta ire bendekoak ikaratu egizak. Atzera egin bear ete yoat nik? Ire zai egon bear ete yoat? Ire au*irean* geldi egon eta burua makurtu bear ete yeutsat ire gogaldi inukerrari? Yainkoakarren, ire gibeleko edena ausi bearko dok, naiz ta orrek birrintzatu ta itzebagitu i; eta izan be, emendik atxina nire barregarritzat erabiliko aut, bai, niri barre eragiteko i inuker agonean,

KASI.—Onetara eldu gozak?

BURTA.—Ni baño gudari obecr azela diñok ik; orise erakutsi egik; egiztau egik ire arropuzkeria, eta pozik geldituko nok ni; nigazko, pozik artuko neunkez nik gizon zindoakandiko irakaspenak.

KASI.—Edozetara egiten daustak ik irain; baL irain egiten daustak ik, Burta; gudari zarrago nazala esan yoat nik, ez oba nazanik; oba nazala esan eie yoat?

BURTA.—Esan ba-dok be, ez yeustak ardura.

KASI.—Kaisar bizi izan ba'litzok, a ez leitekean aiomauko niri onan eragiten.

BURTA.—Isilík, ixilik! i eu ez, ez intzatekean atomauko a onan zirikatuten,

KASI.—Ez, atomcm ez!

BURTA,—Ez.

KASI.—Ba! azarri ez *a* zirikatuten!

BURTA.—Ire biziarren, ez intzatekean azarriko,

KASI.—Entzite ta uste on larrik ez egik yarri nire maitatasunean; gero naibagetuko nauenik egiteko gei eta lain nok ni.

BURTA.—Dagoneko egin dok ik naibagetu bear indukena. Kasi, ni ikaratutekorik ez yagok ire zemaietan; eta izan be, zintzotasunezko iskilloz ornidu-ornidurik nago ni-ta, axe bíguna Iez doaz nire aldamenak zear ire zemaiak, nik yaramoteka. Onenbesteko bat urreren eske bidali neban nik urlia, eta ik ukatu niri, nik bide zantarrez dirurik ezin batu yoat-eta; yainkoakarren, guragо yoat nlre biotza dirutu, ta darkamak egiteko odola tantanka ixuri, baserritar esku-latzai edozelango biie makurrez eta euren gogoaz bestera euren diru zirtzílik kendu baño; nire gudariai ordaintzeko eskatu neunskan nik, eta ik ukatu niri; Kasi'ri dagokionez eginda ete yagok ori? Onan erantzun bear ete neuntsan nik Kaí Kasi'ri? Bere adiskideai bere diru-kutxak giltzez isteraño Marka Burta diru-zaletu dadinean, gertu egon zuok yainkook zuon oñaztarriekaz a zatitu ta birrinduteko!

KASI.—Ez neunskan ukatu nik.

BURTA.—Bai, ukatu eunstan.

KASI.—Ez neunskan ukatu; ergel utsa zoan nire erantzuna ekarri ebana. Itzekarrotu ta brintzatu egin dau nire biotza Burta'k; adiskidek yasan egin bear leukez bere adiskidearen makalkeriak, baña Burta'k diran baño andiago egiten dauz nireak.

BURTA.—Ez yoadaz egiten, euk bai gorriak ikusiazo daustazak.

KASI.—Ik ez nok maite.

BURTA.—Ire aksts-utsak ez yatazak begiko, orreik ez yoadaz maite.

KASI.—Begi adiskidek ez leuke Ikusi bear onango akatsik.

BURTA.—Zuritzallek ez leukez ikusiko Olinpu garaia añako eskargak ba'litzaz be.

KASI.—Erdu, Andoni, ta Otabi gazte, ta zuok bakarrik artu Kasi'ren aper.a, ludi onez asperturik dago Kai-eta; berak maite dauenak gorroto dautso; bere anaieak eupada egin dautsor yopu lez estuta dago; bere akats eta uts guztiak so eginik, idaztiñoan idatzirik, buruz ikasirik, urrengorik-urrengo, banan-banan gomutaurik dagoz, nire arpegira botateko. Nire gogoa ixuri al neu nire begietatik, negar-ordez! Aiko amen nire sastakaia, ta aiko amen nire bular gorria; biotz bat emen barruan, Pulto'ren (28) urre guztiak baño ederrago dan biotza; Erromar ba' az, ez geiagorik, atera egik; urrerik ukatu ba'dauskat, nire biotza emongo dauskat; yo egik, Kaisar yo enduan legetxe; eta izan be. ba-yakiat nik a geien gorroto enduanean be eguño Kasi maite izan dokan baño maiteago enduala ik Kaisar.

BURTA.—Zorroratu egik ire sastakai orl; I

(28) Pulto au Erromar etci Eladetarren artean gizonai ondasunak emoten dautsezan yainko zan, eta arnbeste gizoneri ondasunak emoteko, mea aberatsa ta agortu-ezina euki bear; urre-mendi sakon-goiak euki bear.

asarratu aitenean izango yok orrek zereglnik. Euk zer-gura egik, baña lotsaria izango dok ondorena, Bildotsari buztarhsiik ago i, Kasi, eta suarriak sua daroanez yaroak ak asarrea; yoaren yoaz iraduzko txatartxo batzuk urteten yakozak, eta bertalik otzik gelditu ostera be,

KASI.—Naibageak eta odol-aldi txarrak esarratuten dabenean Burta'ren barregarri ta yolaskizun izateko bakarrik bizi izan ete da Kasi?

BURTA.—**Neu be gogaldi txanean egon nok orrako ori esan dodanean.**

KASI.—Orrenbeste autortuten dok? Ire eskua ekadak.

BURTA.—**Bai nire biotza be.**

KASI.—Ene Burta!...

BUTA.—**Zer yazoten yak, Kasi?**

KASI.—Nire amagandiko gogaldi biziak aztukor egiten nauenean ni yasateko lain maitatasun ez ete daustak Burta?

BURTA.—**Bai, Kasi; eta oraindik ara, ire Burta'ri beroegi erasoten dautsakanean, ire amak daragoiola iri agirika ta akarka uste izango yoat, eta kitu.** (Otsa barruan).

OLERKARIA.— (Barrutik). **Gudalburuak ikusi dagidazan barrura sartzen itxi egistazue; asarreren bat dabe euren artean; aik eurak euretara egoteiik ez da egoki.**

LUKILI.—Ez az yoango aikana.

OLERK.—(Barruan). **Eriotzeaz beste ezek ez daust geldituazoko.**

OLERKARIA **aurrera,** LUKILI **ta TITINI laguntzat dauzala.**

KASI.—Ze barri! zer yazotsn dok?

OLERK.—**Lotsarren, gudalbuiuok! zer egiteko zarie? Alkar maite egizue, eta alkarren adiskide izan, zuok langO gudalburu bik izan bear leukienez; eta izan be. zuok baño urte geiago ikusia nozue ni,**

KASI.—Ja, ja! kiniku (30) onen oskidetasuna bai ba-dala zirtzil eta askarri!

BURTA.—**Alde emendik, txotxor sats ori, alde emendik!**

KASI.—Epe artu egik orregaz, Burta; olangoxe dok ori,

BURTA.—**Tertzioa zer dan ikasi dagianean artuko yoat aintzakotzat orren gogaldia; zer zerikusirik yoek guduak olango ergel barre-eragilleakaz? Alde emendik, txotxo.**

KASI.—**Alde, alde, oa emsndik!** (Olerkariak alde).

BURTA.—**Lukili ta Titiní, euren gudari-taldeentzako arrats onetarako etzategiak gertau dagiezala esan egiezue gudalburuai.**

KASI.—Eta orrazkero, ona erdu zuok, eta Mesala be zuoknz batera ekarri.

(Lukili'k ela Titini'k alde dagie)

BURTA.—**Luki, ontzibete ardao ekarri egik!**

KASI.—OrrenbesterañO asarratu eintekenik *ez* neban uste nik.

BURTA.—**Ene Kasi, naibagearen naíbagaz gexorik nago ni.**

KASI.—**Nozipeingo gatxai burua makurtzen ba'dautsek, ezetarako be ez dok erabilten ik ire yak'mtza-zaletasuna.**

BURTA.—**Gizonik ez naibagea nik baño obeto eroatekorik... Portze il dok.**

KASL—**Ostera! Portze!**

BURTA.—**Bai, II dok.**

KASI.—**Zelan ez ete nok íl nl orrenbestean asarratu audanean? Galtze orren biotz-ukugarri ta eroan-ezin! Zein gatxek eroan yok?**

BURTA.—**Ni etxean ez egotea eroan-ezinak, eta Otabi gaztea ta Andoni ain indartsu eginik ikusiak; aren eriotzeazko barriagaz batera etorri zoan, ba, beste au be, zera, zoratu egin yakoan eta, bera bakarrik egoala, txingarrak iiuntsi yoazan.**

KASL—Eta olan il zoan?

BURTA,—**Bai. olantxe.**

KASI,—Yainko il-ezinok!

LUKI **aurrera aidao ta argizaiekaz.**

BURTA.—**No a geiagotan ez egistak aitatu. Ontzibete *aiiao* ekadak. Emen obiratuten dodaz mukerkeri ta moztasun guztiak, Kasi.** (Edan egiten dau).

KASI.—**Nire biotza be egarri dok, eskeintza zindo ori dala-ta.-Bete, Luki, edalontziak ganas egin arte; geiegirik ezin edan Izango dot Burta'ren maHalasunetik.** (Edan egiten dau).

BURTA,—**Barrura ator, TiUnl!**

(29) Argiegí ez da lsku au. Onetara azalduten dot nik: "I ez ago asarre-ta. orrazkero zorroratu egik ezpatea. Asarratu adi, ta orduan izango yok orrek zereginik. Baña ik zer egingo, ire izenaren lotsea gitxitu baño ez dok egingo, okerreko zeren bat egingo dok ik-eta".

(30) **Kiniku** (Eladeraz Kynikós). Eladetar yakintzazale batzui eresten yaken olan. Txakurren, txakur-antzeko esan gura dau itz onek, orretarikoak zerik zakarrenak be agirian egiten ebezan-eta. Diogenes eretxona da kinikuen artean ezagunena.

TITINI aurrera ostabe. Mesala'gaz.

Ondo etorria, Mesala on! argizaí onen inguruan estu-estu yezarri gadizan orain, eta gure bear-izanak aztertu ta aralcatu.

KASI.—Yoan zatxakuz. Portze?

BURTA.—Geiagorik ez, arren, Mesala, idazki bat yoat emen, eta idazki onek diñonez, Otabi gaztea ta Marka Andoni gure aurka yatozak gudaroste asarregaz, Pilipi'rantzako bidea dakarrela (31).

MSSALA.—Neuk be zer berbera diñon idazkia artu dot.

BURTA.—Besterik ezer ez?

MESALA.—Legetik at (kanpora) yairí ta lege-zaintzatik at iminteko erabagiak artu ta aldarrikaturik, Otabi, Andoni ta Lepida'k eun il ei yoezak agure-batzarrekoetatik.

BURTA.—Orretan gure idazkiak ez yoek osoosoan batera yoten; lege-zaintzapetik at yarrita irurogei ta amar agure-batzarkide il dabezala yiñok nireak, euretatik bat Kikero dala,

KASL—Kikero euretatik bat!

MESALA.—Bai, Kikero il dok, eta lege-zaintzapetik atako aginduz.--Zure emazteagandiko ete zan zure idazkia, yaun?

BURTA.—Ez, Mesala.

MESALA.—Orrako idazki orrek be ez diño ezer aretzaz?

BURTA.—-Ezer bez, Mesala.

MESALA.—Iñondiko da orí, nire ustez.

BURTA.—Zegaitik itanduten dok? Aren barririk izan dok irean ala?

MESALA.—Ez, Burta.

BURTA.—Erromar azanazkero, egia esaidak.

MESALA.—Orrazkero, Erromarrek lez iruntsi egik nik diñodan egia; egia dok a il dala, eta iñondiko bidez il be.

BURTA.—Ba, agur, Portze. Il-bearreko gozak, Mesala; a'.: egunen baten il bear ebala yakinik, ori yasateko be ba-yoat orain eperik.

MESALA.—Olantxe, yasan bear dabez gizon andiak galtze andiak.

KASI.—Neu be orrenbesterik ilcasía nok ízan, baña olangorik olan eroateko lain indar ez yok berezkoak.

BURTA.—Tira, gure lanera ta arlora bjziro ta zoli. Zer deretxak oraintxe bertatik gu Pilipi'ra yoateari?

KASI.—Ori on eta egoki danik ez yoat uste.

BURTA,—Zegaitik?

KASI.—Onexegaitik: arerioa gure billa etortea oba da; oksn, gudarako zsrak alperrik galduko dauz, gudariak nekatu, bere kalte ta okerrerako; gu, ostera, ernen geldi egonda, atsedenez, gure burua yagotekoz, eta bizkortasunez beterik egongo gara.

BURTA.—Nai-ta-nai-ez, zio edo zegaiti onak obeai leku egin bear yeutsek. Ezinbestez yagozak gure alde Pilipi'tik onako erriak, guk ezarririko zergak gogo txarrez artu yoezak-eta; arein artetik 2ear doaken. arerioak beteogo egingo yozak bere guda-lerroak, eta baerriztaurik, gudari barriakaz eta adore barriagaz egingo yok aurrerako bidea; eta alde ori kenduko yautsaguk guk ari bularra Pilipi'n emonazkero, erriok gures atzean doguzala.

KASI.—Entzun egistak, anai on.

BURTA.—Parkatu, azketsi nagik. Ganera, konturatu bear dok ik, gure adiskideakandik al danik eta geien lortuteko oleginak eginak gareala gu; ganezka yagozak gure gudari-taldeak; umatu-umaturik yagok gure arazoa; egunetik egunera aziaz yoak arerioa; gu, tontorrean gagozanok, berantza egin-aginik gagozak. Izkorak eta izperak izaten dozak gizonen arazoetan, eta izkoreari elduazkero, zori onera gaioazak; eretíari eldu ezik, euren bizitzako bidaldia urme-une ta dordoetara yoatekoa dok. Olango itsasbarruan gagozak orain ur-ganean; eta lagun yakunean, urak nora guk ara yo bear yoagu edo, ostantxean, gure zori ona galdu.

KASI.—Orrazkero, euk gura dokana egin eta aurrera yo; gu be aurrera yoango gozak eta Pilipi'n aikar trikiix egin.

BURTA.—Gau itsua ganera ctorri yakuk gure autu-mautuan, eta berezkoak bearrari men egin baar yeutsak; muker emongo yeutsaguk guk atseden apur bat, Esatekorik besísrik ez ete yagok?

KASI.—Besterik ezer bez. Gau on: goxean goiz yagita, emendik alde egingo dogu.

BURTA.—Luki, nire gau-atorrea ekastak. (Luki'k ctlde).

Agur, Mesala on: Gau on, Titini; Gau on, Kasi zindo, *la* ondo lo egin.

KASI.—Nire ancii maitearenn! txarto asi dogu gaba; iñoz be iñoz ez al da etorriko olango manatzerik gure biotzen artsra! Ez al da, Burta.

BURTA,—Yoana dok ori.

KASI.—Gau on, ene yaun.

BURTA.—Gau on, anai on.

TITINI ta MESALA.—Gau on, Burua yaun.

(31) Pílipi ctu Elade, edo obeto esateko Makedoní'ko leku da.

BURTA.—Gau on guztioi eta bakotxari. (Alde Kasí, Títíní, ta Mesala'k).

LUKI aurrera ostabe, gau-atorreagaz.

Ekastak gau-atorrea. Non dok ire ereskina?
LUKI.—Smen broznan.
BURTA.—Ba, logureak erreta ba'engo lez itz egiten dok ik! Gaxo ori, ik ez dok errurik; luzaroegi egon az atzarrik. Kauldi ta beste nire otsein bcitzui dei egiek; burupekoen ganean emen níre txoznan lo eragingo yeutset.
LUKI.—Barro ta Kauldi!

BARRO tti KAULDI aurrera.

BARRO.—Deiez dago nire yauna ala?
BURTA.—Yaunok, emen nire txoznan etzan eta lo egin dagizuela eskatuten dautsuet; ba-ledike nik zuoi nozipein yagiazotea, nire anai Kasi'gana zereginen bategaz bidaltekо.
BARRO.—Gura ba'dozu, zutunik eta atzarrik egongo gara gu, zure eretxira.
BURTA.—Olangorik ez *dol gura* nik; etzan, yaun onok; ba-ledike nik eretxia aldatutea. Begira, Luki, emen yagok nik ain urduri tillaturiko idaztia; neuk imini neban nire gau-atorrako sakslean.

(Etzan egiten dira Barro ta Kauldi)

LUKI.—Ez dot izan zalantzarik zuk ez zeunstala emon.
BURTA.—Epe izan egik nigaz, mutil on, ni aizkorr-aizkor nok-eta. Apurtxo baten eutsin al izango ete dautsak ire ereskinari, ta ots batzuk eragin?
LUKI.—Bai, yaun, gogoko ba'yatsu.
BURTA.—Bai, gogoko yatak; neke lar emoten dauskat, baña ire gogara dok.
LUKI.—Nik egin-bearreko da ori, yaun.
BURTA.-Ire indarrez ganetiko bearrik ez neunskik eskatu bear; ba-yakiat atsedsnalditxoaren begira egoten dirala gazteak.
LUKI.—Dagoneko lo egin dot nik, yaun.
BURTA.—Ondo egin dok, eta barrien-barri be egingo dok; luzaro ez aut eukiko r.ik; bizi ba'nok, on izango nok itzako. (Eresi ta abesti) Loarrazoteko doñu dok au. Logura erala (iltzalla) ori, berunezko ire gabia ezarten dok eresia yoten daragoion nire mutilaren buru-ganean? Gau on, mutil maitagarri; ez dauskat egingo i iraizarterañoko okerrik; burua makurtu ba'dagik, ire ereskina apurtuko dok; kandu egingo dauskat, eta gau on, mutil on. Dakusdan, dakusáan, ez ete dot azpildu irakurten neragoion orria? Bai, emen dago, urrean„ (Yezarri egiten da).

Kaisar'en ANTZA aurrera.

Argizai au ez da ondo erretan! Ba! nor da. tor emen? Antz-agerkune au eratuten dauena nire begien makalkeria dala uste dot. Niganantza dator. Bai ete az i ezer? Odola otzitu ta uleak zutunduten daustazakan ori yainko, angeru, ala txerrenen bat ete az? Zer azan esaidak.
ANTZA.—Ire iratxo gaiztoa, Burta.
BURTA —Zegaitik ator?
ANTZA.—Pi'ipi'n ikusiko nokala iri esateko.
BURTA.—Ondo yagok; orrazkero, ostera be íkusiko aut?
ANTZA.—Bai, Pilipi'n.
BURTA.—Ba, orrazkero. Pi'ipi'n ikusiko aut. (Anfzak a'de). I ondalu azanazkero, adorea biztu yatak niri; Iratxo gaizto, igaz luzaroago itz egiteko gogorik ba-yoat. Luki mutil! Barro! Kauldi! atzarri zadize, yaunak! Kauldi!
LUKI.—Guzurti dira ereskin-ariak, ene yaun.
BURTA.—Oirdiño be bere ereskinari daragoiola uste dau orrek. Luki, atzarri adi!
LUKI.—Ene yaun!
BURTA.—Luki, olan gedar egiteko amssetan itili az ala?
LUKI.—Ez dakit nik ze gedar egin dodan, ene yaun.
BURTA.—Bai, egin dok; zerbait ikusi ete dok?
LUKI.—Szer bez, ene yaun.
BURTA.—Lo egik ostabe, Luki. Kauldi txotxo! I, mutil atzarri adi.'
BARRO.—Ene yaun?
KAULDL—Ene yaun?
BURTA.—Zegaitik egin dozue olango gedarrik zuon loan, yaunok?
BARRO ta KAULDI.—Gedarrik egin ete dogu, ene yaun?
BURTA.—Ba:,- zerbait ikusi dozue ala?
BARRO.—Ez, ene yaun, nik ez dot ezer ikusi.
KAULDL—Nik bez, ene yaun.
BURTA.—Nire anai Kasi'gana zoaze ta nire gorantziak emon egiozuez; bere indarrakaz garaiz yarri daitela bidean gure aurretik, gu atzetik yarraiko gatxakozala-ta esan egiozue.
BARRO ta KAULDL—Ori ondo, ene yaun. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERIEKU.-Pilipi'ko Zelaiak.

OTABI, ANDONI, la euren gudarostea aurrera.

OTABI.—Oraintxe bete dozak gure itxaroak, Andoni; arerioa ez zala yatsiko ta goiko mendietan eta goietako lurr-arlostan geldituko zala esan enduan ik; ez dok olangorik; emen ur dozak arein guda-indarrak. Emen zai egon gaitezala iragartea dok arein asmoa, geuk eskatu baño len erantzuteko.

ANDONI.—Ba! ba-dakidaz arein asmoak eta ba-dakit ori zegaitik egiten daben; pozik yoan eitekezan aik beste lekuen batzuetara, eta orraitiño bera daloz adore bildurgarriz, erakusketa onegaz adorez beterik dagozala guri buru-biotzetan sartzko, baña ez da olangorik,

GEZNARI bal aurrera.

GEZN.—Gertau zadize, gudalburuok; aurrera dator arerioa, erakusketa arro-itzalez; goian dakarre euren guia-ikurrin odoltsua, ta bertatik egin bear da zerbait,

ANDONI.—-Olabi, zure indarrak aurrera eroan astiro, lur-arlo zelaiko ezksrreko aldetik,

OTABI.—Eskoako alderdia artuko yoat nik; ik artu egik ezkerrekoa.

ANDONI.—Zegaitik ago i nire aurka eskabide orregaz?

OTABI.—Iri aurka egilen ez nago ai; baña esan dodana egingo yoat nik.

Danborr-ots. BURTA, KASI, ta gudarostea; LUKILI, TITINI, MESALA ta beste batzuk osrrera.

BURTA.—Geldi dagoz aik, eta itz egin gura dabe.

KASI.—Arin zutundu adi, Titini; itz egiten urten bedr yoagu.

OTABI.—Marka Andoni, ekiteafen asierea iragarriko ete yoagu?

ANDONI.—Ez, Kaisar, euren ekinari erantzungo dautsagu guk. Aurreratu zadiz; itz egin gura dabe gudalburuak.

OTABI.—Ez egin zirkinik agindu arte.

BURTA.—Itzak zartaden aurretik; olan ete, aberkideok?

OTABI.—Ez, zuok lez, guk itzak maiteago doguzalako.

BURTA.—Otabi, zartada txarrak baño oba dira itz onak.

ANDONl.—Burta, zure zartada txarretan Itz onak emoten dakizu zuk; arako "Gora, Kaisar!" gedar egin-ala Kaisar'en biotzean zuk egindako zuloa lekuko,

KASI.—Andoni, ire zartadak zelango diran ikusteko dok oindiño; bciña ire itzakazko, lapurretan egin yeuisoek orreik Hybla'ko 02) erlai, eta eztirik baga itxi yoezak.

ANDONI.—Ez baña eztenik baga.

BURTA.—Bai, gizon, eta bai durandurik ba. ga be; eta izan be, Andoni, ik ostu dautsek durundua, eta zurtasun andiz zemaika ator ire eztena sartu-aurretik.

ANDONI.—Zitalok, olan ez zenduen egin zuon sastakai zirtzilak Kaisar'en saietsetan yo ebenean; matxangoen antzera aginak erakuasi zenduezan zuok, eta txakurren antzera laztankeriak egin, eta yopuen antzera buru-garriak makurtu, Kaisar'en oñai mun egiteko; bitartean, Kaska dongeak, txakur txatxarr-antzera, Kaisar idunean atzetik ara yota. Zuon zuritza!]0!

KASI.—Zuritzalla! Eskerrak emon oraín, Burta, ire buruari; orren miñak gaur ez eukean egotziko olango irainik, Kasi'k agindu al izan ba'leu. Ez orix3.

OTABI.—Elburura goazen, artra goazan; aikomaikoka ta esa-mesaka ibiliak izerdia ateraten ba'dausku, argibidea ta zuzena gure alde dagozala erakusteko tantan gorriagorik ixuri bearko dogu, Ara... ezpatea ateraten dot nik zinkidetuen aurka; ezpata au barriro noz bere zorroratuko dala uste dozue? Sekula bez, Kaisar'en ogei ta amairu zauriai ordea emon arte; edo-ta, saltzalleen ezpateari Kaisar barriaren triskantzako odol gorria intsigi arte,

(32) Hybla. Sikili izaroko mendi ta uri da Hybla. Erlak maite-maile eben leku au, Birgili'ren aldian beintzat. Olerkari onek auxe diño Hybla'z: "Alde batetik, oi bezala, sarats loratsuz Hiblar erleak alatzen ditun auzomugako esiak, marmar goxo tcc bigunez, lotarako ots egingo dizu, bestetik, ordea, arkaitz garaipean kimatzalleak bere abestiak aizetara yaurtiko ditu". (Unai-Kan!a, I. Orain-tsu gure artetik betiko yoan yakun Ibinagabeitia'tar Andima idazle trebe ta adiskída kutunaren euskerazpena).

BURTA.—Kaisar, saltzalleen esltuz ezin il zeintekez zu, aik zeugaz ezpa'daroazuz (33\

OTABI.—Uste ori dot izan be; Burta'ren ezpataz ilteko ez nintzan yaio ni.

BURTA.—Ba! gazte, zure odoleltoetatik zindoena ba'zintzaz be, ez zenduke izango eriotza zindoagorik,

KASI.—Irakastegi-mutiko, muker, olango omengarririk ez dan kokomarro ta gau-txori danagaz bat egin dozun ori!

ANDONI.—Oindiño be i lengo Kasi!

OTABI.—Tiruk, Andoni; gaioazan! saltzalleok, eupaáea yaurtiten dautsegu guk arpegira; burruka egiten atomau ba'zadize gaur, zelaira erdu; ostean, zeuk noz-gura.

(Otabi'k, Andoni'k eta euren gudarosteak alde dagíe).

KASI.—Putz egin, ba, orain axeok; azi, anditu, arrotu adi itsaso! ta uger egik, itsasontzi! Yagi da ekatxa, ta ori dago zoriaren eskuetan.

BURTA.—Eee! Lukiii! entzun egik, itz bat egin gura yoat igaz,

LUKILL—Ene yaun.

(Burta ta Lukili izketan eurak euretara),

KASL—Mescda...

MESALA.—Zer diño nire gudalburuak?

KASL—Mesala, gaur egiten yoadaz urteak; onango egunez yaio zoan Kctsi. Ire eskuori ekastak, Mesala; lekuko izan akit nire gogoaz bestera gure azkatasun eta eskubide guztiak gudaketa bakarreUko ondorenaren eskuetan ítxi-bearrean aurkitzen nazala, beñola Ponpei aurkitu zanez, Ba-dakik ik Epikur'en (34) alde-aldeko ta aren erizkide isan nazala ni; eretxia aldatu egin yatak orain, eta aurreztik iragarten daben zerai erdi-sinistu egiten yeutset. Aiko, Sardits' etik gentozala, arrano sendo-mardul bí yatsi zoazan aurrenengo guda-ikurrinaren ganera, eta an kokaturik, gure gudarien eskuetatik yan eta irunsten yoen jñonáiko yangarrez; gugaz batera etoiri dozak aik ena Pilipi'ra; gaur goxean egaz egin eta yoan dozak, eta arein ordez gure buruen ganean belak, okela-belak, saiak eta sapilaíak yabiltzak egazka, ta gu begira yeragoioek, gu arein yaki izan-aginik ba'gengozak lez; orrako orrein itzalak zori txarreko buru-ganeko estalgi yirudik, eta orren azpian yagok gure gudarostea, bizia galtzeko gertu.

MESALA.—Ez egizu sinistu olangorik.

KASI.—Sinistu ta sinistu ez egiten yoat, ni gogatsu naiagok-eta, baita galbide guztiai arpegi emoteko geiturik be.

BURTA.—Ni neu be olantxe naiagolt, Lukili.

KASL—Surla zindo-zindo, gure adiskide yoaguz gaur yainkoak, guk gentza-zaleak gure urleak zartzaroraño luzatu a! dagíguzan; baña gizonen arazoak beti ba zalantzan eta ezpaian dagozanazkero, yazo ledikenik txarrena gogoan euki daigun, Ekite au galdu ba'dagigu, au izango da alkarregaz itz egiteko guk izango dogun atzenengo eretia; olangorik yazotekotan, zer egitea erabagi dok ik?

BURTA.—Bere burua il ebalako, Kato gaiztetsiazo eustan yakintza-bide berberaren arauz yokaiuko yoat nik. Zegaitik danik ez yakiat, baña bildurti ta zirtzUtzctt yoat nik zer yazokoren bildurrez bizia ©lan laburtutea; epezko iskilloz yagongo yoat nik nire burua, ta gu emen goíko alen batzuen aurre-ikusiak garabiltzazan erabagiaren eskuetan yarriko yoat nire burua.

KASI.—Orrazkero, ekits au galdu ba'dagigu, gertu agoke i iñok Erroma'ko etxartKtk zear gurenda-goratzarrean eroateko be?

BURTA.—Sz, Kasi, ez: olangorik ez egik uate ik Errornar zindo orrek, iñoz be Burta Erroma'ra estuta yoango dariik; andiegi dok orretarako aren gogoa, Baña egun onetantee amaitu bear yok Epaileko "idus"etan aslriko arloak; eta nik ez yakiat bein geiagotan alkar ikusiko dogunik. Orrazkero, betiko nire agurra artu egik; betiko, betiko, agur, Kasi! Ostera be alkar ikusi ba'dagigu, ba, irribarre egingo yoagu; ostean... ba, orrazkero, ondo eginda yagok alkarri agur egite au,

KASI.—Ba, orrazkero, aurretik oa i. AurrezUk al leki gizonak egun onetako egiteksaren atzena! Baña eguna amaitutea asko da, atzena be orduan ezagun da-ta. Goazsn, eee! Goazen. (Alde dagie),

(33) Zipladeari zipladaz erantzuten dautso emen Otabi'k. Auxe da Burta'k esan gura dauena: gure artean ez dago etoirik, orrazkero, zu etoik iltekotan, or zureen artean egon bearko etoiak; bañcr Otabi'k bestera artzen dau Burta'ren esana.

(34) Epikur, Samo izaroan (K. A. 341-270) yaio ta Azenai'n bizi izan zan eladetar yakintzazale dogu. Epikur'en ustez eta aldarriketaz gizonaren zori ona atseginak dakardena da, ez baña egiak, ederrak eta zindotasunak dakarden atsegin garbi-argia, soñeko sentzunetatik datorkuna baño, ta akm be mai ondo ornidutik datorkuna,

II AGERI.EKU.--Pilipi'ko zelaiak. Guda-lekua.

Guda-otsak. BURTA ta MESALA aurrera.

BURTA.—Zaldi-gcinera, zaldi-ganera, Mesala, axean zaldi-ganean eta beste saietseko gudari-taldeai agindu idatziok emon. (Guda-ots zaialatsuak) auneia yo dagiela bertatik; eta izan be, gogo otza so egiten yoat Otabi'ren alderdian, eta bat-bateko bultzadeak itzuliko yozak. Zaldi-ganean arrapaladan, Mesala; guztiak datozala goietatik bera. (Alde dagíe).

m AGERLEKU.-Pilipi'ko Zelaiak.

Gudategiko beste arlo bat.

Guda-otsak. KASI ta TITINI aurrera.

KASI.—Aia, Títini, begira, begira, igesi yoazak zitalok! neu egin nok nireen arerio: nireen guda-ikurrindun onek be atzea emon yeutsak arerioari; il egin yoat bildurtl uts ori ta ikurrina kendu egin yeutsat!

TITINI.—Kasi, Kasi, goxegi emon yok agindua Buita'k; Otabi'ren aldean bera obetotxoago aurkiturik, gogatsuegi artu yok ak alde ori; guda-ondakinetara yo yoek aren gudariak, eta bitartean gu guztiok Andoni'k barruan artu gaiozak.

PINDAR aurrera.

PINDAR.—Urrinago igesi, ene yaun, urrinago igesi; zure txoznetan dago Marka Andoni, ene yaun! orrazkero, igesi, Kasi zindo, urrinera igesi.

KASI.—Urrinik asko yagok mendi au.-Begira, begira, Titini; nire txoznak ete dozak sua dakustan leku atakoak?

TITINI.—Bai, ba-dira, ene yaun.

KASI.—Titini, maite ba'nok, nire zaldi-ganera igon adi ta ondoiaño sartu egiozak aztalak, ak i an aiagoko gudari-taldeetaraño eroan eta aniik ona atzera ekairi arte, aik aragoko gudaiiak guieak ala aierioaienak diian zalantzaiik baga yakin dagidan.

TITINI.—Oldozpena baño be lenago emen izango nozu ostera be. (Alde dagi).

KASI.—Oa, Pindai, goiago igon adi aia mendiia; beti izan yoadaz nik begi matelak; zoli abil, Tilini'gan eukik ire begia, eta gudategian ikusi dagikanaien bani emon egisiak.

(Alde dagi Pindar'ek)

Onango egunez aitu neban nik eguño lenen amasea; aiildu ta boiobildu da aldiata, asi neban lekuan amaituko dot; beie neunitik uitsna da nire bizia.--I, txatxo, ze baní dok?

PINDAR.—(Goitik) Oi, ene yaun!

KASI.—Ze bani?

PINDAR.—Zaldizkoak banuan aitu dabe Titini, ta aztalak saituiik zaldiak emon-alean datorkoz ganera; baña berak be bereaii aztalak saitzen dautsoz; bere gansan dauz orain, larri-larii; Or, Titini!.. noibait yatsi egin da oiain zalditik; aia, beia be yatsi da... Goatu dabe..., eta, adi! pozaren pozez oioka ta zantzoka daragoioe. (Oío ta zantzoak).

KASI.—Yatsi adi, luzaroago ez adi egon begira. Nirearen dollor eta bildurti, nire adiskiderik onena neure begien aurrean goaturik ikusterarte bizi izateko!

PINDAR aurrera.

Ona ator, txotxo; Partitarren (35) lurraldean goatu indudan atxilo; eta iri bizía parkaturik, aldi atan zin eragin neunskan nik agindurik izanazkero eáozer egiteko a'eginak egingo enduzala. Erdu orain, eta bete egik arako zina! Azke. eure buruaren yabe izan adi orain; eta nire biotza azterta ta arakatu egik orain bein Kaisar'en erraiak azteitu ta aiakatu ebazan ezpata on onegaz. Eiantzuten ez galdu astiiik; autso," esku-lekutik eldu egiok; eta nik aipagia estali dagidanean, estali dodanez, bideiatu egik ezpatea... Kaisai, azazkatu az, eta egin-eginean be i il endun ezpata beibeiagaz. (II egiten da).

PINDAR.—Oirazkeio, nire buru-yabe naz; orrailio, ez nintzatekean izango nik neure gogoa egitekotan. Oi, Kasi! Erromanek iñoz be ikusiko ez dausn lekura igesiko dau Pindai'ek emendik (Alde dagi).

TITINI aurrera ostabe, MESALA'gaz.

MESALA.—Aldizkako aldakuntzea baño ez

(35) Partitarr-erriaren yarieku ta bizilekua Kaspi-itsasoaren egoe-eguzki-aldean aurkituten zan, eta lekua bera oraín be an da, oraingo Iran dalakoan.

dok, TiUni; eta izan be, Otabi itzuli yoek Burta'ren indarrak, Andoni'nak Kasi'nak itzuli dabezanez,

TITINI.—Barriok poztuko dabe Kasi,

MESALA.—Non itxi dok ik a?

TITINI.—Gogo-yausi, gogo-yausirik, mendiska onetantxe, bere yopu Pindar'egaz,

MESALA.—Ez ete dok a on lurrsan datzana?

TITINI,—Zer bizirik datzanez ez datza ori. Ene biotz!

MESALA.—A bera »z ete da ori?

TITINI.—Ez, a izana da au, baña Kasi'rik ez da geiago. Sartzera oun eguzki ori, iluntze onetan i ire izpi gorritan murgilduten azan legetxe, bere odol gorritan sartu dok Kasi'ren e^una be... Erroma'ko eguzkia sartu da! Yoana da gure eguna; laño, lei eta galtzoriak datoz; eginak dira gure egitekoak! Nik porrot egingoren bildurrak arrazo dautso erabagi ori.

MESALA.—Ondoren onaren itxarorik ezak egin dau egiteko cxu. Okerreko ustearen gorrolagarri, gogo yausiaren naie, zegaitik erakusten dautsek gizon siniskorrai ez dan zerik? Okerreko uste ori, arin sortu ori, eguño ez dok izan ik zori oneko yaiotzarik, eu sortu auen amea il bai, ostsra!

TITINI.—Eee! Pindar! Non ago, Pindar?

MESALA.—Billatu egik a, Titini, ni Burta zindoaren billa, barri au aren belarrietara eralteko nazan bitartean: cren belarrien barruia botaten noala esan bear neunke; eta izan be, gultzaidu zulakorra ta gezi edenduak be ikuskizun onen barria giñoan ondo etorriak izango yakez Burta'ren belarriai.

TITINI.—Arin abil, Mesala (Mesala'k alde), eta bitartean Pindar'en billa yoángo nok ni. Zegaitik bidali ninduzun ortik zear, Kasi zindo? Nire adiskideskaz ez ete dot trí kitx egin nik? Eta ez ete dauste imini aik nire garaite-burestuna, eta zure eskuetaratuteko niri emon? Ez ete dozuz entzun arein oio-zantaoak? Ai ene, dana oker aitu dozu zuk, Baña, eldu egiozu burestun oneri, zure bekokian artu egizu burestun au; zuri imini dagitsudala agindu daust nire Burta'k, eta nik bete gura dot aren agindua... Burta, arin zatoz, eta ikusi zelango begirunea izan dautsadan Kasi'ri.-Zuon ederretsiz, yainkook. Erromarren egitekoa da au; ator, Kasi'ren ezpata, eta Titini'ren biotza idoro gik. (II egiten da).

Guda-otsa, Ostabe MESALA aurrera, BURTA, KATO GAZTE, ESTARTO, BOLUMINI ta LUKILI'gaz.

BURTA.—Non, non datza, Mesala, aren gorpua?

MESALA.—Ene! an aragoan; eta Titini dage ari iletea egiten,

BURTA.—Aratinik dago Titinl.

KATO.—Ilda dago ori.

BURTA.—Yuli Kaisar, indartsu az oindiño be! Ortik zear yabilk ire gogoa, eta gure ezpatak geure erraietara itzuliazoten dauskuzak ik. (Guda-ots motelak).

KATO.—Titini adoretsu! hegira, zelan itxi ez dauen orrek burestundau bagarik Kasi ila!

BURTA.—Olango Erromar bi bai ete dagoz bizirik? Agur iri, atzenengo Erromai orreri! Ezina dok Erroma'k i langorik sortzea. Adiskideok, ni íxurtzen ikusiko nozuen baño negar geiago zor yako gizon il oneri. Erarik aurkituko yoat, Kasi, erarik aurkituko yoat. Orrazkero, erdu ba, ta Tasots'era (36) eroan egizue orren gorpua; gure gudategian ez dogu egingo orren iletarik, samindu ez gagiezan. Erdu, Lukili; -eta erdu, Kato Gazte; gudategira goazen. Labeo tu Palbí, eratu gure gudari-taldeak. Irurak dira eta, Erromairok, gau-aurretik oindiño beste ekito baten zoria zelango dan ikusi bear dogu. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.~Gud igiko beste arlo bat.

Gudo-otsak, ALDERDI bietako gudariak aurrera, ekinean daragoioela; orrazkero BURTA, KATO GAZTE, LUKILI ta beste batzuk be aurrera.

BURTA.—Oindiño, aberkideok, bai, oindiño zutunik zuon buruak!

KATO.—Zein sasikumek ez? Nok yoan gura dau nigaz? Nire izena aldarrikatuko dot gudategia zear; Marka Kato'ren seme nozue ni, eee! legerik bagako agintarien arerio ta nira aberriaren adiskide nozue ni; Marka Kato'ren ssme nozue, ee! (Gañetu egiten yakoz arerioak).

BURTA.—Eta Burta naz ni, Marka Buita;

(36) Tasots (Thasos). Aigai itsasoaren iparraldean legor nagusitik ur aurkitzen da izaro au. Pilipi'tik urrik asko gelditzen da-izaro au; ango izaro guztielatik urren.

níre aberriaren udiskide,- Burta'ízat ezagutu nagizue! (Alde dagi, arerioari yarraika. Norbaitek benderaturik, yausi egiten da Kato Gaztea).

LUKILI.—Kato Gazte zindo-zindo ori, lurrean ago? Bo, Titini hestean adoretsu yausi az. eta Kato'ren seme azanazkero, begirunerik eta lotsarik zor yak.

I GUDARIA.—Men egik, ostean ilgo aut,

LUKILI.—Ilteko bakarrik men egingo yoat! autso dirua bertatik il nagikan. (Cirua opatuten dautso). Burta il egik, eta ornenez apaindu egik ire burual

I GUDAR.—Sz, a ez dogu il bear, atxilo zindo da a.

II GUDAR.—Leku, eee! Burta goatu dogula esan Andoni'ri.

I GUDAR.—Neuk eroanga yeutsat barrla, Eman yutok gudalburua,

ANDONI aurrera.

Goatu dabe Burta, goatu dabe Burta, ene yaun.

ANDONI.—Non yagok?

LUKILI.—Azke, Anioni; azkerik asko dago Burta; zuri ziurtzat esaten atometan naz arerioak iñoz ez duuela bizirik goatuko Burta zindoa; yainkoak yagongo al dabe olango lotsari itzaletik! Zuk a idoro dagizunean, hizirik edo Uik, Burtu'ri duyokionez idoroko dozu.

ANDONI.—Burta ez dok au, adiskide; baña, ziur ago, bape git^iagotzat ez yoat au; okerrik egiteka eukl gizon au, begirunez erabili'egizue; adiskidetzat gurako neunkez nik onango gizonak, areriotzat baño geiago. Aurrera zoaze, eta ikusi Burta bizirik ala ilik dan. eta yuzoten dun ororsn barri Otabi'ren txoznara ekarri. (Alde dagíe).

V AGERLEKU.-Gui ategiko beste arlo bui,

BURTA, DARDANI, KILTA, ESTARTO ts BOLU. MÍNI aurrera.

BURTA.—Erdu, adiskide-onáakin urriok, atseden artu at:: onen gonean.

KILTA.—Zuzia erakutsi dau Estatili'k urrinetik, baña *ez* da etorri atzera, ene yaun; edo goutu *náij* il eyin dabe ti.

BURTA,—Yezarri adi, Kilta; il itza dok or zabulzubal dabilena; ori dok oruin eurrez eta deslai dahilena, Entzuík, Kiito. Belarrira txutxu-putxu).

KILTA.—Zer? Nik, ene yaun?

BURTA.—-Orrazkero, ixiiik, itzik bez.

KILTA.—Lenago neure turua il.

BURTA.—Ik entzuik, Dardani! (Belarrira txutxu-putxu).

DARDANL—Jíik egln olango egitekorik?

KILTA,—Oi Dardanil

DARDANI.—Oi Kilta!

KILTA.—Zer eskatu dausk Burta'k?

DARDANI.—Bera il dagidala, Kilta. Begira, ausmerka yaragoiok.

KILTA.—Lorrez beterik yagok orain ontzi zindo ori, eta ganaz egiten yeutsok begietatik he.

BURTA.—Bolumini on, ona ater; Itz bat entzuik.

BCLUMINI.—Zer diño nire yaunak?

BURTA,—Ba, auxe, Bolumini; gabaz birritau agertu yatak Kaisar'en irudia, Sardits'en bein, eta bart emeii Piiipi'ko gudategian; nire tertzioa eldu dala ba-yakiat.

BOLUM.—Oiangorik ez, ene yaun.

BURTA.—Bai, Bolumini, nik ez yoat eldu danaren zalantzarik. Ba-dukusk, Bolumini, zelan doan mundu au; auts eginda itxi gabez gure arerioak, birrin-birrin eginik; (Urrineti. ko guda-otsak) burubidetsuago ta aingarriago dok guk geuk yauzi egitea, aik gu bultzan arte etxon buño. Bolumini on, gomutan dok ik gu biok irakustegiru batera ibiliuk gareulu; egin-eginean be, aldi atatiko aure urteko maitutasun zarrarren, arren, eutsin egiok nire ezpatearl bere esku-lekutik, ni utaru bete-betean yoan arte.

BOLUM.—Ene yaun, adiskek egitekorik ez do ori. (Oindio be guda-otsak).

KILTA.—Jgesi, igesi. ene yaun; emen etxoterik ez dago.

BURTA.—Agur iri; eta iri; eta irl, Bolumini. Estarto, lo egon uz 1 bitarte oso onetan; agur iri be Estarto. Aberkideok, pozik dot biotza, oruin arte nire bizi guztian, nitzako zintzo izan ez dan gizonik idoro ez dadalako. Galdu dogun egun onek aintatsuago ta ezagunogo egingo nau, garaite zirtzil orren bidez Otabi ta Marka Andoni egingo diran baño. Orrazkero, bertatik agur zuoi, Burta'ren miñak bere bizitzearen edestia lorri-larri omaitu dau-to; nire begien ganean dot gaua; otseden-eske dodaz aldi onetara eltzeko neksaz besterik izon *ez* daben nire azurrak.

(Guda-ots. Barruan gedar: "Igesi, igesi, igesi!")

KILTA.—Igesi, ene yaun, igssi.

BURTA.—Alde emendik! zuon yarrai noake ni. (Alde dagíe Kilta, Dardaní ta Boluminí'k) Estarto, arren-bai-arren, ire yaunaren alda-

menean geldiiu *aál* i; letsa oneko lagun az 1; beti be zintzotasun-sundatxorik izan yok ire biziak; orrazkero, nire ezpateari euisin egiok, ta arpegia beste alderatu egik, ni bete-betecm atarantza noan bitartean, Ez ete dok egingo orrenbesterik, Estarto?

ESTAR.—Lenen zure askua ekastazu; agur, ene yaun eta ugazaba.

BURTA.—ñgur, Estarto on, -Kaisar, geldl ago orain; gogo onen erdiagaz be ez indudan il nik.

(Bere ezpatarantza doa arin eta bete-betean, eta il agiten da).

(Guda-otsak. Atzeraketea. Otabi, Andoni, ta Gudarostea aurrera; Mesala ta Lukili atxiloturik).

OTABI.—Zein glzon da orí?

MESALA.—Nire ugazabaren otseina. Estarto, noii dol ire uguzuba?

ESTAR.—Zuon bendekotasunetik azke, Mesala; suaz besterik ezin egin izango dabe agaz irabazleak; beraz bestefc ez dau benderatu Burta, ta beste gizonek ez dau omenik aren eriotzeagaitik.

LUKILI.—Olantxe idoro bear zan Burta. Nire eskarrak iri, Burta, Lukili'n esana ik egiztau dokalako.

OTABI.—Neuk artuko dodaz Burta'nak Isan diran otsein guztiak. Lagun, ire aldia nirean ez ete dok egingo?

ESTAR.—Bai, ni zure izatea gurago ba'dau Mesala'k,

OTABI.—Orretara yarri adi, Mesala on,

MESALA.—Zelan il dok ire ugazaba, Estarto?

ESTAR.—ñren ezpateari eutsin dautsat nik, eta *a* aiara yoan da arin eta bete-betean,

MESALA.—Otabi, orrazkero zure yarrailetzaí artu egizu ori, nire ugazubari atzenengo otssintzea egin dautsalake.

ANDONI.—Au izan zan eumk guztietatik Erromarrik zindoena; Kaisar'ganako bekatxez egin eben onez beste zinkide guztiak; au bakarrik alkartu zan aikaz asmo onez eta guztientzako on-guraz. Orban-akatsik bagako izan da onen bizia; eta onegan onen zer guztiak alkarregaz egoki-egokiz eta neurri-neurriz nastaurik egon dira-ta, Berezkoak buruu zutundu tu ludi osoari gedar au egin eikion "Áu dezue gizon!".

OTABI.—Onen onindarrai dagokíenez, lotsarik andiena izan dagiogun eta ileta-araudiak eskatuten dauen oro egin dagiogun. Nire txoznan etzango dira onen azurrak arratseon, gudariri dagokionik ondoen eta zerraldo txairoan. Orrazkero. atsedenerako dei egin gudategian; eta alde dagigun, egun zeriontsu oiietako omenak banandu daiguzan. (Alde dagie).

Salta'n 19B8-IX-28'gnean.

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK:

Itzotatik batzuk, edo geienak Arratia'n ezagun-ezagunak dira, b«ña beste euskalgietan ezezagun izan ledikez-eta, irakurlearen lagungarritzat azaitzen doguz batzuk emen. Itz barri askotzarik ez dozu aurkituko lan onetan, eta bat edo beste izatekotan, zeregin andirik ez dozu izango eurak aituten. Ez okertu musturrik itz barrien aurrean barri diraiako bakarrik. Euskerea bizi da oraindik, eta landara biziak uda^arrian eta udun kimu barririk emoten dau, aían be landarea lur mardulean bere gogara ba'dago. Umerik eta ume mardorik emon-ezin bestean atsoturik ete dogu, ba, gure izkuntza eder au? Oiangorik ez daustazua sinistuazoko eusktrea bizi dan bitartean. Zarrak barriztau eta ume barriak egin, mundu onetan ume barrieutzat lekurik dagon bitartean. Egi garratz-mingotsa esatelto, "iiving room" geiegirik ez dau gure euskereak, baña ge.iituten yakon ar^ot:;;a giyau,-arro-arro egin eta ondo satsitu dagigun, ariotxo orretan igali mosu eder eta umatu-umatuak ugari emon dagizan.

Itz barriak, zarrak eta abar dirala-ta, amaikatxo kirtenkeri ta sentzunbakckeri entzun eta idazten da gure artean. "Quousque tandem...? Al dauenak al dauena begi ta auzokoari beti kiski-kaska ekitea baztartu begi. Asko da. Bai ete? Bai, zera! oindiño be agertuko da nor^ait haño geiago bere betiko matrakeagaz. Zer egingo? Yo dagiela matrakea, mundu guztia gortu arteño, atsokeriakaz beti itili bear dabenok. Zetan ekin? Bago!

AIAZO.—Zerbaiteri gañetu dakion, txakurra zirikatu.

ALATZ.—Itz barri. Yaungoikoaren al andia diragarskun zercait. Euskal-gaiztoz "mirari".

AUSI.—Itz au Zeanuri'n beir.tzat bizi da, ta "yan" itzari erantsita erderazko "digerir" aditzak esan gura dauena bera esan gura dau. "Aiarie egoan, urrean, ausi barik" (parece que estaba sin digerir la cena) entzun neuntsan bein nire ama zanari, ta or erderaz imini dodana esan gura eban.

AU3I.—Beste euskalgietako "zaunka", txakurraren gedarra.

AZOKA.—Yakiak eta cstantxeko zerak 3algai dagozan erriko leku agiri naiz legorduna. Saltzalla bat bakarrik ez da egoten azokan, asko baño, bakotxa bere lekuan.

BARANO.—Inguru.

ENTZITE.—Euskal-gaiztoz "konpiantza".

IDAZNARRU.—Zerbait bertan idazteko narru ulduzko papel-antzeko zera.

INTSIGIKOR.—Intsikor be esan leike. Zerbai. teri errez eta berez ezarten yakona. Esaterako, intsikor da buztina; bai lapatxa be. Orain "intsikor" ordez "eraskor" erabilten da Bizkaya'n, baña "intsigi" atíitza galdu dalako da ori. Azkue'k bere iztegian "intzigi" ei dakar Otxandio'n arturik, baña Otxandio'n eta Arratia'n "z" ta "s" bardin ebaten dira-ta, ortik sortu zan Azkue'ren okerra. "Intsigi"ri orpoz-orpo yarrai gakiozan eta dakusgun nora eltzen garean. Ara: Intsigi-Itdgi-Itsiki-It:;iki, ta or dozu beste euskaikien "ibtiki" ori.

IKURRATZ.—"Sillu" euskel-gaiztoz.

IRRIKITU.—Zulo luzanga-bedar. Beste nonbalten "irris'.u" esan oi da.

ITZEBAGI.—Baita Itzekarro be. Lurreko, naiz eskuetako brintza. Ozpelak geien baten eskuetan itzebagiak egiten dauskuez; eta eulondoko eguzkiak lurrean itzekarroak egiten dauz, lurr-azala urraturik. Irrikitua bera be itzebagia da, baña irrikituan argia alderik alde ikusten da, ítzebagian ez.

ITZARO.—Itzaldi. Bizkaya'n eurrez ebalten dira "berbaro" ta "berbalots" itzak, itzaldi ta itzaldi-ots esan-gureagaz.

ISKILLO.—Iñor ilteko, naiz norbere burua yagoteko erabilten dan edozer. "Arma" euskel-gaiztoz. Beti aldean doguzan gure iski-Uoak gure ukabilak, atzazalak eta ostikadak dira, baña oneik baño iskillo oberik asmau dau gizonak gizaldiak gizaldi.

IZKORA, IZPERA.—Itsasoko urak Izpazterrerantza edo legorrerantza datozanean "izkora" dala esaten dogu; izpazterretik igesi doazanean, ostera, "izpera" dala.

KAKCKETA.—Argiaz daragoiogunean, "kakoketa" itza erderazko "reflexión" dalakoa iragarteko darabilt. Argia, bidean zerbait yota, atzera datorrenean kakotu egiten da ta, Pisia'n erakusten danez, arakoan eta onakoan zutiko lerroagaz egiten dauzan lertzokoak biak dira bardinak. Orixe egiten dau argiak izpilluan.

LENGAI.—!tz barria yatsu au, irakurla. Gure inguruko erriak lur, ur, egurats eta suari lengai eresten dautse, beste zer guztiak orreitatiko diralako-edo.

IOTSORTASUN.—Zerak geitu bagarik gitxitutea da lotsortasuna. Arrokeriaren ourkako dn lotsortasuna.

TXOZNA.—Taket Iuze bat sartu lurrean, taketaren burutik, tellatu-antzera, aldea guztietarantza oyalen bat zabaldu ta oyal orren ertzak lurreko taketai esturik egiten dan legor edo estalpea, naiz orren antzekoa da txoznea. Zaitegi bizkorrak "kapar" Itza darabil esangura bardinagaz.

YAKINKIDETZA.—Itz barria au be. "Kontzentzia" euskel-gaixtoz. Itz au sortzeko, "Concius" eta "conscientia" latel-itzak aztertu dodaz, eta lenengoaren ordez "yakinkide" darabilt euskeraz, bigarrenaren ordez, ostera, "yakinkidetza".
Itzok daben ona zera da, zerbait esan gura dauskuela, "Kontzentzia"k barriz euskeldunoi ez dausku ezer garbirik eta argirik esan gura. Ots utsak dira.

YASAN.—Gogoko ez yalcuna epez, naiz eperik baga eroan. Itz zarra, Axular'ek eurrez daraiilena.

YASANAK.—Gure biotzean zirkin edo igikune batzuk geuk gura ez dogula izaten doguz, esaterako, leza sakon-ertzean gagozanean, otoz-etoan gure aurrean etse. leoi, naiz beste olango arerioen bat agertuten yakunean, guk geuk ezer egiteka. gu bildurtu ta buruko tu narru osoko uleak yagita yarten gara, Yasanak eresten dautsegu olango biotz-zirkinai, guk "yasan", eroan bear izaten doguz-eta.

Oneiz ganera, beste itzen batzuk *he* baledike zuri ezezagun egitea, irakurla maite, baña ez ikaratu orregaitik. Enozu uinerík, banu irakurgei askotan neuk be arderaz itz asko aurkituten dodaz ezezagun yatazanak, zer esango olango irakurgeietan erdeldun baserritarrai eta baserritar ez diian askori zer yazoten yaken? Guk euskeldunok irakurri-ala aurkituten doguzan itz guzti-guztiak zeatz aitu gura geunkez, ta ezina da ori; guztiok ez gara edozetan yakitun, iñor bez. Bakotxak bere arlotxoan dakigu zerbait, batzuk beste batzuk baño goitxoago, baña geien dakigunok be ez dakigunaren aldean ezer be ez dakigu; utsa da guk dakiguna, eta dakigunetik erdia erdi-yakinean. Nok egiteko kukurrukurik dana dakiala-ta? Ikasiago ta astoago gareanik te ezin esan, baña ez dogu zegaitik arroturik, Yaungoikoa bakarrik da oro dakiana. Ipsi gloria in saecula!

'Amen" esan bearko emen.

ANDONI TA KELOPATERE

(ANTONY AND CLEOPATRA)

ANDONI TA KELOPATERE

(ANTONY AND CLEOPATRA)

ANTZERKI ONETAKO LAGUN ANTZEZTUAK

M. ANDONI
OTABI KAISAR (Octavius Caesar) — Iru-agintzakl deak.
M. EMILI LEPIDA (M. Aemilius Lepidus)

Sesta PONPEI (Sextus Pompeius).

DOMITI ENOBARBA
BENTIDI
ERO
ESKARA (Scarus) } ANDONI'ren adisklde,
DERKETA (Dercetas)
DIMITIR (Demetrius)
PILO (Philo)

MEKAINA (Mecaenas)
AGIRPA (Agrippa)
DOLABELA (Dolabella)
PORKULEI (Proculeius) — KAISAR'en adiskide.
TIREU (Thvreus)
GALA (Gallus)

MENA (Menas)
MENEKARTA (Menecrates) \ PONPEI'ren adiskide.
BARRI (Varrius)

TAURU, KAISAR'en Gudalbuiu nagusi.
KANIDI, ANDONI'ien Gudalburu nagusl.
SILI, BENTIDI'ren gudarosteko agintza-gudari.
EUPORNI (Euphronius), ANDONI'ren Ordezkari KAISAR'ganako.
ALEXA, MARDEN, SELEUKA, ta DUMEDA, KELOPATERE'n Otsein.

AZTU bat, Ergel.

KELOPATERE (Cleopatra), Algito'ko erregeno.
OTABE (Octavia\ KAISAR'en arreba ta ANDONI'ren emazte.
KARMENE (Charmlan) eta IHE (Iras), KELOPATERE'n neska otseln.

Aglntza-gudarlak, gudariak, Geznoilak, eta beste otseln batzuk.

AGERLEKtT.-Sakabanaturiko; Erroma-Aginterrlko alnbat lekutan.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-ALEXANDRIA. KELOPATEHE'n Yauregiko leku.

DIMITIR eta PILO aurrera.

PIL.—Bai baña neuiritik gorako dok gure gudalbuiuaien kutunkeri au: gudari-lerro ta guiaii-taldeak aztertu ta arakatzen ebazanean Marte guda-koskoldunarenak bestean argi ta dizdiz egiten eben aren begi ederbikainak, euren ikusmen eta zaletasun guztla betarte baltzeran bat ikusteko yarabillek orain: guda-ekite gogorretan aren bular-koskoleko lokaniak eten eta urratzen ebazan aren gudalbuiu-biotzak galdu yok bere olde ta giroa, eta auspotu ta axetallutu egin dok orain, aigitotar lizuntiren lizunkeria ozkirritzeko. (Guda-adarrots barruan). Begira, begira non eta nolan datozan; oar

akío eta or ikusiko dok munduaren iru zutikoetatik bat dana emagaiduren ergel eginik: so egin eta ikusi egizak!

ANDONI ta KELOPATERE aurrera, euren Yarraigoakin; KELOPATERE'ri arpegira axe emoten Irenduak.

KEL.—Benetan maite ba'nozu, zenbat jnaite nozun esaidazu.

AND.—Urri ta txiro da zenbatu leiteken maitasuna.

KEL.—Neuk ezarriko dautzut mugea, noragiño maite bear dozun yakin dagizun.

AND.—Zeru barririk eta lur barririk bearko dozu orrazkero.

Otsein bat aurrera.

OTS.—Erroma'tiko barriak, ene yaun on.

AND. Aspergarri ta latz yatazak barriak: euren mamia ekadak.

KEL.—Ori ez, Andoni, entzun egizuz: ba-leiteke Pulbe asarre izatea; naiz, nsk daki bizarra urten-aginik dauen Kaisar'ek bere agindu zorrotzen bat bidaltzen dautzunentz "Egik au, naiz ori; goatu egik urli errege-erria ta azkatu egik sandi erregeerria; egik orrako ori, ostantxean gaiztetsi egingo augu-ta".

AND.—Olangorik! ene kutun ori!

KEL.—Ba-leiteke! bai, eta egi-antz antzeko da izan be: eztozu egon bear emen luzaroago..., etorri da Kaisar'gandik zure agintzabagetzea; entzun, ba, Andoni. Nondik da Pulbe'n agindua? Ala Kaisar'ena? Ala biena? Dei egiezu geznariai. Arpegia gorritu yatzu, Andoni, ni Aigito'ko erregeno nazan bestean seguru; eta Kaisar'en aurrean buru-makurtzalla da zure oJol ori: ala zuk olango lotsa-bendekotasunik iragarten dautsazu Pulbe'ri, ak bere min zoliz asarre egiten dautsunean? Datozala geznariak!

AND.—Urtuko al da Erroma Tiber'ko urretan, eta yausiko al da lege-erri mako-nasaia! Au da nire lekua. Buztin baño ezUra errege-erriak; bardin bazkatzen dauz abereak eta gizona satsezko gure lur onek: onan eragotea do bizitzako zindotasuna (Besartean estututen dau), gu lango bikotek, gu lango bik al dabenean; eta onako onegazko, mundu guztiari agintzen dautsat, zigorpean, gu langorik eztagola autortu dagiala.

KEL.—Ori bai guzur lango guzurtzarra! Zegaitik ezkondu ete da au Puibe'kin, a maite ez izateko? Sinisperarena egingo dot olangorik izateka; beti izango da Andoni Andoni berbera.

AND.—Bai, baña Kelopatere'k eragina. Orain, Maitasunaren maitasuna-arren, eta agazko ordu gozoak-arren, eztagigun galdu astirik eztabaida latzetan: gure bizitzako unetxorik be elitzake igaro bear zelango edo alango cttsegin bagarik orain. Ze atsegin-bide dogu arrats onetarako?

KEL.—Geznariai entzutea!

AND. Ken, ken, erregeno burrukari! edozer dagokitzu zuri: agirika egin, barre ta negar egin; edozein biotzaldi alegintzen da zugan bere burua ederreztau ta arrigarri egiten! gezr.aririk eztogu bear; zeuez beste geznaririk ez, biok bakarrik ibiliko gara aldarrai etxartebideak zear, erriaren oitura edo ekanduak ikusten. Erdu, ene erregeno; olangoren gurariik iragarri zendun bart; -ez egin txitik guri. (ANDONI'k eta KELOPATERE'k alde euren Yarraigokoafcin).

DIM.—Orren gitxitzat esten ete dau Andoni'k Kalsar?

PIL.—Batzuetan, yaun, Andoni Andoni'rlk eztanean, labur eta urri geldjtzen da Andoni ak bear leuken zelangotasun aundi orretan.

DIM.—Minik eta tamalik asko dot orrek bere yardunbideaz bere aurka Erroma'ko guzurfiak esan daroena ontzat emoten daueiako: baña ba-dot itxarorik biar zer obarik, egite obarik izango dogula. Ondo lo egin! (Alde dagie).

II AGEHLEKU.-ALEXANDHIA. KELOPATEHE'n Yauregiko beste leku.

KARMENE, IRE, ALEXA, ta Aznsa aurrera.

KARM.—Alexa yaun, Alexa ezU, edozer zaran Alexa, ia edozetan oso zaran Alexa, nondik da zuk erregenoari atzaz ainbesteko gorapenak egin zeuntsazan aztua? Zuk diñozunez, bere adarrak lora-sortaz apaindu bear leukezan orrako senar ori nor dan al nenki!

ALEXA,—Aztu...

AZTU.—Zer gurozu, yaun?

KARM.—Au da arako gizona, ala? -Zu zara, yaun, zeren barri ddkiana, ala?

AZTU.—Zertxobait irakurri daiket izadJko ixilkizun zenbagatxezko idaztian.

ALEXA.—Erakutsi egiozu zure eskua.

ENOBARBA aurrera.

ENOB.—Arin ekarri oturuntzea, Kelopatere'n

esasunaren alde edateko ardaorik aske be ekarri.
KARM.—Yaun on, zori onik emoidazu.
AZTU.—Zori onik emon eztot emoten nik, aurreztik igarri baño.
KARM.—Orrazkero, arren, igairi egidazu olan. goren bat.
AZTU.—Zarean baño askozaz ederrago izango zara oraindik.
KARM.—Aragiz esan gura dau orrek.
IRE.—Ez, zartu zadizanean zure burua margoztau egingo dozula baño.
KARM.—Zimurrak ez al dauste ilxiko olangorik egiten!
ALEXA.—Ez egizue artegatu orren aurreztlko yakituria: adi egon.
KARM.—Ixilik!
AZTU.—Maite zabezan baño maiteago izango dozu
KARM.—Ori baño gurago neunke ardaoa edanez nire gibela berotu.
ALEXA.—Tira, tira, entzun ogiozue.
KARM.—Yaun on, betoi zoii on langO zori onen bat! Eguerdi-aurre baten iru erregekin ezkonduko *ál* naz, eta iruretatik alargun gelditu: semerik Izango al dot berrogei ta amar urtegaz, eta seme orri Yudarr-erriko Eroda'k omen egingo al dautso; Otabi Kalsar'ekin ezkonduko nazala ta nire etzanderea nire kidetzat izango dodala igarri egidazu.
AZTU.—Etzara biziko otseln zatxakozan anderea baño luzaroago,
KARM.—Ori, ori! Ikoiik baño maiteago dot luzaro blzltea,
AZTU.—Ikusl ta zelango dan ikusi be egin dozu beglra dagotzuna baño zori obarik.
KARM.—Orrazkero, nire seme-alabak eztabe izango, urrean, izenik: arren, zenbat seme ta zenbat alaba Izango dodaz?
AZTU.—Sabel ba'Iitz zure gurari bakotxa, eta ernari gurari bakotxa, milla bider milla bai.
KARM.—Ken ergel ori! sorgin zarealako azkesten, parkatzen zaudaz.
ALEXA.—Zure gurarien barri zure oeko izarak bakarrik dakiela uste dozu zuk.
KARM.—Tira, Ire'ri esan orain bere zoria.
ALEXA.—Guztiok yakin gura doguz gure 20-riak.
ENOB.—Nire zoria, ta gutarik geíenena, gau onetan mozkorturik etzango gareala da.
IRE.—Bada neskagarbitasuna diragarren ezkuazpirik, besterik ezpa-diragar be.
KARM.—Bai, ganaz dagianean Nil ibaiak gosete diragarren legetxa.
IRE.—Tira, oe-lagun zakar ori, i ez augu azturik.
KARM.—Ba! ezkuazpi labanek eraarltasunik ezpa'diragar, ni be enaz gauz nire belarriaii atz egiteko be. Arren, asteguneko zori onik baño ez egiozu igarri ta lragarri orri.
AZTU.—Alkarren antzeko dira zuon zoiiak, bardinak.
IRE.—Zelan baña, zelan baña? Zertzelada geiagorik, garbitasun eta zeaztasun geiagorik emoidazu.
AZTU.—Esanda dago.
IRE.—Orrek baño atzondo bateko zorl obarik be ez ete dot nik?
KARM.—Nik baño atzondo bateko baño zorl obarik ez izatekotan zuk, zetan autuko zeunke zori oba ori?
IRE.—Ez nire senarraren surrean belntzat.
KARM.—Zeruak atonduko al dabez gure gurari txarragoak!! Alexa... -orren zoria, bai, orren zoria! Ene! Isis ezti, emakume ezibagakokin ezkonduko *a* da ori, arren! Orrako ori be ilgo al yako, ta okerragorik emongo al dautsazu! eta okerragoren urren are okerragoiik emongo al dautsazu, eta azkenengoa ilotira barreka yarraiko al yako berrogei ta amar fcider adardun izango dan orri! Isis on, emoidazu arren onetako nire eskakizuna, ori baño zer ofcerik niri zuk ukatuarren; Isis on, arren eta arren dagitzut!
IRE.—Olantxe. Yainkono maite, entzun erriaren arren ori! eta izan be, gizon zindorik emakume nasaikin ezkonduta ikustea biotza austeko dan legetxe, negargarrl be negargarri da dollor zitalik aiardun eztala ikustea: orrazkero, Isis maite, egokitasunaren arauz, dagokion zoila emoiozu oni!
KARM,—Olantxa.
ALEXA.—ñia! orreln eskuko ba'lltz nl adardun egitea, orrexegaitik baño ezpa'lltz be, emagaldutu egingo litzatekez oneik, bai orixe!
ENOB.—Ixilik! emen dator Andoni.
KARM.—A ez; erregenoa da datorrena.

KELOPATERE aurrera.

KEL.—Ikusl ete dozue nire yauna?
ENOB.—Ez, andera.
KEL.—-Ezta izan emen, ala?
KARM.—Ez, andera.
KEL.—Gogargi ta olgetarl egon da; baña beingo baten etorri yako burura Erroma' zko gogaketa.-Enobarba...
ENOB,—Andera!
KEL.—Zoaz aren billa, eta ekarrl egizu ona. Nondik da Alexa?

ALEXA.—Emen, zure otseintzarako. Ur da nire yauna.

KEL.—Eztautsagu egin bear yaramonlk: erdu nikin. (Alde KEL, ENOB., KARM, IRE, ALEXA, ta AZTUAK).

ANDONÍ aurrerct, Geznari batekin, eta Otseinakin.

GEZ.—Zure emazte Pulbe izan da gudu-arlora lenen urtsn dana.

AND.—Nire anai Luki'ren aurka, ezta?

GEZ.—Bai, baña gudaketea beingoan amaltu da, eta alkarren adiskide egin dabez geroko zerak, eta Kaisar'eri erasoteko batu dabez euren indarrak; orraiUño, Kaisar'ek zori obak izan-eta, lenengo ekitean aik baño geiago izan-eta, Itali'tik uxatu dauz.

AND.—Tira ba, barri txarragorik?

GEZ.—Barri txarrak, gatxa erantsi ta gexotu egiten dabe eurak dakazana.

AND.—Barriok ergel, naiz kikilen bategazko ba'dira bai. Aurrera: -Yazok eztau zerikusirik nigaz. Onangoxe nozu ni; zurikeritan dabilkiianari legetxe entzuten dautsat nik egia esaten daustanari, esanean eriotzea bera ba'dago be.

GEZ.—Laben, -eta barri gogor da onako au, Laben, Partitarrezko bere indarragaz, EuIrates'eraño yabelu da Asia'z; Siri'tik Lidi ta loñi-raño aztindu dau axeak aren ikurrin irabazlea; bitartean...

AND.—Andoni, esan gura dozu zuk...

GEZ.—Ene! ene yaun!

AND.—Argi ta garbi esaidazu, ez ibili aikomaikotan eta kezkatan guztien agotan dabilenik esateko; Erroma'n emoten dautsoen izenez aitatu egizu Kelopatera; Pulbe'n esakerak erabili egizuz asarre egiteko; egiak eta gaiztakeriak al daben azkatasun osoa erabili egizu nire utsai akar eta asarre egiteko. Ene! bedar txarrak azten dauz gure buru azkarrak alperkerian geldi dagonean, baña garia burutzea legetxe da guri gure okerrak esatea. Ondo abil iri barriro dei egin-arte,

GEZN.—^Zeuk noz-gura arteño. (Alde dagi).

AND..—E! betoz orain Sikion'etiko barriak! eee! datorrela ona!

I OTS.—Sikion'etíko gizona... ba-dago emen olango gizonik, ala?

II OTS.—Zure ederretsiaren begira dago.

AND.—Datorre!a gure aurrera. Urratu, eten egin bear *doíaz* Aigito'ko lokarri sendook, edo ostantxean nire burua galdu kutunksritan...

Beste Geznari bat aurrera.

Nor zauguz?

II GEZN.—Ilik da Pulbe zure emaztea.

AND.—Non il da?

II GEZN.—Sikion'en; zer onek dakar aren gexoaldi luzearen, eta yakingarri yatzun ganetikoaren barri. (Idazki bat damolso).

AND.—Bakarrik itxi nagizu (Alde II Gernariak). Yoanik da emakume aunditan be aundi! Orixe zan nik gura nebana be: atzera euki gura izaten dogu sarritan, ezespenez, aintzakotzat artzeka, gugandik yaurtin izan doguna; lengoaz besterako egiten yaku dogun atsegina, bein bira eginaz, gitxiagotzen, baretzen yakunean: yoan danean da on: oriik zear bultzaka egotzi dausn eskuak ierak atzera eratorri gura leuke no a. Alde egin bear dot liluratzen nauen erregeno onegandik: dodazan gatxak baño amar milla bider kaltegarriagoren ganean ezarrita, eurak berotzen daragoio nire alperkeri-nagikeriak, gatxok yaio dadizan.-Eee! Enobarba!

ENOBARBA aurrera barríro.

ENOB.[T]—Zer yatzu eder, yaun?

AND.—Alde egin bear yoat emendik, eta arin egin be.

ENOB.—Ba! orrazkero, erail egingo doguz gure emakumek: ba-dakigu olango txerarik eza erailkor be erailkor egingo yakela: guk alde egitea ba'datorke ganera, eriotzea da orrei yazoko yakenaren itza.

AND.—Yoan egin bear yoat nik.

ENOB.—Besterik ezin ba'da, il dadizala emakumeok: biotz-gogorkeri itzal litzateke orreik utsagaitik bertanbera iztea; eta orraitiño be, euron eta zer aundiren baten bitartean aurkituazkero, ezebeztzat etsi bear geunkDZ emakumeok. Onangoren usainik txikienik be artu-ala, bertatik *Vqo* da Kelopatere; ogei bider be ilten ikusirik dot a ori baño garrantzi gitxiagoko zeragaitik: ari atsegingarri ta pozkarri egiten yakon zeren bat daue-!a eriotzeak uste dot nik, orren arin il gura dau-ta.

AND.—Gizonek uste leien baño marrotsuago dok a.

ENOB.—Ai ene, yaun! ez, olangorik ez; maitasunik osoenaren zerik onenezkoz eratuak dira aren biotzaldiak: ezin esan geinke axe ta euri diranik aren irtziri ta negarrak, egutegietan agiri diran ekaitz eta zurrunbilloak *kaño* aundiago dira-ta: orrako ori ezin izan ledike marrokeririk agan; olangorik ba'litz,

Yupiter'ek besteko euriterik egiteko gauz *da a.*

AND.—Ez al neban eguño ikusi emakume ori!

ENOB.—Ene, yauní okrugorik egiteketcm, ikusteka itxiks zeunkoan zer arrigarri bat; eta olangez zure buruo onetsl ezik, galdutzati litzake zure ona etorteci,

AND.—Ilik dok Pulbe.

ENOB.—Zer esan dozu, yaun?

AND.—IIilc dala Pulbe.

ENOB,—Pulbe!

AND.—IIik.

ENOB.—Ba, yaun, esker onezko opariren bat opatu egiezu yainkoaí. Gizoni bere emaztea kentzea yainkoai eder yakenean, zsruan yostunik ba-dago!a erakuslen daufsoe gizonari; eta orrako orrek nasaitu egiten dau gizona, yantzi zarrak urratu ta ezereztu diranean barririk nok egin ba-dagola gogoratuaz. Pulbe'z beste emakumerik ezpa'lego, zartada gogor litxakizu yazo yatzuna, eta negargarri litxalritzu: poza dau burestuntzat zure naibaga orrek; ba-dozu gona barririk zure emakume-atorra zarraren ordez: eta, izan be, ba-dau kipuleak urik zure nníbaga au ezalzeks lain.

AND.—Lege-errian ak sortu izan dauen erabagikizuna *ezla* ni anáik urrin egoiekorik.

ENOB.—Eta zuk emen sortu dozun arazoa fcs ezin egon leiteke zu bagarik, batez be Kelopatere'na, onako au zu emsn egoteari loturik dage-ta.

A.ND.—Erantzun arinik *asko* dogu. Gure gudalburuai iragarri egiezu gure asmoa. Emongo dautsat eregenoari iraduzko çjure alde egitearen zegaitien barri, eta aren ederretsia iritxiko dol guk emendik alde egiteko, Izan be, Pulbe'n erictzea bakarrik ezta guri arako dei la dei dagokuna, gei astunagorik baño; Erroma'ko gure aldeko adiskide asko be gu ara yoateko eske dagokuz euren idaskiz: eupada egin dautsa Sesta Ponpei'k Kaisar'eri, eta itsasoen yabe da; gurs erri aláakerra, beti te beranduegi ezik aingarri danik maite eztciuer.a, Ponpei Aundiaren entzute ki garaite guztiak aren semearen ganeau imintan asita dago; eta seme au gudaririk gorengotzat dago, bere kemen eia adoroagaitik baño geiago fcere izen eta alagaitik; eta olangotzat dagon artean, egunak etorri egunak yoan, kalts aundirik etorri Iekikeo munduarí; kalfe aundiak dagoz aorizen, eta eskerrcsk oináiño zaldiaren ule kmgo baño eztirala (1); bizi dira, bizi, baña oindiño ezlabe edenik. Iragarri egiezu gure guraria gure bendekoai, eta esaiezu, emendik arin alde ecjín-bearra dcgula.

ENOB.—Egingo dot orraico ori (Alde dagie).

III AGERELKU.--ALEXANDRIA, KELOPATERE'n Yauregiko leku.

KELOPATERE, KARMENE, IRE, ta ALEXA aurrera.

KEL.—Nondik da a?

KARM.—Arrazkero eztot ikusi,

KEL.—Ikusi *a* non dan, norekin dagon, eta zetan daragolon: ez iragarri nik bidali zaudazanik; gotilun aurkitu ba'dagizu, yantzan daragoiodala esaiozu; gogargi ba'dago, bapatean gexotu nazala esan; arin egin yoan-etorria. (ALEXA'k alde).

KARM.—Andera, nire ustez, zuk a maite-maite ba'dozu, zuk dagizuna ezta agandik beste ainbests iristeks biderik.

KEL.—Zer egiteko nik, estagidanik?

KARM.—Amore egiozu edozetan; elzakioz izan ostekari ezetctn be.

KEL.—Ergelek legetxo irakasten dozu..., a galtzeko litzake on bide ori.

KARM.—Ez egizu zirikatu orrenbestean; arduraz ibili, arren. Gerora, iguin eta gorroto izaten dautssgu sarritan, len izan doguzan kezka ta bildurrai. Baña emen dator Andoni.

AMDONI aurrera.

AND.—Tamalik asko emoten daust nlre aamoak zuri irogarri-bearrak...

KEL.—Lagun zakidaz emendik urteteko, Karmene raaite; yausi egingo naz; onako onek ezin iraun lei onen luzars; berezko indarrik ezto, gauz izango onenbestekorik yasateko,

AND.—Orain, ene erregeno maite-roaite...

KEL.—ñrren, zoakidaz orrago.

AND.—Zer yazoten da?

(1) Ingelandarrena bakarrik ezta sugeak zaldí-uleíik, ,naiz bestetariko uletik sortzen diranazko siniskeria; gure Euzkadi'n be bizi da sinískeri berberori. Mutiko nintzala, abere-bi-Ua Andamaurtu'tik zear ibíli ondoren, Ai'rabopetik Erbilanda'ra biíartean, lagun nintxakon nire osabeak u!e zuri baí begiztau eban urpotxolo baten-eta, iixok entzun neutsazan nire osaba ari: "Sugea dago sortzen ulle onetatik".

KEL.—Zure begirakunetik digart barri onen batzuk artu dozuzala. Zer diño emakume ezkonduak?.. Yoan baño eztozu,- ez al eutsun emon eguño ona etorteko ederretsirik! Eztagiala esan ak nik zaukadazala emen... eztot alik nik zugan; aren zara zu,

AND.—Yainkoak dakie obeto,.,

KEL.—Ezta izan eguño erregenorik onenbesteko azpikeririk egin izan yakonik! Orrai-Uño be, lenengotik ikusi nebazan azpikeriok landaturik.

AND.—Kelopatere...

KEL.—Zer dala-ta etsi bear zaudaz niretzat eta zintzotzat, zuk zin eta zinka yainkoen bakaulkiak eurak ikaratu-arren be, Pulbe' ri ustel izan zatxakozan ori? Zorakeriaren zorakeri litzateke egin-ala ausi ta yaten diran agotik azalerako baño eztiran zinotan kirimildurik gelditzea!

AND.—Erregeno kutun-kutun ori...

KEL„—Ez ibili, arren, zure yoatearen edergarriren billa, Agur egin eta zoaz: emen egoteeske ibili zintzazanean zan itz egiteko aldia; orduan etzendun aitatu alde egiterik; betikotasuna zan gure ezpan eta begietan egoana, zorl ona gure begi erdi-itxietan agiri zana; etzan gugan ezer, zerutiko zala irudirik ez ebanik; oindiño be olango da, edo ostantsean ludiko gudaririk aundiena zarean ori guzurtirik aundien egin zara,

AND.—Onangorik, andera!

KEL.—Zuk dozun aldea al neu; orduan ikusiko zeunke ba-dagola biotzik Aigito'n.

AND.—Entzuidazu, erregeno; nire otseintza-eske dagokidaz aldi onetako bear-bearreko, ezin-besteko egikizunak; baña emen zure otseintzan gelditzen yatsu nire biotz osoa. Gure liall'k dizdiz eglten dau anaien arteko gudutan; Erroma'ko itsas-ateratu da Sesta Ponpei: alderdikeri bildurgarria sortzen dabe erri-barruko indar bardin bik; Ponpei, len askarri ta gaiztetsi zan, indartsu egin danean, maitagarri egin yako erriari: bere aitaren omenez aberats dan Ponpei, arin sartuaz doa ezer irabazi eztabenen biotzetan, eta asko be asko ta zemaikor dir« olangoak; eta bakeak, geldi egotez gexorik dagon bakeak, edozein bide artu gurako leuke osapidetzat. Ni neu urragotik ukutzen neuena, eta ni yoateaz zu segurutu bear zindukezana. Pulbe'n eriotzea da.

KEL.—Adinak ergelkeritik ni ezin yarei izanarren, ume izatetik yareiten nau:„ il leiteke Pulbe, ala?

AND.—llik da a, ene erregeno: begira au, eta zure erregeno-astiz irakurri ak sortu dauen naste ta iskanblllea; eta atzenean dator onena, ikusi noz eta non il dan.

KEL.—Zure maitasunaren ustel! Non dira zuk zure naibaga-negarrez bete bear zeunkezan ontzi gurenak? Orain bai ba-dakust, bai badakust Pulbe'n erioizean, zelan artuko dozun nirea,

AND.—Ez egldazu asarrerik geiago, nire asmoen barria entzuteko gertau baño: ona emen, naiz ixildu egingo naz, zeuk zetariko onu emon. Nil'en lupetza biztuten dauen sua-arren zin dagitsut, ba-noala emendik zure gudari, zure otsein au; zeuk zelan gura, baken, naiz gudua egiteko.

KEL.—Erdu, Karmene, ebagi egldazu galartzu au; baña dagola: beingoan nago gexorik, beingoan onik; olcmgoxe da Andoni'ren maitasuna be.

AND.—-Epe artu egizu, ene erregeno zoragarri orrek; eta zindotzat etsi egizu orretarako agiri sinisgarririk emongo dautsunaren maitasuna.

KEL.—Pulbe'gan ikusi dot orrako ori, Arren, arpegia beste aldera itzuli ta negar egiozu ari; agur egidazu gero, eta esaizu negarrok Aigito'ko erregenoaren alde ixuri dozuzalai orain, maite orrek, azaluskeri lango azaluskeriaren egitekoren bal egizu; eta z\ndo-zindotzat agiri dadilla,

AND.—-Odolak berotuko daustazuz zuk; asko da, bego.

KEL.—Oraindik obeto be egin-ezinlk eztozu zuk; baña egina be asko da.

AND.—Nire ezpatea-arren zin dagitzut...

KEL.—Eta zure ikurdia-arren, Onduaz eta birlbilduaz doa; baña au ezta onena oraindik: -begira, Karmene, arren, nolan Erkul'gandiko Erromar onek bere aurrekoaren ekanduak yagoten dauzan.

AND.—Itxi egin bear zaudaz, andera.

KEL.—Itz bat, yaun era-meratsu orri. Yaun, alkarregandik banandu egin bear dogu zuk eta nik, baña ezta au nik esan gura izan dodana: yaun, alkar maite izan dogu zuk eta nik... maña au be ezta nik esan gura izan dodanik; ondo dakizu zuk nik zer esan gura izan dodan: zerbait bada nik essn gura neunkena... Ene! Andoni bera da nlre oroimena, eta dana aztu yat

AND.—Zure erregenotasunak bendekotzat ezpa'leu alperkeria, alperkeri beratzat etsiko zindukedaz,

KEL.—-Lan nekor eta izerditsu da Kelopatere'k daroan lez alperkeria biotzaren onen ondoan eroatea. Baña, yaun, azketsi, parkatu nagizu; nire gogoko diran zerak zuk begi

onez Ikusten eztozuzalako erail egiten nabe-ta: emendik alde eragiten dautau zure omenak; orrazkero gor egin zakioz errukirik eztautsazun nire ergelkeriari, ela yainko guzUak izango al yatsuz bide-Iagun! Gurenda-ereñontzez estaliko al da zure ezpatea! eta gurenda apitz- leuna izango al da zure oñen azpigorri!

AND.—Goazen. Erdu; guie faanakuntzea banakuntza ain baltan da-ta, geldi egon eta egaz egiten dau, ain da olango-la, zu emen gelditu ta yoan zoaz nikin, eta ni, emendik igesirik, emen galditzen naz zukin, Gsazen! {Alda dagie).

IV AGERLEKU.--ERROMA. KAISAR'eneko Ieku.

OTABI KAISAR, LEPIDA, ta Otseinak aurrera.

KAIS.—Ba-dakusazu, Lepida ,eta «urrerantzean yakingo dozu, eztala Kaisar'en berezka txarindarretarlko gure leiakide ta agintzakide aundiari gorrotorik izatea. Oneik dira Alexandria'tiko barrlak: arrantzuan, edaten, eta gabazko olgeta ta nasaikeri zaratatsuetan gau-argíak alperrik galtzen dsragoio ak; a ezta Kelopatere baño gizonago; eta Tolemeutar erregenoa be ezta a baño emakumego: nekez artu dauz bere aurrera gure geznariak, nekez gogoratu yako agintzakiderik ba-dauela: or ikusiko dozu, a gizon guztien akatsak aldean dauzan gizon bagorik, gizon guztien akats utsez egina dala.

LEP.—Ezin dot uste aren ontasun guztiak iluntzeko latn okerrik egon be egon leitskenik: aren utsak agan orlzeko argi-unetxo dirudie, gabeko iluntasunak argiago egiten dauzan argi-unetxo; bestek erantsiago, noberak iritxiago baño; aik aldíitzea aren esku eztanago, ak edeiresten dauzanago baño.

KAIS.—Azkesberaegi, parkaberaegi zara zu. Dagigun eztala utsik Tolemeutarren oean itzulka ibiltea; barre-karkaxa baten alderako errege-errien bat emotea; yezarri ta yopukin edari gogorrak edatea; mozkorraren mozkorrez eguerdiz etxartebideelan lurrera zeraldo yaustea, eta izerdi-kiratsa darioen zirtzilekin ukabilka ibiltea; esaizu ari dagokonik dan orrako ori..., eta bakan izan bear dau aren soin-eraketeak, onako zerok aren soñari obenik ez eragiteko... baña Andoni'k ezin zuritu leiz bere orbanok, aren buru-arinkeria dala-ta guk onenbesteko zamea eroan bear dogunazkero. Astialdiak bakarrik emongo ba'leutsoz atseginari, kakituaren kakituk eta azurrigartzeak lekarke bere sentzunera; baña olgetak bertanbera izteko danborrotsez deiez dagokon aldiari, bere egoitzea ta gurea goiko diran bestean zoli itz egiten dautsan aldiari yaramonik ez egitea... asarre ta akar egiteko da orrako ori, euren bereztea baztarturik atseginetara ítzulten diranean mutil azi ta eginai asarre ta agirika egiten dautsegunez.

Geznari aurrera.

LEP.—Barri geiagorik ba-dogu emen.

GEZN.—Beterik dira zure aginduak; eta ordurik ordura bida'iko yatsu, Kaisar zindozindo orri, yazoten danaren barri. Indartsu da itsasoan Ponpei; eta agiri da maite dabela a Kaisar'eri bildur baño ez eutsoenak: itsas-ateetara doaz pozik ez egozanak, eta gizonak or bala-fcala djñoenez, okerrik asko egin yaka Ponpei'ri.

KAIS.—Ori baño gitxiagorik ezin neinkean uste: eguño lenengo lege-erria sortu zanazkero irakatsi izan yaku erriak agintaririk eztauela maite izan agintaritzara eldu-arte baño; eta berantza doan gizonik eztauela erriak maite izan, maitagarri ez izatera eldu-arteño; bein galduazkero, orduan maite dau. Erri zea, uretzan batera ta bestera dabilen bedarraren antzez, itsas-gora-bercren bendeko ta otsein da, igiaren igiz usteltzeko.

GEZN.—Barririk ba-dakartsut, Kaisar. Menekarta'k eta MenaTc, ifsas-lapur ospatsuak, euren otsein egin dabela itsasoa, eta euren guztjtariko ontzi-bizkarrez ebagi ta zearkatzen dabela: sartu-urten gogorrik egiten dabe Itali'n; eztabe odolik, ez adorerik itsasertzetan bizi diranak, ai gogor egiteko, eta gazteria asarrez irakiten dago, asarrez eta lotsaz: ikusi-ala goatzen dabe agertzen dan ontzia, eta izan be, aundiegi dira Ponpei'ren izena ta entzutea, ari gogor egiteko asmorik be iñok izateko.

KAIS.—Andoni, itxi egizak ire olgeta ta edanak. Beñola, ik an Hirti ta Pansa kontsulak erailda, i Modena'tik atera induenean, gosetea yoan zoan ire atzetik ara; eta ik, mizkekeritan azia izan-arren, basatiak eurak be yasan legikeen baño be epe geiagoz gogor egin euntsan gosete ari: zaldien txixa ta abereai eurai be iguinaren iguinez eztul eragingo leuskien potxoloetako ur bellegia

edan enduan ik: aldi atan Ire ago-sapaiak etxoan izan iguinik sasi ta sasiraketako aran-okan, masusta ia ostantxeko aletxo eltzakarik yateko; bai, larrea edurpean dagonean oreinak egiten dauenez, ik be zugatzen azalak yalen enduazan; or diñeenez, ik Alpes'etan yan enduan iñoodiko okelea íkusiaz bakarrik il ei zoazan batzuk: eta onako guzli au, -ire omenarsntzat iraingani dok onako au nik orain esan-bearra--. onako guzti au ik ain gudariri dagokonez yasan enáuan-eta, ire arpegian ezagun be etzoan olangorik, arean be etzoan iristu-ta.

LEP.—Errukarri da arrena,

KAIS.—Arin ekarriko al dabe *a* Erroma'ra aren lotsariak; tertzioa da gu biolc landan, qudu-arloan agerizeko, ela orretarako gure onula. ri- batzarra len baño len batzeko; obatu egiten dau Ponpei gure alperkeriak.

УT.EP.—Kaisar, zeatz iragarri al izango dau-Isut biar, bai itsasoz, ela bai legorrez *tei* egin geinken, oraingo bearr-izanai erantzu-ieko,

KAIS.—Alkmrekin barriro aurkitu-arte, olan-gcxe ardurarik izango ai dol neuk be, Agur, ba.

LEP.—Agur, ene yaun; bitartean or zer ya-zoten dan yakin dagizunaren barri neuri be emongo al daustcizu, arren.

KAIS.—Oba ez, yaun: ba-dakii nlre egikizun dala orrako ori, (Alde dagie),

V AGERLEKU.-ALEXANDMA. Yauregiko leku.

KELOPATERE, KARMENE, IRE, to MARDEN i aurrera.

KEL.—Karmene...

KARM.—Andera?

KEL.—Ja, ja!.., Urrillo-ura ekadazu, edan dagidan.

KARM.—Zegaitik, andera?

KEL.—Andoni emendik alde egínik dagon aldi-arlo luze onetan lo agin dagiáan.

KARM.—Gogotanegi dozu zuk a.

KEL.—Ene! azpikeri da arena!

KARM.—Andera, sinis egidazu, ezta olangorik.

KEL.—I, Marden irendu ori!

MAR.—Zer yatsu eder, nagusi orri?

KEL.—Ez i orain abesten entzuterik; írenduk dauenik ezertxo be etxatak eder: on yak iri, akeiz ela txiztor azan orri, ire gogaketa nasai-lizunik Aigito'tik landa ez zuzentzea, Ez ete dok ik leia lizunik?

MAR.—Bai, andera txerakor,

KEL.—Benetan! Ostera!

MAR.—Egiterik ez, andera; eta izan be, nik ezin dot egin, egitea zindo danik baño; orraitiño be ba-áot leia bizí-bizirik, eta gogotan erabilten dot Benuts'ek Marte'kin egin ebana.

KEL.—Karmene. non dagola uste dona Ik a? Yezarrita, ala zuiunik ete dago? Ala, ibili ete dabil? Ala, zaldi-ganean dagola uste dona? Andoni'ren zamea ganean daroan saldiaren zori ontsu! Adoretsu ta txairo eroan a, zaldi orrelc! eta izan be, ete dakizu nor daroazun? Lur onetako erdi-Atlas daroazu, gizonen beso ta burukoskola, Itz egiten, naiz agopean esaten daragoio ak orain, "Nondik da Nil zarreko nire sugea?". Olantxe deitzen nau ak-eta. Orain bai artzen dot nik yanari-edaritzat edenik gozoen-zoragarriena: -aundia da, gero, ni ak burutan erabiltea, Poiba'k bere ziztada maitakorrez baltziturik, eta uríeen urtez (ximur-tximurtu-rík nagon ou! Kaisar bskoki-zabal, zu emen lur-ganean izan zintzazanean, bakalduntzako be agokada onik asko nintzan ni: orduan Ponpei aundia zutunik geldi geldi egoten zan bere begiak nire bepuruetan yosi-yosirik; an yosten ziran aren begiak, bere bizia begira.

ALEXA aurrera.

AI.EXA.—Gorct, Aiglto'ko nagusi ori!

KEL.—Igandik Marka Andoni'gcma dagon aldearen aundi! orraitiño be, agandik atorrelako, osakai aundi ak urreztau ou i bere ukutuaz. Zelan yoakok nire Andoni adoretsu-txal. roari?

ALEXA.—Ak azkenengoz egin dauena zera izan da, erregeno maite, mun egin dautsa eguzki-aldeko pitsi oni, aren ainbeste munen uzkenengo munez: --biotzean yosirik dot aren itzaldia.

KEL.—Atera bear yok nire belarriak orUk,

ALEXA.—"Adiskide on", esan dausi ak. esaiok, Erromar sendo onek Aigitotar aundiari ondasuntzatzat ispel au bidaltzen dautsa-Ia; eta oraingo emaitz txiki-kaskar onen osogarritzat aren oñetan, aren bakaulki aberatsaren edergarritzat, errege-erri mordoa iminiko dautsadaía; esaiok, bere andera deituko dauela eguzki-alde osoak". Urren ela bertatik burua makurtu dau, eta guda-zaldi-ganera igoa >.'ç benben, ata «xldiak

egin dauen irrinlzeci aín zoli izan da-ta, nlk esan bear neunkena utilik eukiaao deust abere ak aberekiro,

KEL.—Eta? Gotilun, ala gogargi egon dok?

ALEXA.—Urte-arorik beroen eta otzenaren bitartekoa langoxe, ez gotilun, ez gogargi.

KEL.—Gogaldiaren ondo ta egoki banandua! Oar zakioz, oar zakioz, Karrnene on, *a* bai ba-da gizon; baña oar zakioz: ezta egon gotllun; eta izan be, ak eztautse ukatu gura izan bere begietako argirik berak legetxe begiratzsn dabenai; ezta egon gogararen pozak Aigito'n gelditzen divala; bien 'bitartean baño: nasketearen zerutar! Pozikegi, naiz gotilunegi egon zu, beste edozein gizoni baño egokiago yatsu zuri geiegilceri ori. Trikitx egin ete dok bidean bidariekin?

AI.EXA.—Bai, andera, ogei bidari banazeangokint zegaitik bidaltzen dozuz orren sarri?

KEL.—Eskeko ilgo al da Andoni'rl bidaririk bidali eziagiodan e-gunez yaio dadma.^-Idcszkura ta papela, Karraene. Ondo etsma 1. en.e Aíexa on.--Eguño Kaisar itietite izctn ete dot onenbeste, Kannene?

KARM.—Ene! Kctisar adoratsu a, ala?

KEL.—Itoko ai zara Kaisar'en izenari orrenbeste sakatu ba'dagiozu! Andoní adoretsu, esan,

KARM.—Kaisar aundia!

KEL.—Isis-arren, yo ta odoletan ortik zear bidaliko dautsudaz zure eginak, bein barríro bardinciu ba'dagístazu Kaisar'egaz nire gizonik gizonena,

KARM.—Zure baimen txerakorra-arren, zure beñolako abestía abestuten baño eztaragoiot nik,

KEI.—Nira egunak guri, gordjn eta ezo ziranean zan orrako ori, bereztean gordin nintzanean; -odolak otzik nebazan, orduan esanik esateko! -baíia, tira, alde; idazkura ta íngia ekadazuzí egunora izango dau afc agur bat baño geiagorik, orretaralto Aigíie ustu ia iñor bagarik itxi beaj ba'det b#. ÍAlds dagie).

II £KITALDI

I AGERLEKU.-MESINA. PONPEI'reneko leku.

PONPEI, MENEKARTA, !a MENA aurrera, I

PON.—Yainlco eundictlc zuzen izatekatan, lct gun izange dira gizonik zuzenenen egiteelan,

MENA.—Yakizu, aintzako Ponpei, geroratzen dabenik eztabela ukatzeu aik.

PON.—Lurrera dator gu eske gagokezcsna, arein bakaulkien oñetan eskeka daragoíogun bitartean,

MENA.—Guk gure bururik be ezcjgutu ez-eta. geure kalterako dana eskatzen daulsegu sarritan-eta, ukatu egiten dauskue gure onerako aik al zurrak; olan, gure arrsnak galtzea geure onerako dala dakusgu.

PON.—Onik urtengo nok arazo onetalík: mai. te nau erriak, eta nire da itsasoa; gorantza doaz nire indarrak, eta oso-osorik beteko dirala diragarte nire itxaroak. Oturuntzetan daragoio Marka Andoni'k Aigito'n, eta eztau alde egingo andik bertakoez beste gudutarako: dirua batzen d.ausn artean bíotzak galtzen dauz Kaisar'ek: biak zuritzen dauz Lepida'k, eta biak zuritzen dabe a; baña bietarik batak be eztau mcrite ct, ezla ari yaramonik egin be.

MENA.—Guin-arloraturik dira Kaisar eta Lepida: indar aundia daroe.

PON.—Nondik dakik ori? Guzurra dok ori.

MENA.—Silbi'gandik, yaun.

PON.—Amesetan yaragoiok ak: ba-yakiat nik ctik bicik dagozsiu Erroma'n Andoni'ren begira. Baña, Xelopcstere Hzun ori, maiíasunílura guziiak gurituko al dabez zure ezpan zimeldu-tximurtuak! sorginkeria lagun izango al yako edertrtsunari, eta Iizunkericj, bitzuei! Lstu ogiiU nusaikerizalea yai-landan; irakiten eukizuz aren garaunak; kalcitu-ezinezko yakiz zorroztuko al dabe aren yangarra Epikurtar sukaldarialc; yanak eta loak Lete'koaren antzeko lo-zorroz aren omena lezorrotu dagien.

BARRl aurrera.

Kajco, Barri!

BARRI.—Seguru da nik eralgiko dautsuedana: une batetik bestera Marka Andoni noz elduko begira dagoz Erroma'n: Aigito'tik alde egin ebanazkero, bide luzeagorik egiteko be astirik asko izan dau ak.

PON.—Ori baño barri oberik gogozago entzungo neunkean. Mena, eneban uste nik maitekeriz ok egiteraño beterik egoan maitabera ak buru-koskolik yantziko eukeauik. onango gudu uskeri ta aletz uts danerako; beste biena langa bi dok aren gudaritasuna: baña gogoratu dagigun gure entzutea, gure igikuneak atera al izan dabe Andoni Aigito*

ke alargunaren alízotik-eío, Andení eguñe lizunkeriz kakitu-ezina.

MENA.—Eztot uste Kaisar'ek eta Andoni'k alkar begi cnez ikusiko dabenik: aren emazte izanak irain egin dautso Kaisar'eri; aren anaieak gudu egin eutsan Kaisar'eri; orraitiño be, eztot uste, orrako ori Andoni'k eraginda egin ebanik.

PON.—Etxakiat. Mena, areriotasun txikitik zelan sortu leiteken aundirik, Euren guziien aurrez-aurre ezpa'gengoz gu, seguru be seguru alkarrekin egingo leukie burruka; olkurren uurka ezpatak aterateko biderik asko izan dabe-ta: baña oraindik yakiteko gara, guri dauskuen bildurrak zelan eta noragiño batuko dauzan banatuok, eta alkarganatuko dauzan alkarregandik urrinduok. Gure yainkoak gura dabenez yazoko al da! Gure bizien alde al dogunik al dogunena egitea da guri dagokiguna. Erdu, Meno. (Aldo dagie),

II AGERLIKU.-ERROl

ENOBARBA ta LEPIDA aurrera.

LEP.—Enobarba on, egileko aintzakogarri ta zuri ondo dagokitzuna egingo dozu, bere itzaldian txerakor eta bigun izan dadilla zure gudalburuari esan ba'dagiozu.

ENOB.—Berari dagokionez itz egin dagiala eskatuko dautsah Kaisar'ek sumiadu ba'dagl, buiu-ganetik zear begira dagiala Kaisar, eta Marte'k bestectn zolí ta garratz itz egin dagiala, Yupiter-arren, Andoni'ren bizaira ba'neu, eneunke moztuko gaur.

LEP.—Aldl au eztok bakotxaren asarreai putz egin eta asarreok biztuiekorik.

ENOB.—Aldian aldiari dagokona, *c\di* atan sortzen dunu erabilten da arazo.^at.

LEP.—Baíía arazo txikiagok aundiagorí leku egin bear yautsak.

ENOB.—Ez txikíagorik íenen ba'dator.

LEP.—Beroegi itz egiten dek: baña, arren, ez eragin auspeko auari. Emen dator Andoni zindou.

ANDONI ta BENTIDI aurrera.

ENOB.—Eta andik aragotik Kaisor,

KAISAR, MEKAINA, ta AGIRPA aurrera.

AND.—Emen ondo itundu ba'gadiz alkarrekin, Partitarrak yo bear doguz: entzun, Bentidi.

KAIS.—Eztakit, Mekaina; Agirpa'ri itandu.

LEP.—Adiskide yatorrok, zer aunditan be aundi izan zan gu alkarrelcin batu ginduzana; uskerik ez al gauz bananduko orain. Nasai entzungo al da oker dagona, nasoi etu begirapenez: zoli ta gedarrez aztindu ba' dugiguz gure eztabaidetan alkarregandik banantzsn gabezan gure eretxiak, zauriak osatu-bearrez, alkar erail egingo dogus orrazkero ba. agintzakide yatorrok, nire eskariekaitik baño ezpa'da be, itzik bigunenez ukutu egizuez arlorik latzenak, etu askarriksririk ez al da sartuko eztabalda onetan.

ANO.—Ondo esanda. Gure gudaritaldeen aurrean ba'gengoz, eta burrukan asi-aginik be olantxe itz egingo neunke.

1A. LEPIDA'reneko leku.

KAIS.—Ondo etorria Erroma'ra.

AND.—Eskerrik asko.

KAIS.—Yezarri.

AND.—Yezarri zu be, yaun,

KAIS.—Ba, orrazkero.

AND.—Yakin dodanez, txarretsi egin dozue zuok txurrik eztana, naiz txur izatekotan be, zuoi eztagokitzuena,

KAIS.—Irri ta barre egin bear zeunskit, utsegaitik, naiz uskerigaitik mindurik nagola esan ba'nei, alan be zugaz mindurik, ludi onetako iñogaz izatekotan; eta irri ta barre aundiagoak zure izena bein be baltzitu-teko erabiii ba'nei agotan, zure izena aitatzerik be eztagokidanean.

AND.—Kaisar, zer zendun zuk zer-lkusirik ni Aigito'n egoteaz?

KAIS,—Ez geiagorik nik zu Aiglto'n egoteaz, zuk ni Erroma'n egoteaz dozun baños orraitiño be, zuk an nire agintzearen aurka yokatu izan ba'dozu, ba-ledike orretun nik zeikusirik izatea zu Aigito'n egoteuz.

AND.—Zer esan gura dozu orrako aurka yokatze orregaz?

KAIS.—Erraz aitu zeinke nik esan gura dodana, emen yazo yatanetik. Gudu egin dauste zure emazteak eta zure anaieak; zugaitik egin eusten gudu ailt, zu zintzazan areiii gudabide fa gudagei.

AND.—Oker zagoz. Nire anaieak eguño enau bultzau berak eginerako: itaunka yakin izan dot yazo dana; etu nik dakidazan bairiak, barri zeatz eta egiazkoak, gero, euren ezpatak ture alde atera ebezanakandik dodaz. Bestera, ez ote eutsan ak kalte egin nire agintzeari, zurearí legetxe? Ez ete eban ck gudua nire gogoaz bestera egin, nire eragingeia zurea bera izanik? Nasaitu tu naikotu bear zinduezan zu arazo onegazko nire idazkiak, nire gutunak. Asarrerako biderik gura ba' dozu, onuko au eztozu artu bear atakotzat.

KAIS.—Zeure burua zuritzeko, berezterik eza

egozlen daustazu arpegiras txarto adabatzen dozuz zure buru-zurikeiak.

AND.—Ez olangorik, ez olangorik; ezin izan Ieiteke, seguru nago orretan, eta nai ta nai ez uste izan bear dot nik onako zer au: nik, zure agintzakide onek, ezin ikusi neinkezala begi onez ak nire bakearen aurka egilen ebazan guduak, Nire emazteagazko, aren biotza al zendu beste alango balegan: zure du ludiaren irurena; erraz euki zeíreke baketan zure surr-ots batzukaz, buriu sz alango emazterik.

ENOB.—Guztiok <tl genduz alango emazleak, gizonok guduetara emakumeekin batera yoan al izateko.

AND.—Ba-dautort, Kaisar, ak.emakume makurgogorrak, artegatasunak eraginda, eta erriketurako be ez zurtasun gítxigaz, bere asaldatze edo yagiteaz urduritusunik asko emon eutsula, eta naibagaz dautortsut onako uu: baña nik ezin egin nebala orretan ezer da orrako orretzaz zuk esan faear dozuna,

KAIS.—Idatzi neuntsun nik zu Alexandria'n nasaikeritan bizi zintzazanean; zure sakelean sartu zenduzan zuk nire idazkiak, eta ezespenez irri ta barre egin zeuntsen nire geznariai, ai yaramonik be egiteka.

AGIR.—Eta Erromarrak, dagoneko dagoz agaz iguindurik-eta, eztautsoe gcgo onik izango ari.

KAIS.—Ba-daki erriak orrako ori: eta aren salakuntzea arturik da.

AGIR.—Nor da ak salatzen dauena?

KAIS.—Kaisar: eta Sesta Ponpei'ri guk Sikeli kenduta, eziautsagula emon Sikeli'tik ari dagokon zatirik: baita ba-diño ak ontzi batzuk aurreratu eustazala be, ta oindokoarren eztautsadazala atzera emon: eta, *az*kenez, asarre gorritan dago Lepida'ri bere irutzatikoa kendu yakolako; eta bein ari irutzatikoa ksnduazkero, aren etorriak geuk doguzalako.

AGIR.—Yaun, erantzun egin bear yako orrako orri.

KAIS.—Dagoneko dago erantzunik, eta yoanik da geznaria. Biotz-gogorregi egin zala Lepida idatzi dautsat; oker erabili ebala bere al aundia, eta ondo irabazi ebala bere aldakuntzea: autortzen dautsat bere zatia nik benderatu dodanetik; baña beste ainbeste eskatzen dautsat aren Armeni'tik eta ak benderatu dauzan beste errege-errietatik.

MEK.—Iñoz be ezta itzuliko a orretara.

KAIS.—Ba, orrazkero .emengorik be etxako emon bear.

OTABE aunera, bere Yairaigokoakin.

OT.—Goia, Kaisar, eta ene yaun oii! goia, Kaisar kutun-kutun oril

KAIS.—Erbesteturik, bertanbera itxikorik deitu bear zindudazala!

OT.—Enozu deitu bear olan, eta gztozu biderilc be olan deitzeko.

KAIS.—Zegaitik zatoz, ba, oston-osteka gugana? Etzatoz zu Kaisar'en arrebatzal; gudarosterik bear leuke Andoni'n emazteak bere etorrerea iragarteko, eta zaldi-irrintzek bear litzakioz, a bera agertu baño len, ur dala iragarteko; gizonak sortu bear eukeezan bide-ertzeko zugatzak eurak be; eta larritu egin bear eukean etorrikoren ustec-k, uste zanik agertu eztalako; bai, ortzeko tellaturaño igon bear eukean zure gudari-taldeen taldeak eragiriko autsak; baña zeineskato legetxe zatoz zu Erroma'ra; eta aurreak arlu dauskuzuz gure maitasuna erakusteko erarik izteka, eta olangorik ez era. kustea sarritan, olangorik ez izate yatsu; urez eta legorrez yoan bear geunkean zuri trikitx egiten; bide-arlo bakotxean geroago ta maitasunagiri aundiagoak zuri eginaz.

OT.—Ene yaun on, iñok enau beartu onan etorteko, onan neure gogo utsez etoiri baño. Ene yaun, Marka Anioni'k, zuk gudurako gertakizunak egiten daragoiozula entzuník, orrako orren yakitun egin ebazan nire belarriak; eta ori yakindakoan aren ederretsia eskatu neuntsan ona atzera etorteko.

KAIS.—Eta ak bertatik emon eutsun bere ederretsi ori, bere ta bere lizunkeriaren bitarteko eragozpen zintxakozala zu-ta.

OT.—Ez egizu esan olangorik, ene yaun.

KAIS.—Begi-begietan dot nik a, eta axeak dakastaz aren arazoen barriak, Nondik da orain a?

OT.—Atenai'n, ene yaun.

KAIS.—Ez, ene arreba iraindu-iraindu ori; beragana yoateko kiñu egin dautsa Kelopateie'k. Emagalduri emon dautsa ak bere aginte-enia; eta luneko erregeak batzen daragoioe orain aik biak gudurako: batu dauz ak Soka, LiM'ko erregea; Askela, Kapadoki' lcoa; Piladelpa, Papalgoni'ko erregea; Adala, Taraki'ko errsgea; Arabi'ko Maika erregea; Ponto'ko erregea; Yudarren Eroda; Mitirdates, Komagen'go erregea; Polemon eta Aminla, Medi ta Likaoni'ko erregeak, errege-agintza-makil-Ierro aundiagogaz batera.

OT.—Ai ene, nire zoriaren txarra, alkar naibagatzen daben adiskide biren artean zatiturik dot nire biotza-ta!

KAIS.—Ondo etorria ona: zure idazkiak izan dira gure alkarregandik etentzeak tarrat egitea geroagotu dabenak, nik ikusi-arte zu zenbateraño iraindu zauzan ak, eta noragiñoko galdu-gordean yarri garean geu, zabarkeriz. Nasaitu, argitu zure biotza: etzadiz kezkatu aldiak zure pozaren ganera zure inguruko alanbearrezko yazokuneok dakazalako; baña doazala euren bidez bide alanbearrak erabagitako zerok, zuk negarrik egiteka ikusirik. Ondo etorria Erroma'ra; ezebe eztot zu baño maiteago. Uste leitekean baño txartoago erabili zabez: eta gu ta zu maite gabezan goiko yainkoak euren ordelco egin gabez, zuri zuzena emoteko. Nasaitasunik nasaiena lagun bekizu; eta beti be ondo etorria gugana.

AGIR.—Ondo etorria, andera.

MEK.—Ondo etorria, andera maite. Biotz guztiak eta bakotxak maite zabez eta erruki dautsue Erroma'n: bere zantarkerietan bakarrik aundi dan Andoni'k bakarrik bidaltzen zauz ortik zear; eta emagalduri damotso ak bere agintza bildurgarria, gure aurka ainbeste zarata eragiten dautsan agintza bildurgarria.

OT.—Olan da, ala, yaun?

KAIS.—Seguru be ssguru. Ondo etorria, arreba;arren, ez egizu galdu eperik: ene arreba maite-maite ori! (Alde dagie).

VII AGERLEKU.-ANDONI'ren C udategi, Aklium Lurmustuiretik ur.

KELOPATERE ta ENOBARBA aurrera.

KEL.—I baño gilxiago enok izango, bai orlxe.

ENOB.—Baña zegaitik, zegaitik, zegaitik?

KEL.—Guduan be sartuko *nazala esan* dok ik, eta orí eztala egoki be esan dok ik.

ENOB.—Ba-da egoki, ala? Ba-da egoki, ala?

KEL.—Gudu au gure aurka aldarrikaturik izan ez-arren, zegaitik eztogu egon bear guk geuk emen?

ENOB.—(Bere kitean). Tira ba, onan erantzun neio nik; batera erabiliko ba'genduz zaldiak eta beorrak, zaldunak elitxakiguz gauz ezetaralco; beorrak euren ganean eroango leukiez zaldi ta zaldi-ganeko bana.

KEL.—Zer diñok?

ENOB.—Nai ta nai ez, agoazabalik itxiko dau Andoni zu emen aurkitzeak; kendu egingo dautsazu aren biotzari, kendu aren garaunai, aren astiari, an geiegirik eztauena. Dagoneko egozten dautsoe arpegira txori-buru dala; eta Erroma'n diñoenez, Potin irenduak eta zure otsein neski'k darabile guáu au.

KEL.—Ondatuko al d« Erroma, eta usteiduko *al* dira gure aurka marmarka daragoioen miñak! Erantzukizun aundia daroagu gudu onetan, eta nire errege-erriko nagusi nazanazkero, gizontzat agertuko naz an. Ez egík itzik egin orrako orren aurka; atzean enok geldituko ni.

ENOB.—Tira ba, esan dot nik esatekoa, Emen dator inberadorea.

ANDONI ta KANIDI aurrerer,

AND.—Ez ete dok iñondiko, Kanidi, ak Tarentum eta Brundusium'dik Ioni-itsasoa erraz eta beingoan ebatea ta Torine uriaz yabetzea? Entzun dozu zuk olangorik, kutun orrek?

KEL.—Zabarrak bakarrik gelditzen dira azkartasunaz arriturik.

AND.—Oste-erantzun bikaín orixe, eia erautzun ori elegoke txarto gizonik onenarsn egoan be, nagikeriari asarre egiteke, Kanidi, itsasoz erasoko dautsagu ari.

KEL.—Itsasoz! zegaitik ez bestelan be?

KAN.—Zegaitik gura dau nire yaunak itsasoz erasotea?

AND.—Eupadea itsasorako egin dauskulako,

ENOB.—Nire yaunak be ari biak bietarako burrukarako eupada egin dautso,

KAN.—Bai, eta orrako burrukcs ori Parsali'n egiteko, Kaisar'ek eta Ponpei'it an egin eben burruka-ta; bcSa, aren alderakorik izan ezeta, ak eztau onetsi gura eupada csu, eta sorbaldak eragi dautsaz; auk zeuk be beste ainbeste egin bear zsunskio.

ENOB.—Gizonez ondo ornitzeka dagoz zure ontziak: maniazain, igitarí, eta beingo-beingoango arrapaladcsn gudaritzara bearturikoak dira zure ontzi-gizonak; Kaisar'en guda-ontzidian, astera, Ponpei'ren aurka sarritan ekin izanak dozuz; bizkor dira aren ontztak; astun, zureak: etxatsu lotsagarririk itsasoan akin burruka egin gura ez izatea, legorrez erasoteko gerturik egonazkera.

AND.—Itsasoz. ítsasoz.

ENOB.—Aintzako-aintzako yaun ori, olan izatekotan, baztartu egiten dozu zuk legorrez dozun nagusitza osoa; moztu egiten dozu zuk zure gudarostea, zure gudaririk geienak gudura egindako oñezko dira-ta: eztautsazu ateraten onurarik entzute aundiko zure guda-yakintzeari; bertanbera izten dozu segurantzarik geien agintzen dautsun biden; alanbearraren eta zer yazokoaren eskuetan iminten dozu zure burua, segurutasun sendoari yaramonik egiteka,

AND.—Itsasoz eta itsasoan eraso ta burruka egingo dot.

KEL.—Irurogei ontzi dodaz nik, eta Kaisar'ek eztau obarik.

AND.—Erre egingo doguz geiegi doguzan ontzialt; eta gelditaen diranak eurak artuala gizonez ornídurik, Aktium'go lur-musturretik yoko dogu Kaisar, urreratu dakigunean. Baña an porrot egin ba'dagigu, legorrez eraso daikeogu,

Geznari aurrera.

GEZN.—Egia da, yaun, barriak diñoena; agertu da *a;* goatu dau Kaisar'ek Torine.

AND.—An ete dago bera? Ezin da olangorife izatea; iñondiko da aren indarrak an izatea. Kanidi, legorrean euki egizak ik gurs emeretzi gudari-taldeak, "legio" deretxenak, baila gure amabi milla zaldunak be. Gure ontzira goazak gu: aurrera, ene Teti!

Gudari bat aurrera,

Ze barri dok, aintzaks gudari?

GUD.—Inberadore zindo ori, itsasoz ez egizu eraso ta burrukarik egin; ol ustsletan ez egizu izan uste onik: eztozu usterik ezpata onetan eta nire zauriotan, ala? Aigitoarrak eta Poiniketarrak Doazala aatearena egiten: legorrean zutunik gagozaia benderatzen oítuak gara gu, eta oñak oñari deutsala burruka egiten.

AND,—Tira ba, Ura ba: goazen. (AND„ KEL., •a ENOB.'k alde).

GUD.—Erkul-arren, zuzen nagola usie dot.

KAN.—Gudari, bai, zuzen ago i egon be: ba. ña geroago ta iñorenago dok aren yokabidea: ori dala-ta, iñok yaroak gure gudalburua, eta emakumeen bendeko gozak gu gizonok,

GUD.—Osorik dozuz legorrez zure guiari-tal. de "legio" diralakeak eta zaldunak, ezta?

KAN.—Marka Otabi, Marki lustsius, Pulbikela eta Kaili itsasoan agintzeko dozak: baña guk yoagu legorreko agintza osoa. Usíe zan baño aundiago dok Kaisar'en iradu au.

GUD.—Oraindik a Erroma'n zala, aren indarrak ain zabaldurik egozan-eta, ziri ederra sartu eutsan ak barrandariari.

KAN.—Entzun ete dok nor dan aren ordeke?

GUD.—Tauru dalako bat dala diñoe.

KAN.—Ezagunik asko yaiak orrako gizon ori,

Geznarí aurrera.

GEZN.—Kanidi'ri deiez dago inberadorea.

KAN.—Barri-minetan dago aldia; eta unerik unera dator barrizko umeren bat, (Alde dagie),

VIII AGERLEKU.-.Aktium'etik urreko zelaiune.

KAISAR, TAURU, Agintzako gudariak, eta beste batzuk aurrera.

KAIS.—Tauru.„
TAU.—Ene yaun?
KAIS.—Legorrez ez yo; osorik euki ire indarrak; ez zirikatu burrukarako, guk itsasokoa egin-arte, ez egin ingi edo papel biribil onetan dagonaz besterik: ekite edo yauzi onetatik dingilizka yagok gure zori on guztia. (Alde dagie).

IX AGERLEKU.-Zelaiuneko beste arlo baL

ANDONI ta ENOBARBA aurrera.

AND.—An aragoko mendiaren emendiko aldamenean imini dagiguzan gure zaldun-taldeak, Kaisar'en gudarl-taldeen aurrez-aurre; zenbat ontzi dakazan andik ikusirik, zetara yo yakin dagigun. (Alde dagie).

X AGERLEKU.-Zelaiuneko beste ario bat.

KANIDl aurrera, alde batetik, bere legor-gudarosteaz yoan doala; eta TAURU, KAISAR'en ordezkoa, bestetik. bere gudarosteakin. Barrura sartu-ala, itsas-ekite-oisa entzuten da.

Gudurako ots. ENOBARBA currera,

ENOB.—Galduak gara, galduak gara, dana galdu da! Ezin dot ikusi luzaroago triskantza ori; Andonitar, Aigitoarren gudalburuonizia, igesi yoan da, euren beste irurogei ontziakas, lemeari besterantza eraginda: itsutu eyiii daustaz begiak olangorik ikusiak.

ESKARA aurrera.

ESK.—Yainko ta yainkono, ouren batzar osoa-arrén!
EN03.—Nondik datorkik larrltasun ori?
ESK,—Umekeriz galdurik dok ludiaren zatirik aundiena: errege-erri tu lurralde osoak emori doguz mun batzuen alderako.
ENOB.—Zelan yoak ekina?
ESK.—'zurrite yatorra legetxe gure aldetik: seguru yakak eriotzea. Legenarrak yoko al yok a Aigito'ko beor agia!... erasoaldiaren erdian, alde bataren eta bestearen nagusiagotzea birki alkarren antz-antzekoak legetxe agiri zanean, edo zeatzago esatsko, bietarik lenen yaioa gu gintzazanean. . . . . euligorriak yo yok a, beia bagilean legetxa--, ontzi-oiaiak eragita igesi egin yok.
ENOB.—Neuk be ikusi yoat orrako orl: gexotu egin yatazak fcegiak orrako ori ikusiala, eta ezin egon izan nok luzaroago begira.
ESK.—Bein no ak alde eginazkero, aren HIuraz ondaturiko Andoni zindoak, basa-aateak emeagana yoateko egoak aztintzen dauzan legetxe, bira eragiten yautsek bere ontziai, erasoa beroen egoanean, no aren atzean igesi yoateko: eguño etxoat ikusi orren lotsagarri dan egiterik; oarr-ikusi-ikasik, gizontusunek, omenek eguño etxok lorrindu, muzkildu bere burucs orrenbestean.
ENOB.—Ai ene! ai ene!

KANIDI aurrera.

KAN.—Arnasa bagarik, tik gelditu da gure 2ori ona itsasoan, eta urpera doa negargarriro. Ondo yoango Iitzakean gure arazoa, gure gudalburua fcerak izaten ekiana langO izan ba'litz; ene; bere igesiaz zakarkiro be zakarkiro emon dausku ikasfcidea gurerako!
ENOB.—Bai ete? Orretan zagoz zu, ala? Ba, orrazkero, gau on, bai oríxe.
KAN.—Peioponeso'rantza igesi dabe aik.
ESK.—Erraz da ara yoatea; ara yoango naz ni be, zer yazoko begircs egoteko.
KAN.—Kaisar'en bendean iminiko yoazat nik "legio" diralako nire gudari-taldeak eta nire zaldi-zaldunak; dagoneko, sei erregek erakutsi dauste norbere burua zelan iñoren benderatu.
ENOB.—Andoni'ren alanbear zaurituari yarraiko natxakok ni, nire adimena orretarako orren axe-erara bagarik, aurrez-aurre egonarren. (Alde dagie).

XI AGERLEKU.-ALEXANDRIA. Yauregiko leku.

ANDONI ta Otseintzakoak aurrera.

AND.—So! oindik ara fcera bein be ez zapaltzeko agintzen daust lurrak..., lotsa *da* ni bere ganean eroaten! Adiskideok, erdue

ona: ainbestean atzeratu naz ludi onetaneta, betiko galdu dot nire bidea; -ontzi bat dot urrez betsrik, artu ta zuon artean banandu egizue urre ori; igesi ta onezkoak egizuez Kaisar'elcin,

GUZTIAK.—Igesí! ez guk.

AND.—Neuk igesi dot, eta neuk irakatsi dautset kikil eta dollorrai arin egin eta atze-aldea erakusten, Zoaze, adiskideok; eztctu zuon bearrik nik erabagi dodan burubideak; zooze: itsas-atean dago nire ondasuntzea nire altxorra, artu egizue. Ene! a begiratzeak berak be lotsatu egiten nauenaren yarrai yoan naz. Buruko uleak eurak be asaldaturik asarre yataz; izan be, ule urdinak oldarkeria egozten dautse arpegira baltzeranai eta baltzeranak kikileria ta kutunkeria, urdinai. Alde egizue, adiskideok,- idatziko dautset nire adiskideren batzui, aik bidea leundu ta garbitu dagitsuen. Arren, etzadize gotiiundu, eta lotsa zariela ez erantzun: nire etsipenak gedarrez damotsuen onuari intsigi zakioez; bertanbera ilxi egizue bere burua bertanbera izten dauena: artez yoan itsas-ertzera: ontzi aren eta ango ondasuntza edo altxorraren yabe egiten zaueduz. Itxi nagizue ni, arren, apur baten, bai, arren; bai, ori egizue; eta izan be, galdu dot nik zuoi agintzeko eskubidea, eta arren egiten dautsuet orrexegaitik: geroago neu yoango naz zuokana (Yezarri egiten da).

KELOPATERE aurrera, KARMENE'k bidea erakusten dautsala, ta IRE, ta ERO atzetik ara darraikiozala.

ERO.—Bai, andera txerakor, zoakioz..,, nasaitu egizu.

IRE.—Egizu orrako ori, erregeno maite-maite.

KARM.—Egizu! Ba! zer besterik egiteko?

KEL.—Itsi nagizu yezarten. Yune ori!

AND.—Ez, ez, ez, ez, ez.

ERO.—Ete dakusazu, yaun, nor dagon emen?

AND.—Ene! ken, ken, ken!

KARM.—Andera...

IRE.—Andera, inberadoreno on ori!

ERO.—Yaun, yaun...

AND.—Bai, ene yaun, bai; -yantzarik legetxe eukan ak bere ezpatea Filipoi'n (2), nik Kasi igar-tximurtua yo ta lurreratzen neban bitartean; eta neu izan nintzan Burta burutik eginari atzenak eragin eutsazana; nire ordezkotzan eragoion orduan ak, eta ézetariko oorrikasizko yakintzarik ez eban ak gudari-talde adoretsuak gudarako zelan imini bear diranaz; onaitiño be oiain... eztau ardura.

KEL.—Ai ene! lagun zakidaz.

ERO.—Erregenoa, ene yaun, erregenoa.

IRE.—Zoakioz, andera, zoakioz, eta itz egíozu: nor eta zer dan be aztuazo egiten dautsa lotsearen lotseak.

KEL.—Tira ba..„ eutsin nagizue...: Ene!

ERO.—Yagi zadiz, yaun zindo-zindo ori; erregenoa datortsu: makur dau burua, eta il egingo da, baña zure nasaitasunak yoreiko al dau.

AND.—Orbandu egin dot nire entzute ona. Zirtzilik zintzilen izan da nire igesia.

ERO.—Erregenoa, yaun.

AND.—Ene! nora eroan nozu, Aigito? begira zelan ostonduko dodan níre lotsaria, zure begietatik atzera begiraturik, nik atzean itxi dodana omenik-ezean ondatuta dago-ta.

KEL.—Ene yaun ori! ene yaun ori! Parkatu, azketsi nagizu nire ontziak bildur izanagoitík! eneban uste nik zu nire atzean etorriko zintzazanik.

AND.—Aigito, ondoegi zenkian zuk zure lokarriz zure lemeari estuta egoala nire biotza, ta zuk tatarrez eroango ninduzula zure yarrai. Ba-zenkian zuk yabetza osoa zendula nire gogoaz, eta zure kiñu bat yatala asko nik yainkoen aginduaz bestera yoka tzeko be.

KEL.—Ene! azketsi nagizu!

AND.—Apalik yoan bear natxako oraín gizon gazte orri itunben-eske; or ibili bearko dot bein tenka, bein nasaika, bekori dagokionez; besteak ten, nik nasailu; mundutik erdiaren yabe nintzanean neuk zelan-gura yokatzen neban au, zori onak egin eta banatzen nebazan au. Ba-zenkian zuk noragiño zintzuzan nire benderatzalla; eta zuganako mailasunezko leieak makaldurik, leia orren agindua egingo ebala nire ezpateak edozetan.

KEL.—Azkets-eske, parkeske nagotsu!

AND.—^Ez ixuri negarrik bat bera be, gero; irabazi ta galdu dan guztia añako da euretaiko bat: mun egiiazu; orrako ori yat asko niri. Bidali dogu gure irakastegi-irakaslea; etorri ete da atzera? Kutun ori, berunez beterik nago ni. Ardaoa ekarri andik barrutik, ardaos ta yanariak! Ba-daki alanbearrak zartadak opatzen dauskuzanean egiten dautsagula yaramonik gitxien. (Alde dagie).

XII AGERLEKU.-KAISAR!'en Gudallegia Aigilo'n.

KAISAR, DOLABELA, TIREU ta beste batzuk aurreia,

KAIS.—Agertu dadila Andoni'gandikoa... Ezagun ete dozue?

DOL.—Aren irakastegi-irakaslea da: or da ezagun a ulduta, lumatuta dagoia, bers egotik luma egir.ik baga azpiko luma-orratza bidaltzen dauenazkero, ilebete askorik eztala geznaritzarako errege geiegi eban *ak.*

EUPORNI aurrera.

KAIS.—Urreratu, ta ltz egik.

EUP.—Andoni'gandik natortzu nazana nazan au: itsaso itzalaren aldaan mirtu-oniko iñontz-tantana dan besisttn IKÍki nintzan ni oindo oraintsu aren asmoetarako.

KAIS.—Olan bedi: iragarri zure egikizuna,

EUP.—Agur dagitsu bere zoiiaren yaun zarean orri Anáoni'k, eta zure ederretsi-eske dagotsu Aigito'n tiziteko. Gitxiagorik eskatzen dautsu, orrako ori emon ezpa'dagiozu; eta agintza bagako gizontzat eske dagotsu, Atenai'n, ortzearen eta lurraren bien bitartean, arnassa artzen itxi dagiozula a beragazko da au. Urren, autortzsn dau Kelopatere'k zure aunditasuna; makurtzen dautso zure alari bere burua; eta orain zure eskuetan dagon Tolemeutarran buraatuna bere ondorengoentzako eskatzen dautsu ak.

KAIS.—Andoni'gazko, nik eztot belarririk aren eskahiderik entzuteko. Erregenoak uts bagarik izango dau guk a gure aurrean artzea ta aren eskabidea; baña bere adiskide zori txarrekoa Aigito'tik uxatu, naiz ari bizia ksntzekotan: onako au egin ba'dagi no ak, guk entzun bagarik ezta geldituko aien eskaiia. Au da biekazkoa.

EUP.—Zari ona Iagun izango al yatsu!

KAIS.—Eroan egizue ori gudari-taldeak zear. (EUPORNI'k alde). (TIREU'ri) Orain dok ire izlari-trebetasuna erakusteko aldia; zoli abil kendu egiok Kelopatere Andoni'ri; agin. du egiok, eta gure izenez agindu be, ak eskatzen dausna; eskeintza geiagorik be egiok euk asmautik: euren zoririk onenean be eztozak sendoegi emakumek; baña bearrak iñoz iñok ukuiu bagako besta'i be zina yanazo eragingo yautsak: erakutsik, Tireu, zelango dan ire trebetasuna; euk agindu egik ire nekeen alderakoa, bai, eta lege ba' litzok legetxe betsko yoagu guk.

TIR.—Ba-noa, Kaisar.

KAIS.—Oar akio Andoni'ri, ia a zelan gogoyausten dan, eta iragarri egldak ire ustez zer esan gura dauen aren yokereak eta zeren ezaugarri diran aren igikuneak.

TIR.—Sgingo dot orrako ori, Kaisar. (Alde dagie).

XIII AGERLEKU.-ALI &NDRIA. Yauregiko leku.

KELOPATERE, ENOBARBA, KARMENE, ta ÍRE aurrera.

KEL.—Zar egingo dogu, Enebarba?

ENOB.—Zelan ilgo asmau.

KEL.—Gu ala Andoni gara onako onen errudun?

ENOB.—Andoni bakarrik, burubidearen ganetik ak bere guraria egin gura izai, dau-ta, Guda-aurre aundi atatik, ango guda-lerroajf alkar bildurtzen e'oen leku atatik zuk igesiarren, zer? Zegaitik yoan bear eban ak zure yarrai? Maitasun-azkura ebalata, ak eleuskion egin bear azka urraturik bere gu-'ialhui'utzeari; alango unsan, Iuditik erdia beste ertíiaren aurrsz-aurre egoanean, aren beraren burua egoan kinkan edo galdugorde gorrian: lotsagarri izan zan une atan a igesi yoiazan zure ontzien yarrai yoatea, aren galtzea aundi zan bestean lotsagarri, bere entzidia arrituaren arrituz agoa zabalik an bertanfcera itxita.

K2L.—IxQk zagoz, arren,

ANDONI aunera, EUPORNI'kin.

AND.—Ori dok aren erantzuna, ala?

EUP.—Bai, ene yaun.

AND.—Orrazkero, erregenoak izango yok begirapenik, ak gu aren eskuatan imintekotan.

EUP.—Olan diño ak.

AND.—Iragarri egiok orrako ori erregenoari. Kaisar mutilari bidali egiozu buru urdin au, bai, eta gonburuz beteko dautsuz ak zure gurariak errege-erriz.

KEL.—Buru ori, ene yaun?

AND.—Barriro oa agana: larrosa-koloreu daue-la ak bere mosuan esaiok, eta orrsgaitik ludia begira dagokola agandik egite aun-

diren bat ikusleko; dollor eta kikilek be izan leikela txinlxinik, itsas-ontzirik, "legio" edo gudari-talderik; eta izan be, buru urten leitekez aren ordekoak, aren gudalburuak, Kaisar'en otsein izanda, umeren otsein izanda legetxe be; orrazkero, bere alde dauzan orrako zerak baztarrean itxita, eupada egiten dautsat bizitzako aurberan nazan onek, guk biok, geuk geuretara, ezpatu ezpataren aurrean dala, gure indarrak neurtzeko. (ANDONI'k eia EUPORNI'k alde) Idatziz tidaliko yautsat nire eupadea; araikit.

EN03.—Bai, otutekoa otu yak iri; eta izan be, gudakinez, guda-geiz ornidu-ornidurik dagon Kaisar'ek galdu-gordean iminiko yok bere txapelduntzea, bere zori ona, eta erakustegian ezarriko yok bere burua ezpatalarik yota zeartau dagian! Amesetau ago i, Dakustanez, euren alanbearren kide ta antzeko dira gizonen burutapenak; eta barruko zer onak be ostu egiien dautsez eurekandik landa yazoten yakenak, baizuek eta besteak zorl bardina izan dagien. Aundía da orrek arnesetan eragotea, gizonetik gizonera dagon aldea ikusirik, Kaisar beteak goseak ileri, sabeluzkurreri erantzungo dautsala uste izanik!--Kaisar, orren etsimena, orren buru-argitasuna be benderatu dok ik.

Otseintzako bat aurrera.

OTS.—Kaisar'gandíko geznari.

KEL.—Onangorik! Ori baño era-mera geiagorik, begirapsn geiagorik ez? Begiru, ene emakumeok! Surrak isten dsbez zimeldu ta orrigavu dan lanoseaien aunean, pipilean egoan lanosearen aurrean belaunbikatzen ziianak eurak. Zure aunera ariu egizu, yaun. (Otseintzakoak alde).

ENOB,—(Bere kitean) Asi gara nire zindotasuna ta ni alkarreri eupada egiten. Zorakeri uts egiten dau gure zintzotasuna ergelai sendo deutsen zintzotasunak: eta orraitiño be, bere ugazaba benderatu dauexia he*la* benderatzen dau yaun yausiri zintzotasunez yarrai al yakonak, eta izango dau edestian bere lekurik.

TIREU aurrera.

KEL.—Zer gura dau Kaisai'ek?

TIR.—Banazean entzungo dozu.

KEL.—Adiskidez besterik eztozu emen: naaai etu azarkiro esan esatekoa,

TIR.—Ba-leiteke orreik Andoni'ren adiskide be izatea.

ENOB.—Kaisar'ek dauzan besteren eza dau ck; ostantxean eleuke ak gure bearrik. Kaisar'erí eder eder ba'yako. urtengo yako gure ugazaba aren adiskidetasunaren bidera: gugazko, ba-dakizu *a* noren, gu be aren gareala, eta Kaisar'en da a.

TIR.—Ori ondo. Onan dozu, ba, arazoa, eiregeno entzutetsu-entzutetsu ori: zure egokera kniiari. bera Kaisar dalari baño geíago eztagiozula yaramon eskatzen dautsu Kaisar'ek,

KEL.—Ekin: errege-yardukera da orrako ori fcenetan.

TIR.—Ba-daki ak zuk besartean eztozula estutu Andoni'a maite izan dozulako, aii bildur izan dautsazulako baño.

K5L.—Ene!

TIR.—Ori da!a-ta, erruki dautse ak zure omenaren zauri-atzai, besterik ezinezko, ez zuk irabaziriko orbanak diralako.

KEL.—Yainko da a, eta ba-daki zer dan zuzen be zuzen: ezta izan nire omena gogoz emonik, benderapen utsez benderatua ba**ño,**

ENOB.—(Bere kitean) Andoni'ri itanduko dautsat, orrako ori egia danentz seguiu yakiteko,, Yaun, yauu, zulo uts eginda ago i-ta, uipeiatzen itjci fcearko dauskagu, ire maiteenak berak be bertanbera itxi au-ta. (Alde dagi).

TIR.—Esango ete dautsat Kaisar'eri zu zeren eske zagokozan? Izan be, a beie aldetik eske dagotsu ak zer emongo eskatu dagiozun. Edei be eder Iítxakio aii zuk aren zori onagaz zutzako mctkílaren bal egingo ba'zendu, orrako makila orrek zuri eusteko; baña pozaldi kmgo pozaldia leuke ak niganiik ba'lekl itxi dozula zuk Andoni, eta ludí osoaien yaun dan aten itzalpean imini dozula zure burua.

KEL.—Zei yatsu izena?

TIR.—Tireu yat izena,

KEL.—Geznari txerakor-txerakor ori, au esaiozu Kaisar aundiari: mun egiten dautsadala aren esku benderatzalleari, aren ordezkcaren bitartez; esan ari, gertu nagola ni nire burestuna aren oñetan iminí ta antxe ni belaunbikatzeko: baita esan arí, guztiak aren esanera dagozan aren agotik yakin gura dodala Aigito'gazko aren ebatzia.

TIR.—Ori da zuk artu zeinken biderik zindoena. Bide but bera artuazkero zurtasunak eta alanbearrak, biotarik lenengoa al dauenaren billa baño ezpa'doa, edozer yazo-arien be, ezta okertuko bere tidetik. Ekadazu zure ederretsia, nire egin-bearra, nire omena zure eskuan ezarteko.

KEL.—Zure Kaisar'en uitak, errege-erriak zelan eskuratuko ausmer egin ondoren, sarritan imini ebazan bere ezpanak aintzakorik etzan leku onetan, eta munezko euri zala irudian,

ANDONI ia ENOBARBA aurrera bestt *uein.*

AND.—Esku-erakutsietan, e! Yupiter ostotsgina-arren! Nor augu, txolxo?

TIR.—Gizonik osoenaren, eta bere aginduari men egingarrienaren agindua beteten dausn bal.

ENOB.—(Bere kitean) Bizkarra berotuko dautso orri.

AND.—Erdu ona, gero! Bai, miru, sapilai ori! Yainko ta txerrenok! Urtuaz urtuaz doa nire aginpidea: lenago ta oraintsu be, nik Eee! gedai egin-ala, ikaraturik urten eta "zer gurozu?" gedar egiten eusten erregeak, gogoko yaken zerbait goatzen mutikoak yoaten diran legelxe. E2tozue belarrirk, ala? Andoni naz oindiño.

Otseinalt aurrera.

Ken egizue emendik Kirten au eta bizkarra berotu egiozue.

ENOB.—Oba da leoi-kumegaz olgetan ibili, hten dagon leoi zarregaz baño.

AND.—Iretargi ta Izarrak! Txibitaz aztindu egizue. Euren yauntzat Kaisar autortzen daben bendeko ogei erregerik aundienak aurkituko ba'neuz be onako no onen eskua zakar darabilela..., zer yako ízena Ien Kelopatere zan oni? --Bizkarra berotu egiozue, lagunak, mutiko legetxe burua makurtzen ikusi, tQ erruki-eske gedar zoliak eragin-arte: ken ori emendik,

TIR.—Marlra Andoni...

AND.—Tatarrez eroan egizue: bein narraa ondo berotuazkero, atzeru ekarri egizue. Kaisar'en Astakirten onek gugandíko geznarik eroan bear dautsa Kaisar'eri. (Otseinak eta TIREU'k alde). Erdi-zimeldu ta Iximurlurik zengozan zu nik ezautu baño len, Onangorik! Ogi-zatia damotsonari txera dagitson emakumek ni iraintzeko itxi dot nik Erromct'n nire oeko burupekoa zapaldu fcagarik, eta emakumeen artean pitxi zanagandik legezko seme-alabarik izateka, ala?

KEL.—Ene yaun on...

AND.—Beti izan zara zu ustel: -baña gure txar-indarkeriak tatarrez garoezanean... Zori txarraren zori txar!. . . . itsutu egiten gabez yainko zurrak: gure zíkinkerilara bertara egotziazoten dauskuez gure ebazpen argiak; gure okerrak eurak gurtuazoten dauskuez; írri ta barre egilen dauskue, gu geure nasaikeri ta ondamendira arro goazan bitartean,

KEL.—Onangorik! norako ta zetarako orrako guzti ori?

AND.—Okela-zati otz langoxe idoro zindudazan nik Kaisar zanaren burruntzian; ezta ori be, Kenei Ponpei'ren mutxikin zintzazan zu; orrez ganera, eta erriaren esamesetan olangorik agiri ez-arren, zure aldi beroagoetan lizuukeriz zuretzat autu izan dozuzanakin eta izan be, seguru nago ni, neurrikotasuna ta lotsortasuna zertzuk diran zuk susmau al izan-arren, zertzuk diranik eztakizu zuk.

KEL.—Zetarako ta zegaitik orrako guzti ori?

AND.—Eskupekoak artu ta "Yaungoikoak ordainduko al dautsu!" esaten dautsun urliren etxetiar egin nire olgeta-lagun, zure eskua; errege-ikurratz au, eta biotz aundien lokarri-agiri au! Ene! Basan'go mendi-tontorrean al nengo, andik adardun abelgorrik baño orroa aundiagorik egiteko! izan be, zergaitirik asko dot nik basati ta zakar izaleko, eta zer ezina litzake onako au txeratsu ta enieki esatea, begitena saman dauenari zer ezina litxakionez eskegitzaileari, bere arloan trebe dalako eskerrak emotea.

Aurrera ostera be Otseinak TIREU'kín.

Narrua berotu dautsazue, ala?

I OTS.—Bai, ta ondo, gero, ene yaun.

AND.—Negarrik egin ete yok? Eta azkeske eragon ete yautsak?

I OTS.—Erruki-eske baten egon da.

AND.—Bizi ba'dok ire aita, daniutu dakiola i bere aluba egin eza; eta naibaga izun egik Kaisar'en yarraila azalako, narrua berotu dauskagu aren yarraila izanagaitiketa: oíndik ara sukarrik emongo al dausk emakumeren esku zuriak, eta olango eskurik ikusiak berak ikaratuko al an. Oa atzera Kaisar'gana, emen zelango arrerea egin dauskagun esateko: ez al yak aztuko ari esatea asarralu egiten nauela ak akin; eta izan be, arro ta ezeskor dala *a* dirudi, ni zer nazan or esaka ta esaka iabilelako, ez ni zer izan nuzan. ak ondo dakianez: uaurre be asarre egiten nau ak; eta zei erraza da aldi onetan orrako ori egitea, nire zori onaren bide-lagun ziran nire izai txerakorrak, euren barru borobilak utsik itxita, euren su guztiak au-lezako ondarrera egotzi dabezanean. Gogoko ezpa'yakozak nire itzak eta nik egina, esaiok QII dauela Iparka nire yopu bere buruaren yabe

eglna, eta a, berak zalan gura, txíbiteaz aztindu, naiz eiorrioztau egin leikela, bere gogara, nirearen ordea artzeko: euk eragiok ari: oa emendik ire txibita-marrakaz. (TIREU'k alde).

KEL.—Amaitu dozu, ala?

ANJ.—Ai ene! ilundurik dago orain lurreko gure ireta rgia; eta Andoni'ren lurreratzea bakarrik diragar orain!

KEL.—Itxi egin bearko dautsat asazkatzen.

AND.—Kaisar zuritze.arren, ari aren allubetak estuten dautsazanaii kíñu egiteraño elduko zintzakez, ala?

KEL.—Oraintíik be enozu ezagun, ala?

AND.—Biotz-otz niganako?

KEL.—Ai, kutun, olangorik ba'naz, txingorrik sortuko al dau zeruak nire biotz otzetlk, eta bere iturbuiuan edenduko al dau: eta nire idunera yausi dadila lenengo arria, eta arri a urtu-ala, urtu dadila nire bizia be! Kaisarion yo dagiala urrengoak! urrengorik urrengo, nire sabelaren oroimena, nire seme-alabak, eta nire Aigitoar adoretsu guztiak, ilobiratu bagarik, lurrean luze etzanarteño... Nil'eko euli ta eltxoak euren goaki edo yanaritzat euren sabeietan ilobiratu-arteño!

AND.—Asko etsita nago. Aiexandria'n yarten du Kaisar; eta aren zori onaren uurka eragoko dot nik. Zindoro egin dautsoe gogor legorreko gure indarrak: gure ontzidi bakandua be batu da barriro, ta ur-ganean dabil, eta itsasoan bíldur emoteko da. Non izan zara, ene biotz ori? Entzuten daustazu, andera? Gudategitik barriro etorri ba' nadi, ezpanoi mun egiteko, odoldurik agertuko noz; idazkarri egingo gara ni ta nire ezpatea: bu-dago oraindik orrenbesteren itxarorik.

KEL.—Oiangoxe da nire yaun adoretsua!

AND.—Kirío irukoiztun izango naz, bieztun, bulartsu, eta erruki bagarik egingo dot burruka: eta izan be, bizia txerakor eta zori ontsu yatanean, txantxaz erosten eustezan gizonak euren biziak; baña orain, aginak erakutsita, ilunbetara bidaliko dodaz niri arpegi emon dagisten guztiak. Erdu, poz-eztitan igaro dagigun beste gau bat: dei egin nigana nire gudalburu gotilun guztiai, bete gure katilluak; beste bein eztagiogun yaramonik egin gaberdiko yoale-otsari,

KEL.—Nire urte-betetze da gaur. Beartsurí dagokonez igaroteko asmotan nintzan; baña nire yauna ostera be Andoni danazkero, Kelopatere izango naz ni be.

AND.—Onik eta ondo Ibiiiko gara oraindik!

KEL.—Dei egiezue aren gudalburu zindo guztiai nire yaunagana.

AND.—Orise egizue; itz egln gura dautsegu: eta euren zauri-atzetatik urduocí urteteraño beartuko dodaz gau onetan. Erdu, ene erregeno: ba-dau oraindik urik eta izerdirik nire landara onek. Orren burrukarik egin dagidanean, nire adiskide egingo dot eriotzea, aren igitai andurtsuaren kideko egingo dot eriotzea, aren igitai andurtsuaren kideko egingo naz-eta. (ENOBARBA'z beste guztiafc alde).

ENOB.—Tximistarria bera baño be geiago izango da orain. Bildurraren bildurrez bildurrik ez izatea da asarratzea; eta olango gogaldirik dauenean usoak be mokoka egiten dautsa aztoreari; eta ba-dakust oraindik, gure gudalburuaren burua arean kaskariniu-arren, orrexek osatzen dauela aren biotza: adoreak burua yatsn duueneun, burruka egiteko daratilen ezpatea yaten dau buruak. Ori izteko bíderen bat billatu beor dot. (Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGEHLEKU.-KAISAR'en Gudaltegla Alexandria'n.

Aurrera KAISAR idazki-irakurten; AGIRPA, MEKAINA, ta beste batzuk.

KAIS.—Mutika deitzen nau ak; eta asarre egiten daust, ni Aigilo'tik aterateko indarrik eta eskubiderik ba'leu iegetxe; makillctk'.i aztindu dau nire geznaria; guk bíok biotara, Kaisar'ek Andoni'ri burruka egiteko eupada egin daust: -yakin dagiala arroputz zakartzar alc ba-doda!a nik orrez beste biderik ilteko; bitartean barre egingo dautsagu aien eupadeari.

MEK.—Kaisar'ek uste izan bear dauena da, olango aundirik asarratzen asten danean ortxe dala ezagun yausiazoteraño erasoten yakola. Ez egiozu emon arnasarik artzeko astirik, onurarik atera egiozu zure alde dozun eretiari, a zetan dabilen eztakiala dago-ta: asarrea ezta izan eguño bere buruaren yagola onik.

KAIS.—Gure bururik onenak yakin dagiela biar egiteko asmotan gareala ainbeste gudaketatik azkenengoa. Andoni goatzeko as-

ko doguz orainisurarie aren otseln izandakoak. Artu orrako ori egiteko ardurea: yai emon egiozue gudarosteari; yaki-eda ririk asko dogu orreiarako, eia irabaziia dabe or eralgiko dana, Andoni'ren errukarri! (Alde dagie),

II AGERELKU.-ALEXANDRIA. Yaurregiko le ku,

ANDONI, KELOPATERE, ENOBARBA, KARMENE, IRE, ALEXA, ta beste batzuk aurrera.

AND.—Ak eztau burrukarik egin gurako nikin, Domiti.

ENOB—Ez.

AND.—Zegailik ez ete dau egín gura?

ENOB.—Ogei bider zori oberik dauenazkero, gizon baten aldean ogei dala uste dau ak.

AND.—I, gudari, biar egingo yautsal burruka ari urez eta lagorrez, edo bizirik geldituko nok, edo oiolez asetuko yoat il-aginik dagon nire omena, atzera bizluko dauen odolez eta odoletan. Gogor erassko ele dok?

ENOB.—Yo, ta gedar egingo dot: "Yo ta erail",

AND.—Ondo esanda; aurrera. Deitu nire eixe. ko otseinai; eskuzabal izan gadizan arrats onetan gure yan-edaneau.

Otseinak aurrera.

Ekadak ire eskua, zindo izan atxat i; bai i be, i, -eia i, -eta i; -otsein 011 izan zatxaiaze, eta erregeak izan dira zuon lagun.

KEL.—(ENOB.'ri bakarrik) Zer ete diragar orrako orregaz?

ENOB.—(KEL.'ri bakarrik) Naibagsak sartuazoten dauzan íñondiko gogaldieíariko yatsu orrako ori.

AND.—Zindo az i be. Zuok zarien beste gizon al nintz ni, eta zuok guztiok Andoni bat al zintzaze, zuok egin daustazuen besteko otseinta onik zuoi nik eyiri al dagitsuedan.

OTS.—Yainkoak galazoko al dabe olangorik!

AND.—Tira ba,!agun onok, Otseintzarik egidazue arrats onetan: erruki bagarik bete nire edaloniziak, eta nire aginte-erria zuon lagun be ba-zanean eta ak nire agindua egitsn ebanean Iegelxe aintzakotzat artu nagizue.

KEL.—(ENOB.'ri bakarrik) Zer ete diragar orrako orregaz?

ENOB.—(KEL.'ri bakarrik) Negar eragin gura dautse bere yarraileai.

AND.—Otsein izan zakidaze arrats onetan; ba-leiteke zuon egikizunaren azkena izatea: ba-leiteke zuok geiagotan ni ez ikustea; edo, ikustekotan, zauriz bete onen itzalaz besterik ez ikusteít: bear ba'da, beste ugazabaren baten otsein izango zarie biar. Agur egiten daragoionak legelxe begiratzen zauedaz. Ene adiskide zindook, nik etzauedaz ateraien eixetik, zuon otseintza onari lotu rik dagon ugazaba legetxe, eriotzarteraño zuokin batera bizi baño: ordu biko otseintzea egidazue arratseon; orixe bakarrik eskatzen dautsuet, eta yainkoak ordainduko al dautsue orrako ori!

ENOB.—Zer esan gura dozu, yaun, orrei olango naitagarik emoteko? Begira ,negarrez dagoz; eta ni, asto au, begíak kipulaz igurtzirik: lotsea-arren, ezkagizuz emakumetu.

AND.—Ba, ba, ba! sorginak eroan nagiela, olango asmorik izan ba'dot nik! Gogctrgitasuna sortuko al *da* negarrok daríoen lekuan! Biotzeko ene adiskideok, rningarrialderegi artu dozuez nire itzak; eta izan be, zuok nasaitzeko egin dot nik itz; arrats au zuok argizai-argitan egiteko gogoa izan dot nik; yakizue, ene biotzekook, ba-dodala itxaro onik biarko; eta ba-dot itxarorik nik eroango zauedazan lekuík eriotzea ta omenu baño beinago garaila-bizitzea Iritxiko dogula. Goazen aparitara; eriu, eta edaritan ito dagiguzan kezkak. (Alde daie).

III AGERLEKU.--ALEXAMDRIA. Yauregiaren aurrea.

Gudari bi aurrera, euren yagon-aldia egiteko.

I GUD.—Gau on, anai: biar dok arako egu na.

II GUD.—Zsrak batera edo bestera ebatzika dauzana: onik eta ondo ibili. Iñondikorik entzun ete dok etxartebideet-m?

I GUD.—Deusik bez. Ze barri dok?

II GUD.—Ba-ledikek zurrumurru baño ez izaiea. Gau on.

Beste Gudari bi aurrera.

II GUD.—Gudariok, arduratsu yagon, gero.

III GUD.—Bai, euk be. Gau on, gau on. (Euren lekuetan yarten dira lenengo biak).

IV GUD.—Emen gu (Irugarren e!a laugarren gudariak euren lekuetan yarten dira), eta gure ontzidiarena ondo ba'doa biar, itxaro osoa yoat gure legor-gizonak taketa legetxe egongo dirala euren lekuelan.

III GUD.—Adoretsu yagok gudaroslea, eta gogor egiteko gertu. (Eresi ta zaamiola-otsak antzeztegi-pean).

IV GUD.—Ixilik! ze zarata dok ori?

I GUD.—Entzun, entzun!

II GUD.—Entzun!

I GUD.—Eresi eguratsean.

III GUD.—Lurpean bai.

IV GUD.—Zori onik ba-díragar, ezta?

III GUD.—Ez.

I GUD.—Ixiiik, gero! Zer ete diragar?

II GUD.—Erkul yainkoa dok orrako ori, Ien Andoni maite izan eta orain bertanbera izten dauena.

I GUD.—(Beste yagolategi batera doaz) Gaioazan; guk dantzuguuna beste gau-yagolak be danlzuenentz íkusi bear yoagu.

II GUD.—K-axo, lagunak!

GUDARIAK.—(Batera itz dagiela) Onangorik! entzuten dozue onako au?

I GUD.—Bai; ez ete da iñondiko onako au?

IIIGUD.—Entzuten dozue, lagunak? Enlzulen dozue?

I GUD.—Yarrai gakiozan otsari, al dogunik urrinen; dakusagun zetara yoton dauen.

GUDARIAK.—(Batera itz dagiela) Ori ondo. iñondiko da orrako ori. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-ALEXANDRIA. Yauiegiko leku,

Aurrera AMDONI ta KELOPATERE; KARMENE, IRE, ta beste otsein batzuk.

AND.—Ero! ekadak nire guda-koskola, Ero!

KEL.—Lo apur bat egizu.

AND.—Ez, ene kutun.-Ero, ator; nire guda. koskola, Erol

Aurrera ERO, guda-koskelagaz.

Erdu, lagun on, yantzi egidak guda-koskola... gure ezpa'dadi gaur zori ona, eupada egin dautsagulako izango dok. Erdu.

KEL.—Bai, neu be lagun izango natxatsu. Ze. tarako da onako au?

AND.—Ba! bego ori, bego ori! Zu zara nire biotza guda-koskoltzen daustana, Oker, okei; onan, onan bear dau orrek.

KEL.—Bai orise, aia, neu lagun izango natxatsu: onan yoan bear dau.

AND.—Ederto, ederto. Oingoan bai, nagusi urtengo gara oingoan, Ba-dakusak, ene lagun on, oa ta yantzi egizak ire iskilloak.

ERO.—Beingo baten, yaun.

KEL.—Kako au eztago ondo loturik, ala?

JÍND.—Eguñokorik ondoen, eguñokorik ondoen; atseden artzeko geuk geure kitetik kendu baño len iñok azkatu ba'dagisku au, entzutekoak entzun bearko daustaz.-Baldar darabiltzak eskuak, Ero; eta nire erregenoa i baño ikurdidun trebeago dok egikizun onetan; arin egik egitekoa. Kutun ori, ikusiko al zenduz gaurko nire erasoaldiak, eta al zenki zelango erregetar egikizun dan orrako ori! benetako langillerik ba-zenkus orretan...

Ag[1]ntza-gudari bat aurrera, iskilloz ornidurik.

Egun on iri: ondo etorria; guía-arazoa zer dan dakianaren antza dok ik; tertzioz yagiten gozak gogoko yakun zereginerako, eta poz-atseginsz yoaten gozak atara.

AGINTZA-G.—Yaun, goiz izan-arren, millakak dim guda-yantzi apaina aldean dabela itsas-atakan zure begira dagozanak. {Gedar. Turut-ots barruan).

Beste Agintza-gudari batzult eta gudariak aurrera.

II AGINTZA-G— Goxaro eder da, Goiz on, gudalburu.

GUZTIAK— Egun on, gudalburu.

AND.—Eresi atsegingarri da zuon eresia, mutilek; tertzioz asten dok goiz au, zerbait iza. tera eldn gura dauen gaztearen gogoaren antzez, Olan, olan; tira, ekadazue ori; emendik; ondo esanda. Onik eta ondo ibili, andera, yazoko yatana yazo niri; gudari-mun yatsu au (Mnn egiten dautsa): akargarrl da orain era-mera luzeagotan irautea ta astirik olan galtzea, eta lotsea-arren atzera eragingarri litzake; galtzaiduzko gizonek legetxe, emen itxiko zaudaz orain. Urr-urretik etorri nire yarrai burrukarako gertu zagozenok; neuk eroango zausdaz burrukara. Agur. Alde AND.'k, EŔO'k, Agintza-gudariak eta gudariak).

KARM.—Eder ba'yatsu, zoaz zure gelara.

KEL.—Bidea erakutsi egidazue. Adoretsu ta txairo doa. Ak eta Kaisar'ek, biak bietarako burrukaz, ebatziko al lebe gudu onena! Olan ba'litz, Andoni..-, baña orain... Tira ba, aurrera. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-ANDONI'ren Gudaltegi, Alexanirla'tik ur.

Turut-ots barruan. ANDONI ta ERO aurrera. Gudari batek trikitx dagi eurakin.

GUD.—Zori ontsu egingo al dabe yainkoak egun au Andoni'ntzako!

AND.—Ik eta ire zauri-atzok bultzau al ninduen bein legorrez burruka egitera!

GUD.—Olangorik egin izan ba'zendu, oraindik be zure atzean zure yarrai zeunkez zure aurka yagi diran erregeak eta gaur goxean zu itxi zauzan gudaria bs.

AND.—Nor dok gaur goxean alde egin dauena?

GUD.—Nor? Beti zure aldamenean egon izan dana; dei egiozu Enobarbari. ak eztautsu entzungo; naiz, erantzutekotan, "Enok iretaikorik" erantzungo dautsu Kaisar'en gudalekutik.

AND.—Zer diñok?

GUD.—Kaisar'ekin dago a, yaun.

ERO.—Yauri, ak eztau eroan cldean bere kuixarik eta ondasuntzarik.

AND.—Yoan dok, ala?

GUD.—Seguru be seguru.

AND.—Oa, Ero, eta aren atzetik aren ondasuntzea bidali egiok; egik orrako ori; ez egik gorde ezertxo be, gero; idatzi egiok..., neuk ezarriko yautsat azpian neure izena..., agur txerakor eta ederretsia; esaiok ez al da!a izango bein geiagotan ugazabarik aldatu-bearrean.--Ene! usteldu egin dabez nire zori txarrak gizon zindoak! Egik egiteko ori, Ero. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.-KAISAR en Gudaltegia Alexandria ren aurrean,

Txera-eresaldi. Aurrera KAISAR, eta AGIRPA, ENOBARBA ta beste batzuk.

KAIS.—Urten, Agirpa, eta asi gudaketea; Andoni bizirik goatzea da nik gura dodana; iragani egizu orrako ori.

AGIR.—Egingo dot, Kaisar. (Alde dagi).

KAIS.—Ur da lur osoko bake-aldia zori ontsu ba'dadi egun au, bildur bagarik eroango dau olibo-orrolloa iru okulutako ludiak.

Geznari currera.

GEZN.—Etorri da Andoni gudategira.

KAIS.—Oa ta asaiok Agirpa'ri aurrean imini dagizala Andoni'netik igesi dabenak, Andoni bere asarre bizia bereen artean asazkatzen agiri dadin. (KAISAR'ek eta bere Yarraigokoak alde).

ENOB.—Esaldatu egin da, yagi egin da Alexa; eta Yudarr-errira yoan da Andoni'ren arazoakaz; buruan sartu dautsa an Erode Aundiari, Kaisar'en alde yarri dadilla, bere ugazaba Marka Andoni bertanbera itxita: nekeon alderako, eskegi egin dau Kaisar'ek. Artu egin dauz Kanidi ta bests alde egindakoak, baña uste onik eztautse iragarri. Txarto egin dot, eta orrako orren errudun be errudun egiten dot nire buruata, gaurtik ara eztot pozik izango.

KAISAR'en gudari bat aurrera.

GUD.—Enobarba, zure atzetik ara bidali dautsu Anáoni'k zure ondasuntza guztia, ganera bsretik esku zabalez erantsita: ni yagolatzan nengon lekura etorri da geznaria, eta zure txoznan daragoio bere mandoak ustuten.

ENOB.—Eutzako orrako ori.

GUD.—Ez egin irririk niri, Enobarba. Egia dirautsut: gudari-taldeak zear *a* zeuk seguru ateratea izango da onena; nire egikizuna bete-bearra dot nik, ostantxean neuk egingo neinketsun. Yupiter da oraindik zure inberadorea. (Alde dagi).

ENOB.—Ni bakarrik naz ludi onetan dollor eta zirtzil, eta oartzen naz dolloirik dollorren nazala. Andoni ori, Eskuzabaltasunaren eskuzabaltasun zarean ori, zuk bai ordainduduko zeunskidan nik egina baño otseintza oberik, nire zakarkeria orrenbeste urrez saritu dozunazkero! Eten eta iztenak eragiten dautsaz nire biotzari orrako orrek; gogapen bizkorrak ausi ezpa'dagi, bide bizkorragok yota ortik zear bidaliko dau gogapena: baña gogapenak berak egingo dau orrako ori. Ba-dakit zer egin. Ire aurka burruka egin be nik! Ez: zadorren baien billa yoan bear dot, an ilteko; eriotzarik zakarrena dagoko ondoen nire bizitzako oraintsusngo atalari. (Alde dagi).

VII AGEHLEKU.-Guda-lekua gudaltsgl bien blíartean.

Gudurako ots, Danbor eta turut-ots. AGIBPA ta beste batzuk aurrera.

AGIR,—Atzeratu gadizan; urrmegí eldu garai Kaisar'ek berak be eiaso bear izan dou, eta guk uste gendun baño aundiago da gogor egin bear dautsagun erasoa. (Alde dagie).

Gudurako ots. ANDONI ta ESKARA aurrera zauriturik.

ESK.—Ene inberadore adoretsu ori, burruka langO burrukea izan da onako au! Lenengotan yokatu izan ba'gendu onan, euren etxeetora bidaliko geunkezan euien buruak odoldurik.

AND.—Odol-iturria dariola ago i.

ESK.—T antzeko zauria neban nik len emen, eta H antzeko egin da orain.

AND.—Atzeraka yoazak aik.

ESK.—Sagu-zuloetara bultzauko doguzi ba-dot oraindik lekurik sel bat koska geiagorentsat nire soñean.

ERO aurrera.

ERO,—Bizkarra berotu yake, yaun; eta gurenda bikaintzat etsi leike gure aldea.

ESK.—Marratu dagiguzan arein azkenengoak, eta goatu dagiguzan, ertiak atzetik ara goatzen diran legetxes gogoko olgeta dak igesi doanari bizkarra bsrotzea,

AND.—Sari bat nire bioiza nasaitzen dokalako emongo dauskat, «Ma alango amar ire adore bikainari. Ator níB.m.

ESK.—Meikika yarraiko natxatsu. (Alde dagie).

VIII AGERLEKU.-Alexandrla'ko arresien azpian.

ANDONI aurrera, etorri datorrela; ESKARA ta Indarrak.

AND.—A baño geiago izan gara ta btte gudaltegiraño eroan dogu. Doala norbait gure aurretik aringa arregenoagana ta iragarri dagiozala gure egite langO egiteak. Biar goxean, eguzkiak gu ikusi baño len, ixuriko dogu gaur ixurtzeka gelditu den odola. Eskerrik asko guztioi; izan be, esku-sendo zarie zuok, eta zegaitiaren otsein legez eztozue egin burruka, zegaiti ori nire dan legetxe zuotarik bakotxen bere ba'litz legetse baño; arako Ektor langoxe agertu zarie guztiok. Sartu urian, mun egin zuon emazteai, zuon adiskideai, azaldu egiezuez zuon egite langO egiteak; bitartean aik euren pozezko negarrez ikuziko dautsue zuan zaurietako odol gogortua, eta euren munez osatuko dautsuez omenez beteriko zuon zauriak. (ESKARA'ri) Ekadak íre eskua.

KELOPATERE aurrera, lagundurik.

Iratso aundi oni, sorgin aundi oni goratuko yautsadaz ire egiteak, iri eskerrak emonazoko yautsadaz, ire onespentzat. Ludiaren argi ori, besartean estutu egizu iskillodun nire iduna; buiar-koskol igaro-gatxa zear yauzi zakidaz nire biotzera. zure soñeko ta guzti, eta iztartolaka yarri zakidaz an nire biotz-taupaden ganean gurendari.

KEL.—Yaunen yaun ori! Neurri bagako adore ori, iñok goatzeka irribarreka zatoz ludiko sare aundietatik?

AND.—Ene urretxindor ori, euren oeetaraño eroan doguz aik, bizkarrak ondo beroturik. Ba! neska! gure adats baltzeranagaz ule urdin banaka bat nastu-arren, ba-dogu oraindik gure zan eta kirioak bazkatzen dabezan garaunik, eta gauz gara gazteakin nok arinago egiteko, gure elburura eltzeko. Begira gizon au; emoiozu ezpanetara zure «skua, zure esku-erakutsitzat; -mun egiok, ene gudari orreki gizadiari gorroto leutson yainkok gizadia ondatu izan ba' leu legetxe egin dau orrek gaur burruka.

KEL.—Adiskide, urre utsezko guda-koskola emongo dauskat esku-erakutsiz; erregeren izana dok,

AND.—Ondo irabazlrik dau orrek orrako ori, baita Poiba gurenaren burdia lez ikatzarriz yosia ba'litz be. Ekadak ire eskua: ibilketa pozkarriren bat dagigun Alexandria zear; eroan bear dabezanak legetxe al« dean eroan daiguzan gure ikurdi mallatuak, gure yauregiak artu al ba'leu gudaroste oso ou, guztiok batera apalduko geunke, eta edate langO edateak egingo geunkez biaramoneko zori onaren alde, biarko egunak errege-galbidea diragarrsku-ta. Turutalariok, borontzezko otsez eten eragiezue uriko belarriai; nastu zuon otsa gure danbor tuntunlarienagaz; eguratsak eta lurrak biak batera ots egin dagien, gure urreratzeari txaloka. (Alde dagie).

IX AGERLEKU.--KAISAR'en Gudaltegi.

Yagolalc euren lekuetan.

I GUD.—Ordubete barns ezpa'dator gure lekua artzekorik, yagolalzategira yoan beai dogu; oskarbi da gau onetan; eta or diñoenez, goxeko ordu biak inguruan aartu bear dogu erasoan,

II GUD.—Azkenengo egun au itzalez gogor izan yaku,

ENOBARBA aurrera.

ENOB.—Autorla izan zakidaz, gau orl..,

III GUD.—Ze gizon dogu au?

II GUD.—Ur egon eta entzun dagiogun.

ENOB.—Auíor!a izan zakidaz, iretargi onetsi ori, edesticm gizon saltzalleen oroipen gorrotagarria agertu dadinean, garbaitu zala, damutu yakola Enobarba errukarriari zure aurrean!

1 GUD.—Enobarba dok!

III GUD.—Ixilik! Geiago entzun bear yautsaguk.

ENOB.—Gotiluntasunaren gorengo andera ori, nire ganera betor gabeko ezotasun izurritsua, nire gogoaz besterako nire fcizia luzaroago íntsigi eztakidan: nire obenaren suarri ta gogortasunaren aurka egotzi egizu nire biotza; eta au, naibagearen naibagaz. legor-igarturik, kizkurturik dago-ta, auts eginda geldituko da, eta amaituko dira gognpen zakar guztiak. Andoni ori, nire saltzallakeria Iotsagarri dan bestean baño zlndoago zarean ori, ezketsi nagizu zure biotzaren ixilean; baña ludiak ugazaba-izleen eta igesleen lerro ta erreskadan imini nagiala: Andoni ori! Andoni ori! (II egíten da).

II GUD.—Itz dagiogun.

I GUD.—Entzun dagiogun, orrek diñona Kaisar'eri dagokionik izan ledike-ta.

III GUD.'—Orixe dagigun, Baña loak artu dau.

I GUD.—Ez, larritu egín da; orrek egin doueena lango arrenik eguño ezta egin lotarakoan-eta.

II GUD.—Goakiozan.

III GUD.—Atzarri adi, yaun, atzarri adi; ítz egiskuk.

II GUD.—Eztozu entzutsn, ala, yaun?

I GUD.—Eriotzearen eskuak eldu dautso. (Danbor-otsak urrinean) Entzun! Lotan dagozanak pozik iraizarten daragoioe danborrak. Yagolatzategira eroan daglgun au; gizon agirietaiko da: amaitu da gure ordua.

III GUD.—Goazen, ba; ba-ledike au oraindik biztutea. (Gorpuagaz alde dagie),

X AGERIEKU^-Gudaltegi bien bitarteko lurr-arloa.

ANDONI ta ESKARA aurrera, igaro digaroen Indarrakin.

AND.—Itsasoz gertau dixa gaur aik; ezkateakez gogoko legorrez.

ESK.—Bietan daragoioe gertakuntzak egiten, ene yaun,

AND. Sutan, naiz eguratsetan egingo al leuskue burruka, antxe be erantzungo geunskieta, Bafla onan dagoz zerak; gukin egongo dira uri-ertzeko mendietan dagozan gure oñezko gudariak: emonik dago itsasoz erasoteko agindua; urtsnik dira aik itsas-ate edo kaitik: aurrera orain, aik zer dagien ondoen ikusi al daikegun lekura, aik zetara yoten daben ikusteko. {Alde dagie).

XI AGERLEKU.-Gudategiko bests ailo baU

KAISAR aurrera, igaro digaroen Indarrakin.

KAIS.—Eraso espa'dagiskue, geldi egongo ga-*Ta* legorrean. eta eztot uste erasoko dauskuenik, «ren indarrik onenak ontziz ekiteko itsasoraturik dira-ta. Ibarretara yo dagigun, gure alderen egoteko. (Alde dagie).

XII AGERLEKU.-Gudategiko beste lurr-arlo.

ANDONI ta ESKARA aurrera.

AND.—Eztira alkarganatu oraindik: andik, lerra dagon lekutik begiztauko dot guztia: bertatik ekarriko dauskat nire ustez zer yazoko danaren barri. (Alde dagie).

ESK.—Abiak egin dabez elaiak Kelopatere'n

ontzietan; gure "ogurak", guŕe igarleak ezin dcibela aitu, ezin dabela igarrl orrako orrek zer diragarren diñoe; gotilun eta mosu-luze agiri dira, eta eztira azartzen euralt dakienik esaten, Adoretsu ta biotz-yausi dago Andoni; eta, aldizka, aren alanbear aldakorrak bein itxaroa damotso, eta bein dauen eta eztauenaren bildurra. {Guda-ots urrinean, itsas-eraso dalakorena).

ANDONI aurrera barrien barri.

AND.—Dana galdu da; saldu egin nau Aigitotar zantar orrek: men egin dautso nire ontzidiak arerioari; txapeiak gora-goraka your-Uten daragoioe an, eta alkarren osasunaren alde edaten, luzaroan alkar ikusi eztaben adiskideak legetxe.-Iruren emagaldu izana, alangoa! Ik saldu nautson, ilt, asparri oni; eta nire biotzak iri bakarrik egiten dausna gudu. Igesi dagiela agindu egiek guztial; bein nire lilurapen orregazkoa egin dagidanean, egikizun guztia eginik yagok-eta. Igesi dagiela agindu egiek; oa. (ESKARA'k alde) Eguzki ori, bein geiagotan etxoal ikusiko ire urteerarik; emen banantzen dira alkarregandik Andoni ta Alanbearra: ementxe estututen dautsagu alkarri eskua. Onetara eldu da dana! Urtu egiten dira, euren gozo guztia loratan dagon Kaisar'eri emoteko, eiza- txakurrak legetxe orpoz-orpo erraikidazan biotzak, eurak zergura emon neuntsenak; eta azala kendu dautsoe, guztiak baño gorago yagiten zan ler oni. Saldu egin nabe: Aigito'ko gogo ustel ori! lllurapen astun orl! Zure begi-kiñuak eroaten nlndun guduetara eta guduetatik etKera: zure altzoa izan da nire burestun, nire elburuen elburu... azkenean be zure yoan-etorri ta atzera-aurrez ondamendiaren sokon-sakoneraño iruzur egin daustazu, benetako Aigitoarrek legetJte... Eee! Ero, Ero!

KELOPATERE aurrsra.

Ken ortik, sorgin ori!

KEL.—Zegaitik da asarre nire yauna bere mcútearen aurka?

AND.—Ondatuko al zara! ostantxean neuk emongo dautsut irabazi dozuna, Kaisar'en garaitsa olan orbandurik. Ak artu zagizala eta gora eragi zagizala, erri zeak gedarrez irri egin dagitsun; zoaz aren burdiaren yarrai, ene guztietarik zantarren ori: mamu-antzekoena zarean ori, ordain merkez, utsean erakutsiko al zauez; eta Oiabe epetsuak arpegia urratu ta ildotuko al dautsu gerturik dauzan bere atzazalez. (KELOPATERE'k alde). Ondo yoana zara, onik ba'da bizitea; baña oba litxakitsu, nire asarre goriaren bendean yausiko ba'zintzaz, bear ba'da, baten eriotzeak beste *as*korenak aurreratu eikezan-eta.-Ero, ee! Nesu'ren atorrea daroat aldean: Alkide, nire asabetariko azan Alkide, ire asarre fcizia irakatsi egidak: iretargiaren aJarretaraño yaurtingo al dot Lika; eta makilarik astunena erabili izan daben zure eskuz benderatuko al dozu nire buru omengarri be omengairi au, Ilgo da sorgina; Erromar mutil gazteari saldu nautsa, eta marro orren azpian yausten naz; il egingo da a oirexegaitik. Ero, ee! (Alde dagí).

XIII AGERLEKU.--ALEXANDRIA. Yauregiko !eku.

KELOPATERE, KARMENE, IRE, »a MARDEN aurrera.

KEL.—Lagun zakidaze, ene emakumeok! Ene! Telamon bere ikurdiagaitik baño be burutik eginago dago ori; Tesali'ko basaurdeak eztau çttera eguño olango asarre-ainasotsik.

KARM.—Il-oroigallura! Ara sartu ta ateak itxi egizuz, eta ilik zareanaren barri bidali egiozu. Gogoak eta soñak eztabe artzen min aundiagorik alkarregandik banantzerakoan, yoan doakun aunditasunak emoten dauskuna baño.

KEL.—Il-oroigallura! -Marden, oa, ta nire burua erail dodala esaiok: "Andoni" izan dala nire azkenengo itza esaiok, eta errukarriro esaiok orrako ori, arren: alde, Marden; eta nire eriotzeak zelan eragiten dautsanaren barri ekadak, Il-oroigallura! (Alde dagie).

XIV AGERLEKU.-ALEXANDRIA. Beste lekurik.

ANDONI ta ERO aurrera.

AND.- -Ero, oraindik be ba-nakusak, eztok?

ERO.—Bai, yaun zindo.

AND.—Iransuge-antzeka dok balzuetan guk

dakusgun odeia; beste bafzuefan, artz, naiz leoi, naiz guda-gaztelu yagi, naiz armol dingili, naiz sarda-antzeko mendi, naiz lurmustur urdin. zugatz eta guzti, lurrerantza euren buruak makurtu ta egurats utsez gure begicji iruzur eta irri egiten dautsenak; ikusi izan dok ik olango atzik; artizar baltzaren erakustetak dozak orrako orreik,

ERO.—Bai, ene yaun.

AND.—Orain zaldi dana, ia ia gogaketea arin dan bestean arin ezebeztu egiten dok lau oñean doan odeizko zaldia; eta berezi-ezin egiten dok, uretik ura legelxe berezi-ezin.

ERO.—Olantxe yazoten da, ene yaun.

AND.—Ero, ene mutil on ori, olangoxe zera dok orain ire gudalburua: Andoni nok emen; eta orraitiño be, ezin euki yoat, ezin eutsin yautsat ikuskizun dan nire era oneri, ene mutil. Aigito'gaitik egin yoadaz guduok; eta erregenoak... nire biotza ak ebalako, nire zala arena uste naioan; eta nire biotza nire zanean, nire biotz onek milloe bat geiago beraganatu al izango yoazan, baña aik galduak dozak orain..., erregenoak, Ero, Kaisar'ek irabazteko lez nastu yozak kartak, eta ak ustel yokatuaz, nire aintza, nire omena nire arerioak irabazteko yolcatu yok... Ez, ez egik negarrik, Ero biotz oneko orrek; geu bakarrik gelditu gozak, gure buruena geuk egiteko.

MARDEN aurrera.

Ene! Ire anderearen zirtzil! Nire ezpatea ostu yaustak ak.

MAR.—Ez, Andoni: maite zinduzan nire etzandereak, eta aren alanbearra oso-ssoan nastu zan zurearekin,

AND.—Alde egik emendik, irendu zantsr orrek; ixilik! saldu egin naiok ak, eta eriotza langO eriotzea izango yok.

MAR.—Nor baten eriotzea bein bakarrik ordaindu leitekena da, eta bein ordaindu dau ak, berea emonaz: eginik dago zuk egin gura zenduna, zure esku bagarik: ak azkenen esandako itzak "Andoni! Andoni, zindorik zindoena!" izan dira. Gero, intziri itzaletan erdi-esanik itxi dau Andoni'ren izena; erdibanatu egin dabe aren biotzak eta ezpanak: ak bizia emoterakoan, aren barruan obiratu da zure izena.

AND.—II dok, ala?

MAR,—Bai, il da.

AND.—Kendu egidazak iskilloak, Ero; eginik yagok egun luzeko egikizuna-ta, lo egin bear yoagu, Ero, Onik alde ba'dagik emendik, ondo be ondo ordaindurik yagozak ire nekeak: ea. {Alde MARDEN'ek).

Erantzi, erantzi egidazak iskilloak; Aiax'en ikurdi zazpikolxak be ezin geldituazoko leukez nire biotzeko taupadak. Ene! eten eta birrintzatu zadize ene saietsok! Biotz ori, ire ontzia baño sendoago izan adi bein, birrintzatu ta eten egik ire ontzi auskorra! Arin, Ero, arin... -Enok gudaririk oraindik ara. Zoaze ortik zear iskillo mallatuok; zindo erabili izan zarie. Alde egik apur baten. (ERO'k alde). Goatuko aunat, Kelopatere, eta negarrez azkets-eskatuko dausnat. Orrako ori egin bearko dot, luzatze guztia elorrio yat orain-eta. Etzan gadizan, argia itzali danazkero, eta ez ibili luzaroago aldarrai; oraingo neke guztiak alperrik galtzen dau berak dagiana: bai, indarra bera be nastu ta kirimildu egingo litzake indarka: ikurratza ezarri dagiogun, bai, eta dana dago eginik. Ero! -Ba-noatsu, ene erregeno. Ero! Etxon egidazu: alkarri eskulik elduta ibiliko gara gogoak euren oetsat lorak dabezan lekuan, eta gure ibilkera biziaz agoa zabalik itxiko doguz ango itzaktk: eztabe izango yarrailerik Dide'k eta aren Enea'k, eta gure yarrai etoniko dira itzal guztiak, Erdu, Ero, Ero!

ERO aurrera ostera be.

ERO.—Zer gura dau nire yaunak?

AND.—Kelopatere i! danazkero, ain omen bagarik bizi izan nok-eta, iguin yautsoek yainkoak nire zirtziltasunari. Nik, ludia nire ezpataz zatitu dodan onek, eta Netun urdlnaren bizkarrean ontziz uriak egin izan dodazan onek, gaiztetsi egiten yoat nire burua, emakumek *aña be* adorerik eztodalako; ak besteko gogo zindorik eztodalako, ak bere eriotzeaz Kaisar'eri "Neure buruaren benderatzalla nozu ni" dirautsa-ta. Zin egínda ago i, Ero, bearra etorri edinean, -eta etorri be etorri egin dok orain orrako ori-, nik nirs atzean ni salatzen lotsaria ta iguinaren iguina ikusi negizanean, nik agindutakoan ni erailteko: egik orrako ori; eldu dok orretarako aldia: ni enok ik yo ta erailten, Kaisar benderatzen dok ik, Gorritu eglzak ire mosuak.

ERO.—Yainkoak ez al dauste itxiko olangorik egiten! Nik egin bear ete dot zure arerio, Partiar geziak, euren elburua galdurik, ezin egin izan ebena, ala?

AND.—Ero, Erroma'n leiotik begira egon gurako ete eunke, eta andik ikusi ire ugazaba onan. besoak aume eginda, buru-makur, arpegia lotsariz beterik dauela; eta titartean Kaisar zori ontsun txirrinkadun aulkian

aren aurretik doala, e!a atzeUk doakon ire ugazabaren zirtziliasuna ak erakuslen dauela, ala?

ERO.—Ensunke ikusi gura olangorik.

AND.—Erdu *h<s; zami* batek osatu bear nalokela. Atera egik irs ezpala zindo ori, ire aberríaren alde gndo erabill izan dokan ezpata ori.

ERO.—Ene! yaun, azksisi, parkatu nagizu!

AND.—Nik yarei indudanean, eure eskuko egin indudanean, ez enduan zin egin ik, nik aginduazkero egingo enduala onako au, ala? Beriatik egik; ostanlxean, orainarlean ik niri egindako otseintzak alanbearrez eginak dozak, ez gogoz eginak. Atera, ta atorkil ganera.

ERO.—Orrazkero, besle aldera itzuli egizu zu*te* mosu zindoa, or ludi osoaren nagusiagotasuna agiri da-ta.

AND.—(Arpegia beste alderontza itzulirik) Aiko, ba!

ERO.—Atera dot ezpalea.

AND —Orrazkero, zetarako atera dokan, a egik.

ERO.—Ene ugazaba maite ori, nire gudalburu ta nire inberadore ori, zartada gogorrodoltsu au emon-aurretik zuri agur egiten itxi egidazu.

AND.—Or dok nire ederretsia, gízon: eta agur nire aldetik be.

ERO.—Agur, gudalburu aundi, Orain yoko ete dot?

AND.—Oraintxe, Ero.

ERO.—Ba! or doa, ba. (Bere ezpatearen ganera yausten da): onan alde egiten dot Andani'ren eriotzearen naibagatik. (II egiten da).

AND.—Ni baño amaika bider zindoago az i! Ero adoretsu ori, neuk egin bearko dodala ik ezin egin izan dokana irakasten daustak ik. Nire erregenoak eta Ero'k, euren eredu ta ikaskizun adoretsuz, nik baño lenago idatzi dabe gerorako oraigarrian euren zindotasuna: baña nik senargeiarena egingo dot nire eriotzan, eta maitearen oera doana legetxe, aringa yoango naz eriotzara. Tira ba; eta, Ero, ire ikaslelzat ilten dok ire ugazaba: igandik ikasi yoal onako au eta onan egitea (Bere ezpatearen ganera yausten *áa).* Ostera! ilik ez? Uik ez? Yagolatzakook.ee! ee! Ai ene! atzena eragidazue!

DERKETA ta Yagolak aurrera.

I YAK.—Ze ots da orrako ori?

AND.—Txarlo egin yoat nire egitekoa, adiskideok: ene! amaitu egizue nik asi dodan lana.

II YAG.—Yausi da izarra.

I YAG.—Eta amaitu dok orren ibiltaldia.

GUZTIAK.—Ai ene! zori txarraren zori txar!

AND.—Yo ta erail nagíala maite nauenak,

I YAG,—Ez nik.

II YAG.—Ez nik be.

III YAG— Ezta iñok be. (Yagolak alde).

DERK.—Ire eriotzeak eta ire zori txarrak igesí dagiela agintzen yautsek ire yarraileai. Barriok Kaisar'eri eroan eta ezpata au ari erakutsiaz bakarrik, aren adiskide egingo naz ni.

DUMEDA aurrera.

DUM.—Nondik da Andoni?

DERK,—Or, Dumeda, or.

DUM.—Bizirik yagok, ala? Eztok erantzun gura, ala, gizon? (DERKETA'k alde).

AND,—I az, ala, Dumeda? Atera egik Ire ezpatea, eta ni erailteko lain zartada emoidazak.

DUM.—Yaunen yaun ori, nire ugazabandera Kelopatere'k bidali nau zugana,

AND.—Noz bidali au?

DUM.—OraintKe, yaun.

AND.—Non yagok a?

DUM.—Il-oroigalluan, atea gillzaz ilxita. Izan dau ak yazo danazko igarla-bildurrik: ela izan be, ak ikusi izan dauenean; -eta olangorik yazo danik eztau iñok iñoz idoroko, -ak ikusi izan dauenean ba-zendula zuk susmorik a Kaisaŕekin Itundurik egoala, eta zure asarrea etxatsula yoango, ilik zalaren barria bidali dautsu; baña arako barriak zurí eragín eiketsunaren arrazkeroko bildurrak bultzauta bidali nau ni ona, zuri egia iragarlsko; eta olangoren bildumk banebanez, beluegi eldu naz.

AND.—Beluegi, Dumeda on. Deitu egizak nire yagolak, arren.

DUM.—Eee! Inberadorearen yagolak! Yagolak, ee! Erdu ona, deiez dagotsue zuon yauna!

Yagola batzuk aurrera.

AND.~—Kelopatere dagon lekura eroan nagizue, adiskide onok; aginduko dautsuedan azkenengo otseintzea yatsue onako au.

I YAG.—Au bai zori txarra, zori txarreko gara gu, yaun, zu ezin bizi zeintekez zure yarrails zindo guztietarik ain bagarik gelditzeko bestean luzaro.

GUZTIAK.—Egun onen zori txarreko be zori txarreko!

AND.—Ez, ene lagun onok, ez egiozue txsra onik egin zori txar zorrotzari, zuon naibagaz ari ederrik eginaz: ondo etorria emon egiozue gu zigortzen datorrenari, eta geuk

zigortuko yoagu a. aintzakotzat be eztogula artzen guk iragarriaz. Eragi nagizue: savriian erakutsi izan dautsuet bidea: zeuok eroan nagizue orain, adiskide snok, eta autsiez nire eskerrak guztiagaitik. (Alde dagie, ANDONI daroela),

XV AGERLEKU.-ALEXANBMA. Il-orofaallu.

Aurrsra. treiiegtan, KELOPATERE, KARMENE ta IRE.

KEL.—Karmens ori, bein be eztot alde egingo emendik.

KARM.—Nasaitu zadiz, andera maite.

KEL.—Ez, eztot alde egingo: ondo etorriak bediz guzti ta guztitaiko yazokune iñondiko la itzalak, baña ezetsi ta purruztada egiten dautsegu nasaibide guztiai; gure r.aibagearen aundiak, bere iturburuaren einean, bera dakarrena bestean aundi izan bear dau.

DUMEDA aurrera, bean.

Kaxo! ilik dok *a, a\a?*

DUM.—Ganean dau ak eriotzea, baña oraindik ezta ilik. Eegira egizu il-oroigalluaren beste aldea; ara ekarri dabe aren yagolak.

ANDONI aurrera, bean, Yagolak ekarrita.

KEL.—Eguzki ori, erre ta kiskali egizu barruan zabilkozan borobilki aundia! ilunbeok, estali egizuez ludi aldakorraren ertzak. Andoni, Andoni, Andoni ori! Lagun, Karmene; lagun, Ire, lagun, lagun, zuok beko adiskideok be: -ona gora ekarri dagigun.

AND.—Ixilik! Kaisar'en adorerik ezta izan Andoni benderatu ia itzuli dauena, Andoni'ren adorea Izan da bere burua benderatu dauena.

KEL.—Olantxe yazo be yazo bear eban, Andoni'k berak, ej bestek, Andoni benderatzea; baña zori ixarroren zori txar olangorik yazo izana!

AND.—Aigito, il-aginik nago ni, il-aginik; apur baterako bakar bakarrik eske nagoko eriotzeari, millaka ia millaka munetatik nire azkenengo errukarria zure ezpanetan yosi al dagitsudan.

KEL.—Enaz azartzen, maite, olangorik egiten..., azketsi, parkatu nagiz;;, ene yaun maite... enaz azartzen, goatuko nabenaren bildurrez: ni enaz izango edergarririk Kaisar eíozetan zori onlsuaren inberadore-erakusketan; aiotzek, edarik, sugek, epairik, eztenik, naiz indarrik ba'dau, seguru nago ni; zure emazte Otabe'k, bere begi lotsorrez eta erabagi geldoz. ezlau lortuko omenik, nigaz zer egingo kezkaz ibiliaz.-Baña erdu ona, Andoni, erdu ona, Iagun zakidae. ene emakumeok... -ona gora ekarri b#ar zauguz: lagun zakidaze, adiskide onok.

AND.—Ene! arin, sstantxean nireak egin dau. ta.

KEL.—Egiteko langgo egitekoa da, gero, au izan be! Nire yauna bai ba-dala astun! lur yota gelditu dira gure indar guztiak naibagearen astunez-eta, astunago dagi orrako orrek berez astun dana; Yune aundiaren indarra ba'neu, Merkuri ega-sendoak eragi ia Yuoiter'en aláamenean ezarriko zindukez. Baña zotoz ona apur balerako... beti izan dira ergel al Htz-zaleak... Ene! erdu, erdu, erdu; (Gora daroe ANDONI) eta ondo etorria, bai, ondo etorria! bizi izan zarean leku berean il zadiz: munka biztu zadiz: olango alik ba'lebe nire eZDanak, onan erabiliko neunkez ondatu-arteño,

GUZTIAK.—Ikuskizunaren gotilun eta astun!

AND.—Ilten nago, Aigito, illen nago: ardao apur bat ekadazu apurtxo baten itz dagidan.

KEL.—Ez, neuri itxi itz egiten: eta nik Alanbear etzandera ustelari ain gogor asarre eginik, nik irainka orretara zirikatu ia eraginda, al: ausi ta birrindu dagiala bere ixirrinkea.

AND.—Itz bat bakarrik, erregeno ezti; zure omena ia zure segurutasuna billatu egizuz Kaisar'gandik. Ene!

KEL.—Orrako zer biak eztira batera ibiltekoak.

AND.—Entzun egidazu, kutun: Kaisar'en aldamenetakoetarik Porkulei'gan bakarrik izan uste onik.

KEL.—Nire erabagian eta nire eskueian bakarrik izango dot nik uste onik; ez Kaisar'en baranokoetarik bategan be.

AND.—Ez egin negarrik, ez izan naibagarik be orain atzenetan dagon nire aldakuntza errukarria dala-ta: baña nire lengo bizitzako zori onak izango al dira zure gogakaten yaki atsegingarri, ludiko agintaririk aundien eta zindoena nintzan aldiko zorí onak; eta orain zirtzilkiro enaz illen, eztot erazten kikilkiro nire buru-koskola nire aberkideren aurrean, adoretsu yokaiu dauen Erromarra Erromarrek benderaturik. Badoakit nire gogoa, ezin dot geiagorik,

KEL.—Gizonik zindoen ori! II egin gura dozu, ala? Eztozu nigazko kezkarik, ala? Zu emen ezik, txctrrltegj baño obarik eztan Su-

di motei enetsn bizike naz, ala? Ene! ba. gira, ene emakumeok (U egiten dci ANDONI), urtuten daragoio ludiko burestunak. Ene yaun! Ene! zimeldu da, igartu da gudako lora-ixortea, yausi da gudariren iparrizarra: rautiko ta neskak gizonekin bardindurik gelditzen dira orain: yoanik da goragokoa, bardin bagakoa, eta iretargipean ezta geíditzen ezer be oargarririk. (Larriturik, lurrera yctusten da).

KARM.—Ene! nasaitu zadiz, andeia!

IRE.—II da gure erregenoa bera be.

KARM.—Andera...

IRE.=-Andera...

KARM.—Andera, andera .andera ori...

IRE.—Aigito'ko erregeno ori, inberadoreno oiii...

KARM.—Ixilik, isillk, Ire!

KEL.—Ez erregenorik oraindik *ata,* emakuine baño, esneak batu ta zereginik apalen eta zirtzilenak egin daroazan neskamea legetxe biotzaláiak benderatu dauen emakume baño. Zera da niri legokidana, nire oginiza-makilea yainko okerrai yaurtitea, eta ai esatea areina langoxe zala ludi an aik guri gure altxorra, gure ondasuntzea ostuarteño. Utsct da dana, utsaz besterik ez; ergelkeri da epea, eperik eza, ostera, txakur amurratu: orrazkero, oben ete da eriotzea bera guganatu baño len aren etxe ezkutura *arrapaladan,* briuean sartzea? Zelctn zagoze, emakuineok? Onangorik, onangorik! gora biotzok! Ba! zer da oii, Karraene? Ene neskato zindook! -Ai, emakuraeok, emakumeok, begira, ilzali da gure argia, agortu da! Yaun onok, adoretu zadize, zuzpertu zadize: -lur emongo dautsagu; eta gero, Erromar ekandu goiagarriaren arauz, adoretsu dana, zindo dana dagigun, eta arrotu dagigun eriotzea, gure yabe eginaz. Goazen; otzik dago orain gogo eskarga aren ontzi au: ai, emakumeok. emakumeok! Goa. zen; erabagiaz eta atzenik arinenaz bests adiskiderik eztogu, (Alde dagie; goitegikoak ANDONI'ren gorpua daroela).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-KAISAR'en Gudaltegia Alexandria'ren aurrean.

Aurrera KAISAR, AGIRPA, DOLABELA, MEKAINA, GALA, PORKULEI, eta beste batzuk.

KAIS.—Oa agana, Dolabela, men egin dagiala agindu egiok; arenak egin dauenazkero, atzeratze ta geroratzeaz irri baño eztauskula egiten esaiok,

DOL.—Egingo dot orrako ori, Kaisar. (Alde dagi).

DERKETA aurrera ANDONI'ren ezpateagaz.

KAIS.—Zer esan gura yok orrako orrek? Eta nor augu gure aurrera agertzen azartzen azan ori?

DERK.—Derketa yat izena; Marka Andoni'ren otsein izan naz, otseintzarik onengarri izan dan gizonaren otsein; nire ugazaba izan da *a,* zutunik egoteko ta itz egiteko gauz izon dan-artean; eta aren arerioai erasoten igaro izan dol nire bizia. Eder ba'dakitsu ni zuretzat artzea arentzako nintzana izango natxako Kaisar'eri; eder ezpa'dakitsu, emen dozu nire bizia.

KAIS.—Zer diñok?

DERK.—Ilik dala Andoni, diñot nik, Kaisar ori!

KAIS.—Tarratada aundiagorik egin bear eukean zer orren aundirik ausleak; ludi borobila ikaraturik, uri-etxartebideetara uxatu bear eukezan leoiak, eta uritarrak arein etzategietara. Ezta baten ondatzerik Andoni'ren eriofzea; aren izenari eutsala egoan munduaren erdikin bata.

DERK.—liilc da a. Kaisar; ez zuzentzearen erri-otseinek erailik, ezta alogerean artuko ezpatak erailik be, bere egiteetan omena idatzi eban bere eskuz baño; bere eskuz erdibitu dau ak bere bioiza, biotzak berak emon dautsan adoreagaz. Au da areu ezpatea; aren zauriari ostu dautsat onako au; begira egizu aren odol zindo-zindoz ovbandurik dagon ezpata au.

KAIS.—Gotilun eta motel zagoze, adiskideok? Asarre begiste yainkoak, baña erregeen begiak ezatzeko lain da barri au.

AGIR.—Eta iñondiko be iñondiko da gure barruko indarrak ain aperturi aundiz billa ibili gareanagaitik beragaitik negar egitera gu beartutea.

MEK.—Neurri-bardin ziran agan aren akatsak eta aren omenak.

AGIR.—Arena baño gogo bakanagorik eztau izan eguño gizatasunak bere lemaritzat: baña zuok, yainkook, beti emongo dauskuzuez utsen batzuk, gizonok gizon izan gadizan. Biotzean ukuturik dago Kaisar,

MEK.—-Orrenbesteko ispillulzarrik csurrean Iza. nazkero, nai ta nai ez ikusi bear, ba, orrek bere burua.

KAIS.—Andoni ori! onagiño yarrai nakik ni... Baña, ba-dakik, aiztoa ezarten yautseguk gure soñeko gatxai: edo nai ta nai ez era -kutsi bear neunskan olangoxs yauskera eguna, edo neuk ikusi irea; gu biok batera ezin egon geinlekszan goian ludi osoan; baña orraitiño be itxi egidak biotzeko odola bestean zindo diran negarrez negar egitsn, i nire anai, asmo aundi guztietan nire kide, agintaritzan nire lagun, gudategian nire adiskide ta lagun, nire soñeko beso, eta nire gogaketak ixiotuten ebazan biotza izan-arren, gure ízar alkarren arerio gorriak onagiño eltzeraño banandu bear yoen gure bardintasuna-ta. Entzun egidazue, adiskiíe onok... bcña ereti obean esango dautsuet:

Geznarl aurrera.

Bere arpegian agiri da gizon onek dakarren arazoa: entzun dagigun zer diñon. Nondiko augu?

GZZN.—Agitotar errukarrl nozu oraindik. Nire ugazabandera erregenoa, bere danik bakarrean, il-oroigalluan dago, ara baztartu-rik, beragazlco zure asmcen barri yakin gura dau, artu bearko dauen biderako bere burua gertalzeko.

KAIS.—Nasai egon dadila esaíok: iaster yakingo yok gure guraria, gutarikoen batzuen bidez, omenez, begirapanez eta txeratsu arluko dogula; eta izan be, Kaisar'ek etxok iñok irakatsi-bearrik, tserakor izateko.

GEZN.—Olangotzat yagongo al zauez yainkoak! (Alde dagi).

KAIS.—Ator ona, Porkulei. Oa, eta esaiok ari, eztogula guk ari lotsaririk emoteko asmorik; bere biotzaldialt bearko dauen nasaitasun guztia eznoiok uti. bere aundilasunak orretara bultzauta, bere buruari zartada erailkorren bat emonik, gu benderatu ezkagizan; eta izan be, a Erroma'n bizitekotan, betiko litzake gure gurenda-yaia: oa, eta alik eta arinen ekarri egiskuk ak diñonaren barri, etct zetariko egokeratan aurkitzen dokan,

PORK.—Egingo dot orrako ori, Kaisar. (Alde dagi).

KAIS.—Gata, oa 1 be orrekin. (GALA'k alde) Nendik da Dolabela, Poskulei'ñ lagun izan dakion?

AGIR., ta MEK.—-Botabela'

KAIS.—Geldi itxi egizue a, erain gogoratzen yatanez, a bere egikizunean dago-ta: laster egongo da gertu. Zatoze nikin nire txoznara; an ikusiko dozue nekez be nekez bultzau ninduela gudu onetara, eta noragiño Izan ninlzan bare ta t::erakor nire idazkietan orraitiño be: zataze nikin, eta íkusl nik onetzaz erakutsi daiketsuedana. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--ALEXAIÍDRIA. Il-oroigalluko leku.

KELOPATERE, KARMENE, ta IRE aurrercs.

KEL.—Asirik da nire naibagea bizitza obarik sortzen. Zirtzil eta aletz da Kaisar izatea; Akmbeasra ezlanazkero a, Alanbearraren olsein ziztrin baño ezta *a.* Aianbearraren esar.eko ta bendeko: eta zer aundi da bsste egite guzticik aniaitzen dauaan zera egitea; lotu egiten dauz alanbearrezko yazokuneak eta aldalcuntzak orrako zer orrek, lotan dago ta ezlau bein be errorik agoratzen edoskitekc, eskekorí ta Kaisar'eri biai yaten emoten dautsen errorik,

Aurrera, Il-oroigalluko otetan, PORKULEI, GALA ta Gudariak.

PORK.—-Gorantzíak bidaltzen dautsaz Kaisar' ek Aigito'ko erregenoar; eta zuri ak zer emotea gura dozunaz zuk gogoari eragiteko ta ausmer egiteko agintzen dautsu, zure eskakizunak zuzen izatekotan.

KEL.—Zer yatsu izena?

PORK.—Porkulei yal izena.

KEL.—Andoni'k itz egin eustan zutzaz, eta zugan uste onik izan neinkela esan eustan; baña eztausi asfco ardura iruzur egin ba' dagisiazu be, usie onik izatea etxat gauz ezetarako be-ia. Erregenorik gura ba'dau bere eskekotzai zure ugazabak, esctiozu ederreri utsik ez egiteko, errege-erri dala nagusiagotasunak gitxienez eskatu bear dauena: ari eder ba'dakio Aigito benderatua nire semeentzako niri emotea, belaunbiko emongo dautsadaz ctri eskerrak, orrako ori neure neuretik emongo daust-ela.

PCRK.—Nasai egon eta gogaldi onik izan: erregetar eskuetara yausi zara-ta, ez izan ezetariko bildurrik: ezetariko kezka bagarik eta zeure gogara egin eskakizuna nire yaunari, eta a eskerrez ain beterik dago-ta, ganaz egiten dau aren eskerrak bearrean dagozan guztien ganera: itxi egidazu ari zure bendekotasun eztia iragarten; eskerreske belaunbiko doakonuri txerakor ízuten

lagun dakiola arren egingo dcratsan bende-ratzallea idoroko dozu agan.

KEL.—Esaiozu, arren, csren zori onaren ben. deko natxakola ni, eta ak iritxi dauen aun-ditasunci hidaltzen dautsadala. Une oro da-ragoiot nik men-egite ikaskizuna ikasten; eta gogo-gogoko litxakit aren arpegia iku-stea.

PORK.—Oríxe iragarríko dautsat ari, ande-ra maite. Nasai egon, ba-dakit ba nik zure alaketearen bide izan danak berak erruki dautsala zure alaketearí.

GALA.—(PORKULEI'ri). Ba-dakusak erraz be erraz dala ori otoz-otoan goatzea (Emen PORKULEI ta Yagolatzako bi Il-oroigallura igoten dira, leío baten aurrean, ormeari deu-tsala zurubi bat iminita, eta, bein gora igo-nazkero, andik bera yatsita, KEI.OPATERE'n atzean yarten dira. Yagolatzako batzuk, barruko ageak kenduta, atea idigi egiten dabe). Yageizue no ori, Kaisar elorri-arte. (PORKULEI'ri ta Yagolatzakoai, GALA'k al-de).

IRE.—Erregeno ori, erregene orí!

KARM.—Kelopatere ori. goaiu zabez, errege-no!

KEL.—Arin, arin, ssku onok» (Sastakaia alera-ten dau).

PORK.—Geldi or, andera ainizako ori, geldi or: (Gcatu ta iskilloa kentzen dautso). Ez egiozu zure buruari olango okerrik, zu sal-tzeko bagarik, zu yareiteko egiu dogu egin dogun au-ta.

KEL.—Txakur goseakilak yareiten dauzan eriotzatik be yareiteko, ala?

PORK.—Kelopatere, ez egiozu okerrik egin ni-re ugazabaren eskuzabaltasunari zeure bu-rua manatuaz; egitez ondo erakutsirik iku-si dagiala munduak aren zindotasuna, zu-re eriotzeak eleuskio itxiko iñoz agertzen-eta.

KEL.—Non ago i, eriotza ori? Erdu ona, erdu! erdu, erdu, eta eroan egik ume ta eskeko asko lain dan erregenoa!

POR.—Ene; neurrikotasun apur bat. andera!

KEL.—Yaun, nik eztot yango ezer, eztot edan-go, yaun; eta alperriko itzik geiago egin bear ba'da, eztot lorik be egingo: Kaisar'ek al dauena egin, manatuko dot nik etxe il-kor au. Yakizu, yaun, ni enazala yoango zure ugazabaren errege-yauregira, an es-kuak esluta ibilteko; eta enauela bein be minduko Otabe motelaren begi zorrotzak. Goitegian imini bear ete nabe, Erroma mar-marlariko zaborreri zaratatsuari ni andik erakusteko? Olangorik baño obe yat obi txe-rakortzat Aigito'ko arekaren bat! Oba yat Nil'eke lupetzaren ganean narru gorritan elzan, eta ango ur-euliak euren eztenkada-ka aunditurik iguingarri egin nagiela! Oba litxakit nire aberriko piramida garratzak nire eskegitegi egin, eta andik katez eskegi nagiela!

PORK.—Kaisar'egan orretarako biderik eta zegaitirik idoroko dozun baño urriuago da-roazuz zuk zer bíldurgarrien gogaketok.

DOLABELA aurrera.

DOL.—Porkulei, ba-daki Kaisar zure ugaza-bak zuk egina, eta zure billa bidali nau: erregenoagazko, neuk yagongo dot a.

PORK.—Egin-eginean be, Dolabela, orixe dok nik geien gura nebana: txerakor izan akio. Zeuri eder yatsuna esango dautsat Kaisar' eri, *aqazho* bitartekotzat izentau ba'nagizu.

KEL.—II egin gura doiala esaiozu (Alde POR-KULEI'k eta Gudariak).

DOL.—Inberadorerjo zindo-zindo ori, ete dozu nire entzuterik?

KEL.—Eztakit ba.

DOL.—Seguru seguru be ezagun iiozu.

KEL.—Eztau ardura, yaun, nik zer entzun do-dan. naiz zer ezagun dodan. Barre egiten dozu zuk umeak, naiz emakumek euren ame-sak eralten dabezanean; ez ete da ori zu-re ekanduetaikorik?

DOL.—Eztautsut aituten, andera.

KEL.—Ames egin dot izan zala Andoní zalako inberadorerik: Ene! alango beste omesik al neu, ulango beste gizonik ikusi *a* iza-teko!

DOL.—Orrako ori eder ba'litxatsu...

KEL.—Zerua langoxe zan aren arpegia; eta aren arpegi atan yosita, intsigita agiri zi-ran eguzki bat eta iretargi bat, ibili ebilízan euren bideak zear, eta argi egiten eutsoen O txiki oni, ludi oni.

DOL.—Izakirik goren-goren ori...

KEL.—Itsasoaren ganean iztartolaka egoan: ludiaren gangarrena egiten eban aren es-ku eragiak zer borobil ereskidetsu guztien antzeko ta adiskideai egiten yakenaren an-tzeko zan aren abotsa; baña bere adorea erakutsi ta ludi borobila ikaratzeko asmo-rik ebanean, ostotsa bestean zaratatsu-as-trapalatsu zan aren abotsa. Aren eskuza-baltasunazko, etzan an negurik; udazken zan a, uztea batuago aberatsago zana: izurdearenen antzeko ziran aren atseginak; aren bizkarra erakusten eben eurak bizi zi-ran ontzitik gora: burestun aundi ta txiki-dun erregeak agiri ziran aren yairoileen ar-tean; txintxinak legetxe yalgiten yakozan sakeletik errege-erriak eta izaroak.

DOL.—-Keiopatere...

KEL.—Nik cnuei) egin dodane Iango gizonik izan daki. naiz izan ledikela uste dozu, aia?

DOL.—£z, andera zindo.

KEL.—Guzurra diñozu, yainkoak be entzungo da.cen guzurra, Baña olango gizonik ba'da-di, naiz eguño izan ba'da, amestu lediken baño aunaiago *áa* orrako gizon ori: iza-nak eztau geirík irudimenaren neurrira iñondiko oratan eltzeko: orraitiño be, izanak iruaimena benderatzeu litzake Andoni'rik iruditzea, irudimenaren itzal guztiak eze-tsi ta gaiztetsirik.

DOL.—Entzun egidazu, andera on. Zeu bes-tean aundi da zure gaitzea; eta aundi da zure naioagea, gaiduaren aunditasunari da-gokionez: ez al dot iritxiko nire elflurua, zure biotza yota atzera nirera datorkidan naLbageak nirea mindu ezpa'dagi.

KEL.—Eskerrik asko, yaun. Bai ete dakizu nigazko ze asmo dauen Kaisar'ek?

DOL.—Iguin yat iragarri gura dautsudana zu-ri esatea,

KEL.—Ez, esaidazu, arren, yaun,

DOL.—A eskuzabal izan-arren...

KEL.—Beraz, bere gurenda-yaian bere atzetik eroango nau, ezta?

DOL.—Bai, andera, asmo ori dau ak. Ba-dakit orrako ori, (Arrera-ots barruan).

BARRUAN.—Bide egin, garo... Kaisar!

Aurrera KAISAR, GALA, PORKULEI, MEKAI-NA, SELEUKA, ta Otseinak.

KAIS.—Zein da Aigito'ko erregenoa?

DOL.—Inberadorea yatsu, andera. (Belaunbi-katu egiten da KELOPATERE).

KAIS.—Yagi zadiz, eztozu belaunbikatu bear: -yagi zadiz, arren; yagi zadiz, Aigito.

KEL.—Yaun, onantse gurako dabe yaínkoak; nire yaun eta yahearen agindua egin bear dot.

KAIS.—Ez emon lekurik zugan gogaketci mo-teleri: gure aragi bizian idatzita egonarren zuk egin izan dauskuzuzan okerren oroipe-na, orrako ori alanbearrez yazoko zertzat baño eztogu etsiko.

KEL.—Lutíi onetako yaun bakar ori, nire bu-rua zuritzeko lain ezin azaldu izango dot nire auzia-ta, ba-dautort izan dodala nik le-nago be sarritan gu emakumeok lotsatu izan gabezan makurkeririk.

KAIS.—Kelopatere, yakizu guk makurkeri ta makalkeriok git:ritu ta arinda egingo dogu-zala, aundiagotu bagarik: gure asmoetara makurtu ba'dagizu zure burua, eskuzaza-bal eta txerakor diran gurs aEmoetara, al-dakuntza au zeure alderako, zeure onerako dala idsroks deiu; beña blotz-goger egin gura ba'nagizu, zeuk be Andoni'ren bidea ctrtuaz, utsean itxiko dozuz nire asmo onak, nik olangorik egiteko gogorík izan ez-arren, zure seme-alaben ondamendia ekarriko do-zu; nire asmoai zarraikiez, olangorik yazo eztadin. Ba-noa iii.

KEL.—Yoan baño eztozu, ludi osoa zear, ezi-nik eztozu-ta: zeurera zoaz; eta guk, gure armarri ta zure benderatzearen agiri ga-reanok, zeuri eder yatsun tokian eskegiko dogu guk gure burua. (Ingi edo papel bat dttmotso) Eutsi, ene yaun on.

KAIS.—Zuok emongo daustazue onua Kelopa-tere'gazko edozetan.

KEL.—Emen dozu nik txintxinetan, urretan, etu pitxitan dodau guztiaren errezkadea la-bunegin-eginean dago iminita zenbat balio daben orrako zerok; uskeririk ezta sartu errezkadan. Nondik da Seleuka?

SEL.—Emsn nozu, andera.

KEL.—Au da nire ondasun-zaia: onek itz egin dagiala, ene yaun. Bere buruaz erantzungo dau, nik ezer gorde ba'dot neutzako. Egiu esan, Seleuka.

SEL.—Andera, oba litxakit nire ezpanak iku-rratzez itxi, eztanik nire galdu-gordez esan baño.

KEL.—Zer gorde dot neutzako?

SEI.—Zuk iracjarri dozuna erosteko *aña* bai.

KAIS.—Ez, etzadiz lotsatu, Kelopatere; eier esten dot orrako orretan zuk izan dozun zurtasuna.

KEL.—Ikusi, Kaisar! Ene! begira, arin be arin batzen yakoz atzean yarraileak aundimaun-dikeriari! Gertu dagoz nire yarraileak zure izateko; eta guk gure egokerak alkarrekin aldatuko ba'geunkez, nire litzakez zure ya-rraileak. Sutu ta erre be egiten nuu Selеu-ka onen eskertsarrekokeriak: yopu ori! erosten dan maitasuna baño entzingariago ez az i! Onangorik! atzeraka oa, ala? Yoan-go az, bai, atzera, bai orixe; baña goatuko yoadaz nik ire bsgiak, egorik ba'yoek be; yopu ori, gogorik bagako zirtzil ori, txakur zatar ori! iñondikorik beekoen ori, alango ori!

KAIS.—Erregeno on ori, itxi eiguzu zuri arren egiten.

KEL.—Kaisar ori, au bai ba-da biotza zati-zati egiten daustan lotsarizko zauri... Zuk, yaun orrek, aintzakotzat etsi dozu ni ikus-ten ona etortsa, zure yauntasun orren ome-nez inguratu dozu onen apaldu ta otzandu nozun au, eta, ara! neure otseinak berak, bere zirtzilkeriz, geitu egiten daustaz nire zori txarrak! Tira, Kaisar on, esan eta au-

tortu egizu itxi dodazala nik neutzake emskume-uskerien batzuk, aintzsko eztiran alatzen tatzuk, esaterako, adiskide barriai esku-erakutsitzat emoten dautseguzan zertxo batzuk; baita esaizu, itjti dodala esku-erakutsi obarik Libe ta Otafce'ntzako, aik nire bitarteko izan dakidazan,- neuk yaten emon eta azi dodanak berak salatu bear ete nau? Yainkook! Mingarriago yat onako au, nire yauskerea bera baño be, (SELEUKA'ri) Arren, ken akit emendik, ostantxean nire alanbearraren autsetatik txatarrak aterako yozak nire asarreak. Gizon ba'intz, nire erruki izango intzake.

KAIS.—Alde egik, Seleuka. (SELEUKA'k olde).

KEL. Edonok beki, oker aituten gabezaks gu lurrekorik aundienok, oker esten gabezala besteak egin dabezan zerakaitik; eta yausten gareanean, geuk erctntzuten dautsegula besteak eginai, eta, orrexegaitik, errukarri gareala,

KAIS.—Kelopatere, guk eztogu íminten guk benderatuaren arloan ez zuk zeutzake itsi dozuník, ez autortu izan dozuniki zeure bedi oraindik be; zeuk zelau-gura erabili egizu orrako guzti ori; eta sinistu egizu sal-eroslerík eztala Kaisar, zugazkoa sal-erosleak saltzen dabezan zeretan esteko. Orrazkero, gora biotz ori,- ez egizuz egin zure buruaren baitegirik zure gogaketak: ez, erregeno maite; eta izan be, gure asmoa zeuk ze onu emon, ssugaz axe egiteko da. Yan eta lo egizu: zugazko ainbesteko ardurea ta errukia dogu-ta, zure adiskide nozu oindik ara, len legetxe; ela, orrazkero, agur,

KEL.—Ene ugazaba ta ene yaun!

KAIS.—Olangorik ez Agur,

(Txera-ots, Alde KAISAR'ek eta bere Yarraigokoak).

KEL.—Zurikerietan dabilkit *a.* neskak, zurikerietan dabilkit, ni nire fcuruaz zindo izan enadin: baña, entzun, Karmene! (Txutxuputxuka belarrira dirautso KARMENE'ri).

IRE.—Amaitu dagigun, andera on; yoanik da egun argia, eta ilunbeíarako gara gu.

KEL.—Ator arin atzera; emonik dodaz aginduak, eta dana dago gerturik; arin be arín ekarri egistan.

KARM.—Egingo dot orrako ori, audero:.

DOLÁBELA aurrera barriro.

DOL.—Nondik da erregenoa?

KARM.—Begira, yaun. (Alde dagi).

KEL.—Dolabela!

DOL.—-Andera, zeure eskariz egin dautsudan zinez bearturik. dautsudan maitasunak Yaungeíkoari eginikok legeixe beartuien nauan zinagaiUk, auxe esan bear dautsuts Siri zear egin gura dau bere bidea Kaisar'ek; eta iru egun-barru zu ta zure some-alabak bere eurretik fcidaliko zabez ak: mamirik geien, onurarik geien atera egiozu onako oni; egin dot nik zure ederra ta bete dot nire agindua,

KEL.—Dolabela, zorrean geldituko natxatsu,

DOL.—Eta zure otsein ni. Agur, erregeno on; Kaisar'en aldamenera yoan bear dot.

KEL.—Agur, eta eskerrik asko. (DOLABELA'k alde). Orain, Ire, ze uste don ik? I, Aigito' ko anderakiila ori, neu legetxe, Erroma'n erakutsiko aus: yopu zur-arotzak, euren amental koipatuakaz, arauakaz, eta malluakaz, goitegira eragiko gabez, guztiak ikusi gagiezan; arein arnasa loditan, euren yuki zakarren lunun andurlsutan saivurik, arein iurruna edan-bearrean aurkituko gara.

IRE.—Yainkoak galazoko al dabe olangorik yazotea!

KEL.—Ez, seguru be segun; da nik esana, Ire: "liktor" deretxen makil-sortadunak emagaldutzat goatuko gabez; abeslari zakarrak abesti zantarrez iñondiko zipladaz aztinduko gabez, gure belarriak be mindurik: bitarteetan antzezlari bízkorrak anlzokira gu eroan, eta an irudituko dabez Alexandria'ko gure yaiak; mozkor-rnozkor eginda aterako dabe Andoni, eta an ikusiko dot nik Kelopatere'na egingo dauan mutilen bat, níre aunditasuna emagalduren eratan antzeztuten.

IRE.—Yainko ouolt!

KEL.—Ez, ez, seguru be seguru da orrako ori.

IRE.—Nik eztot iñoz be ikusiko olangorik, nire aizazalak nire begiak baño sendoago dirala ba-dakit-eta.

KEL.—Ba! orixe da izan be arein gertakuntzai porrot eragiteko. eta arein asmo okerzitalai geiago egiteko fcidea.

KARMENE aurrera.

Kaxo, Karmene! Tira, ene emakumeok, erregeno legetxe yantzi nagizue... Zoaze nire yantzirik onenen fcilla; Kydno3'erako bidean naz ostsra fce, Andoni'ri bidera urteteko: tira, Ire, zoaz, Orain egingo dogu, benetan, gurearena, Karmene zindo: eta egiteko au egin dagizunean, zeure eskuko egingo zaudaz, azken-epaialdiraño olgau dagizun. Ekarrí gure burestuna ta ganetiko oro. Zegaitik da onako zarata au? (IRE'k alde. Zaratea barrucn).

Yagolaizako bat aurrsret,

YAG.—Baserritar bat dago emen, eta eztau gura zure aurrera agertzea galazo daiogunik: ikoak dakartsuz.

KEL.—Datorrela barrura. (Yagolatzakoak alde). Bitarteko zirtzil-zirtzilek be ba-dabe egiten egite zindorik! azkatasuna, neure buruarsn yabetzea dakast orrek, Artuta dago nire erabagia, eta nik eztot aldean emakumenik ezer: uni zuria bestean setatsu naz orain burutik oñetcraño; ezta nire izarbeletakorik orain igesi doan iretargia.

Yagolatzakoa aurrera ostera be, otsara bat dalcarren Aketoakin,

YAG.—Au da arako gizona.

KEL.—Zoaz. eta emen itxi egizu ori, (Yagolatzakoak alde). Or dok Nil'eko sugegorria, minik buyu eraten dauana, ula?

AKET.—Bai, benetan, ba-dot: baña enozu ni zuk uri ukutzerik gurako ieukienetaikorik, orren usikadea erakor da-ta; olangotatik ilten diranak gitxitan edo iñoz be eztira biztuten eta osatzen.

KEL.—•Gogoratzen dok olangoz il danik, ala?

AKET.—Asko be asko, bai gizonik, eta bai emakumerik be. Atzo berean entzun neian olango baten barri: emakume zindo bera, baña guzurti-samar; eta emakumek eleuke izan bear guzurti, zindotasuna yagote-arren izan ezik: orralco ori sugeak usigita il zala esaten eragoioen, eta ak bai ízango ebazala elorrio lango elorri gorriak... egia esateko, autorkuntza bikainik egin eban ak sugearen alde; baña or esaten dan guztia sinistu dagianik ezta iñoz be yareiko aik egin dagienaren erdiagaz be: orraitiño be, sinisgarri be sinisgarri da au, suge ori suge bakan be bakan dala.

KEL.—Alde egik emendik; agur,

AKET.—Gogo-gogoko izango aí yalzu sugea. (Lurxeon izteu dau ctsarea).

KEL—Agur.

AKET.—Begira, au da gogotan euki bear dozuna, egingo dauela sugeak berea,

KEL.—Bai, bai; agur,

AKET.—Begira, gero, bildur izan bear yako sugeari, etxako izan bear uste onik, yente zurrek yagon ezpa'dagi; ezetariko onlasunik eztau sugeak-eta.

KEL.—Ez izan ik orren ardurarik, ezta kezkarik be; arduraz yagongo yoagu.

AKET.—Bapo. Ez egiozu emon yatekorik, yatekoa lain be ezta-ta.

KEL.—'Neu yango ete ninduke?

AKET.—Ez uste izan ain aketo, ain tentel nazanik, nik ba-dakit txerrenak be eztauela yaten emakumerik-eta: ba-dakit nik yainkoen yanari dala emakumekia, bterrenak berak erreta ez egotekotan. Baña, benetan, txerren sasikumeok okerrik eta kalterik asko egiten dautse yainkoai yainkoon emakumeetan, yainkoak egiten dabezan amar emakumetarik bost lorrindu edo muzkildu egiten dautsez-eta.

KEL.—Ori ondo; oa; agur,

AKET,—Bai, nire sinistea-arren: gogo-gogoko izango al yatsu sugea. (Alde dagi).

Barriro aurrera ÍRE, yantzi, burestun, eta gane. tikoakaz.

KEL,—Ekadazu nire yantzia, buruan imini egidazu burestuna; ilezintasunari luze eretxita nagola oartzen non; oináik ara Aigito'ko maatsen marna gozok etxon ezatuko nire ezpanik... arin, arin, Ire on; brinean. Andoni deiez dagokidala uste yonat; íkusi dakust *a* yagiten, nirs egíte zindoa goratu ta txalotzeko; Kaisar'en zori onari írri ta barreka entzuten yonat nik a, yainkoak gizoni olango zori onik emoten ba'dautse, gero euren asarre bizi-aldian txibitea erabilteko bidetzat emoten dautse-ta. Senar orí, ba-noatsu: níre adorea orrako ízen orrsn izengarri izango al yat! Su ta egurats naz ni; beeragoko biziízeari damotsadaz nire beste lengai eta zatiak.-Olan, olan... egin don egitekoa, ala? Erdu ba, eta artu azkenengoz nire ezpunetako epela, Agur.Karmene txerakon Ire, betirako agurra, (Mun egite-n dautse. Lurrera yausi ta il egite.n da IRE).

Sugegorririk ete dot ezpanetan? Yausl egin sara? I ta izatea alkarregandik orren samur banandu al ba'zarie, maitaleren atximurra langoxe *ia* eriotzearen zartadea, minik egin-arren gogoko dan atximurra langoxe. Oraindik be etzanik ago? Olan ondatzen ba'az, agurrik egingarri be eztala dizautsan ik ludiari.

KARM.—Urtu adi, odei estu-sarri ori, eta euritu adi, yainkoak eurak be negarrez daragoioela esan al dagidan!

KEL.—Zirtzíl egiten yal onako au: ak egin ba'dagi lenen trikitx Andoni ule-kiskurrakin, mosu eskatuko dautsa Ire'ri, eta Ire'k artuko dau *a* artzea nire zeru dan aren muna. (Bularrari deutsala iminten dauan sugegorriari dirautsa). Tira, zori txarreko ilkor ori, beingoan azkatu egik ire agin zorrotzez nire biziaren korapil kirimildu ta azka-gaitz au: asarratu adi ta egik nirearena, ergel edentsu gaxo orrek. Ene! itz egiten al euki,

Kaisar oundía astako zakar deitzen nik iri entzun al izateko!

KARM.—Eguzki-aldeko izar ori!

KEL.—Jxilik, ixilik! eztakusazu bularrean dodan Jiíre seintxoa, lo arrazoteko iñudeak eradosten daragoiona, ala?

KAKM.—Eneí ene! ausi akit, biota ori! Ene! uusi akit, biotz orií

KEL.—Usain gozoa bestean ezti, eguratsa bestean apiiz, zera bestean... Andeni orl! (Beste sugegorrl bat irnínten dau besoari deutsala). Bai, i be artuko auti zegaitik eta zetarako egon bear dot enien?... (Oe-ganera yausi ta il egiten da).

KARM,—Ludi zirtzil onetan? -Olan, olan, onik eta ondo íbiii... Oraiu bai arrotu ta ilarraindu zeindekez, eriotza ori. bardin bagako neskatoren yabe zara-ta, lixi zadize, betazal apitzok, begi-leio samurrok,* eta iñoz fce beste bein ez ul duu ikusiko Poibu urreztaua onenak langa beste erregetar begik! Alboratu egin yatsu burestuna; neuk aríeztuko dautsut, eta nireu egingo dot gero.

Yagolatzakoak aurrera, aringa,

I YAG.—Nondik da erregenoa?

KARM.—Ixilago itz egizu, ez egizu iratzarri.

I YAG.—Kaisar'ek bidali gauz...

KARM. Geznari geldoegiak bidali dauz ak. (Sugegorri bat ezarten dautsa bere soñari). Ene! arin, arín egik Ire egitekoa; arean asmatzen uut.

I YAG.—Erdu, ee! emen sztabil ondo zerbait: marro ta iruzur egin dautsoe Kaisar'eri.

II YAG.—Or yagok Dolabela, Kaisar'ek bidalita; dei egiozue.

I YAG.—Yazotekoa yazo da emen! Karmene, ondo eginik dago onako au, ala?

KARM.—Ondo eginda, eta errege langa ainbeste erregegandik datorren erregenori dagokionez eginda, ganera. Ai! gudarí! (II egiten da).

DOLABELA aurrera ostera be.

DOL.—Zer yazoten da emen?

II YAG.—Guztiak ilik.

DOL.—Kaisar, emen dok ire asmoen ondorena: eu ator, ik ainbesteko aperturiz galazo gura izan dokan egite itzala eginik ikusteko.

BARRUAN.—Bide egin, bide egin Kaisar'eri!

KAISAR eta bere Yarraigokoak aurrera barrien barri.

DOL.—Ene! yaun, igarla segurusgi zara zu: eginik dago zuk bildur zeuntsana.

KAIS.—Atzenean izan da adoretsuen, igarri dauz gure asmoak, eta erregeno izanik bere bidea artu dau. Zelan il dira? Eztautset ikusten odoiik.

DOL.—Nor da oraintsuen eurakin egon izan dana?

I YAG.—Baserriko aketo bat, erregenoari ikoak ekarri dautsazana, Au da aren otsarea.

KAIS.—Orrazkero, edendurik il dira.

I YAG.—Kaisar ori! oraindik ointxe-ointxearteño bizirik egon da Karmene au; zutunik egon du tu itz be egin dau; bere etzanderearen burestuna bere lekuan iminten idoro izan dot; ikaraz eta dardaraka egon da 2utunik, eta gero bapatean yausi da lurrera.

KAIS.—Makaikeri orren zindo! edenik iruntsi izan ba'iebe, aunditurik legokez orrein soñak: bafia íotan dagola dirudi no ori, bere edertasunaren sare liiurugurrietan beste Andoni'ren bat goatu gura ba'Ieu legetxe.

DOL.—Odol-unetxo bat agiri da emen bere bulurrean, eta arean aunditurik dago; beste ainbeste agiri da bere bssoan.

I YAG.—Sugegorri-atz da onako au: eta ikoorriok zer laban-eraskorrik ba-dabe euren ganean, sugegorriak Nil'eko artzuloetan iztsn dobena langoxerik.

KAIS.—Egi-antzeko be egi-antzeko da olantxe il dalu no ori; etu izan be, orren osagilleak esan daustanez, erraz eta samur ilteko berein bideren Lilla ibili izana da ori.-Bere oean eragizue ori, eta atera orren emakumek il-oroigallutik: berorren Andoni'ren aldamenean eortziko dogu ori: munduko ilobik eztau urtuko bateru orreik baño bikots entzutetsuagorik. Euren egille diranai ukutzen dautse biotzean onango yazokune aundiak; etu euren edestiak sortuazoten dauan errukiak bardindu egiten dau egokera negargorri onetara ekarri izan dauzanaren aintza edo omena. Erakusketarik aundienaz lagun izango yako ileta oni gure gudarostea; eta bein ori egindakoan, Erroma' ra.--Tira, Dolabela, erarik onenaz eta arrandiz egin dadillu ileta aundi au. (Aldi dagie).

Salta'n 1962-VII-26'garrenean, Ane Deunaren egunez,

LAN ONETAKO iTZ GITXI EZAGUN BATZUK

AZKON.—Burdinezko, naiz beste meialezko moko zorroztun makilatxo, gudarako,

AZKONDARI.—Azkonak yaurtiten terbe.

AZPEGI.—Atz-begi. Beso, oin, begi ta gure soñeaii zerbaiterako diran atalalt.

ASTATU.—Zerbaiten aldean beste zerbait, as. luntasunez, alango zenbat dgn neurtu.

BAKALDUN.—Errien baten agintzarik berak bakarrik dauena,

BAKAULKI.—Bakaldunaren aulki, yezarleku.

BAZKA.—Yanari. Ortik dator "bazkari" itza.

BAZKATU.—Yaten emon. Ortik dator "bazkaldu" itza.

BESTAL.—Errornarren aríean izen au yaurelxeko sua yagoten eben neskagarbiat emoten yaken. Auzo-izkuntzatiko dogu itz au, ez gurean sorturík,

BURESTUN.—Buruko estuna ,elastun edo erastun eri edo atzeko estun danez. "Koroi" euskalgaiztoz,

EDEN.—"Bereno", naiz "pozoi" euskalgaiztoz. Edena ixurtzen dabe suge batzuk euren agin batzuetatik, oiango aginen zulotik, sugeak usigita.

EGURATS.—Arnasaz artu ta egozten dogun zer ikus-ezína. Bizi garean Lur au eguratsetan dago. Astiro dabilen eguratsari "aide" esaten dautsagu; bizkor dabilenari, "axe"

ERAIL.—Ilazo, íl eragin, eran,

ESTUN.—Gai gogorrezko begiten.

GARAITE.—Burrukan nagusi urtete.

GE7NARI.—Norbaiten aldetik norbaiteri bojrien bat daroatsona.

GEZl.—Arranbelaz yaurtiten dan makilatxo moko-zorrotza.

GURENDA.—Garaite, zerbaiten guren, goikoen urtetea.

GURENDAKETA,—Gurenda-yai, "triunio" dala, koa.

IDAZTI.—Liburu.

EDESTI.—Gizonen arteko gora-bera edo yazokunen azalbena dakarren idaztia.

ISPEL.—Itxi-idigi egiten diran txirrintola-antzeko koskol gogor biren barruan bizi dan itsaszer bizi, Erderaz "ostra" deretxoena.

IZKORA.—Itsasoa bein legorrerantza, bein barrurantza yoaten da. Legorrerantza yoateari "izkora" deretxo; barrurantza yoateari, ostera, "izpera".

IKURRATZ.—Euzkalgaiztoz, "sillu".

KAKITU.—Zerbait geiegi, naiz sarriroegi yanaz iguindu.' Arratia'n beintzat mardul bizi da itz au.

LER.—Euskalgaiztoz, "piiiu". Aldiotan íer geiegi dogu gure mendietan, eta beñola lantzen ziran lurretan be: gure baserrien ondamendi da zugatz au.

MARGO.—Euskalgaiztoz, "kolore". Eztakit itz au euskal-itz yator danentz, baña sasikumetzat dabe oraingo ainbat idazlek, eta asarre surr-otsik asko entzungo dautsezu idazle bati baño geiagori, berau aitatu be egiten dogulako. Non idoro ete eban, nongo sasitza, naiz bide-baztarrean Mervas eta Panduro'k gure sasikume dalako ume errukarri au?

MARGOZTAU.—"Kntau" esango dautsue "margo"ren arerio gorriak, eta buru-tente ta nasai geldituko yatsuz.

MEIKI.—Naparroa'n Arbizu'ko itz dogu au, eta "koxo", "erren" esan gura dau,

MHIKIKA.—• "Koxo"ka ibili.

MUSARRAKIN.—Zerbait askoren artean ordaintzen danean, bakotxak orretarako emoten dauena. Erderazko "cuota", "escote",

NAGUSIAGOTZA.—Yaungoikoaren nagusiagotzeak kikildurik eta arriturik izten gauz. Ingelandarrak "majesty", españarrak "majestad" esaten dautsoe.

OTURUNTZA.—Yataldi, alan be ugari ta bikain ba'da.

TXIRO.—Ezeuki, bearlsu, ondasun bagako, naiz oso gitxiko.

URRILO.—Landara onen ur edo izerdiak lo arrazoten dau.

UZTA.—Gari, naiz beste yakiak etxera batzea.

YAREI, YAREGI.—Azkatu, azke ítxi loturik egon dana.

YAURRI.—Euskalgaiztoz "gobernau" esaten dautsuena.

YAUZI.—Soña lekuz aldatu, orretarako oin biak batera eragita.

ZAURI-ATZ.—Zauriak soñean izten dauen ezaugarria.

ZEI.—Errian yan-edari ta ganetikoak saltzen diran lekua.

K O R I O L **A** N

[KORIOLANUS]

KORIOLAN

(CORIOLANUS)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO **LAGUNAK**

KAI MARKI KORIOLAN (Caius Marcius Coriolanus), Erromar Andiki.
TITA LARTI (Titus Lartius) / KOMINI (Cominius) Boiskotarren aurkako gudalburuak.
MENENI AGIRPA (Menenius Agrippa). KORIOLAN'en adiskide.

SIKINI BELUTA (Sicinius Velutus) YUNI BURTA (Junius Brutus) Erriaren Tirbunak,
MARKI GAZTEA, KORIOLAN'en seme.
Erromar ALDARRIKARI,
TUL AUPIDI (Tullus Au(idius), Bolskotarren gudalburu.
AUFIDI'ren Ordeazkoa,
AUPIDI'ren Zinkideak.
Antiurn'go Urikiáe bat,
Bolskar Yagola bi.

BOLUMINE (Volumnia). KORIOLAN'en *ama*,
BIRGILE (Virgilia). KORIOLAN'en emazte,
BALERE, BIRGILE'ren adiskide.
BIRGILE'ren laguntzako aitonalaba,

Erromar eta Bolska, Agure-baízarrekoak, Aide Naçrusl edo Patirkitarrak, Edilak. Litorak, Gudariak, Urikideak, Geznariak, AUPIDI'ren Otseinmk, eta beste Otsein batzuk.

AGERELEKU.-Aldiz ERROMA'n, eta «Idiz Bolskar eta AnUarren lurraldean,

I EKITALDI

I AGERLEKU.-.ERROMA. Etscsrtebide.

Urikide-talde asaldatua aurrera, makila, adaki ta bestetaríko iskilloakaz.

I URIK.—Entzun nagizue aurrerago yoan baño Ien,
URIKIDEAK.—Itz egik, ba, itz egik.
I URIK.—Goseak ilik bizi bañs len, llteko gertu ete zagoze?
URIKIDEAK,—Geita baño geitaago.
I URIK.—Lenen, ba-dakizue Kai Marki dala Erriaren areriorik andiena.
URIKIDEAK.—Ba-yakiguk ori, ba-yakiguk.
I URIK.K—-Erail dagigun a, eta geuk gura doguna kostauko yaku garia, Erabagia arturik ala?
URIKIDEAK.—Oiregazko itzik bal bez geiago; dagigun egitekoa: goazen, goazen!
II URIK.—Itz bat, urikide onolc
I URIK.—UrikHe onak gu? Uriklde beartsutzat esten gaioezak gu; Aide Nagusiak, Patirkitarrak dozak on. Agintarien ondakinak liticalriguzak asko guri; euren geiegia emongo ta'leuskue, usteldu bctño len, sinistuko geunko gizontzat artu ta lagun eta sorosle yakuzala; baña aik kaniegitzat gabez gu, guri eusteko; arein ondasunen agiria, arein ondasunak zeatz iragarten dauzana da gu naibagatuten gauzan argaltasuna, gure bearizana; iiabazi yakez ai gure neke-lorrak... Artu dagigun onako onen apena, azaskatu gadizan gure aztamaki'ez, arein esku-itillatu baño len; ba, ba-dakie yainkoak ogi--gosez diñodala diñodan au, ez azaskatute--egarriz.

II URIK.—JMctn be Kai Marki'ren aurka yoatea gura dozue, ala?

I URIK.—Aren aurka lenen; txakurrt» bera dok *a* erriarentzako.

II URIK.—Gogotan ete dozue *ate* bere aberriaren alde egin dauena?

I URIK.—Bai, eta gogotan be gogotan; eta pozarren ordainduko geunskio gure ttutorpenik onenagaz, berak bere buruari arrokeriz ordaindu ezpa'leutso.

II URIK.—Bai, baña ez egin itzik gogo txarrez.

I URIK.—Zera dok nik dirauskadana, orretarakoxe egin dauela ak ospe andiz egin izan dauena: gizon biozpera ta siniskorren batzuentzat asko izan-arren ak egin ebana bere aberriaren alde egin ebala esatea, egitez bere amaren ederta-arren egin eban ak, eta bai bere arrokeria-arren be, aren arrokeria bers onindarrak besteko ba-da izan be-ta.

II URIK.—Ari bere izalceratik besterik ezinez datorkona uts e'a akaztzat dok ik. Ezetara be ezin esan einlce a geiagokeritsu danik.

I URIK.—Olangorik ezin ba'yoat, enok aurkituko a zetan salatu eztodalarik; ba-yok ak utsik, bai geiegi be, barriro nik esanaz zuoi gogait eragin bagarik. (Gedarrak barruan) Ze gedar doguz orroik? Yagi da uriko beste aldea: zegaitik daragoiogu emen esamesaka? Kapitoli'ra!

URIKIDEAK,—Ixilik! nor dator or?

II URIK.—Meneni Agirpa ainlzakoa, erria bati maite izan dauena,

I URIK.—Zindorik asko dok ori; ori langO *al* lira beste guztiak!

MENENI AGIRPA aurrera.

MEN.—Ze zeregin darabjltzue esku-artean, aberkideok? Nora zoaze makila ta adakiekaz? Zer yazoten da? Ilz egin, arren.

I URIK.—Elxako ezezagunik gure arazoa agure-batzarrari; izan dabe aik amabost egunotan gure asmoen susmorik, eta orain egitez erakutsi gura dautsegu. Eskale beartsuak arnasa sandoa dabela diñoe aik; beso senidorik be ba-dogu!a yakin bear dabe,

JvlEN.—Ba, yaunak, ene adiskide onok, nire auzokide zindook, zeuon buruak ondatu bear dozuez, ala?

I URIK.—Lendik gagoz gu ondaturik asko, yaun, eztogu ondatuagotuko gure bururik.

MEN.—Ardurarik maitakorrena dautsue Aide Nagusiak, eta neuk dirautsuet au, adiskideok. Zuon bearrakazko, yakirik ezagaitik zuon neke-lorrakazko, ainbaten litxakitsue zuon makila ta adakiekaz zerua yo ta makila-adakiok Erroma'ko lege-erriaren aurka eragi; eta izan be, Erroma'ko lege-erriak aurrera egingo dau bere aurrerapidean, zuok ezarten dautsazuen eragozpenaren aldean milla bider sendoago litzakezan eragozpenak eta lokarriak ausi, eten eta blrrinduta,* yainkoak eurak dira yaki-urritasunaren errudun, ez Aide Nagusiak; eta zuon belaunak opatu bear dautsezuez oker ori arteztuteko, ez zuon makil-adakirik. ñi ene be ai ene! Ezbear andiagora zaroaze zuon ezbearrak; *ela* zuon areriolzat biraoka eragota, egin-eginean b^ zuon guraso ba'lira lez zuon ardurea daben lege-erriaren lemagizonen anrka txarto esalca daragoiozue.

I URIK.—Gure aríurarik izan be aik! Ardura argia areina! eguño ezfabe izan aik gure ardurarik. Gosez ilten izten dauskue, eta alez ganezka dagoz arein mandioak; diruaren irabaziagazko legeak egiten dabez aik, geiegi irabazten dabenai eusteko; ezetza emoten dautse egun oro aberatsen aurka agertuten diran Isgegei osasungarriai; eta egunetik egunera geroago ta erabagi gogorragoak onartzen dabez, beartsuak lotu ta geldi eukiteko, Guduak iruntsi ezpa' gagiez, aik iruntsiko gabez; eta au da aik dauskuen maitasun, biotz on guztia.

MEN.—Edo gezto be gezto zariela autortu bear dozue, edo ergeltzat salatu bear zaueguz. Ipuin polit bat eralgiko dautsuet: baledike 2uok lendik bera entzunetariko izatea; baña arira datorkidanazkero, entzunago egingo dot, barruan usteldute itxi bagarik.

I URIK.—Tira, ba, entzun gura dol, yauns orraitiño be ez uste izan gure bearr-izanari ipuinez ziririk sartuko dautsazunik; baña eder ba'yatsu, eralgi egiskuzu.

MEN.—Beñola soñeko atal guztiak yagi ta asaldatu egin ziran sabelaren aurka; onan salatu eben a: itsas-kolkoaren antzera bera bakarrik geldituten zala soñaren erdian, alper eta arkolo, geroago ta yaki geiago batuten, besteakaz batera iñoz be lana dalakorik egiteka; bitartean beste lankiak entzuten, ikasten, asmetan, irakasten, ibilten, oartuten eta alkarren lagun izaten eragoioen, eta yangarraren otsein ziran eta guztien soin osoa maite eben. Sabelak erantzun eban...

I URIK.—Tira, yaun, zer erantzun eban sabelak?

MEN.—Esango dautsui, yaun..., birietatik bagarik beste nonbaitetik elorren irribarre da-

lakoz, baña orraitiño be irribarrez, eta izan be, sabelari irribarre ez eze itz be eragiten dautsat nik, sabelak agirika-antzean onan erantzun eutssn bere iruntsi-bearrci begi txarrez ikusten (?ben soin-ctlctl muker cisaldatuai, zuok lcsngoxe eztiralako tjtctrto esaka darabiltzuozan agure-batzarrekoak boslean egoki la arira,

I URIK.—Nondik da zure sabelaren erantzuna? Ba! Errege-burestuna daroan gure buruak, begi atzarriak, biotz onulariak, gure guiari dan besoak, gure zaldi dan zangoak, gure tutulari dan miñak, eta gure lantegi onetako beste yctgola ta laguntzakoak zera egingo ba'lebe...

MEN.—Zer orduan?,,, Itz egiten be eztaust izlen urli onek, gero!,.. zer orduaní Zer orduan?

I URIK.—Soñaren ur zikin-bide dan sabel ase--ezinak, sabel saitzarrak beste soin-atalak bere bende gogorrean azpiralurík ba'leuz„.

MEN.—Ori ondo, eta zer olangorik yazotekotan?

I URIK.—Len aitatu dodazan langileok alakatu ba'lekioz, zer erantzuteko sabelak?

MEN.—Neuk esango dautsuet: zuok orretarikorik gitxi dozuenetik apurtxo baterako epea emon ba'dagistazue, entzungo dozue sabelaren erantzuna,

I URIK.—Luze be luze eretxita gagotsuz, etzara baingoan esatekorik,

MEN.—Oar zakioz onako oni, adiskide; astiro ebatzi eban zure sabel ben-benak, ez itsurnustuan eta bal-botean bere salatzalla epebakoak Iegez, eta onan erantzun eban; "Egia da, soinkide adiskideok, neuk arízen dodala lenen guztientzako dan yanaria ía zuoi biziazoten dautsuena; eta egoki da olan izatea, neu nazalako soin osoaren ondasundegi ta salgeitegi: baña, aztu ezp-a'yatsue, nik arlzen dodana ortik zear bidaltzen dot odolezko zuon ibaiak zear, baitct srrege-yauregira bertara be, biotzera esan gura dot; garauntegira be bai..„ eta gero gizonarsn soñeko oditxo ta beste bideak zear nigandik artzen *áahe* zamil sendoagoctk elcr zan makalagoak, eta makalen eta mengelenak be bai bizlteko bear dabena, bere neurri egokiz; ela, ene adisskideok, zuok guztiok batera olan artzen dozue", Sabela da, gero, onan itz egiten daragoiona,

I URIK.—Bai, yaun; tira ba, tira ba,

MEN.—"Zuok guztiok batera ezin ikusi izanarren nik zuotarik bakotxari emoten dautsadana, eztot nik kontuctk egin-ezinik eta zuoi erakutsi-ezinik uruna artzen dozuelci nigctniik zuok guztiok, eta ni r.eu zai utsagaz gelddituten nazala". Zer esctteko suok onako oni?

I URIK.—Erantzun bat baño etxatsu ori: ze ondoren ateraten dozu zuk oriik?

MEN.—Erroma'ko agure-batzarra c!a orrako sabel ona, eta asaldaturiko soin-cttalak zuok; izan be, aztertu egizuez arein onuak elct ctrdurea; zuzen cmsmertu egizuez zerak, erriaren osasunari dagokiozanak; ori egitekotan, or idoroko dozue guztientzako ondasunetatik zuok artzen dozuenik bat be eztala arein bitartez eztatortzuenik, ez zuok zeuokandik. Zer usíe dok ik fceereugoetariko, zirtzilenenetariko, beartsuenetariko orrek asaldatze zur eta burutsu onetzaz, ik besteen aurrendari azan orrek? batzar onen fceatz nagusi azan orrek?

1 URIK.—Beatz nagusia ni? Zegaitik beatz nagusia?

MEN.—Asnldatze zur be zur onetan i beerengoetariko, zirtzilen ela bearlsueneiariko izanik, aurren abilelako; ik zital orrek, izan lediken odolik zakarrena dokan orrek aurreak artu dautserak besteai eure alde irabazien bat aterateko, Baña gertau egizuez zuon makila tct adaki gogorrak! Aíkarregoz burruka egin-aginik dagoz Erroma ta bertako arraloiak; eta lur yota gelditu bear dobe alderdi batekoak edo bestekeak...

KAI MARKI aurrera.

Gora, Marki zindo ori!

MAR.—Eskerrik asko, Zer yazoten da, zital asaldciriok, zuon eretxiaren legenar errukarriari azka lct azka eginaz zauritu ta odoldu zarienok?

I URIK.—Beti gagoz zugandiko itz onen baten begira.

MAR.—Zuritzallarik askarriena baño be askarriago izango dok iri itz onik egin dagiskana.-Zer gura dozue txakur zistrinok, ez gudurik ez bakerik gogoko etxatsuenok? Bildur dautsazue batari, arrotu egiten zauez besteak. Erbiak idoroko dauz leoiak idoro bear leukezan lekuan, zuokan uste onik yarri dogianak; anlzar.rak, azeriak idoro bear leukezanean; zuok etzarie bape seguruago ikatz goria lei-ganean, naiz txirgora-arria eguzkitan baño. Zera *áa* zuon onindarra, gaiztakeriak lurreratu dauer.a gorestea, eta ari zigorra ezarri dautsan zuzentzea biraotutea. Zuon gorrotoa irabazten dau anditasunik irabazi dagianak; eta gizon gexoaren yangarraren antzeko dira zuon biotzaldiak, olangoak gatxik geien egingo leuskiona yan gura izaten dau-ta. Berunezko arrain--egoz uger egiten dau zuon biotzen ederra-

ren bendeko danak, eta iiz lurreratu gura dauz aretxak. Eskegiko al zauez! Zuon uste onik izan be nik! Unetik unera aldatuten dozuez asmoak eta gogoa; zindo deitzen dozue oindo ointss gorroto izan dautsazuena, eta zirtzil zuon arrokizun eta lora-sorta izan dana, Zer yazoten <*ia* uriko ainbat lekuotan zuok agure-batzarraren aurka ekiteko, yainkoen urren lotsa ta bildur dautsazuenaren aurka, agaitik ezpa'litz alkar iruntsiko zeunkienaren aurka ekiteko? Zeven billa yabiltzak oneik?

MEN.—Euren saneurriko gariaren billa; eurok diñoenez, garirik asko dago uriko mandioetan-eta.

MAR.—Eskegi egizak! Ori diñoela orreik! Bai, gangarkeriak esango yoezak orreik, sutondoan yezarrita egon eta Kapitoli'n zer egiten dan ba-dakielakoarena egingo yoek; gora nor yagiko dan, obarantza nok egilen dauen, nor doan aurbera; asaldarien alde yarri, ze ezkontza egingo dan igarriarena egin; alderdiak sendotu, eta gogoko etxakiena euren oñetako adabauak baño berago imini. Garirik asko dagola diñoela! Errukiari baztarrera eraginda(Aide Nagusiak iLxiko ba'leusts nire ezpatea erabilten, yopuok zalitu ta zeatu ta euron millaka gorpuz nire aztamakilea ara eldu-alako baño mendi andiago egingo neunke.

MEN,—Bai, ia osoan etsita dagoz oneik orretzaz, berezpiderik ezean aberats izan-arren iñok uste leiken baño kikilago dira-ta, Baña, arren, zer diño beste taldeak?

MAR.—Sakabanaturik idira aik: eskegiko al dabez! Gose zirala eragoioen aik; atsotitzak esaten eragoioen... arrizko esiak be lurreratuten dauzala goseak, txakurrak be yan egin bear izatsn dabela.,., yateko egina dala okelea... gizon aberatsentzako bakarrik eztabela bidali yainkoak garia...; esakerci--erdikinokaz iragarri dabez aik euren alaketak; eta esanoi erantzunik, eta euren eskari bat onetsirik... iñondiko eskaria onetsl yake, gero, Aide Nagusi eskuzabalen biotza austeko langoa ta al arroa zurbildu legikena,„ arein txapelak gora-goraka egotzi-bearra ikusirik, Iretargiaren adarretatik eskegi bear ebezala esan edikean, alkarren leiaka zarataka.

MEN.—Zer agindu yake?

MAR.—Bost tirbun eurak autu ta izentauak, euren erri-usteen alde ekitekoak: Yuni Burta da euretatik bat, Sikini Beluta, eta eztakit nortzuk be geiago, Yainko-eriotzea-arren! Uri osoa goikoaz bera imini bearko eukean zaborreak niri neuri olango agindurik eragin baño len: agintzara elduko da egunen baten, eta asaldatu !a yagiteko argibide edo zegaiti andiagorik ekarriko dau.

MEN.—liñondiko da oreako ou.

MAR.—Aide ecjizue, etxera zoaze, zaborrok!

Geznari bat aurrera, íraduz,

GEZN.—Nondik da Koi Marki?

MAR.—Emen; zer yazoten dok?

GEZN.—Iskilloak aldean dabezala dagozala Bolskarrak da dogun barria.

MAR.—Pozik nok orregaitik: olan, *ba*, izango dogu gure geiegikeri ustel-urdindua uxatuteko biderik..., Aer, or datoz gure Aids Nagusirik argienak,

Aurrera KOMINI, TITA LARTI, ta Agure-batzsrreko bests batzuk; JUNI BURTA ta SIKINI BELUTA.

I AGURE-b.—Marki, egia dok ik oraintsu esan dauskukana..., iskilloak arturik dozak Bolskarrak.

MAR.—Zereginik asko emongo dautsuen buruzagia yoek aik, Tul Aupidi. Oben yatak aren zindotasuna neuretzat gura izatea, baña nazan au ez ízatekotan *axe* bakarrik izatea gurako neunke,

KOM.—Gudurik batera eginak zarie, ala?

MAR.—Mundutik erdi biak belarrietatik alkarri tenka ba'legoz eta *a* nire aldean egon, asaldatu ta beste aldera yoango nintzake agaz burruka egite-arren bakarrik; leoi da *a* ta arro nago ni ari eizean egiteko.

I AGUR.—Olan, 'ba, Marki aintzako, lagun akio Komini'ri gudu onetan,

KOM.—Lenagotik dau orrek ori agindurik,

MAR.—Bai, izan be, yaun; eta enozu ni nire itzak yatekorik, Tita Larti, barriro be ikusiko nok ni Tul'i belarrondokorik emoten. Ba! gogorturik ago, ala? Atzera egiten dek?

TITA.—Ez, Kai Marki; makulu batagaz soña. ri eutsin, eta besteagaz burruka egingo yoat, arazo onetan atzean gelditu baño lenago,

MEN.—Ui, i bai benetan yator!

I AGUR.—Lagun zakiguez Kapitoli'rañg, gure adiskiderik andienak an gure begira dagozana ba-yakiat-eta.

TITA.—Aurrea artu egik: yarrai Komini'ri; zuon yarrai yoango gara gu; aurretik yoatea zuoi dagokitsue.

KOM.—Marki zindo ori!

I AGUR.—(Urikideai) Zuon etxeetara emendik; alde!

MAR.—Ez, gure atzetik datozala; Bolskarrak dabe garia ugari; *axo* eroan arratoiok arein

mandioai usika egln dagioen. Asaldari begiragarrick, ba-dogu zuon adorearen itxaro onik: zarraikidaje, arrsn. (Alde Agure--batzarrekoo.k, KOM., MAR„ TIT„ *ta* MEN.'k. Sakabanatu egilen dira urítarrak).

SIK. Izan ete da eguño Marki au besteko gizon arrorik?

BURT.—Eztau orrek berori Iangorik,

SIK.—Erriarsn tirbuntzat autu ginduezanean...

BURT.—Oartu ete atxake aren ezpan eta begiai?

SIK.—Ez, aren irriai baño,

DURT.—Iñok zirikatuazkero, yainkoai be egingo leuskie ak irri,

SIK.—Iretargi lotsorrarí be irrl egingo leuskio,

BURT.—Iruntsiko dau CT gudu onek: arroegi da orren adoretsu dalako,

SIK.—Ondoren onek gili-gilirik egínazkero, arena lango izaksreak eztau arizen aintzakotzat eguerdian zapalduten dauen itzala; baña andi eretxita nago ni zelan yasaten dauen aren arrokeriak berari Komini'k aginduterik.

BURT.—Dagoneko be arí bcera «rgia egiten dautsan cspearen billa dabil a, eta ospa ori iritxi ta bein iritsiazkero eukiteko eztau ak leku obarik gorengoaren urrengoa baño: eta izan be, gizonek egin legiken guztia egin ba'dagi be gudalburuak, okerrik yazo ba' dadi, gudalburuari ezarriko dautsos errua; eta eretxi aldakorrak Marki'ren aldo gedar egingo dou: "Ui! aren oskuetsn egon a! lítz arazoa!".

SIK.—Orrez ganera, zerak ondo yazotekotan, ostu egingo leuskioz Komini'ri bere irabaziak Marki'ri ain intsigirik dagon eretxiak.

BURT.—Goazen: Marki'rena *áa* Kominí'ren dedu ta omeneiik erdia, Marki'k ezetarci be irabazi ez-arren; eta Komini'ren u!s guztiak omen izango yakoz Mnrki'ii, ezetan be irabazi ez-arren.

SIK.—Goazen emendik, eta dakusagun zelan egiten dan urteerea; eta zelan doan Marki egiteko onetara, gudari utsez, a!a goragoko aginpideren bategaz.

BURT.—Goazen. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-KORIOLI. Agure-batzartegiet,

TUL AUPIDI la Agure-batzarreko baizuk csurrera,

I AGUR.—Olan, ba, Aupidl, zure erotxiz, gure asmoen yakitun dira Erroma'n, eta ba-dakie zetan eta zeri daragoiogun.

AUP.—Ezta orbta zeuon eretxia be, «la? Eguño ezer asmau izan ba'litz emen, egiteetara eroan orduko Erroma'n yakin eztanik! Eztira ondiño lau egun andik yakin izan dodala; amezan itzak: idazkia emen aldean dodala uste dot: bai, emen dago: (Badircskur) "Yentea gudaritzara beartu, ta gertau dabe guiarostea, baña eztakigu sorkalderako, ala sarkalderako dan: gosele andia da emetii asaldaturik erria; eta emen dabilen zurrumurruak diñonez, doan lekura doala gudaroste gertu au, Komini, Erroma'k zeuk baño be gorrotoago dautsan Marki ta Tita Larti Erromar adoretsu adorelsua, irurok izango dira gudarostearen buru; zure aurka yoango dira, urrean baño urreanago: gogotan euki".

I AGUR.—Gudategian da gure gudarostea: eguño eztogu izan Erroma guri erantzuteko gertu egoanaren ezpairik eta zalantzarik.

AUP.—Eta orraitiño zurtzat etsi zenduen zuon asmoak ixilik eukitea, asmook eurenez agefl-bear goriian aurkitu arteñs, Baña, dirudinez, ikusi dauz ErromaTc zuok ostoniurik euki gura izan dozuezan bitartean. Aik gure asmoon barri yakin izan dafcelako, osorik eztogu iritxiko guk uste gebana. gu arein uri batzuen yabe egitea izan da, ba, gure asmoa, gu gerturik eta bidean gintzazala aik yakin-aurretik,

II AGUR.—Aupidi zindo, artu agindu yatsun zure erantzukizuna; zoaz arin zure gudarietara; geu bakarrik itxi gagizuz Korioli yagoteko: gure aurrean yarri ba'dcdiz aik, ona etorri zu zure gudariakaz, ai emendik alde eragiteko; baña aik guri erasoteko eztirala gertau ikusiko dozu.

AUP.—Ui! ez izan ezpairik arlo orretan: segurutsat diñot diñodana; areago be bai, euren indar batzuk dagoneko dira guáategira urtenak, eta onako bidean bakarrik. Zuon, begiragarrion, eskuetan izten dot uri au. Zin eginda gagoz alanbearrez nik eta Kai Marki'k alkarregaz trikitx egitekotan, geiagorik ezin aleraño alkar yoko dogula.

GUZTIAK.—Lagun izango al yatsuz yainkoak!

I AGUR.—Onik eta ondo ibili.

II AGUR.—Onik eta ondo ifaili.

GUZTIAK.—Onik eta ondo ibili. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--ERROMA. MARKI'neko leku.

BOLUMINE ta BIRGILE cmrrera: aulki banatsn yezarriia yosten daragoioe,

BOL.—Arren, alaba, abestu egizu, naiz zet nasaigarriagorik esan egizu; nire senar ba' litz nire semea, pozago nintzake dedurik irabaziko leuken lekuan *a* urrin izateagaz, bere oean maitasunik andienagaz emongo leuskidazan besarkadak artuaz baño. Oraindik *a* soin-samur eta nire sabeletiko seme bakarra zanean; aren gaztetasun atsegingarriak begiak beragana eroazanean; erregeren bat egun osoan eske egon-arren be, beste edozein amak a begien aurrean bagarik ordu betean be egon gurako ez eukean-arren, nik..„ alango semeri omena ondo baño obeto letorkiola gogoraturik; ari deduak ez eragitekotan, alan egotea ta ormatik eskegita dagon irudia ainbaten dirala gogoraturik..., gogoz itxi neuntsan nik galgordeetan sartzen, an entzutea irabaziko ebalakotan. Gudu gordin-gogorrera bida-)i neban; eta lokietan lokarritzat aretx-orrolloa ebala etorri zan atzera andik. Sinistu egidazu, alaba, nire seña mutiko zala esan eustenean enintzan poz-ikaratuago, orain lenengoz gizon dala erakutsi dauenean ba-**ño.**

BIRG.—Eta egikizun orretan *a* il izan ba'litz, aniera? Orduan zer?

BOL.—Aien entzute ona, aren ospea litzakean nire seme; atan idoroko neunkean nik nire ondorengoa. Entzun egidazu, ementxe ta oraintxe dautortsut, eta benetan autortu be,.., amabi seme izan ba' neuz, bat bez besteak baño maiteago, eta bat bez zure senar eta nire Marki adoretsua baño gitxiago, gurago neunkean amaika euren aberriaarren zindoro iltea, bat nagikerian atseginetan samaraño beterik ikusi baño.

ANDERA aitonalaba bat aurrera,

AND.—Andera, Balere anderea etorri da zu ikusten.

BIRG.—Alde egiten itxi egidazu, arren.

BOL.—Eztozu alde egin-bearrik. Zure senarraren danborra emendik entzuten dodalakotan nago; Aupidi'ri uleetatik goatuten eta *a* lurreratuten ikusiko al dot a; umeak artzagandik lez, Bolskarrak agandik igesika ikusiko al dodaz. Bere ostikoagaz lurra yo ta ak onan gedar egiten dauela irudituten yat: "Erdue, kikilok! bilduirez yaio zintzazen zuok, Erroma'n yaig izan-arren"; eta gero, bere bekoki odoldua bere burdin-eskuzorrodun eskuz Iegcrturik, aurrera doa sslo guztia ebagi, edo alogera galduko dauen igitaria legetxe.

BIRG.—Aren bekoki odoldua! Yupiter ori, ez al dau galduko ak odolik!

BOL.—Ken akit, tentel ori! Egokiago yako odola gizonari, aren irabazi-erakusteari urregorririk baño; Etor edoskiten ebanean ez irudien ederrago Ekube'n bularrak, Eladatarren ezpaten aurka burruka egindakoan odola eriola egoan Elor'en mosuak baño.--Esan egion Balere'ri gertu gagozala ari txera egiteko. (Alde Anderectk).

BIRG.—Zeruak yagongo al dabe nire yabea Aupidi zakarragandik!

BOL.—Bere belaunperatuko dau ak Aupidi" ren burua, eta gero aren iduna bere ostikoz zapaldu.

Barrien barri aurrera Andera aitonalabea, BALERE ta aren esku-mutilagaz,

BAL.—Ene andera biok, egun on biol,

BOL.—Andera ezti ori,

BIRG.—Pozik zakustaz, andera.

BAL.—Zelan zagoze faiok? Eixezale agiri-agiri zarie. Zer yosten daragoiozue emen? Leku zoragariia, bai oiixe. Zelan dago «ure semetxoa?

BIRG.—Eskerrik asko, anderas onik eta ondo dago a andera,

BOL.—Gurago leuke ak ezpataren bat ikusi ta danborren bat entzun, bere irakasleaien arpegirik ikusi baño,

BAL.—Nire itza-arren, aitaren seme da *a* izan be: zin egingo neunke, mutiko langO mutikoa dala *a* izan be. Sinistu egidazue, eguastsnean ordu erdi bat bai egin neban nik a begira-begira; aren yasaren erabagiaiena! txipileta uireztauen yarrai ikusi nebas; goatu-ala yarei egiten eban; eta ostera be aren yarrai; eta lurrean buruzkanka batzuk eglnda, yagi zan; goatu eban barriro be; eta, edo yauskereak asarratu ebalako, edo dana dalako, aginetan estu be estuturik, ze ze egin eban; Ui! auts egin eban, sinistu egidazue.

BOL.—Bere aitaren gogaldietatik bat yatsu orrako ori.

BAL.—Bai, izan be; ara, mutiko zindo yatsu a.

BIRG.—Arroskotxo, ar.í.~ra.

BAL.—**Tira, baztartu egizue yoste-lan eri; etzandera alperrarena eragin gura dautsuet arrasti onetan.**

BIRG.—Ez, **andera on; ni enoa etxetik mte. ten.**

BAL.—**Etxetik urteten ez?**

BOL.—**Urtengo da. bai, urlengo da.**

BIRG.—**Benetan, enaz urtengo, eta ©der etsiko al yatsue; eztot zapalduko nire etxako alartzea nire yauna guduetatik atzera etxeratu arteño.**

BAL.—**Ba! orretarako bide bagarik barruratuten zara zu; tira, oean etzanik dagon andera ona ikustsn etorri bear dozu.**

BIRG.—**Arin osatutea opa dautsat, eta nire arrenak bidaliko dautsadaz; baña ni ezin nindeke ara.**

BOL.—**Zegaitik ez, arren?**

BIRG.—**Ezía lana aurreratze-arren, ezta a maite eztodalako be.**

BOL.—**Bigarren Penelope (1) izan gura dozu zuk; eta orraitiño be, or diñoenez, Ulitz etsetik at izan zan aldi guztian ak irundako ari guztia Itaka sitsez beteteko baño ez ei zan izan. Tira, zure eskuak bestean oarkor eta minbera al litz zure euna, errukiz zuk orri orratzik geiago ez sartzsko. Tira, gugaz yoango zara.**

BIRG.—Ez, **andera on, azketsi, parkatu nagizu; benetan, enaz yoango.**

BAL.—**Benetan, tira, zatoz nigoz: eta zure senarragazko barri onik emongo dautsut.**

BIRG.—**Ui! andera on, ondiño** ezin lzan **ledlke ezetarikorik.**

BAL.—**Egia, enabiltsu txantxetan; bart eldu dira agandiko barriak.**

BIRG.—**Bai ete, aniera?**

BAL.—**Bene-benetan, egia da; agure-batzarreko bateri entzun neuntsan. Ara amen; gudategira urtenik dabe Bolskarrak gudaroste bat; Komini gudalburua da arein aurka yoanik, gure Erromar indarren zati bategaz; Korioli uriaren aurrean yarri dira zure yauna ta Tita Larti; eztabe aik irabaziko dabelaren zalantzarik, eta gudua labur izango dalarenik, Egia da au, nire omenaarren; olan, ba, arren, zatoz gugaz.**

BIRG.—**Zuritu egizu ni zuokaz ez yoatea, andera on; aurrerantzean edozetan izango natxatsu esaneko.**

BOL.—**Itxi egizu ori bakean eta bakarrik, andera; dauen gogaldian dagola, gure gogaldi argia alperrik galdu bañs eztausku egingo orrek.**

BAL.—**Orixe egingo leuskigula uste dot neuk be.** Onik eta ondo ibili, ba. **Erdu, andera on ezti. Arren, Birgile, egotzi egizu ortik zear zure bentasun ori, bai, eta zatoz gugaz.**

BIRG.—**Itz batez esateko, ez, andera; enoa ezetara be. Pozik baño pozago ibiliko al zarie,**

BAL.—**Tíra ba, onik eta onde ibili, agur.** (Alde dagie).

IV AGEBLEKU.-KOHIOLI'ren aurrean.

MARKI, TITA LARTI, **agintza-gudariak, gudaríak aurrera, danbor eta ikurrinakaz.**

MAR.—**Ba-datoz andiko barriok; baietz alkarregaz trikitx egin izan aik.**

LAR.—**Nire zaldia yokatuko dautsat zureari, ezetz.**

MAR.—**Eginda dago baietz-ezetza,**

LAR.—**Bego.**

GEZNARI **bat aurrera.**

MAR.—**Esaik, alkarregaz trikitx egin ets yoek gure gudulburuak eta arerioak?**

GEZ.—**Alkar dakusela dagoz; baña oraindik eztautse alkarri itzik egin.**

LAR.—**Olan ba, nire da zaldi eierra,**

MAR.—**Erosi egingo dautsut.**

LAR.—**Ez, eztautsut ez salduko, ez utsean emongo; zorrean emon bai emongo dautsut eun urtetik erdietarako. Dei egiok uriari.**

MAR.—**Zenbateko bide-arloa yagok gudarosteak dagozan lekura?**

(1) Peneiope au Itaka'ko bakaldun Ulitz ospatsuaren emaztea dogu. Beronegazko ipuinak diñonez, bere senarra Toroi'ko gudura beste Eladatarrakaz yoanik, guduan eta gero or etxera-bidean itsasoz eta legorrez aldarrai ogei urtean ibilita, guztiak eben betiko galdutzat. Andikirik asko zan Itaka'n Ulitz' en alargun zalakoagaz ezkondu gura ebanik, baña Penelope'k bestegaz ezkondu gura ezeta, eskuartean eunduten erabilen euna bein eundutakoan ezkonduko zala bere senargeiai esanda, egunez eunduten ebana gabaz manatu egiten eban-eta, beti euna eunduteko ta senargeiak estu ta larri. Alango baten badator etxera onik Uhtz-eta, orretan entzuíetsu zan bere marroz, beingoan egin eban bere etxeko ondasunak yan-edanetan ondatu eutsoezan Penelope'n senargeiona,

GEZ.—Emendik milla bat eta erdilcoa.

MAR.—Olan ba'dok, entzungo yoagu eraserako arein otsa, eta bai ailt gurea be... Orain, Marte, arren, bizkortu gagizuz ekitean, gudategian dagozan gure adiskideakana emendik gure ezpatak oraindik lurruna darioela dagozala eldu al gadizan!.. Tira, yo ire turut-otsa,

Ilz egiteko ots egiten dabe. Arresi-gonean aurrera Agure-batzarreko batzuk eta bestetariko batzuk.

Zuon arresi-barruan ete dago Tul Aupidi?

I AGUR.—Ez, ezta zuoí ak baño bildur gitxiagorik dautsuenik be, zera, gitxi baño gitxiago dautsuenik be. Adi, (Danborr-otsa urrinetik) euren atzean daroe gazteria gure danborrak! geuk ausi ta lurreratuko doguz gure arresiak, eurak gure ganora yausí baño len; iiz bakarrik lotu docjuz itxirik dagozala dirudien gure ateak; eurenez zabalduko dira. (Gudara-deia urrinean) Entzun an urrinetikoa! *au áago* Aupidi; entzun uk gudaroste erdibituan egiten daragoion lan lango lana.

MAR.—Ui! ba-daragoíoe erago be ekinean!

LAR.—Andiko zaratea izan bear yaku ikastide. Zuruciak, mutilak, zurubiak, ee!

Aurrera sartu-urtena egiten dabe Bolskarrak.

MAR.—Gure bildurrik izateka, urten egiten dira euren urilik. Zuon biotzen aurrean ikurdiak iminita, turruka egizue, zuon biotzak ikurdiak baño be zula-gcitxago dirala. Aurrera, Tita adcretsu: guk uste baño gitxiagotzat esten gabez, eta izerditan nau orrako orrek asarrearen asarrez. Aurrera, ene lagunok! Bo'skartzat e'.siko dot igesi dagianu, eta ikusiko dau zer dan nire ezpatearen erbatza.

Gudara-deiak, eta alíe dagie Erromarrak eta Bolskarrak alkarregaz burruka. Atzerantza euren lubakietara eragiten dautse Erromarrai. MARKI aurrera barriro.

MAR.—Egoe-aldetiko izurri guztiak generatuko al yatsuez Erroma'ren lotsagarri zarienoi!... zerezko talde ori... zaldarrak eta izurriak buruko ertzetik beatzetaraño estaliko al zauez, ikusi al zaikiezan baño urrinagotik fce iguin eta gorroto izan dagitsuen, eta axeaz besterako bidean milla baten barruan alltar kutsatu dagizuen! Gizonantzik izan-arren antzar-biotzak dozuezanok, zelan igesi dozue matxangoak eurak be benderatuko leulriezanakanóik! Pu'.ta ta su-lezeaarren! Guztiak atze-aldetik zauriturik; atzeak gorrí ta mosuak zurbil, igesiz eia bildur dardaratiz! Adoretu ta gogor yo, ostantxean, zeruko argiak-arren, arerioa alde batera itxita zeuoi egingo dautsuet gudu: ez aztu, gero: aurrera; Iurrari yosi ba' zakioez zuok, euren emazteakana bidaliko doguz orreik, guri gure lubakietara yarrai yakuzun legetxe.

Gudara-dei barrlro, Aurrera barrien-barri Erromarrak eta Bolskarrak, eta ostera be ekiten dautse alkarri burruka. Korioli'ratu egiten dira Bolskarrak, eta arein yarrai doa MARKI uriko ateetaraño.

Olan, zabalik dagoz orcdn ateak: nire yarraila on zariela erakutsi orain; yarraileentzat zabalduten dauz zoriak, ez igeslarientzat; nik dagidanari oartu, ta beste ainbeste egin zuok. (Ateetatik barrura sartzen da).

I GUD.—Zoro-adore da ori: ni enoa.

II GUD.—Ez ni be. (Ateak isten dabez MARKI barruan dala).

I GUD.—Ikusi, barruan sartu dabe.

GUZTIAK.—Ondamendira yoan dok a, bal orixe. (Ba-daragoío gudara-deictk).

TITA LARTl aurrera barriro,

LAR.—Zer yazo yako Marki'ri?

GUZTIAK.—Ilik da *a,* yaun, seguru be seguru.

1 GUD.—Igesí yoiazanen yarrai, orpoz orpo, barrura sartu da a eurekaz; eta aik beingo baten ibn dabez euren ateak: bera bakarrik dago a, uri osoari erantzuteko.

LAR.—Lagun aren zindo! Zauritu legikeena izan-arren, ezin zauritu ledíken bere ezpatea bera baño be adoretsuago ta ausardiisuago da *a,* ta zutunik eta ariez dirau ak. tere ezpaiea makurtu-arren! Bertanbera itxi aus i, Marki: i besteko ikatzarri andirik be eztok i lain pitxi aberais, KATON'en gogoa beteko leukien gudarietariko intzan i, zartadetan bakarrik ez itzal eta ikaragarri; *haña* ikarea sartu dautsek ik ire urerioai íre begirakune ifzal eta ostotsa Iango otaa ateraten eben ire zartadakaz, mundua sukarrak arturik ata ikaraz ba'lego legetxe.

Aurrera MARKI ostera *be,* odoict dariola, arerioak atzetik ara erasoten dautsoela.

I GUD.—Ara! begira, yaun.

LAR.—Ene! Marki da! yarei dagigun, edo beragaz il gadizan geu be, (Burruka egin-ala uri-barrura sartzen dira guztiak).

V AGERLEKU.–KORKDH-barruan, Etxartebide.

Erromar batzuk aurrera, ondakinekaz.

I ERROM.—Au eroango dot nik Erroma'ra.

II ERROM.—Eta au nik.

III ERROM.—Izurríak eroango al dau au! zidarlzat eztot artu izan, ba?

(Iraun dirau gudara-otsak urnnecm)

MARKI ta TITA LARTI aurrera turul batega z,

MAR.—Ikusi ibiltariok, euren orduak Ixakurtxiki ausi bat-garri dabezanok! eperdipekoak, berunezko txaliak, txakurixiki banako be eztiran burdínlciak, gizon-eskegitzalleak eskegiakaz batera Iurperaluko leukiezan gorantxak batzen eta iizkarreraíuten daragoiee yopu zirtzilok gudaketea amaitu baño be lenago: yo la zearttm zituloki eta entzun zelango zaratea ateraten dauen zaborreak!,.. Agana goazeri!.„ an dago bíatzez gorroto dautsadan gizona, Aupidi, Erroiiiurrak zatitu ta zeatuten: zuk, Titu udoretsu orrek, artu boar dozuzan aña gudari uria yagoteko, ni, biotzik dabenakaz, Komini'ri lagun izaten noakon bitartean,

LAR.—Aintzako yaun ori, odola dariola ago i; gogorregi izan dok ire ekina, bigarren burrukarik egiteko.

MAR.—Yaun, gorapenka ez etorri nigana; berotu be enau egin oraindik nire lanak: onik eta ondo ibili: kaltegarri bagarik osasungarri baño elxat dariodan odola; onan agertuko natxeko ta onan egingo dautsat burruka Aupidi'ri,

LAR.—Maite maite izango ai au Alanbearrak, yainkono liraiuak; eta aren lilurapen andiak okerreko bidea erakutsiko al yautsek ire orerioen ezpatai! Aitonserne azarri ori, esku-mutil izango al yak Zori Ona!

MAR.—Ak goren iminten dauzanena baño gitxíuyo ez ul dok izango u ire adiskiie bei Onik eta ondo ibíli, ba.

LAR.—Aintzakorik aintzakoen azan Marki orí! (MARKI'k alde). Oa ta yo egik ire turuta uriko zeian; arcí dei egiek uriko agintari guztiai, eta an yakingo yoek gure asmoen barri: alde! (Alde dagie).

VI AGERLEKU.–KOÍ INI ren audaltegitík ui.

KOMINI ta Indarrak aurrera» cttzeraka doazala.

KOM.—Arnasea artu egizue, ene adískideak; ondo egin dozue burruka; Erromarrak egin daroenez yokatu dogu, ez buru-gogorregi gure ekinean, ezta kikil be gure atzeraketans sinistu egidazue, yaunak, barrien-barri erasoko daufjkue orreik. Yotsn ekin dautsagun bitartean, tarfeka ia nozean bein, entzun doguz gure adískideen erasoak. Erroma'ko yainkook, geutaako opa dogun zori ona bera emon egiezue aí, gure indar bitsuek arpegi argi irribarretsuz alkarregaz bat eginda, zuoi eskerr-oparia eskeñi al dagitsuegun!...

Geznari bat aurrera.

Ze barri dakak?

GEZ.—Uritik urtenda gudu egín dautse Korioli'ko uritarrak Marki ta Larti'ri; atzera euren lubakietara bultzaurik ikusi izan dodaz gureak, eta orduan alde egin dot andik.

KOM.—Ik egia esan-arren, orraitiño be guzurra diñokala uste yoat. Noz ízan dok orrako ori?

GEZ.—Orain ordu bete dala, ene yaun,

KOM.—Milla baleko biderik be etxagok emendik ara; oraintsu entzun yoaguz andiko danbor-oisak: zelan emon izan dok ordu bete milla bateko bidean, eía orren berandu ekarri barriak?

GEZ.—Bolskarren kirikalariak etorri yataz atzetik-eta, iru-lau inillu egin bear izan dodaz kako-makoka; osiautxean ordu erdi lsnago ekarriko neunkeazan barriok.

KOM.—Nor da andik narrua eratslta lez datorrena? Yainkook! Marki'ren irudia dau ak; eta lenago be olan ikusirik dot a.

MAR.—(Barrutik) Beluegi nator, ala?

KOM.—Artzaik eztaki ostotsa danborr-otsetik obeto berezten, nik Marki'ren agotiko otsa beste gizon zirtzilagorenetik berezten dodan bañe.

MARKI aurrera.

MAR.—Beluegi naíor, ala?

KOM.—Bai, eure odolez eta ez besteenez estalirik ba'ator.

MAR.—Ui! emazte-billa nenbilenean nire emaztegeia estutu neban bestean i nire besartean estututen itxi egidak; eta gure ez-

teguetan oera-bideaji argizaiak argi egiten euskunean besteko faiotz argíz!

KOM.—Gudarien lora orl, zelan yagok Tita Larti'na?

MAR.—Aginduak emoten zeregintsu dagon gi2ona legetxe yagok *a;* eriotza-epaia batzui, eta erfcesterakoa beste batzui emoten; onako au erosten, naiz errukiz yareiten; orrako ori zemaituten; buztanari ereika daragoion eiza-txakurrari lokarriz deutsazun legetxe, Erroma'ren izenez Konoli zeuk noraño gura arañoxe ifailteko eskubideagaz bakarrik eukiteko.

KOM.—fíondik ete dok zuon lubakielara atzera bultzau zatezala esan daustan yopua? Nondik dok a? Datorrela ona.

MAR.—Geldi itsik a; egia esan yok ak: gure aitonsemeakaitik izan ezpa'litzok, gudari zeak.,., izurriak eroango al yozak!.,. tirbunik emon olangoaií.., eguño saguk etxautsak katuari irri egin eta zearka-mearka igesi, aik eurak baño zirtzilagoakanáik zirrist egin daben lez.

KOM.—Baña zelan egin zarie nagusi?

MAR.—Astirik izango ete yoat ori esateko? Et:;oat usie. Nondik dok arerioa? Gudategiaren yabe ete zarie? Olan ez izatekotan, zegaitik eten ekitea aren yabe egin arts?

KOM.—Marki, erea gure alde eztagola egin yoagu burrukci, eta atzeiaka etorri gozak gure asmora eltzeko.

MAR.—Zeian iminita dagoz arein indarsak? Ete dakik zein alderditan iminí dabezan uste ongarrien diran euren gizonak?

KOM.—Nire susmoz, Marlci, Antitarrak dezak aurrekaldeko arein gudariak, arein gudaririk onenak; eta arein itxaroaren itxaro dan Aupidi dok euren buru.

MAR.—Batera egin izan doguzan gudu guztiak-arren eske nagokik, batera ixuri izan dogun odola-arren, alkarren adiskide irauteko egin izan doguzan zinak-arren eske nagekik fiupidi ia oren Antilsrren aurrez aurre imini nagikala; ez egik etxon une taten be luzaroago, oraintxe eraso baño, eguratsa ezpata aurreratuz eta geziz beteta, ia irabazten dogun.

KOM.—Nik i orain ikuzte epeletara eroan eta iri usaburkirik ezarriazo *a* izan-arren orraitiño be bein be enok azartuten ik eskaturik ukatuten; onentzat dozakanak artu egizak ire egikizunerako.

MAR.—Nigaz yoateko gogatsuenak dira orrakook. Olangorik emen egotekotan, eta oben litxakit orretzaz zalantzarik izatea, -nire irudi zikin-zantar au eder yakonik ba'dago; bere buruari baño entzute txarrari bildur geiago dautsanik; eriotza adoretsua bizitza txarra baño obetzat eta goragarriagotzat esten dauenik; eta bers afcerria bere burua baño beinagotzat dauenik; dana ualako orrek, naiz orren gogo bereko áiran guztiak (eskuari eragiten dautsa) onan eragin dagioela euren eskuari, eureu gogoa eralcutsi ta Marki'ren yarrai yoateko. (Guztiak oio egin, eta ezpatai eragíten dautse; besoetan artzen dabe Marki, eta txapelak gora -goraka yaurtiten dabez}.

Itxi nagizue, arren, yarei nagizue! ezpatatzat artu nozue, ala? Zuon erakusketak azaleiiko bakairik ez izatekatan, zuotatik nor ezta lau Bolskar añako? Zuotatik batek be eztau Aupidi'na beslean gogor dan ikurdirik eroan ezinik, ari erasoteko, Zuoi guztioi eskerrak einon-arren, zuotatik batzuk baño eztodaz autuko: besie burrukaren baien erasoko dabe ganetikoak, orreturako abagunerik agertu-ala. Aurrera lerroka, eder ta'yatsue, eta nire ciginduz zuot^tik lauk autuko dabez gizonik egokienak.

KOM.—Yo aurrera lerroka, ens lagunok: erakucketa augarri izan zadize, eta edozetan izango zarie gure kide, (Alde dagie),

VII AGEHLEKU.-Korisli'ko Ateak.

Korioli yagoteko yagola-taldea itxita. yoan doa Tita Larti danbor eta turut-otsez KOMINl ta KAI MARKI'ganantza; gudalburu-ordeko bat dator aurrera, gudari-talde bategaz, eta barrandari bategaz.

LAR.—Olan, olan, yagon ateak; bete nik emon dautsuedazan aginduak. Nigandiko agindurik eldu ba'dakizue, bidali euneko orreik gure laguntzat; geldituten diranak be asko izango dira, uriari bein-beinean eusteko; gudategia galdu ba'dagigu, ezin eutsin izango dautsagu uriari.

BURU-ORD.—Ez izan gure yagolatzearen bildurrik, yaun.

LAR.—Goazen emendik, eta itxi ateak beín gu urtendakoan. Ator i, gure bide-erakusla ori; Erromarren gudaltegira eroan gagizak. (Alde dagie).

VIII AGERLEKU.-Gudategla Errorr. eta BoJskar gudaltegien bitariean.

Gudara-deia. Aurrera alkarren aurrez aurrezko tokietatik MARKI ta AUPIDI.

MAR.—Igaz bakarrik egín gura yoat burruka, ez besie iñogaz; gorroto dauskat, ba, iri, aghidua austen dauenari baño be geiago.

AUP.—Bardina dok alkarreganako gure gorrotoa: Apirka'k etxok sugerik nik ire eutzute ta niganako begi txarrari dautsedan baño gorroto andiagorik dautsadanik. Tin kotu egik Iurrean ire oña.

MAR.—Bestearen yoputzat il daáila lenen zirkinik egin dagiana, eta gero yaiukoak goiztetsi dagiela!

AUP.—Igesi ba'yagiat nik, Marki, txakurrak ezarri egistazak atzetík, erbiari lez,

MAR.—Iru orduon barruan, Tul, bakarrik egin yoat nik burruka ire Korioli'ko arresien barruan, eta neuk zei-gura egin yoat an; eztok nirerik ni estalduten nauen odola; i azaskatutsko, egin-alak eragiozak ire alari.

AUP.—Arrokeriz zuon asabatzat eta zígortzat dozuen Etor bera ba'iutz be, eneunskik igesilco emendik... (Burruka daragoioe, eta Bo!skar batzuk datoz Aupidi'ren laguntzal) Usartuok, ez adoretsuok..., lotsaturik itxi nozue, legeaz bestera bitartsan sarturik. (Alde dagie burrukan daragoioela, Marki'k guztiak aurrean daroazala).

IX AGERLEKU.-Erremarren gudaltegia.

Gudara-dei. Atzeraketa-ots. Zoamíolen ots. Aurrera alde batetik KOMINI ta Erromarrak; beste aldetik MARKI, besoa ede-barruan eskegita dauela, ta beste Erromar batzuk.

KOM.—Nik eralgiko ba'neunskik ire egun onetako lana, sinistuko be ez eunskidazak ire egite antíiak, baña iragarriko yautsedaz negcsr eta irribarre batera eiagingo dautsen agure-batzarrekoai; bidaliks yeadaz Aide Nagusiak entzun, sorbaldak eragi. ta atzenean arriturik geldituko diran lekura; anderak ikaratu, pozaren pozez dardaraka yarri ta geiago entzun gurako daben lekura; erritar andurlsuaktz batera ire omenai gorroto dautsen tirbuncilc batzen dirun lekusa, eta ai rnin egiteko esango yoat "Eskerrik asko yainkoaí, Erroma'k a langO gudaririk dauelako!". Orraitiño agokada bat yateko baño ez az etorri i oturuntsa onetara, lendik engoan I oturuntza oso-betea yaniic-eta.

TITA LARTI aurrera bere indarragaz, arerioen yarrai ibilirik.

LAR.—Gudalburu ori, emen dozu zaldia, ta gu, zaldi orren apaingarri baño ezkareanok: ikusi izan ba'zendu, ikusi...

MAR.—Bego, arren; asko da oraíngoz; nire ama da bere odolu nazan au goratzeko berarizko eskubiderik dauena, eta axek goratzeak be mindu egiten nau. Nik eztot egin zeuok egin dozuenaz besterik... egín al ízan dodana bakarrik egin dot nik; zuon eragingarria bera izan dot, sera, nire aberria: nik baño geiago egín dau bere asnioa burutu dauenak (2).

KOM.—Eztok izan bear ilc ire irabazien ilobirik; yakin bear yolc Erroma'k zelango altxorraren yabe dan; lapurretea baño okerrago litzakek orrako ori ostonduta eukitea; i saltzea litzakek gitxienez be ire egite andiak ostondutea; gorapenik gorengoz autorturik be, euren aldean gorapenok apal eta lotsor litzakezan ire egite andiak ixilik eukitea; orrazkero, ba, arren..,, i nor eta zer azanaren sadtzat, ez ik eginaren saritzat... gure gudarostearsn aurrean entzun nagik.

MAR.—Ba-dodaz nik zaurien batzuk, eta azkura ta inin egiten dautse eurak gogoratuteak.

KOM.—Gogoratuko ezpalitzozak, zoldu egín ledikezak esker bcarrez, eta ilteraño idigi: zaldi guztietatik, -eta zaldi onik goatu yoagu, -eta gudategi onetan eta urian goatu doguzan altxor eta ondasun guztietatik amarrena emoten dauskagu, guztisn artean *ha*naketea egin baño len euk autua.

MAR.—Eskerrik asko, gudalburu; baña nire biotzak ezin dctu ontzat artu nire ezpatea

(2) "Nik baño geiago egin dau bero asrnoa burutu dauenak". Baí ba; berez crskoz andiago izan da Koriolan'ek egin dauena, besteak egína baño, baña ez Koriolan'entzako. Aupidi erailtea izan da Koriolan'en egikizuna, bere asmoz, eta eztau lortu olangorik. Porrot egin dau, eta orregaitik diño diñona.

erdainduteko saririki eztot ariu gura; nire eginetan lagun izan yatazanena langoxe zatiaren alde nago ni. (Zaamiola-ots luze. Guztiak gedar, oio ta orroaka "Marki, Markil" diñoe, gora-goraka aztinduten dabez euren txapelak eta azfamakilak, Burutsik dagoz KOMINI ta LARTI).

MAR.—Zakartuten daragoiozun ereskinok eurok ez al dabe otsik egingo oraindik ara bein be! Dunborruk etu turutak gudategian zuritzallatu dadizanean, zurikeri-guzurdario egingo al dira errege-yauregiak eta uri guztiak! iñoren lepotik bizi danaren sedeu bestean bigun biurtu ba'dadi galtzaidua, gudarako estalgi bedi! Geiagorik ez, gero! Odola darion nire surrct ikuzi eztodalako, naiz zirtzil errukarrien bat ebaindu ta malluskau dodalako, -eta asjlto dira emen olangorik egin dabenak, iñok eurai yararnoník egiteka-, or zabiltze iñondíko ta neurriz gorako txalopín-txaloka; niri, gizontxo oni, gvizurrez ondutako gorapenezko yanaririk gogoko ba'litxat lez.

KOM.—Lotsorregi augu í* gogorrago ta mukerrago ire entzute onarentzat, biotzez emoten dauskagunontzat esker txarreko baño: eure kulterako asurre ba'az, nobere buruari okerren bct egin yuru dautsanari lez. ire baimenagaz, esku-lokarriak ezarriko dauskaguz, eta orduan egingo yoagu bildur bagarik izketan igaz... Gure aldetik mundu guztiak beki, ba, Marki'k daroala bere lokietan gudu onetako lora-sortsa; eta onako onen agiritzat ari damoisat nik gudaltegi onetan ezagun dan nire zaldia, bere apaingarri guztiakaz; eta oingunik uru, ak Korioli'ren aurrean egin izan dauenagailik, gu. darostearen txalorik zaratcitsuenez eta gedarrez "Kai Marki Koriolan" deituko dogu... Zindoro eroango al dok fcetl izengoiii au! (Zaomioien otsa. Canborrak eta turutak be yo ta yo).

GUZTIAK.—Kai Marki Koriolan! (3).

KOR.—Nire burua ikuzten, garbituten yoan gura dot; eta nire arpegia ederiu dadinean ikusiko dozue arpegia gorri dodanentz: dana dala, eskerrik asko zuoi... Pozik igongo dot zure zaldiaren ganera; eta beti egingo dot alegin nire indarra ta adorea zuok biotz onez ezarri daustazuen izengoitiaz ganetik erabilteko.

KOM.—Olan ba, goazen gure txoznara; atsedenik artu'baño len, an idatziko dogu Erroma'rako gure garaitearen barri. Zuk, Tita Larti, Korioli'ra yoan bear dozu atzera, eta andik gugunu Erroma'ra bidali uriko nagusi-nagusiak, gure ta euren onerako egokien diran erabagiak artu dagiguzan.

LAR.—Egingo dot orrako ori, ene yaun.

KOR.—Asi dira yainkoak niri irri egiten. Esku-erakutsi ktngo esku-erakutsiak orainlxa ezetsi tu aintzakotzat artu eztodazan uu ni re gudalburu yaunari eskari bat egin-bearrean aurkituten naz.

KOM.-~Artu egik; eure dok,,, Zer dok orrake ori?

KOR.—Bearfsu batenean etzau nintzan befiola Korioli onetan; txerakor izan yatan: gedar egin daust, atxiloen artean ikusi dot--eta; baña une atan Aupidi ikusi dot nire begien aurrean-eta, geiago egin dautso nire asarreak errukiari: bere buru-yabetasunu, azkatasuna eskatuten dautsuet bere arroztzat euki nindunarentzako.

KOM.—Ondo eskatuta. bai orixe! Neure semearen urukin ba'litzok be, bertatik litzakek a *axea* bestean yarei. Yarei egik, Tita.

LAR.—Marki, zer yakok izena urli orri?

KOR.—Yupiter-arren, aztu yat: ebainduta, meko eginik nago; bai, nekaturik dago nire oroimena... Ez ete dogu ardaorik arean be emen?

KOM.—Goazen gure txoznaraí gogortuten asi dok ire arpegiko odola; ba-dok ire zaurien ardurea artzeko tertzioa: goazen, (Alde dagie).

X AGERLEKU.-Bolskarren gudaltegia.

Zaamiola-ots. Alboka-ots. TUL AUPIDI, odoldurik, aurrera, bi, naiz iru Gudarigaz,

AUP.—Goatu 'dabe uria!

I GUD.—Baldintza onez emon izan lzango dautsoe arerioari.

AUP.—Baldintzeagaz! Erromar al nintz, Bolskur izatekotan ezin izan nadike nazan au--tu... Baldintzeagaz! Zetariko baldintza onik izan ledike benderatu izan dan alderdia-rentzat, Iñoren errukipera yausl danarentzat?... bost bider egin yoat igaz burruka. Marki; eta beste ainbestetan benderatu isan

(3) Koriolan (Coriolanus) itzak Korioli'tar esan gura dau lateraz, eta egin-eginean izen auxe ez iminiko bai imíniko nire lan oní egon ízan naz, baña azkenean yatorriantzekoagorik ezarri dautsat.

nokr eia yaten dogun bestean sarri alkarren aurrez-aurre aurkituko ba'gintzozak be beste ainbeste egingo eunskidala ik uste yoat... Lengeiak-arren, iñoz barriro baíaren bizarrak bestearenari deutsala aurkitu ba' gadiz, niie da a, edo rti aien: eztau beñolako dedu-usaiuik nire leiakidetasunak; eta izan be, beñola a nire benderatuko neunkela uste neban, indarrari Indar bardinez erantzunda, ezpateari ezpataz erantzunda, garbi yokatuta, baña edozetara erasoko dautsat orain; asarreak ezin ba'dau, marrokerlak egingo dau arena,

I GUD.—Txerrena bera yatsu a,

ten izengoili onez besterik ezer; ni bertanbera iixi naken andiki ustel guztiak orretarako bideak erriari zabal zabal itxirik, erriaren gogorkeri ta ikusi-ezinak iruntsi daust ganetiko guziia, ta yopuen autarkiz egotzi nabe Erroma'tik. Estualdi onek ekarri nau ba orain zure etxera: ez nire bizia yareiteko uste bagarik, sinistu egidazu; eta izan be, eriotzabildurrik izan ba'neu, mundu onetako iñogandik alde egitekotan nik, zugandik alde egingo neunkean; emen zure aurrean ba'nozu, ni erbesteratu nabenak utsa baño aintzakoagotzat eztodazalako, eta ai euren zorra osoan ordainduazoteko baño ezta. Olan ba, aspertuteko asmorik ba' dozu zure biotzean, zuri zeuri egindako okerren ordainik artu gura ba'dozu, eta zure errian agiri diran gudu-lotsariak ortik kendu gura ba'dozuz, bizkor ibili zadiz, bizkor eta bertatik, eta nire bearr-izanari be zure alderako lan eragiozu: nire aspertze-egarria zure onerako bidez erabili egizu ta bai ni neu be; eta izan be, bizienak yo ta yandako nire aberriaren aurka beko munduko txerrenen asarre gorriz egingo dot. Baña olangorik egiten azartu ezpa-zadiz, eta galgorde barritan sartzeko nekatuegi ba'zagoz, olangorik yazotekotan eta itz batez esateko, neu be aspertu asperturik nago luzaroago bizitsko-ta, zuri eskeinduten dautsut nire eztarria, zuri ta zure gorroto zarrari; eta tentelkeri iitxakizu r.ire iduna ez ebatea, beti yarrai izan natxatsu ba gorrotoz, upelkadaka ixuri dot odola zure aberriaren bu'arretik, eta ezin bizi neindeke zure lotsarirako baño, zuri otseintzarik ez egitekotan.

AUP.—Marki, Marki ori! Nire gorroto zarraren sustar bana atera yoek ire itzak nire biotzetik. Yupiter'ek andik goiko odeietatik yainkozko zerak esaten ba'Ieragoio, ta esan ak "Egia *da* orrako ori", eñeunskiok iri baño sinistuagoko, Marki zindo be zindo... Itxi egidak ire soña nire besoen artean estututen, soin orren aurka lexar ari-estuzko nire aztamakilea eun bider ausi ta bere zezpalak iretaigia bera be ikaratu izan daben ire soin ori; nire ezpatearen ingudea besarkatuten yoat emen, eta eguño nire indar leiatsua ire adoreagaz norgeiagoka iMli izan dan bestsan sutsu ta zindo yaragoioat orain igaz alkar zeñek maiteagoka. Lenen, yakin egik maite nebala nik nigaz ezkondu zan neskea; eguño gizonek etxok izan maitasun zindoagorik; baña i, zindo ori, emen ikusteak pilpil-yantza geiago eragiten yautsak nire biotz zoratuaii, eguño lenengoz nire emaztegeiak nire et::eko atepea batetik bestera igaro ebanean baño. Ara, Marki! Gudarostea gertu dogula dirauskat; eta beste bein ire besoko ikurdia erdibituteko asmotan nintzoan, aren billa, a eriibitu, edo nire besoa galtzeko, bata edo bestea egiteko: bein eta bein, amabi bider benderatu nok ik, eta arrazkero gabaz ames egin izan yoat i ta ni alkarregaz burruka genbiltzala; lurrean egon gozak gu biok batera nire lo-aldian, alkarri burukoskolak azkatuten, alkarri eztarrian ukabilka, eta il-aginik atzarten nintzoan utsagaitik eta utsagaz, Marki aintzako ori, i andik erbesteratu izanaz beste auzirik ezpa'geu be Erroma'ren aurka, amabi urtetik irurogei ta amarrera bitarteko guztiak batuko geunkez gudurako; eta eskertxarreko Erroma'ren erraietara gudua ixuririk ganera yoango gintxakíoz uviol gelditu-ezinaren antzera. Ui! ator, ator barrura, eta estutu egizak gure agure-batzarreko onein eskuak; eta Erroma'ri ez baña, zuon lurraldeari erasoteko gerturik nagon oni agur egiten etorririk emen yagozak-eta.

KOR.—Nire alde zagoze, yainkook!

AUP.—Olan ba, yaun oso be oso ori, eure azaskatzeen buru izan gura ba'dok, nire agintzatik erdia artu egik; eta asmau egizak ire asmoak..., ire oarrikasiak ondoen irakasten dauskanez, ezagun dok, ba, ík ire aberriaren sendotasuna ta makaltasuna non eta zetan dagozan... Eure bideai arraikie; naiz Erroma'ko ateak yo, naiz gogor eta zakar eldu Erromarrakana urrineko lekuetan eta eio la ezereztu, aurreztik bildurra sartzeko. Baña ator barrura: lenen, ire asmo ta gurariai euren baietza emongo dautsenai ire alde itz egiten itxi egistak, Ondo etorria milla fcider! eta eguño arerio izanago baño adiskideago; eta onaitiño be, Marki, arerio lango arerioa izan intxakidan i. Ekadak esku ori! Ondo baño obeto etoiria augu! (Alde KOR„ eta AUP.'k).

I OTS.—(Aurreratu-ala) Iñondiko aldakuntzea emen izan doguna!

II OTS.—Nire esku au-arren, a txibiteagaz yoaginik egon izan nok; eta orraítiño be susmorik izan yoat aren soñekoak besterena egiten izan dabenaiena.

I OTS.—Aren beso lango besoarena! Zibeari legetxe bira eragin yaustak ak bere atz eta atz orkoloagaz bakarrik.

II OTS.—Bai, aien arpegitik igarri yoat ba-zala zerbait aren barruan: arpegi bat baeban, arpegi bat... etxakiat zelan azaldu be.

I OTS.—Bai, izan be; -sren begiiakunea... es-

kegi nagiela, nik uste baño geiagorik ezpa' dok a.

II OTS.—Bests orrenbeste yazo yatak neurí be, bai orixe: munduan danik eta gizonik iñondikoena dok a.

I OTS.—Olan uste yoat; baña *a* baño gudari obarik ezagun dok ik.

II OTS.— Nor? Nire ugazaba, ala?

I OTS.—Bai, agirian yagok ori.

II OTS.—A langO sei ba-dok gure ugazaba.

I OTS.—Ba! Ara! etxakiat zelan esan: bikain dok gure gudalburua urien bat yagoteko.

II OTS.—Bai, eta yagoteko ezeze, bai uririk goatzeko be.

Irugarren Otseína aurrera.

III OTS.—Yopuok.' ba-yoat barririk zuontzafcs... barriak yoadaz, zitalok!

I ta II OTS.—Zer, zer, zer? Emoiguzak guri be.

III OTS.—Erri guztien artetik eneunke izan gura Erroma'rik; Erromar izan baño gurago neunke gaiztetsien bat izan be.

I ta II OTS.—Zegaitik? Zegaitik?

III OTS.—Ba! Emen yagok gure gudalburuari narrua berotuten eutsana... Kai Marki.

I OTS.—Zegaitik diñok narrua berotuten eutsala gure gudalburuari?

III OTS.—Etxiñoat gure gudalburuari narrua berotuten eutsanik, ari gogor egin eta arpegi emotea etzoan gure gudalburuarentzaico gitxi be-ta.

II OTS.—Tiruk, lagun eta adiskide gozak: beti izan dok a gogorregi gure gudalburuarentzat; berari enlzun yaulsat olangorik esaten.

I OTS.—Beti izan yakok *a* gogorregi, egia esateko; Korioli'ren aurrean gure gudalburuari aurreak artu ta zatitu egin yoan ak, okela erre-egosia zatituten dan legetxe.

II OTS.—Giza-aragi-yalarik izan ba'litzok a, erre ta yan egingo eukean gure gudalburua.

I OTS.—Eztok beste barririk, ala?

III OTS.—Marte'ren seme ta ondorengo ba'litzok baño be etxekoagotzat artu yoek or barruan; maipuruan imini yoek; agure-batzarrekoetatik batek be etsautsak deusik itandu, guztiak aren aurrean zutunik eta burutsik egon baño. Gure gudalburuak berak be emakume kutunari langO txerak egin yautsazak; aitearenka yagok bere eskuagaz, eta begietako zuria erakusten yok aren itzak entzun-ala. Baña au yatsue barrien mamia: erdibitu egin dok gure gudalburua, eta eztok len zanetik erdia baño, beste erdia besteak dav'ako, maiko guztien eskariz eta ederretsiz. Ak diñonez, ara yoanda belarrietatik ten egingo yautsak Erroma uriko atezaiari; bedarra legetxe ebagiko ei yok dana bere aurrean, eta ostopo bagarik, leundurik itxiko ei yok bere bidea,

II OTS.—Eta gauz dok a orrako ori egitsko, iñor izatekotan.

III OTS.—Gauz orrako ori egiteko! egin egingo yok ak; eta izan be, ara, areriotan aña yok ak adiskidetan; eta adiskideok eztozak azartuten diranekotzat agertuten, aren adiskidetzat esan gura yoat, *a* buru-makur dagon bitartean.

I OTS.—Buru-makur! zer dok orrako ori?

III OTS.—Baña gangarra goian dauela barriro ikusi dagienean, eta gizona bere yasean, urtengo dozak euren zuloetatik, kuiak eulondoan legetxe, eta guztiak yai egingr yoek agaz batera.

I OTS.—Noz asteko orrako ori?

III OTS.—Biar; gaur: bertatik; gaur arrastian yoazo bearko dok danborra, esaterako maiko yakien bat langotzat artzen yoek orrako ori-ta, euren ezpanak igutzi baño len egin bear ei yoek.

II OTS.—Ba. olan izatekotan, ostera be izango yoagu iskanbillarik mundu onelan. Bake au eztok on bestetarako, burdiñea ugertu, yostunak ugaritu ta balata-giñak azteko baño.

I OTS.—Gudua ekadazue niri, bai, gudua: eguna gaba baño oba dan bestean da gudua bakea baño oba: bizkor eta bizi dok gudua, iratzarkor, zaratatsu, zurrumurrutsu, Elbarri dok bakea, lozorro; epel, gor, loli, oar-gogor; guduak gizonetan erailten dauen baño sasikumetan geiago sortuten dauzana.

II OTS.—Olantxe dok izan be; eta guduak zelanbait likiskerigin dirala esan al izanarren, ezin ukatu ledike bakea adardungile andi danik be (9).

I OTS.—Bai, eta alkar gorrotauazo egiten yautsek gizonai,

III OTS.—Ara zegaitik: bake-aldian alkarren bear gitxiago dabelako. Guduaren alde nire txanponak. Ba-dot Erromarrak Bolskarrak bestean merke ikusteko usterik. Badoaz maitik yagiten, ba-doaz,

GUZTIAK.—Barrura, barrura, barrura! (Alde dagie).

(9) B^re emaztea beste gizcnen bategaz ixilean, naiz agirian dabilkon gizonari esaten yako adardun, aari izateko baño-edo ezta. , lakotzat.

VI AGEHLEKU..-ERHOMA. Guztitarikoentzako lelsu.

SIKINI la BURTA aurrera.

SIK.—Eztogu aren barririk, eta eztogu aren bildurrik zetan jzan be; makal eta mengel dira aren yagibideak, arsn adiskideak, erriaren oraingo bake ta baretasunean, len asarre ta artega egon izan-arren. Arpegiak gorrituten dautseguz aren adiskideai, mundua ondo doalako; eurak be ikustekoak ikusi ta yasatekoak yasan bearko leukiezan-arren, aren adisideak gurago leukie erria asaldaturik, kutsua lez, etxartebideetan ikiltea, gure bearginak euren lantsgíetan pozarren txistuka ta abestuten, ta euren zereginetara adiskiietasun onean yoaten ikusi baño.

BUR.—Zori onez eta tertzioz egin geban gogor. Meneni dogu ori, ala?

SIK.—Bera dok, bera dok. Ui! txerakor be txerakor egin dok oraintsu.

MENENI aunera.

BUR.—Gora, yaun!

MEN.—Gora, zuok biok!

SIK.—Zure Koriolan'en ezaren tamal andirik ezta emen, aren adiskideetan izan ezik: zutunik dirau lege-erriak; eta olan lirauke a asarreago ba'iitz be.

MEN.—Dana dago ondo; eta askozaz be obeto egon edikean txerakorrago ta menberago izan ba'litz a.

SIK.—Non ete dago a? Ezer entzun ete dozu?

MEN.—Ez, deusik be eztot entzun: eztabe aren ezetariko barririk bere amak eta emazteak.

Iru-lau Uritar aurrera.

URITARRAK.—Yainkoak yagon eta gordeko al zauez zuok biok!

SIK.—Egun on, gure auzotarroi.

BUR.—Egun on guztioi, guztioi egun on.

I URIT.—Gu geu, gurs emazteak, eta gure umeak be belaun-ganean zuon bion alde arren egiteko bearturik gagoz.

SIK.—Bizi ta obaririk izango al dozue!

BUR.—Onik eta ondo ibili, auzotar txerakorrok: Koriolan'ek maite iza.i al zinduezan, guk maite izan zauguezanez.

URITARRAK.—Yainkoak yagongo al zauez orain!

TIR. BIAK.—Oník eta ondo ibili, agur. (Uritarrak alde).

SIK.—Urliok etxartebiderik etxartebide iskanbilla-gedarrez ebiltzen aldiaren aldean zori ontsu ta atsegingarri dok oresingo au.

BUR.—Aintzako gudalburu zoan ICai Marki guduan, baña lotsabako ta irainkor, arrokeriz ganezka, uste lediken baño be geiagokeritsuago ta leiatsuago, bere buru-zalee. gi.

SIK.—Eta bakar-agintzazale, lagunik bagako agintzazale.

MEN.—Etxoat uste a olango danik.

SIK.—Onazksro ikusiko geunkean orrako ori, guztion negargarritzat, kontsultzarik Iiitxi izan ba'leu ak.

BUR.—Aurreak artu ta ondo galazo dabe yainkoak orrako ori, eta Erroma onik eta bare dago a bagarik.

Edil bat aurrera.

EDIL.—Tirbun aintzakook, baitegira sartu dogun yopu bat dago or eta au diño ak, zera, Erroma'ren lurretara sartu dirala Bolskarrak guíaroste bigaz; eta aurrean daben oro manatu ta birrindu egiten dabela gorrotorik andienagaz.

MEN.—Aupiái da ori, gure Marki eriesteraturik dala entzunik, barriro be munduari adarka egiten dautsana: zorro-barruan egozan aren adarrak Marki Erroma'ren alde egoanean, eta bein be etziran azartutsn andik kirika ta kui egiten.

SIK.—Tira, zetarako dozu Marki oitatu-bearrik?

BUR.—Oa, ba, eta narrua berotu dagioela zurrumurru ori zabaldu dauenari, Ezin izan ledike Bolskarrak gugazko egiunea austerik.

MEN.—Ezin izan ledikela! Len yazotik be ba--dakigu olangorik izan ledikela; olango iru yazokune izan dira nire bizian. Baña aztertu egizue uñi ori zigortau baño len; nondik dakian itandu egiozue, non entzun dauen orrako ori; zuoi barriok idakatsuezana zigortau, eta bildurgarri danaren ardurea artu dagizue'.a esaten dautsuen geznaria yo eztagizuen.

SIK.—Ez esan niri olangorik: ba-dakit nik olangorík ezin izan Iedikana.

BUR.—Ezina da, bai.

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Larritasunik andienagaz agure-batzarrera doaz andiki guztiak: euren mosuak aldatzen dautsezan barrien bat eldu yake.

SIK.—Orrako yopu ori da orren errudun.-Oa

ta erriaren begien aurrean berotu egiozue bizkarra: ak sortu dauen artegatasuna da orí; aren barriak sortua baño ezta ori.

GEZN.—Bai, aintzako yaun; baiezturik sendetsirik dago yopuaren barria; eta bildurgarriagorik, askozaz be bildurgarriagorik be eldu da.

SIK.—Zer bildurgarriagorik?

GEZN.—Bala bala ta zabal be zabal dabil ainbat agotan, noragiño izan lediken egiantzeko eztakit nik... Aupidi'gaz bat eginda, Marki dala gudaroste bat Erroma'ren aurka dakarrena, eta umerik gazteenetatik asita agurerik zarreneneraño azaskatze langO azaskatzea egingo dauela zin eginda ei dator.

SIK.—Egi-antzeko be agi-antzeko da au!

BUR.—Asmaketa utsa da ori, alderdi mengelagoak gura leukenez Marki yainkoa atzsra Erroma'ra ekarteko.

SIK.—Orretarakoxe marro utsa,

MEN.—Eztau orrako orrek egi-antzik: a ta Áupidi eztira batera yotekoago, areríorik gorrienak litzakezan baño, alkarren aurkakorik aurkakoen baño.

Bigarren gsznaria aurrera.

II GEZN.—Deiez dagotsue agure-batzarra: Aupidi'gaz bat eginda, gudaroste ítzal bat ekarri dau Marki'k, gure lurretara asarrez sartzeko; eta dagoneko sartu dira gure lurretan, erre ta kiskali dabez, eta aurrean idoro daben oro artu dabe.

KOMINI aurreva,

KOM.—Egin ba'dozus, egin dozus!

MEN.—Ze barri dok? Ze barri?

KOM.—Zeuon alabak muskilíu ta mutxikinduteko lagun izan zatxakez, eta zeuon buruganera berun urtua ixurteko; zeuon emazteak zeuon surretan iñoren mubrikindurik ikusteko.

MEN.—Ze barri dogu? Ze barri dogu?

KOM.—Euren oñarrietaraño erreta geldituko dira zuon yauretxeak, eta zuok orren kutun eta laztan zenáuezan eskubide bereziak ginbeleta-zuloan sarturik ikusiko dozuez.

MEN.—Ze barrí dozu, arren?-Bildur naz zuok egiteko langO egitekoa egin ete dozusn. Ze barri dogu, arren? Bolskarrakaz bat egin izan ba'leu Marki'k...

KOM.—Arein yainko da a: yaiotza-bideak baño gizon obarik egiten dakian yainkoren batek egina ba'liitz legetxe dator a arein burutzat; eta udan mutikoak txipeleten ya- I rraL naiz arakinak euliak erailten ibilten diranean bestean ustetsu darraikioz aik ari gu umeon aurka.

MEN.—Sgin ba'dozue, egin dozue zuok eta zuon amentaldun gizonak; bearginen autarkian eta berakatz-yaleen andurrean ainbesteko ustea dozuenok!

KOM.—Zuon buru-ganera eragingo dautso ak Erroma'ri.

MEN.—Zugatzari eraginda Erbul'ek igali umoak eralgiten. ehazan legetxe. Egin ba' dozue, egin dozue!

BUR.—Baña egia da ori, ala, yaun?

KOM.—Bai; eta zurbilduko zarie besterantza dala ikusi baño len. Gogoz eta biotzez yagiten dira lurralde guztiak; eta gogor egiten dautsoenai irrí egiten dautse ak buru faagako euren adorsagaitik, eta il egiten dira euren tinkotasun tentelean, Nok ezarteko ari errurik? Zertxo berezien bat idoroten dabe agan zuon arerioak eta berenak.

MEN.—Guztionak egin dau, gizon zindo ak errukirik ez izatekotan.

KOM.—Nok eskatuteko errukirik ari? Tirbunak ezin, lotsea-arren; erria ezta aren errukigarriagorik, otsoa artzaienik dan baño: bere adiskiderik onenakazko, aik esan ba'legios "On izan zakioz Erroma'ii", aik eurak fce gorrotagarri yakozanak aginduko euskioena bera agindu eutsoen-eta, orretan bere areriotzat agertu ziran.

MEN.—Egia da: nire etxeari ezarri ba'legio ak etxea erreko leuken iiintirik, eneunke nik arpegirik ari esatsko "Geldi or, ez egik egin olangorik, arren". Egitekoa egin dozue, zuok eta zuon bearginak; bear argia egin dozue!

KOM.—Ikara baten ímini dozue Erroma, eguño izan dauen baño gatx osagatxagotan.

TIR. BIAK.—Ez egizu esan gu gareala orren errudun, guk ekarri dogunik.

MEN.—Ostera! Gu gara errudun, guk ekarri dogu, ala? Maite geban guk a; baña. aiereak baño sentsunik geiago ezpa'geunkean legetxe, guk andiki kikilok, bidea garbi ta zabal itxi geuntsen a uritik zakarkiro atera eben zuon giza-mordoai.

KOM.—Baña bildur naz aik a atzera barrura orroaka ta oioka ez ete daben sartuko. Tuli, Aupidi'k, munduko bigarren gizonak men egiten dautse aren asrnoai, aren ordeko ba'Iitz legetxe: etsipena da arein bien aurka Erroma'k egin legiken guztia; etsipena, ai erantzuteko dauen indar eta bere burua yagon-bide guztia.

Uritar-merdea aurrero.

MEN.—Emen dntor arako giza-mordoa. Aupidi be o:gaz dago, alu? Zuok zarie eguratsa kutsatu zenduenak, Koriolan eriesteratu zanean zuon txapel andurtsu-koipatuak gora goraka ta zarataka erabili zenduezanak. Ba-dator a orain; eta aren gudariak eztakarre euren buruetan zuon txibita izango eztan ule bat be; zuon txapeletatik gora goraka yoan zan beste buru eratsiko dauz ak lurrera, eta ordainduko dautsuez zuon uuturkiak. Eztau ardura; gu guztiokaz ikatz but egiteraño erre ta kiskuldu ba'gagiz be ak, ondo irabazita dogu ori.

URITARRAK.—Benetan, itzalak dira entzun daroaguzan barriak,

I URIT.—Ni neugazko, a erbesteratu egiela esan nebanean, tamalgarrí zala esan neban.

II URIT.—Orixe esan naioan neuk be.

III URIT.—Bai nik be; eta, egia esateko, ori:ce esun eben guturik askok. Asmorik onenez egin geban guk egina; eta a erbesteratuteko guk men egin izan-arren, gogoaz besteru egin gebun.

KOM.—Izatekoak zarie zuok zeuon autarkiaksz!

MEN.—Egitekoa egin dozue, zuok eta zuon gedarrak! Yoango ete gara Kapitoli'ra?

KOM.—Ui! Bai; nora yoateko ara ez-eta? (KOM. ta MEN'k alde).

SIK.—Zoaze, yaunok, zoaze etxera; ez kikildu; bildur dautsoelarena egiten dabena egi izateu gura leukienen alderdiko dira orreik. Zoaze etxera, eta ez erakutsi bildurrik.

I URIT.—On eta lagun izango al yakuz yalnkoak! Tira, txotxook, goazsn etxera. Beti esaten neban nik oker genbiltzala a erbefltsratu gebanean.

II URIT.—Guztiok esaten geban ori berori. Baña, tira, goazen etxsra. (Alde uritarrak).

BUR.—Barriok eíxatazak bape begiko.

SIK.—Ez niri be.

BUR.—Gaioazan Kapitoli'rai níre ondasun guztiak emongo neunlcez burriok guzur izate-arren!

SIK.—Gaioazan, ari'en. (Alde dagie),

VII AGERLEKU.-Gudaltegi bat Erroma'tik ur.

AUPIDI ta bere Ordekoa aurrera.

AUP.—Oraindik be Erromarraren aldera igesi egiten yoek, ala?

ORD.—Eztakit nik ze sorginkerí dauen ak sldean, baña zure gudariak yate- aurreko mal-onestetzat edo olangotsutzat dabe *a,* agazko itzez besterik ezta egiten maian, eta agazko dira yate-osteko eskerrak; eta egikera ta eragokera orregaz, yaun, zu zeure gudariak be itzaldu egiten zauez.

AUP.—Eztago orain nire eskuetan bestera izaterik, gure uiimoui kalde egiteko biderik artzeka, Lenengoz nire besartean estutu nebaneun uste neban buno arroago dabil neugazko be: orraitiño be olangoxe dok aren ízakerea, alda-ezina; eta arteztu ezin dana zuritu-bearrean, naiz ez-ikusi egin-bearrean naiagok.

ORD.—Orraitiño be, yaun, besterik gurako neunke nik... zeugaitik esan gura dot, ez bestegaitik.r. zu ezintzazan batu agaz zure alik agaz zatituteko, egikizuna zuk zeuk egiteko. naiz aren eskuetan bukarrik izteko baño.

AUP.—Ondo aituten yoat ik esan gura dokana; eta seguru ago, a bere burua zurituten etorri dakidanean, etxakik ak nik zer egotzi daikeodan buru-ganera. Dirudianarren, eta alan uste yok ak, eta begirik geienai olan agiri izan-arren ak zer guztiak ondo egiten dauzala, eta Bo'.skar lege-erriko arazoak ondo darabiltzala, iransuge lango dala burrukan, eta ezpatea atera-ala irabazten dauela, orraitiño be egiteko itxl yok ak edo bere idun-azurra ausi, edo nirea galgordean iminiko dauena, arazoak galtzera cju eldu gadizanean,

ORD.—Arren, yaun, ak Erroma goatuko dauenik uste dozu, ala?

AUP.—Leku guztiak egiten yautsoek men, inguratu bario len; eta bere uldeko dozak Erroma'ko andikiak: agure-batzarrekoak eta aitonsemsak be maite yoek a: eztozak gudaririk tirbunak; eta erria iradu eta itsumustuan ibiliko dok ari gogor egitean. a erbesteratzean arin ibili izan zan bestean. Itsas-arranoak berezko nagusientasunez arrainak goatzen dauzan legetxs, alangoxe izango yakola a Erroma'ri uste yoat nik. Otsein zintzo izan yakoan a lenen Erroma'ri; baña alde-bardin ezin eroan izan yoazan ganean imini eutsoszan omenak, alboraka egiten yeutsoen; ala zori onik zori on dabilen gizon zori ontsua beti orbanduten dauen arrokeriagaitik izan dan, ala bere aldeko izan dirun abagune edo eretiak ondo erabilteko bururik ezagaitik, ala berez zer baterako baño gauz-ez izanagaitik bere burua buru-koskoletik burupekora ezin aldatuagaitik, eta, orregai-

tik, gudu-aldian erabilten eban zorroztasun eta yasaz bakea be erabili gura izanagaitik izan dan; orrako orreitatik batek edo bestek, guztiotatik dau ba zerbait, bat be osorik ez-arren, eta onetan berea autortu ta emon gura dautsal... orrako orreitatik *ba*tek edo bestek hildurgarri egin eban a, eta olan gorrotau egin eben, eta erbesteratu: ba-dau ak irabazirik, agotik yaio-ala itoten danik. Olan, gure onindarrak be gure *a*\-diak zeiangotzat esten dauzan, alangotzat dagoz: eta geitasunak, berez goragarri izanarren, eztau oroigarri agiriago ta apainagorik. berak egina goratzeko itzaidi ta txaloak baño. Suak itzalten dciu sua; untzeak untzea atera egiten dau; eskubideak zabuka yausten dira beste eskuhidesn aurrean; gauz eztala geldituten da indarra indarraren auirean. Tira, goazen. Kai, beartsurik beartsuen izango az Erroma ire izan daiinean; bertatik izango az orduun nire, (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGEBLEKU.--EHROMA. Guztitarikoenlzoko leku,

MENENÍ, KOMINI, SIKINI, BURTA ta beste batzuk aurrera,

MEN.—Ez, ní enaz yoango: ba-dakizue ak zer esan dautsan beñola bere gudalburu izan zanari, berarizko niaitasuna eutsan gudalburuari. Aita deituten nindun ak, baña ortik zer? Zoaze zeuok a erbesteratu zenduenok: aren txoznea baño milla bat lenago ínakurtu ta belaunbikatu zakioez: ori da aren errukirako bidea; bai, Komini'ri entzuu gura izan ezpa'dautso ,etxean egongo naz ni.

KOM.—Enindula ezagunarena egin daust *ak.*

ME'N.—Entzuten dozue?

KOM.—Orraitiño bein deitu nindun neure izenez: gure adiskidetasun zarraz ekin neuntsan, eta batera ixuri izaii doguzan odol-tantanak gogoratu dautsadaz. Eztau erantzun gura izan Koriolan izenera: izsn guztiak galazo dauz ieretzako; utsetarikoen bat, izengoititakoren bat da, Erroma errsko dauen sutan izenen bat beretzako eratu arteño.

MEN.—Ba, olan ba'da, egitekoa egin dozue zuok! Ikatza merkatuteko Erroma'ra errekina ekarten ibili zarien tirbun biok... oroipen kxngo oroipena izango da zuona!

KOM.—Gitxien uste daneko azkespena, parkapena erregetar be erregetar dala gogoratuazo dautsat: erbesteratu izan dauen legeerrik olango eskaririk berari egitea irainzat dauela erantzun daust ak.

MEN.—Ondo erantzunda: zer besterik erantzuteko ak?

KOM.—Aren beren adiskideakanako begirapena iratzarteko aleginak egin dodaz: ak erantzun daustana zera izan da, ezin dauela etxon, eztauela astirik akarro ta galauts ustel-andurtsuzko mendian arein iilla ibili, aik berezi *la* andik aterateko: tentelkeri andi litzakela ale bat naiz bigaitik arako mendia erre bagarik itxi ta oraindik be surren mingarri izatea.

MEN.—Ale erkin bat naiz bigaitik. Ni naz orrako orreitatik bat; bere ama, emaztea, semea, eta lagun adoretsu au be aleak dira: zuok zarie akarroa, galautsa; eta iretargia baño gorago eltzen da zuon andurra: zuokaitik erreak izan bearko dogu guk,

S!K.—Tira, epe artu egizu, arren: zure laguntzarik emon gura ezpa'dozu, eguñoko laguntza-bearrik andien onetan, ez egiguzu asarrerik egin beintzat gure zori txar onetan. Baña, seguru be seguru, zuk izan gura ba'zeu bitarteko izan aberriaren alde. guk orain itsu-mustuan batu geinken gudarostek baño geiugorik iritxí legike zure miñ trebeak, gure aberkide a geldituazoteko.

MEN.—Ez; ni enaz ezetan sartuko.

SIK.—Zoaz agana. arren.

MEN.—Zer egiteko nik an?

BUR.—Marki'ganako zure maitasunak Erroma'ren alde zer egin daien ikusi baño ez.

MEN.—Bai, eta zuoi esan Komini legetxe bidali nauela atzera, entzun bagarik; zer orduan? Aren txerarik ezagaz, zerak gogoaz bestera yazo yakozan adiskide lez, atsekabez beterik atzera etorri baño? Orretarako bidali gura nozue, ala?

SIK.—Orraitiño be zure gogo onak, zure gogo onaren neurriz, izango leuke esker onik Erroma'ren aldetik.

MEN.—Artu ta egingo dot egikizun ori; entzungo nauela deretxat. Orrailiño be Ko-

mini onaren aurrean *ák* ezpanak usigi ta purrustada egin izanak asko kikildulen ncra. Gogaldi txarragaz egoan a orduan, barau-rik egoan, yanzar beintzat: gure zanak utsik dagozanean otz izaten da gure odo-la, ezpanak luzatu ta okertu egiten doguz gosearen aurrean, eta orduan ezkara bape emonbera, naiz azkespera; baña odi ta odol-bideok yakiz eta edariz bete doguza-nean, malguago, bigunago, makur-berago izaten doguz gure gogoak, abadeak lez barau-rik eta yanzar gagozanean baño: olan ba, zur eta kuika egongo naz nik nire es-karia egiteko *a* yanbarri egon dadin; eta orduan eraso ta ekingo dautsat,

BUR.—Egin oginean dazauzu zuk aren txe-rakortasunerako bidea, eta ezin galdu izan-go dozu bide ori.

MEN.—Yazotekoa yazo, ikusiko dot a zetara dagon, bai orixe. Laster yakingo dot zer dakarren nire eskariak. (Alde dagi).

KOM.—Ak eztautso yaramonik be egingo orri.

SIK.—Ezetz?

KOM.—Neuk dirautsuet, urregorrizko yarle-kuan dago a eta gorri dauz begiak, Erro-ma erre bear ba'leu lez; eta ak dauen go-rroto biziak baiturik dauka bere errukia, Belaunbiko yarri natxako; itz-erdika esan daust "Yagi adi"; onan agur egin daust bere eskuz, itzik egiteka; idatziz bidali dau nirs atzetik zer egiteko asmoa dauen; eta zer ez egiteko, zin-bidez dagola loturik bal-dintza bagarik guk berari men egiteko-ta, alperriko da fca itxaro oro, bere ama ta emazteagan ez izaiekotan; eta, entzun do-tíanez, aik ari bere afcerriaren alde erru-kia eskatutekotan dira. Aor ba, goazen emen-dik, eta gure eskari txerakorrez eskatu da-giegun ai, bizkor eta arin ibili dadizala. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Bolskarren Gudaltegiko leku aurreratua Erroma'ren aurrean. Yagolak eu ren lekuetan.

MENENI aurrera.

I YAG.—Geldi or: nondik zatoz?

II YAG.—Geldi or, eta eurt atzera.

MEN.—Gizcnai dagokiensz darngoiozue zuok yagoiaizan; ori onío; baña zuon ederetsia-gaz, lege-erriko otsein nozue ni, Koriolan' egaz itz egiteko etorria.

I YAG— Nonciko?

MEN.—ílrroma'tiko.

I KAG.—2zin igaro zendiksz, atzera yoan bear dozu: gure gudalburuak eztau entzun gura andikorik ezer oinganik ara.

II YAG.—Sutan ikusiko dczu zure Erroma zuk Koriolan'egaz itzik egin baño len.

MEN.—Sne adiskide cnok, zuon gudalburua er.tzun ba'dozue Erroma'z eta ango bere adiskideez itzik egiten, ezetz bestean saguru da baietz nire izena eldu dala zuon bela-rrietara: Meneni yat izena.

I YAG.—Izan baño eztau; atzera zoaz, eurt egizu: zure izenak eztau esnendik eurrera igaroteko alik.

MEN.—Nire adiskide kuiun dala zure gudal-burua dirautsut, lagun: ni izan naz aren egite andien idaztia, eta nigandik eta ni-gan irakurri ízan dafce gizonak bardinba-ko aren entzute ona, aren ospea, eta gsi-turik, zori onez; eta izan be, nik beti iruditu ta erakutsi izan dodaz euren neurri egin eginean, geiegíkeririk eta guzurrik esate-ka, níre adiskijeak, eursn artean a buru dala: egia, lur labanean boleari yazoten yakonez, iñoz marratik arago be eldu izan naz: eta aren goraketeian ia ía guzurra irarteraño be eláu izcin naz: olan dala ba, lagun, zuon ederretsia emon bear daustа-zue aurrera yoteko.

I YAG.—Egia esatsko, yaun, zeure alde esan dozuzan itzetan beste guzur aren alde esan izan ba'zsnduz be, etzindekez igaroko emen-dik: ez, guzurrak esatea ezta zindoro bizi-tea bestean on, onindartsu ba'litz be. Orraz-kero, znaz atzera.

MEN.—Arren, Iagun, gogoratu egizu Mene-ni dala nire izena, beti zure gudalburuaren aldeko izan danarena.

II YAG.—Zu aren guzurti izan-arren be, izan zareala diñozunez..., egia esaten dauen aren fcenieko nozu r.i, ta ezin igaro zenáikezala esan fcear dautsut. Olan ba, atzera zoaz.

MEN.—Ez ete daustazu esango ak yan daue-nentz? Eneunke itzik egin gura ba agaz ak bazkaldu arte.

I YAG.—Erromar zara zu, ezta?

MEN.—Ba-naz, zure gudalturua dan legetxe,

I YAG.—Olan izatekotan, gorroto izan bear zeunskio Erroma'ri, ak dautsanez. Zuon ya-gola zana zuon uriko atestatik landara ego-tzi izanik, eta erri ezyakinaren asaldatze zakar-traksts-aldian zuon ikurdi zana zuon

arerioai emonik, aren asperízeai arpegi emongo dautsezuela uste ete dozue, emakumeen negar eta intziii samurrez, zuon alaben neska-eskuz eta agure ikarati, mengel eta zarminduen bitartekotasunez, zuk zeuk be orretariko dirudizunez? Ori langoarnasa ta putz makal-mengelez itzali daikezuela zure uria arsn osmoz erreko dauen sua uste dozu, ala? Ez, oker be oker zagoz: olan ba, Erroma'ra atzera, eta gertau zadize zuon eriotzarako: gaiztetsirik zagoze; zin egin dau gure gudalburuak zuontzako eztagola ez yareiterik, ez parkatuterik.

MEN.—I, txotxo, begirapenez artuko ninduke zuon gudalburuak, ni emen nazana ba'leki,

II YAG.—Tira, tira, etzauz ezagun nire gudalburuak.

MEN.—Gudalburu naçusiak esan gura dot nik.

I YAG.—Eztautso ardura nire gudalburuari zugaitik, Atzera, gero: ez al dautsut aterako zure odol-apurra; atzera; au da zuk iritxiko dozun guztia; atzera.

MEN.—Bai, baña, lagun, lagun.,.

KORIOLAN eta AUPIDI aurrera.

KOR.—Zer yazoten da?

MEN.—Zertxo bat yoat orain, txotxo, iri esateko; ikusiko dok aintzakotzat nauela orrek; ikusiko dok eztagola yagola kirtenik ni nire seme Koriolan'gandik ortik zear bidali nagikenik; ak egingo daustan arrera ta txeratik igarri egik ez ete agon i eskegi-aginik, naiz, ikusleen atseginerako, bestetariko eriotza luzeago ta yasateko gogorragoren begira; begira egik orain yazoko dana, ta larritu adi ire ganera etorteko danagaz.--Eten bagako batzarrean egongo al dozak yainko aintzatsu-omengarríak ire eure zori onerako, eta ez al aue rnaite izango ire aita zar Meneni'k auen baño bape gitxiago! Ene sems ori! ene seme ori! Gutzako sua gertatuten daragoiok ik; ara, aiko amen ura, su ori itzaltsko. Nekez be nekez bultzau naioek igana etorteko; baña segura yagozak aik neuz besterik eztagola iri eragin leionik-eta, egaz egotzi naioek uriko ateetatik arein intzirizko a::eak, eta araotuten aut, arao-bidez eskatuten dauskat azketsi, parkatu dagikazala Erroma ta ire aberkide eskaieak. Yainko onak baretuko *ál* yoek ire sumina, eta onen, onako zital onen gcmera egotziko al yoezak aren ondaki--nak; mokorren bat ba'iitzok lez, iganako biiea eragotzi izan daustan zital onen ganera.

KOR.—Alde emendik!

MEN.—Ostera! Alde emendik!

KOR.—Etxoat nik ezagun, ez emazterik, ez amarik, ez seme-aiabarik. Besteen otsein dozak nire arazoak: aspertzea neure izan--arren, Bolskarren biotzetan dago azkestea, parkatutea. Beñolako gure arteko adiskidetasuuazko, esker txurreko aztuteak ondatu ta kutsatuko al yok, errukiak a noragiñoko zan iragarri baño len. Zoaz ba. Gogorrago ta entzun-ezinago dira nire belarriak zuon eskarientzako, zuon uriko ateak nire indarrentzako baño. Orraitiño be, nik maite zindudazalako, eroan egizu au (Idazkiren bat damotso); zure ederra-arren idcttzi izan dot, eta zuri bidalduteko nintzan. Beste itzik eztautsut entzungo, Meneni. Nire maite zan gizon au Erroma'n, Áupidi: orraitiño be badakusazu!

AUP.-=Beti az i gogaldi bereko. (Alde KOR., eta AUP.'k).

I YAG.—Eta, yaun? Meneni yatsu izena, ezta?

II YAG.—Ba-dakusazu, lilurakor da zure izena, al utsa: ba-dakizu atzera etxerako bi dea.

I YAG.—Entzun dozu zure nagusitasunari guk atzera eragite-arren ogibiiea kendu dauskula, ezta?

II YAG.—Zegaitik larritu bear dodala uste dozu?

MEN.—Etxaustak ardura ez mundu guztiagaitik, ez zuon gudalburuagaitik: zuok langozerakazko, nskez uste yoat ezer zarienik be, ain zer gitxi ta uts zarie-ta, Bere burua erai!teko gogoa dauenek etxautsak bildurrik bestegandik etorri lekikeon eriotzeari. Al dauenik txarrena egin dagia^a zuon gudalburuak. Zuok zeuokazko, zariena zadize, eta luzaro izan be; eta zarrago ta beartsuago, errukarriago izango al zarie! Niri esan daustena bera dirautsuet, alde! (Alde dagi).

I YAG.—Gizon zindo dok ori, bai orixe.

II YAG.—Gure guialburua bai gizon langogizona: atxa bera dok a, axsk ezin eragin leíon aretxa. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-KORIOLAN'en txoznea.

KORIOLAN, AUPIDI ta beste batzuk aurrera.

KOR.—Biar iminiko dogu gure gudarostea Erroma'ko arresien aurrean.-Egite onetan iiire kide zarean ori. zure Bolskar andikiai iragarri bear dautsezu, argi be argi erabi-11 dodala arazo au.

AUP.—Arein asmoentzako bakarrik izan dozu 2uk begirapenik; itxi egin dautsezuz zure bektrriak Erromu osoaren eskariai,- eztautsa-zu Iekurik emon, eztautsazu yaramonik egin urliri, naiz berendiri, bakarrean itz egiteko etorri yatsuzanean, ez, ezta zu se-gurutzat zenduen zure adiskideai eurai be.

KOR.—Azkenengo gizon onek, Erroma'ra bio-tza ausita bidali dodan onek, irior bere ui tak baño maiteago nindun, neurriz gora; bai, yainkotzat nindun, benetan. Au bidaldutea izan da arein azkenengo iges-lekua ta ya-reihidea; eta ni ari laiz eta garratz ager-tu- arren, aganako maitasun zarragaitik opatu dautsadaz nire lenengo baldintzak, aik uintzakotzat artu ez ebezanak, eta, orre-xegaitik, orain ontzat ezin artu leikiezanak, eurak opcttu izan dautsedaz beste bein, ba-ña beste iñok baño geiago egin eiksla us-te eban aren ederra-arren bakar-bakarrik zer apur apur baten oben egindas aurre-rantzean eztautsat egíngo yaramonik ez lege-erriaren aldetíko, ez adiskideen alde-tiko geznari ta eskariri. Ostera! Ze gedar da ori? (Gedarrak barruan). Egin izan do-dan une herean ausi bear ete dot nire zi-na? Ez, eztot ausiko.

Aurrera, ileta-yantziz, BIRGILE, BOLUMINE, eu. rekaz dakarrezala Marki gaztsa, BALERE ta laguntzakoak.

Nire emaztea dator aurrenen; urren. enbor au bere barruan eratu zan eredu begiraga-rria, bere odoletiko illobatxoa eskutik da-karrela. Baña, alde egik nigandik, biozpe-ratasun orrek! Ausi ta birrindu zakidaze lo-karriok oro, ta yaiotzaren aldeko lege be-reziok! Gogor eia setatsu izatea bedi onin-*dai*, Zer da gauz begirapen-yasa ori? Naiz, zer dira gauz yainkoak eurak be zínausle-tuko leukiezar usa-begiok?.„ Beratu ta ur-tuten asirik nago, eta enaz besteak baño buztin gogorragozkorik, Buru-makurka eske lebilkon sator-mendiari Olinpu'k bere fce-rua makurtu ba'leio legetxe, niri burума-kurka daragoio nire amak: eta bitarkoren yasa dau nire seme gaztetxoak eta guztion Ama andiari, yaiotzatiko gure zerari ge-dar eragiten dautsa "Ez ukatu". Goldatu da-giela Bolskarrak Erroma, eta areatu dagie-la Itali: iñoz be enaz izango ni antzarkume-rik, ez ollorik, berezko lereari men egiteko-rik; tente ta tinko egongo naz, gizona berak bere burua egina ba'iitz legetxe eta senide-rik ezpa'Ieu legetxe.

BIRG.—Ene yaun eta senar oríi

KOR.—Nire begiok eztira nik Erroma'n erabil. ten nebazanak.

BIRG.—Zu orren aldaturik erakusten zausku-zan naibagearen naibageak uste izanazo-ten dautsu ori.

KOR.—Antzezlari tenteleri yazoten yakonez, aztu egin yat orain nire egikizuna, eta t:sis-tuka lotsatu lotsaturik itxita nago. Nire ara-gitikorik onena zarean orrek, azketsi, par-katu egizu nire gogorkeria; baña orregai-tik ez egizu esan "Azketsi egizuz gure Erro-marrak"... Ene! ene! eutsi nire erbestaldia bestean luze, nire azaskatzea bsstean ezti ta gozo izango dan mosua; orain, zeruko erregeno tukutsua-arren (10) zugandik ar-tua dot mosu au, maite,- eta nire ezpan zintzoak eztabe loitu izan arrazkero... Yain-kook! Itz-ontzi eginik nugo. etu oraindik eztautsat ez agurrik, ez txerarik egin mun-duko amarik zindoenari: lurrean sartu akit, ene belaun (Belaunbika'tu egiten da); edo-zetariko semerenak baño ire bendekotasun sakonaren ugiri andíago irarri egik or.

BOL.—Ui! Zutundu akit, onetsi ori! Bitartean, neu belaunbikatuko nok ire aurrean, be-laur.pekotzat suarria baño belaunpeko bigu-nago ta apitzagorik eztodala; eta egokita-sunaz besterako bendekotasuna erakutsiko yoat, bitarte oso onetan ama-senieen arte-ko egikizunak okerretara artu ta eginik. (Belaunbikatu egiten da).

(10) "Zeruko erregeno tukutsua" nor ete dogu? Euísí eranfzuna. Elad'atarren ustez, Tzeu zan yainkorik andiena, yainkoen yain-ko, ta Ere (Here) zan bere emaztea. Errorna-rren ustez, ostero, Yoba edo Yupiter zan yain-korík andiena, yainkoen buru, ta Yune zan bere emaztea; eta bai Ere ta bai Yune, biak ziran tukutsu, edo obeto ta zeatzago esateko, tukutirik asko, Iliarena ta Enearena irakurri ba'dagizuz, an ikusiko dozunez. Aor ba, Yune ya'su emen arako "Zeruko erregeno tuku-tsua".

KGR.—Zer dogu au? Zu belaunbikaiu nlri? Zigoriu dozun semeari? Olan izatskotcin, itsas-baztarreko arritxokor merroak arrika begioe izarrai; olan izatekotan, axe asaldatuak izai arro-lerdenak, sustarretik aterata, eguzki goriari egotzi begioez; ezinarena egin, erail ezina, ezin ledikena erraz eta txirikelan egiteko,

BOL.—Nire gudari az i; kide ta lagun izan nok nl i eratu ta egiten, Ez ete dok ezagun andera uu?

KOR.—Fulbikola'ren arraba zindoa, Erroma' ko iretargia: Dlne'n yauretxetik eskegita dagon leikerraldoa bestean garbi, edurrik garbienagaz lelak gogorturiko leikerraldoa bestean garbi ta aratz: Balere raaite ori!

BOL.—Au, barrlz, eu dok au, laburturik, umatu dadinean eu oso osorik izango dana,

KOR.—Yupiter gurenaren ederretsiz, gudarlen yainkoak zindotasunez yantzi ta eratuka al yozak ire gogapenak, lotsariarentzako zauritu- ezin izan adin, eta urutu guztiak gora-bera tinko egon eta bera dakusenak yareiten dauzan itsas-argia laugoxe izan adin guduetan!

BOL.—Belaun ori, txotxo!

KOR.—Nire seme adoretsua da ori.

BOL.—Ire emaztea, andera au, eta neu lez. ori be ire eskale dok.

KOR.—Ixilik, arren: naiz, eskatzekotan, onako au gogoratu ienen... nik ukatutzat eztagizuela artu, ez emotea zin egin dodan zerik. Ez egidazue eskatu nik nire gudariak eurenetara bidalduterik, naiz Erroma'ko bearginen baldintzai men egiterik. Ez esan nirl zetan dirudidan yaiotzeaz fcesterako: ez eskatu niri zuon argibide otzagoz nire suminak eta azaskatzeak gitxitu dagidazalarik,

BOL.—Ui! ui! geiagorik ez, asko *dal* Esan dok ik eztauskukala ezertxo be emongo; eta izan be, ik dagoneko ukatuaz besterik eskatuteko ezkintzoazan gu; gure eskariak porrot egitekotan, ire gogorkeria izan dadila orren errudun; entzun gagizak, ba.

KOR.—Aupidi ta zuok Bolskarrok, entzun zuok, Erroma'tikorik deusik be eztogu entzun gura bakarrean-eta. Zer da zuon eskakizuna?

BOL.—Gu ixilik, eta itzik egiteka fca'gengozak, gure soñekoak eta soñen egokereak eurak iragarriko leuskikek, beren beregiz bagarik, i erbesteratu intzanazkero guk eroan dogun bizitzea. Eure gogotan artu ta ausmer egik, bizi diran emakume guztiak baño zori txctrrekoago etorri gareakt gu ona: eta izan be, i ikusi izanak gure begiai, poza-arren, negar eragin, eta gure biotzai atseginez yantzazo bear leuskienak, negar egitera beariuten yozak, eta bildurrez eta naibagaz ikaratutera; ire amari, emazteari ta semeari ikusiazo euren seme, senar eta aita fcere aberriaren erraiak urraka ateraten. Eta guri, errukarrioi, ire areriotasunik andiena erakusten dauskuk: fcidea isten dautsek ik yainkoakanako gure arrenai, guk ez beste guztiak euren nasaigarritzat dafcen bide ori; izan be, ai ene! zelan arrenik egiteko guk gure aberriaren alde, guk ara goazanok... nora yoatsko gu i garaila urten adinean? Ai eneí eda gure añea, gurs iñude dan gure aberria galdu bear dogu; edo, ostantxean, i eu, gure aberrian gure poz-atsegin atxukun ori, galdu bear augu. Gure guraria bete-arren be, alde batekoak, naiz bestekoak irabazi, zori txar agiri agiria idoro bear dogu, ba, edo ik etxartebideak zear eskuak loturik ibili bear dok, íre aberria ukaturik erbestetar egin azalako, edo, ostantxean, garailaritzat ire aberríaren ondakinak zapaldu bearko dozak, eta ire emazte ta semasn odola adoretsu ixuriagaitik eroan palma-adarra, Nigazke, seme, nik etxoat asmorik nire zoriaren begira guduok amaitu arte egoteko: ezin sartu ba'dauskat buruan, alde bataren atzenaren billa ibilteka, fciai ire fciotz zindoa erakutsi dagioekala, eskuzabal izanaz, sinistu egidak, eztautsak erascko ire aberriari, *a* ire oinpean zapalduteko, ez eztautsak erasoko lenago, mundu onetara ekarrí indun ire amaren sabela aurreztik zapaldu bagarik.

BIRG.—Bai, eia nirea be, zure izenarí aldiak aldi iraunazoteko rnutiko au ekarri eutsuna.

MUTIKOA.—Ni enau zapalduko orrek; igesi egingo dot nik, aniíago egin nadin arteño: eta burruka egingo dot orduan.

KOR.—Smakumereu samurtasunik ez izateko, bearreko da semerenik, ez emakumeren arpegirik ez ikustea. Luzaroegi egon naz yezarrita. (Yagi egiíen da).

BOL.—Ez, olan ez egik alde egín gugandik, Erroma yareiteko ta i euren otsein azan Bolskctrrak ondatzeko ba'Iitzok gure eskaria, gaiztetsi gengikezak ik, ire omenaren galgarri ta kaltegarritzat: ez, zera dok guk eskatuten doguna, bitsuen artean onezkoak egin dagikazala: "Erruki au erakutsi izan dautsuegu" Bolskarrak esan al izango daben bitartean, "Au artu dogu" esan al dagie'.a Erromarrak; eta gora goraka artuko indukie aldea bietakoak, "Onetsia izango al az bake au egin dokalako" gedar egingo leukie. Ba-dakik ik, ene seme anii orrek,

ikusteko dala guduaren atzena zelango izango dan; baña yakina dok au, zera, Erroma ire benderatu ba'dagik, benderatu, txakurrak ezarriko yautsoezak atzetik ara ik ortik iritxiko dokan izenari, txakurrak eta añenak; eta egunkarian onan idatziia geldituko dok orregazkoa: "Zindo zan gizou a, baña atzenengo bere egiteagaz dana lorrinduta, dana muskilduta ta ezerezturik itxi eban bere izena; manatu, lurrera eratsi eban bere aberria; eta gorrotagarri da aren izena gerokoentzat", Itz egidak, seme: iñondiko aleginetan abil ire omen-billa, yainkoen índarrak bardinduteko, arein antzeko izateko, axearen mosu puztuak ostotsez urratu-gurarik akil, eta atzenean ire sulburak, íre asarreak bere oñaztarriagaz aretxsn bateri tarrat eragin eta arrakaldu baño etxok egingo. Zegaitik eztok itzik egitsn? Iri egindaks okerrak oruindík be gogotan eukitea gizon zíndorentzako goragarri dala usie dok, ala? Alaba, itz egin: ire negarren ardurarik etxon orrek... Ik itz egiok, txotxo, ba-ledikek ire umetasuna gure argibide ta zegaitiak baño eragikorrago izatea orrentzako... Eztago munduan ori baño amari lotuagorik; eta orraitiño emen naratil itzontzi eginik, cñak oin-lokarrian dauzana legetxe. Eguño ire bizian ik eztautsak egin txerarik ire ama maitakorrari; ak berak, ostera, ollo errukarriak, heste semerik izaterik gura bagarik, bere "Klok" eta "Kloken" bidez, guduetara bu'tzau izan au, aitatik omenez beterik etxeratu adin. Zuzenez besterako dala nire eskaria esan egik, bai, eta atzera bidali nagik akulukadaka: baña olangorik ez izatekotan, ez az zindo i: eta izurritu egingo aue yainkoak, amari dagokon bandekotasuna ireari ukatuten dautsakalako. Bizkarra, atzea emon daust: lurrera, anderok; lotsatu dagigun ori, gu beiauntikaturik. Arrokeririk geiago dau orrek Korio'an bere izengoitian, gure eskariai izan bear leuskioen errukirik baño. Lurrera: eta atzena; au da atzenengo gure egikizuna,--01an ba, gure Erroma'ra yonngo gara, an gure auzokoakaz batera il gadizan.-Ez, begira dagoku: zer eskatu bear dauenik yakin ez-arren, gure laguri ízateko belauntikaiuten dan mutiko onek, bere eskuak gora eragita, indar geiago ezarten yok gure eskariaren alde, bera ukatuteko ik dokan baño.--Tira, goazen: Bolskarren bat izan dau amalzat urli onek: Korioii'n dau bere emaztea, eta bere antzeko ba'da bere semea, alanbear utsez da. Orraitiño be, agur egiskuk: ixilik egongo nok ni gure uria suak artu arte, eta orduan be gitxi baño etxoat itzik egingo.

KOR.—(BOLUMiNE'ri eskueicttik. ixílik, eldutakoan). Ui! ama, Ui! ama! Zer egin dozu? Ara, idigi egin dira zeruak, bera begira dagoz yainkoak, eta irri dagitsoe yaioizabidez besterako ikuskizun oni. Ui! ene ama. ene ama! Ui! Irabazi dozu Erroma'ri atsegingarri izango yakon garaitea; baña zure semearentzako..., sinistu egidazu, Ui! sinistu egidazu..., erailkor be eraiikor ezpada, galgordetsu ba-da beintzat zure semearentzat zuk irabazi dozuna. Baña betor yazo. tekoa... Aupidi, benetako gudurik, gudu yaiorrik ezin egin dodanazkero, bake egokirik eratu ta egingo dot. Ara, Aupidi on, nire lekuan ba'zengoz, egingo ete zeunskio zure amari nik nireari egiten dautsadan baño yaramon gitxiagorik? Naiz, emongo nik baño gitxiagorik?

AUP.—Neuri be ausi yatak biotza.

KOR.—Zin egingo neunke orixe yazo yatzula; eta, yaun, ezta zer txikirik errukia ixuriazotea. Baña ,yaun on, zelango bakea egin gura ta iragarri gura daustazu? Nire aldetik, nik eztot yoan gura Erroma'ra, zeugaz yoango naz ni atzera; eta, arren, nire alde yarri zakidaz onako onetan... Ama ori! emazte ori!

AUP.—(Bere kitean). Pozik naiagok ik eugan ire errukia ta ire omena alkarregaz burruku imini izan dozakalako: eta ortik aterako yoat nik nire lenengo irabazia.

(Anderak KORIOLAN'erí kiñuka daragoioe)

KOR.—(BOLUM., BIRGILE ta besteai) Bai, laster arte; baña batera *edan* bear dogu; *eia* itz utsak baño autorla ta lekuko obarik eroan bear dozue, egiunea eroango dozue, lege-arauz alde bietakoak izenpeturikoa. Erdue, sartu barrura geugaz. Anderok, zuoi yauretxeren bat eragitea irabazi dozue zuok: Itali osoko ezpatak eta agaz alkartuen iskilloak be ezin egin eikeen bake au, (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--ERROMA. GuzUtarikoentzako leku.

MENENI ta SIKINI ourrerci.

MEN.—Lkusten dozu Kapitoli'ko a musturra... mustur-arri a?

SIK.—Ba! ela ortik zsr?

MEN.—Ire atz txikarragaz *a* andik kendu al ba'dagik, ba-yagok itxarorik arean Erroma'ko anderak, alan be aren amak, ari irabazteko. Baña nik diñodana zera dok, eztagola olangoren itxarorik: epaia arturik dagoz gure idunalc, epaia noz betelco begira.

SIK.—Izan ete ledikek orren aldi laburrean gizonaren izakerea aldatzerik?

MEN.—Ba-yagok aldearik zeruko katutik txipiletara; eta orraitiño be len zeruko katu izana dok. GizoneliJt iransuge egina dok Marki au: egoak be ba-yozak; narraz dafcilen zerik baño andiago dok.

SIK.—Maite be maite eban ak bere ama.

MEN.—Olantxe maite nindun ak ni: eta ak etxok oroituten orain bere amarik, zortzi urteko zaldiak tere amea oroituten dauen baño geiago. Asko litzakek aren arpegiko garraztasuna maats elduek garraztuteko be: ibili dabilenean. lankiren bat ba'litzok legetxe igituten dok, lankirenak langoxe dozak aren zirkinak, eta ak zapaldu baſi be lenago estutu egiten dok lurra; yoale-otsak legel::e itz egiten yok, eta suoditaldearen otsa langoxe dok aren itza. Alesander'ena egiten ba'Ieragoio legetxe, benben yezarten dok. Egitako agindu dagiana, ak aginduaz bat yagok eginda. Yainko izateko, betikotasunaz bestersn ezik etxok ak, eta zeruen batena, bere bakaldun-aulkia on iminteko.

SIK.—Bai, erruki-bearra, errukirik eza dau ak, aren barri zeatz eta egiz emon gura ba' dozu.

MEN.—Aren lerak azalduten daragoiol nik. Ortik igarri ze erruki ekarriko dauen aren amak agandik; katamotz arrek esnerik dauen baño erruki geiagorik etxok ak; ori idoroko yok gure erri errukarriak; eta zuon egikizuna izan dok orrako ori.

SIK.—Txerakor izango al yakuz yainkoak!

MEN.—Ez, onango arazoan etxakuzak yainkoak txerakor izango. A erbesteratu gebanean, ezkeuntsen izan lotsarik; eta eurak be etxauzkuek izanço lotsarik eta begirapenik *a* guri gure idun-azurrak austen atzera dalorkenean,

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Yaun, bizirik yarrai gura ba'dozu, arin be arin igesi egizu zeure etxera; erritarrak yabetu dira zure tirfcunkideaz, eta an darabile ara-onaka gedarrez eta tatarrez, eta atzondoka erailgo dabela Erroma'ko anderak nasaigarririk ezpa'dakarre, guztiak zinka ta biraoka daragoioe.

Beste Geznari bat aurrera.

SIK.—Ze barri yoagu?

II GEZN.—Barri onak; barri onak...; Buru urten dira anderak, eragi dabe Bolskarrak euren gudaltegia ta eurekaz yoanik da Marki: eguño eztau izan Erroma'k *au baño* egun pozkarriagorik, Tarkindarrak Erroma' tik egotzi izan ziranazkero.

SIK.—I, adiskide, seguru ete ago, gero, orrako ori egia dala? Seguru seguru ete dok?

II GEZN.—Nik dakidala, eguzkia sutan dagola bestean seguru; non egon zara ostonduta, orrako orren ezpairik zuk izateko? Eguño uriolek eztau fciderik urratu zubipeko makopea zear. gure uritar nasaituak uriko ateak zear bestean arin eta boladan. Ba! entzun baño eztozue! (Turuta ta zaamioleo otsa, danborrak yo (a yo, *eta* gedar *eta* oio ta santsoak barruan). Eguzkiari yantzazo egiten dautsoe turutak, luza-laburrak, salteriak, txistuak, danborrak, eta txirrintolak eía Erromarren oioak. So! entzun! (Oio ta irrintzek barruan).

MEN.—Barri onak dira oneik. Anderakaz trikitx egiten noa. Kontsul, agure-batzarreko, Aide Nagusi. uri osoa añako da Bolumine au; zuok langO tirhunetan, barriz, itsasoa ta legorra beterik añako. Ondo egin dozuez qaur zuon arrenak; ba, gaur goxean eneunkean emongo txakurtxiki ba! be zuon eztarri guztiakaitik. Entzun.orreina bai poz langO poza! (Oio, santso, irrintze ta eresi).

SIK.—Lenen, yainkoak onetsiko al zauez zure barri onakaitik; urren, artu nire esksr onak be.

II GEZN.—Yaun, guztiok dogu biderik asko eskerrik andienak emoteko.

SIK.—Uritik ur dozak aik, ala?

GEZN.—Urira sartu-aginik.

SIK.—Aikaz trikitx egiten eta pozkide izaten yoango gara. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-ERROMA. I :i-atetik urreko etxartebide.

BOLUMINE, BIRGILE, BALERE, eta abar. Agure-batzarreko, Aide Nagusi, ta uritarrak \a-guntzat dabezala, aurrera,

I AGUR.—Ara gure Zaia, Erroma'ren bizia! Batu zuon leñu guztiak, arren egin yainkoai, eta garaite-suak egin; Iorak zataldu euren aurrean: manatu, deuseztu egizue Marki erbesteratu eban zuon zaratea, bestera zarata eginik; txarretsi ta ukatu egizue arako zaratea aren amarentzako txereagaz; "Ondo etorriak, anderok, ondo etorriak!", gedar egizue.

GUZTIAK.—Ondo etorriak, anderok, ondo etorriak! (Eres-aldi pozkorra, danbor eta turutakaz).

VI AGERLEKU.--ANT UM. Guztitarikoentzako leku.

TUL AUPIDI aurrera, laguntzakoakaz.

AUP.—Yoan, bai, ta ni emen nazala esan egiezue uriko Andikiai; ingi au, papel au emon egiezue; fcein au irakurriazkero, uriko zeira batu dadizala esan: eta an, arein eta erriaren aurrean autortu ta baituko dot onako onen egia. Oraint:;e sartu da uriko ateak zear nik salatuten dodana, eta erriaren aurrean agertuteko asmotan dago, bere burua itzez zurítuko dauelaren itxaroz; zoaze. (Laguntzakoak alde).

AUPIDI'ren aldeko iru, naiz lau Zinkide aurrera,

Ondo baño obeto etorriak!

I ZINK.—Ze!an dago gure gudalburua?

AUP.—Bere ukarrez edendu ta bere errukiz erail izan daben gizona legetxe,

II ZINK.—Yaun zindo be zindo ori, asmakidetzat gura ginduzuzan zure asmoari ba'deutsazu, geuk yareiko zauguz zure galgorde aniitik

AUP.—Yaun, ezin dautsat erantzun orrako orrl; erriaren erabagiz yokatu bearko dogu.

III ZINK.—Erriak eztau yakingo zer egin, zetara yo, zuon artean alkar-aitu-ezinik dagon bitartean; baña, bata, naiz bestea yausi, bizirik gelditu dadinarena izango da dana.

AUP.—Ba-dakit ori; eta nik a yo ta lurreratuteko akiakula edo zuribiderik asmau eratuezinik eztago. Neuk eragi neban a, eta nire omena baitu neian aren zindotasunaren alde: eta nik a olan eragirik, labankerizko urez eta iñontzez ureztau dauz bere landara barriak, olan nire ainbeste adiskide bere alderaturik; eta elburu orretara eltzeko, len beti zakar, latz, eskura-ezin, eta edozer bere kitetik egiteko zan bere izakereari oben eragin izan dautso.

III ZINK.—Yaun, kontsultzarako aurkeztu zan aldiko aren buru-gogorkeria, bururik makurtu gura-ezak kontsultzea galduazo eutsonekoa...

AUP.—Egin-eginean orixe esateko nintzan: orregaitik erbesteratu ebenean nirera etorri zan; nire ezpateari opatu eutsan bere iduna; artu neban; nire otseinkide egin neban aberriaren otseintzan; zabal zabal itxi neuntsazan biáe guztiak bere asmo guztietarako; bai, nire gudarietatik gizonik onen eta gazteenak aututeko eskubidea emon neuntsan bere asmoak aurrera eroateko; neu be otsein izan natxako bere asmoak ak durrera eroateko; lagun izan natxako ospa edo entzutea lortuten ari, gero a er.tzute osoagaz bera gelditeko; eta arrokeririk be erakutsi izan dau ak oker ori niri egitean; eta, atzenean, aren yarraila baño enirudin nik, ez aren agintzakide; eta bere egikereagaz ni bere otsein, bere alogereko, ez bera nire, ba'nintz legetxe bere ederretsia iragarten izan daust,

I ZINK.—Orixe ta olantxe egin be egiten izan dau, ene yaun: orrako orregaz arriturik egoten izan gara gudarostean, eta, atzenean, Erroma'ren yabe egin danean, ondakinetan beste entzuteren begira egon gareanean...

AUP.—Ori ba...; eta orrexegaitik, nire zamilak emon-alean erasoko dautsat. Guzurrak bestean merke diran emakume-negar tantan banaka batzukaiUk saldu dauz gure egite andiko odola ta nekeak; il egin bear dau, ba, orrazkero, eta barri ta gazte egingo nau aren yausteak. Baña, entzun! (Danbor eta turuten otsa, erriaren oio ta santso ajidiakaz).

I ZINK.—Bidarien bat ba'zintzazan legetxe sartu izan zara zu zeure yaioturira, eta eztautsue egin txerarik; a, ostera, goraka-zarata-artean durunduaren durunduz eguratsa be ausi-bearrean dator atzera.

II ZINK. Eta euren eztarri zirtzilak arrakaldu ta urratu-bear gorrian *ati* omena emoten

daragoioe ak euren semeak erail izan dautsezan ergel epetsuak.

III ZINK.—Orrazkero ba, zure onerako, ak itzik egin baño len, edo ak esango leukenaz erriari bere alde eragin baño len, zure ezpnteak min egin dagiola, gero atzenak geuk eragingo dautsaguz-eta. Bein a lurrean luze, bera betean eratzandakoan, eta agazko ipuina zeure erara eralgitakoan, aren argitide ta zegaitíak bere gorpuagaz batera eortziko dira lurpean.

AUP.—Bego, asko *ia:* emsn datoz andikiak.

Uriko Andikiak aurrera.

ANDIKIAK.—Ondo be ondo etorria aberrira.

AUP.—Enaz ni olangogarririk. Baña, aintzako yaunok, arduraz irakurri ete dozue nik idatzi dautsuedana?

AND.—Arduraz irakurri dogu.

I AND.—Eta irakurri-ala naibagarik asko be artu dogu. Azkenengoaren aurreko aren utsak zigor gitxigarri izan dira, nire ustez, baña asi bear eukeanean amaituaz, gure gudari-batzeen ondoren onai agur egin izanaz, guduko diru-eralketak gure bizkarrera egotzi izanaz; arerioak bere burua gure bende itxi bear ebanean, agaz egiunea egiteagaz..., orrako orregaz eta orretan uts zuritu-ezina egin dau,

AUP.—Ur da a, ba-dator: bera entzungo dozue.

KORIOLAN aurrera, danbor eta ikurrinakaz; uritar mordotzarra beragaz.

KOR.—Gora, andikiok! Ba-nator atzera zuon gudari au; etxat intsigi nire aberri-maita sunik emendik alde egin nebanean baño geiagorik, oraindik be zuon agintza andipean nik iraun baño, Ba-dakizue, eta ezpa'dakizue, yakin bear dozue, alegin zori ontsuz, eta bidea odolez urraturik, Erroma'ko ateetaraño eroan dodazala zuon guduak. Gudaketan eralgiaren irurenaz goiti da guda-ondakinetan etxera ekarri izan doguna, Egin dogun bakeak eztakartsoe Antitarrai omen gitxiagorik, Erromarrai lotsarilan dakartsoen baño; eta or dozue kontsulak eta Aide Nagusiak izenpeturik eta agurebatzarraren ikurratzez ikurrazturik aikaz egin dogun egiunea.

AUP.—Ez egizue irakurri, andiki zindook; saltzalla ta etoi orri esan baño, zuok emondako eskutideak orrek al danik eta txarloen erabili izan dauzala.

KOR.—Saltzalla, etoi!... Or,angorik!

AUP.—Bai, saltzalla, etoi, Marki.

KOR,—Marki!

AUP.—Bai, Marki, Kai Marki. Ala ontzat emongo dauskadala uste dok arako lepurretea, Korioli'n ik ostutako Koriolan izena? Andiki ta lege-erriko buruok, asmorik txarrenagaz saldu dau orrek zuon arazoa, eta ur gazizko tantan batzuen ordez emon izan dau orrek zuona zan Erroma uria,,., zuona zan uria diñot..., bere emazte ta amari emon dautse; bere zina ta erafcagia ausita, sedazko ari ustel biurren bat ba'lira lez; guduaz eguño iñoren onurik artzeka; bestera, bere iñudearen negarretara berorrek be intziri ta nsgarr-arrantzak eginda, or itxi dau bertanbera ta deslai zuon garaitea; ori dalata, mutikoak be lotsaturik begiratu dabe, eta gizon bioztsuak agoa zabalik alkar begiratuten izan dabe,

KOR.—Entzun dozu, Marte?

AUP.—Ez egik aitatu yainko ori, mutiko negar. ti orrek...

KOR.—Ja!

AUP.—Bego, asko da,

KOR.—ñtzenbako guzurti ori, andiegi egin daustak biotza bere ontzirako. Mutiko! Yopu ori, alango ori! Azketsi, parkatu nagizue, andikiok, eguño lenengoz beartu nabe agirika egiteraño. Ene yaun benok, zuon ebazpideak guzurtau bear dau txakur za= tar <iu; eta nigandik artuta aldean daroazan eta bere ilobiraño eroango dauzan zigorkaden lorratzak be orren berorren yakinkiáetzan zuokaz batuko dira ori guzurtau dagien.

I AND.—Ixilik, biok, eta niri itxi itz egiten,

KOR.—Zeatu nagizue, Bo'skarrok; gizon eta gazteok, nigan orbandu egizuez zuon ezpatak... Mutiko! Txakur ustel atsitu ori! Egia idatzi ba'dozue zuon urtekarietan, an agiriko da, usategira arranoa lez sartu nintzala ni zuon Bolskarron artera Korioli'n, ega-ots bildurgarriz; bakarrik egin nebala nik arako a... Mutiko!

AUP.—Ba! andiki zindook, yainkoai be lotsarik eztautsen arroputz orri itxiko ete dautsazue zeuon begien eta belarrien aurrean esaten, zuon lotsarirako, an orrek alanbear Itsu utsez egin ebana?

ZINKIDEAK.--II dadila orrako orregaitik.

URITARRAK.—Zeatu ori, eta len baño len zeatu be: nire semea erail eban orrek; -nire alabea;-nire lengusu Marka erail eban orrek; -nire aita erail eustan niri.

II AND.—Ixilik! ee!... ez iraindu; ixilik! Zindo da gizon ori, eta orren entzuteak barruan artzen dau mundu borobil au. Santsunez entzungo doguz oraintsuengo orren oke-

rrak. Geldi, Aupldi, ela ez eragin bakeari, ez asaldatu bakea.

KOR.—Ui! eskuartean al neu ori, olango sei Aupidi'gaz, naiz geiagogaz, bere leñuagaz nire ezpateari legezko lana eragiteko!

AUP,—Zital arroputz ori!

ZINKIDEAK.—EraiL erail, erail, erail, erail ori!

(Ezpatak aleraten dabez AUPIDI'k eta Zinkideak, eta erail egiten dabe KORIOLAN; lurrera yausten da au: ganean yarten yako AUPIDI).

ANDIKIAK.—Geldi, geldi, geldi, geldl!

AUP.—Ene yaun zindook, entzun nagizue.

I AND.—Tul ori...

II AND.—Adoreari negar eragingo dautsan zera egin dok ik.

III AND.—Ez egik zapaldu ostikopean.-Yaun guztiok, geldi egon; lekaratu zuon ezpatak.

AUP.—Ene yaunok, onek eragindako asarre--aldi on^tan ezin izan-arren, geroago yakin daglzuenean noragiñoko galgorde yatsuen gizon onen iizia, poztu egingo zarie onena onan egin dalako. Zuon omenai eder ba'dakie niri zuon batzarrera dei egitea, zuon otsein zintzo nazala erakutsiko dol an, ostantKean zuon gatxespeuik astunena yasango dot.

I AND.—Eroan egizue emendik aren gorpua, eta ilelsa egiozue. Eguño aldanikaririk gorpu-ontzirako lagun izan yakon gorpurik zindoena legetxe etsi ta begiratua izan dadila orrena.

II AND.—Koriolan beraren artegatasunak kentzen dautso Aupidi'ri errurik geiena. Al dogunik onena ta ondoen dagigun ereti, abagune onetan.

AUP.—Yoan da nire asarrea; eta naibagaturik nago orain... Eragi egizue; gudaririk beinenetatik iru, lagun dakiozala: neu izango naz euretatik bat. Danboira yo egik, eta ileta-otsa atera egiok: musturrak berantza dabezala eroan zuon aztamakilak. Uri onetan ak ainbeste alargundu ta seme-alaba bagarik itxi, eta orrako orreik oraindik be irain orregaitik negarrez egon-arren, orraitiño be oroitza zindorik izango dau gure aldetik.-Lagun zakiguez. (Alde, KORIOLAN'en gorpua daroela. Ileta-otsa yoten dabe).

AMAIA

Salta 'n 1983gko. Azilaren 12'garrenean.

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK:

ALARTZE.—Ateburupeko lurra.

ALDARRIKARI.—Ogibidez eta aginduz erriari zerbait etxartebideak zear iragarten dautsana.

ALTXOR.—Arri eder, dirutza ta beste olangotsu.

APEN.—Txarto egin dauenari ordea emoiea,

ARAKIN.—Okelea saltzeko abereak erailten dauzana,

ARROTZ.—Erbestetar, eta bai oslaluz etxean artzen dana be. Ortik dator arroztegi euske!-izena, ostatu baño egokiagoa,

ATXILO.—Goatua, alan be guduan ba'da.

EORTZL—Ila lurperatu.

BARRANDARI.—Norbait, naiz zerbait goatzeko, naiz ikusteko kirilta, kuika, gorderik dagona.

BURESTUN.—Buruko estun, erastun edo elastun eriko estun danez, "koroe" euskel-gaiztoz.

EDEN.—Soin-barrura sartu, naiz soñak edoskiazkeio, zer bizia galtzen dauena; suge batzuk, esaterako, edena dabe euren buruan, eta usigiazkero, gure soñean sartzen dauskue, eta edo il egiten gara, edo edo il-aginik larri ibili. Sikilikitu (Zeanuri).

EDENDU.—Edena sarlu.

EGURATS,—Avnasaz artu ta putz egiten dogunean gure birietatik urteten dan zera; índartsu dabilen eguratsari "axe" ereisten dautsagu.

ERAIL,—Ilazo. Eran.

ESTUN.—Estu edo lotutik dator itz au. Or dozu "erestun" itzean, eta, orregaitik, erestun antzeko edozer "estun" yatsu.

IDAZTI.—"Liburu".

IKURDI.—Lenagoko gudariak besoan erabilten eben txirrintolea; eta aren antzeko beste edozer; esaterako, euskel-gaiztoz "sillu" esa. ten yakona.

IKUZI.—Uiagaz zerbait garbitu. Eztakit orain errian itz bizirik danik, baña bai, orraiti*ño* be, ikuzi'tik datorren "irukutzi", Zeanuri'n beintzat. Iturrira uretan bidaltzen diran umeai beti esaten yake an: "Urez bets-aurretik irukutzi, gero, yarroari".

IKUZTE.—Urez garbitute, soña, naiz beste zerbait.

IKURREZTAU.—"SMuaz" yo.

ISUN.—"Petxu". "multa".

ILARRAINDU,—Zerbaitegailik poztu ta arrotu.

LENGEI.—Lurrari, urari ta eguratsari esaten yake "lengai" dirala, lenagokoak edozer iru orreitatik etorrela uste eben-eta.

MANDIO.—Aletegi, garautegi; gari ta olangoak eukiteko lekua,

MARGO,—"Kolore".

MARGOZTAU.—Zerballerl marge edo "kolorea" ezarri,

MILLA.—Erromarren bide-neurria; kilometro bat edo olangetsu.

ONINDAR.—Onerako indarra. Onindar batzuk Yaungoikoak berak emonak dira, beste batzuk on eginaren eginaz geuk iritxiak. Onindarrak on egiteko erreziasuna emoten dausku; onindarrik ba-dau bakotxak bere ogiliidsan, asparri ezpa'da,

OBEN.—Itz onen lenengo esan-gurea rnen-egitea izan da, ela ortik etorri yako besta esan-gurea, zera, legeren bat austea, naiz dala Yaungoikgarena, naiz gizonena.

OBEN EGIN — Ola, naiz beste zerbait ganean dauen zarneak berantza okertu ba'dau, oben egin dtiuela esaien da Zeanuri'n beintzat, Bai ba, ori be zuzen edo artezetik alde egitea da, eta erderazko "ceder" aditzaren esan-gurea dau; bere lekuan tinko egoteka, artez irauteka, okertutea; eta orl da obena ekandu-arloan be.

OSTERTZ.—-lurrak eta ortze edo zeruak alkarri deutsela egiten daben uztaia.

OTURUNTZA,—Yataldi; geien baten yataldi andi. "Ogi"tik dator itz au.

SOROSI.—Norbaiteri lagun izan zerbait iristelco.

SOROSLA.—Lagun, lagungarri.

UKAR.—Zorrean bagarik emoten dan lagungarria, Euskal-gaiztoz "limosna", "erremusina",

USABURKI.—Oriotan nastutako ta erretxinatiko usain gozoak; zauriai ezarteko-ta erabilten da, Erdaraz "balsamo" deretxoe.

USARTU.—Besteen artean nobera sartu zerbaiterako.

YAKINKIDETZA.—Euskal-gaiztoz "Kontzentzi".

YANAUSI edo YANA AUSI.—Zeanuii (Arra. tia'n) erderazko "digerir" esateko erabilten dabe.

YAREI.—Azkatu. Oñati'n beintzat eurrez darabile itz au.

ZAURATZ.—Zauri-atz. Zauriak izten dauen lorratza.

ZEI.—Urietan yakiak-eta saltzeko egoten dan beren-beregiko lekua.

ZIBA.—Mutikoak olgetako erabilten daben zurezko yostallu goi-borobil, bera-zorrotz eta bean azkenen untzea dauen au eta lokarriz inguratu ta yantzan eragiten dautsen zer au gizaldiak zear da ezagun. Yosu-Kisto gure Yaunaren aurretiko da.

ZINKIDE.—Zerbait egiteko zin-bidez alkar arturik dagozanak dira zinlrideak; geien baten okerreri edo eriotzen bat egiteko, Aupidi'ren zinkideak legetxe.

ZERUKO KATU.—Zeanuri'n eráeraz "oruga" esaten yakonari deretxogu olan.

TITA ANDORNIKA

ITITUS ANDRONICUSI

TITA ANDORNIKÁ

(TITUS ANDRONICUS)

ANTZERKI ONETAKO LAGUN ANTZEZTUAK

SATURNIN, Eiroma'ko oraintsuengo inberadoieaien seme, geroage inberadore izentaua.
5ASEN (Bassianus), Saturnin'en anai, Labine'z maitemindua.
TITA ANDORNIKA (Titus Andronicus), erromar aundiki, Gotarren aurkako Gudalburu.
MARKA ANDORNIKA (Marcus Andronicus), Erri-Tirbun, Tita'n anai.

LUKI
» V.TM
MARTI
MUTI.
} Tita Andornika'ren semeak.

ALARBA
DIMITIR
KIRON
} Tamore'n semeak,

ARON, Mauruetariko, Tamore'n kutun.
Kapitai, Tirbun, Gernari, ta Ergel, laurak Erromarrok.
Gotar eta Erromarrak.

TAMORE, Gotarren erregeno.
LABINE, Tita Andornika'ren alaba.
Sentzain bat, eta Ume baltz bal.

TITA'n senideak, Agure-batzarrekoak, Tirbunak, Ertzainak, Gudariak, etu Laguntzakoak.

AGERLEKU.-.ERROMA ta aren ingururaariak.

I EKITALDI'

l AGERLEKU.--Kapitoli-aurrea.

Agirian Andornika'ren ilobia; Tirbunak eta Agure-batzarrekoak goitegian. Bean, aurrera SATURNIN eta aren yarraileak aldea batetik, eta BASEN eta bere yarraileak bestetik, danbor eta ikurriñakaz.

SAT.—Aitonen seme zindook, nire eskubidearen aldekook, iskilloz yagoizue nire auziaren zuzena; eta zuok, nire aberkideok, maite nozuen nire yarraileok, iskilloak eskuetan dozuezala eskatu egizue ondorengotzarako nire eskubidea: ni naz Erroma'ko inberadoresn burestuna oraintsuen erabili ebanaren semerik zarrena: orrazkero, nigan bizi dadizala nire aita zanaren dedu ta omenak, nigan yarrai dadizala, ela ez egin nire adinari onango laidorik, onango zatarkeririk.

BASEN.—Erromarrak..., adiskide, yarraila, nire eskubidearen aldekook..., eguño Basen, Kaisarraren semea, begiko izan ba'yako Erroma errege-erriari, yagoizue Kapitoli'rako bide au; eta ez itxi aintzakogarri-ezari inberadore-yarlekura urreratzen be, yarleku ori on-indarrari, zuzentzeari, neurrikotasunari ta zindotasunari opatua da-ta: olan barik bestera, irabaziak argi ta dizdiz egin dagiala zuon autaketa garbian; eta, Erromarrak, zeuon buru-yabefasunaren alde yokatu egizue zuon autaketean,

Goitegitik aurrera dator MARKA ANDORNlKA, burestuna dakarrela,

MARKA.—Erri-talde ta adiskideen laguntzaz eta geiagokeriz agintza ta inberadoretza-

billu zabiltzen errege-semeak.,., gure tulde berezia bere alde dauen Erroma'ko erriak inberadoretzarako ctutaketan ago butez Andorniku autu dauela yakin egizue, izengoitiz Yainkozale deretxon Andornika, Erroma'ren aldeko aren egite on eta aundiakaitik: a baño gizon zindoagorik, a baño gudari adoretsuagorik ezta bizi egun onetan uri onetako arresi-barruan: etxerako dei egin dautso ari agure-batzarrak, Gotar basatien ourkako gudu nekor etu aspergorrietatik; gure arerioen bildurgarri diran aren semeekin batera erri indartsu tu iskilloetan onio trebeari buztarria ezarri dautsan ari. Amar urte yoan dira ak Erroma'ren auzi au beragan artu ebala, ta iskilloz zigortu dau gure arerioen arrokeria: bost bider itzuli da Erroma'ra odola dariola. bere seme adoretsuak guda-lekutik gorpu-kutxetan dakazala: etu orain, nozbaiten, deduaren ondakinak bizkarrean dakazala dator atzera Errorna'ra Andorniku onu, Titu ospatsua, iskilloak zori ontsu erabilirik. Ara! aren ondorengo uri legokionez izan gura zeunkienaren izenaren omena-arren, eta zuok goretsi ta gurtuarena egiten dozuen Kapitoli ta agure-batzarraren eskubideak-arren, deiez eta arrenka gagotzuez, zuok zeuok alde egin, zuon indarrui iskilloak itxiuzo, zuon yarraileak ortik zear bidali etu. auzi-eskaleui dugokíenez. bakez eta apaltasunez yokatu dagisuela zuon irabazien alde,

SAT.—Tirbunak bai egobi ta bikain itz egiten dauela nire gogupen eta asmoak baretzeko!

BAS.—Marka Andornika, ainbesteko uste ta entziteu dodaz zure zuzentasun eta zindotasunean-eta, ain maíte ta goratzen zauedaz zu zeu eta zureak, zure unai Titu ta aren semeak, eta aren aurrean nire gogapen guztiak burua apal makurtzen daben Labine liraina, Labine Erroma'ren edergallu ederrederra-ta, oraintxe ta ementxe agur dagitset maite naben nire yarraileai; eta nire zorjaren eta erriaren eskar onaren eskuelan iztsn dot nire auzia, nire auzi au aik euren aslakin edo balantzan neurlu dagien. (BASEN'en yarraileak alde).

SAT.—Nire eskubideen alde orren bero ta zintzo agertu zarien adiskideok, eskerrik asko guztioi, eta ementxe agur dagitzuet zuoi guztioi; eta nire afcerriaren niganako mailasun ela esker onaren eskuelan izlen dodaz nire burua la nire auzia. (SATURNIN'en yarraileak alde). Erroma, ni zuri ustetsu la txerakor natxatzun bestean, zuzen eta esker oneko izan zakidaz. Idigi ateak, tirbunok, eta barruan artu naglzue.

BAS.—Bai ni be, tirbunok, ni leiakide errukarri au.

(Turut-ots argiak. Alde dagia,- Kapitoli'ra igoten dira SATURNIN eta BASEN).

Kapitai aurrera.

KAP.—Bide egin, Erromarrok. Andornika ona, on-indarraren Zaindaria, Erroma'ren burrukaririk onena, uren gudaketetun beti irabazlu izan danu, deduz eta zori onez beterik dator atzera, fcere ezpateaz Erroma'ren arerioak esi-burruratu ta buztarperutu izan dauzan lekutik,

Turut-otsak eta abar. Aurrera MARTI ta MUTI; Gizon bi orein atzetik gorpu-kutxa edo ataute bat baltzez estalia dakarrela; LUKI ta KINTA urren. Arein atzetik TITA ANDORNIKA,- eta urren, TAMORE, laguntzat ALARBA, DIMITIR, KIRON eta ARON datozala; baita beste Gotar atxilo batzuk be; Gudu. riak gero, eta Erria atzetik yarrai. Eroaleak lurrean izten dabe arako gorpu-kutxea, tu itz egiten asten da TITA.

TITA.—Gora, Erroma, ileta-yantziotan garaíla zarean ori! Ara! bere zamea or orrenbaten usturik, zama bíkainez zumaturík nondik urteneko kaira utzera datorren itsasontziaren antzez dator Andornika, bere lokiak ereñontz-orrolloz loturik, bere aberriari bere negarrez ugur egiteko, pozezko negur zintzoz, atzera Erroma'ra etorri daluko. Kapituli onen yagola la aldezla aundi ori! begi onez artu egizuz guk emen egiteko gogoa dogun iletuk! Erromarrak, ogei tu bost seme adoretsuetatik, -Pirama Erregek ebazanen erdia,- ikusi gelditu yatazan ondakintxook, bizi ta ilen artean! Maitasunez ordainduko al dautse Erroma'k bizirik gelditu diranoi; euron azkenengo etxerako dakadazanoi, ilobia emongo al dautse euron aurrekoen artean; nire ezpatea bere zorroratzeko baimena emon dauste emen dozuezan Gotarrok. Tita, zureentzako latz-gogor eta ardura bagako zarean ori, zer dala-ta izten dozuz zure seme oraindik obiratu bagakoak Estigi bildurgarriaren ibai-erlzelan aldarrai egazka? (1). Leku egin aik euren unaien ulda-

(1) Erromarren eta Eladetarren siniskeriz, ilen gogoak euren zoriontegírako bidean Akairon ibai zabal-sakon igaro-ezina aurkitzen eben, *kaña* ílen gorpuak lurra emonik ego-

menean eorzteko, Ilobiraizeko (Idigi egiten dabe ilobia), Or egin Ixilik alkarri agur, ilak oi dabenez, eta baketan bizi or, zuon aberriaren guduetan il zarienok! Nire poztegi guren ori, onínda r eta zindolasunaren ontzi ezti ori, zuk bai ha-dozu or bein be atzera emongo eztaustazun nire seme-mordoa!

LUKl.—Emoiguzu Gotar atxiloetatik arroena, aren azpegiak zeatu ta metaturik aren aragia arein azurren lurreko baitegi onen aurrean ad manes fratrum opatu dagigun; arein ítzalak artega egon eztadizan, eta lur onetan agerturik gu nastu ta arbindu ezkagiezan.

TITA.—Bizirik gelditu danik zindoena damotzuet, zori txarreko erregeno onen semerik zarrena.

TAMORE.—Geldi, etxon, Erromar anaiok! Benderatzalla eskuzabal, Tita garaila ori, erruki zakiez dariodazan negarrai, bere semeen famal eta errukiz umari dariozan negarrai; eta gogora egizu, eguño zure semeak maitagarri izan ba'yatzuz, niri nireak etxalazela bape gitxiago! Ez ete da asko zure gurenᐸ3ea, zure garaitia ta atzera Erroma'ra etortea apaintzeko, gu Erroma'ra zure ta zure Erromar buztarriaren atxilo ona ekarri izana, ala nire semeak be etxartebideetan erail bear ete dozuez euren aberriaren alde zintzo ta adoretsu yokatu dabelako? Ene! zugan, zure kitean erregeren eta aberriaren onarsn alde yokatzea goragarri ta erruki ba'da, ba-da oneikan be.
Andornika, ez orbandu odolez zure ilobia; yainkoak lanyotsu izan gura ete dozu? Orazkero, errukior izatez urreratu zakiez: erruki eztia da zindotasunaren benetako ezaugarri: Tita zindo-zindo ori, bízirik itxizu nire semerik zarrejia.

TITA.—Epe artuizu, andera, eta azketsi, parkatu nagizu. Zuok Gotarrok bizirik eta ilik ikusi zenduezanen anai dira oneik; eta yainkoz eskatzen dabe oneik oparia euron anai eranen alderako: zure seme au da orretarako atz edo akatz egin yakona; eta il egin beor dau, yoanik diranen itzal mindu-artegak nasaitzeko.

LUKI.—Eroan ori ortik! eta bertatik egin sua; eta egur-metaen baten ganean zeatu daiguzan orren azpegiak, suak oso-osorik iruntsi dagizan. (LUKI, KINTA, MARTI la MUTI'k alde, ALARBA'kin).

TAM.—Yaungoikozaletasun orren anker eta biotz-gogor!

KIRON.—Basatikeri orren erdirik be izaa ete dau eguño Eskiti'k?

DIM.—Ez iminl Eskiti'rik Erroma geiagokeritsuaren aurrean. Atsedenera yoak Alarba; eta gu bizi ba'gozak, Tita'ren begirakune zorrotz-zemaitsuen bendean ikaraz biziteko bizi gozak. Orrazkero, andera, adoretsu izan; baña orraitiño be izan itxarorik Taraki'ko erregeaz aren txoznan bertan azazkatzeko iskilloak Toroi'ko Erregenoari tertzioz emon izan eutsoezan yainko eurexek emon eta eskuratu leikeoezala Tamore'ri be, Tamore Gotarren erregenoari be, onek beste ainbeste egiteko, onek bere arerioai arein egíte odoltsuen ordaina emon al izateko; Tamore Gotarren erregeno esan dot; bai, ori zan izan be, baña Gotarrak Gotar eta Tamore arein erregeno zanean, ez orain.

Ostera be aurrera LUKl, KINTA, MARTI ta MUTl, euren ezpata odolduekaz.

LUKI.—Ikusi, aita yaun, nolan bete doguzan gure Erromar ekandu-egikizunak: zeatu dira Alarba'ren azbegiak, eta suaren errekin dira aren erraiak, eta usain gozoz lurruntzen dabe arein keak ortzea. Gure anaiai lur emotea ta ai gedarrez Erroma'ra dei egitea baño eztogu orain.

TITA.—Olan bedi, eta bere azkenengo agur au begitsoe Andornika'k oi,

(Turut-otsez ilobian iminten dabe gorpu kutxea).

Bakez eta omen-deduz atseden emen zuok, ene semeok; Erroma'ren txapeldunik gogatsuenok, atseden artu emen bakez, munduko gora-bera ta zori txarren bildur bagarik! Eztago *emen* kuika salkerirık: eztau artzen emen arnasarik gure aurrekoa ikusiezinek, eztau ona sartzerik eta emen aztelik marmar askarrik; ezta emen ekatxik, ez zaratarik, íxila ta betiko loa baño:

nazkero, Kairon agure bizar-zuriak eroaten ebazan bere ontzicm ibaiaren beste aldera; gorpuak eortzi bagarik, obiratu bagarik, lurrik emon bagarik egotekotan, os'era, gogo errukarriak ao egan bear izaten eben egazka ta egazka ta negarrez, euren eskariai Kairon'ek ezetariko yaramcnik ez eutsen egiteneta. Gogo gaxoak leia itzala izaten eben íbaíaren andíko alderatzeko, gure Garbitegira doazanak zeruratzeko daben legetxe, baña euren leiea leia uts eta zori txar, gorpuak lurperatu-arte. Ikusi Birgili'ren "Enearena", VI, 317'tik aurrerakoa.

LABINE aurrera.

Bakez eta omenez atseden emen zuok, ene gemeok!

LAB.—Bakez eta omenez luzaro bizi, Tita yaun; ene yaun zindo ta aita, entzute onez bizi! Ara! ilobi onetara ixurtzen dodaz nire negarrak nire nebentzako esku-erakutsitzat, ai nire zorra ordaintzeko; eta zure cñetan belaunbikatzen naz, poza-arrenezko negarrez lur au ezatzen dodala zu atzera Erroma'ra etorri zarealako: ene! emen onetsi nagizu zure esku gerailaz, zure zori ona Erroma'ko urikiderik onenak txalotu egiten dabe-ta!

TITA.—Erroma begiko maitagarri, nire biotzaren pozkarritzat nire zartzaroaren biotzosakaia onen maitakiro gorde daustazun orii Bizi zadiz, Labine; zure aíta baño luzaroago, entzute onaren atzenbako egunetaraño biziko a\ zara, zuie on-indarren gorapenez!

Aurrera, bean, MARKA ANDORNIKA ta Tirbunak; barrien barri aurrera SATURNIN, BASEN, eta Laguntzakoak.

MARKA.—Gora, Tita yaun, nire anai maite, garaila argí Erroma'ren begien aurrean!

TITA.—Eskenik asko, tiibun lerden, Maika anai zindo.

MARKA.—Eta ondo etorriak, illobok, zori oneko guduetatik; bizi zarienok, eta bai zuok entzute edo ospa onetan murgilduta lotan zagozenok be! Gazte zindook, bardina da zuon zori ona, zuon aberriaren alds zuon ezpatak ateru zenduezan guztiona. Orraitiño be, seguruago *áa* ileta-arrandi au, Solon'i begiko yakon zori onaren iiekotsu izanez gunera, gurendarik gallenenak omenoean eratzaten dabenak dira-ta. Tita Ándornika, beti egiazko adiskide izan zatxakozan Erroma'ko erriak, bere tirbun eta bere ustedun nazan onen bitartsz, orban tagako txartes zuri-zuri au bidaltzen dautzu; etci inberadoretzat aututen zauz oraintsuen ildako inberadorearen semeokin batera: candidatus zadiz, ba, ta yantzi egizu yantzi au, ta lugun zakioz Errcma'ri, bururik bagako Erroma'ri, buru barria egiten (2).

TITA.—Adinagaitik eta makalkeriagaitik kilikolo dabilenik bufío buru obarik legokio aren soin argiari: onangoiik! yant2i au yantzi beur ete dot, zuontzako aspergarri izateko? Aldarrikatze ta guzti autua izan, bíar nire agintzea ta nire bizia itxi ta zuoi guztioi autaketa barririk egiteko arazoa ekarteko? Erroma, berrogei urtetan izan naz zure gudari, eta zori onez izan naz zure indarren buru, eta ogeí la bat seme eblralu dodaz, seme adoretsu, guda-lekuan zaldundu, eta euren aberri zindoaren eskubideen aldeko otseintzan gizonkiro il diranak: dedu-makilaren baí emoidazue, goratzarrez, nire zartzarorako, baña ez agintza-makilarik ludia yaurtzeko: yaunak, ondo artez eta tente euki ta erabili eban agintza-makilea azkenen euki ta erabili eban ak.

MARKA.—Tita, eskatu egizu, bai, ta iritxiko dozu inberadoretzsa,

SAT.—Tirbun arro ta gsíagokeritsu ori, esango ete dozu...

TITA.—Arte artu egizu, Saturnin Errege-seme,

SAT.—Erromarrak, zuzentza-eske nagotzue; Aiton-semeok, atera zuon ezpatak, eta ez egizuez lekaratu Scturnin Erroma'ko inberadore ízan-arte. Andornika, lenago artuko al dozu su-lezarako ontzia, erriaren biotzak niri ostu baño!

LUKI.—Saturnin arro, Tita biotz onekoak zuri egiteko asmo ta gogo izan dauen onaren bide-ísla ori!

TITA.—Nasaitu adi, errege-seme eri; atzera emongo dauskadaz erriaren biotzak, euren erroak itxiazota.

BASEN.—Andornika, zurikeritan enabiltzu, goratzen baño, eta ori egingo dautzut bizi nazan artean. Esker oneko izango natxatzu, zure adiskideekin sendolu ba'dagizu nire taldea; eta sari begiragarri yatzuz eskerrak biotz oneko gizonentzat.

TITA.—Erroma'ko erri, ta emen zarien erri-tirbunok, zuon itzaren eta zuon uuturkien begira nagotzue: Andornika'rl emsngo ele dautsazuez biotz onez?

TIHB.—Andornika onaren ederra egite-arren, eía *a* atzera Erroma'ra onik etorteari txera ona egite-arren, ak nor-gura ontzat urtuko dau erriak.

TITA.—Eskerrik asko tirbunoi: eta au da nire eskakizuna, zera, zuon inberadore izanaren semerik zarrena, Saturnin yauna autu dagizuela; nik uste dodanez, aren on-índarrak, Titan'en argi-brintzak lurra yota legetxe, Erroma yota atzerako bidea arturik, zuzentzea eldu edo zolituko dabe lege erri onetan-etas orrazkero, zuon autaketeu nire gogoaren arauz egin gura ba'dozue, ezarri

(2) Laterazko candidatus itzak euskeraz "zuriztaua, zuriz yantzia" esan gura dau. Erromarren artean, autageiai yantzi zuría iminten yaken, autageiok zeintzuk eta mortzuk ziran edonok erraz ikusi al izateko.

egiezue buresiuna, ta gedarrez esans "Gera gure inberadorea!".

MARKA.—Aiton-seme ta erriko semeck, guk guztiok guztitaiiko itz eta txaloz, Saturnin yauna egiten dogu Erroma'ko inberadore aundi; eta diñogu: "Gora, beti biziko al da gure inberadore Saturnin!". (Turut-otsaldi).

SAT.—Tita Andornika, egun onetan gure aldeko autaketeaz egin dauskuzun on-egiteagaitik, zure irabaziai dagokiezan eskerrak damotzudaz, eta egitez ordainduko dautzut zure eskuzabaltasuna; eta asieratzat, Tita, zuro izena ta zure sendi beyiragama goragotzeko, nire inberadoreno edo inberadore-emazte egingo dot Labine, Erroma'ko andera nagusi, nire biotzaren yabe, eta Panteon gurensan artzen dot emaztotzat: esaidazu, Andornika, begiko ta gogoko ele yatzu asmo au?

TITA.—Bai, begiko ta gogoko yat, ene yaun aintzakogarri: eta ezkontza orretan zure eskuzctbaltasunak goratu ta goratzarretutzat dot nik nire burua: eta emen Erroma'ren aurrean opatzen dautsat Saturnin'eri, gure lege-erriaren errege ta buruzagiari, mundu zabalaren inberadoreari, nire ezpatea, nire burdia, eta nire atxiloak; esku-erakutsiok Erroma'ko inberadore yaunari dagokiozan besleko díra izan be-ta: arlu egizuz, ba; zurí zor dautzudan zerga dira: zure oñetan iminten dodaz opal-apalik nire omenaren ezaugarriok.

SAT.—Eskerrik asko, Títa argi, nire biziaren aita orri! Gogolan eukiko dau Erroma'k zenbat arrotzen naben zure esku-erakutsiok; oto, Erramarrok, zuok be aztu egizuez zuok niri egindako zintzetasun-zinak, nik ortu dodazan esku-erakutsi etsl-gatxotarik txikienu bera be aztu dagidanean.

TITA.—ITAMORE'ri) Inberadorearen atxílo zara orain, andera; zure dedu ta egoitzeari dagokionez zeu ta zure yarrai'.eak begirapenez erabiliko zauezanaren atxilo,

SAT.—Errege-alaba Iirain, bai orixe; autaketea lendik eginda ezpa'nengo, nik autuko neukenaren koloreko zara izan be-tn. Gogargitu zadiz, erregeno lirain; argitu betarte ori: guduaren alanbearrak zure zoria aldatu izan-arren, etzara etorri Erroma'ra emen zuri irri dagitsugun: erregalabari dagokicnez artu ta erabiliko zauguz beti, eta edozetan. Nire itzari intsigi zakioz, eta naibageak ez al dauz benderatuko zure itxaro guztíak: andera, Gotarren Erregeno baño zer andiagorik egin zaikezana dagotzu zu zuzpertzen. Labine, ez ete yatzu gogoaz besterako onako au?

LAB.—Ez, yaun, ez niri; zure benetako zindolasuna dabe baitzat, zurs itzak txerakortasunagiri bcmo eztirala,

SAT.—Sskerrik asko, Labine ezti.-Erromarrok, goazen: ezer ordaintzska, utsean izten dogus azke, euren buruen yabe, gure atxilook: aldarrikatu, yaunak, gure omenak turut eta danborr-otsez. (Eiesizko ondo-etorria, SATURNIN'ek eztalciko-baidcriakoz, igar-gaizka, kutunkeri dagío TAMORE'ri),

BA.SEN.—Tita yaun, eder ba'yatzu, nire da neskato au. (LABINE'ri elduta).

TITA.—Ostera, yaun! benetan diñozu, ala?

BAS.—Bai, Tita zindo; eta zuzentza ori neure eskuz egiteko ta nire eskubideak niganatzeko erabagita nago.

MA.RKA.—Gure Erromar zuzentzeak diñonez, Suum cuigue (bakotxari berea): errege-sema onek berea zuzenez artu baño eztau egiten.

LUKl.—Eta ori egingo dau eta egin bear dau orreit, Lukí bizi ba'dadi.

TITA.—Alde nigandik, azpíyaleok! Nondik nora da inberadorearen zaintzea? Azpíyalekeria dogu emen, yaun..., iniarrez ostu dabe Labinei otoz-otoau goatu dabe!

SAT.—Otoz-oíoan goatu! nok?

BAS.—Ezkontzeko itz emona mundu onetan edonondik zuzenez eroan leikenak.

(BASEN'ek eta MARKA'k alde LABINE'kin)

MUTI.—Lagun zakidaze, anaiok, neskatoa emsndik urrin eroaten, eta neuk yagongo yoat ate au seguru nire ezpateagaz. (LUKI, KINTA, ta MARTI'k alde).

TITA.—Yarrai zakidaz, yaun, ela laster ekarri. ko dot atzera neskatoa,

MUTI.—Ene yaun, etzara igaroko emendik.

T'ITA.—Ostera! zer dok ori, mutil zital? Errotna'n bertan bideak itxi bear ete daustazsk? (Sastakaiaz yoten dau MUTI).

MUTl.—Lagun akik, Luki, lagun akit! (II egiten da).

LUKI aurrera ostera be.

LUKI.—Ene yaun, etzara zuzen; eta ori baño geiago dana, erail egin dozu zure semea hide bagako burrulon.

TITA.—Ez i, ez a, zuok etzarie nire seme; nire semeak enindukien eguño olan laidotuko: azpiyals ori, ekarri egiok atzera Labine inberadoreari.

LUKI.—Ilik bai, gura ba'dozu; baña ez orren emazte izateko, bere maitnsuna besteri legez agindua da -a-ta. (Alde dagi).

SAT.—Ez, Tita, ez; infceradoreak eztau neska. to orren bearrik, ez arenik, ez zurerik, ezta zure senitartekoenik be; bein irri egin daus-

tanagan uste onik izateko lain asli eztat nik; bein be ez zugan, ezta zure seme azpiyalsakan be. ni onan laidotzeko guztiok zagoze alkar arturik, alkarrekin zinkideturik-eta. Ez ete egoan Erroma'n Saturnin'az besterik. aren lepolik irri ta barre egiteKO? Ori ondo, ondo ta erdi, Andornika; zure egiteok, zure yokabide ta yardukera au ondo datorkoz zure arrokeriari, nik inberadoretzea, eskekok legetxe, zuri eskatu dautzudala esatan erabiíi zauzan zure arrokeriari,

TITA.—Au bai ba-dala iñondiko mamuksri! Ze yazarketa, ze oldarkeri dira onakook?

SAT.—Baña yarrai, aurrera yo; zoaz, eta aren alde ezpateari eragin dautsanari emoiozu mutKÍkin *a:* suin adoretsu izango yatzu; gizon egokia zure seme legebakoekin burruka egin eta Erroma'n iskanbillarik asko aterateko.

TITA.—Aizto zorrotz dira zure itzok nire bistz zaurituarentzake,

SAT.—Eta orrazkero, Tamore maíte, Gotarren erregeno ori, Poibe eder-zoragarria bere urneskaen artean gallentzen danez, Erroma'ko anierarik lirainena baño ederr-argitsuago zarean ori, bertatiko nirs autaketa au eder ba'yatzu, ara, nire ernaztegeitzat aututen zaudaz, Tamore, eta Errsma'ko inberadoreno egingo zaudaz, Itz egizu, Gotarren erregeno orrek, onízat artu ta txalotzen ete dozu nire autaketea? Eta emen Erroma'ko yainko guztien aurrean zin egiten dot, ahadea ta ur onetsia orren ur egon, argizaiak orren argi egin, eta Himen edo ezkontzarako edozer gertu dagonazkeio, nik eztautsedala Erroma'ko etxartebideai barriro agurrik egingo, ezta nire yauregira igongo be, leku onetatik nire emaztegeí ezkonduari bidea erakutsi ta bera neukin eroan al izanurte.

TAM.—Eta emen, ortzearen aurrean eta begietan, Erroma'ri zin egiten dautsat, Saturnin' ek goratu ta aurreratu ba'dagi Gotarren Erregenoa, aren gurarien otsein izango dala au, iñude maitabera, ta aren gazietasunaren ama.

SAT.—Erregeno lirain, Panteon'era igon za. diz Andikiok, lagun zakioez zuon inberadore zindoari ta aren emaztegei ederrari, yainkoak Saturnin Errege-semeari ildali ta aren zurtasunak zori txarra zori oneratu dauen emaztegeiari: an beteko dira gure legezko ezkontza-egitekoak. {Alde SAT. eta aren Yarraigokoak; TAMORE ta aren semeak; ARON eta Gotarrak).

TITA.—.Niri eztauste agindu emaztegei oni lagun ízcttekorik. Tita, noz situ Izan dok ilc bakarrlk ibilten, onan laidoturik, eta bidebageak arpegira egotzirik?

MARKA, LUKl, KINTA, eta MARTl aurrera beste bein.

MARKA.—Tita ori, ikusi, bai, ikusi zer egin dokan! seme on-indartsua erun dok fcurruka okerrean,

TITA.—Ez, tirbun tentel, ez," etzoan *a* nire seme, ez i, ezía oneik be, gure sendi osoaren entzute ona egite orretarako alkar arturik laidotu dozuenok; anai ia seme askarri ta aintzakogarri etzarienok!

LUKI.—Baña obiratu dagigun, dagokionez; gure anaiekín batera obiratu egizu Muti.

TITA.—Alde emendik, azpiyaleok! a ezta sartuko ilobi onetan: bosteun urte dira il-oroigallu au zutunik dagola, ta tikain eta txairo barriztau izan dot nik: emen atseden artzen dabenak, aíntzatsu atseden artzen dagozanak, gudariak eta Erroma'ren otseinak bakarrik dira, ez burruka zakarretan eran izan danik: -zeuok non-gura ilobiratu egizue, baña emen ezta sartuko.

MARKA.—Ene yaun, biotz-gogorkeri da ori zure aldetik: nire illoba Muii'ren egiteak da. goz aren alde eske; bere anaiekin batera ilobiratu bear da a.

KINTA ta MARTI.—Eta an iíobiratuko da a, ostantxean aren lagun izango gara gu be.

TITA.—Eta an ilofciratuko dal Nolango zitalek esan dauz itzok?

KINTA.—Emen ez beste edonon itzoi erantzungo leuskienak.

TITA.—Onangorik! nire gogoaz bestera eortziko dok, ala?

MARKA.—Ez, Tita zindo; olangorik ez, eske dagotzu ori azketsi, parkaiu dagizula Muti, ta ilobiratu dagizula,

TITA.—Marka, ik euk be buruan yo nok, eta mutilokín batera nire dedua zauritu dok: nire areriotzat zeuedaz zuok, guztiok eta bakotxa; orrazlcero, ez emon niri buru-austerik, buruko minik geiago; zoaze ortik zear,

MARKA.—Burutilc eginda dago ori; alde dagigun.

KINTA.—Ez nik, Muti'n azurrai lur emon-arts. (Belaunbikatu egiten dira MARKA ta TITA' n semeak).

MARKA.—Anai, eta izan be izen orren izenez dagotzu nire kiotza eske...

KINTA.—Aita, eta izan be izen orren izenez mintzo da nire biotza...

TITA.—Ez egik itzik geiago, ganetiko guztia zori onerako ba'dok.

MARKA.—Tita ospatsu, nirs biotzetik erdla baño geiago...

LUKI.—Aita maite, gure gogo ta dogun oro...

MARKA.—Adibera izan adi, itxi egiok ire anai Marka'ri on-iudarraren abi onetan obiratu dagiala bere illoba zindoa, deduz eta Labine'n auziagaitik il dana; Erromar az i... ez adi izan erbestetar, ez adi izan baaali. Eladetarrak, orretarako onua artuala, obiratu yoen Aiatz, Aiatz fcere burua eran ebana; eta Laertes'en seme zurrak biotz onez eskaiu yoazan ctren aldeko iletak: orrazkero, ire poz izan dan Muti gazteari ez al yakok galazGko ona sartzea.

TITA.—Yagi adi, Marka, yagi adi: au dok nik eguño izan dodan egunik ilunena, neure semeak Erroma'n berton laidotu naben egun auí Tira ba, obiratu egízue, ta urren neu obiratu nagizue. (Obían iminten dabe MUTi).

LUKI.—Or dotzaz ire czurrak. Muíi kutun, ire adiskideekin batera, guduko íre arrokizunez guk ire ilobia apaindu-arte.

GUZTIAK,—(Belaunbikoturik) Iñok eztau ixuri negarrik Muti zindoaren alde; bizirik dago ospaz, on-indarraren alde il dana.

MARKA.—Ene yaun, gogaldi ilun onetatik alde egiteko, zelan yazo ete da Gotcinen Eriegeno zurra onen bapatean Erroma'n yagi ta aurreratu izatea?

TITA.—Etxakiat, Marka; ori yazo dala dok nik dakidana; aurrezlik erabagia izan danentz Zeruak bakarrik yakik eta esan lleik; baña orren urrinetik orren gora igoieko ekarri izan dauen gizonarí ez ete yautsak ezer zor?

MARKA.—Bai, eta esku zabalez sarituko yok.

(Turut-ots alcri. Aurrera, alde batetik, SATURNIN lagunduta; TAMORE, DIMITIR, KIRON, eta ARON; bestetik, BASEN, LABINE, ta beste batzuk).

SAT.—Olan, Basen, ik yokatu ta irabazi dok ire saria: Yaungoikoak zori ontsu egingo al au ire emazto lerdenakin!

BAS.—Bai eu be ireakin, ene yaun! enoa geiagorik esaten, baña eztnuskat gitxiagorik be opa; eta agur, orrazkero.

SAT.—Azpiyala, etoi ori, Erroma'k legerik, naiz guk indarrik izatekotan, iri ta ire taldekoai damutuko yatzue nesku lupurreta au.

BAS.—Neska-lapurretatzat dozu, ene yaun, nik nire dana artzea, nikin ezkontzeko itz emona dan nire maitea, eta orain nire emazte dana artzea, ala? Baña Erroma'ko legeak ebatzi dugiela zer guzti au; bitartean neuk daukat nire dana,

SAT.—Ori endo, ori onds, yauri; labur eta zirti-zarta abiiku; baña bizi ba'gozak i bestean zorrotz izango gozak igazko.

BAS.—Sne yaun, al dodanik ondosn eran- Izun bear dautsat nik eginari, eta nire biziaz erantzungo dautsat. Zer bat bakarrik iragarri bear dautzut zuri, Nagusi orri, Erroma'rl zor dautsadazan egikizun guztiakaitik, zera, laidoíua ízun dala aren entzute ta agazko uste-arloan emen dan Tita yauu gizon zindoa; zuganako zintzotasunak eraginda, Labine atzera bere benderatzean, bere eskuz erail dauela bere semerik gazteena, berak esku zabalez emon gura izan dauena ernoten galazo gura izan dautsalako, asarre biziak eraginda; onezkoak egin eta *a* zura adiskidetzat artu egizu, ba, Saturnín; bere egite guztietau zure ta Erroma'ren aitatzat ageriu dan gizon a,

TITA.—Basen Erreçje-seme, ez egizuz atera nire egiteak ezeren eslte: zu ta aik zarie ni laidotu nozuenak. Erroma ta yaínko zuzenak lekuko ta autorla nik noragiño ta zenbat maite ta aintzakotzat dodan Saturnin!

TAM.—Ene yaun uintzakogarri, zure errege-begietan eguño Tamors eder izan ba'yatzu, itxi sgidazu aldekeri bagarík guztien izenez itz egiten; eta nire esktiriz, kutun orrek, azkatsi, parkaiu egizu yazorik dana.

SAT.—Olangorik, andera! agirian laidotua izau, eta apal-apalik yasan fcear ete doL orderik ernoteka, ala?

TAM.—Ez, ori ez, ene yaun; Erroraa'ko yainkoak ez «1 dauste itxiko ni zu iaidotzeko tide izaterik! baña nire omena yokatzeraño azcirtzen naz esaten edozet'jn erruga dala Tita yaun ona; aren asarre argi ta garbiak ondo diragar aren naibagea-ta: orrazkero, nire eskariz betargiz bsgiralu egizu gizon ori; ez egizu galdu adiskide orren zindorik susmo utsegaitik, ezta begirakune zorrotz eta asarrez aren bíotz zindoa mindu be. Ene yaun, zu neuk eratilten itxi egidazu, erabiiten eta bai rozbaiten irabazten be: (Eurak euretara itz dagie) zure irain eta gogoaz besterakoen ez-ikusiarena egizu: landatu-faarri baño etzara zure agintza-aulkian; olangorik zuk ez egitekotan, erriak eta bai aiton-semeak be, zerak artez begiraturik, Tita'ren aldea artu ta zu eskertxarrekokeriagaitik kendu ta besteren bat zure au'kian imini eztagien, Eta izan be, oben iguingarritzat esten dau Erroma'k eskertxarrekokeria. Eskariei zure burua makurtu ta men egiezu; eta gero nire eskuetan itxi arazoa: n-euk idoroko dot orrein guztion triskantzea egite-

ko eguna; euren talde ta sendia, aita biotzgogorra ta aren seme azpiyaleak neuk lurreratu ta ezereztuko dodaz, nire seme maitearen biziaren alde neuk egin neuntsen arren eta arren-eta: eta neuk erakutsiko dautset zer dan erregenori etxartebideetan belaunbikatzen itxi ta erruki-eske alperrik ibilten iztea. Tira, tira, inberadore ezti. Tiia, Andornika... Saturnin, eragi egizu agure en uu eta nasaitu egizu, ziire begirakune zorrotzezko ekatxak il-aginik dauen biotza.

SAT.—Yagi, Tita, yagi; irabazi daust nire ínberadorenoak, bereaz urten da.

TITA.—Eskerrik asko zuri, nagusien orri, eta bai no orri be, ene yaun: bizi barria damoste itzok eta begirakuneok.

TAM.—Tita, Erroma'ren soñeratu naz ni orain. Oraindik ara Erroma'k bere alabatzat artua nezu zori onez, eta inberadareari bere snerako onurik emen bear dautsat. Asarre guztiak ilten dira gaur, Andornika; eta, ene yaun on, nire omenaren alderako bedi zure ta zure adískideen artean onezkoak nik egin izana. Zugazko, Basen errsge-seme, nik nire itza ta agindua emon dautsadaz inberadoreari oindik ara otzanago ta eskuiakonago izango zareala., Eta ez izan bildurrik, yaunak; eta zuk, Labine... nire onuz, zuok guztiok, iurrean apal-apal belaunbikaturik, azketsa, parkapena eskatu bear dautsazue Nagusienari.

LUKl,—Orrako arren eske gara; eta yainkoak eta ovren nagusitzea bediz lekuko ta autorla guk egin izan doguna til izan dogun eta neurrizenez egin izan dogu'a, gure arrebearen omena ta geurea begitan doguzala.

MARKA.—Beste orrenbeste dautort emen, nire omena-arrsn.

SAT.—Ken ortik, alde, itzik asko dogu; ezkagizak aspertu geiago.

TAM.—Ez, ez, inberadore, adiskide izan beor dogu guztiok: erruki-eske dagotzuz Tirbuna ta bere illobak belaunbiko; eztaustazu ukatuko, biotzeko orrek; begiratu egizuz, arpegia emonda.

SAT.—Marka, igaitik eta emen dagon ire anaieagaitik eta nire Tamore maitearen eskariakaitik azkesten, parkatzen yoadaz gazteon uts iguingarriak: zutundu zadize. Labine, eskeko bu'n'mtz legel.ie zuk ni bertan-bera itxi izan-urren, idoro dot nik adiskiderik; eta eriotzea seguru dan bestean seguru agindu dautsat enazala mutilzar geldituko iñon abaderik izatekotan. Erdu, inberadorearen yauregiak ezkondu biren eztegurik egin al ba'dau, nire arrotz izango zarie, Labine, zu ta zure adiskideak. Sekulako izango da egun au, Tamore.

TITA.—Zure nagusitzeari eder ba'yako panter etu basauntzetan eizean egitea, adar eta eiza-txakurren otsez emongo dautsagu bonjour (egun-on) biar zure nagusitzearí.

SAT.—Olan bedi, Tita, baita zuri eskerrik asko be. (Alde dagíe).

II EK TÁLDI

I AGERLEKU.--ERROMA. nberadore-yauregi-aurrea,

ARON aurrera,

ARON.—Orain digo Tamore Olinpu mendi-ga-Hurrera, zori txarraren zartada bugarik; eta an goiko tontorrean yezarten da ostotsen tarratada ta yusturien argi-bolada bagarik, seguru; txibizkeri zurbilaren zemaiak eltzen diran baño gorago. Urrezko eguzkiak goxari txera egin, eta bein bere argi-brintzakaz itsasoa urreztaurik, bere burdi dizdiratsuan zodiako-bidea uriñelcetan egin, eta kirika agiri dan mendi-tontorrik yagiena goítik bera begiratzen dauenez, olangoxe yatzu Tamore: tere otseintzan dauz munduko omen guztiak, eta on-indarra dardaraka ta burumakur dago aren betozkoaren aurrean. Orrazkero, Aron, iskilloz ornidu egik ire biotza, eta egokitu egizak ire gogapenak, ire inberadore-ugazabandreakin batera gora igoteko, aren mendi-gallur berera igoteko. Luzaro erocsn dok ik a gurendaz ire atxilo, maitasunezko lokarriz estuta, eta Aron'en begi lilurakorrai Prometeu Kaukas'eri baño estuago estuta. Alde ortik zear yopu-soñeko zirtzilok, eta yopu-gogaketok! Argi ta txairo izango naz, ela pitxi ta urretan argi egingo dot, inberadoreno eginbarri onen otsein izateko. Otsein izateko esan dot? Atseginaren atseginez ok egingo dot erregeno onegaz, yainkono onegaz, Semiramis onegaz, ur-neska onegaz, siren onegaz, Erroma'ren Saturnin liluraturik dauenagaz, eta onako onen eta lege-erri guztiaren ondamendia ikusiko dot.-Ostera! ze ekaitz dogu au?

DIMITIR #ta KIRON aurrera, ollarkerietan,

DIM.—Kiron, senlzun-bearrik ba-yoek ire urteak; ertz edo erbalzik eta era-mera onik bear yok ire sentzunak ni begi onez nakusen lekura i sartzeko; eta ik dcskikan guztiak be etxok egingo arako biderik,

KIRON.—Bimitir, edozetan az i ustetsuegi; eta orrazkero, bai zer onetan be, ire gangarkeriz ni benderatu gura izateko. Urte baten, naiz biren aldeak enaiok egiten ni gitxiago atsegingarri, eta ez i be zori ontsuago: i beslean gei ^ta egoki nok ni nire maitearen otsein izateko ta aren biotza irabazteko; eta nire ezpateak erakutsiko dausk onako au, eta bai Labine'n maitasunerako nire irrits eta leiak yagon be.

ARON.—(Bere kitean) Makilak, makilak! ezin egon izango dira bakstan maitaleok.

DIM.—Onangorik, mutil! gure amak, buru gitxigaz, ire aldamenerako yantzari-sastakaia emon ba'dauska be. orren etsirik ete ago ire adiskideak zemaitzeko? Tiruk, bere lekaratu egik ire burdin zar ori, ta uiez erantsi egiok ari, obeto erabilten ikasi dagikanarte.

KIRON.—Arartean, yaun, nik dodan terbetasun apurragaz ondo baño obeto oartuko az nik noragiñoko adorea dodan.

DIM.—Ufa, mutil, orren adoretsu ete augu, ba? (Ezpatak ateraten dabez).

ARON.—(Aurreratu-ala) Ostera! zer da ori, yaunak! Inberadorearen yauregitik orren ur ezpatak ateraten zabi'tze eta agiri agirian olango burrukea daratiltzue? Ondoegi yakiat nik nondik datorien asane guzti cu; milloe bat urre-txanponegaitik be eneunke gurako onen zegaitia yakitea dagokienak olangorik yakiterik; ezta zuon ama zindoak be eleuke guiako Enoma'ko errege-yaureglan orrenbesteraño laidotua izaterik. Lo. tsea-arren, lekaratu egizuez ezpatok.

DIM.—Ez nik, nire ezpatea orren bularrean lekaratu ta emen nire laidogarritzat esan dauzan itz iraintsuak eztarria bera orri iruntsiazo-arte.

KIRON.—Gertu ta erabagirik baño gertuago ta erabagiago naiagok ni orretarako, dollor eta ago-zikin ori, ire miñez ostotsak ateraten dozakan ori, cta ire iskilloz ezer egiteko adorerik eztokan ori.

ARON.—Banandu, gero! Aiko, Gotar gudazaleak gurtzen dabezan yainkoak-arren, gu guztiona egingo yok zuon asarre zaratatsu zirtzil onek. Ba, yaunak, ez ete dakizue galdu-gordetsu be galdu-gordetsu dala erregessmearen eskubideai arrika ibiltea? Labine orren nasai ela lotsabako, naiz Basen orren endekatu, orren kikil egin ete dok, ba, zuoi bideak ebatekorik, zuzentzarik, eta zuoí ordea emotekorik ezpa'lego legetxe no orreganako maitasunagaitik zuok glango eztabaida zaratatsurik agírian axatzeko? Yaun gazteok, arduraz be arduraz ibili, gero! eta inberadorenoak ba'leki asarre onen oñarria ta zegaitia, zuon eresi ori elitzakio bape gogoko izango,

KIRON.—Bost ardura daust onako au ak, naiz mundu guztiak be yakitsak: mundu guztia baño maiteago dot nik Labine.

DIM.—Umekondo ori, ori baño autaketa zirtzilagorik egiten ikasi egik: ire anai zarragoaren itxaroa dok neskato ori.

ARON.—Ostera! burutik eginda zagoze, ala? Ala, eztakizue Erromarrak oldarbera ta artega baño oldarberago ta artegago dirala, eta maitasun-ailoan leiakiierik ezetara be ezin yasan dabela? Neuk dirautzuet, yaunak, zuon asmo orregaz zuon eriotzarako bidea baño eztozuela asmatzen.

KIRON.—Aron, milla eriotza artuko nsunksz nik maite dodana lortze-arren,

ARON.—No a lortze-arren!... zelan lortzeko?

DIM.—Zer dala-ta iruditzen yatzu orrako ori orren iñondiko? Emakume da no a, eta orrazkero, yoan ledike agana maitasun-billa; emakume da a, eta orrazkero irabazi ledike a; Labine da a, eta orrazkero, maite izan bear da. Ba, gizon! errotariak dakian baño ur geiago doa labanka aren errotea-bera; eta zer erraza *áa* ogi asitik zerrenda bat ostutea, guk ba-dakigunez: inberadorearen anai izan-arren Basen, ak baño obak eroan izan dau Bulkan'en ezaugarria,

ARON.—(Bere kitean) Bai, eta Saturnin'ek bestean ona,

DIM.—Orrazkero, zegaitik gelditu bear dau etsita kutunketa-lana itzez, begirakune samurrez. eta eskuzabaltasunez egiten dakianek? Ba! eztozu sarritan il oreina ta yagolearen begi ta musturraren aurre-aurrean oker bagarik etxera eroan, ala?

ARON.—Ba, orrazkero, ba-dirudi gogoko litzakizuela auzokoaren barrutian lapurretatsoren bat egitea,

KIRON.—Bai, oorixe.

DIM.—Egin-eginean igarri dozu, Aron.

ARON.—Zeuok be igarri al dozue! ezintzazen nekatu izango iskanbilla onegaz. Entzun, ba, entzun, eta orren zoro zarie orrako orregaitik alkarrekin asarratzeko? Minik egingo ete leuskitzue zuok biok zori ontsu izateak?

KIRON.—Ez niri beintzat; ez orixe.

DIM.—Ezta niri be, erabagita nago-ta.

ARON.—Lotsea-arren, adiskide izan zadize, zuon asarre-bide danagaitik batu zadize; maltzurkeriz, lukikeriz eta asmoz eldu bear dozue zuon elburura; eta erabcgita egon bear dozue zuok gura zeunlden bidez iritxi ezin dozuena, al dozuen bidez lortzeko. Nire onu au artu... Lukertze etzoan izan Basen'en maite dan Labine au baño garbiago. Geldokeriok baño bide laburrago ta arinago egitekoren bat artu bear yoagu, eta idoro yoat bide ori, bidezidor ori. Ene yaunok, ots andiko eizaketea dok laster be laster egiteko; an izango dok Erromar emakume lirainezko mordo langa mordoa; zabal eta nasa! dozak basa-bideak: eta an arlo asko ta andiak yagozak ara iñor eltzen eztiranak, eta emakumek indarrez ostu ta eroan eta edozein dollorkeri egiteko eurenez egoki diranak; orrazkero, an bakandu egizue orein eme pitxi ori, eta itzez eta onez ezin benderatu ba'dagizue, indarrez benderatu egizue: edo bide au, edo besterik ez dok zuon itxaroa. Erdu, erdu, gure asmoaren yakitun egin bear yoagu bere zurtasun guziia dollorkeri ta ordea emoteari opaturik dauen gure infceradorenoa; eta bere onuz ak iminiko yozak gure lankiak, gure aakinak errezkadan, urrengorik urrengo; ez. tautzue itxiko alkarrekin burrukarik egiten, eta biok eroango zauez zuon gurarien elburura. Ospearen etxe langoxe dok inberadoren yauregia, miñez, begiz eta belarriz beterik dagon yauregia: basoci, ostera, errukibako, itzal, gor, eta motel; an itz egin eta an yo, mutil adoretsuok, eta an atera zuon eretiari al dozuen koipe guztia; *an* bete, an asetu zuon irritsa, zuon lizunkeria, zetuaren begietatik itzalpeturik, eta Labine'n altxorraz poztu ta gozatu.

KIRON.—Ire onuak, mutjl, etxok bildurtl-sundarik.

DIM.—Sit fas aut neías (zillegi izan, naiz izan ez),bero au ozkirritzeko lat3 edo errekatxuen bat, beroaldiok bigundu ta baretzeko liluraen bat idoro-arteño, per Stygia, per manes vehor, (Alde dagie).

II AGERLEKU.-ERROMA'tik urreko baso edo oian; Etxetxo bal agiri da «rrinean. Adarotsak eta tvakurr-ausiak entzuten dira.

TITA ANDORNIKA Eiztariekin eta abar aurrera. Bai MARKA, LUKI, KINTA, eta MARTI be.

TITA.—Asi da eizaketea, argi ta arrai da goxaldea, lurrun gozoa darioela dagoz zelai ta barrutiak, eta orlegi, berde dagoz basoak. Emen azkatu dagiguzan txakurrak, aiazo dagiguzan txakurrok, inberadorea ta aren emazte lerdena iratzarteko ta errege-semeari oea itxiazoteko; eta adarr-ots langa adarr-otsa atera dagigun, gure zarateari yauregi osoak erantzun dagion. Semeok, zuon egikizuna, gurea dan legetxe, inberadoreari arduraz otseintzea bedi; artega ibili izan naz bart amesetan, baña egun argibarriak nasaitasun barria ekarri daust,

Adar-ots aldikada. SATURNIN, TAMORE, BASEN, LABINE, DIMITIR, KIRON, eta Laguntzakoak aurrera.

Egun onak, eta ostera be egun onak zure nagusitza orri: Andera, zuri be beste ainbeste egun eta ain on: eiztari adarr-otsa agindu neuntzun zuri, txeratsu orri.

SAT.—Eta hiziro yo be egin dozu, ene yaun; goizegitxo emakume ezkonbarrientzat.

BAS.—Zer deretxatzu, Labine?

LAB.—Nitzako eztala izan goxegi: ordubete *la* luzaroago izan da ni ondo atzarrik egon nazala.

SAT.—Tira, ba, artu dagiguzan zaldi la burdiak, eta goazen gure yolasera. (TAMORE'ri) Andera, orain ikusiko dozu gure Erromar eizea.

MARKA.—Ene yaun, ba-dodaz nik txakurrak, eizean panterik arroena eragi ta mendi-ga-Uurrik gorengora igongo diranak.

TITA.—Eta nik dodan zaldiak urratuko dau bidea eizea doan lekura, eta elaiak zelalan lez arin egingo dau.

DIM.—Kiron, guk eztogu egingo eizaketarik, ez guk zaldi ta txakurrez, baña orroitiño be ba-dogu itxarorik orein eme bakan eta on onik lurreratu ta eskuratzeko. (Alde dagíe),

III AGEHLEKU.-Baso edo oianeko bakar-arlo.

ARON aurrera urre-zorroagaz.

ARON.—Zurtasunik dauenak nik bape, arean be eztodala usts izango leuke, zugazpean onenbeste urre lurperatu ta gero ortik deusik be ez artzeko iñoz be. Nitzaz orren uste txatxar eta zirtzilik dauenak marroaiena

egin bear dauela urre onek yakín begi, eta marro orrek, zurkiro erabiliazkero. dollorkori-zati bikainik izango dauela umatzat: eta, orrazkero, urre orrek, atseclen artu egik emen, euren ukarrak Inberadorenoaren kuixalik artzen dabezanen artegatasunerake, (Ostcndu egíten dau urrea).

TAMORE aurrera.

TAM.—Ene Aron kutun, zegaitik zagoz gotilun eta motz, zure inguruan edozer betargi la pozik dagolarik? Txoriak txaraka bakotxetik guztitariko doñu eresitsuz abesten eta txorrotxioka daragoioe; kirimilduta datza sugea eguzkl gozotan,- orri orlegiberdeak dardaraka dagoz axe ozkirritan, eta Itzal geldigorrak egiten dabez lurrean! yezarri gadizan, Aron, euren itzalpe gozo-eztitan, etn erantzun edo oiartzun birresala zoroak, ondo doñuratuko adarr-otsai latz-latz erantzunez, eizaketa Li batera ba'litzaz lez, ai irri egiten dautsen bitartean, yezarri gadizan, eta oar gakiozan euren ausi asarTeen otsari; cta„. arako, diñoenez, eztabaida-ostean errege-seme aldarraiak eta Dido'k beñola, ekatx zori ontsuk otoz-otoan biak goatu, eta ixilkizuna gordeteko errezeltzat artzuloa ebelarik, alkar gozatu eben legetxe, guk be, alkarren besartean batubatu ta kirimildurik, gure olgetak bein egindakoan, urrezko lo-alditxo bat egin gengike; txakurr-ausiak eta adarr-otsak eta txori eresitsu eztiak gutzako arako sentzainaren "Ubabatxoa, lo, lo" seinari lo arrazoteko lez diran bitartean.

ARON.—Andera, Benuts ba'da zure gurarien yabe ta eragilla, Saturnin da nireen yaun eta yabe; zer diragarre nire begi geldi-yosiak, zer nire ixiltasun eta mukerkeri odeitsuak, osapide bagako okerrerien bat egiteko-edo sugegorriak bere kirimilak arteztuten dauzanean lez nire adats uletsuko kiririlak arteztuteak? Ez, andera, lorratzok eztira lizunkeri-ezaugarririk, ordea emolea, azazkatzea dago nire iiotzean, eriotzea ni*xe* eskuan, odola ta asperkundea dabilkidaz buruan ate-yoka. Sorotzl, entzun, Tamore..., zugan atseden artzeaz besteren itxaro-ik ezlauen nire biotzeko Inberadoreno ori, --egun au da Basen'entzat azken-epai eguna: gaur galdu bear dau aren urretxindorrak bere miña; aren neska-garbitasuna ostuten daragoioe zure semeak, orretan eta euren eskuak Basen'en odoletan ikuzten. Ikusten dozu idazki au? Artuizu, arren, eta emoíozu erregeri eriolza-asmodun ingi birí-bildu ori... Ez egídazu geiagorík itandu..., kirika dagokuz; emen dator ditxarogunez gure arrapagallu izango danaren zati bat, eta oraindik eztabs euren bizien ondamendiaren bildurrik.

TAM.—Sne! ene Mairu kutun ori, bizia bera baño kutunago zatxatazan ori!

ARON.—Bego, geiagorik ez, inberadoreno aundi, ba-dator Basen: muker egin zakioz; eta zure semeen billa yoango naz, zure alaketak diranak dirala, aik zure alde yarri dadizan. (Alde dagi).

BASEN eta LABINE aurrera ostera be.

BAS.—Nor dogu emen[1] Erroma'ko inberadoreno nausi-nausi bere laguntza argia bagarik? Ala Dine ete da, aren soñekoz yantzita, bere zugazti gurenak itxita baso onetan eizaketa aundi au ikusten etorririk?

TAM.—Ixileko gure ibileretan sartu bear dozun lotsngaldu ori! or diñoenez Dine'k ebala lango alik ba'neu, adarrak landatuko neunskizuz zure lokietan, Aktaion'eri yazo yakonez, eta eiza-txakurrak lioakizuz zure zango-beso alda-barrien yarrai, iñonean mustur-sartaHa sakar-lotsabako zarean orri!

LAB.—Arte artu egizu, inberadoreno lirain; adarrak ezarten trebe zareala uste dabe or; eta susmorik izateko da zu ta zure Mairua zure terbetasun ori zelango dan ikusteko zagozela besteakandik bananduta: Yupiter'ek yagongo al dau gaur zure senarra eiza-txakurretatik! errukarri litzatske txakurrak *a* oreintzat artzea.

BAS.—Sinistu egidazu, erregeno, zure Kimeritar Baltzak zure omena bere soñaren koloreko egiten dau, orbantsu, iguingarri ta askarri. Zegaitik zagoz zure yarraigo guztiagandik bananduta, zure zaldi on edurra baxen zuritik yatsita, ta zegaitik etorri zara aldarrai baso-arlo ilun onetara, Baltz basatia lagun dozula, irrits zantarrek ekarri ezpa'zauz?

LAB.—Eta zuon yolasa guk etenik, biderik asko dozu zuk nire yaun zindoari asarre egiteko, au lotsagaldu dala-ta. Goazen emendik, arren, eta atsegin artu dagiala orrek bela-margoko bere kutunakin; ezin obea da ibar-troka au asmo orretarako,

BAS.—Yakingo dau onako au nire anai erregek,

LAB.—Bai, lendik be bakarketok usaina arrazo dautsoe ari: erregeren on, orrenbesteraño laidoturik izateko!

TAM.—Zegaitik dol nik onako guzti au yasateko beste epe?

DIMITIR eta KIRON aurrera.

DIM.—Kaxo, erregeno maite, to gure ama maitagarri ori! Zegaitik dago zure nagusi-*Iza orí* srren zurbil eta laru?

TAM.—Zurbil egoteko biderik eztodala usle dozue, ala? Oneik biok ekarri nabe ona, leku onetara... dakusazuenez, mendi-tarte elkor iguingarri onetara; udea izan-arren, emen zugatzak etsi ta makur dira, oroliiz eta usturi kaltegarriz bete-beteak: iñoz ezta sartzen ona eguzkirik; emen ezta azten ezer, gau-mozollo ta zori txarra iragarten dauen beleaz besterik: eta troka edo sakosta askarri au erakutsi daustenean escm dctuste emen gau berandu ixilean berein txerren, berein suge arnas-oslari, amar milla kunkun sabel-arro, beste ainbeste kirikiño latzek zarata ain bildurgarri ta nastuak egingo dabezakt-ta. edozein ilkorvsn soñek olangorik entzutekcan, bertatik gelriituko dala burutik eginda, naiz bertatik i'.ilc zerraldo yausiko dala. T:;erren-ipuin au eralgi erto esan-ala, bertatik esan dauste agin ilunen baten aldorrari lotuko nautsoela emen, eta onango eriotza errokarria izateko emsn itxiko nabela: eta gers azkontzausla txarrizikin deitu nabe, Goíar lizun, eta orrako orretzaz eguño belarrik entzun izan dauzan itzik mingarrienak: eta zuok zori on arrigarriz etorri ezpa'zintzaze, azazkotze au egingo Ieuskiden. Orrako orren ordea emon egiezue zuok, zuon amaren bizia maite dozuen neurriz, ostantxean oraindik ara atzagiezala iñok deitu nire seme,

DIM.—Au dozu zure seme nazalaren autortzatzat. (Ezpatea sarizen dautso BASEN'eri).

KIRON.—Eta an nire aldetik, eta barru-barrura sarturik, nire indarra erakusteko, (Onek be ezpatakadea damotso BASEN'erí, ta il egiten da aui,

LAB.—Bai, tira, Semiramis..., ez, Tamore basati, zure izctteari orrez bsste izenik eztagoko-ta!

TAM.—Ekak ire ezpatea; ikusikozue, ene semeok. Zuon amaren eskuek zuzenduko yozak berarl egindako okerr-irainak,

DIM.—Geldi, andera, no orregazko beste azazkatzerik be ba-dogu-ta; lenen, yo dagigun garia, gero erreko dogu lastoa, galtzua: *xaa*-galpeko au bere neska-garbitasunari, bere ezkontza-itzari, bere zintzotasunari sendo deutsala dago, eta utsaren urrengo dan itxaro orretan eupada dagio zure alari: eta ilobira eroan bear ete dau orrako ori?

KIRON.—Orrek olangorik egitekotan, irenduko al nabe. Talarrez eroan dagigun emendik orren senarra or orrenbateko zulo ezezagunen batera, eta gure lizunksriaren burupeko izan dadilla orren gorpua.

TAM.—Baña bein zuok gura *aña* ezU yandakoan, ez al da geldituko bizirik erlamiño ori, guri bitzuoi bere eztena sartu eztagiskun.

KIRON.—Olantxe egin be egingo dogu, andera; bai orixe. Erdu, neskato, indarrez artuko o'ogu orain atsegin zuk ain *aidmaz* yagon izan dozun zure lotsortasunaz.

LAB.—Tamore ori! emakume zara arpegiz...

TAM.—Eztot nik no orri entzuteko gogaldirik: ken ori emendik!

LAB.—Yaun maitagarriok, itz bat bakarrik entzun dagislala eskatu egiozus.

DIM.—Sorotzi egiozu, entzun egiozu, andera: zure pitxitvat etsi egizu orren negarrak ikustea; baña zure biotza euri tantanentzako suarri gogorra langoxe bedi orren negarrentzat.

LAB.—NQZ izan dira katamotzaren umeak euren amearen irakasla? Ene! ez egizue ikasi zuon amearen asnrre gorririk... ori berorj da zuoi irakatsi dautzuena; atxurdindu egin da orri edoski zeuntsoen esnea; zure erro edo titian bertan be gogorkeria zeunkan zuk... Orraitiño be ama guztiak eztabez egiten eurak krngo semeak (KIRON'i) emakume-errukia erakutsi dagiala eskatu egiozu.

KIRON.—Ba! nik sasikumerena egitea gura dozu, ala?

LAB.—Egia da, beleak eztau izaten umetzat larratxovirik: orraitiño be, entzunik dot... Ene! bururatuko al litzakit orain!... leoiak, errukiak yota, bere errege-erpa guztiak moztuten itxi eutsen: batzuk diñoenez, belak gizakien ume bertanbera itxiai yaten emoten ei dautse, bitartean euren egazti-kumek euren abian goseak ilik dagozalarik. Ene! zure biotz gogorrak ezetz esan-arren, orren txerakor ezpa'dadi be, erruki-iskirik erakutsi egidazu!

TAM.—Eztakit orrek zer esan gura dauen: ken egizue ori emendik!

I.AB.—Itxi egidazu, arren, zuri irakasten'erraz eta ondo eran zengikezanean bizirik itsi zinduzan nire aita-arren, etzadiz izan gogor, idigi egizuz zure belarri gorrak,

TAM.—Zuk zeuk eguño iraindu ta okerrik egin ezpa'zeunst be, *a* beragaitik nozu ni erruki bagako. Gogoratu, mutilek, nik alperrik ixuri nebazan negarrak, zuon anaiea opatu izatetik yareiteko: baña Andomika odolzaleak ez eban beratu gura izan; orrazkero, ken ori emendik, eta zuok gurs dozuena egin

erregaz; ori txarto erabiliago, nilzaks maiteago izango zarie.

LAB.—Tamore ori, erregeno txerakor deiiu zagizen bideratu zadiz, ela zeurs eskuz eran nagizu emen berton! bizia ezta nik onen luzaro eskatu izan dodana-ta; Basen il zcsnean erail ninduen errukarri au.

TAM.—Zeren eske zagoz, orrazkero? Baketan itxi i.agizu, emakume ergel orrek,

LAB.—Oraintxe iltearen eske nagotzu ni; eta beste zortxo baten eske be bai, emakurnetasunak nire miñari esaten galazoten dautsanaren eskes ene! yagon nagizu iltea baño txarrago dan orrein lizunkeritik, ela bultzaka egotzi nagizu zulo zikinen batera, an nire soña gizonen begik iñoz be ikusi al eztagian; egidazu, arren, onako au, e!a eraila errukior izan zadiz,

TAM.—Olangorik egitekotan, zor yaken saria ostuko neunskie nire seme kutunai: ez, zugan agortu dagiela euren irritsa tó lizunkeria.

DIM.—Alde! luzaroegi euki gozuz emen-eta.

LAB.—Eztago esksrrik? Ezlago errukirik? Eztago emakumetasunik? Uí! aberezko izaki ori! gu guztion izenaren orban eta arerio ori! nastea etorriko al da...

KIRON.—Bai? Ba, orrazkero. ítxi egingo dautzut agoa: ik eroan egik orren senarra: au dok Aron'ek au non ostondu bear gendun esan euskun zadorra. (Zadorrera egozten dau DIMITIR'ek BASEN'en gorpua; gero alde dagi KIRON'ekin batera, bien artean LABINE tatarrez daroela).

TAM.—Agur, eta onik ibili, ene semeok: toki segurura eroan, gero...: ez al dau nire biotzak pozik eta atsedenik izango Andornikatar guztiena egin-arteño. Alde egin bear dot orain emendik nire Baltz kutunaren billa, eta nire semeak muzkildu, mutxikindu, izorr-izortu dagiela zirrilda ou, emagaldu au. (Alde dagi).

ARON aurrera beste bein. KINTA ta MARTI'kin.

ARON.—Aurrera, yaunak, aurrera zuon oin obea (3); bertatik eroango zauedaz pantera bat lo-zorroan ikusi izan dodan zulo iguingarrira.

KINTA.—Etxakiat zer dan etorteko, baña nire begiak lausoturik yagozak.

MARTI.—Bai nireak be; bai orixe: lotsa ezpa' nintzok, gogoz itxiko neunke yolas au, apur baten lo egiteko, (Zador edo zulora yausten da).

KINTA.—Ostera! yausi egin çsz, ala? Ze zulo maltzur dok cu bere ago edo atakea sasi to sastraka guriz beterik euki, eta asucsrren orriak goxeko iñontzez estalitako lorak legetxe odol irur-barriz zipriztinduta dauzan au? Leku bildurgarri ta itzal dirudit. Itz egik, anai, minik artu ete dok yauskeran?

MARTI.—Anai ori, anai orl, begiz ikusik eguña biotzari negar eragin izan dautsan zerik ilunen eta negargarrienak min arrazo yaustak!

ARON.—(Bere kitean) Erregeren billa yoango naz orain, ak oneik emen idoro dagizan, *ák* egi-antzeko susmo izan dagian, oneik izan dirala aren anaiearena egin izan dabenak. (Alde dagi).

MARTI.—Zegaitik enok nasaitzen, eta zulo askarri ta odoldu onetatik urteteko lagun sgiten?

KINTA.—Iñondiko bildurra sartu yatak otozotoan; izerdi otza yabilkidak nire azurgiltza dardarakorrak zear; nire begiak ikusi al daben baño susmo txarragorik ba-yoat biotzean.

MARTI.—Ik benetako igarlaren biotza dokala erakusteko, Aron'ek eta ik begiratu egizue leza au, eta ikusi odol eta eriotzazko ikuskizun ikaragarri au.

KINTA.—Alde egin yok Aron'ek; «la nire biotz errukibereak etxautsek itxiko nire begiai susmoak berak ikaratzen dauen zerik bein be begiratzen: esaidak, arren, zer dan; eta izan be, eguño enok izan ni umerik zer dan eztakidanaren bildurrik izateko.

MARTI.—Basen yauna yagok emen moltsotuta, dana piloan, artxo ila legetxe, leza iguingarri, ilun eta odolez ase-mozkortu onetan.

KINTA.—Ilun ba'dok, zelan dakik *a* dala?

MA.RTI.—Leza osoa crgitzen dauen erestun eder-bikaina yaroak bere atz odolduan, eta ak, ilobiko argizaiak lez, argi egiten yautsek gizon ilaren lurrezko mosuai, eta lezearen errai latzak erakusten yozak: oiantxe zurbil argi egiten yoan iretargiak Pirama'ren soin-ganera, *a* gabaz bere odol garbitan murgildurik etzan bitartean. Anai ori, lagun akit ire esku larri-ikaratuaz, bilduirrak larritu ba'au, ni larritu nauenez, atera nagik ontzi nazkagarri ta irunskor onetatik, Kokito'ren ago lausotua bestean gorrotagarri dan ontzi onetatik (4).

(3) Eskoako oñari ereisten yako "oin obea", eskoako eskuari, "esku obea" lez. Orraitiño be, ezkertientzako zer au bestera da. Bakotxak bere opilari su dagio.

(4) Erromar eta Eladetarren siniskeriz, be-

KINTA.—Ekak ire egkua, orlik urteten lagun izan nakikan; edo-ta, iri orrenbesieko onik egiteko lain indar ez izatekotan, neu tatarrez eroan nagikan leza sakon onen sabe! irunskorrera, Basen errukarriaren ilobira, Nik etxoat indarrik asko i zulo-atakaraño eragiteko.

MARTI.—Sz nik be indarrik asko ire laguntza bagarik igoteko.

KINTA.—Ekak ire eskua besie bein: etxoat askatuko barriro i ona gora-arteño, edo neu orra bera-arteño: i ezin eldu az nigana.,., neu yoango nok igana. (Lezara yausíen da).

SATURNIN aurrera. AP.ON'ekln.

SAT.—Aurrera níkin: oraintxe ikusi gura dot ze zulo dan emen eta ara nok egin dauen yauzi. Esaik, nor augu lurreko zador edo arro ago-zabal oneiara ointxe-ointxe yatsi azan ori?

MARTI.—Andornika cgure zori txarrekoaren semsa, zori txarreko orduan ona ekarria. zure anai Basen ilik idoroteko.

SAT.—Ililc nire anaiea! ba-yakiat i txantxetan abilela: a ta aren anderea eiza-leku atsegingarri onen iparraldeko txabolan dozak biak: ordubete be eztok nik aik an itxi dodazala.

MARTI.—Guk eztakigu zuk non ilxi dozun *a* tizi-bizirilt; bañn, ai ene! ilik idoro dogu guk.

TAMORE aurrera ostera be, bere Yarraigokoakin; baita TITA ANDORNIKA ta LUKI be.

TAM.—Nondik eta nora da nire yaun erregea?

SAT.—'Smen, Tamore; naibagearen naibagaz i!-aginik egon-arren.

TAM.—Nondik da zure anai Basen?

SAT.—Oraintxe eldu zara nire zauriaren ondo-ondoraño zure arakatzean: emen datza i)ik Basen errukarria.

TAM.—Orrazkero, beranduegi baño beranduegiago dakatzut zori txarreko idazki au (idazkia damotso eskuetara), aldiz eurretiko eriotza onen azpikeri-asmoa; eta aundi be aundi da gizonen arpegik, atsegin-irribarrez, olango gogorkeri erailkorrik bere tximurre-(an estali ia ostondu al izatea.

SAT.—(Ba-di-rakur) "Akin -Basen da esan gura dodana, eiztari maite, -akin onez ezin batu ba'gadiz, arentzako ilobi-zuloa atxurtutea baño eziok; ba-dakik ze asmo dogun. Intxusa-peko asunizan billalu egik ire saria, Basen an obiratzea erabagi izan dogun zulo-atakeari itzal egiten dautsan intxusaren *azpiko* asunizan. Eglk onako au, eta betirako adiskídelzal erosi izango gozak". Ene Tamore! entzun ete da eguño onangorik? Au da arako zuloa. eta au Intxusa-zugaznoa: begira, yaunak, \a idoroten dozuen Basen erateko zan elztaria.

ARON.—Ene yaun txerakor, gmen arako urre-zorroa. (Ba-darakutso).

SAT.—(TlTA'ri) Ire txakurkumeetarik blk, yatorri odolzaleko txakur zakarrak eurak, kendu yeulsoek emen bizia nire anaieari. Younak, zadorretik aterata baitegira eroan egizuez tatarrez: an dagozala orreintzako eguño entzun eztana langa elorrio gorrien bat zigortzat guk asmau-arte,

TAM.—Ostera! zulo onetan dagoz, ala? Onako zer onen arrigarri! erstea bai arin Grgitaratu!

TITA.—Inberadore garrazta, nire belaun makalen ganean, eta ez negar gitxigaz, eskakizun au dagitzut, zera, nire seme askarrien uts uguingarri au..., eta askarri dira utsa euren dala erakustekotan...

SAT.—Erakustekotan! zeuk dakusazu agiri agirian dagola. Nok idoro dau idazkí au? Zu izan zara, ala, Tamore?

TAM.—Andornika'k berak eragi dau lurretik.

TITA.—Bai, neuk eragi dot, ene yaun; orraitíño be neu izan nadilla arein bai; eta izan be, nire aitaren ilobi-oroigallu begiragarriarrsn zin-bidez agintzen dautzut, aik gertu egongo dirala zure nagusitza orren nai eta deira, eurekan dagon susmoari euren biziaz erantzuteko.

SAT.—Zu etzara izango orrein bai: zarraikidaz, gero... Eranaren gorpua beroe batzuk, eraleak beroez beste batzuk: eztagiela itzik egin..., argi ta garbi agiri da orrein errua; eta izan be, neure gogoa-arren, eriotzea baño azken txarragorik ba'lego, azken ori ezarri bear litscakie orrsi.

TAM.—Andornika, neuk eEkattiko dautsat erregeri: ez izan zure semeen bildurrik; ez dira ibiliko orren txarto.

TITA.—Tira, J,uki, tira; ez egik galdu astirik orreikin itz egiten. (Bako'.xak bere bidea artzen dau. Laguntzakoak daroe gorpua),

ko rnunduan, ilak ara doazan zoriontegirako bidean, Akairon izeneko ibai zabal-sakona dago, len esan dogunez. Ibai orrek ba-dau zurrunbillo asai'ro bat be, cndoko are edo ondarra gora eragiten dauena ta, beraz, geroago sakonago egíten dana, ta zurrunbillo orrí ereisten dautsoe Kokít;.

IV AGERLEKU.-Baso edo oianeko beste arlo.

Aurrera DIMITIR eta KIRON, LABINE'kín, au izerturik; eskuak eta miño ebaglrik.

DIM.—Olan, zoaz orain esaten, zure miñak ilzik egin al ba'dagi, nor izan dan miña ebagi ta zure neska-garbitasuna kendu dau-Izuna.

KIRON.—Idatzi egizu gogoko yatzuna, olan iragarri egizu esan gura dozuna, idazlerenik egiten zure motzondo edo epatondoak itxi ba'dagitzue.

DIM.—Ikusi ia zelan egiten dauzan orrek zirriborroak mosuz eta beste aieruz.

KIRON.—Zoaz etxera, ur usain gozozkoa eskatu, ta eskuak ikuzi egizuz.

DIM.—Orrek etxok miñik ezer eskatzeko, ezta eskurik be, ikuzteko; eta orrazkero, itsi dagigun, bere bideak zear ixilík yoan dadin.

KIRON.—Olan aurkitzekotan, nik eskegi egingo neunke nire burua.

DIM.—Lokarria lotzeko, lokarriari begitenik egiteko eskurik ba'eu bai. (DIMITIR etct KíRON'ek alde).

MARKA aurrero.

MARKA.—Nor da au..„ nire illobea da..., nor da orren arin, egaz, alde dagiana?... itz bat, illoba; nondik da zure senarra?... Amesetan ba'nago, atzarriko al naz nire ondasun guztien alderako! Atzarri ba' nadi, izarbelen batek yota zeartauko al nau, betiko lotan lo egin dagidan! Itz egin, illoba lerden..., noren esku gogor ankerrek ebagi, meztu, ta zure soin-aldorrari adar bi kendu dautsaz... zure apaingarri samur fciok, orrein itzalpe biríbil gozotan Io egítearen billa erregeak eurak ibili ta orraitiño zure maitasuna Iortzeko lain zori onik izan eztabenak? Zegaitik eztaustazu itzik egiten? Ai ene! axeak putz egin eta eraginez bor-borka bidea-bera doan iturriaren antzeko odol epelezko ibai gorria, bein yagi, bein yatsi, yausten da zure larrosa-ezpanetatik, zure arnasa eztiaz yoan-etorrika. Baña, seguru-seguru, Tereu'en batek izortu zauz zu, eta a salatu eztagizun, miña ebagi dautzu. Onangorikl orain, lotsearen lotsaz, beste aldera eragiten dautsazu zure buruari! eta odol-galtze guzti au izan-arren..., zirina urteteko iru zu-Io dauzan oditik legetxe..., ori ta guzti be, oraindik zure mosuak, odeiaz trikitx egiteaz gorritzen dan Titan'en arpegia bestean gorri dagoz. Zure izenez itz egingo dot, ala? Onan izan daia esango eta dot? Ene! zure biotzeko barririk al nenkl, eta al nenki nor dan orrako aberea, nire biotza azazkatzeko ari asarre dagiodan! Naibaga ostonduak, la*ba* itxiak legetxe, bera dagon lekuko bio-!za auts biurtzeraño erretan dau. Pilomele lirainak bere miña baño ez eban galiu izan, eta ak bere orratz-lan gogaikarriro yosiaz iragarri eban bere gogoa: baña, illoba maite ori, zuri orretariko bidea be moztu ta kendu dautzue: Tereu trebeagokin egin dozu zuk trikitz, eta ak ebagi dautzuz, illoba, atz pitxiok be, Pilomele'k baño trebeago yosi eikeen zure atzok. Ene! ikusi al leuz bidutzi edo mamu ak lili-eskuok, orri-ikarearen orriak lez ikaraz kitarraren baten, eta sedazko ariai aren eskuai mun eragiterañoko atsegiña emoten, ak eleukezan ukutu be egingo bere bizian! edo-ta, entzun izan ba"léu ak onen miñak ateraten dakian zerutar ereskidetasuna, bere aiotza lurrera egotzita, loak artuko eukean, Kerber txakurra Taraki'tar olerkariaren oñetan loak artu ebanez. Erdu, goazen, eta itsutu egizu zure aita; eta izan be, olango ikuskizunak itsutu egingo dau zure aita; ordu beteko ekatxa da asko landa usaintsuak itoteko; zer egiteko zure aitaren begiai ile bete osoetako negarrak? Etzakidaz atzeratu, etzakidaz igesi, zukin batera egingo dogu ileteata: ene! gure ileteak arinduko al leu zure zori \xanal (Alde dagie).

III EKITALDI

1 AGEHLEKU.-EBROMA. Etxartebide.

Aurrera Agure-batzarrekoak, Tirbunak, Epaitegiko ogibidekoak. MARTI ta KINTA estuta. erantegira doazala; TITA aurretik, arein alde eske.

TITA.—Entzun nagízue, aita benok! Geldi, tirbun zindook! Zuok bildurga lo egiten zenduen bitartean nire gaztearoa gudu galdugordetsuetan igaro neban onen edinarea-

tzako errukla-arren; Erroma'ren aldeko burruka aundi-gogorrean ixuri izan dan nire odol guztia-arren; atzarrik igaro izan dodazan gau otz-leituak-arren; eta, zeuok dakusazuenez, nire mosuko tximurrak-bera yausten yatazan negar mingotsok-arren; erruki zakiez nire seme gaizletsiai, zuok besterik uste izan-arren, orrein biotzak eztagoz usteldurik-eta. Eta izan te, ogei ta bi semegaitik eztot eguño negarrik egin. aik omenaren oe yagian il dira-ta, Oneikaitik, tirbun onok, Iurreko autsetan idazten dodaz (Lurrean luze, bera betean etzaten da) nire biotzeko naibaga sakona eta nire gogotiko negar ilunak: nire negarrak asetu dagiela lurraren egarri idorra; lotsatu, la lotsaz mosu-gorritu egingo dau nire ssmeen odol kutunak. (Agure-batzarrekoak eta Tirbunak alde atxiloekin).

lur ori, lur ori, níre begiotatik, ondakin zar biotatik ixuriko dodan euriz adiskidego egingo natxatsu, Yorrail gaztea bere eurite guztiakaz baño: udako aterraldian be ixuriko dautzut nik; neguan, nire negar beroz urtuko dot edurra, eta zure arpegi edo azalean betiko uiabarri eukiazoko dautzut, nire semeen odolik ez edatera yarri ba'zadiz.

LUKI aurrera, bere ezpatsa aterata.

Tirbun begiragarriok! agure maitagarriok! azkatu, yarei egizuez nire semeak, manatu, deuseztu egizue eriotza-epaia; eta itxi egidazue esaten, eguño neganik egin eztodan oni, nire negarrak dirala orain eskalarik eragikorren.

LUKI.—Aita zindo ori. alperrik daragoiozu negarrez eta alaka: eztautzue entzuten tirbunak, eztago gizonik emen urrean; zuk zure naibagsak arriei eralten daragoiozu.

TITA.—Ai, Luki, ifxi egidak ire anaien alde eskatzen. Tirbun benok, beste bein eske nagotzue.

LUKI.—Ene yaun maite, eztautzu entzuten iñongo tirbunek.

TITA,—Ba! elxok ardura, gizon: entzun izan ba'lebe, ezeust-en egingo yaramonik; eta yaramonik egin izan ba'leuste be, eleukien ízango nire errukirik; eta orraiHño be eskatu egin bear yautset, eta alperrik eskatu be. Orrazkero, arriai eralten yautsedaz nire naibageak; arriak, fca, niri ezin erantzun izan-arren, zerbaitetan oneik tirbunak baño oba dozak. Eta izan be, oneik etxaustek etengo nire esan-bearrekorik; negar dagidanean, apal-apalik artzen yoezak nire oñetan nirs negarrak, eta nikin negar egiten dcibela dirudi; eta ari'iok, yantzi benez apainduta ba'Iegoz, Erroma'k eleuke aurkeztuko, erakutsiko oneik besleko tirbunik. Bigun dok arria, argizaia lez, arriak baño gogorrago dozak tirbunak; ixil dok arria, eta etxautsak iñori irainik egiten, Urbunak, ostera, euren miñez eriotza-epaia emoten yautsek gizenai. (Yagi egiten da) Baña zer dala-ta ago i ezpatea aterata?

LUKI.—Nire anai biak eriotzatik aterateko, yareiteko atera dot: eta nire asmo agaitik, ebazleak ni betiko erbesteratzeko epaia emon izan dabe.

TITA.—I bai gizon zori ontsu! adiskiderena egin dauskae. Ba, Luki ergel, ez az oartzen Erroma katamotzen lurgorri fcaño eztala, ala? Euren yanari-billa ibili bear yoek katamotzak, eta Erroma'k etxok ni ta nirsez beste yatekorik: orrazkero, i bai ba-az zori ontsu, irunstzalleotatik alde eragiten dauskaelako!... Eaña nor dator emen gure anai Marka'kin?

MARKA *ia* LABINE aurrera.

MARKA.—Tita, gertau egizuz zure begi zarrak negar egiteko, naiz, ori ez izatekotan, zure biotz zindoa austeko: zure adina iruntsiko dauen naibagea dakatzut.

TITA.—Iruntsiko naiok orrako orrek. ala? Dakusadan, orrazkero.

MARKA.—Ire alaba zana dok au.

TITA.—Bai ba, Marka, axe dok izan be.

LUKI.—Ai ene! eran egiten nctu zer onek!

TITA.—Yagi adi, mutil biotz-makal ori, eta begiratu egik no ori.-Itz egizu, ene Labine, ze esku askarrik bidali zauz olan esku baga zure aitaren aurrera? Nongo ergelek erantsi dautso ura itsasoari, naiz abar-sortarik ekarri dau lendik su-garretan dagon Toroi'ra? Nire oñazea, nire elorrioa goiko tontorreraturik izan da zu etorri baño len; eta orain, Nil ibaiaren antzez, ertzai ganaz eginda dago. Ekazue ezpataen bat, neuk be moztu bear dodaz nire eskuak, Erroma'ren alde gudua alperrik egin izan dabeta; eta biziari yaten emoten ibilita, ondiko au, zori txar itzal au azi dabe-ta; alperriko arreiika eragi izan dira gora eskuok, eta utsa iristeko izan yataz: eskuoi orain eskatzsn dautsedan otseintza bakarra, alkar ebateko, bata besteari lagun izan dakiola da. Ondo dago, Labine, zuk eskurik ez izatea, Erroma'ri otseintzarik egiteko ba'dira, alperrik dira «skuak-sta.

LUKÍ.—Itz egizu, arreba txerakor, ner izon da elorrioperatu zauzana?

MARKA.—Ene! orren gogakstaen lanki aisegingarria, eurak alango itz-dario atsegingarriz iragarten ebazana kutxa arro lirain atatik erauzita, aterata dago, andik, tzori ezti ereskidetsuk legetxe, belarri oro liluratzen eben guzlitariko ots eztiak ateraten ebazana!

LUKI.—Ene! ene! zuk esaizu, osaba, orren ordez, nok egin dau orrako ori?

MARKA.—Ai ene! olantxe idoro yoat nik ori, basoan aldarrai, bere burua nonbaiten ostondu-gurarik ebilela, osapide bagako zaurien bat artu izan dauen oreina ibilten dan legetxe.

TITA.—Nire oreina zoan; eta ori zauritu dausnak min geiago egin yaustak, neu eran ba'nindu baño be: eta izan be, neurri bagako itsasok inguratuiik armol edo arkaitzganean dagona legetxe nago ni orain; orrako ori oartzen da itsasoa bere ízkoran, uginaren yarrai ugin barriiik dtorriaz, itsasoa yagiago ta yagiago egitsn dala, eta beli dago bildurrez noz iruntsiko ete dauen bere errai gezaletan ugin edo urutu gogo txarrekoen batek. Bide au eroan dabe eriotzarako nire serna zori txarrekoak; emen dago nire beste semea, gizon erbesteratua; eta emen nire anaiea, nire ondikoai negarrez: baña Labine maitea, bizia baño maiteago dodana da nire biotza geien minduten daustana... Era onetan zure irudia bera bakakarrik ikusi izan ba'neu, burutik eragingo euskidan: zer egiteko nik orain zure soin bizkorra olan dakustala? Eztozu zuk eskurik zure negarrak txukatu edo legortzsko, ez miñik be elorrio gorriok nok ezarri ta yasanazo dautzuzan esateko: ilik da zure senarra, eta eriotza orregaitik gaiztetsi dabez zure nebak, eta ilik dira onazkero aik be. Begira, Marka!... Ene! Luki seme, begiratu egik ire arrebea! Orren nebak aitatu dodazanean, negar barriak yatsi dira orren mosuak-bera, zimeldu-aginik dagon lili tximurtuaren ganera iñontz gozoa lsgetxe.

MARKA.—Ba-ledike orrek orren senar mailea eran dabelako negar egitea: baita be ba-ledike orrek ba-dakialako aik erruga dirala.

TITA.—Poztu zadiz, aik eran ba'dabe zure senarra, legeak ordea emon izan dautse-ta. Ez, ez, aik eleuskioen egingo olango egite iguingarririk; arein arrebeak diragarren naibagea da orreko orren autorla edo lekuko. Labine ierden, itxi egidazu zure ezpanetan irran egíten; naiz, atzen batez iragarri egidazu zelan zu nasaitu zagiksdazan: iturrien baten ertzean yezarriko ete gara zure osaba ona, eta zure neba Luki, zeu eta ni. guztiok lurrerantza begira gure mosuak 2elan dagozan loiturik ikusi dagizun, euren ganera etorri dan uriolak oraindik legortu bagako zelaiak izten dauzanez? Eta ain luzaro, ur gardenai urgozotasuna kendu ta gure negar mingotsez osin gezal biurtu arteño egongo ete gara iturria begira? Ala, gure miñai usigi, ta ikuskizun izka-ixiletan igaro gurs egun gorrotagarrien ondakina? Zer egingo dogu? Miñak oraindik aldean doguzanok asmau dagigun gure zori txarra geitzeko asmukizunen bat, etorkizunean guri edonok ago-begiak zabal-zabal, arriturik begiratu dagiskun.

LUKI.—Aita maite ori, atertu egizuz zure negarrak; eta izan be, ikusi egízu zure naibageak zelan intzirí ta negar eragiten dautscrn nire arreba errukarriari.

MARKA.—Epe artu egizu, arteak artu egizuz, illoba maite orrek. Tita on, legortu egizak ire begiak.

TITA.—Ai ene! Marka! Marka! anai, ondo yakiat nik ire sur-zapiak ezin edan daue-la nire negarrik, euk, gizon errukarri orrek, eureakaz ito dok-eta.

LUKl.—Ai ene! ene Labine, neuk txukatu, neuk legortuko dautzudaz zure mosuak.

TITA.—Oar akio, Marka, oar akio! aituten dodaz nik orren atzak: miñik ba'leu itz egiteko, nik iri esana bera esango leuskio orain no orrek bere nebeari, orren sur-zapiak, orren negar yatorrez aseturik dagolako, orren arrebearen mosuari ezer onik ezin dautso egin-eta. Ene! au bai ba-dala naibagean naibagekide izatea..., baña linboa zori onetik bestean laguntzatik urrin dagona!

ARON aurrera.

ARON.—Tita Andornika, barri au bidaltzen duutzu nire yaun inberadoreak, zera, zure semeak maita ba'dozuz, Marka'k, Luki'k, naiz zeuk, Tita agure, naiz zuotatik edozeinek, zure eskua ebagi ta erregeri bidali dagiola: orren alderako, ak zure seme biak bizirik bidaliko dautzuz ona; eta ori izango da arein utsaren ordaina.

TITA.—Inberadorearen eskuzabal! Aron txeratsu ori! Belak abestu ete dau eguño eguzki urteerearen barri emoten dauen larralxoriaren abestien orrenbeste anlz dauen

abestirik? Bíoiz-bíolzez bidalíko dautsat inberadoreari niie eskua: Aron on, lugun izango ete zatxataz beiau ebaten?

LUKI.—Geldi, aita! ainbeste arerio luiteiatu dauzan esku oii, zuie esku zindo oii etxako bidali beai-eta: neuie eskuak egingo dau zuieatena: zu baño oba da niie gazteaioa odolik galtzeko; eta, onazkero, nire eskuak yareiko dauz nire anaien biziak.

MARKA.—Zure eskuetatik zeñek eztau yagon Enoma, eta guda-aizkora odoldua gora erayi, areriouren dorrearentzako ondainendia idatziz? Ene! biak dira iiabazi aundiak baño besterik itabazi eztabenak: nire eskua da alpeikeiian baño egon eztana; onek egingo al dau oidainarena nire illoba biak eiiotzatik yareiteko; oirazkeio, elbuiu aingcirrirako euki izan dot.

ARON.—Tíra, tira, abatzi zenen eskua yotirigo dan ortik zear, aik euren azkets ede parkam3na eldu baño len il eztadizan.

MARKA.—Nire eskua yoango da,

LUKI.—Laungoikoa-arren, ezta yoango zurea!

TITA.—Bego, yaunak, ez ibili or baietz-ezezka: oneik lango bedar zimelak dira atera edo erauzteko egoki, eta, orrazkeio, niiea,

LUKI.—Aita ezti oii, zuie semetzat ba'nozu, itxi egidazu nirs anai biuk etiotzatik etosten.

MARKA.—ilta guie aítagaiiik ela ainaren ardureagaitik, itxi egidazu orain zuri anai-maituauna erakusten.

TITA.—'Zsuon artean itundu zadize: aurreratu egingo dot nire eskua.

LUKI.—Orruzkeio, aizkoia-billa noa,

MARKA.—Baña neuk eiabiliko dot aizkorea. (LUKI'k ela MARKA'k alde).

TITA.—Erdu ona, Aron: biai sartuko dautset zirio: zorrean emoidazu zuie eskua, baí, eta neurea emongo dautzut nik.

ARON.—(Bere kitean) Ziiia sattzetzat ba'dozu orrako ori, zintzo izango naz ni, eta ez sartu olango ziririk gizoni, ni bizi nazan aite guztian: baña nik beststaiiko zitia sartuko dautzut, eta zeuk esango dozu oii orainda-nik otdu-eidi bafío len. (Eskua moztuten dautso TITA'ri).

Barriro aurrera LUKI ta MARKA.

T'ITA.—Geldituazo egizue orain zuon eztabaidea: eginda dago egitekoa. Aron on, emoiozu nagusienari nire eskua: *a* milla galdugoidetik yagon izan dauen eskua dala esaiozu; lurperatu áagiala esaiozu; ori baño zer geiagogarri da, izan, baña orrenbsste beiniz«í *if.an* duyiala. Níre semeakszko, snerke erositzat doáaz aik; eta bai orraitiño karu be, neure dana erosi dot-eta.

ARON.—Ba-noa ni, Andornika; eta zurs eskuaren ordez, laster dozuz emen zure seme biak: (Bere kitean) arein buruak esan gura dot. Ene! dollorkeii onek bai gizentzen nau ni, beiau gogotan srabiliaz beragaz be! Ergelak on dagiela, eta gizon zuriak beragoioe esker-eske; Aron'ek, mosu baltza dauenez, gogoa be baltza euki gura dau, (Alde dcngi).

TITA.—Ene! zerura eragiten dot emen nire esku bakar au, eta ondakin mengel au lurrerantza makurtzen dot: negar eirukarrien errukirik dauen aiik ba'dago, ari nagoko deiez! (LABINE'ri) Ba! belaunbikotu gura dozu nikin, ala? Ori egin, ba, ene biotzeko orrek, entzungo dauz zeruak gure arrenakeeta; ostantxean, goioeldu, iluudu egingo dogu zerua gure intziri ta arnasaz, eta eguzkiu orban-lausotu, batzuetan odeiuk, urtzen dagozan euren bularretan, a estututen dabenean legetxe.

MARK71.—Anai orí; al datekenaz itz egik, eta ez egik artu azken bagako naibaga-lezarako biderik.

TITA.—Eztok lezarik sakonena bestean sakon nire naibagea, ala? Eztok ondar bagako, a£ken bagako, ala? Onazkero, azken baga. ko. oniar bagako bediz nire biotzaldiak be, areikaz batera,

MÁRKA.—Baña ire buruks argiari itxiok ire alaketea bere bende erabilten,

TITA.—Zori txarrontzako argirik eta biderik ba'Htzok, ertz-barruratu, esi-barruratu al izango neunksz nire ondikook be; oitzeak negar egiten dauenean, ez eís yok luiiak uiez ganaz egiten? Axeak asarre ba'dozak, ez ete dok zororo azten itsasoa, bere arpegi anditu-andituaz ortzea zemaiturik? Eta argi-eske, burubideeske ago i nire negarralaketa onentzako? Itsasoa nok ni; entzuik zelan no orren intziriak urtenka daragoioenl Ori dok negarrez dagon ortzea, lurra nok ni; orrazkero, orren negarrak eragin bear yautsoek nire itsasoari; orrazkero, onen etsn bagako negarrak nire lurra urioldu, ganazkatu, ta ito egin bear yoek: eta izan be, nire erraiak ezin ostondu yoezak orren ondikoak, mozkorraren antzera nik eurekaz okada egin-hear baño. Orrazkero, ekak ire baimsna, ire ederretsia, galtzalleak euren miñ mingotsez euren barruak azazkatzeko ederretsirik izaten yoek eta.

GEZNARI dator ourrera, buru bi ta esku balegaz.

GEZN.—Andornika aingani, txarto ordaindu dautzue zuk inberadoreari bidali dautsazun esku on *a.* Amezan zure seme zindo bien buruaki eta emen dozu zure eskua, irriz atzera zuri bidalia. Arein olgeta dira zure naibageak, arein írri zure adorea; zure ondiko, zure zori txar gorriak gogoratzea ondikoago ta zori txar gorriago yat nire aitaren eriotzearen oroipena buíio be, (Alde dagi).

MARKA.—Oztuko al da oraín Sikeli'ko Etna goría, eta beti sutan dagon su-leza biurtuko al da nire biotza! Yasan-aleko baño aundiago dira endiko edo zori txarrok, Nasaitzen dau arean negarrez dagozanekin negar egiteak; baña dan lengo bi egiten da irri egiten yakon naibagea,

LUKI.—Ai ene! aundict da ikuskizun onek orren zauri sakona egin, eta orraitiño be orrako orrek iguín yakon bizia ez laburtzea, ez uzkurtzea! Aundia da eriotzeak biziari bizi-izena eroaten iztea, fciziak biziarenik arnasoa artzeaz besterik eztauenean! (Mun dagitso LABINE'k).

MARKA.—Ai ene! biotz orren errukarri; nasaitasunik eztakar mun orrek, ur leituk suge goseak ileri eztakartson lez.

TITA.—Noz amaituko ete da eldarnio au, ames txai au?

MARKA.—Agur orain iri, labankeri, zurikeri orri; il adi, Andornika; eldarniotan ez ago i; ikusizak ire seme fcien buruak, ire esku adoretsu gudazalea, emen dugon ire alaba muzkil-lorrindua; ire beste seme erbesteralua, ikuskizun itzal ikaragarri onek zurbi!, odolga ta erdi ilik itxi yok; eta ire anaiea, ni, arrízko írudí legelxe, otzík eta elbarrituri k. Onangorik! oinganik ara eztodaz eakuratuko zure naibageak: sustarretik atera, erauzi egizu zure urrezuri-adats ori, zure beste eskuari zure aginak usika daragoioen fcitartean; eta gure begi zori txarrekoak isteko bedi lkuskizun baltz-ilun au: ekatxaldi da orain; zegaitik ago ixilik?

TTTA.—Ja, ja, ja!

MARKA.—ZegaíUk ago faorreka? Eztok ori garai oni dagokonik.

TITA.—Ba! kurtzeko, etxatak gelditzen beste negarrik; ganera, arerio yatak naibaga au, eta kendu gura leuskidaz nire begi negarti nsgartsuak eta itsutu egin, aren bendeko negarrez; olangorik yazotekotan, barriz, zelan idoroteko nik nire azazkatzearen, asperkundearen artzuloa? Eta ízan be, buru bíok itz eg'm gura daustela dirudi, eta zemaitu egiten nabela eztodala izango iñoz be zori onik, gaiztakeriok euren egileen ganera arein eztarri-eztarrietaraño atzera biurtu-arte. Tira, dakusadan zer egin bear dodan. Inguratu nagizus zuok, naibaga astunpean zagozenok, zuotarik bakotxagana biurtu al nadin, eta nire bizia-arren zin dagídan, arteztuko dodazala zuoi egindako okerrak... Eginda dago zina. Erdu, anai, ik artu buru au; eta neuk eroango yoat bestea esku onetan. Labine, zuk be zerotan egin bear dozu zure egitekoa; nire eskua eroan zuk, neskato kutun orrek, zure aginen bitartean, Igazko, mutil, alde egik ik nire begien surretik: erbesteratua az i, eta eztok gelditu bear emen: oa arin, alik arinen Gotarretara, eta eragí ta batu egik an gudarosteren bat: eta alan uste dodanez, ni maite ba'nok, alkarri mun eginda alkarregandik banandu gadizan, egitekorik asko yoagu-ta (TITA'k, MARKA'k eta LABINE'k alde).

LUKI.—Agur, Andornika, ene aita zindo... Erroma'n eguño bizi izan dan gízonik negargarriena, naibagetsuena; Agur, Erroma arro; bera atzera etorri-arte, Luki'k emen izten dauz bere bizia baño maíteago yakozan bere baíak: agur, Labine, nire arreba zindo; ene! ene! lenago zintzazana al zintzaz! baña orain ez Luki, ez Labine, ezta bizi aztuta ta naibaga gorritan baño. Luki bizi ba'dadi ak zuzenduko dauz zuri egindako okerrak, eta Saturnin arro ta aren inberadorenoari atetan eskekoarena eragingo dautso, beñola Tarkini ta aren erregenoari eragin yakenez. Gotarretara noa orain, ela gudarosteren bat batuko dot Erroma'ri ta Saturnin' eri ordea emotsko. (Alda dagi).

II AGERLEKU.-TITA'neko Gela. Oturuntzea gerturik,

TITA, MARKA, LABINE, ta LUKI Gazte, raulikoa, aurrera.

TITA.—Olan, olan; yezarri orain: eta ez yan, gero, gure naibaga mingotson ordea emoteko lain indar egin-eginean yagongo dauskuiia baño. Marka, azkatu egik naibagcz egindako korapil ori: ire illobeak eta nik etxoagu eskurik, eta ezin yoagu iragarri irea langó amar dan gure niabagea, alkar besartean estuturik. Eularrari gorriak iku-

siazeteke gelditu yutak esku eskei «UÍ eta nire biotza, zori txarrez zoro uts eginik, nire roñeko baitegi arro onetan taupadaka dabilkidanean, oncmgo daunbadea emoten yautsat. (LABINE'rí) Zu, oñazeen irudi ori, atzez onan itz dagizun orii zure biotzak taupada iraintsurik dagitzunean, zuk ezin dozu yo a onan, ixilduazoteko. Intziriz zauritu egizu, neskato; urrumeka eran egizu; edotó, aiztotxoen bat artu egizu zure aginen bitartean, eta egin-eginean aurre-aurrean zuloen bat egizu, zure begi errukarrietatik yausi dadizan negar guztiak zulo atara yoan, eta anáik barrura sarturik, biotz ergel alakaria negar gezalez ito dagien.

MARKA.—Ken, anai, ken! ez egiok irakatsi olan olango esku trakets-gogorrik bere bizi samurrari ezarten,

TITA.—Osterai dagoneko umetu ia ollotu au naibageak, ala? Ba! Marka, beste iñok eleuke egon bear burutik eginda, r.euk baño. Zetariko esku gogorrik ezarteko oicek bere buruari, bere biziari? Onangorik! nondik eta zegaitik datorkik eskuak aitcttu-beav gorri ori... Toroi zelan erre zan Enea'ri birritan esanazo ta orregaz a errukarri egite ori? Ene! ez egik erabili itz-gei ori, eskuekazko solas edo izketa ori, eskurik zelango danik he eztogula gogoratu eztagigun... Uí, ui! ire itzen ergel eta zoro, Marka'k eskuen izenik aitatuko ezpa'leu, eskurik eztogula aztuko litxakulakotan! Tira, asi gadizan; eta, neskato lerden, yan egizu zer au... Eduririk eztogu emen! eztago arean be, ala? Entzun, Marka, no onek diñona; nik ezin igarri yoadaz onek egiten dauzan atz elorriotsuak... beronen negarrez beste edaririk eztauela edaten yiñok onek, beronen naifaagaz egindako negarrak, beronen mosuetan goatuak: itzik bagako alakari ori, ikuíiko dodaz zure gogapenak; aítu ta yakitun izango naz zure egite ixiletan, padar eskaleak euren arrenetan diran bestean; eztozu egingo intziririk zuk, ezta zure epatondorik ortzerantza eragiko be, ez kiñurik eglngo, ez bururik makurtuko, ez belaunbikatuko, ez ezetariko atzik egingo. nik orcako orrein esan-gurea urrengorik urrengo, agakean legetxe, idatziko eztadanik, eta oituaren oituz, zuri ezer itantzeka, ixilean yakingo dot zuk zer esan gura dozun.

LUKI GAZT.—Ailaita on, itxi egizuz alde batecu alaketa sakon mingatsek; ipuín atstglngarrien bategaz nasaitu ta poztu egizu nire izekoa.

MARKA.—Ai ene! mutilco samurrak, biotza ausitct, negar dagi aítaitoren gotiluntasuna ikusirik.

TITA.—Ixilik, gazteíxo samur: negarrez egina az i. eta negarrak laster uríuko yoek ire bizía... (Azpila yoten dau aizioaz MARKA'k) Zer yoten dok ire aiztoaz, Marka?

MARKA.—Eran dodana, ene yaun..., eulia.

TITA.—Oa ortík zear, eralai biotza eraten daustak; gogorkeria ikustez asetu ta asperturik yagozak nire begiak: errugarik iltea eztok Tita'n anairi dagokonik: dakustanez, i ez az gauz uire Iagun izateko.

MARKA.—Ai ene! ene yaun, euli bat baño eztot eran.

TITA.—Bai, baña exili orrek aitarik eta amarik izan ba'leu, zer? Aik bai, euren egotxo urieztauai gura-beiaka eraginaz, alaketaburrundadak eg'mgo leukiezala eguratsetan! Euli enuga errukcsrria, bere burrundadadoñu eresitsuz gu atsegintzen ona etorria! eta eran egin dok ik.

MARKA.—Azketsi, parkatu nagik, yaun; euli baltz itsusietariko izan dok, inberadorenoaren Mairuaren antzeko; orregaitik eran yoat.

TITA.—Ba! ba! ba! Olan izcin ba'dok, parka. tu egidak iri asarre egin izana, errukizko egite egin dok-eta. Ekak ire aiztoa; burutik oñetara ta cñetatik buruia iraindu bear yoat orren gorpua, ona beren beregi ni edenduten etorririko Mairua ba'litzok legetxe, nire burua azazkatzeko. Autso au eutzako, eta beste au Tamore'ntzako. Tira, askarri ori! Orraitiño be eztot usle oindiño orren beera yatsi ta yausi gareanik, oindiño be Mairu ikatza bestean baltzaren antzez datorkun eulirik bion artean eiateko lain bagozak-eta.

MARKA.—Ai ene! gizonaren errukarri! orrenbesteraño eraso dautso naitageak, momi bagako itzalak mamiduntzat artzen dauz-eta.

TITA.—Tira, goazen. Labine, zatoz zu nikin: zure gelara yoango naz; eta an, bion artean, beñola yazotako ípuin ilun-negargarriak irakurriko doguz, Erdu i be, mutiko, eta ator nikin: begi gazteak dozak ík, ela ik irakurriko dok, nireak lausotulen asi dakidazanean, (Alde dagie).

IV EK ITALDI

I AGERLEKU.–ERROBVIA. TITA'n etxs-aurrea,

TITA ts MARKA aurrera, Gero LUKI Gaztea aringa, besapean idaztíak dakazala, eta LABINE aren atzetik ara, ariñekstan.

LUKI G.—Lagun zakidaz, aitaita, lagun zakidazl edenora darraikit nire izeko Labine, eztakit zer dala-ta. Marka osaba en, begira zelan arin be arin datorren! Ai ene! izeko kutun, eztakit nik zuk zer iragarri gura do2un.

MARKA.—Nire aldamenean ago, Luki: ez egik izan ire izekoaren bildurrik.

TITA.—Maiteegi au, mutiko, ire izekoak, iri kalterik egiteko.

LUKI G.—Bai, niro aita Erroma'n zanean bai maite nindun.

MARKA.—Zer iragarri gura dau nire illoba Labine'k aieruon bidsz?

TITA.—Ez izan ire izekoaren biliurrik, Luki: iragarri egin gura yok orrek zerbait: begira ta ikusi, Luki, i maite be maite ciuela: í orrekin nonbaitsra yoatea gura yok orrek. Ai! mutiko, eguño etxeutsen irakuni Kornele'k bere semeai arduratsuago, ire izekoak iri olerki gozoak eta Tuli'ren Izlari irakurri dauskazan baño.

MARKA.—Ezin ete dok igarri zegaitik dabilen ori onan etentzaka ire yarrai?

LUKI G.—Ene yaun, eztakit nik, eta ezín dot igarri be, aldikada, naiz zoroaldik yo izan ezpa'dau: eta izan be, sarritan dot nik nire aitari entzuník naibagearen naibageak burutik eragiten dautsela gizonai; eta neuk irakurrita dol Toroi'ko Hekube'ri burutik egin yakola lorren lorrez,- ortik sortu yat bildurra; nik yakin-etrren, ene yaun, nire izeko zindoak ni nire ainak eguño maite nindun bestsan maite nauela, eta nire gaztetasuna eleukela bildurtauko, zoroaldiz izan ezik: orrako orrek egotziaze daustaz idaztiak lurrera, eta igesiazo... bear ba'da, orretorako bide bagarik: baña perkatu, asketsi nagizu, izeko kutun orrek: eta, an:!era, nire osaba Marka gure lagun ba'dakigu, gogoz-gogoz lagun izanga natxatzu andera orri.

MARKA.—Bai, Luki, lagun izango natxatzus. (LABINE'k bere epatondoz itzulka darabiltz LUKI'k lurrera yausten itxi dautsen idaztiak).

TITA.—Ostera! ostera! ene Labine! Marka, zer diragar orrako orrek? Orko idaztien bat ikusi gura yok neskato orrek, Oneitatik zein da, neskato? ídigi egiozak, mutiko... Baña zu zeu zcira. neskato, sakonago irakurri izana ta trebeago: erdu ia nire idaztitegi osoan autu, eta olan zirrist egin zure naibageari. zuri egindakoaren asmatzalla askarria nor izan dan yainkoak iragarri-arte. Nik esanen ostean zegaitik eragiten ete dauz neskatoak onan bers besoak?

MARKA.—Nire ustez, orrek arako egitean bat baño geiago izan zirala kideturik eta alkareekin itundurik esan gura yok; bai, bat baño geiagorik izan zoan edo, olangorik ez izatekotan, orrek besoak zerura ordeko-eske eragiten yozak.

TITA.—Zetariko dok, Luki, orrek olan gora-goraka egoztsn dauen idaztia?

LUKI.— G.—Obidi'ren Antzaldakuntzazkoa da orrako ori, aitaita; nire amak emon eustana da.

MARKA.—Ba-ledike idazti ori besteen artetik orrek galdu izan dauen maiteaganako maitasunak orri autuazotea,

TITA.—Geldi, ixilik! ikusi zelan zoli-zoli orriai beste aldera eragiien dautsen! lagun zakioez: zeren billa ete dabil? Labine, nik irakurri dagitzudala gurozu, ala? Pilomele'n ipuin negargarria <*i'a* au, eta Tereu'rsn salkeri, azpiyalekeriaz eta aren zantarksriaz daragoio; eta ba-dot bildurrik aragikeria, zantarkeria izan dala zure zori txarren erro ta iturri.

MARKA.—Ikusi, anai, ikusi: oar zakioz nolan izentatzen do.uzan orriak.

TITA.—Labine, neskato kutun orí, onen, otozotoan, onangorik uste bagarik, goatu zinduszan, aragizkoa egin eben zugaz, eta laidoiu zinduezan, Pilomele baso erruki bagako, zabal eta ilunbetsuan indarkeriz orbandua izan zan legetxe, ala? Begira, begira! Bai, olangoxe da gu eizean ibiíi garean basoa. Ene! ez al gintzazan bein be, bein be yoan eizean alango lekutara! Baso ori emen olerkariak azaltzen dauenaren antzantzeko, ta erala neska-orbantzalleentzako bersn-beregi egina dala dirudi.

MARKA.—Ene! berezko indarrak zegaitik egin bear izan ete dau olango okolu ta baztar zantarrik, yainkoak zer negargarrietan atseginik ez artzekotan?

TITA.—Aieru, *atí.* edo mosuak egiskuzuz, nes. kato kutun, -emen adiskide utsak dozuz-sta, zetariko Erromar andikirik azartu dan zuri olangorik egiten yaltin dagigun: ala, ez ets yatzu ixilka urreratu Saturnin, beñola Tarkini, guda-lekutik alde eginda, Lukertze'n oera, an oben egiteko, yoan zanez?

MARKA.—Yezarri zadiz, illoba ezti ori: anai, nlre aldamenean yezarri akit. Apolon, Pale, Yupiter, naiz Merkuri, putz egidazue goitik, azpikeri au idoro dagidan! Ene yuun, begira leku au: begira leku au, Labine: lau da, zelai da ondarrezko leku au; nik nire izena, orretarako eskurik erabilteka, Idatzi dagidanecni, nik eginaren arauz erabili zuk be zer au, al ba'dozu, (Bere makileaz idazten dau bere izena, makileari bidea bere eskuz eta agoz erakutsirik). Askarri ta gaizietsi bedi aidatze onetara teartu gauzan biotza! Idatzi zuk, illoba maite on orrek; eta emen iragarri guk ari ordeazkoa emon dagiogula Yaungoikoak gure dauena: zeruak erakutsiko al dautso zure idazkortzari bidea, zure ezbearrak argi irarteko, azpiyaleak eta egia guk ezagun izan dagiguzan! (Agoaz eltzen dautso neskatcak makileari, eta epatondoz bidea erakutsita, idatzi egiten dau).

TITA.—Ai ene! ba-dirakurk ik neskato onek idatzi dauena, ala? Stuprum, -Kiron-, -Demetrius.

MARKA.—Onangerik! onangorik! Tamore'n seme lizunkeritsu-zantarrak egits iguingarri, odoltsu onen egilak?

TITA.—Magni Dominator poli.

Tam lentus audis scelera? Tam lentus vides? (5).

MARKA.—Ene! baretu adi, nasaitu adi, arteak urtu egizak, yaun zindo; lurrean idatzia gogaketarik nasaien eta bareenak be asaldatzeko, eta umeen gogoak be, arrituaren arrituz, au bcri ba-da'ka iminteko asko ta lar be izan-arren, ene yaun, belaunbikatu adl nikin; zu be belaunbikatu, Labine; belaunbikatu i be, mutiko, Erromar Ektor'en itxaro ori; eta zin egin nikin zuok guztiok, zurkiro emongo dautsegula ordeazko lcingo ordeazkoa Gotar azpikeritsuoi, eta euren odola ikusiko dogula, edo, ostantxean, laido au ganean dogula ilgo gareala, beñola Yuni Brutus'ek, Lukertze'n senarrak eta aita naibagetu-naibagetuak zin egin eben legetxe, Lukertze aragikeriz laidotu, baltzitu ebelako.

TITA.—Orixe, bai, orretarako blderik ba'dakik. *Baña* artí-itumeon billa tbiltekotan, arduraz eta zur ibili: atzarrik egongo dok arein amea; eta bein ire usainik artu ba'yagik ak, a oraindik leoiaren kide-kide dok, eta liluratu egiten yok bere altzoan a, eta leoia loak artu dagianean, berak zer-gura egingo yok ak. Eiztari barri az i, Marka; geldi ago; ator nikin; borontzezko orriren billa yoan bear yoat, eta an galtzaiduzko eztentxoz irarriko yoadaz ondarreks itzok, *eta OT* orrenbaten gorde; izan be, íparraxe asarreak putz egin eta ortik zear leroakez ondarrok, eta orduan non legoke ire ikaskizuna? Zer deretxak, mutiko?

LUKI G.—Nik diñodana zera da, ene yaun, gizon ba'nintz ni, euren amaren lo-gelea *e.ilza*kela gorde-leku segururik asko Erroma'ren buztarpeko yopu askarriontzako.

MARKA.—Bai, ori, ori, mutiko! au da nire muíikoa! Ire aitak be sarritan egin izan yok olangarik esker fc:arreko bere aberri onen ulde.

LUKI G.—Eta, osaba, oksntxe egiugo dot nik, bizi ba'nadi!

TITA.—Erdu, ator nikin nire iskillotegira: Luki, ornidu bear aut; eta bertatik eroango dautsezak, ene mutiko, inberadorsnoaren semeaí, tíai, nire aldetik, nik ai bidaltzeko asmo dodan esku-erakutsiak; erdu, erdu; eroango dok ire geznea, eztok?

LUKl G.—Bai, eta bai nire sastakaia be arein bularrean sartzeko, aitaita.

TITA.—Ez, mutiko, ez olangorik: beste bíderik erakutsi ta irakatsiko dauskat nik. Erdu, Labine. Marka, begiratu, yagon ik nire etxea: Luki ta ni adoretsuena, ollarrena egiten goaz errege-yauregira; bai, arrano, ba-goaz gu, yaun; eta omenez tirtuko gabez. (TITA'k, LUKI'k eta L,ABINE'k alde).

MARKA.—Yainkook, yainkook, antzun al ete dozus gizon onik ir.tzirika ta negarrez, ta ez samurtu, naiz ez izan aren errukirik? Marka, lagun akio bere asarre-irakitaldian gizon orri, bere ikurdi zartadaka mallatuan arerioak egindako lorratz eta eztarnatan ba-

(5) Itzok Seneka'ren Phedra 671'tik arturik dabe euren mamia, eta mamia diñogu, andik itzez itz artuta eztagozalako. Eztakigu itz-aldakuntza au Shakespeare'k berak, ala areo birridazleak egina dan. Dana dala, Seneka'k diñona auxe da: "Munduaren gorengo yaun ori, orren zirtzil eta gaizto-makur ete zara, egiten diran gaiztakeriak ikusi ta entzuteko?".

fio bere bietzean naibagearen zauraíz íjeiago dauenari; eta orraitiño fce, ain zuzen eta zindo da-ta, eziuu emon gura ordeazkorik, eztau azazkatu gura; -zuok, yainkook, zuok emon ordeazkoa Andornika'ren aldetik eta aren ordaz! (Alde dagi).

II AGERLEKU.-ERROMA. Yauregiko Geia.

ARON, DIMITIR eta KIRON aurrera ate batetik; beste batetik LUKI G., ta Laguntzako bat, euren ganean olerkiak idatzita dabezan iskillo-besarkadagaz,

KIRON.—1, Dimitir, emen dok Luki'n semea: geznetren bat yakak gutzako,

ARON.—Bai, gezna zoroen bat bere aitaitn 20-roagandik.

LUKI G.—Ene yaunok, agut dagitzuet al dodan apaltasunik aundienaz, Andornika'ren aldetik (Bere kitean) eta arrenka nagoke Errornar yainkoai zuok biok nastu ta ondatu zagiezala!

DIM.—Eskerrik asko, Lulii biotz onekos ze barri dok?

MUTIKOA,—(Bere kitean) Nik dalcadan barria da, zuok biok ikasita zagozela neska-orfcantzalla atza aldean dafcen dollortzat. Ederretsiko al dozuez; bere iskillotegiko iskillorik ouenak bidaltzen dautzuez nire aitaitak, nire bitartez, zuoi, gazte omengarri iioi, bere biotz ona erakusteko, zuoi, Erroma'ren itxaro zarienoi: onako au zuoi esan dagitzusdala agindu daust ak-eta: eta onan beteten dot aren agindua, eta aren eskuerakuisia opatzen daulzuet zuoi, yaunoi, errstaralco *bea*rrik izan dagizuenean ondo iski ozturik etu ernidurik agertu zadizen: eta geiagoko bagarik agur dagitzuet bioi (Bere kilean) dollor odolzale basatioi. (LUKI'k eta Lagunak alde).

DIM.—Zer ete yagok emen? Estalgi biribila ta bsitan zerbait idatzita? Dakusagun: (Ba-dirakur) "Integer vitae, scelerisque purus, Non eget Mauri jaculis, nec arcu" (6).

KIRON.—*Ba'*. Orati'ren olerkitiko dok onako au; ondo ezagun yoat: eliztian irakurri naioan aspaldi dala.

ARON.—Bai, egin-eginean... Orati'ren olerkitiko; bai, or dozue ori. (Bere kitean). Bai, ba*ña* asto izatea be asto izate dok! txantxeta au ezta bape erruga! Ikasi dau agureak errein errua; eta, orreik igarteka, iskilloak bidaltzen dautsez, aragi bizirañoko zauria egiten dautsen lerro idatziz batuta. Baña gure inberadoreno zurra yagita egon ba'!itz txalotuko eulcean Andornika'ren asmo zurra. Baña itxi dagigun a atsedsn artzen apur baten, atseden bagako bere oean. Eta orain, yaun gazteok, ez ete zan izan izar zori ontsu gu erbestetarrontzako. eta are geiago dana, gu aíxiloontzalto Erroma'rako bide-erakusla izan, eta gu onen gora eragi izan gauzana? Ortilc dator nik tirbunari, aren anaiearen aurrean, yauregiko atetan, eupcdcí egin, eta niri arraitiño ortik ezer okerrik ez yazotex

DIM.—Andiagorik yazo yat niri, olango gizort andikirik orren apal eta zirtzilkiro guganatu ta guri eslcu-erakutsiak bidaltzen ikusiaz,

ARON.—Eztau izan ak orrotarako biderik, ala, Dimitir yaun? Eztozue erabili aren *alabea* adiskideri dagokionez, ala?

DIM.—Milla Erroinar andera aí geuz alango okobuan, aklizka gure lizunkeriaren otsein izateko.

KIRON.—Goi-maitasunezko gurari, eia *baí* maitasun utsezko be.

ARON.—Zuon ama bakar bakarrik bear dok emen, "amen" esateko.

KIRON.—Eta orixe egin be egingo leuke ak besle ogei millagailik be.

DIM.—Tiruk, gaioazan; eta arren dagiegun yainko guztiai gure ama maitearen alde aren ume-minetan.

ÁRON.—(Bere kitean) Txerrenai arren egiezue; yctinkoak itsi gauez gu euren eskutik.

(Eres-aldi alai barruan)

DIM.—Zegaitik yoten ete dabe onen alal inberadorearen íurutak?

KIRON.—Inberadoreak semerik izan dauektko, urrean.

DIM.—Ixilik! nor dator emen?

Sentzaina aurrera, bere besoetan Ume ikatza aña baltza dauela.

SENTZAÑA.—Egun on, yaunak: ene! esaidazue, ikusi ete dozue Aron, Mairua?

ARON.—Ba, arenilc arean, naiz a oso-osorik, emen dozu Aron; eta zer gura dozu Aron' egaz?

SENTZ.—Aron txeratsu ori, gureak egin dau, gureak egin dau! Lagun zakiguz orain, ogtantxean zori txetrra dozu betirako!

ARON.—Ba! ze katakume dozu or! zer batu ta esku-artean darabiltzu zure besoetan?

(6) Au dozu olerkion esan-gurea: "Gizon zindo gaiztakeri bagakok eztau Mairuen gezi ta arranbelan bearrik".

SENTZ.—**Ene! zeruaren begletatik estondu gura neunkena, gure inberadorenoaren lotsari ta Erroma'ren laido dana! yarei da a.**

ARON.—**Nogandik, naiz zetatik yarei?**

SENTZ.—Nik esan gura dodana zera da, argitaratu dauela seña.

ARON.—**Ori ondo, atseden onik emongo al dautso Yaungoikoak! Zer bidali dautso?**

SENTZ.—**Txerren bat.**

ARON.—**Ba, orrazkero, txerrenaren andera da a,- ondorengotza ederra.**

SENTZ.—Ondorengotza motz, ilun, itsusi, baltz eta orrukarri; amen seña, kunkuna bestean iguingarri gure lurralde onetako umetxo zuri-zurien artean: zure antz, zure ikur, zure irudi au zuri bidaltzen dautzu inberadorenoak, eta zure sastakai-mokoz kistartu dagizula agintzen dautzu ak.

ARON.—**Denganiñoen denganiño, zirrilda a! orren zirtzil da kolore baltza, ala? Txotico, ezpan-gizen eder ori, lora-pitxi az i, bai, orixe.**

DIM.—Zital ori, zer egin dok?

ARON.—**Ik ezin manatu; ezin ezereztu dokana.**

KIRON.—**Ondatu dok ik gure ama.**

ARON.—**Dollor ori, idoro egin yoat nik ire ama, ez ondatu.**

DIM.—**Eta ik orretan, su-lezako txakur orrek, egin dok arena. Gaiztetsia bedi aren sabeleiikoa. gaiztetsia autapen iguingarria, eta gaiztetsia olango txerren sikinaren oniorengoa!**

KIRON.—**Ezta ori bizitekorik.**

ARON.—**Iltekorik eztok ori.**

SENTZ.—Bai, Aron, il bear dau onek; cri da onen amak gura dauena.

ARON.—**Onangorik! il bear dauela, sentzain? Orrazkero, nire aragi ta odolarena e-gingo dauena eztadilla izan beste gizonik, neu baño.**

DIM.—Neuk yosiko dot sapaburu ori nire sastakaiaren mokoan; -ekazu ori, sentzain; beingoan egingo dau orrena nire ezpateak.

ARON.—**Lenago urratu ta azkatuko yozak ire erraiak nire ezpateak.** (Sentzanari Umea artu ta ezpatea aterdien dau) **Geldi or, zital eralok! zeuon anaiea erail gura dozue, ala? Mutiko au sortu zanean argi ta dizdiz egíten eben ortzeko argiak-arren, nire zimitar zorrotzaren mokoan ilgo da nire len-seme ta ondorengo oni ukuturik dagiona! Neuk dirautzuet, gazte dindirritsuok, ez Enkelada'k (7) Tipon'en semeetariko bere laguntalde zemaikor osoarekín, ezta Alkide aundiak be, ezta gudayainkoak berak be, eztabe kendu edo erauziko goakei au bere aitaren eskuetatik. Ba! ba! zuok, muti! edolsale, bietz bagakook! Zuok, orma zuntuek! Zuok, garardotegiko iragarkin margoztauok! Ikatzaren baltza beMe margo edo kolorerik baño oba da, beste margorik eroateari irri egiten dautso-ta; itsasoko ur guztiak gorabera, ezin zuritu ledikez zisnearen zango baltzak, ak bcre zangoak etentzaka urstan euki ta erabili ba'áagiz be. Inberadorenoari esaiozue eldu nazala ni nire dana neuk eukiteko adinera, eta al dauenez zuritu dagiala bere burua.**

DIM.—**Olan salduko ete dok ire ugazabandera zindoa?**

ARON.—**Nire ugazabanderea nire ugazabandera dok; au, barriz, nerau..., nire gaztearoaren indarra ta iruáia: mundu guztia baño beinago yoat au; mundu guztiak besterik gura ba'dagi be, seguru eukiko yoat nik au, naiz zuotarikoen batzuk gorriak ikusiko dabez Erroma'n orreko orregaitik.**

DIM.—Onako onek betiko lotsaria dakartso gu. re amari.

KIRON.—**Erroma'k ezetsiko, arbuiaiuko dau a labankeri onegaitik.**

SENTZ.—Eriotza-epala emongo dautso inberadoreak bere asarre bizi-aldian.

KIRON.—**Laido au gogoratzeak berak arpegia gorritzen daust lotsa-arren,**

ARON.—**Ba! zuon edertasunari dagokon lege berezi dok orrako ori (8.': uf! zuon kolore orren salatzalla! arpegi-gorritzeaz barruko erabagi ezkutuak eta biotzeko asmoak iragarten dauzan margo orren salatzalla! Emen dozue aeintxo au bestetariko margogaz, bes-**

(7) Enkelada au Titan eta Lurra'ren seme ei zun, eta bera langa besie erraldoi edo gi zatzarrekin batera yainkoen aurka yagi zan; Athene yainko>noak bere zaldiak eta burdia ganera egoizita, Enkelada lurreva zerraldo yausi zan, eta Athene'k Enkelada'ri aurrera egiteko bidea ebateko, Sikeli izaroa sortu eban arem aurrean; Enkelada Sikeli'ra elsu zcnekoxe Tzeu yainkoen buruak Etna mendia ego. tzi eutsan ganera Enkelada'ri, ela, arrazkero, Etna mendia ikaratzen danean, Enkelada igitzen dalako ei da, eta su-mendi orrek okadaka egozten dauzan su, ke la zirin goria, Enkelada'reir arnasea ta adurra.

Alkide dalakoari Heraklees eta Erkul be eresten yako, eto entzutetsu dira bere indar eta lan nekorrak.

Guda-yainkoari Eladetarrak Ares erester. eutsoen, Erromatarrak Marte.

{8) Bai ba, baltzik ezin gorritu, ez lotsaz, ez bestelan.

ietariko arpegigaz: begira nolan yoputxo onek, kuskubillo onek irribarre egiten dautsan beronen aitari, baltz onek bers aita ballzari, ari esan gura ba'Ieutso lez: "Mulilzar, irs ire nok ni". Zuon anai dok au, yaunak; dakizuenez, zuoi zeuoi bizia emon eutzuen odol berberagaz bazkatu ta azia; eta zuok bertan baiturik euki zinduezan sabeletik yarei uxten eta argitara etorria: bai, zuon anai dok au alderik seguruenetik, bere arpegian nire ikurra, nire irudia ezarrita euki-arren,

SENTZ.—Aron, zer esango dautsat inberadorenoori?

DIM.—Asmau egik, Aron, zer egin bear dan, eta guk ederretsi ta izenpetuko yoagu ire asmoa: umea yareik, gura ba'dok, gu guz. tiok seguru izatekotan,

ARON.—Yezarri gadizan, orazkero, eta guztion artean asmau dagiguzan asmoak. Zuon axeiegian yezarriko gozak nire semea ta ni; emen yezarri zuok; itz egin orain zuon gogara zuon segurutasunaz. (Yezarri egilen dira).

DIM.—Inberadorenoarenetatik zenbat emakumek ikusi dabe sein au?

ARON.—Or, or, orain bai ba-goaz ondo, yaun ador_tsuok! asuri nozue ni zuok nikin bat eginik zagozenean: baña zuok Mairuari eupadarik ba* dagiozue, apo, naiz basaurde ordotz zirikaturik, basoetako leoi emerik, itsasorik ezta arrotzen Aron asarratzen dan bestean... Baña barriro esan, zenbatek ikusi dabe umea?

3ENTZ.—Kornele emaginak eta neuk; eta seña egin dauen inberadorenoaz bestek iñok bez.

ARON.—Inberadorenoak, emagínak eta zeuk: irugarrenari alde eraginazkero, ixilkizuna fcik euki-ezinik eztago; zoaz inberadorenoagana, eta esaiozu au esan dodala nik: (Ezpatea sarluta, erail egiteri dau) kurrin! kurrin!... burruntzirako gertatzen dan txarriak egiten dau olan irrintze.

DIM.—Zer esan gurozu, Aron? Zegaitik egin dozu orrako ori?

ARON.—Ens Yaungoikoa!... yaun, zurtasunak eskatzen dauen egitea dok au: fcizi bear ete yoan, ba, orrek, gure errua salatzeko? Esa*mss* uisa dan mirj-luze onek? Ez, yaunak, ez; eta orain nire asmo osoa yalrizue, Emendik urrln bagarik bizí dok Muliteu dalako bat, nire aberkide bera; aren emaztea atzo gabaz sein egina dok; amaren antzeko dok aren umea, zuri zuok legetxe: zoaze ta itundu zadize akin, urrea emon egiozue umearen amari, eta arazo au ai biai, senarr-emazteai argi ta garbi azaldu egiezue; eta egits onen bidez arein umeak asko irabaziko dauela, eta inberadorearen ondorengotzat ortuko dabela, eta nirearen lekua beteko dauela, yauregian puzka daragoion ekaitz su baretzeko: eta bere dalakotan, inberadoreak yantzazo dagiola bere belaun-ganean. Entzun, yaunak; ba-dakusazue no oni emon dautsadala nik osakaia (Sentzaña eskuz erakutsi-ala). Eta zuok lurra emon bear dautsazue orri; ur dagoz basoa ta zelaiak, eta zuok etzarie morrosko makal, erkin: bein ori egindakoan, astirik galtzeka, beingoan bidali egidazue emagina. Emagina ta sentzaña aurretik kenduazkero, anderak euren miñai eragin baño eztabe, eurak zer-gura esateko.

KIRON.—Aron, dakusadanez, zuk eztautsazu emon gura eguratsari zure ixilkizunik.

DIM.—Tamore'n alde artu dozun ardura onegaitik a bera ta arenok zugazko beartubearturik eta zorretan gelditzen gara. (DIM. eta KIR.'ek alde, Senízañaren gorpua daroela).

ARON.—Gotarretara orain, elaiak egaz dagian bestean arin; besartean dodan altxor onegazkoa an ebaztsko, eta iñok eztakiala, inberadorenoaren adiskideai agur egiteko... Tiruk, yoputxo ezpan-gizen ori, neuk eroango aut emendik; eta izan be, i cz gu ordeazko-billa garabiltzana: aubiak, masustak eta olango igalitxoak eta sustarrak emongo dauskadaz yanaritzat, mamia ta gatzura, eta auntzari eradoski, eta artzuloa izango dok ire seaska; eta gudari ta gudaltegiburu izateko aziko aut, (Alde dagi).

III AGERLEKU.--ERROMA. Guztitarikoentzako Leku.

TITA aurrera, euren mokoetan izkiak dabezan geziak dakazala; akin batera MARKA, LUKI GAZTEA, ta beste aiton-seme batzuk, arranbelakaz.

TITA.—Erdu, Marka, erdu: -senideok, au da bidea. I, mutiko, orain ikusi beor yoagu arranbela erabilten ire terbetasuna; aiko, eztok utsik egiten, artez yoak elburura. Terras Astraea ieliquit. Oroitu egik, Marka, yoanik dok no a, igesi yok no ak. Zuon lankietara zuok, yaunak. Zuok, senideok, itsasoa arakatzen eta sareak egozten yoan-

go zarie; ba-ledike zori onez zuok zuzentzecx itsasoan goatzea; eta orrailiño an be legorrean baño zuzentza gelagorik ezta... Ez; Pulbi ta Senporni, zuok egin bear dozue oncxko au; zuok atxurtu bear dozue landara-atxurrez eta atxurrez, eta lurraren erdian barruren urratu ta sakondu: gero, bein Pulta'ren alderdietara elduazkero, arren dagitzuet nire eskari au eraon dagiozuela ari; zuzentza ta Iaguntzazko eskari dala esan egiozue, *ia* eskari ori Andornika zarraren aldetiko dala, Erroma esker txarrekoan naibageak astindu ta lurreraño iñarrosi daben Andornika zarraren aldetiko... Erroma ori, Erroma ori!... tira, tira; errukarrl egin zindudazan, ni onan gogor artu *ta* narabilenaren alde erriaren autarkiak emon edo emonazo nebazanean... Zoaze, bai, zoaze, eta, arren, zur egon guztiok, eta ez itxi arakatzeka guda-itsasontzirik: ba-ledike inberadore gezto onek no a emendik itsasontziz bida'i izan izatea: eta olangorik yazo izatekotan, alperrik litzakez gure gedarrak zuzentza-eske, senideok.

MARKA.—Pulbi ori, ez ete dok yazokune astun ire osaba zindoa onan burua galdurik eta zer difion ezlakiala ikustea?

PULBI.—Orrexegaitik, yaun, ainbeste ta ainbeste dagoku egunez eta gabaz orri arduraz yaramotea, eta al dogun bestean gogargiízea, aldiaz osakairen bat lortu-arte.

MARKA.—Senideok, osapk'e bagako dira orren naibageak. Gotarrakin bat egizue zuok, eta gudu apentzallez zigortuko dogu esker txarreko Erroma, eta Saturnin saltzalleari be apenduko gatxakoz.

TITA.—Ze barri, Pulbi? Ze barri, nire yauntxook? Trikitxik egin dozue no akin, ala?

PULBI.—Ez, ene yaun on; baña su-Iezatiko Apentzarik gura ba'dozu, izango dozula dirautsu Pulta'k: Zuzentzea'zko, aren ustez, andera ori zeruan dago, Yupiter'en otseintzan, edo beste noubaiten eta, orregaitik, nai ta nai ez bein beinean aren begira egon bearko dozula.

TITA.—Bere geroagoz irain egiten daust ak. Beko osin gorira yatsi ta an rnurgilduko naz, eta no a orpoetatik eldula Akairon'dik atera... Marka, txaraka baño ezkozak gu, ez zedro garrastarik; ezkozak gizon azurrandirik, Kikolopa'n neurrikorik; baña metala, geia, Marka, metala edo geia galtzaidu, azkenengo ariraño, bai oríxe, baña orraitiño be, gure bizkarrak yasan al dciben baño sakatuago: eta, ez lurrean, ez su-lezan zuzentzarik eztagonazkero, zeruari eskatuka yautsaguk, eta yainkoal eragln, gure irainen ordea emoteko Zuzentzea andik ona bera bidali dagiskuen. Tira, eldu lanari. Arranbelari on augu i, Marka (Geziak ba-.nctntzen dautsez), "Ad Jovem", itzako au: beste au, "Ad Apollinem"; "Ad Martem", nitzako au; autstj au, mutiko, Pcxla'rentzako: Merkuri'ntzako, beste au; Saturna'ntzako au, Kal, ez Saturnin'entzako, gero: axe-begirantza yaurtiten be on izan az i. Asi adi, mutiko. Marka,yaurtin nik aginiu dagiskadanean, Nire itza-arren, edertosko idatzi dot izen-erreskada au: yainkorik bat be ezta gelditu eskatu etxakonik.

MARKA.—Senideok, errege-yauregirantza yaurtin zuon gezi guztiak: inberadorec! minduko dogu bere arrokerian.

TITA.—Yaurtin orain, yaunak. (Ycrurtlten dabez geziak) Eup! ori, ori, Lulci! Virgo'ren altzo-altzoan yo dok, mutiko kutun; Pale'ri yaurtin egiozak orain.

MARKA.—Yolas langO yolasa ízan da au, ene yaun: Pulbi'k bere gezia yaurtin dautsanean, Zezenak, asarre-sumindurik, adarkada langO adarkcidea emon dautso-ta, Aria'ren adar biak erregs-yauregira yalgi dira; eta aik an nok idoroteko inberaioreno zitalaz bestek? Barre egin dau no ak, eta ak bers ugazabari emon bear leuskiozala, utsik egiteka, esku-agiriízat esan dautso Mairuari,

TITA.—Ba! edertosko doaku zer au: zori ona emongo al dausk Yaungoikoak, yaun orri!

Ergel aurrera. otzaran uso bi dauzalo.

Barriak doguz, zerutiko barriak! Marka, etorri dok bidaria. Ze barri dakak, txotxo? Idazkirik ez ete dakak? Izango ete yoat zuzentzarik? Zer yiñok Yupiter'ek?

ERGEL.--Ba! Yupiter'ek? Urkamendi edo eskegitegi-egileak? eskegiteko abea ostera be lurrera eratsi dauela diño ak, datorren asterarte eztala eskegi bear gizona-ta.

TITA.—Baña nik itanduten dauskadana zera dok, zer yiñok Yupitsr'ek?

ERGEL.—Ai ene, yaun! nik eztot ezagun Yupiter; eguño nire bizian eztot edan akin.

TITA.—Ori yoagu, zital? Ez az i bidari, als?

ERGEL.—Bai, nire usoak ekarteko bai, yaun; besterik ekarteko ez.

TITA.—Ba! ez ator zeruiik, ala?

ERGEL.—Zerutik! Ai ene, yaun, eguño enaz eldu ara: Yaungoikoak ez al dau gurako ni orren ausaríi izaterik, nire gaztearoan zerurako biderik artzeko. Ba, erri zearentzako epaitegira noa ni nire useakaz, nire ssaba

\a Inberadorearen gízon baten arteko auzia atontzeko.

MARKA.—Ba, yaun, orrako ori yatzu egokien zure itzaldia egitekoj eta zure aldetik inberadoreará e.mon dagiozalg grrek berorran usoak.

TITA.—Esaidak, gauz ete az I inberadoreari gatzagaz itzaldirik egiteko?

ERGEL.—Egia esateko, yaun, nire bizían enaz gauz ízan eskerrik asko esateko,

TITA.—I, yauntxo, ator ona; ez egik imini atxa. kirik, akiakularik gsiago, ire usoak inberadoreari emon baño: neure bitartez izango dok zuzentzea aren eskuetatik. Geldi or, geldi or; bitartean, autso diru au ire egikizunaren aldarako, Ekazuez idazkortza ta idazkura... I, yauntxo, eskaririk emon ete dagikek gatzagaz?

ERGEL.—Eai, yaun.

TITA.—Orrazkero, aiko emen itzako eskaria. Eta agana eldu adinean, eldu-ala belaunhikatu egin bear dok: gero, oñean mun egin ari; gero, irs usoak emon; eta gero, ire sariaren begira egon. Enok izaugo ni igandik urrin, yaun; adorotsu egik egiteko au, gero.

ERGEL.—Bai orixe, yaun, nlre eskuetan Itxl ori.

TITA.—I, yauntxo, aiztorik ba-dok, ala? Erdu ona, dakusadan. Aiko amen, Marka; batu egik itzaldiagaz batera, ik eskeko apalaren antzeko itzaldia egin dok-eta; eta bein orrako ori inberadoreari emondakoan, yoik nire atea, eta eralgi, esan egidak ak diñona.

ERGEL.—Yaungoikoa Iagun bekitsu, yaun: egingo dot orrako ori.

TITA.—Erdu, Marka, gaioazan. Arraikit Pulbi. (Alde dagíe).

IV AGEHLEKU.--ERROMA. Errege-yauregiaren aurrea.

SATURNIN, TAMORE, DIMITIR, KIRON, Andíkiak, eta beste batzuk aurrera; SATURNIN

TITA'k yaurtindako geziak eskuan dauzala.

SAT.—Ba, yaunak, onango irainik! eguño ikusi izan ete da Erroma'n inberadorerilc onan zapaldurik, ostikoperaturik, kezkaturik, aurrez-aurre eupada eginik, eta zuzentzea artez eginda, onan ezetsia izan danik? Ene andikiok, ba-dakizue zuok, yainko altsuak dakisnez, or erriaren belarrietan marmarburrundadaka daragoioen gure bake-ausla ta nasleok gora-bera, eztala ezer be yazo, Andornika'ren seme gogalditsuai lege bardina ezarri izana baño. Eta ari aren naibageak, naibagearen naibagaz, burutik eragin ba'dautsoe, onenbesteraño artegatu bsar ete gabez aren urteerak, aren kasketaldiak, aren amorruak eta aren mingostasunak? Eta ak orain zerura idazten dau, aren irainen ordearen eske: ikusi, Yupiter'entzako da onako au, Merkuri'ntzako, beste au; Apolon'entzako, irugarren au; guda-yainkoarentzako, laugarren au; odi-antzeko idatzi gozo izan be oneixek Erroma'ko etxartebideak zear egaz iiilteko! Zer besterik da onako au agure-batzarraren aurka idatzi iiainkorrak idatzi ta zabaltzea baño, eta gure zuzentzarik-eza dalakoa edonon axatutea baño? Ez ete da, ene andikiok, txantxeta ta gogaldi merke-erraza onako au? Ori egitsa ta Erroma'n zuzentzarik eztala esatea biak bat dira. Baña, ni bizi ba'nadi, laidoontzalto eztira gauz izango estalgarritzat, naiz aringarritzat aren zoro-aldi irudituak: bestera, ak eta arenak yakingo dabe zuzentzea bizí dala Saturnin buru-argiagan; eta lotan ba'lego zuzentzea, ak iratzarri be iratzarri egingo dau-ta, zuzentza asarreak bizirik dan zinkideturik ausartienari be burua moztuko dauiso.

TAM.—Ene yaun txerakor ori, ene Saturnin kutun ori, nire biziaren yaun eta yabe ori, r.ire gogaketaen agintzaía ori, baretu zadiz, arteak artu egizuz, eta yasen egizuz Tita'n adinaren utsak, bere seme adoretsuekaitik dauen naibagearen ondorenak, aik galtzeak ain sakon zauritu izan dau, ba, a, eta aren biotzean zauratzak itxi dautsoz; bestera, nasaitu egizu *a* bere alaketa errukarrian, zutzako ezespenokaitik Erroma'ko gizonik beeratuen, zapalduen, eta zindoen ari auzirik ezarri bagarik, (Bere kitean). Bai, ba, onan zuritzalia agertuko da edozelan Tamore zurzurra: baña, Tita, aragi bizi-bizian ukutu aut nik, eta odola dariola ago: orain Aron zur ba'dadi, dana dago yareita, ezta ezertxo be galdu, egotzi dau itsasontziak Gingurea uretara itsasatean, kaiean...

Ergela aurrera.

Kaxo. lagun on! Guri itz egin gura dauskuk, ala?

ERG.—Bai, orixs, inberadoretzako inberadore ba'zora.

TAM.—Inberadoreno, inberadorearen emazte nolc ni, baña arago yagolc inberadorea.

ERG.—Agana nator. Yaungoikoak eta Estepan Deunak egun on emongo al dautzue:

idazkt bat eta uss bi dakatzudas emen. (SATURMIN'ek badirakur idazkia).

SAT.—Srdu, atera egidazue au emendik, eta bertatik eskagi egizue.

ERG.'—Zenbal diru, ze eskupeko emongo daustazu?

TAM,—Tiruk, yccuntxo, eskegi egín bear augu i.

ERG.—Eskegi! Andera Miren-arren. Bear onerako ekarri dot, orrazkero, nire iduna! (Alde dagi, yagonda).

SAT.—Irainon ezeskor eta yasan-ezin! Zitalkeri itzal bardin bagako ou yasan eta epez yasan bear ete dot? Ba-dakit nik nondik datorren asmo au be: yasan ete daiteke onako au, aren seme etoiak, azpiyaleak, nire anaiearen erala ziranak, legez ilik, nire erru ta bitartez oker sakaildu izan ba'litzaz lez? Tira, eroan emendik tatarrez, uleetatik elduta, zital au: ez adinek, ez omenek eztau izango emen berarizko legerik, lege berezirik. Irri arro onegaitik, neu izango nok ire erala; maltzur, luki zoro zirtzil ori, ni andi egiten lagun izan intxatan ori, Erroma ta ni ire esanera erabiliko gindukazalakotan.

EMILI aurrera.

Ze barri dakak, Emili?

EMILI.—Iskilloetara, yaun, iskilloetara! eguño eztau izan Erroma'k orretarako bide ta zegaiti geiagorik! Batu dabez indarrak Gotarrak; eta guiari adoretsu ta tildur bagazko gudaritaldetzarraz, eta emengo ondasunak goatzeko asmoz, Andornika zarraren seme Luki gudalburutzat dabela, bide-arloak iruntsiaz datoz; eta zemaika dator a, ordea emonaz, azazkatuaz, eguño Koriolan'ek egin ebana baño bape gilxiago ez egiteko.

SAT.—Luki gudari trebea dok dotarren gudalburu, buruzagi, ala? Atximurka ta usika egiten yaustak barri onek; eta burua yausten, makurtzen yatak, lorai leiagaz lez, naiz ekatxak lurrean eratzandako bedarrari legetxe: bai, orain asten yakuz urreratzen naibaga ta ezbearrak: a dok erri zeak ain maile dauena; neuk entzun yautsat erriari olangoak esaten, erria oartzeka, ni eurak ezagutzeka, etxartebideak zear ihili nazanean, erruga erbesteratu zala Luki, eta arein guraria euren inberadore Luki izatea izan dok.

TAM.—Zegaitik izan bear dozu bildurrik? Ezta sendo zure uri au, ala?

SAT.—Bai, baña Luki'n alie dagoz uritarrak, eta yagi eginge dira nire aurka, ari lagun egiteko.

TAM.—Errege, inberadoreri dagokiozanak bediz zure gogaketak, zure izenari dagokionez. Lausotzen da eguzkia aren aurrean eltxoak egaz egiten dabelako, ala? Izten dautse arranoak txori t:;ikiai abestuten, eta eztautso yaramonik be egiten aik orrako orregaz esan gura dabenari, ba-dakialako bere egoen itzalaz berak noz-gura geldituazo dai. ksla arein txorrotxio mengelezko eresia; zuk be beste orrenbeste egin zelnke Erroma' ko uritar geldlgorr-aldakorrez. Argitu egizu. orrazkero, zure fciotza: eta izan be, yakizu, inberadore orrek, neuk liluratuko dodala Andornika zarra itz eztiagoz bai, baña bai kaltegarriagoz be, amuzkia arraiñarentzako, eta irusta (sekulebedar) lorsa ardientzako dan baño, bata amuzkia yan-ala zauriturik, eta bestea yanari gozoz usteldurik gelditzen da-ta.

SAT.—Bañu ak eztautso eskatuko bere semeari gure alde.

TAM.—Egingo dau ak, Tamore'k eskatu ba'dagio; eta izan be, urrezko aginduz leundu ta bete daiket aren belarri zarra-ta, aren biotza ia ara sartu-ezina ta aren belarriak gor ba'litzaz be, aren biotzak eta aren belarriak, bitzuek egingo dabe nire miñaren esana. (EMILI'ri) Kire aurretik zoaz zu; ordeazko ta geznari izan zakiguz: inberadorea Luki adoretsuakin itz egite-eske dagola esaiozu, eta batzar-lekutzat aren aitaren etxea bera izentau egizu, Andornika zarrarena.

SAT.—Emili, zintzo egik geznaritza au: eta ak, bere buruaren segurutasunagaitik, bolrik eskatu ba'dagi, baitzat berak zer-gura eskatzeko esaiok.

EM.—Zeatz egingo dot zure agindua. (Alde dagi).

TAM.—Orain yoango naz Andornika zar agana, eta dodan trebetasun guztiaz baretuko dot a, Luki arroa Gotar gudazaleen artetik atera dagidan, Eta orain, inberadore kutun, biotz-argitu zadiz ostera be, eta nire asmoetan ito ta lurperatu egizuz zure bildurrak.

SAT.—Zoaz, ba, zori onerako, eta arren egiozu. (Alde dagie).

V EKITALDI

t AGERLEKTJ.--Errema'tik urreko ^elaíak.

LUKI ta Gotarrak aurrera, arratz edo danhor eta íkurrinekaz,

LUKI.—Aintzako gudari ta nire adiskide zintzook, Errorna anditiko iiazkiak arturik nozue, eta areitan agiri da zelango gorrotoa dautsoen inberadoreari eto irrikitzen dagozala gu an noz ikusiko. Orrazkero, andiki zindook, zuon goi-izenen neurriko ta autorla izan zadize, arro ta egin yatzuezan irainak yasan-ezln; eta Erroma'n zetan edo atan okenik egin ba'dautzue, alango iru azazkaldi artu egizue,

I GOTARRA.—Beñola gure bildur-ikara izan eta orain gure nasaitasun danaren, aren egite andi-ospatsu-zindoak esker txarreko Erroma'k ezespenik eta mukerkeriiik iguingarrienaz ordaintzen dautsazanaren, Andornika zarraren eta zarragandiko aldaska adoretsu-martzal ori, uste osoa izan egizu gugazi zuk gu nora eroan, ara yarraiko gatxatzuz, udako egunik beroenean euren nagusiak bedartza loratuetara daroezan erla akulukariak legetxe, eta Tamore askarri gaiztetsiari bereak eta erdi emongo dautsaguz.

GOTARRAK.—Eta oirek esana berbera diñogu geuk be orrekin batera.

LUKI.—Eskerrik csko apalik, bai orri, bai zuoi guztioi be. Baña nor dator emen, Gotar gazte-mardok bidea erakusten dautsala?

Gotar bat aurrera, bere Semetxoa besoetan dauen ARON dakarrela.

II GOTARRA.—Luki gallen-ospatsu ori, gure gudarietatik baztartu egin naz lekaretxe ondakin erdi-yausiri begirada bat egiteko asmoz; eta niie begiak an yosi-yosi eginala yausi-aginik dagon etxean, bapatean, orma baten aldamenean, ume-negarrak entzun dodaz; eta bertatik entzun dot ume-negarrari zelan norbaitek onan asarre egiten izan dautsan: "Ixilik, yoputxo baltz, erdia nire ta erdia ire amaren azan ori! Ire koloreak salatu ezpa'indu noren seme azan, izateak ire amaren antza bakarrik emon izan ba'leusk, zital, inberadore izan intzatekean i: buña zekorra ta beia, biak, esnea aña zuri diranean, bein be ebcoek sortzen txal ikatz-antzekorik. Ixilik, zital ori, ixilik". Onantxe alakatzen izan yako seintxoari, "Eta izan be, uste ongarri dan Golargana eroan bear aut; eta *ak*, i inberadorenoaren seme azala yakin dagianean, maite-maite izango au ire ama-arren". Onetan, nire ezpatea aterata, ganera yoan natxako oni, otoz-otoan beingoan goatu dot au, eta ona ekarri dot, gizon onegazkoa zuk zeuri eder yatzunez dagizun,

LUKI.—Gotar singarri ori, ixerrena bera dok ciu soñez yantziia, Andornika'rl aren esku ona kendu, moztu eutsana; au dok zuon inberadsrenoaren begíal pitxi iruditu yskena; eta emop dago orren lízunkeri bero-goriaren igali zakaira. Esaik, yopu begi-urdin, nora eroan gura izan dok azten dagon ire txerren-arpegiaren irudi ori? Zegaitik ago ixilik? Gor az, ala? Ez; itzik be ez? Begitendun lokarri bat, gudariak; zugatz onetatik eskegi egizue, eta orren aldamenean orren sasiknme ori.

ARON.—Ez egin ukuturik mutikoari... errege-odoleko da au.

LUKI.—Aitaren antzekoegi, iñoz on Izateko... *Umea* eskegi egizue Ienen, orrek bere semea beso-ofiak luzatzen eta luzaturik ikusi dagian, orrako ori aitaren biotza minduteko ta austeko izango da-ta. Zurubi bat ekadazue. (Zurubia dakarre, ta aren burura igonazoten dautao ARON'i).

ARON.—Luki, yareizu umea, bai, eta inberadorenoari eroan egiozu nire aldetik. Onako cra egin ba'dagizu, eurak entzutea lagungarri be lagungairi izango yatzun zer arrigarriak erakutsiko dautzudaz: orrako orí gura ezpa'dozu, yazoko dana yazo, nik eztot itzik geiago egingo... asperkundeak, azazkatzeak, ostera, ondatuko al zabez guztiok!

LUKI.—Ariaik: eder ba'dakit ik esango dokana, biziko dok ire uroea, eta artuko yoat ori azteko ardurea.

ARON.—Eder ba'yatzu! Ba! seguru zagoz, Luki, zure biotza mindu ta ausi-ausiko daue-Ia nik esango dodanak; eta izan be, erateez, neska-muskiltzeez, eta sakailtzeez, gau iluneko egiteez, egite askarriez, okerrerietarako zinkidetza ta egiuneez, etoikeriez, zitalkeriez, eurak entzuteak tamal emon, baña edonori erruki emoteko lez egin izan diranez itz egingo dautzut: eta onako zer guztlok nikin obiratuko dira, nixe semea biziko dala zin ezpa'dagizu.

LUKI.—Ustu eglk ire gogoa: umea blziko dala dirauskat.

ARON.—Zin eglzu bizike dala au, eta orduan asiko naz,

LUKI.—-Nor-arren zin egingo yoat, ba? Ik eztok sinisten yainkorik: ori olan Izanik. nolan sinistuko dok Ik zinik?

ARON.—Eta zer nik sinistu ez-arren? Izan be, nik eztot sinisten-eta: bañs, orraitiño be, zu yainkozale zareana ba-dakit-eta, eta zuk zure barruan yakinkidetza deretxon zera, eta ogei bat Aitagurendar asmakeri ta egitarau ba-dozuzala ba-dakit-eta, olango zerak zeatz eta arduraz beteten ikusirik zaudaz-eta, orregaitik estututen zaudaz zin egitera:,.. izan be, ba-dakit nik ergelek edozein aletz edo uskeri artzen dauela yainkotzat eto yagoten dauelo orrako yainko-arren egiten dauen zlna; orretarako ta orregaitik zin eragin gura dautzut:... orrazkero, ba, dana dala zuk gurtzen dozun eta lotsea dautsazun yainkoa, yainko axe-arren zin egin bear daustazu yarei, azi ta eziko dozula nire semea: ostantxean ezebe eztautzut iragarriko.

LUKI.—Nire yainkoa-arren be zin dagiskat egingo dodala orrako ori.

ARON.—Lenen, yakUu, inberadorenoskin izan dodala seme au.

LUKI.—Emakume aren likiskeriaren ase-ezinaren ase-ezina!

ARON.—Ba! Luki, onako au goi-maitasunezko egite baño etxatzu nigandik bertatik entzungo dozunaren aldean. Aren seme biak izan ziran Basen eran ebenak; aik moztu eutsoen miña zure arrebeari, eta aren aragigarbitasuna lizunkeriz loitu, ta aren esku blak moztu \a a iñusi ebenak, zeuk ikusl zendunez.

LUKI.—Zital askarri-askarri ori! iñustea deretxok orrako orri, ala?

ARON.—Ba! izan be, a ikuzi, moztu, ta apaindu egin eben aik, eta orrako zer ori egin ebenentzat apainketa-lan atsegingarri izan zan.

LUKI.—Basati-basati ori, zital abere ori, ez bardinik, ez antzekorik eztokan ori!

ARON.—Bai, izan be, neu izan nintzan arein irakasla; euren amagandik dabe aik lera zantar ori, seguru be seguru, besteai irabazten dautsen kartea bestean seguru; aik euren odolzalekeria, ostera, nigandik ikasi dabela uste dot, eguño zezen-burura egin izan dauen txakurrik yatorren nazan onegandik. Tira, nire egiteak bediz autorla, ni zergarri, zeren-gei nazan ikusteko. Neuk erakutsi neuntaen zura anala! Basen'en gorpua etzanik egoan arako zulo marrolsu alarako bidea; neuk idatzi neban zure aitak ídoro eban idazki a eta erregeno ta aren seme biakin itundurik, bat eginik, neuk ostondu neban arako idazkian aitaturiko urrea: eta zer ezta egin, zutzako negar-bide danlk, nik sn nire gaiztakeriaren ukututxorik egin Izan ezlodanik? Nik egin neban iruzurginarena zure aitari eskua ebagi yakonean; eta bein aren eskuaz yabetu nintzanean, agandik alde eginda, barreka iztenak eginaz, nire biotzak berak izten eginik gelditu nintzans orma-itzekarro zear kirikatu neban, eta aren eskuaren alderako bere seme bien buruak ebazala ikusi neban; oartu nintxaken, ikusl nebazan aren negarrak, eta ain gogei barre egin neban-eta, nire begi blsk arenak bestean negar-darioka egozan: eta lnberadorenoarl yolas edo olgeta onen barri emon neuntsanean, pozaren pozez ia larritu egin zan a nik eralgi neuntsonaz, eta barrien alderako ogei mosu emon eustazan.

GOTARRA.—Onangorik! arpegia bape gorritu bagarik esan ete daikek onako guzti au?

ARON.—Bai, txakur baltzek legetxe, esakereak diñonez.

LUKI.—Ez ete dok tamalik, garbairik egite askarri-gorrotagarriokaitik?

ARON.—Bai, olango milla egin ezagaitik. Oraintxe be gaiztetsi egiten dot, askarritzat dot agiriko okerrik egin izan eztodan egUna, eta orraitiño be gitxi dirala uste dot nire gaitzespenaren barruan sartzen diran egunak: esaterako, gizonen bat eran, naiz olangorik ezean, aren eriotzea asmau; neskaren bati garbitasuna galduazo, naiz orretarako bídeak asmau; errugeen bat galatu, nik egindako zina yan, adiskide biren artean areria gorria sortu: yente beartsuren abelgorriak sakabanatu ta arei idun-azurrak ausi; mandioai eta bedarrigar-metai su emon gabaz, eta arein yabeai euren negarrez itxungi dagiezala suak agindu. Sarrltan atera izan dodaz nik gizonen gorpuak euren obietatik, eta zutunik imini izan dodaz arein adiskide-adiskideen atetan, adiskideon naibagea ia aterturik eta agorturik egoanean be; eta arein narruetan, zugatzen aza. lean lez .nire aiztoz Erromarren izkiz irarri izan dot onako au: "Ez al da ilgo zuon naibagea, ni ilik egon-arren". Ba! milla zer ikaragarri egin izan dodaz nik, norbaitek eulia erango leukean bestean gogoz eta nasal; eta beste ezek eztaust tamalik, bk>« tzetiko tamalik emoten, alango beste milla egin-ezinak baño.

LUKI.—Eratsl eglzue ortlk tsterren orl, bertatlk •skegia Izatea langO eriotza blgungozerlk eztau *Izan* bearr-eta.

ARON.—Txerrenik ba'da. eurefcrriko al nrote, blsirik betiko sutan erre nadln. su-lezan zu nire lagun izatekotan, «n zuri nire mln mingots-zorrotzaz elorrie gorriak emoteko bakarrikl

LUKI.—Yaunak, Itxl egiozus orri agoa, ala eztagiala Itzik geiago egin.

Gstarretariko bat *aurteta,*

III BOTARRA.—Ene yaun, zuk zure aurrera ar. tu dagiiula gura dauan Irroma'Uko geznari dozu or.

LUKI.—Batorrela ena.

EMILI aurrera.

Ondo etorria augu, Emili: ze borrl dakok Errs. ms'lik?

EMILI.—Luk! cndikl, ta suok Ootarres nausL nausiok, nire bltartes agur dagltzue guztíoi Eiroma'ke Inberadoreaki sta iskílloakaz zatozala ba-dakialako, zure sitarenean olkarrekin autu-mautuen bat eukitea gura ta eskatzen dau ak, eta zuk eskatu dagiozuza. Ia zure baiak, eta orraks orrelk bertaUk bldaliko dautzuzala diño.

I GOTARRA.—Zer diño gure gudalburuak?

LUKI.—Emill, nire aitarl ta nire osaba Morka'rl emon dagitsezala baiak inberadoreak, eta yoango gara gu. Goozen. (Alde dagis),

n AGERLEKU.—"'ITA'n #txe-aurrea.

TAMORE, DIMÍTIR eto KIRON aurrera, kakomarroturik.

TAM.—Onan, iñondiko soñeko ilunokaz elduko naz Andomika'gana, eta akin bat egin eta ari egindako irain gorrstagarriak arteztuteko beetik bidali naben Apentzaila nazala esango dautsat, Yo aren lantegiko otea, or diñoenez an egoten ei da iñondiko azazkatzs gorriak asrrjau eta ausmer egiten-eta; Apentzallea etorri dala esan egiozua akin bat egin, akin itundu, ta aren arerioak nastuta, ondatuta Izteko. (Atea yoten dabe).

TITA ourrera. goltegisn.

TITA.—Nor *áa* niro gogaketa ta ausmerr-aldiak kezkatzen daragoiona? Zuon marroen bat ete da niri atea idiglazotea, olan nire erabagi itzalak manatu ta ezereztu, ta nire asmo-asmaketa guztiak alperrik izan dadizan, ala? Oker zagoze: eta izan be, ikusi eraen odolezko marraz idatzita nik egin asmo dodana, eta egin egingo dot idatzita dagona.

TAM.—Tita, zukin itz egiteko etorria nozu,

TITA.—Ez, eztautzut itzik bat be egingoi zelan emoteko gatzik nik nire itzaldiari, itzaldiari bizitasunik erasteko eskurik eztot-eta? Aldea emongo neunskizu olan; bego, orrazkero.

TAM.—Itz egingo zeunskit, ezagun ba'ninduzu.

TITA.—Enago ni burutik egínda; ondoegi zazagudaz nik: epatondo errukarri au da autorla edo lekuko, marra gorriok dira lekuko; naibaga ta kezkak egindako tximu» sakonok diro autorla; egun aspergariia ta gau kezkatsua dira lekuko; lekuke edo outorla nalbaga guzUak, gure inberadoreno arrotzat, Tamore altsutzat zazagudazala: nlre beste eskuaren billa zatoz, ala?

TAM.—Yakizu, agure goUlun, enazala ni Tamore'rik; zure arerio da a, ni, ostera, zurs adiskide: Apentzalla nozu ni; sulezako errege-erritik bidalia, zure biotzean mokoka dozun saiaren usikadak arintzeko, zura arerioai aspertze Iango aspertzea eginaz. Yatsi zakidaz eta ondo etorria emoidazu ludi, mundu argitsu onetan; erate ta eriotzaz itz egizu nikin; ezlago artzulo ta leza arrorik. naiz barrandatze, kirikatze-lekurik, ez ilunbe itsurik, naiz ibar eta sakosta lañotsurik, an erate odolzalerik, naiz neska-Ioítze igulngarririk ostondu ledikenik, nik an be Idoroko dodazalaren bildurrez; eta euren belarri-belarrietara esan eglezu nire Izen Ikaragarria... Apentzalla, okerrerigin guzUak lauorritan iminten dauzana.

TITA.—Apentzalla zauguz, ala? Eta nire areriontzako elorrio izateko bidali zabez, ola?

TAM.—Bai, orixe nozu; eta, orrazkero, yatsl ta ondo etorria emoidazu.

TITA.—Otseintzaren bat egidazu ni zuganatu baño len. Ara, zure aldamenean dagoz Eiatea ta Neska-loitzea; emoidazu orain segurantzaren bat Apentzalla zareala z:u..., aiozkadaka eran egizuz orreik, naiz zure burdiaren txarrantxetan zatitu ta zeatu egizuz; eta orduan yatsi ta zure burdi-eroala izango natxatzu, ta ludia zear brinean yoango naz zukin. Buráirako zaldi yator bi zuíendu egizuz, ikatza baño baltzagoak, zure burdi apentzallea ortik zear axean eroateko, ta eroleak euren zador, leza ta artzulo errudu-

netan idoro daglguzan: eta zure burdia ataíikoen burus bete dailnean ni burditik yatsl, ta bur-txiirinken aldamenean oñez yoango naz txaka-txaka, oñezko otsein loz, egun ssean, baita sorkaldeko Iperion'en (7) yagilekutik *a* llsasora yausten dan Ieku bererañno be; eta egun oro, egunean egunsan egingo dot egikizun nekor au, Neska-loltzea ta Eratea ementxe manatu ta deuseztu ba'dagizuz.

TAM.—Nire agintzagin dira oneik, eta nire lagun.

TITA.—Zure agintzagin yatzuz orreik, ala? Zeintzuk izen daroez, ba?

TAM.—Neska-loitze ta Erate; orretarlkoez «spertzen diralako daroez izenok,

TITA.—Ene Yaungoiko on! orreik bai ba-dira ínberadorenoaren semeen antz-antzeko! eta inberadorenoaren! Baña guk ludi onetako gizonok, fcegi kaskar, zoro, eta zerak oker artzen dabezanak doguz. Azpentzalla kutun ori, orain baí, orain ba-noatzu orra; eta esku bategaz besartean artzea askotzat ba' dozu, beragaz estutuko zaudaz laster be laster. (Alde dagi goitegitik).

TAM.—Egoki yako orrsn zoro-aldiari guk alkarrekin onako Itunben au egitea: nik orren zoro-aldikaicri dagokienik zer asmauko, orren gogaldiari dagokionik nik zer asmauko, zuok *a* baieztu, a ederretsi, ta ari intsigi zakioez, orain ezetariko ezpai bagarik eta sendo Apentzallatzat nau-ta: eta ori sustar bagako bere uste sinisbera orretan dagon artean, berorren seme tuki'rí deituazotera bultzauko dot ori: eta nik a oturuntzaren baten segurutzat dodan bitartean, ak alangorik uste bagako fcide maltzurren bat edo beste asmauko dot Gotar gogalditsuok ortik zear zabaldu, sakabanatzeko, naiz, gitxienez, aik aren areriotzeko. Begira, emen dator ori, eta bereari ekin bear dautsat nik.

TITA aurrera,

TITA.—Luzaro eaon izan naz ni bertanbera itxita, eta zugaitik izan da dana; ondo etorria, asarre aorri bi'.íu'garri ori, nire etxe errukarrira: Neska-loltzalla ta Erate, ondo etorriak zarie zuok be: zuok bai ba-zarie Inberadorenoaren eta aren semeen antz-antzelco! Zu bai ba-zengokez itzalez apain eta txairo, Mairu bat ba'zendu zure aldamei>ean; ezin emon ete dautzu su-leza osoak be alango txerrenik? Ondo dakit, ba, nik, inberadorenoak ezin erag'm dautsala bere soñari batera ta bestera, Mairua bere laguntsat eztauela; eta zuk gure erregonoaren eginegineko irudirik euki gura ízatekotan, egoki litzakizu alangoxe txerrenen bat zukin euki. lea: baña ondo etorria, etorri zareanez be. Zer egiteko gara?

TAM.—Guk zer egitea gurako zeunke, Andornika?

DIM.—Erakulsi egidazu eralaren bat ela bein. goan egingo dot arena.

KIRON.—Erakutsi egidazu neska-loilzeren bat egin dauen zilalen bat, agaz aspertzeko bidalia nozu-ta.

TAM.—Millaka erakutsi egidazuz zuri okerrik egin dautzuenak, eta guztiekaz aspertuko naz.

TITA.—Begira zuon inguruko Erroma'ko elxartebide zantarrak, eta zeu langoxe gizonik idoro dagizunean, Erate on, sastakaia sartu agiozu; erala da orrako ori» Zoaz zu be, Neska-loitzalla on, beste orrekin, eta alanbearrez zu iango besterik idoro ba'dagizu, sastakaia sartu egiozu; neska-loitzalla yatzu orrako ori. Zoaz zu bs orreikin, eta inberadorearen yauregian dozu erregeno bat Mairu bat laguntzat dauena; eztozu *a* ezagutu-ezinik, zeure neurriko da-ta; eta Izan be, zure antzeko da goitik beraño ta keetik goraño; arren, eriotza gogor-zakar bana emon egiezue; gogor eta zakar izan dira bai nitzako, bai nireentzako.

TAM.—Ikaskizun onik emon dauskuzu: egingo dogu orrako ori. Baña, eder ba'litxatzu, Andornika on, tuki'ri zuk dei egítea, Luki zure seme adorelsu-adoretsuari, bera buru dala Erroma'iantza Gotar gudazalezko gudaritaldetzarra dakarrenari, eta otoruntzea eglten zure etxera datorrela agindu ba'iagiozu ari, inberadorenoa ta aren semeak, inberadorea bera, ta zure arerio guztiak ekarriko dautzudaz nik; eta zure agindu ta gogara maknrtu ta belaunbikatuko dira aik, eta aikaz azazkatuko dozu zuk zure biotz asarrea. Zer deretxo Andornika'k asmo oni?

TITA.—Ene! Marka, nire anai! dei egiten dausk Tita gotilunak.

MARKA aurrera,

Oa, Marka txerakor, Ire Illoba Lukí'gana; itaunka idoroko dok *a* Gotarren artean; datorrela nigana esaiok, eta dakazala berakln Gotarren nausi-nausi batzuk dagozan le-

(9) Iperion ilzak "goitegian yoa$_n$ docma" esan gura dau, eta ítz au Eladatarrak eguzklari ezarri eutsoen, bere egunoroko ibiltaldia goiiik zear egiten dcruslciko.

kuan bertan gudariak geldituazg dcgizala agindu egiekj esaiok inberadore ta inbsradorenoa be nirean yatsko dirala, eta ak berak be uikin *yan beat* dauela. Nigazko ire maitasuna-arren egidak onako au; eta ak nire agindua bete dagiala, bero aita zarraren biziu aintzakotzat ba'yok.

MARKA.—Egingo yoat orrako ori ,eta bgingoan nok atzera emen. (Alde dagí).

TAM.—Ba-noa orain emendik nire egikizunera, eta neukin daroadaz nire esanekook be.

TITA.—Ez, ez, Neska-loitzalle ta Erate nikin gelditu dadizala, edo, ostantxean, atzera dei egingo dautsat nire anaieari, ta Luki izango da aspertzalla bakarra.

TAM.—(Bere semeai bakai'rík) Zer diñozue, mutilak? Emen gelditu gura dozue ni inberadoreagana yoan, eta guk aurreztik asmauiiko marroa zetara eldu dan ari eralten dau-Uadan bitartean, ala? Amore egiczue orren gegaldiari; eri nora, ara zoaze, bigun eta txeratsu itz egiozue, etu orrekin zagoze ai atzera ona etorri-arte.

TITA.—(Bere kitean) Guztiok dazagudaz, ni orreik zorotzat, burutik aginikotzat etsiarren, eta euren asmoetan euretan eurak baño urrinago ta lenago elduko naz. Su-lezako txakur zakar askarri bi ta euren ama dirct.

DIM.—Andera, zoaz zeuk nozgura: emen itxi gagizuz.

TAM.—Agur, Andornika; ba-dea erain Aspertzallea, zure arerioai azpíkeriz marroa iminten.

TITA.—Ba-dakit areikszkoa egiten zoazana,-eta agur. Aspertzalla kutun. (TAMORE'k alde).

KIRON.—Esaiguzu, agure orrek, ze egikizun ezarriko dauskuzu?

TITA.—Ba! egikizunik aske dot zuontzako, Erdu onu arin, Pulbi, Kai eta Balendin!

PULBI ta beste batzuk aurrera,

PULBI.—Zer gura dozu?

TITA.—Ezagun ete dozak oneik biok?

PULBI.—Inberadorenoaren semeak, nire ustez, Kiron eta Dimitir,

TITA.—Bai zera, Pulbi, baj zeraf oker be oker ago i... Erate dok buta, Neska-loitzalla dok bestearen izena; eta, orruzkero, estu egizak, Pulbi txeratsu: -Kai ta Balendin, egotzi errei zuon eskuak...: sarritan entzun izan daustazue onango orduuren begira nagola. eta eldu yatak orain: orrazkero, seguru estu egizuez; eta agoak itxi egiezuez, gedarrez asi ba'dadiz (Alde dagí. PULBI'k eta besteak estu egiten dabez KIRON eta DIMITIR).

KIRON.—Geldi, zitalokl inberadorenoaren seme gara gu.

PULBI.—Eta orrexagaiiik daglgu guk agindu yakuna, Estu-estu lotu orrein agoak, eztagieia zelango dauik be itzik egin, Ondo esluta ete dago ori? Ondo ta estu lotu, gero.

TITA ANDORNIKA aurrera osíera be, LABINE' kin: ak aizto bat eta 0nt2i.bat dakazala.

TITA.—Erdu, erdu, Labine: begira, estuta dagoz zure arerioak, Yaunak, itxi egiezuez agoak, eztagistela itzik egin; baña entzun dagiezaia nik esan dagiaazan itz ikaragarriak. Kiron eta Dimitir, zitaiok, alangook! Amen zuok lupetzes loitu, zikindu dozuen iturria, uda argi au zuon neguz nasturik. £uok eran zenduen no onen senarra; eta zuon uís zautar agailik ezarri yaken eriotzaepaia no onen neea biri, eskua moztu eusten niri, eta ganera irri ta barre egin; zuok, biotz bagako azpiyaleok, etoiok, gogorkeriz eta indarrez moztu zeunísoezan no oni beronen esku biak, onen mifía ta eskuak, eta miña ta eskuak baño maiteago yakon ortanik txikienik bagako bere neskagarbitasuna. Zer esango ete zeunkie, nik itz egiten itxiko ba'neuntzue? Zital-zizirinck, lotsea-arren etzintzakeze gauz izango errukirik eskatzeko. Entzun, askarriok! zetariko elorrioa ezarteko asmo dodan. Esku bakar au gelditzen yat oraindik zuoi burua moztuteko, Labine'k bere epatondoz zuon adol errutsudun ontziari deutsan bitartean. Ba-dakizue zuon ama nirean nikin oturuntza egiteko dala: entzun, zitalok! eio ta auts egingo dodaz zuon azurrak, eta zuon odol eta orrako autsagaz ora egingo dot, eta ora ori estalgitzat iminita, pastel bi egingo dodaz zuon buru lotsagarriekaz; eta zirrilda ari, emagaldu ari, zuon ama askarriari, Lurra ba'litz legetxe, berak sortua bera iruntsiazoko dautsat. Onango oturuntzara dei egin dautsat nik ari, eta au da a asetuko dauen yakia; eta izan be, Pilomel'ek baño zantarrago erabili izan dozue nire aiabea, eta oni zuok eginaz Progne baño be gogorrago aspertuko naz: gertau orain zuon idunak. Erdu, Labine (Idunak moztuten dautsez) artu odola: eta orreik il dadizanean, orrein azurrak auts ze-ze egiten yoango naz, eta zirin gorrotagarri onegaz nastauko dot; eta ora orretan egosi dadizala orrein buru zirtzilak, Erdu, erdu, zoli bebil bakotxa oturuntza au gertatzen: eta oturuntza au arako Kentaur' enu bufio erruki bagekoago ta odoltsuago izango al da, nik irriki dodanez... Onan,

enan, ekarrl barrura btrtatik, sukaiáarlizea j neuk eginge dot-eta, eto gerturik eukiko do- j *áa%* orrein ama atzera daionenerako. (Álde dagie, gorpuak daroezala).

III AGERLEKU.-Erroma. Txozna bat TITA'n Baraizetan, mai ta guztl,

LUKI, MARKA, ta Gotarrak aurrera, ARON atxilo dakarrela.

LUKI.—Marka oiaba, pezik nago nl, nlre aitaren gogoa ni atzera Erroma'raizea dalako.

I GOTARRA.—Eia zukin gu, yazcko dana yaze.

LUKI,—Ouabu en, zure ardurapean erbestetar Balti au, katamotz goseti au, txerren askarri aui ezlagiala izan yan-edarúk, estu egizu beso-oñetatik, inberadorenoaren aurrera. aren ibilera zantarren autorlatzat eroan dagigun-arte: eta gure adiskidezko indar ostondua indartsurik asko izan dadilkt, gero; biidur naz bu, jnbemdoreafc eztauela asmo onik gutzako,

ARON.—Txerrenen batek gaitzespenak eta biraoak esango al daustaz jxil-muxilka belarrira, eta lagun izango al yat, nire miñcik ebagi, esan, eralgi, ustu dagiau nire biotzak lertu-bear gorrian barruan dauen gorroto ustel-atsitua!

LUKI.—Ken akit emendik, txakur biotz-gogor, amurratu ori! yopu aakarri ori!... Yaunak, lagun zakioez nire osabeari, ori bereneru eroaten, (Alde dagie Gotarrak ÁRON'ekin. Turut-ots argí barruon),

Inberadorea ur dala diragarre iurut-otsak.

SATURNIN eta TAMORE aurrera, EMILI, Tirbun, Agure-batzarreko la beste batzukin.

SAT.—Oslera! ba-dau ortzeak eguzki bat baño besterik, ulaí

LUKI.—Zer onik dakartzu zeure burua eguzki deitzeak?

MARKA.—Erroma'ko inberadore ta nire illoba, asi zadize zuon geiaz alkarrekin itz egiten; bare ta nuaai erabilteko dira auzi-mau iúok. Gerturik dage oturuntzea; elburu goragarrirako gertau ta zuzendu lzan dau Tita zoli-arduratsuak oturuntza au. bukeruko. maitasunerako, alkarrekin ituntzeko ta Erroma'ren enerako: orrazkero, arren, urreratu moira, ta artu zuon yarlekuak.

SAT.—Orixe eglngo dogu, Marka. (Zaamiolaen otsa. Maira yezarten da leguntzea).

TITA aurrera, aukaldarl antzez yantzita, LABINE, buru-estalgiaz, LUKI GAZTEA, ta beste batzuk. Mai-ganean lmlnten dauz TITA'k yanari-ontziak.

TITA.—Ondo etorria, ene yaun argi; onde etorria, erregeno blldurgarri; ondo eiorriak suok, Getar gudazaleok; ondo etorria, Lukij eta ondo etorriak, guztiok; eturuntzea urri ta tjdre izan-arren, zuen urdalluk zegaz b*»» izangg dozue; yan egizue, arren; ekin.

SAT.—Zegaitik zagoz olan yantzita, Andoruika?

TITA.—Seguru egon gura izan dot zure gurentasunagazko ta zure inberadorenoagazko leruk ondo tu zeatz gertaurik egon dadizan; orregaitik nago onen yantzita.

TAM,—Esker oneko ta zordun gatxatzuz, Andorniku on.

TITA.—Eta izan be, ba-zintzatekez, zure goikotusunuk nire biotzaren barri ba'leki. Ens yaun inberadore onako au ebatzi egidazu: ondo egin ete eban Birginj urduri-artegeak bere alabea bere eskuz eran ebanean, neakato *a* indarperatua, orbandua, tu neskagarbitasuna galduazoa Izan zalako?

SAT.—Bai. Andornika.

TITA,—Zegaiiik, yaun altsu?

SAT.—Bere lotsaria-arren neskatoa ezin bizí edikelako, eta olubea aurrean izateak aitaren naibageak borriztau egiten ebazalako.

TITA,—Altsu, indartsu, ta eragikor da zegaiti, ori; eredu, len-egin, eta bai eder baño edsrrago nitzako, zori txar-ixarreko onentzako, beste ainbeste egiteko: il zadiz, il zadiz, Labine, eta il bedi zure lotsaria be zukin batera (Era,n egiten dau LABINE):eta zure lotsariagaz batera jl bedi zure aitaren naibagea be!

SAT.—Zer egin dozu, berezkoaz besterake la biotz-gogor orrek?

TITA,—Eran egin dot orregaitik ixuri dodazan negarrak itsutu naben ori. Eirgini izun zan bsstaan errukarri nozu, etu ezbear uu egiteko milla bider zegaiti geiago dot ak baño...; eta egitakoa eginik dago orain.

SAT.—Ostera! neskatasuna galduazo eutsoen, ala? Esaiduzu nor izan zan orrako orl egin ebana,

TITA.—Eztozu yan gura, ala? Eztau bozkatu yura zure goikotasun orrek, ola?

TAM.—**ZegalUk eran dozu olan «ute alaba bakarra?**

TITA.—**Nik eztot ©ran; Kiron eta Dimitlr izan dira a eran ebenak: aik muskildu, aik lorrindu, alk mutxikindu eben a, eta miña moztu eutsoen; eta aik izan ziran ciri oker guzti au egin eutsoenuk.**

SAT.—**Zoaza, ta bertatik ekarri egizuez aik onu,**

TITA.—**Ba! or dozuz aik biak, pastel orretan egosita, arein aniak. aik sortu tu «zi izan dauzanen aruyia yanik, yunuri bikaintzat yan Izan dauzanak; egia da, gero, egia; nire aiztoaren ayo zorrotza da orrako orren autorla.** (Eran egiten dau TAMORE).

SAT.—**II adi, burutik egindako zori txarreko ori, ire egite askarri orregaitik** (Eron egiten dou TITA).

LUKI.—**Ikusi ete lei serneren begik bere aita ©dol-ustuten? Autso, egiteari egitez, eriotzeari eriotzez erantzuten yautsat.** (Eron egiten dau SATURNIN. Iskanbiila itzala sortzen da LUKI, MARKA ta euren aldekoak TITA' neko zurubi-burura ígoten dira).

MARKA.—A**rpegi zurbild.un gizonok, erri ta Erroma'ren semeok, ekatx indartsuren axeboladak egaz doazan egaztiak sakabanatzen dauzan lez, gedarrez eta iskanbillaz zabaldu ta sakabanatu zarienok; itxi egidazue, «rren, guri sakubunutuokuz ostera be eskutada estu baturik zelan egin zuoi irakasten. soin-atal ausiok ostera be euren soñari erasten; Erroma bere buruaren ondatzalla izan eztadín; errege-erri altsuak buru-makur omen egiten dautsoen Erroma'k lotsagarrlro bere buruarena egin eztagian, bertanbera itxita ta etsita dagon erbesíeturen antzera. Baña zartzaro otzaren ezaugarriok, adinak nire arpegian egindako tximurrok, oarr-ikusi ta ikasiaren aulorla begiragarriok ezin bultzau ta eroan ba'zauez nire itzai yaramotera,,.** (LUKI'ri) **Ik ilz egik, Erroma'ren adiskide muíts orrek; bein beñola, sntxiñate atun, gure asabeak, gure aurretikoak, maitasunez gexorik eta dana belarri egokon Dide'rl, itzaldi lango itzaldiz, arako gau necjUrgarri ta su uts zanagazko ipuña eralgi eutsonean legetxe, bai, Elade'tar marrotsuak otoz-otoan Pirama Erregeren Toroi uriari ganeratu yakozan gau negargarriazko ipuña eralgi eutsonean legetxe, esaiguzu nor izan dan guri belarriak liluratu dauskuzan gure arteko Sinon, naiz nor izan dan arako asmakizun, arako tramankulu kaltegarria gure Torei eni, gure Erroma oni nok ekarri isan dautsan, eni au ©rtdaturik iz-**

teko. Ezta suarrizkorik, ezta galtzaiduzkorik be nire biotza; ezta ezin dot eralgi, ezin dot azaldu gure naibaga mlngota guztia be, ostera, itoko dabe nire itzaldia negarr-ibaiak, eta itzaldi ou eten egingo dauste, egin-eginean be beronek niri zuok yaramotera geien eragin bear Ieuskitzuen aldi berean, niri zuon erruki txerakorra iragarri ta erakutsiaz. Emen dozue gudalburu bat, beronek azaldu ta eralgi dagitzuela yazoa; zuon blotzak in-Izirika. larri ta negarres yarriko ttira oui entzun dagíozuenean (10).

(10) Marka'k emen diñona crituteko, urrengo zerak eukizuz gogoan, irakurria:

a) Bederatzí urtecm eraso ta eraso ibiii izan-arren, Eladetarrak ezin benderatu ízan eben Pirama erregeren Toroi uri arresíduna eta, azkenean, Odiseu zur-maltzurraren onuz arotzai zurezko zalditzar barru-arroa eragin eta aren barruan Eladetar gudaririk mardoen eta adoretsuanak ostondurik, Toroi urira bidali eben txirrinka-ganean, Athene yainkonoarentzako esku-agiri edo oparitzat, eta eurak aberrira igesiarena egin eben, egitez Tenedos izaroan euren ontzidia ostondurik.

b) Eladetarrok Sinon izeneko gizon marrokeritsu bat itxi eben euren guda-lekuan, Toroitarren eskuetaratu edikenean Toroitarrai esateko, Eladetarrak bertanbera itxi ebela Toroitarren aldeko zalako. Guzurrik asko esan eutsen Toroitarrai Sinon'ek, eta aik sinistu egin, aren negarrok eta alaketak zirala-ta.

d) Labur esateko, Sinon'eri sinisturik, arako zcilditzarra Atbene'n yauretxera eroan eben, ori eginetik okerrik txikienik etorri ledikekienaren bildurrik eta susmorik baga. Eroan ba' eben eroan eben. Gaba berandutu ta Toroitarrctk oeratu ziranean zalditzarraren sctbeleko gudariak, euren iskilloakaz, urten ziran andik eta Toroi uriari su emon eutsoen lau alderdietatik. Ordurako Tenedos'en ostonduta egozan Eladetarrak be euren ontzíetan atzera, gau ilunez, Toroi-ondoko legorrera etorriak ziron-eta, urira sartu ta lendik bcrrruan ziranakin batera iñondiko triskantzea egin eben Toroitarren artean, uria errauts eta gorpumoltso ikaragarri biurturík.

g) Toroí'tik bízirik ald'e egíndakoen artean Enea cturkítzen zan, eta au, luzaroan ortik zear aldarrai eta itxasoaren yostallu ibilirik, alango baten Kartago'ra eldu zan. Dido edo Dide zan Kartago'ko erregeno, eta Enea'ri txera ta ondo etorri argia egin eutsan eta bai laster cdkarrekin maitamindu be, **Enea'k**

LUKL—Orrazkere, bs, entzula sindook, yakizue Kiron eta Dímiiir «skarriuk izan zirala gure inberaiorearen anaisa eran ebenak; eta ailt izan zirala gure arrebea aragizkoz laidotu ebenak fce: arein okerreri íguingarriagaitik burua moztu eutsela gure anaiai; gure aitaren negarrai irri ta barre egin eutsela ta marrokeri zantarrez moztu eutsoela Erroma'ren auzia burutu ta aren arerioak ilobiratu ebazon a esku yatorra. Azkenez. errukirik areun bagarik ni erbssteratu. Erroma'ko ateak nire utzean itxi, ta ortik zear bidall ninduela, laguntza-eske Erroma'ren arerioetara yoan-bear gorrian ni iminita; eta aik, Gotarrak, nire negar zintzoetan ito eben euren areria, ta euren besoak zabalzabal eginik, besartean estutu ninduen ouren adiskidetzat; eta yakizue, erbesteratu onek neure odolez yagon izan dodalu Erroma'ren ona; eta arerioaren ezpatamokoari Enoms'ien bulanetik baztairera zirríst eraginik, neure soin geldigorrean sartu izan dodala. Ai ene! ba-dakizue ni enazala artoberorik, *ez* ni: nire zauratzak izan datekez onako onen autorla, eurak izka, mutu izan-arren be, nire azalbena egin-egina ta egi utsa dala, Baña, bego! itzaldiaren atitik urrinegi yoan nazala uste dot, nire irabazitxoak emen aitatuaz: ene! azketsi, parkatu nagizue: eta izan be, aldamenean adiskiderik eztogunean, glzonok geuk goratu oi dogu guro buiuu.

MARKA.—Orain da nire aídia, iíz egiteke, (Laguntzako baten besoetan dagon Umea eskuz erakutsiz) Begira ume au. Au da Ta. more'k argitaratu ebana; sinisterik bagako Mairuaren seme, ezbear eta zori txarron asmatzalla ta eratzallearena; bizirik da Tita' nean orrako zítal ori, gaiztetsi izan-arren, onako au egia dala uutoriu izan dadin, Zeuok ebatzi orain títu'k ebaneníz zegaitirik 0sko okerreri ezin-esan, ezinyasan, naiz tizi dan gizonek yasan-aleko baño aundiago diran okerreriokaitik azazkatzeko. Orain egia entzun dozuenazkero, zer diñozue zuok, Erromarrok? Okerrik egin izan ba'dogu, erakutsi egiskuzue zetan egin dogun, bai, eta Andornikatarren ondakin apurrok, alkarri eskutik elduta, gakusazuezan leku onetatik buruz bera egotziko doguz gure buruak orra bera, eta gure buruekaz arri latzak yota, gure garaunak or zabalduko doguz eta guztion artoan egingo dogu gure etxe ta etxaldearena. Ilz egin, Erromarrok, itz egin; zuok esan eta agindu ba'dagieskuzue, ara, aikar eskutik arlurik, or gozuez Luki ta ni or bean opildurik.

EMiLI.—Erdu ona, erdu, Errema'ke gizen b#giragarri ori, eta eskutik artuta ekarri eiskuzu samurkiro gure inberadorea, erriak bere inberadoretzat ago batez ori izentauko dauela ba-dakit-eta.

ERROMARRAK.—(Ainbatek itz dagie batera) Gora, Luki, Erroma'ko errege ta inberadore!

MARKA.—(Laguntzakoai, eta oneik etxera doaz) Zoaze, zoaze Tita zarraren zorl Ucarreko etxera, eta ekurri egizue artdik Mairu sinisterik bagoko a, aren bizitza zantarraren alderako azazkagarritzat eriotza itzal-ikaragarriren bat ezani dakion.

(GoMegítik bera yasten dira LUKI, MARKA. eta besteak).

ERROMARRAK.—(Ainbaiek) Gora, Luki, Erroma'ko inberadore lerdsn ori!

LUKI.—Eskerrik asko, Erromar zindook: Erroma'ren kalteak osatzeke ta aren zeri txarraren lorratzak be ezerezluteko izango ul da nire agintzea! Baña, erri maitagarri ta maite orrek, apur baterako eperik eta astirik emon egidazu..., eta izan be, nire gizatasunak egikizun naibagstsu bat ezarten daust... orratxoago alde egizue zuok... buña zu, osaba, onago zatoz zu, gorputz-ondakin onen ganera esku-erakutsizko negarrak ixuri dagiguzan, Ene! artuizu nire mosu epel-bero au zure ezpan zurbil eta otzetan ,(Mosu egiten dautso TITA'ri), tantan naibagetsuok iure orpegi edoleztauan, zure seme z'mdoaren azkenengo bear zindo-yatortzat.

MARKA.—Negairen otdainez negar, eta mosu maitekorren ordainez mosu maitakor ezarten dautzu ezpanetan zuie anai Maika'k: ene! neurri bagako ta azken bagako ba'litz be onuko onein kopuiua, ordoindu egingo neunke orraitifio ke!

LUKI.—Erdu ona, semetxo; erdu, etdu, eta gugandik ikasi egik negorrez urtuten: maite maits induan i ire aitaitak: amaika bider yantzazo euskan iri bere belsun-ganetan, bere abestiz lo arrazo euskan, aren bular maitakorra ire burupeko zala; umaika zor eraltji dausk ak iri. ire umearoarl egoklozan bere gora-bera ta atzera-aurreak eralgi ta azaldu eutsozanean.

i) Enea'k alango batan, Dide an bertanbera itxita, Itali'rako bidea artu eban, eta nozbaiten Lati'ko lurraldera elduta, Erroma uria sortu eban, eta orregaitik Erromarrak euren len-gurasotzat, asabarik argientzat eben Enea ori.

iBraki erregallik be, ume mallaberari dagekionez, ixuri egizak tantantxo batzuk ire iturri aamurretik, gizatasunak eskatzen dauena dok orrako ori-ta; berezko dok-eta: kide ta lagun izan bear yoek adiskideak naibaga zorrotzelan eta zori txarretan; agur egiok; ilobiaren ardurapean itxik; egiok txera ori ta agur egiok.

LUKI G.—Aitaitatxe, aitaitaíxo! biolz blotzez il gurako neunke, zu barriro bizitearren!,,, Ene Yaungoikoa, negarraren negarrez ezín dautsat Ilzik egin; íto egingo nafae negarrak, nire agea idigi ba'dagit.

ARON aurrera ostera be, Yagoleakin.

EMILI.—Andornikatar gotilunok, amaitu egizue zuon zori txarrekazkoa: ebatzi egizua zantarr-askorri onegazkoa, yazokune itzalon sorlzalla izan dan onegazkoa.

LUKI.—Lurpean sartu egizue bularreraño, ta gese-egarriz il dadilla; olan dagola, tftu gsdar eta orroa dagiala, gosearen gosez yanari-eske: iñor lagun, naiz erruki bu'dakio, il egingo da orrako ori, egin dauen okerragaitik. Au da gure epaia: einen gelditu zadize zuotatik batzuk, ori lurpean estuteko ardurea artu dagien.

ARON.—Enel zegaitik izan bear ete dau izka osarre gerriak, eta ger, aspertzeak? *Enaz* ni umerik, ez orixe, nik egin izan dodazan okerren damu edo garbairik arren zirtzilez iragarteko: eguño egin izan dodazanak baño amar milla egits txarragorik egingo neunke nire buruaren yabe ba'nintz: eguño nire bizi osoan egite on bat bera bukarrik egin izan ba'dot bs, biotz bietzez dot aren damu, aren garbai,

LUKI.—Adískide on batzuk ereaa dagiela emendik inberadorea, eta lurra emon dagioela aren aitaren ilobian: nire aita ta Labine bertatik sartuko doguz gure etxekoen il-oroigalluan, Katamotz gorrotagarri, Tamore orregazko, eztogu eginge iletarik, eztau yantziko gizonek ileta-yantzirik, ezta izango ezeturiko il-yoala-otsik orren obiratzean; olangorik egiteka, piztioi etu okela-egaztiai egotzi egiezue orren gorpuai piztiena langoxe ta erruki bagako izan du no erreii bizitzea; eta, olan danazkere, berorrek be ezlau bear errukirik. Begiratu egízue Aron'i zuzentzea egin dakion. Baitz askarriari, agandik etorrl dira gure zori txar guztiak euren asieratik onagiñokoaketa: beiu ori egindakoan, asi ta ekingo dautsagu lege-erria atondu ta arteztuten, yazoak langO yazokunek bein geiago ondatu eztagian. (Alde dagie).

Salta'n 1962-IV-2S'gnean.

LAN ONETAKO ÍUSKAL-ITZ GITXi IZAGUNAK

ALDARRIKATU,—Errfari jserbait agirian Iraga. rri.

ALTXOR.—Metal, naiz pitod karuak, aaii zeroiaríko pilo, naiz ondasuntza andi.

ARRAI.—Alai, gogargi, "alegera".

ARRANDI.—Entzute, ospa andi.

ARERI, ARERIA,—Arerlotasuna. Itz au bein bakarrik entzun izan dot erriaren agotan. Onati'n, Zañartu'ko Mugartza etxeko Merzedes izeneko anderari entzun neuntsan esakera onetani "Arerian esan ba'litxako lez", Eta uk erabillen geiari gagokozala, aren esangurea zera zan, "gogo txarrez, asmo txarrez. gorrotoz esan ba'litxako lez".

BURESTUN.—Itz barri au asmau ebanak ondo tu egoki asmau ebanik ezin ukutu, "erestun" edo "elastun" erri-itzaren arauz asmaua da-ta. Euskal-gaiztoz "koroi", naiz "koroe" esaten dabe or, orregaitik arpegia bape gorritu bagarik,

EGURATS.—Arnasaz artzen dogun zer ikusíezina ta bera dagon lekua.

EORTZI.—Goipuri lurra emon.

ERAIL.—Uazo, erasan esanazo dan legetxe. "Eran" itz zarra be or dogu.

ERESI.—Ots atsegingarri, Euskal-gaiztoz "musika".

GEZI.—Moko edo puntan kako bikotx mokozorrotza dauen burdiñazko, naiz zurezko makiltxoa. Gezia arranbelaz yaurtiten da, zerbait, naiz norbait zaurltzeko,

GOATU.—Atzeman, eskua ezarri. Itz au niardo ta guri bizi da Arratia'n eta Axular'en "GERO" entzutetsuan be agiri da bein beintzaL "oratu" eraz,

GOAKEI.—Goatu ledikean edozer,

GORATZARRE,—Gure atsegina norbaiteri iragorteko egiten doguzan agiriok, aren zer goragarriren bat, naiz bat baño gelago agirian goratzeko,

GURENDA.—Garaitia ta garaitia dalsko norboiteri egiten yaken goratzarrea.

IKUZI.—Uraz, naiz beste zirinez garbitu. Itz au oralndik antxiña eztala Bizkaya'n mar. du! eta guri bizi zan, baña, 2ori txarrez, Orain "Garbi-ikuzi" esakeran, eta "Irukutzl" bere ondorengoan bukurrik bizi du, ník dakidanez.

INTXUSA.—Euskal-gaUioz »rdl landaia, erdi zugatz oni, txaraka onl "sauku" ereisten dautsee Arratia'n.

IZKA.—Itzik ezin egin dauena,

KUNKUN.—Guk "Bapo" esaten dautsagun pizti narru-latz, sabeltsu, ago-zabal eta eguraldi sargori-euritsu epelak pozarren abestl biguna eragiten dautsanari Oñati'arrak "kunkun" esaten dautsoe»

MINTZO.—Itz, berba, itzaldi, izkuntza.

MINTZATU.—Iiz egin, berba egin,

MARGO.—Euskal-yaiztoz "kolore". Itz au dala-ia emaikatxo eztabaida ba-dabil or bazíorretan. Gure euskerea lorrinízen beren-beregi dabíltzala dirudien baízuk itz oneri itzalezko gorrotoa dautsoe ia "tripalak" emoten dautsoezala esango zeunke. Oñati'n, Zuiillaga auzotik San Prudentzio bitartean, ni mutiko nintzanean, koloregei-ola bat egoan zarren zarrez erdi-yausirik, eta orren izena MAHGOLA zan, baña erriak FANDEHIA eresten sutsan, eztakit zegaitik, erríaren itz ori nondík letorkeanaren susmorik be eztotetu.

MOKO.—Euskal-gaiztoz "punta", baáa "mokotza" itzean bízi da oraindik. Gure aitabiixiamabitxiak, Igaratz edo Paskoa-aldian iruluu moko edo puntu ta erdian arrautza bat, naiz geiago eban ogia emoten euskuen esku-agiritzat, eta ogi "mokotza" ereisten dautsagu Arraíia'n, ogi orrek moko edo punta asko dauzalako.

ONDIKO.—Bizkaya'n sortu ta bizl dana itz au, baña eztakit Bizkaya'n sortua danik seguru, Axular'ek be ba-darabil-eta. Ezbear gorri esun gura dau.

ONINDAR.—Ekanduak, naiz zerbait eginaren eginak zer onerako eraoten dauen erreztasuna da "onindarra".

OREIN.—= Basauntz.

ORTZE.—Goian izarrak agiri diran lekua.

OTURUNTZA.—Yataldi, ala_n be ugaria ta ya. ki onduna bu'du.

TXIRO.—Beartsu, ezeuki, aberats eztana.

UKAR.—Beartsuri iagungarritzat emoten yakon zera, yateko, soñeko, naiz bestetariko.

YASAN.—Gogoko etxakun zerbait eroan gure ganean,

YAURRI.—Euskal-gaiztoz "gobernau".

YAUZL—Oin biak eragita, soña leku bateUk bestera aldcttu. "Saltu", ta "Saltu egin".

ZEMAI.-—Norbaiterl zer txarren bat egingo dautsagula lragarrl.

ZERGA.—Erriarl ezarten yakon ordainkizuna, erriaren diru-kutxak orniduteko.

ZINKIDE.—Zerbaiterako, ta geien baten okerrerako zin-bldez alkar artzen dobenetoriko.

ZINKIDETU.—Zin-bidez alkar artu ta itundu.

YAKINKIDETZA.—Itz au neuk asmaua da "kontzentzi" dalakoa iragarteko.

YAINKONO, ERREGENO ta abar.—Yainko eme, errege eme eta abar iragarteko. NO ta TO itzak arlu dodaz orretarako eragingeitzat.

ZURUBI.—Euskal.gaizton "eskellara".

PERIKEL TIRO'KO ERREGE

(PERICLES, PRINCE OF TYRE)

PERIKEI TI RO'KO ERREGE

(PERICLES, PRINCE OF TYRE|

ANTZERKI ONETAKO LAGUN ANTZIZTUAK

ANTIOKA (Antioehus), Antloki'ko Errege.
PERIKEL (Perlcles). Tiro'ko Erregs.
ELIKAN (Helicanus) I
ESKAN (Escanes)) biak Tiro'ko Andlkl.
SIMONIDA (Simonides), Pentapoli'ko Errege.
KELON (Cleon), Tarso'ko Yaurla,
LISIMAKA (Lysimachus), MiUlene'ke Yaurls.
KERIMON (Serimon), Epeso'ko Andiki.
TALLARTA (Thaliard). Antioki'ko Andikl.
PILEMON (Philemon), Kerimen'en Otstín.
LONIN (Leonine), Dunixe'ren Otsein.
Sudalburu (Marshal),

Emagaldutegi-buru bat; ets aren otsein BOULT,
GOWER, Abeslaritzarena egiteko,
ANTIOKA'ren Alabea.
DUNIXE (Dionyza), KELON'en emazte.
TAIXE (Thaisa), SIMONIDA'ren alaba.
MARINE, PERIKEL eta TAIXE'n alaba.
LIKORIDE (Lychorida), MABINE'n iñude.
DINE (Dlanaj".
Emagaldu-buru bat,

Andiki, Andera, Zaldun, Aiton-seme, Itsastar, llsas-lapur, Arrantzale. ta Geznariak.

AGERLEKU.-An-orr-emanka. alnbat lurraldeton.

I EKITALDI

GOWER aurrera.

Antioki'ko errege-yauregiaren aurrean.

Beñolako abesti abestuten etorri yatzue antxiñako Gower, bere autsetatik bizturik, gizonen makalkeriak aldean artuta, zuon belarriak poztu ta zuon begiai atsegin emoteko. Abesti au yaietan, lauren-aldietako gabetan eta erri-yaietan abestuten zan; eta yaunak eta anderak irakurri izan dabe euren egunetan, euren onerako: gizonak onindartsu egitsa da bere elburua; et bonum quo antiquius, eo melius (1).

Orain, zurtasuna ta yakituria elduago diran aldiotan yaioak ba'zarie, ontzat artu egizuez nire neurtilz edo bertsook, eta gizon zar onen abestia entzuteak zuon biotzai atseginik ba'Iekorkie. bizi egin gurako neunke nik, nire bizia zuon alde atertu (a agortu al izateko, argizai-argia atertu ta agortzen dan legetxe. Antioka Andi eretxonak iiasi ta sortu eban Antioki uri au, bere egolekurik beinentzat; Siri osoko uririk ederren eta txairoen au, Nik irakurriko idazleak diñoena dirautzuet: emakume batekin ezkondu zan onako errege au, alango baten II egin zan emakume orl eta orrek erxegerl itxi eutsan ondorengo emea ain guri-bizl, ain argl-txitxari ta ain mosu-eder zan-eta, Yaungoikoak esku zabalez Bere esker edo emaitz guztiak emon eutsazala esan eikean; bere alaba neskatoaganako irrltsa, leia oke-

(1) "0,na, zorrago ta oba" esctn gura dau laterazko esakun-e onek.

na sorlu yakon ailarl bere biotzean, ela senikeria egiteko zirikalu eban bere alabea: Gezto alabea, gezloago aila! noberen semealabarik txarrerako iñok be eleuke zirikatu bearr-elas baña bein egiten asi zlrana eginaren eginaz, ekanduz, obentzat be ez. eben esten orrako ori. Andera obenti aren edertasunak amaikatxo andiki eratorri eban arenera, oe-laguntzat aren billa, ezkonlza-atseginelan alkarrekin gozartzeko: eta olangorik lege-bldea galazoteko, neskatoa berean geldi euki ta aren eske letorkezanai blldurra ssrtzeko igarkizun bat asmau eban erregek, eta igarkizuna ezin igarrl leikena il egingo zala, eta orrako neskato orregaitik batek baño gelagok galdu eban bere bizia, Or grragoan agiri diran buru negargarriak autortzen dabenez. Zuon begiak ebatzl dagiela oraindik ara datorrena, ni zuzen nagonentz ikusi dagizuen, (Alde dagi).

I AGERLEKU.--ANTIO&I. Errege-yauregíko gela.

ANTIOKA, PERIKEL, eta Lagunteakoak cmtrera.

ANT.—Tiro'ko errege gazle ori, ba-dakizu *ze*lango galdu- gordean sarlu zarean zure egikizunaz.

PER.—Bai, Antioka, ba-dakit, eta neskato orren entzute andiaren andiak bijtza ain ausarti egin daust-eta, nire asmo t3 egiteko onetan eriotzea galdu-gordetzal eztot esten.

ANT.—-Ekarri egizue ona gure alabea, emaztegeiz yantzila, Yupiter'ek berak be besartean estutuko leukela legetxe; Lukine'ren agintzaldia baño lenagoko aren sortaldian (2) eurenezko indarrak emon eutsoen edertasun au ari ezkontsaritzat, a non, poza be an izan eiteken. Izarbelen batzar osoa batu zan, agan euren zerik onenak iruteko.

Eres-ots. ANTIOKA'n Alabea aurrera,

PER.—Ara non datorren bera, udabarria legetxe apaindurik, edergarriak bere bendeko, eta orren gogaketak gizonai entzute ona damotsen on-indarren yaun eta yabe dirala! Gorapen-i áazti da orren betartea, bertan iñondiko atseginez besterik ezer ezin irakurri datekena, naibagea ortik betiko erauzia ta ezabatua izan ba'litz legetxe. eta asarre mukerrak iñoz be orren lagun kutun izaterik ezpa'leu lez. Gizon egin ninduzuen, eta maitasuna zuon bende darabll-tzuen yainkook, nire biotzean leia bizia sutu dozuenok, lagun zakidaze, orrako zerutar zugatz orren igalia zelango *A an* ikusi dagidan, edo orretarako aleginetan il nadin; lagun zakidaze, bai, zuon gnrarien seme ta bendeko nazan oni, olango zori ona iritxi dagidan!

ANT.—Perikel erreo-e ori...

PER,—Antioka Andiaren seme izan gura leuken au.

ANT.—Zure aurrean dozu Hesperide lirain au

(3) urrezko igaliakaz, baña ori ukutzea kal. tegarri yatzuna; izan be, eviotzea bestean Itzal-bildurgarri diran iransugeok bildur-Ikara itzala sartzen dauizue, igaliok ukutu eztagizuzan; zeruaren antzeko bere arpegiak dei egin eta zirikatzen zauz onen ederraren ederra begiz begi ikusteko, aingarri danek irabazi bear dauen onen arpegia ikustsko; bañc zu aingarri izateka, zure gangarkeriak au irabazi ta iritxi gura dauelako, oso osorik galdu bearko dozu zuk. Or orragoan dakusazuzan fceñola agintari entzutetsu izanak, zu legetxe ona onen ospeak eta euren leia gorri galbidetsuak eratorriak dirautzue, miñ ixilez eta arpegi zurbilez: izarrezkoaz beste estalgi bagarik autorla ta lekuko yatzuz emen, Kupida'ren guduetan atzenak eraginik; eta onurik emoten dautzue euren eriotza-mosuz. bein bide ori artuazkero, andik urteteko iñor be gauz eztan eriotza-sareetarako biderik ez artzeko ta, artu ba'dozu, bertara baño len Izteko.

PER.—Eskerrik asko, Antioka, nlre ilberatasun auskor-mengelari bere burua ezagutzen irakatsi dautsazulako, ta orko zer ikaragarrien bidez soin au gertou dagidan orreina langoxe izan nadinerako; eta izan be, ispilluarena egin bear leuke eriotzearen oroitzeak, bizitzea arnasa baño eztala ta agan usterík Izatea uste oker baño eztala gurí

(2) Lukine. Sein-egikerako yainkono au yatzu Erromarrak sein-egitaldian crurkitzen z.iran ama ta euren umeen zaindari ado yagolatzctt ebema; yainkozko emagin, beraz.

(3) Eladetarren mitu-iztiak dirauskunez, Hesperideok Ere edo Here yainkano nagusiaren urregorrizko sagarrak yagoten ebezan mendi-neFka ziran. Urrineko scrrkaldeari egozan euren igali-bcrratzak. Erakel'en amabi nekeetatik bat, urrezko sagarrotatik iru ostutea izan zan.

esateko. Orrazkero, ba. nire llburukoa egingo dot, mundu au zer eta zelango dan yakin, zerua euren aurrean ikusi, eta mundu onetako naibaga ta lorrak aragi hizian oarturik, emengo poz ela atsegineiara len bestean eta len lez itzu'irik eztagozan gesoak egin daroenez; orrazkero, ba, onetara dagit nire ilburukoa: edozein erregeri dagokionez, bake zori ontsua izlen, opa dautzuel zuri ta gizon on guztiai; lurrari nire ondasunak, andik etorriak diranazkero; (ANTIOKA' ren alabeari) baña zuri, nire zarean orri, nire maitasunaren su garbi-garbi orban bagea izten dautzut. Onan, ba, Antioka, bizirako, naiz eriolzarako bidea arlzeko gerturik, zartadarik gogorrenaren begira nago.

ANT.—Nire onuari yaramonik egiten eztaulsazunazkero..., irakurri egizu, ba, zure ondorena: eta erabagia arlurik dagonazkero, orrako ori ikakurri ta igarri ezpa'dagizu, ixuri kearko dau zure odolak, zure aurretiko orreik ixuri eben legetxe.

ALABEA.—Orrako orrez beste edozetan zori ontsu izan baño eztozu; orrez beste edozetcm zori ona opa dautzut!

PER.—Txapeldun adoretsuren antzez sartzen naz zaldunketategira, eta zintzotasun eta adorearenaz beste gogaketari eztautsal eskatuko onurik. (Ba-dirakur igarkizuna).

Enozu ni sugegorririk, eta orraitiño be nire yaki
Ni egin eta azi nindun amaren aragia da.
Senar-billa ibili nintzan, eta egikizun orretan,
Maitasun oii aitagan idoro izan neban.
Aita, seme, ta senar maitabera da orrako ori;
Ama, emazte, eta orTaitiño aren ume naz ni.
Zelan ledike olangorik, lagun bi bakarrik izanik?
Bizirik gelditu gura ba'dozu, igarri egizu onako au.
Osakai mingots benetan azkenengo au: baña zeruko alok! gizonen egiteak ikusteko zeruai zenbatu ezin-ala begi emoten dautsezuezanek, zegaitik etxakiez betiko itsututen euren begiak, irakurriak berak zurbiltzen nauen au egia ba'da? (Eskutik artzen dau Errege-alabea) Argi-ispillu lirain ori, maite izan zaudaz len, eta oraindik be maite zengikedaz, ontzi eder-zoragarri ori obenez beterik ezpa'lego: baña esan bear dautzut.„, nastu egiten yataz nire gogaketak; eta izan be, ezta gizon, zindo ta zintzo izan gurarik, barruan obena dagola yakinik, atea yoten dauena. Kitarra lirain zara zu, eta gure ioin-oarmenak *áaa* kitarra orren «ri; sta arioi legezki eresia eragiteko yo egizan gizonak, zerua Iurrera eratsi ta yainko guztiai entzunazoko euskien; baña kiiarra ori zure aldiz-aurretik yota dagonazkero, olango ots zakar-Iatzez su-Iezeak bakarrik egiten dau yantzan. Egia esaleko, ta tenebenetan, bape be eztaust ardura zugaitlk.

ANT.—Perikel errege, zure bizia-arren, ez egizu ukutu ori, orrako ori gure legeko beste atalak bestean galdu-gordetsu da-ta. Amaitu da zure aldia: edo azaldu egizu orain, edo zure epaia artu.

PER.—Errege andi, gitxiri yake begiko euren obenak entzutea; mingarriegi litxakitzu igarkizunaren azaltzea, ni olangorik egiten azartzeko. Bakaldunen eginak dauzan idazlirik leukena, seguruago legoke olango idaztirik or erakustsn itilteka, itxita leukena: ela izan be, aldarrai dabilen axearen antzeko da birresaten dan gaiztakeria, autsa egozten dau besteen begietara, bera zabaltzeko; eta karu da orrako orren ondorena; putz eginda. yoan da axea, eta osatu dira begi gexoak: min egingo leuskie axeari geldituazoteak. Satormendi gar.-borobilak eragiten dauz zerurantza sator itsuak, gizonak zapalduaren zapalduz lurra batuegi dagola iragarteko; eta zeregin orrek galdu, eran egiten dau azpitiko errukarri ori. Lurreko yainko dira erregeak: gaitz- indartsu ba' dira, euren naikeria da lege; eta Yupiter okerreko bideetan ibiliazkero, nor azartzeko oker dabilela Yupiter'eri esaten? Asko da igarkizunaren esan-gurea zein dan zuk zeuk yakilea; eta oba da ixilik eukiaz arindutea, esanaz txarragotzea baño. Guztiak maite dabe sortu-barritan bazkatu ta azi izan dauzan sabela, orrazkero beste ainbeste baimen edo ederretsi emoidazu nire burua maite izateko!

ANT.—(Bere kitean) Yaungoikoa-arren, íre burua al neu! Igarri dau igarkizuna: baña olangorik ezarena egingo dot bein beinean orrekin. Tiro'ko errege gazte, igarkizuna oker azaldu dozulako, gure legearen arauz, zure egunai atzena guk emon al izan-arren, uste onik izan egizu, zurea besteko zugatz onetiko gareanazkero, beste biderik dagokigu-ta: beste berrogei eguneko epea emoten dautzugu; bitartean gure ixilkizuna igarri ba'dagizu, erruki onek darakus gure seme izango zauguzala: ararteraño zure omenari ta zindotasunari dagokionez artuko zauguz gurean. (ANTÍOKA'k, aren Alabeak eta Otseinak alde).

PER.—Era-mera onak bai estali gurako leukiela obena, egina aaalutsaren antzeko da-

nean, antzaz beslo ezer onlk eztauen azalulsaren antzeko danean! Egia ba'litz oker igarri dodala, elitzake seguru zu zure senikeri iguingarriz zure gogoari kalte egiteko aña gezto zareanik; baña, baña zu orain aita ta seme, biak zara, zure alabeagazko besarketa zikinakaitik, olango atseginak ailari bagarik, senarreri dagokoz-eta; eta bere amaren aragi-yala da no ori, bere gurasoaren oea zikinduaz; biak dira suge-antzeko, euren yakitzat lorarik gozoenak izanarren, edena azten dabe-ta. Agur, Antioka! zurtasunak irakasten daustanez, egiterik zantarren eta baltzenak egin-arren arpegia gorritzen etxaken gizonak, egiteok argitaratu eztadizan edozein bide artzetik eztabe zirrist egingo-ta. Dakidanez, oben batek beste baterako zirikatzen dau; lizunkeritik ur dago erailketea, kea sutatik ur dagon bestean: edena ta azpikeria dira obenaren eskuak, bai, eta lotsaria uxatzea, elburu: orrazkero, zure burua garbi eukiteko niri bizia kendu eztagistazun, igesiaz zirrist egingo dautsat bildur dautsadan galdu-gordeari. (Alde dagi).

ANTIOKA aurrera beste bein.

ANT.—Igarri dau ak igarkizuna eta, orregaitik, ari burua rnoztuteko asmoa dogu. Eztau bizi bear ak gure lotsaria ortik zear zabaldu ta' aldarrikatzeko, ezta ak munduari esateko Antioka'k olango oben nazkagarririk egin izan dauela; orrazkero, bertatik il bear dau errege orrek, nire omenak goian irauteko orl yausi-bearrean garata. Nor dago or gure begira?

TALLARTA aurrera.

TALL.—Deiez zagoz nagusi ori, ala?

ANT.—Tallarta, gure etxeko-etxeko augu 1, eta gure gogoak bere egiterik ixilenak be iragarten dauskaz iri: eta gorago eragiten augu ire zintzotasunagaitik. Tallarta, aiko amen edena, eta aiko amen urrea; gorrotagarri yakuk Tiro'ko erregea, eta eran egin bear dok a; eztok zetan itandurik zegaitik egin bear dokan orrako ori, geuk agintzen dauskagu-ta. Erantzun, bai, ala ez?

TAL.—Bai, ene yaun.

ANT.—Asko dok.

Geznari aurrera.

Orren arin zek zakazan esan-ala oztuko al yatzu zure arnas-estua.

GEZN.—Ene yaun, igesi egin dau Perikei erregeak, (Alde dagí).

ANT.—Bizi gura ba'dok, egaz egik aren atzetik; eta arranbelari trebe-oituak begia nora gezia ara yaurtiten dauenez, ez akit atzera iñoz be etorri, "Ilik da Perikel" ezin esan ba'dagik.

TALL.—Ene yaun, nire pistolearen tiro-barruan artu al ba'dagit *a.* arena egingo dot; bai orixe: orrazkero, agur zuri, nagusi orri.

ANT.—Agur, Tallarta! (TALLARTA'k alde) Perikel il-arteño, nire biotzak ezin emon ezetariko laguntzarik nire buruari. (Alde dagi).

n AGERLEKU.-TIRO. Errege-yauregiko leku,

PERIKEL aurrera.

PER.—(Atetakoai) Ezkaizala iñok be kezkatu... Zer dala-ta gogaldi-aldantza au? Zer dala-ta lagun gotilun au, gotilunkeri begi-lauso au onen eten bagako nire lagun egin ete da, ez egun argi-zoragarriz, ez naíbagearen ilobi izan bear leuken gau baketsuz be ordubeteko bakerik be emoten eztaustan gotilunkeri au? Nire begiai deiez eta ate-yoka dodaz emen atseginak, eta nire begiak eztautse yaramonik be egiten, zirrist egiten dautse, eta Antioka da nik bildur dautsadan galdu-gordea, niri emen ak okerrik egiteko aren elburua urrinegi aurkitu-arren; eta orraitiño, atseginaren txebetasunak be ezin dautso pozik ekarri nire biotzari, ezta bestearen urrin-izateak be niri nasaitasunik emon. Aor, ba, onetara da arazo onegazkoa: bein biotzeko bide bagako bildurretik sortu diran biozkadak, kezkea dabe gero euren yanari ta bizigarritzat; eta lenengotan zer yazokoren bildurra baño etzana, gerora azi ta azi egiten da, eta ez al da yazokoren kezkatara biurtzen da... Eta orrako ori yazoten yat nlri be: Antioka Andia, nik ari gogor egiteko ni txikiegi nazana, orren ondi danazkero, ak berak zer-gura egin daike-ta, ni esamesaka nabilela uste izango dau ak, ixilik egongo nazctla nik zin ba' dtagit be; eta alperrik yat ari esatea omengarri yatala a, nik baztuko dodalakoren susmorik ak izatekotan: eta areník besteak yakiteak arpegia gorrituazo ba'dagio, bideak itxiko dauz ak olangorik ezagun eztadin; indcr arerioz estaliko dau gure lurra, eta

guda-indar erakuskeiaz ain andi Irudituko yaku-ta, arrituaren arrituk adore bagarik itxiko d<m gure erria; gogot egiten asi baño !en benderalurik geldituko díra gurs gizonak, eta zigorlurik ari okerrik egiteko amesik be egin eztaben gure bendekoak: oneikanako «rdureak, ez neure buruarsn errukiak, min emoten dautsa nire soñari eta aulduten daust gogoa; eta izan be, euren azpian azlen diran landaratxoak begiratu ta yagoten dabezan zugatz-tontorren antzeko baño *snaz* ni, eta aurreztik zlgortzen dot Antioka'k gero zigortuko leukena,

ELÍKAN eta beste Andiki bstzuk aurrera.

I ANDIKI.—Argitasuna ta nasaitasun oro bedi zure biotz begiragarri orretan!

II AND.>—Eta baketan eta nasai bego zure gogoa gu atzera etorri-arte!

ELIK.—Exilik, ixilik, ene yaunok, eta oarr-ikusi-ikasiari itxi itz egiten. Irain egiten dautsoe erregeri zurikerietan dabilkozanak: eta izan be, obena gora-goraka bidaltzen dauen auspo da zurikeria; txingar baño ezta zurikeria egiten yakona, eta putzak ari beroa ta argi geiago emoten dautsaz; egoki yake erregeai utsak eta akatsak apal eta bear danez ai erakustea, gizon diran aldetik aik be okerrik egin daikie-ta. Emen dozun Zuritzalla yaunak bakea aldarrikatzen dauen bitartean, gudu egiten dautso zure biziari. Azketsi nagizu, parkatu nagizu, nagusi yaun, edo, ostantsean, yo nagizu, eder ba'yatzu; nire belaunak baño asko berago ezin beeratu naiteke.

PER.—Onez beste guztiak itxi gagiezala; baña zoaze itsas-kaira, an ze ontzi ta zetariko zamadunak dagozan ikusten, eta gero erdu ona. (Andikiak alde) Elikan, biotz-biotza ukutu dauskuk ik: zer dakusak nire begirakuneetan?

ELIK.—Betozko asarrea, yaun bildurgarri.

PER.—Olango gezirik ba'dakusk agintaríaren betozkoan, zelan azartzen dok ire miña gure arpegiko asarrea zirikatzen?

ELIK.—Zelan azartzen dira landarak euren yanaria andik datorken zeraa begiratzen?

PER.—Ba-dakik ik nik ba-dodala iri bizia kentzeko alik.

ELIK.—(Beleunbiko) Neuk zorroztu dot aizkorea; zartadea emon baño ez egin zuk.

PER.—Yagi adí, arren, yagi adi. Yezarri adi, yezarri adi: ez az i zuritzallarik: eskerrik asko orrexegaitik, eta ze-uak ez al dau gurako erregeak euren okerrak zuritzen dautsezanai entzun e!a yaramoterik! Agintarirentzako onulari ta otsein egoki azan orrek, ire zurtasun orregaz agintaria ire olsein egiten dokan orrek, nik zer egitaa gurako ete eunke?

ELIK.—Zuk zeuk zure buruari ezarten dautsa. zuzan naibageak epez eta ortetsu ersan, yasan dagizuzala,

PER.—Osagillak lez itz egiten daustak, E!ikan, ikaratzeka euk be artuko ez eukaken osakaia emoten daustak-eta. Entzun egidak, beraz: Antioki'ra yoan nok, euk dakikanez, an, eriotza-zemaipean, edertasun itzala irabazteko ,nire ondorengoak agandik izateko, agintarien beso ta bendekoen poz diran ondorengoak ízateko. Aren betartea nire begiai eder baño ederrago iruditu yaken; ganetikoa, eta ciu agopean nik esan eta ixilik eukiteko entzun dagiela ire belarriak, ganetikoa senikeria bestean baltz: eta orrako ori nik ikasi nebanean aita obentiak enindun yo gura izan, bide bigunagorik artu baño: baña ik ba-dakik oneka ou, zera, blldur izateko dala gizon biotz-gogorrak mosurik emoten ba'dauskae. Bildur ori ain andi egin yatan-eta, igesi egin neban andik, gau errukiorra nire estalgitzat nebala, nire yagola on lirudian gabaren estalpean; eta bein onaazkero, buruan erabili dot yazoa, ta bai yazo ledikena be. Ba-nenkian a biotzgogor eta anker eta odolzale dala; eta gizon gogorkeritsuak emoten dabezan bildurrak eztira gitxitzen, euren urteak baño arinago azi baño: eta ak ba'leu susmorik, eta ba-dau olangorik seguru baño seguruago, nik axetara zabalduko dodala zenbat agintari aintzakogarrík odola galdu izan daben aren oe baltza argitaratu eztadin, orrako susmo ori kentzeko, ak lur au iskilloz beieko yok, eta orrako orren zurigarritzat nik egin dautsadan iraina iminiko yok; nire utsagaitik, utsaren ízenik ezarri bear ba'yakok nik eginari, guztiak yasan bearko dabe guduaren zartadea, guduak errugeri be eztautso yaramoten-eta: euren arteko bat i eu azala, guztiai dautsedan maitasuna-arren, eta ik orrako orregaitik txarretsi ta asarre egiten daustakan orregaitik...

ELIK.—Ai ene, yaun!

PER.—Maitasun orrek loa kendu yaustak begietatik, odola nire mosuetatik, gogaketak ekarri yaustazak burura, eta milla ezbai zelan geldituazo ete negiken ekaítz au, eldu baño len: eta nire bendekoak nasaitzeko bide gitxi nebala ikusirik, agintariren goimaitasuntzat etsi dot euren erruki izatea.

ELIK.—Tira, ba, ene yaun, itz egiteko baimena emon daustazunazkero, argi ta garbi *'tiz*

©glnge dot. Bildur dautsazu Aníioka'ri, eta, nire ustez, zuzen zagoz gizon gogorkeritsuri bildur izatean, ak agiriko guda-bidez, naiz bakarrsko azpikeriz, bizia kenduko dautzula. Orrazkero, zoaz ortik zear bein-beinean, aren asarrea *ia* amorrua aztu dakiozan-arte, naiz Alanbearrak aren biziaren aria ebagiarteño; norbaiten eskuetan Itxizu zure agintzea; nireetan itxi ba'dagizu ,eguna etxako argiari otsein zintzoago, ni zuri izango natxatzun baño.

PER.—Etxoat ire zintzotasunaren ezbairik, ezta bildurrik be; baña ni emen enazan artean ak nire eskubideen aurka zerbait egitekotan, zer?

ELIK.—Lurragaz nastuko geunkez gure odolak. andik sortu ta yaioai gara-ta.

PER,—Orrazkero, Tiro, nire begiai zugandik alde eraginda, Tarso'rako bidea artzeko asmoa dot, eta an yakingo dodaz zure barriak; eta emendik lioakidazan jdazkien bidez eta araura yokatuko dot. Ire ganean izten yoat nire bendekoen onaz izan dodan eta orain be ba-dodan ardurea, ire zurtasunak eta yakiluriak orrenbeste eroan ezinik etxoek-eta. Ire itza yatak asko sinisgarritzat, eztauskat eskatuko zinik: bata austeko kezkarik eztauenak, seguru-seguru biak ausi ta tarrat eragingo yautsek: baña gu biotarik bakotxa bere arloan orren zindo tcs seguru biziko gara-ta, aldiak ezkauz guzurtauko, bendek^ argi-zintzo izan *azala* I, eta ni aginlari yator. (Alde dagie).

III AGEHI.EKU.-TIRO. Errege-yauregiko gela-aurrea.

TALLARTA aurrera.

TALL.—Au dogu, beraz, Tiro, eta au errege-yauregia, Emen eran bear dot nik Perikel Erregea; eta orrako ori ezpa'dagit, seguru eskegiko nabe nire aberrian: ba-da emen galdu- gorderik... Tira ba, oartzen natxako glzon zur izan zala a, eta zerak berezteko buru onik erakutsi izan dau ak, erregegandik zer-gura eskatzeko agindu yakonean, ixilkizunik eleukela yakin gura erantzun ebanean. Orain dakust ba-ebala ak orretarako biderik arean: eta izan be, erregek agindu ba'dagio norbaiteri ziitzil eta dollor izan dadila, bendekotasun-zinaren indarrez a olangoxe izatera bearturik Iegoke-ta... Ixilik! emen datoz Tiro'ko Andikiak.

ELIKAN, ESKAN ela beste Andiki batzuk aurreia.

ELIK.—Nire lagun. Tiro'ko Andikiok (4), eztot uste erregek alde egiteazko garbitasun edo zertzelada geiagorik bearko dozuenik; aren ikurratzez ikurrazturik, eta bere ustea nigan iminírik, ak emon izan daustan ordeazkotza- agiriak argirorik asko difio ibiltaldiren bat egiten yoan dala.

TALL.—(Bere kitecm) Ostera! yoanik dogu erregea!

ELIK.—-Argitasun geiagorik zuok gura izatekotan, a maite dozuenoi agurrik egiteka yoan dalako zuon nasaigarritzat, zertzelaoen batzuk emongo dautzuedaz. Antioki'n zalarik...

TALL.—(Bere kítean) Antioki'n zer?

I ELIK.—Antíoka erregek, -oztakit nik zegaitik-, begitan artu eban eta gorroto artu eutsan; ak beintzat alan uste izan eban: eta oker edo utsen bat egin ebanaren bildurrez eta susmoz, bere naibagea iragarteko, bere burua zigortu gura izan dau, eta bizia minuto bakotxean galdu-gorie gorrsan iminten dauen itasontziratu egin da.

TALL.—(Bere kitean) Tira ba, oartzen naz enabela eskegiko orain, gura ba'neu be; baña a yoanik danazkero, ak igesi izana begiko izango yakola erregsri, itsasoetan galdu dadin. Ba-noa erregegana. Bakea Tiro'ko Andikiai!

ELIK.—^Ondo etorria AnUoka erregegandiko Tallarta andikia.

TALL.—Agandik nator bai, Perikel enegerentzako geznagaz; baña ni legoneratuazkerozuon erregea alde eginik dala yakin dodanazkero, nondik etorri ara eroan bearko dot nire geznea.

ELIK.—Gure ugazabarentzako dcnazkero, eztogu zetan yakin zer dakarren gezna orrek; orraitiño be, Antioka'ren adiskide gara-ta, alde egin baño len, gukin oturuntzarik egingo al dozu emen Tiro'n. (Alde dagie).

(4) "Peer" itza darabil emen Shakespeare'k "Andiki" itzaren ordez, berak sarritan oi dauenez, aldiai yarainonik egiteka. Ingelanda'n orain, eta bai Shakespeare'n aldian be, aodiki batzui, ez guziiai, "peer" izengoitia ezarten dautse, baña Tiro'n, ez len, ez orain, ezta izan etct ezíct olongo izendun andikirik.

IV AGERLEKU.--TARSO. 1 jrlarioren etxeko gela,

KELON, DUNIXE, ta Laguntzakoak aurrera.

KELON.—Ene Dunixe, atEeden artuko ele dog-i emen, eta besteen naioageakazko ipuin batzuk eralgiaz geureak aztuten ikasten dogunentz ikusí?

DUN.—Orrako ori egiteu la suuri. itxungiteko, putz egitea bat Utzatekez; eta izan be. gora yagiten diralako mendiak atxurtuten dauzanak beste mendi batzuk gorago eragi baño eztau egiten. Ene yaun naioagetu ori, olangoxe dira gure naibageak be: oartu baño etxake egiten emen, eta begi txarrez, betozkoz begiratu, baña busoen antzera, iñausiago ta gorago yagiten dira,

KEL.—Dunixe ori, yatekorik eztauenak, zelan eztau esango yatekorik eztauela, naiz zelan ixiiik eukiko duu bere gosea, gosez ilurteño? Otsik eta alakarik asko ateraten dabe gure miñak eta minak, axetara zabaltzen dabez gure ondikoak; negar dugie gure begiak, zaratatsuago iragarteko, gure miñak arnasea billatu ta idoroarte; eta zerutarrak loak arturik ba'dagoz, eurak eginak bear eta estukuretan dagozan bitartean, negarrez iratzarriko doguz euren laguntzeaz nasaitu gagiezan. Orrazkero, gure ondikoai eragoko dautset. ainbat urtetan somatu áodazan ondikoai. etu eurak itzez iragarteko arnasarik eztodanazkero. negarrak artu nire laguntzat.

DUN.—Al dodanik ondoen egingo dot, yaun.

KEL.—Uri onetako agintzea dodan Tarso onetan ba-zan bein aberastasunik, eskuak betean, ondasunak etxartebideetan be zabalzabal egoten ziran-eta; uri onetako torreak uin gora yagiten ziran-eta, odeiai mun egiten eutsen, eta ikusten ebezan erbestetarruk, arriturik, ago-zabol gelditzen ziran; bertoko gizon-emakumek orren arro ta tente ta apaindurik urteten ziran-eta, alkarren ispillu zirala irudian, alkar begiratuaz norbere burua apaintzeko; yanariz gonburuz beterik egoten ziran euren maiak, yanaz atsegin artzeko baño, begien pozkarri izatekoago; iguin izaten yakon txirotasunari, bearrari, eta ain andi zan arrokeria-ta, laguntza-izena birresatea gorrotagarri egiten zan.

DUN.—Bai orixe, egi be egi yatzu orrako ori.

KEL.—Baña ikusi zeruak zer dagiken! Gure aldakuntzearen aldakuntza! Iíior bizi eztan etxeak alperrik galtzen diran legetxe, zerutarrak euren seme-alabai ondasunak eurrez emon izan-arren, oindo oraintsu baño eztala, lurra, itsasoa ta eguratsa askotzat esteko ta pozik eukiteko gitxi yakezan agoak, orain goseak ilik dagoz ezer yan ezaren yan ezaz: gosera eginik eztagozan ago-sapaiak, iñondiko zerak asmau bear izaten dabez, yakiak gozatzeko, baña orain ogiaz pozik legokez eta eskatu be egiten dabe; euren umetxoai yaten emoteko iñon diko mizkekeriak asmatzen eragoien amak, gerturik dagoz orain euren maitetxoak yateko be. Ain zorrotz dira gosearen aginakeeta, senarr-emazteak zotz egiten áabe bietarik zein ilgo lenago, bizia luzatzeko; andiki bat dago emen negarrez, eta an aragoan, andera bat; asko yausten dira emen luze, ilik, eta orraitiño be oneik yausten ikusten dabezanak osta-ostu dabe indarrik, yausiai lurra emoteko laín. Ezta au egia, ala?

DUN.—Gure mosuak eta gure begi-zuloak dira orrako orren autorria.

KEL.—Ene! ene! Ugaritasunaren ontzia euki ta andik ain etskuzabalkiro artu ta bear eztiran yan-edanetan eralten daben uriak entzungo al dabez gure negarrok! Eurai be eldu lekikie Tarso'ren bearr-izan gorria,

ANDIKI aunera

AND.—-Nondik da Yaurla yauna?

KEL.—Emen dozu. Iraduz ustu egizuz dakazuzan zure lorrak, guk aren usterik izateko urrinegi dago nasaitasuna-ta.

AND.—Onantzako bidea dakarren itsasontzidi arro bat ikusi dogu emendik urreko gure itsasertzean.

KEL.—Orixe uste izan dot neuk be. Bein be ezta etorten lorrik, bere atzean besteren bat lengoaren ondorengotzat ekarteka; eta orixe yazoten yako gureari be: gure aldameneko lege-erriren batek, gure bearr-izan gorria bere alde dauela, bere indarrez bete dauz ontzi sabel-arrook, lendik lur yota gagozanok lurreratzeko, gu zori txarrekook benderatzeko, gu benderatzetik aintzarik eta omenik ari etorri ez-arren,

AND.—Orrena da bildurrik gitxien; eta izan be, ikurrin zuriak axetaru dabezala datozanazkero, bakea dakaskue antzez, eta gure aldeko lez datoz, ez gure arerio lez.

KEL.—Arako esakunea eztakianak lez egiten doi. ik itz: "Adiskiderena eginago, maltzurrago ta bildurgarriago". Baña dakarrena dakarrela, eta al dobena, zeren bildur iza-

teke guk? Lurra *áa* beeren dagona, eta urako bide-erdian gara. Emen gagozala bere begira esaiok euren gudalburuari, zetarako, nondik datorren eta zer gura dauen yakiteko.

AND.—Ba-noa, ene yaun. (Alde dagi).

KEL.—Ondo etorria bakea, bakerako ba'daior; gudurako ba'dator, guk ezin dogu gogor egin.

PERIKEL eta Laguntzakoak aurrera.

PER.—Yaurla yaun, --atakotzat zauguz-eta-, or mendi-ganetan ixiotuten diran suen antzera, gure ontzi-mordo ta gizontzea ez al yatzuz izango zure begiak airitu ta ikaratzeko. Tiro'raño eldu yaku zure bear-izanen barria, eta ikusi dogu zuon etxartebideetako lor itzala: ezkatoz gu zure negarrai naibaga barririk erasteko be, euren zama astuna arintzeko haíio; eta gure ontziok, arako To roi'ko zaldíci lez gudori odolzalez beterik uri au lurreratzeko asmoz datozala zuk uste zelnken-arren, gariz beterik datoz, zuk bear-bearreko dozun ogio egiteko, ia geses: ilaginik dagozanai bizia emoieko.

GUZTIAK.—Elade'ko yainkoak yagongo al zauez! eta arren egingo dogu guk zure alde.

PER.—Yagi zadize, arren, yagi zadize; ezkatoz gu iñoren gurtze-billa, maitasun-billa baño, eta geutzako. gure ontzientzako tu gure gizonentzako gorde-leku-billa baño.

KEL.—Orrako ori ukatu, naiz iñok gogo txarrik iragarri ba'dagitzu, naiz izan olangorik leikenak gure emazteak, gure ueme-alabak, naiz gu geu, zeruaren eta gizonen gaitzespena izango al dabe ondorengo ta saritzat! Ordurarte, eta eztot uste olangorik iñoz be yazoko danik, ondo etorria zara ordurarte, yaun maitagarri ori, gure urira ta gugana.

PER.—Ederresten dogu zure ondo etorri ori; yaiian igaroko doguz emen egun batzuk, orain betozkoa erakusien dauskuen izarrak irtibarre egin dagiskuen-arteño, (Alde dagie).

II EK TALDI

GOWER aurrera.

GOWER.—Em«n faere alabea senikeriratzen lkusi dozue errege altsu bat; baita a burio errege oberik ikusi dozue, yaun onik, egiteetan eta itzetan, bitzuetan, on-iniartsu danik be. Geldi zagoze, ba. gizonai dugokienez, aren neke-lorrak amaitu-arte. Neuk erakutsiko dautzuet ez-bearrak eroaten dakienak, aletz eta uskeri utsa galdurik, mendi aña Irabazten dabela. Tarso'n da oindiño gizon on on-indartsu au, nire onespena damotsadan au, eta zerutikotzat artzen dabe ango guztiak eta bakotxak ak diñon guztia; eta ak egina aztu bagarik gogotan eukiteko, aren omengarritzat mami-irudi urreztaua eragiten dautsoe; baña orrez besterako barriak zeuon begien aurrera datozanazkero, bai ete dot nik itzlk egin-bearrik?

Erakusketa ixil.

Aide batetik PERIKEL aurrera, KELON'ekin autu rnautuka; euren Yarraigokoak eurekin. Beste aMetik aurrera Aiton-seme bat PERIKEL'entzako idazkigaz; onek KELON'eri erakusten dautso idazkia, gero eskupeko damotso Geznariarl ta zaldun egiten dau. Alde dagie

PERIKEL'ek eta KELON'ek banan-banan, euren Yarraigokoakin.

Elikan ona ezta gelditu etxean erlanagiak lez eztia yaten egoteko, besteen nekeetatiko eztia yaten egoteko; eta izan be, gaiztoak eraten alegindu-arren, onak bizirik eukiteko eztau alegin gitxiago egiten; eta bere errегeren guraria beteteko, Tiro'n yazoten dan guztiaren barri bidaltzen dautso: Tallarta etorri zala okotzeraño ezeze buruko ertzeraño gaiztakeriz beterik eta a erateko asmo ostonduz; eta etxakola on Tarso'n luzaroago egoterik. Onako au yakinik, itsasoratu egin da a, gizonik an dagonean baretasunik nekez izaten dauen itsasora; eta izan be, putz eta putz asten da orain axea; ostots asarreak dira goietan, eta beko sakoneko uretzak ain artega ta uxo yarten dira-ta, *a* kaira seguru eroan bear eukean ontzia tarrat egin eta ondora doa: eta *a,* errege ona, dana galdurik, uginak itasertzik itsasertz yaurtika darabille; dana galdu da, gizon eta ondasun, beraz beste oro: alanbearrak, gaiztakeri egitez asperturil, aren pozkarritzat, *a* itsasertzeko Iegorrera egotzi-arte: eta emen dator bera. Esatekoan dozu urren datorrena; azketsi, parkatu, ba, Gower. (Alde dagi),

I AGERLEKU.-PENTAPOLI. Itsasertzeko toki agiri.

PERIKEL aurrera, busti-bustirik.

PER.—Geldituko al da, amaituko al da zuon asarreu. ortzeko izar suminduak! Axe, euri ta ostotsok, lurreko gizonu zuoi bere burua benderatzeko geizko baño eztala gogoratu egizue; .eta nik. nire izateari dagokionez, men egin etu burua makurtzen dautzuet: ai ene»! armoletara egotzi nau itsasoak, itsasertzetik itsasertz erabilí nau, eta eztaust itxi arnasarik, níre begíra dagon eriotzeaz bakarrik oroitzeko baño: erregeri bere ondasun guztiak kendu izana asko bekio zuon anditasunari; eta a zuon urezko ilobitik egotzi dozuenazkero, aren itxaro guztia emen bakez ilteu bakarrik bedi.

lru ñrrantzale aurrero.

I ARRANTZ.—Ostera! I, Píltx!

II ARRANTZ.—Eee! ator ona eta eldu egiek sareoi!

I ARRANTZ.—Ostera! I. Parka-adabau, gerooo!

III ARRANTZ—Zer gurozu, ugazaba?

I ARRANTZ.—Zoli abil, gero! ator ona, ostantxean i indarrez ekarten yoango nakiketa,

II ARRANTZ.—Egia esateko, yaun, ointxe-oin-Ixe gure aurrean ontzitik urperalu diran gizonak izan dodaz gogotan.

1 APRANTZ.—Ai ene! yente orren errukarri! guri laguntza-eske egiten izan dauskuezan dei larriak entzunak biotza minduta ta ausita itxi izan dauste, baña onak gagoz gu iñori lagun izateko, geure buruen lagun nekez izan al-eta.

III ARRANTZ.—Bai, ugazaba, eneutzun nik esan olangorik yazoko zala izurdeak uretan ikutika ta gora-goraka ikusi nebazanean, ala? Or diñoenez. orrako orreik erdi aragi, erdi arrain dira: izurriak eroango al dauz, ikusten dodazan bakotxean ni noz bustiko beglra egoten naz-eta. Ugazaba, arriturik nago ni zelan bizi diran arrainak itsasoan.

I ARRANTZ.—Ba! gizonak legorrean legetxe bizi dozak... txikiak yaten ibilten dozak andiak: gure aberats zikoitzentzako etxoat ezer idoroten balea baño antzekoagorik: a olgetan ikutika ibilten dok, arraintxo errukarriak aurrean daroazala, eta azkenean agokada baten, zauzkada baten irusten yozak: olango baleen barririk lurrean be entzun izan yoat nik, elexate osoa, elexea bera, kanpantorea, kanpae edo yoaleak, eta dana irusten dabenena.

PER.—(Bere kitean) Ikaskizun polita.

III ARRANTZ.—Baña, ugazaba, yaúretxezai izan ba'nintz ni, olango egunean kanpantorrean egon gurako neunkean.

II ARRANTZ.—ZegaiUk, gizon?

II! ARRANTZ.—Ni be iruntsiko nindukealako: eta bein aren sabeleratuazkero, yoaleak yo ta yo eragoko neunkean-eta, ak ez eukean izango bakerik, ok egin eta atzera yoaleak, kanpontorrea, yauretxea ta elexatea egolziarteño. Baña Simonida errege ona nire eretxiko ba'litz...

PER.—(Bere kitean) Siraonida!

III ARRANTZ.—Garbi-ikuzi langO garbi-ikuzia egingo leuke uk lurr-clde oneton, erlai eztiu ostuten dautsen erlanagiena eginda,

PER.—(BERE kitecui) Arrantzaleok bai polito esan eta iragarri gizonen makalkeriak, orretarako bide edo eretia itsaso arraintsuko zeretatik artuta; euren aginterrí ezo-urtsutik ateraten dabez oneik, gizonok ikasi ta ontzat emon dagikeezan egiak!.., Bakeu lagun izango al yatzue zuon nekeotan, arrantzale zindooi!

II ARRANTZ— Zindooi! zer da orrako orí, lagun on? Egoki etxatzun eguríen bat ba'da, keadu egizu egutegitik eta eroan egizu, *aien* billa iñor ezta yoango-ta.

PER.—Bai, ikusi egizue. zuon itsasertzera egotzi nau itsasoak...

II ARRANTZ.—Mozkorti langO mozkorti izan *óa* itsasoa orraitiño, zu gure bidera egozteko.

PER.—Tenistegi eskarga orrelan eurak olgetako, urak eta axeak bola biurtu daben gizona erruki-eske dagotzue; eskean ibiltea zer dan eguño yakin eztauena dagotzue eske.

I ARRANTZ.—Benetan, adískide .eztakizu eskean ibilten? Ba, gure lurr-aldean, Elade'n amaikatxok txindi edo diru geiago batzen dabe eskean, guk gure lanetik batu ol dogun baño.

II ARRANTZ.—Orrazkero, ba-dakizu arrantzuan, ala?

PER.—Eguño enaz íbili zeregin orretan.

II ARRANTZ.—Ez? Ba, orrazkero, gosez ilgo zara, bai orixe; ba, aldiotan eztozu emen zer iritxirilc orretarako arrantzuan ezpa-dagizu.

PER.—Zer izan nazan be aztu egin yat; bafla bearrak irakasten daust zer nozon qo-

getatzens etzak búlu-batu, kuskubíidu douen gizona nozu; otzik dayo nire zanetako odola, eta eztot beste bizirik, nire miñari zuon laguntzea eskatuazoteko aña beio emoteko baño; etct laguntza ori ukatu ba'dagistazue. obiratu nagizue ni il nadinean, arren, gizon naz-eta.

I ARRANTZ,—11 diñozu? Ez al dabe gurako olangoiik yainkoak! emen dot txartes bat; tira, yantzik au; berotu adi, Morrosko eder az i, bai ori::e! Tiruk, gurera etorriko az, etu *aa* okelea izango dok yai-egunetan, arraña barau-egunetan, eta ganera, intxaursaltzea ta morokila; eta ondo etorria izango az.

PER.—Eskerrik asko, yaun.

II ARRANTZ,—Entzuik, ene adiskide, eskean itilten ez enkiala esan dok ik.

PER.—Orrexegaitik arren egin izan dautzut.

II ARRANTZ.—Arren egin! Orrazkero, neu be arrengila egingo naz eta. olan. zigorrelik alde egin.

PER.—Zer ba? Zígortau egiten dabez zuon eskeko guztiak, aia?

II ARRANTZ.—Ene! guztiak ez, ene adlskide, ez guztiak; eta izan be, gure eskeko guztiak zigortauko ba'geuz, zigortatzalla baño ogibide oberik eneunke gurako. Baña, ugazaba, sarea gora eragiten noa. (Alde dagie Irugarren Arromtzaleakin).

PER.—(Bere kitectn) Gogaldi argi-zindo au ondo baño obeto datorko euren lanarií

I ARRANTZ.—Sorosi, entzun, yaun, ete dakizu non gagozan?

PER.—Zeatz eta ondo ez.

I ARRANTZ.—Neuk esango dautzut, bas Pentapoli deretxo leku oni, etu Simonida ona da gure errege.

PER.—Simonida'ri Errege on ereisten dauísa zue, ala?

I ARRANTZ.—Bai, yaun; eta olango ízengarri da izan be a, aren agíntza baketsu ta yaurtze onagaitik.

PER.—Errege zori ontsu da a, bere yaurtzeagaitik aren bendekoak on izena ezarten dautsoenazkero. Zenbat bide dago itsasegi onetatik aren errege-urira?

I ARRANTZ.—Ba'. utsa, yaun, egun-erdiko bidea baño ez: eta alaba lirain bat dau, gero. ak, eta biar beteten dauz urteak; eta munduko alde guztietatik elduriko erregeseme ta zaldunak dira an zaldunketak eta ostectngo norgeiagoketuk egileko, neskato aren maitasun-billa.

PER.—Nire gogoaren neurriko ba'lira nire ondasunak, neu be euren arteko nintzaks.

I ARRANTZ.—Ba! yaun, eurak al daben lez dira ta izaíen diru zerak; bu-leuíkó gizonak einakumeren biotzu ez irabaztea, baña zilegi ta sori yako orretarako aleginak egitea.

Ostera be ourrera Bigarren eta Irugarren Arrantzaleak, sare bat tatarrez dakarrelu.

II ARRANTZ.—Lagun zakiguz, ugazaba, la. gun zakiguz! Gizon beartsuren eskubidea legeetan egoten dun legetxe dago sare onetan arrain bat; nekez urtengo da emendik. Bal zorritsu-bizigotsu ori, urten da atzenean be, eta guda-koskol ugertsu biurtu da.

PER.—Guda-koskol, adiskideok! Erakutsi egidazue, urren... Eskerrik asko iri. alanbear orri, oker eta galtze guztien ostean, orraitiño be, nire buru-osogarriren bat emoten daustakulako; eta nire neure izan-arren, nire ondorengotzako zeretatiko bat izun-urren, bera iiteko egounean nire aita zunuk itxi yeustan orrako ori agindu zorrotz onegaz: "£uki egik au ,Perilcel; nire ta eriotzearen bitarteko ikurdi ízun dok uu"; eta ikurdiaren besalekua atzez erakutsiuz. ekin eutsan ak: "£ukik ori, orrek yarei nindun-eta; yainkoak yagongo al aue alango bearr-izanetik! baña alangotan aurkitu ba'adi, i be yagon eta yareiko al au". Ni non izan, tm eukiten izan dot, orren ínaite izan dot-etu; gizonik zelango danik be itxi eztaustan itsaso asurreak sumin biziz kendu daustan-arte, eta orain, bareturik. atzera damost itsasoak: eskerruk iri orregaitík: eztot oraln kaltegarrltzat nire ontziu urperatzea, aitak bere 11-burukoan itxi eustan esku-erakutsia emen dodanazkero,

I ARRANTZ.—Zer esan gura dozu, yaun?

P£R.—Guda-koskol aingarri orren eske nagotzue, ene adiskideok, ori beñola erregeren babes eta yagola izana da-ta; atz edo ezaugarri onen bíiez dazagut. Maitemaite nindun errege ak, eta agoitik, a-arren izan gura dot orrako ori; eta zuon errege-urirako bidea be erakutsi dagidazuela eske nagotzue, ni an aiton-semetzat agertu nadin; eta íííoz zori oberik ízan ba'dagit, esku zabalez ordainduko dautzuedaz zuon eskuzubaltasunak; zorrean gelditzen natxatzue ordurarteño,

I ARRANTZ.—Ostera! neskatoa-arren norgeiagoketan sartzeko zara, ala?

PER.—Iskilloak erabilten dodan trebetasuna erakutsi gura dot.

I ARRANTZ.—Tira ba, sartu zadiz, eta yainkoak lagun yatzuzala irabaziko al dozu!

II ARRANTZ.—Bai, baña entzun, ene adiskide;

gu Izutt *qaia* guda-yanízl CÍU uretza asarreetatik atera izan dogunak; nekerik artu to alegin onik eg'n bear izan dogu orretarako. Obarantzakorik egin ba'dagizu, ba-ditxarot oroituko zareala nondik iritxi izan dozun.

PER.—Sinistu egidazue, oroituko nazala. Galtzaiduz yantzita nago zuok emonaz; eta itsasoaren lapurreta guzliak goiti-beiti, nire besoari deutsala dago pitxi au: onen zenbatekoz yezarri naiteke ni zaldi bizkonen ganean, aren ibilte txoiroak ikusteak begimleefc pezez beterík itxike leukezan *taldl* ganean. Zer biren eza bakarrik dot, ene adiskideok, oñarri biren eza, zaldun-yantzi biren eza,

II ARRANTZ.—Geuk emongo dautzuguz, bai orixe: neuk emongo dautzut nire atorrarik . onena, bikote oii egiteko; eta neuk eroango zaudaz eriege-yauiegiia.

PEfl.—Orrazkero, omena bedi níre elburu; yagíko naz guui, edo ostantxean okerrari oker erantsiko dautsagu. (Alde dagie),

II AGERLEKU.-PENTAPOLI. Guztitarikoent.ako Bide, naiz Zaldunketategira daroan lugan zaaala. Txozna bat luganaren oldamenean, an Errege, Errege-alabea, Andikiak eta abar artzeko.

Aurrera SIMONIDA, TAIXE, Andikiak, eta Laguntzakoak.

SIM.—Gerturik ete dagoz zaiduiiak ibilltata txairorako?

I ANDIK.—Gerturik, ene nagusi; eta zu nez eiduko begira dagoz, euren buruak erakusteko.

SIM.—Datozala atzera, gu gerturik gagoz-eta; eta ibilketa txairook bere urtebetetzearen omenez diran gure alabea emen dago yazarritu, edertasunaren alabu ba'iitz legeixe, gizonak ikusi dugien, eta ikusiaz arriturik eta agoa-zabalik gelditu dadizan (Alde Andiki batek).

TAIXE.—Ene aita errege, begiko ta aísegingarri yatzu zuri ni nazan baño goragotzea.

SIM.—Egoki da olan izatea; eta izan be, errege-seme-alabak eredu ta irudi dira, zeruak bere antzeko egiten dauen eredu-irudi: yaramonik egiten etxaken pitxiak euren dizdiza tu aintza galdu daroenez, erregeren seme-alabak be galtzen dabe euren ospsa begirapenik eta lotsarik ezpa'yake. Zure egikizun da orain, alaba, zaldun bukotxaren omena bere ikurritzetan azaltzea.

TAIXE.—Eta egingo dot orrako ori, nire omena yagoteko.

Zaldun bat aurrera; aurretik igaroten du, eta aren Ikurdidunak aren ikurdia errege- alabeari eskeintzen dautso.

SIM.—Nor da lenen agiri dana?

TAIXE.—Esparta'ko zaldunetariko, ene aita ospatsu; eta bere ikurdian daroan iicur edo irudia eguzkira eltzen dan Etiopi'tar baltz bat da; itzak, barriz, oneixek: "Lux tua vita mihi" (B).

SIM.—Bere bizia zu zatxakozanak maite be maite zauz. (Biga-rren zaldunct digaro ourretík zoar). Nor da biganen digarona?

TAIXE.—Makedoni'ko errege-seme, ene erregezko aita; eta bere ikurdi-ganean doroan ikurratza anderak benderatu dauen iskiilodun zaldun da; itzak oneik, españeraz: "Piu por dulzura que por íuerza". (Irugarren zal duna digaro aurretik zear).

SIM.—Eta nor da irugarrena?

TAIXE.—Antioki'ko da iiuganena; eta zalduntzako burestuna da aren ikurratza; itzak, ostera, "Me pompae provexit apex" (7). (Laugarren zalduna yoan doa aurretik zear).

SIM.—Nor da laugairena?

TAIXE.—Zuzi ixiotu bat buruz bera; ikurritzak, barriz, "Quod me alit, me extinguit" (8).

SIM.—Eta edertasunak bai ixiotu ta sututeko, bai erateko be ba-dauela indanik esan gura dau orrako orrek. (Boskarren zalduna digaro aurretik zear).

TAIXE.—Boskarrenak odeiz inguraturik agíri dan eskua dau ikurraztzat, eta ukutarriak zelango dan aztertzen dauen urrea daroa eskuan; onakook dira ikurritzak: "Sic expectanda íides" (9) (Seigarron zalduna, Perikel, digaro).

SIM.—Eta nor da seigarren zalduna, seigarren eta azkenengoa, bere ikurdia zaldunak berak era-mera ain atsegingarriz eskeñi dauena?

(6) "Nire bizi yal zure oi'gia" esan gura dau laterazko esakera onek.

(7) "Aunitzen artean buru izateak ourreratu nau" esan gura dau.

(8) "Bazkatzen nauenak.berak itxungítzen nau" esan gura dau.

(9) "Onangoxe zintzotasuna erakutsiazo bear da" diragar.

TAIXE.—Erbesteiar dala dirudi ori; baña orren esku-erakutsia orrolio zimel da, goiena bakarrik guri ta orlegi edo berde dauena, eta ikurritza, "In hac spe vivo" (10),

SIM.—Ikaskizun bikain; orren beeko egoletik, zure bitartez, orren ondasunak Ioratu leitekezanaren itxarorik ba-dau orrek,

I ANDIK.—Edozelan be orrek berorren alJe zuzenez itz egiteko bere agiriko antza baño zer oberik bearko dau; eta izan be, orren azal ugertsutik agiri danez, tKÍbítakirtena erabilitsgo izan dau orreic aztamakillarik baño.

II ANDIK.—Ba-Iedike ori erbestetar izatea, berña edozelan be omengarrizko ibilketa txairorako, iñondiko eraz yantzita dator.

III ANDIK.—Eta beren-beregi itxi dautso ugertzen gaur-arte bere guda-koskolari, lurreko autsetan igurdita argitzeko.

SIM.—Uste zoro baño eztok gizonaren geitasuna areii azaletik neurtuazoten dauskun usteci. Baña etxon, ba-datoz zaldunak: ikustegira urtengo gara, (Alde dagie).

(Zarata ta oio andiak barruain, "Zaldun zírtzilal" guztiak gedar dagiela).

!II AGERLEKU..-PENTAPOLI, Areto arro, yauregian, Oturuntza gerlurik,

SIMONIDA, TAIXE, Andikiak, Zaldunak, eta Laguntzakoak aurrera,

SIM.—Zaldunok, ondo etorriak zariela esan. bearrik eztago, ískilloetan zuok erakutsi dozuen adorea ta geitasuna, idazti-atetan oi danez, zuon egite itzalezko idaztian imini ta azaltzea, zuok uste dozuen, nai egoki dan baño geiago litzateke, zuok egin dozuen erakusketT orretan zuoiariko bakotxaren eginak berak bere burua goratu ta txalotzen dau-ta, Baztartu orain kezka guztiak, betor gogaldirik argiena, bazkari naiz apari onari gogaldi argia, alaitasun lango alaitasuna dagoko-ta; errege-ssme ta nire arrotz zarie zuok guztiok.

TÁIXE,—Baña zu, nire zaldun eta arrotz zara zu; ixapeldunari dagokon burestuna damotzut zuri, eta egun zori ontsu onetako erregetzai zuri ezarten dautzut burestuna.

PER.—Andera .orrako ori alanbearrari zorrago yako, nik irabaziari baño.

SIM.—Zeuk zelan gura deitu orrako ori, baña zure da egun au; eta eztot uste emen ori iñok begi txarrez ikusten dauenik. Gizon treberik egin gura dauenean arteak, trebe egiten dauz batzuk, baña trebeago beste batzuk, naiz beste bat, eta zu zara arte edo trebetasunaren ikaslarik gorengo. Tíra, yai onetako erregeno, eta izan be, orrako ori zara zu, emen dozu zure yarlekua: eurei dagokienez yezarríazo egizuz besteak,

ZALDUNAK,—Omenik asko egiten dausku Simonida onafc.

SIM.—Pozik asko emoten dautso gure zartzaroari zuok emen egoteak: omena da guk maite doguna; ela izan be, omenarí gorroto dautsanak, goiko yainkoaí gorroto dautse.

GUDALBURU.—Yaun, an aragoan dago zure lekua,

PER.—Egokiago yat bestsren bat.

I ZALD.—Ez erabili aiko-maikorik emen, yaun; eta izan be, aiteu-seme gara gu eta ez biotzetan, ez gure begietan, guk eztogu gogo txarrik andientzako, ezta gogo txarrik eta ezespenik beekoentzako be.

PER,—Era-mera on-oneko zaldun zarie zuok,

SDvL—Yezarri zadíz, yaun, yezarri zadiz.

PER.—Gure gogaketaen errege dan Yupiterarren, andi be andi eretxita nago zelan yaki mizkeok gogor egiten dautsoen nire yangarrari, nire gogaketa guztiak no orrek daroastazala,

TAIXE.—Ezkontza-erregeno dan Yune-arren, yaten dodazan yaki guztiak zakar iruditzen yataz, to ori gura dodala nire yakitzat. Izan be, aiton-seme lerden da ori, bai orixe»

SIM.—Basoko aiton-seme baño ezta ori: beste zaldunak egin dabena baño geiagorik eztau egin orrek; aztarnakila bat edo beste ausi baño eztau egin; bego orrako ori,

TAIXE.—Leiarraren aldean ikatzarria langoxe da ori nitzako,

PER.—Nire aitaren irudia langoxe da nitzako a aragoko erregea, eta orrek diraust ak zelango aintza izan eban bein; bere erregeaulkiaren baranoan yezarriazoten ebazan errege-semeak, izarren antzez, berari gur egiteko; eguzki zan *a* bera, besteak ari gur egitsko; a begiratzen ebenen burestunen dizdiza moteldutsa gelditzen zan, argi txikiagoak aundiagoaren dizdizaz gelditzen diran legetxe; eta gabeko epertargiaren antzefco da orain aren semea, ilunetan, ez egun-argitan, argi egiten dauen epertargiaren antzeko: eta ortxe dakust aldia dala gizonen

(10) "Itxaro oneian bizi naz" diragar

errege, arein gurass Í-J arein ílebl *da* ba. eta berak zer-gura emoten dautse, ez aik gura leukienik,

SIM.—Eta? Pozik zagoze, ala, yaunak?

1 ZALD.—Nor egoteko bestera errege orren aurrean?

SIM.—Tira, maite ba'dozue, beste edalontzi bana berak artu-ala bete, eta edan zuon maitearen ezpanen alde. Zure osasunaren alde eiaien dogu au.

ZALD.—Eskerrik asko zuri, nagusí orri,

SIM.—Elxon, orraitiño, apur baten; gotilunegi dago, nire ustez, an aragoun dagon zaldu-na, gure yauregiko txereak aren geitasuna-ri dagokion besteko zerik ezpa'leu legetxe, Etzatxakoz oartzen, ala, 'í'aixe?

TAIXE.—Zer esan gura daustazu, ene aila?

SIM.—Ene! entzun egidazu, ene alaba; erre-geak enien, goietan yainkoak diran langoxe izan bear leukie, eurai omen egiten dato-zanai esku zabalez emolen dautsen goiko yainkoak langoxe: eta eltxoen antzeko dira olangorik egiten eztaben erregeak: burrun-dadarik egiten dabe, baña bein Hazkero, utsa zirala ikusirik, arrituta gelditzen gara. Ofrrazkero, ona etorrerea gozoago egin da-kion, ardao-edalontzikada au orren osasu-naren alde edaten dogula esaiozu.

TAIXE.—Ai ene! ene aita, niri etxat egoki erbestetar zaldunegaz orren lotsabako iza-lerik: iraintzaí artu leike ak nire eskeintzea, gizonak emakurneen esku-erakutsiak lotsa-bakokeritzat artu daroez-eta,

SIM.—Ostera! egizu agindu yatzuna, ostan-txean asarratu egingo nozu-ta,

TAIXE.—(Bere kitean) Aor ba, yainkoak-arren, ezin agindu eiskedan zer atsegingarriago-lik.

SIM.—Eta orrez ganera, ori nondíke dan, ze izen yakon eta noren seme dan yakin gu-ra dogula esaiozu.

TAIXE.—Yaun, nire aita erregek zure alde, zu-xe osasuuaren alde edan dau.

PER.—Eskerrak damotsodaz.

TAIXE.—Zutzako beste ainbeste odol gura dauela.

PER.—Eskerrik asko ari ta zuri, bioi, eta biotz biotzez diragartzuet.

TAIXE.—Eta orrez ganera, zu nondiko zarean, zer yatzun izena, eta noren seme zarean yakin gura dau.

PER.—Tiro'ko cdton-seme nozu... Perikel yat izena; trebetasunetan eta iskilloetan ezia nozu; eta munduan gaidu-gorde-billa nen-bilela, itsaso asarreak ontzi ta gizonak ken-du daustazana, eta ontzia galduazkero urak itsasbaztar onetara yaurtina.

TAIXE.—Aita, eskerrak damotzuz zuri, nagu-sien orri; Períkel yakola izeua diño, Tiro'ko aiton-seme áala, eta itsasoetako zori txarrez ontziak eta gizonak galdurik, itsasiociztar onetara egotzia dala,

SIM.—Yainkoak-arren, erruki dautsel orren zo-ri txarrai, eta gotiiuntasunetík iratzarri gura dot ori, Tira, aiton-semeok, luzaroegi dara-goiogu urnekerietan, eta alperrik galtzen do-gu beste iskanbilla batzuen begira dagon astia, Guda-yantziok aldean dozuezala be ondo etorriko da, egoki izango da gudari-yantzaren bat, Eztot gura nik aikomaikorik, eta ez esan nire eresi zaratatsu ori latzegi dala emakumeen burustarako, ernakumek gizonak areiu iskilloetan euren oean bes-tean maite izaten dabez-eta, (Yantzan dara-goioe zaldunak) Olan, oían, gogoz eskatua izan ba'da, gogoz eia erdí ta ondo egina, Tira, yaun; emen dozu andera bat, bidiai lan eragin bear dautsena, bidiai eta bai zangoai be; eta sarritan entzuna nozu ni, zuok Tiro'ko zaldunok emakumei yantzazo-ten bikain baño bikainago zariela; eta atse-gingarri-atsegingarri dirala zuon yantzak.

PER.—Yantzan egiten dabenenak bai, ba-di-ra, ene yaun.

SIM.—Ba! biolzetiko txera ta era-mera nii ain-tzakotzat eztozula artzen dirudi. (Yantzan darugoioe zaldunak e!a andeiak) Banandu, banandu: eskerrik asko guztioi, aiton-se-meok: guztiak egin dabe ederto, (PERIKEL' eii) baña zuk ondoen, Datozala esku-muti-lak eta zuziak, zaldunok bakotxa berenera eroateko! Zure etxea, yaun, geurearen alda-menekoa izan dadila agindu dogu.

PER.—Zure, nagusien orren aginduaren begí-ra nago ni.

SIM.—-Errege-semeok, beluegi da maitasunaz itzik egiteko, eta orraitiño, nik dakidanez, ori da zuon begien elburu: orrazkero, bere atsedena artzen boa bakotxa: eta biar ba-kotxak al dauen guztia egin dagiala buru ta txapeldun urteteko. (Alde dagie).

IV AGEHLEKU,--TIR0. Yaurlariareneko gela,

ELIKAN eta ESKAN aurrera.

ELIK.—Ez, Eskan, ez; au yakizu nigandik: senikerítan bizí zan Anlioka: orregaitik, aren obfen iguingarri ta iizalaz noz aspertzeko begira egolez aspertu ziran yainkoak-eta, egineginean be a goien eta aren entzute ta omenezko arrokeria gorengo tontorrean egoanean, burdi aberais-aberatsean yezarrita egoala, bere alabea be berakin ebala, arein ganera zeruliko sua yatsi ta urein soñak kiskurtu ta kiskaldurik itxi ebazan-eta, yenteak iguin eutsen; eta soñai erioen andurra ain andi ta nazkagarri zan-eta, orrako ori yazo baño len gur egiten eutsen guzUak, oraín euren eskurik eztabe erabili gura izan arei lurra emoteko.

ESKAN.—Iñondiko be iñondiko izan da orrako ori.

ELIK.—Eta orraitiño be zuzentza baño etxatzu orrako ori; eta izan be, auntji izan-arren errege ori, aren aunditasuna etzan gauz izan zerutiko geziari albora zirrist eragiteko; zor yakona emon yako obenari.

ESKAN.-=Egi utsa orixe.

Iru Andíki aurrera.

I AND.—Begira, bai banazeko autuetan, bai onulari-batzarretan, btit ori da bestearen barruko,

II AND.—Eztogu yasango luzaroago onako au, gu alatzeka.

III AND.—Eta gaiztetsi bedj orretan lagun izango etxakuna.

I AND.—Zarraikidaze, orrezkero, E'.ikctn yaun, itz bat egin gura dautzut.

ELIK.—Níri, ala? Ondo etorría bedi: zori oneko dogu egun au, ene andikiok.

I AND.—Yakizu gure irainak goiko ertzeraño eldurik dirala. eta orain azkenean ganaz be egin dabela.

ELIK.—Zuon irainak! Zetan? Ez egiozue okerrik maite dozuen zuon erregeari.

I AND.—Zeure buruari *ez* egiozu okerrik, orrazkero, Elikan zindo; baña errege bizirik ba'da, ari agur egiten, ari txera egiten itxi egiguzu, ostanlxean iragarri egiguzu zein lurralde egin dan zori ontsu a bertan eukiteaz. Mundu onetan bizi ba'da a, aren billa urtengo gara; ilobian ba'dago atsedenetan. an idoroko dogu; bizi danentz yakin gura dogu, bizi ba'da gure yaurla izan dadin. ilik ba'da, aren eriotzeaz negar egin. eta gure autaketea geure gogara dagigun,

II AND.—Aren eriotzea da zer biotaUk guri sinisgarrien egiten yakuna: eta ba-dakigulako bakalderri au buru bagarik, tellatu bagako etxe eier-bikainak legetxe, laster lur yola geldituko dala... zeu, yaun zindo ori, zeu izan zakiguz gure errege, beste inok baño obeto zeuk dakizu zelan yaurri ta zelan errege izan-eta, eta men egingo dautzugu guk,

GUZTIAK— Gora, Eiikan zindo!

ELIK.—Omena-arren, ukatu egidazuez zuon autarkiak. Maite ba'dozue Perikel erregea, arte artu egizue. Zuon gurariari men egín eta burua makurtu ba'neio, itsasora egotziko neunke nire burua, bat. minuto bateko baretasunaren alderako ordubeteko asarrealdia dauen itsasora. Besle umabi ilebeteko epea eskatzen dautzuet, errege noz etorriko begira egoteko; epe orren barruan atzera etorri ezpa'ledi a, nire agure-epez eroango dot zuok ezarri gura daustazuen buztarria. Baña niganako txera maítakor au zuokandik lortu ezin ba'dagit, zoaz eta billatu egizuz zeu lango aiton-semeak, zeu lango bendeko zindoak eta aren billa, galdu-gordetan erabili egizue zuon zindotasuna; a idoro ba'dagizue, idoro, eta atzera etortera bultzau, ikatzarriak legetxe argi ta dizdiz egingo dozue aren burestunaren inguruan.

I AND.—Ergel eta zoro da zurtasunari menik egiten eztautsana: eta Elikan yaunak agintzen dauskunazkero, aleginak alegin egingo doguz aren billa gure ibiltaldietan.

ELIK.—Tira ba, maite nozue, eta nik be maíte zausdaz, eta alkarri eskuak estutu dugioguzan: andikiak onan bat eginik dagozanean, sendo dago bakalderria beti be. (Alde dagie).

V AGERLEKU.--PENTAPOLI. Errege-yauregiko gela.

SIMONIDA aurrera Idazki irakurten; Zaldunak tiikitx egiten dabe akin.

I ZALD.—Egun on Simonida onari.

SIM.—ZaMunok. nire alabearen aldetik diragartzuet, urtebete onetan ak eztauela ezkontza-bizitzarik artuko. Berak bakarrik daki aren zegaitia, nik ezetara be ezin yakin izan dot agandik-eta.

II ZALD.—Ezin eldu ete geintekez agana, ene yaun?

SIM.—Bene-benetan, ezetara bez,- bere gelan egoteko erabagi ain sendoa artu dau-ta, ezina da zuon asmo ori, Dine'n yantzia erabili gura dau beste amabi ilebetean: Kinto'tarraren tll) begiak-arren egin dau ak zin-agintza au, eta bere neska-omena-arren zinari deutsala biziko da.

III ZALD.—Zuri agur egiteko nagi ta muker izan-arren, agur dagitzugu ta ba-goaz. (Zaldunak alde).

SIM.—Tira ba, yoanik, eta ondo yoanik dira orreik: nire alabearen idazkiari ekingo dautsat orain: emen diraustanez, erbestetar zaldunakin ezkonduko da a, ostantxean oraindik ara ez ei dau ikusiko ez egunik, ez argirik. Ori ondo, neskato: batera yoten dabe zure autaketeak eta nireak. Begiko yat a; bai, buru-gogor eta setati dago no *a* bere autakefan, niri gogoko yatanentzari yaramonik egiteka! Tira ba, ederresten dot aren autaketea; eta eziot luzatu gura arean be... Ixilik! emen dator a bera: enazanena egin bear dot,

PERIfCEL aurreia.

PER.—Zori on guztiak Simonida onarentzat!

SIM.—Beste ainbeste zutzako be, yaun! Bearturik eta zorrean nagotzu barko zure eresi eztiagaitik: autor eta autor dagit eguño eztirala bete nire belarriak ereskideiasun atsegingarriagoz.

PER.—Zure fciotz ona da gorapenok sragiten dautzuzana, ez nire irabazirik.

SIM.—Eresi-irakasla zauguz zu, yaun.

PER.—Ikaslarik txarren eta baldarrena bai ba-nozu ni, ene yaun on.

SIM.—Zer bat itanduten itxi egidazu: zer deretxatzu nire alabea, yaun?

PZR.—Errege-alaba on-indartsu be on-indaitsu dala.

SIM.—Eta bai lirain-lirain be, ez ete da?

PER.—Udako egun oskarbi bestean lirain eta eder..., itzalez eder.

SIM.—Yaun, zugazko usterik onena dau nire alabeak; bai, ain ona dau-ta, aren irakasla izan bear dozu zuk, eta ak zure ikasla: zure arlo ta lantegira ba, orrazkero.

PER.—Enaz ni aren irakasla izateko añakorik.

SIM.—Bestera uste dau ak; ezpabere irakurri idazki tra.

PER.—'Bere kitean) Zer dogu emen? Idazki, eta Tiro'tiko zalduna maite dauela! Erregeren maltzurkeri edo lukikeriren bat da au nlri bizia kentzeko. Ene! ene! enagizt sareratu, yaun txerakor orrek, erbestetar aiton-seme zori txarreko au. eguño zure alabea maite izaterañoko amesik be egiteka, nire alegin guztiak ari men egiten erabili izan dodazan au.

SIM.—Sorginkeriz liluratu dozu zuk nire alabea-ta, dolloi eta ziztiin zaia zu.

PER.—Yainkoak-airen, nik eztot ogin olangolik: irainik egiteko gogaketarik be eztot izan nik; eta egitez, asi be eztot egin no aren maitasuna, naiz zure asarrea irabazi legiken egiteiik.

SIM.—Azpiyala ori, etoi ori, guzurra diñok ik.

PER.—Azpiyala, etoi!

SIM.—Bai, orixe. azpiyala, etoi.

PER.—Erregerik ez izatekotan, ni azpiyala, etoi deitu nagianari itz zakar ori atzeia iiuntsiazoko dautsat, bai oríxe.

SIM.—(Bere kitean) Yainkoak-arren, goratu ta t::alotzen dot orren adoiea.

PER.—Niie egiteafe bestean zindo dira nire gogaketak, eguño iturburu zakarren sundarik eztabe izan-eta. Omena-arren etorri nintzan zure errege-urira, eta ez zure enegeenian asaldari izateko; eta besterik uste dagianari ezpata onek erakutsiko dautso omenaren arerio dala orrako ori.

SIM.—Ezetz? Emen dator nire alabea, au izango da autorla.

TAIXE aurrera.

PER.—Orrazkero, eta eder bestean on-indartsu zareanazkero, zuk esan zure aita asarreari, ia nire miñak eguño zirikatu zauzan,

(11) Delos izaroko Kynthos mendinren ízenetik datorko Díne'ri Kintotar izena. Beraz emesi Kintotar eta Dine zer bat bera dira,

naiz nlre egkuk zure maitasun-billa eginika itz-txalalik be idatzi izan dauen.

TAIXE.—Ba, yaun, olangorik egin izan ba' dozu he, esaizu nori egiten yakon «kerrik ni pozluko «induken zeragaz.

SIM.—Orren erabagirik zagoz, cita, andera? (Bere kiteatr) Pozik bcño pozago nago orrako orregaz. Otzanduko zaudaz, eziko zaudaz; bai nire benderatuko be. Nire ederretsi bagarik emongo ete dautsazu zure biotza erbestetarreri? (Bere kitean) Nik dakidanez, --eta besterik ezin uste izan neinke--, nik dakidanez, ni besiean odol garbiko dan eibestetarreri. Orrazkero, entzun, neskato; edo zure guraria nireaz kidetu ta bat egizu..., -eta zuk, yaun, zuk be entzun egidazu, zu be nire bendeks izan zakidaz, edo ostantxean blok ©gingo zauedaz,,, senorr-emazle, Bal, tlra, zuon eskuak eta ezpanak be ilcurraztu ta bciiezlu bear dabe nire erabagi 3U! eta oraín alkarri lotuta zagozenazkero, manaíu ta ezerezluko dodaz zuon ilxcsroak, eta zusn naibagearen geigarriiza! "Yaungoikoak pozik ekarrl ta emongo ol dautzue!" esango dot, Pozik zagoze blok, ala?

TAIXE.—Baí, zuk maite ba'nozu, yaun.

PER.—Nire bizia bestean. naiz bazkalzen nauzan odola bestean be bai.

SIM.—Eretxi bateko zarie, ala?

BIAK.—Bai, zuri, nagusien orri, eder ba'yatzu,

SIM.—Ainbssteraño ederreslen dot-eta, ainbestean atsegin yat-eta, ezkondurik ikusi gura zindukiedaz; eta gero, al dozuenik arinen, eera yoan, (Alde ctagíe).

III EKITALDI

GOWER aurrara.

GOWER.—Benderdtu dauz orain lo sorrak ezteguetakoak; lo-arrantzenaz beste otsik ezta entzuten etxe onetan, eta lo-arranlzok andiago dira eztegu-yai ospatsuotan biusturiak beteegi egin diralako. Sagu-zuloaren aurrean etzanik dago katu txingarbegia; eta laba-agoan abesten daragoioe txirritxirriak, beroak poztuta. Bere oeratu dau Himen'ek (12) bere emaztegeia, eta an, neskatasuna galdurik, seintxo bat eratvi da. Zur eta adi egon, eta zuon irudimen asmotsuz luzatu egizue ain arin doan oldia; izka, ixil da datorren erakusketea, baña neuk azalduko dautzuet itzez.

Erakuskela edo Jkuskizun ixil.

PERIKEL eta SIMONIDA aurrera alde batetik, Laguntzakoakin; Geznari batek trikitx egiten dau aikin, belaunbikatu ta idazki bat damotso PERIKEI.'eri; SIMONIDA'ri darakutso onek; Andikiak belaunbikatu egiten yakoz PERIKEL'eri. TAIXE sartzen da gero, seindun edo emari dalarik, UKORIDE'kin. SIMONIDA'k bere alabeari darakutso arako ida2kia; poza diragar TAIXE'k: *ak* eta PERIKEL'ek agur dagioe aren aitari ta alde dagie LIKORIDE \a euren Laguntzakoakin. Gero SIMONIDA'k eta besteak be alde dagie.

Alkarren aurrez-aurreko munduko lau alderdietan, ainbat ibar ets mendi-aldapa nekeetsutan, baztarrak arakatu ta arakatu, ibili izan dira arduratsu ta yoranez Perikel'en billa; zoli ta arduratsu egin izan da billaketea: zaldíz, ontziz eta díra-eralterik askogaz. Azkenean be, iñondiko billaketa orri aren entzuteak erantzunik, Simonida'ren erregeyauregira eldu da Tiro'tiko idazkia, ta amen ak dakarrena: Antioka ta aren alabea ilik dirala; Tiro'ko gizonak Elikan'i ezarri gura izan dautsoela Tiro'ko burestuna, baña ak ezetza emon izan dautsela; iraduz eta beingoan ito gura izan dau ango asaldatzea; Perikel beste urte betean agertu ebpa'dadi, arein ebatziaren arauz, eta ai men eginik, artuko dauela burestuna ak esan dautse,

Barrion laburpenak, Tiro'tik ona, Pentapoli'ra ekarri-ala; pozez zoraturik itxi dauz inguruko lurraldeok eta gedarrez eta txaloka guztiak diñoe: "Errege da gure ondorengogeia!" "Nok egingo eukean olangoren amesik, nok uste izango olango zerik?", Labur esateko, Tiro'rako bidea artu bear dau ak; aren erregeno seindunak *be* «kin yoan gura dauta, nok ukatzeko ari bere guraria egiterik? Eztagigun aitatu be urteerako arein nega-

(12) Zer bi iragarteko erabilten dabe Hiuieri edo Imen izena: 1) Beinen eta lenen, umetoki-sarrerako atakatzat dagan rnintza, e-tct axe urratzeka aurkilzea da neskagarbitasunaren ezaugarririk onena. 2) Ezkontza-yainko. Esangura bíotatík bígarrena dau einen ítz orrek.

rrik eta nalbagarik: bere iñude Likoríde barakin artuia, iisasora doa geiagoko bagar'k. Eragiten dauise arein onlziak Neiun'en uretzai; ebagi dauz ontziaren bizkarrazurrak ilsag-bide-erdiko urak; baña aldatu *áa* ostera be zori edo alanbearrarsn gogaldia; ipar-ase leitu-urdinak ekaitz langO ekaitz eskargea ok egiten dau-ta, bizia yagoteko urperatzen dan aatea legeixe, bein gora, bein bera darabil ontzi errukarria: oio ta irrinize egiten dau andoreak, eta, bildurraren faildurrez, umeminak datorkoz: berez b@. rez ageriuko dira ekaiíz zakar onen ondorenak. Nik eziot olangorik ezer eralgiko, ganeliko egilHak berak nik esan neitsuen baño obelo ta egokiago azalduko dautzueta. Antzoki au itsasontzi dala irudítu dagiala zuon irudimenak, aren ganean agiri dala Perikel, Itsasoak aztindutako Perikel. (Alde dagi).

I AGERLEKU.-PERIKEL aurrera, itsasoan ontzi-ganean.

PER.—Arlo itzal onetako yainko ori, asarre egiezu uginoi, ortzea ta su-lezea biak busti ta ikuzten dabezan uginoi; eta axeai agin. tzeko alik ba-dozunazkero, borontzezko katez, lokarriz estu egizuz, bee-beeko sakonetik ai dei zoli eginda! Ene! ene! ixilazo egizuz zure ostots gorkor, ikaragarriok; biotz onez ítxungi egizuz argi-zastada bizkor, andurtsuok!.~ Ene! Likoride, nolan dago nire erregenoa? Ekaitz ori, edena dario iri, ta eden-urtika daragoiok ik; eure burua egotzi gura dok txu-urtika. ala? Ilaren belarrira egiten dan txutxuputxua langoxe da ontzigizonaren txistua... ezta entzuten, Likoride! Lukine, zaindarinorik yainkozkoen ori, eta gabaz negarrez dagozanen emagin txeratsu ori, zure yainkotasuna ekarri egizu ontzi yantzari onetara; arindu ta laburtu egizuz nire erregenoaren urae-minak!

LIKORIDE aurrera, Seintxo batekin.

Ze barri dogu, Likoride?

LIK.—Gazteegi yatzu zer au onango lekurako; bulkorik izateko gei eta gauz ba'litz, il egin gurako leuke, neu be, urrean, laster ilgo nazan legetxe: zure besoetara artuizu zure erregeno ilaren zati au.

PER.—Zer diñozu, Likoride ,zer diñozu?

LIK.—Arte artuizu, yaun on; etzakioz lagun izan ekatxari. Emen dozu zure erregenotik bizirik gelditu dan guztia..., alabatxo bat: eta orren alderako, ori-arren, gizon adoretsu izan zadiz, eta nasaitu zadiz.

PER.—Yainkook! yainkook! Xegaitik maite eragiten dauskuzuez zuon esku-erakutsi onak, gero bertatik guri indarrsz kentzeko? Guk emen bean eztogu atzera eskalzen, ez artzen bein emon izan dogunik, eta orretan zuok baño geiago gara, zuok beste gitxienez be.

LIK.—Epe artu, yaun on, zure ardurapean dozunagaitik baño ezpa'da be,

PER.—Ezti la bigun izango al da oraln zure bizitzea! eta izan be, eguño eztau izan iñongo señek yaiotza ekaiztsuagorik: bare ta txerakor izango al da zure izakerea! eguño errege-kumek mur.du onetara eltzekoan izan dauen ondo-etorririk zakarrena izan dozu-ta. Aurrerantzakoan beintzat zori ontsu izango al zara! Suk, eguratsek, lurrak, eta zeruak egin daiken asarre ta akar guztia izan da zure yaiotzean, amaren sabeletiko zure urteerea iragarteko: mundu onetarako sarreran bertan galtzen dozu zure bizi guztian irísxi al izango dozuna baño geiago. Begirakunerik samurrenak 'egingo al dautzuez orain yainko onak!

Ontzi-gizon bi aurrera.

I ONTZI-G.—Zelan doa zure adorea, yaun? Yaungoikoa lagun izango al yatzu!

PER.—Eztot adore-bearrik: etxautsat bildurrik ekalxari; egin-eginean be okerrik andiena egin yaustak. Orraitiño be, Itsas-bidari barri au-arren, sein errukarri au-arren, baretuko al litzok ekaitz au.

I ONTZI-G.—Nasaitu zadize, bolinok! Eztozuela gura?* Ez ete? Ekin, ba, putz egiten, eta ler egingo al dozue, iztenak egingo al dozuez!

II ONTZl-G.—Itsas-atean, kaian ba'gengoz, gezalak eta bitsak iretaigiari mun egiten yoon baño eleukie, ni goiti-beiii.

I ONTZI-G.—Yaun, itsasora egotzi bearko dogu zure erregenoa: goraka doa itsasoa, indartsu ta zaraiatsu dabil *axea, eta* ezta geldituko gorpua ontzitik kendu-arte.

PER.—Zuon siniskeri da ori.

I ONTZI-G.—Azketsi, parkatu gagizuz, yaun; oraindik be ori oituten dogu gu itsasgizonon artean, eta ekaniuai gogor eusteko gara gu. Orrazkero, arin emoiguzu, bertatik egotzi bear dogu itsasora-ta.

PER.—Egokitzat áozueno egizue. Erregenorik zori txarrekoen ori!

LIK.—Emen datza, yaun,

PER.—Oe bildurgarri *izan* dozu zure selngintzarako, ene maiíe orrek; ez argirik, ez surik: zearo aztu dira zugaz lengei betozkotsuak; eta eztauste emoten astirik zuri ilobi onetsirik emoteko be. bestera, hertatik egotzj bear zaudaz. gorpu-kutxarik osta-osta dozula, itsaspeko lupetzetara; eta an, zure azurren ganerako, oroigallu ta betiko argien ordez, zure laguntzat mazkor utsak dozuzala, bale okaginak eta uretza orroagileak, euren azpian, zurs gorpua zapal-zapal eta opil egingo dabe. Likoride ori, Nestor'eri esaiozu usain gozoak, idazkura ta ingi edo papela, ta nire pitxidun kutxatxoa ekarri dagistazala; eta Nikander'ek satinezko kutxea ekarri dagistala; burupekoaren ganean itxi egízu seintxoa: arin egizu. nik bitartean, abaderena eginik, Taixe'ri agur-arren batzuk egiten dautsadazala; zoli ta tizkor, andera. (LIKORIDE'k alde).

II ONTZI-G.—Yaun, or bean, ontzi-zuloen azpian dogu gertaurik orretarako kutxea, olbitarte ta irristuak uiez-eta itxirik.

PER—Eskerrik asko. Itsastar, zein itsasegi, zein itsasbaztar dogu au?

II ONTZI-G.—Tarso'tik ur gara.

PER.—Ara yo, itsastar on orrek ,eta Tiro'rako bidetik alde egizu. Noz eldu al izango ete gara Tarso'ra?

II ONTZI-G.—Egunsentian, *axea* gelditu ba'ledi.

PER.—Tarso'rako bidea artu egizu, arren!.. Kelon ikusten yoango naz ara, seintxoak ezin dau Tiro'rañoko tiderik egin-eta: eta an itxiko dot, arduraz yagon eta azi dagien. Zeurea egin zuk, itsastar on orrek: bertatik ekarriko dautzut gorpuo. (Alde dagie),

!I AGEBLEKU.--EPESO. KERlMON'eneko aela

KERIMON, Otsein bat, eta ontzia galdu daben batzuk oturrera.

KER.—Eee! PiIemoM

PILEMON aurrera.

PIL.—Deiez dago nire yauna, ala?

KER.—Sua ta okelea gertau egizak gizon errukarriontzat: ekaiztsu ta asarre izan dok gaba.

OTSEIN.—Ekaitz askotan izau nozu, baña gau onetakoa langorik eguño be eztot yasan.

KER.—II izango dok ire ugazaba i atzera ara yoan baño len; *a* osatu dadiken, soñaren berezko indarrai lagun egitekorik ezebe etxagok. Au emoiok osakaidunarij eta gero esaidak osakaiak gexoari zer egin dautsan. (PILEMON'i).

ÍKERIMON'ez beste guztiak alde).

Aiton-ssme bi aurrera.

I AIT.—Egun on, yaun.

II AIT.—Eoun on, yaun orri.

KER.—Zegaitik yagi zarie orren goiz, aitonsemeok?

I AIT.—It3as-buruan eta ezetariko babes bagariko lur gorrian dagoz gure etzategiak-eta, dardaraka dagoz, lurr-ikareagaz legetxe; euren ageak be tarrat egin eta guztiak lurrera yausiko zirala irudian: otoz-otoko oldarrak eta bildur utsak alde eragin dauste etxetik.

II AIT.—Orregaitik gatoz onen goiz zu kezkatzen; etxeko zereginen ardurarik ezta izan gu onen goiz eragi gauzana,

KER.—Ondo diñozue, bai, bai orixe.

1 AIT.—Baña ni andi be andi eretxita nago, zuk yaun orrek, zure ínguruan aínbeste ondasun izan-eta, nolan astintzen dozun zure urrezko lo gozoa orren goiz. Iñondiko be iñondiko da Izate-indarra onen lor-zale, onen lorr-adiskide izatea, orretarako ezek, naiz iñok bultzatu ta beartu bagarik.

KER.—Zera da ni beti intsigi izan natxakona. zindotasuna ta ondasunak baño emaitz oba dirala on-indarra ta zurtasuna; gure ondorengo zabar eta ardura bagsak laster eta beingoan baltzitu ta ondatu leikeez lenengo zer biak; baña ilezintasuna dagoke begira onantzengo zer biai, gizona yaungoikoturik. Yakina da beti ibili nazala osagillatzea ikasten, eta Ixilpeko arte edo trebetasun ori bide dala, bai gure aurrekoak idatzia irakurri ta pztertuz, bai neuk oartu ta ikusiz, nire onerako adiskide ta etxeko egin izan naz landaretan, metaletan, eta arrietan dagozan ur onetsi ta indarrakaz; eta ornin gauz eta gei naz izateak egiten dauzan okerrez, eta euren osapidez itz egiteko; eta orrako orrek pozagotzen nau, benetako pozagotzen nau, dedu lokearen egarriak, naiz, ergel eto eriotzearen pozkarri

diron níro oltjsorrcik sedctzks zorrotan pilti-!u to estuteak b«ño,

íí AIT,—Zuk yaun orrek esku zabalez xabaldu dozu zure goi-maitasinKi Epeso'ko erria gear, eiet eundokak dabe euren buruo zure seme-olabalzat, bizi barria zuk emonik oi: slo *et* zure yakiturjalr. bakarrilt, 92 zure nekeak bakarrik, oraindik be zabalik dagon zure iscrkektk be baño, eraon dautsoe Kerimon yaunari iñoz be aldíak ezebeztuko eztauen entzute langO entzulea.

Otsein bi aurrera kulxagaz.

I OTS.—Olan; *aia* eragl dagigun,

KER.—Zer dok orrako arí?

I OTS.—Yemn, ointxa-ointxe egotzi dau ilaasoak kutxa au gure itsasbaztarrera: ontzi urperatuen bateiiko da au.

KER.—Lurreiatu sgizue, begiratu dagigun,

II AIT.—Gorpu-kutxctren antza dau, yaun,

KER.—Dana dala, asiun *he* astun da. Indarrez idigi egizue bertatik: itsasoaren urdallea urrez beteegs ba'dago, gure r.orí oneralco ok eragin dautso alanbearrak.

II AIT.—Olantxe da izan be, yaun.

KER.—Arranotan, ondo artuia dauz zsr onek bere irriatu ta bitarteak uiez-eta! Itsasoak ©gotzi dau, ala?

I OTS.—Eguño eztot ikusi izan orrako ori ítsasbaztarrera egotzi dauena langO ugintzarrik.

KER.—Indarka idigi egizue: geldi! Usain gozoa datorkit ortik surretara.

II AIT.—Sunda samur izan be,

KER.—Eguño nire surrelara aldu danik blgunen-samurrena. Tira ba, srcigi agízua. Ya!nko altsu-ollsuok! Zer dogu eraení Gerpu!

I AIT.—Iñondiko da zer au. iñondiko baño iñondikoago!

KER,—Errege-eialez baturik; usain gozoztaurik, eta guztitariko sunda gozodun zorroen artean! Bidari-agiririk be bai! Apolon, yakitun egin nagizu izkuntza onetcin! (Ingl edo papel biribildutik irakurten darngoio).

Iragarri diragartzuet emen...
Iñoz legorrera ba'dadi kutxa au,
Nik, Perikel erregek, qaldu dot
Ludi onetako gure ondasun guzilak aña dan erregeno au.
Lur emongo al dautso idoro dagianak;
Erregeren alaba zan:
Saritzal, allxor onez ganera,
Yalnkosk ordolíiduko al dauteoe errukl au!

Blzirik ba'zaro, Perlkel, naibagaz ler eglnda dago zure bioiza! Bart yazo da otrako ori.

II AI7.—fíeguru be seguru, yaun.

KER.—Bai, bart seguru be seguro; eta izan be, begira ze il-barri dirudían! Zakarregl izan dira cra itsasora egotzi dabenak, Su egizue barruan: ekarri ona nire gelako kutxatxo guztiak. (Otsein batek alde).Yabetu ledike eriolzea biziaz ordu batzuetarako, eta orraitino be bíziaren suak ixiotu daikez barriro bendean egon diran indarrak. Entzunik dot Aigito'tar bat, bederaízl orduz lltzat elzanik egona, arduro ta ©sapide burutsuai eskerra!:, biztu egin zala.

Otsein bat aurrera barriro, kutxa, altzo-aipl ta suagaz,

Ori ondo, ori ondo; sua ta zcpiak. Ots atera egiezu. arren, gure ereskin zakar eta negcsrgarrlai, Beste beín yo bibolina: ara! zirkinik ba-dctgizu rookor orrek! Eresia ona!... Arnasgarría emon egiozue, arren! Aiton-ae. raeok, bíztuko *$<x* erregene *au; asl* dirs atzarten berezko indarrak; arnasct epel dario: bost ordutik gora ezta egon ilarena eglten: ikusi neian asten dan loratzen, barriro be bizi-lorea emoteko!

I AIT.—Zeruak, zure bitartez, geroago arrituago egiten gabez, eta betiko goratzen dabe zure ospea,

KER.—Bizirik da no au: begira ,onen betazalak, Psrikel'ek galduriko pitxien zerutar oniziok, asten dira euren urrezko ertzak alkarregaudik bananduten; agiri dira urik aberastsenezko ikatzariok, ludi au birritan aberastuteko. Bizi zadiz, izaki zoragarri ta bakan dirudizun ori, zure zori txarra entzunaz negar eragin dagiskuzun, (Zirkin dagi).

TAIXE.—Dine rr.aite ori! non nago? Nondik da nire yauna? Ze ludi da au?

II AIT.—Ez ete da iñondiko onako au?

I AIT.—Bakanik bakanena.

KER.—Ixilik, nire auzoko zindook! Lísgun zakidaze zuon eskuz; alboko geiara eroan egidazue no au, Izara ta liñozko aldagarriak ekarri: ardurarik aundienaz erabili bear dogu arazo mi, barrien barri yaustea benetako eriotza litxakio-ta. Tira, tira; eta Eskulapi izango al yaku lagun eta bideerakusla! (Alde dagie, TAIXE atereaz).

III AGERlEIOT.~TARSi0. KELON'eneko gelo.

PERIKEL, KELON, DUNIXE, ta LIKORIDE, MARINE bere besoetan dauela, aurrera.

PER.—Kelon dedutsu-dedutsu ori, yoan egin *beax* dot nilc nai *ia* nai ez; igaro dira nire amabi ilebeteak, eta auzitako bake da Tiro'ko bakea. Nire biotz biotzetiko eskerrik onenak zuri ta zure andereari! Yainkoak emongo al dautzue ganetikoa!

KEL.—Zure alanbearraren geziak zuri eriotzazartadea emon izan-arren, orraitiño geuk be minik asko artu dogu geziok gure ondo-ondora yausten ikusirik.

DUN.—Zure erregeno eztiarena! Alanbear estuai eder izan al yaken zuk a ona ekartea, nire begion onespen eta zori ongarritzat!

PER.—Goiko alai men egitea baño eztogu guk. Niro erregenoa datzan lekuko itsasoak legetxe asarre ta orroa egiteko gei ba'nintz, erraitiño be, diranez litzakez zerak. Zure ardurapean izten dautzut nire seintxo maite Marine, itsasoan yaio dalako, izen ori ezarri dautsadana; eta arren, bai, arren eskatzen dautzut errege-alabari dagokionez azi ta ezi dagizula, bere yaiotzeari dagokozan era-merak eta ekanduak izan dagizan.

KEL.—Ez izan orren bildurrik eta kezkarik, ene yaun, bestera, gogotan eukizu, gure erriari yaten emon zeuntsan yaun orrek, artuko dogula zure alabearen ardurea. Orretzazko ardurabagatasun eta zabarkeriak zlrtzil egingo ba'nindu, zu lagun ízan zatxakozan erriak beartuko nínduke nire egikizuna betetera: baíía orrako orretarako aztal eta ckulu-bearrik ba'Ieu nire biotzak, yainkoak azazkatu dadizala nigan orrako orretaz, nigan eta nireakan belaunik belaun!

PER.—Sinisten dautzut; zure deduak eta zure ontasunak bultzatzen nabe orretara, zuk zlnik ogiteka. Guk goratzen dogun Dine argia-arren, andera, seintxo orl ezkondu-arte eztot ebagiko nik nire buruko ulerik, Itsusl ta motz agertu ba'nadi be. Banoa geiagoko bagarik. Andera on, onetsi ta zori ontsu egin nagizu, nire alabatxoa arduraz azila.

DUI7.—Ba-dot neuk be alaba bat, baña a etxat izango zurea baño maiteago ta begiratuago, ene yaun.

PER.—Andera, zutzako nire eskerrak #ta nire arrenak.

KEL.—Itsaserizeraño be geuk eroango zauguz, yaun, eta an Netun'en ur-arlo zabalen eta orizearen axerik leunenen eskuetan Itxiko aauguz.

PER.—Ederresten dol zure eskelntza ori. Tira, andera maite-maite ori... Ene bada! negarrik ez, Likoride, negarrik ez: begiratu zuk zure anderatxoa, orretan datza zure etorkizuna-ta.-Tira, ene yaun. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-.EPESO». KERIMON'eneke geles.

KERIMON eta TAIXE aurrera,

KER.—Andera, idazki cm eta pitxi batzuk egozan zukin batera zure gorpu-kutxan; eta orrako orreik zure aginduaren begira dagoz orain. Ezagun ete yatzu idazkera ori?

TAIXE.—Nire yaunarena da. Ondo gogoratzen dot, ondo oroitzen naz itsasoan ontziratu ninduela ta, egin-eginean be sein egiteko nintzala; baña an seinik egin nebanentz, yainkoa-arren, nik ezin esan. Baña bein be iñoz Perikel errege niie senarra baniro ikusiko eztodanazkero, bestal-yanlzia yanlziko dofc eta ez izan iñoz be pozik.

KER.—Andera, ori ba'da zure asmoa, zuk diñozunez, eztago emendik urrin Dine'n yauretxea, eta an bizi zaitekez zure epea amaitu-arteño. Ganera, gogoko ba'Iekitzu, nire illoba batelt begiratuko zindukez an.

TAIXE.—Zutzako eskerrak dira nire ordain bakarra; ori dozu dana; orraitiño be. emaltza kaskar izan-arren, aundi da nire emoagurea. (Alde dagie).

IV EK 1 *L i\ ĹJ LJ L*

GOWER aurrera

GOWER.—Eldu dala Perikel Tiro'ra iruditu egizue, ondo-etorria emon dautsoela, tu bere gogara yarri dala an. Epeso'n izten dogu aren erregeno zori txarrekoa, Dine'n alde zin eginik. Marine'gana zuzendu orain zuon gogo-begiak, aurrera arin doan gure ekiteak *a* Tarso'n, Kelon'ek eresertia tu elertia irakatsirik, aurkitu bear dauta; aldean dauz ak ezikera onetik datozan edergarrí ta apaingarri guztiak eta, ori dala-ta, guztien arrigarri ta maitagarri dira a bera ta aren biotza. Baña, ai ene! sarritan nekez irabazitako gorapenen ondaniencli tu oztopo dan bdbizkeri mamuak bizia kendu gura dautse Marine'ri aizto azpikeritsuz, Orretariko gatxa dauen alaba bat dau Kelon'ek, neskato egina, ezkontzeko be gei dana; Piloten deretxo neskato oni, eta gure ipuin au idatzi ebenak segurutzut dabe, beti Marine'kin egon gura izaten ebala: baña naiz neskato onek bere atz luze, bedar, ela esnea baxen zuriz seda-ariz irun; naiz, orratz sorrotzez surzapiai ertzak artu, ta zulatuago sendoago egin; nai. kitarraren otsera obeslu, tu oraindik bt' alakatzeraño gautxoria ixilduazo; naiz, idazlan eder eta zintzorik askoz bere ugazabandera Dine'ri bere bendekotasuna iragarri; Piloten onek bere burua Marine oso-beteaz bardindu gura izan-arren, orraitiño be olango leiarik izatea ta beleak bere egaki edo lumak Papo' ko usoarenak bestean zuritzat euki dagiezula gura izatea bat litzateke. Marine'ntzako dira gorapen guztiak, zor yakozan gorapenak, gero, ez utsean emonak. Onako onek ítzaldu be itzaldu ta lausotu dauz Piloten' en edertasun-agiriak-eta, Kelon' en emazteak, txibizkeriaren txibizkeriz, Marine onu erateko gerturik dau eralea, bein Marints eranazkero, bere alubea leiakide bagarik agiri dadin. Bere asmo zantar eta aska. iriak len baño len burutzeko, ilik da gure iñude Likoride: zartada uu dala-ta, Dunixe zantarrak gerturik dau asarrearen lanki ernaria. Asmo zantar onen ume oraindik yaio bagakoa erakutsiko dautzuet, zuon yakingu. rearen asegarritzat: axe, egadun aldi bizkorra nire neurlilz meikien ganean eroanbearrean aurkitzen naz, eta olangorik ezin egin al izango dot, zuon irudimena nire yarrai ibili ezpa'dadi. Agiri da Dunixe, Loiiijj eralea laguntzat dauelu. (Alds dagi).

1 AGERLEEU.--TARSO, Iísasertzeke leku agiri.

DUNIXE ta LONIN aurrera.

DUN.—Ez aztu. gere, egin dozun zina; zin eginik zara oirako eri egiteko. Danu be zartadu batena du, iñok iñoz yakingo eztauen zortadearena. Ezin zeinke egin ludi onetan írabazi obarik lekarkizun zerik. Oraindik otzik dagon zure yakinkidetzeu ez al da berotuko, zure biotzean maitasuna sortu ta txerakor izateko; eztu errukiak be, emokumek eurak be ortik zear egotzi daben errukiak be, ez al dau urtuko zure biotzeko ieiu, zure egikizuna burutzeko gudari gogor izan buño.

LON.—Egingo dof nik orrako ori ;baña orraitiño be izaki on-maitagarri da neskato ori.

DUN.—Orrazkero, pozago artuko dabe yainkoak eurekana. Emen dator bera, berak maite eban emakume bakarraren eriotzeagaitik negarrez. Erabagita ete zagoz?

LON.—Erabags-erabagita,

MARINE aurrera, stzara-bete loragaz,

MAR.—Ez, Tellus'eri (14) ostuko dautsadaz lan. dara batzuk, zure bedar-ganean lorak zubaltzeko: loia bellegi, urdin, bioleíc amusko, ta lili orizko estalgia egingo dautzut zure ilobi-ganean, udeak dirauen artean. Nire errukarri! ekatx-aldian yaiotako neskato zori txarreko, nire ama il zanean yaioa, ludi au nitzako ezfa besterik, nire adiski ieakandik ortiki zear yaurtiten nauen betiko ekatxa buño.

DUN.—KOJIO, Marine! zegailik zagoz bakarrik? Zelan yazo da nire alabeu zukir> ez izatea? Ez egizu iristu ta ondatu zure burua naibagearen naibagaz: zure iñude nozu ni. Yaungoikou-urren, zure arpegiak bai izan dau aldakuntza langa aldakuntzea ezer onerako

(14) Lurra da "Tellus" dalokoa, eta Erro. *marrák* yainkstzat eben Lurra *b&,*

eztan aaibaga orregaz! Tira, ekatzuz isure lorok iísasoak lorrindu baño lenago, Ibiltaldi bat egizu Lonin'ekin: biziro dabil ernen axea, ta yangarra biztu ta zorroztu egiten dau. Tiia, Lonin, besotik artu ta zabiltz orrekin,

MAR.—Ez, arron; otzaudaz itxi gura zure otsein bagarik.

DUN.—Tira, tira; jsure aita erregea ta zeu maíte zauedaz, eta erbestetarren biotzeri dagokon baño maiteago maite be, Egun oro gagoz gu aren begira; a etorri dadinean, ago guztien autorrez eredu zarean ori olan zimeldurik aurkitu ba'zagis, damutu egingo *áa alango* ibiJtaldi luzerik egin izanaz; nirs yaunari ta niri ezarriko dausku errua gure zabarkeriz zuk bide obarik artu ezarena. Zoaz, arren, ibili zadiz, eta argitu zadiz ostera be; euki ta gorde egizu guzte ta zarren begiak ostuten e-cazan zure belarte argia. Ez izars kezkarik ni etxera bakoirik noalako.

MAR.—Tira ba, ytxsngo nazj baŕki orrailiño be sz nira gogara.

DUN,—Tira, tira, ba-dakit an eginge dautzula. Ordu-erdi baten ibili gibcienez, Lonins gogotan euki esan dautzudana.

LON.—Seguru zagoz orretaz, andera.

DUN.—Itxi egingo zaudaz bein-beinectn, ene anderaño ezti oris astiro, ibili, arren, ez beretu zure odolaks bol *ba*\ yagon egin bear

MAR.—Eakerrik ssko, andera ezti. (DUNlXE'k alde) Saŕkaldeiiko eis *úa* putz dagictn axe au?

LON.—Egoe-sarkaidetiko.

MAR.—Iparr-axe *zan* ni yaio níntzanekoa.

LON.—Bai ete?

MAR.—Nire iñudeak esan eustanez, niro aiiak BE eban izaa bildurrik, itsBsgizcnai "Itscistar onok!" gedsj- egin-alct ontziko loltarriai tenka bere errege-eskuak mindu ta urralu ebazan; eta ontzi-ageari gogor elitsala yasan eban eta arpegi emon eutsan larri-larri ontzi-gana aurrean eroan eban itsasoari,

LON.—Noz izan zan orrako ori?

MAR.—Ni yaio nintzaneans eguño ezta izan ugin andiagorik, ezta *axe* indarisuagorik be; ontzi-oiala atonizeko lokarrizko zurubia gora igon dan itsastarra ekatxak, bere bendean arturik, ortik zear darou, etcr euretariko batek dirautsos "TI-ÍO! ba-oa, ala?" eta bertatik otutako asnioz, zirrist egiten dabe ontzi-burutik azkenerus txistua yoten dau ontzi-zaiak, eta deiez dago ontziburua, eta orrako orrek geitu egiten dau ango nastea.

LON.—Tira, egizuz zure arrenak,

MAR.—Zei essn gurci dozu?

LON.—Asti-apurrik bear ba'dozu zura arresnak egiteko, emongo daulzut; egin zure arre. nak; boña *ez* izan geldo, belarri soliak dabez yainkoak, arin entzuten dabe, eta ni zin eginik nago nire egikizuna arin egiteko.

MAR.—Zegaiíik eran gura nozu?

LON.—Nire etzanderearen ederra egite-arren.

MAR.—Eta zegaitik gura dau ak ni eratea? Ara, nik dakidanez, nik ezin dot oroitu eguño nik ari ezelariko okerrik egin izan dautsadanilc; eguño eztautsat iíz txarrik esan, eta bizi dcm ezeri be eztautscit txarrik txarrez ordaindu; sinistu egidazu, eguño ezíot eian sagurik be, ezta euliri okerrík egin be: lurreko arrik nire oinpean zapaldu izan ba'dot, nire gogoaz bestera izan da, eta negar egin izat; dot orregailik. Zetan egin izan dautsat nik ari okerrik, nire eriotzeak ari onik ekarteko, naiz uire bizia aren galáu-gordegarri ízateko?

LON.—Nire agindua ezta nire egitea zegoítik dan zuri esateito, «gíiiduci egiteko baño.

MAR.—Ditxarotianez, olangorik eztozu egingo ludi osoagaitik be. Arpegi atsegingarri dozu zuk, eta biotz ona dozula etakusten dabe zure begirakuneak, Oraintsu ikussi zaudaz nik min artuía, burrukan _ eragoioen bi banantzen zenbiltzala; benetan, biotz ona dazula iragarri eban orrako erreks olangoxe Isan zadiz orain bes uire biziaren billa dabií zure eizaiiderea; bitarlean sariu ssakigus, eta yarei nagissu ni, ni naz bieíarils makalena-ta.

LON.—Zin eginda nsgo, ata bete egln guro doi zinez agindur

Itsas-Iapurrak auiTera, MARINE'k burrukan doragoiola.

I ITSAS,—Geidl, dolior ori! (Igesi doa LONIN).

II ITSAS.—Goakei! gaakei!

III ITtíÁS,—Erdi bana, lsgunak, erdi bana. Tira, ontziratu dagigun no ari len baño len. (Itsas-lapurrak alde, MARINE daroela),

LONIN aurrera barriro.

LON.—Aldarrai dabiltzan lapurrok Valdes itsas-Iapur aundiaren otsein dira. eto goatu dabo Marins. Doala; eztago atzera etorriko danaren bildurrik, ez itxarorik. Ilik dala ta itsasora egotzi dodala ziu egingo dot. Baña luzaroago egongo naz begira, ba-iedike ba, orreík no orrekin gozartzea, ta ontzian ez eroatea. Emen gelditu ba'dadi, eran egin bear dot nik orreik mutxikindu dabena. (Alde dagi),

II AGERLEKU.–MIT1LEPíE, Emagaldutegike *gela.*

Emagaldulegl-burua, emagaldu-burua, ta BOULT aurrera,

EMAGALDUT.—Boult...

BOULT.—Yaun?

EMAGALDUT.—Arduraz arakatu egik zeía: emazalez heterik yagok Mitilene. Diru geiegi galdu yoagu ogihide onetan, neska gitxiegi dogulako.

EMAGALDU-B.—Egu"io eztogu izan onenbesteko neska-ezik. Iru emikarri baño ezioguz, eta ezin daikie dagiena baño geiagorik: ela etentzaka egin bear dabelako euren lana. aragí ustela baño bape oha eztira.

EMAGALDUT.—Barririk iritxi bear dogu. orrazkero. eurakaitik edozer ordaindu bear ba' daigu be. Edozein ogibidetan yakinkidetzarik erabilj ezik (15), ezhi egin aurrera.

EMAGALDU-B.—Egia diñozu: nire ustez, nik amaika bat sasikume errukarri azi la ezi ízan-arren, olangorik guk eztea ezta...

EMAGALDUT.—Bai, amaika urterarte, eta gero galdu egin dozuz. Baña zeia arakatuko ete dot?

EMAGAI.DU-B.~Zer besterik egileko. gizon? Axe indartsuk putz egitekotan, lurreratu ta birrinduko dauz gure salgeiak, ain usteldurik dagoz-eta,

EMAGALDUT.— Egia diñozu; ustel be ustelegi dagoz yakinkidetzearen aldetik. Mutxikin txikiakin etzandako Transilbaní'tar zori txa rrekoa ilik da.

BOULT.—Bai, laster eta beingoan bete eban no ak a pinporta (16) zorna-zorroz; okela erre egin eban no ak akin, eltxarrentzako. Baña ba-noa zeia arakalzen. (Alde dagi).

EMAGALDUT.—Iru-lau milla txekineko dirutzea (17) polito letorkigu nasai bizileko ta gure ogíbidea bertanbera izteko.

EMAGALDU-B.— Zegaitik ílxi. arren? Lotsagairi da zartzaroan irabaztea, ala?

EMAGALDUT.—Ba! gure irabaziak eta gure entzulea eztoaz batera; eta gure irabaziak be eztira gure galdu-gordeen neurriko: orrazkero, gure gaztearoan alasoko ondasuntzarik pilatu al ba'gendu, eletorkigu okerrik gure ateak ondo i'jrita eukitelik. Orrez ganera, yainkoekazko gure arr-emonak eztira adiskideegi-ta, orrek be bullzauko gauz, eta indartsu bultzau be gure ogibidea iztera,

EMAGALDU-B.—Tira, tira ,beste ogibideetarikoak be guk beste oker egin daroe.

EMAGALDUT.—Guk besie! bai, eta bai areago be, geiago *bes* guk oke? txarragorik egiten dogu, Gure ogibidea ezta tegezko ogtbiderik *hs;* ogibíderik be ez, Baña emen dator Boult.

Barrien bgrri *amrera* BOULT, MARINE ta Itsas-lapurrekin.

BOULT,—(MARINE'ri) Erdu ona. Ene yaunok, neskato garbi dala mi diñozue, alci?

I ITSAS.—Ba! yaun, eztogu orrako orren ezpairik.

BOULT.—Yaun, agindu dauizuet nik orren alderako agindu daikedana: gogoko ba'yatzue, ondo; ostantxean alperrik izan dirs níre aperturiak.

EMAGALDU-B.—Boult. ete dau no orrek alderdi onik, zer onik?

BOULT.—Betarte on dau, ondo daki itz egiten, eta soñeko eder baño ederragoak dauz: eziago beste aiderdi ta nolangotasunen bearrik ori artu bagarik izteko,

EMAGALDU-B,—Zenbalean dago salgel, Boult?

BOULT.—MiUa rxintxinstik berago tsakurtxiklrik be eztabe eratsi gura.

EMAGALDUT.—Tira ba, zarraikidaze, ene yaunok; berlatik izango dozue zuon dirua. Emazle, barrura sarlu egizu neskato ori; irakalsi egiozu bere egikizuna, bere arloan zakar eta barri izan eztadin (Emagaldutegiburuak eta Itsas-lapurrak alde).

EMAGALDU-B.—Boull. artu egizuz neskato onen ezangarriak... onen ule-kolorea, arpegi-kolorea. luzera-laburrerea. adina, eta neska-garb:tasun baia; eta gedar egin etxartegide ta zeia zear: "Geien emon dagianak izango dau lenen". Onango neska-garbitasuna elitzake zer merkerik ,gizonak lers izan dirana ba'litzaz, Egik nik agindua, nlk agindu dauskadanez.

(15) Ogibide zantarreko ízan-arren, ba-dau gizon onek ontasun-apurrik,

(16) Nire ustez, Shakespeare'n eaakera onetako, "She guickly pooped hirn", "poop" adltza españerazko "pupa" itzetik sortu eban, ingelcmdera-iztegieiain aditz orri okrngo escm-gurarik ezarri ez-arren, eta nire ereixiaren arouz euskeraztu dot toki au. Izan be, lizunkeritiko gaitz lotsagarri-iguingarri orrek zorna-uneak sortzen dauz narruan.

(17) "Txekin" dalako au txíntxín edo díru yatzu, aldi atan Itali'n eta Turki'n erabílten zana, eta bederatzi bat "xilin" añako yatzun,

BOULT.—Egina izongo *áa* agínduo. (Alda daqi).

MAR.—Al enel Lonln'en zabar eta geldo!... Yo egin bear nindukean ak» ez autu-auto ka astirik galdu,*.., edo-ta, itsas-lapurrok, zakarrik asko izan ez-eta, zegaitik ez ete ninduen egotzi itsasora, ontzi-egaletik, mire amaren billa!

EMAGALDU-B.—Zegaitik daragoiozu alaka, 11-rain orrek?

MAR.—Lirain nazalako.

EMAGALDU-B.—Tira, yainkoak egin dabe euren egilekoa zugan.

MAR.—Aik eztodaz salatzen.

EMAGALDU-B.—Nire eskuetara yausi *zaxa, ta* emen bizi bearko dozu, urrean.

MAR.—Egin-eginean be ainbat okerrago nitzako, urrean ilgo nindulceanaren eskuetatik onik alde egin izana.

EMAGALDU-B.—Bai, eta aiseginetan eta atseginez biziko zara,

MAR.--Ez.

EMAGALDU-B.—Bai. olan biziko *zata,* ela guztitariko aiton-semeak gozatuko dozuz. Ondo ibiliko zara; or ikusiko dozu gizonevik gizonera dagon aldea. Ostera! Itxi egilen dozuz belarríak?

MAR.—Emakume ete zara?

EMAGALDU-B.—Zertzat nozu, emakumelzat ezpa'nozu?

MAR.—Lotsadun emakume, edo ez emakume.

EMAGALDU-B.—Ba! narrua berotuko dautzut ollandatxo orri: zereginik eta bearrik emongo daustazula usle doL Tira, landaratxo ergel eta oker zara zu, eta nire gogara ar-teztu bearko zauáaz,

MAR.—Yainkoak yagongo al nabe!

EMAGALDU-B.—Yainkoai eder ba'dakie zu gizonen bitartez yagotea, gizonak dira zu nosaitu bear zabezanak, gizonak emon bear dautzue yaten ,gizonak erabili bear zauez. Atzera etorri da Boult.

BOULT aurrera ostera be,

Eta, yaun, aldarrikatu, íragarrí dok no au zeia zear, ala?

BOULT.—\a *ia* orrek buruan uletan dauen beste bidsr aldarrikatu Izan dot; orren irudia egin dot nire gedar eta zarataz.

EMAGALDU-B.—Eta esaidak, arren, zelan eragin yautsak orrako orrek yenteari, alan be gazteriari?

BOULT.—Nire sinistea-arren, euren aitaren ilburukoari so egingo leuskioen legetxe so egin dauste. An izan dan Españar bat pozaren pozez eta Iiritsaren Irrilsez agotik ura dariola geldilu da-ta, oera yoan da nire azalbena entzun-ala.

EMAGALDU-B,—Emen ízango dogu « biar bere idunekorik edsrrenakaz»

BOULT.—Arraiseon, arralseon. Baña, andera, ezagun ete dozu zuk, makuruirik zangoak iztarrai deutsela egoten dan Pantze'tar zalduna?

EMAGALDU-B,—•Nor? Monsieur Veroles, ala?

BOULT.—Bai: nire aldarriketea enlzun-ala yantzaldi bat egiteko gogoa iragarri dau: baña poz-urrume eginda, neskato ori Ikusten biar etorriko dala zin egín dau.

EMAGALDU-B.—Ori ondo. ori ondo; agazko, *a* Izan da bere gatxa ona eltarri szan dauenai ak bere gatxa emen barriztau baño eztau egiten, ba-yaklat a gure ilzalpean bere burestunak gurs eguzkiaren inguruan iminten etorriko dala.

BOULT.—Tira ba, erri bakotxetik bidazti bat ba'letorkigu, guzliak arluko geunkez emen gurean, ezaugarri oni eskerrak,

EMAGALDU-B.—(MARINE'ri) Arren, onago zatoz apur baterako. Zuganako bidean dozu zori ona. Oar zakidazj gogoz dagizuna gogoaz bestera ta bildurrez egiten dozularen irudia egin bear dozu; irabazirik geien dozunean, Irabazia aíntzakotzat be arizen eztauenarena egin. Bizi zareanez bizi zarealako negar egiteak be errukilu egiten dauz zure maitaleak, eta erruki orrek entzuts ona dakartzu geien baten, eta entzule on ori irabazi uts yatzu.

MAR.—Eztautzut aituten.

BOULT.—Ba! gelara eroan egizu, andera, gelara eroan egizu: bertatiko egitez itzali bear dira no orren arpegiko gorrlak.

EMAGALDU-B.—Egia diñok ik, izan bei bai, olantxe kendu bear yakoz. Eta izan be, ezkonbarría be lotsaz yoaten da egiteko orretara, egiteko ori arentzako legezko izanarren.

BOULT.—Benetan, bat2uk bai. baña beste batzuk ez. Baña, andera, aragia neuk erosi dodanazkero...

EMAGALDU-B.—Izan be, burduntzian dagola usikada bat kenfzeko eskubide dok.

BOULT.—Bai ba, egin daikel orrenbesterlk,

EMAGALDU-B.—Nok ukatzeko ori? Erdu, gazte, begiko-begiko yat zure yantzien yoskerea ta erea.

BOULT.—Bai, nire sinistea-arren, bein-beinean aldatu-bearrik eztabe orreik.

EMAGALDU-B.—Boult, Ire eztarria rnialu ta ire trebetasuna agortu-arte iragarri egik au urian: iragarri egik zelango «rrotza do-

gun etseans oituta ago-lo» eztofe ezer galduko. Berezko indarrak zati au egin gbenean, íori ona Iregarr! yoen itzako; orrazkero. esaik zelango bardinbake dan neskato au, eta uzta lange uztea izsngo dok ik zabaldutako barrien alderalto.

BOULT.—**Seguru zagoz, andera, esiotsek** eztauzala iralzarriko arranoak euren ^letan, **neskalo orren ederlasunaren barri emon dagledan lizunkerikorrai nik eragingo dausedan bestean fl?).** Arratseon ekarriko dodaz balonbatzuk.

EMAGALDU-B,—Erdu. íanaikldaa.

MAR.—Su berorik, aizto zorrotzík, naiz uretaa sakoník ba'dago, azkatu bagarik eukiko dol oraindik nire neskabarbltasun-korapila. Dine, lagun zakidaz nire burubíde onelsn!

EMAGALDU-B,—Zer dozu zuk egítekorlk Dine' kin? Arren, etorrike ete zara gukin? (Ald« dctgie).

Ilt AGERLEXU.--TARSO. KELON'eneko gela.

KELON **eta** DUNIXE **aurrera.**

DUN.—Bal buruUk eglnde zagoz, ala? Zelan manatuteko beín egina?

KEL.—Dunixe ori, olango erale lango eraterik ezlabe eguño ikusi izan eguzkiak eta iretargiak!

DUN.—Zu ostera be umetu egingo zalxakuz, urrean.

KEL.—Ludi osoaren yaun eta yabe ba'nintz be, dana emongo neunke egin dana manatzearren. Andera **ori, anderaño ori, odolez baño be on-indarrez goragoko zinlzazan ori; bardin bagako zure írabaziakaltik zuzenez ludiko burestunik gorengoa bardintzeko añako errege-alaba zintzazan! Lonin dollorra, alangoa! eta *a* be zuk edenez eran dozu; aren osasunaren alde zeuk lenen edan izan ba'zendu, zure egiteari ondo legokion egite izango litzakean zure aldetik orrako oris zer esango dautsazu Perikel zindoari a ona bere alabearen bilki eldu dadinean?**

DUN.—Ilik dala esango dautsat, Aña **edo iñudek eztira alanbearrik, biziari indarrik emoteko, ezta eusteko be. Gabaz II zan; ori esango dautsat nlk ari. Nok guzuTtatzeko orrako ori? Zuk errubakoarena egin eta zure zindotasuna goratze-arren, zu gedarrez asi ezpa'zakiguz esaten;** "Azpikeri iguingarrlz il zan".

KEL.—Bal, bai, bide ori artuizu, Tira, tira, au da zerupeko okerreri guztietatik yainkoai gitxien gogoko yakiena.

DUN.—Emengo txepetxak, emendik egaz eginda, onako onen barri Perikel'eri emoten yoango dirala uste dabenetariko zauguz, ala? Lotsatuta nago zu yatorri ain zindoko izan eta orren gogo-kikil zareala gogoratuaz.

KEL.—Olcngo egiterik aurreztik ederretsi ezarren, bein egindakoan ederretsi dagiana ezta yatorri zíndoko.

DUN.—Olan bedi, orrazkero; orraitiño be, zeuez bestek eztaki no s nolan il zan, eta yakin be ezin daike, beln Lonin yoan danazkero. Itzal egiien eutsan no ak nire alabeari, eta a beraren eta aren zorl onaren bitartean yarrita egoan no a; Iñok be ez eban begirik imini gura agan. begirada guztiak Marine'n mosura egolzi baño; gurea lausoturik, sorkitzal etsita, eta egun-argilan agertzeko laintzat be ez egoala. Biotza ausí ta erdibitu eustan orrako orrek samin sta suminez; eta zuk nire egites berezkoaz besterakotzat etsi ta deitu-arren, zure alobea bear aña matte eztozulako, orraitiño bs, ni-

(18) "Thunder shall not so awake ,the beds oi eels, as my giving out her beauty stir up the lewdly inclíned" diño Shakespeare'k to ki onetan. Itz-arlo onetako "beds of eels" (on giren oeak) ba! baño geiago imíni izan dau buruari azkct, gure idazleak or zer darabilan igarri-ezinik. Ostotsetara orren bildurti ete dirct angira edo angilak beste píztien aldecm? Arrain Iuzanga, labcm, suge-cmtzekook egunez urpeko lupetzan ostonduta egoten ei dira, ta gabaz urten andik yanari-billa. Angiren bizitza goraberak ikasl dabezanak diñoenez, arrainok bizi ta artega ibilten ei dira ekaitzik dcmean eta olongoxe eguraldiz yoaten ei dira ibaietatik itscrsora cmgira emeak, cmgíra arre-n billa, alkarrekin aragízkoa egiteko. Iñok orko "eels" itzaren ordez "eagle" (arrcmo) irakurrj ta beste erderaratu izcin dau, eta neuk be olamtxe egin dot, baña enago nasai egin dodancrgaz. Barriro aldatu bear ba'neu arlotxo au, onetara aldatuko neuke: "Ostotsek eztau iratza"""[1]ko angirarik bere oean, no orren edertasuna nik iragarteak lizunkeriJcoiok eragingo dauzcrn bestean arin".

Baita, ba-ledike Shokespeare'n gogoak beste biderik artu izana be, eta angira ízenaz lizunkeritan egitez dagozcnak iragartea. Bokotxak bere aburuori beutso,

re ustez, egin dodana goraka *la* Ixaloka dabilkil zure alaba bakarraganako egits gorcigarriz egintzal,

KEL.—Zeruak azketsiko al dabe egite ori!

DUM.—Ela Peiikel'gazko, zer esateko ak? Negarrez yoan gaja aren gorpu-kutxearen yarrai, eta ondiño be negar dagigus amaituaginik dago no arenlzako oroigallua, eta aren guztitariko goraketak iragarteko or dagoz ilobi-ganean urrezko izki dizdizkorrak, eta gure aldetiko ardurea be bai, gure díruz eragi izan da-ta.

KEL.—Arpi (19) langoxe zara zu, lukikeriz eta iruzurrez, zuk zure angeru-arpegi orregaz zure arrano-aztal edo erpaz goatu egiten dozu-ta.

DUN.—Neguak euliak eraten dauzalako yainkoas alakatzen yakezan siniskeritsuen antzeko zara zu; baña orraitiño be ba-dakit nik nire onuari yarraiko zatxakozala. (Alde dagie).

GOWER aurrera, MARINE'n Tarso'ko oroigalluaren aurrean.

GOWER.—Onan, aldia iruntsiaz goaz eta legoarik luzeenak be laburtu egiten doguz; Intxaur-mokoletan digaroguz itsasoak, olangorik otu ba'dakigu; zuon irudimena lagun dogula, mugatik mugarakoa, lurraldetik lurralderakoa eginik. Azketsiko. parkatuko gozuez, gure agerleku guztietan, alkarregandik urrin egon-arren, izkuntza bat bera ba' darabilgu. Nigandik ikasi egizue, arren, ÍFuin onen utsune ta bitarteak bete ta zuoi irakasteko izentaua neu nozue-ta. Ostera be Perikel itsaso gogalditsuak zearkatzen dabil, bere laguntzat andiki ta zaldun asko dauzala, bere bizitzako atsegin guztia dan bere alabea ikusteko. Oraintsu Elikan'ek errege-erriko goiko malla argitsuetara eragi izan dauen Eskan agurea gelditu da Erregeerria yaurteko. Gogotan euki egizue. Elikan agurea bera be bide-lagun dala. Ontziak, oial-ontzi bikainak eurak, eta axe adiskideak erregea Tarso'ra ekarri dabe, Eiikan-eta atzean itxita; aren lemazai gogaketea bera izan dala uste izateko da gero; orrazkero, zuon lemazaia be arena bera dala, zuon gogaketak be alantxe yoango dira auirera..., bai, bere alabea etxera eroateko eldu da a; aren ontzia besteak baño lenago eldu da-ta, an urrinean ikusi egizuez bi'.der eta itzal-une antzez apur baten igitzen diranak; neuk alkarren adiskidetuko dodaz zuon belarriak eta begiak, an yazoten dana erakutsiaz,

Erakusketa Ixll.

Aurjera, alde batetik PERIKEL eta bere Yarraigokoak; bestetik, KELON eta DUNIXE. MARINE'n oroigallua darakutso KELON'ek PERIKEL'i, e!a orrako ori ikusirik, negar dagi PERIKEL'ek, soñeko latza yazten dau, eta alde dagi naibaga-naibagaturik. Gero KELON eta DUNIXE'k be alde.

Or ikusi zelan azaluskeri lotsabako-iguingarriak ijuzur egin leion siniste bakunizurbakoari! Iruditutako naibaga onek artu ta betetzen dau naibaga yatorraren lekua; eta Perikel'ek naibaga uts eginik, intzirl-darloka, eta negar-tanten itzalez bere burua busturik, alde egiten dau Tarso'tik, eta ontzira doa barriro. Zin dagi eztauela bein be iñoz ikuziko bere arpegia, ezta bere ulerik moztuko be: soñeko latza aldean dauela itsasoratzen da. Ekaitz itzalek goatzen dau eta aren aragizko ontzi ilkorra urratzen dautso, baña orraitiño be bizirik ateraten dau. Atsegin izango ete litxakitzue orain yakitea Dunixe geztoak Marine'n obi-ganean idatzi dauen obiganekoa? (Ba-dirakur MARI NE'n obi-ganeko ídazkunea).

Lirainena, eztiena ta onena datza emen,
Bere urteen udabarrian igartu zana.
Tiro'ko erregeren alaba zan,
Ela eriotza zakarrak eran izan dau;
Marine eretxon; eta aren yaiotzean
Tetis'ek, arrokeriz, lurrik arean Iruntsl oban:
Eta iurrak, urak ganera etorrikoren bilduirrez,
Tetis'en besoetakoa zeruari opatu dautsai
Orregaitik asarrez yoten dauz Tetis'ek suarrizko itsasegiak
Eta zin dagi eztala bein be baretuko,

DoIIorkeri baltzarentzat eztago morro ta «»• talgi obarik labankeri bigun eta samurra baño. Sinistu dagiala Perikel'ek ilik dala bere bere alabea, eta Alanbear andereari itxi dagiola bere bideak zuzentzen; bitartean, gure agerlekuan antzeztuko da aren alabearen naibagea ta zori txar astuna, aren egikizun zantarrean. Epe artu, ba, eta srain zuok guztiok Mitilene'n zariela Iruditu egizue. (Alde dagi).

(19) Arpi edo emakume-egazti. Mitu-iztiko zer au soñez egazti ta buruz emakume ei zan; erpa-luze ei zan, eta txitean-pitecm egoten ei zan zirin andurtsu-nazkagarria eriola. Ikusi Enearena III, 241-265, eta Odiseurena I, 141.

IV AGERLEKU.-MITILENE. Emagaldutegi- aurreko etxartebide.

Emagaldutegilik urten diran Aiton-seme bi aurrera.

I ÁIT.—Eguño entzun ete dok ik onangorik?

II AIT.—Ez, eta entzungo bez onangorik olango lekuan, bein no orrek emendik nlde eginazkero,

I AIT.—Izaa be, nori otuteko Yaungoikoagazko itzaldirik egingo euskuela or! Olangoren amesik be egin ete dok eguño?

II AIT.—Ezta urrik be, Tiruk, ni enaioak bein be geiagotan emagaldutegietara: bestalen abesíiak entzuten yoango ete gozak?

I AIT.—Onindarrezkorik izatekotan, edozer egingo yoat; beti-betiko izten yoadaz ník Hzunkeri-bideak (Alde dagie).

V AGERLEKU.--MITILENE, Emagaldutegike ieku.

Emagaldutegi-burua. Emagaldu-burua, ta BOULT aurrera.

EMAGALDUT—Tira ba, no orregaitik ordaindua langa bi baño gurago neunke orí eguño ona agertu ezpa'litz.

EMAGALDU-B.—Ken, ken ori emendik! Krapu yainkoa bera otzituteko be asko da no ori. eta baí gizaldi batena egiteko be. Mutxikindu egin bear dogu, naiz ortik zear bidali. Gure bezeruai txerakor agertu, ta nire ogibidean lagun izan bear leuskidanean, zipladaka datorkit bere zegaitiakaz, bere zegoiti nausiakaz, bere arrenakaz, bere belaunbikatzeakaz; orrek, berorren zerokaz, txeirena bera be garbizale (puritan) egingo leuke, ak orri mosurik eskatu ba'leio.

BOULT.—Níro sinistea-arren, mutxikindu egin bear dot, ostantxean orrek gure zaldunetarik bat be eztausku itxiko, eta gure bezeru guztiak abade egingo dira, ori dala-ta.

EMAGALDUT.—Ni gora-bera, sakute edo naparr-eriak orren arpegi zurbila yo baño eztau!

EMAGALDU-B.—Nire sinistea-arren, orrena egiteko eztago beste biderik, gaitz itsusia *attazo* baño. Emen dator Lisímaka yauna kokomarroturik.

BOULT.—Yaun eta bendeko .andiki !a beeko geunkakez guk, mukerr-ontzi ori bezeruentzako txeratsu ba'Iitz.

LISIMAKA aurrera.

LIS.—Kaxo! Zegan dozue neskagorbitasunaren amabikoa?

EMAGALDU-B.—Yainkoak onetsiko al dabe zure omengarritasuna!

EMAGALDUT.—Zu omengarri ori onik ikusteak enau gibci be poztuten.

LIS.—Ba-dozu onetarako biderik izan be; ainbat oba da luontzako zuon bezeruak zango zindo-ganean tente egoteko geí izatea. Ze barri, zelan doa gaiztakeri osasungarri orí? Ete dozue soin-eballa bagarik zulatu leitekenik?

EMAGALDU-B.—Ba-dogu bat emen, yaun, orrako ori berak gura ba'Ieu.,., baña olangorik bein be ezta eidu Mitilens'ra.

LIS.—Ilunbeko egikizuna egin gura ba'leu, esan gura dozu, ezta?

EMAGALDU-B.—Zeuk yaun orrek dakizu ondorik asko nik zer esau gura dodan,

LIS.—Tira ba, deitu egizue, deitu egizue.

BOULT'.—Aragi ta odol ordez, zuri ta gorrí ordez, larrosea ikusiko dozu, yaun; eta izart be, larrosa Iitzaíeke no ori, zera ba'leu...

LIS.—Ba'leu. zer, arren?

BOULT.—Ba! yaun, neuk be ba-dakit ioísea zer óan.

LIS.—Goragarri yako lotsor izatea emagaldubururi, eta orrako orrek eztamotso ari entzute on gitxiago, amaika emagalduri zindoentzute damotson baño. (BOUI.T'ek alde).

EMAGALDU-B.—Emen dator oraindik bere aldorrari deutsan larrosea... oraindik iñok andik urratu eztauena, nik baitu neiuketzunez.

BOULT eta MARINE aurrera barrien barri.

Ez ete da lirain zer ori?

LIS.—Nire sinistea-arren, itsasaldi luzeren ostean eletorke txarto ori. Tira ba, eutsi au zeutzako; gu geuretara itxi gagizuz.

EMAGALDU-B.—Arren, yaun, emoidazu zure ederretsia, orri itz bat edo bi egiteko, eta bertatik amaituko dot.

LIS.—Esan esatekoa, arren.

EMAGALDU-B.—Lenen, neskato, gizon ou eztala edozetarikorik, omengarri baño, yakin eragin gura dautzut, (Ixilpean eta balcarrean dirautso MARINE'ri onako au).

MAR.—Omengarritzat esteko nik, aintzakotzat ídoroko al dot.

EMAGALDU-B.—Urren, lurralde onetako yaurla yatzu ori, eta bendeko nauen yizonct.

MAR.—Lurralde onetako yaurla ba'da ori, izan be orren bendeko zara zu; baña bere egikizunean noragiño dan zindo ta omengarri, yakiteko nago oraindik.

EMAGALDU-B.—Arren, zure neskagarbitasuna yagoten ibilteka, txerakor izango ete zatxakoz? Urrez beteko dautzu orrek amantala.

MAR.—Esker onez artuko dautsat emaitzez emon dagistana,

LIS.—Egin dozus egitekoa, ala?

EMAGALDUB.—Ene yaun, oraíndik ezta bideratu no au: neke onik artu bearko dozu au zure benderatzeko. Tira, eurak euretara, bakarrik itxiko doguz yaun omengarri ori ta neskato au, Zoaz... (Emagaldu-buruak, Emagaldutegi-buruak eta BOULT'ek alde).

LIS.—Lirain ori, luzaro íbiii ete zara ogibide onetan?

MAR.—Zetariko ogibidetan, yaun?

LIS.—Zuri irainik egiteka izentau ez'iii deda. neun,

MAR.—Nire ogibidea ezia iñori irainik egitekorik; aitutu egizu, orrazkero, arren,

LIS.—Luzaro ibili ets zara bide onetan?

MAR.—Nik oroitu daikedan aldiazkere,

LIS.—Orren gazterik artu zendun bide ori, ala? Bost edo sei urteko zintzazanetik ara ibili zara bide orretan, ala?

MAR.—Bai lenagotik be, orain ba'nabii,

LIS.—Ba! zu bízi zarean etxe onek beronek diño salgeietariko zareala zu.

MAR.—Crretariko etxe dala au yakiiíik, ona zatoz zu, ala? Nolo...gotasun ondun gizon zareala, la tcki onetako yaurla zareala entzunik nozu.

LIS.—Ostera! zure ugazabandereak iragarri dautzu ni nor nazan, ala?

MAR.—Nor da nire ugazabandera?

LIS.—Ba! zure baratzaina; lotsarl ta gaiztakerizko landarak landatzen dauzan emakumea. Baj zerbait entzun dozu zuk nire alaz eía, orregaitik, maitasun-arazo au benago erabiiteko asmoz agiri zara zu muker eta uxo. Bufia autor duutortzut. liraintxo orri, nire aluk etzauzala ikusi gura zagozan lez, rnuilusunu zuri bests eraz iragarrl baño, Tira, toki ezkutuen batera eroan nagizui Ura, tira.

MAR.-—Omenerako yaioa ba'zara, erain erakutsi; omena ezarri ba' dautzue, egitez erakutsi egizu eztirala oker íbili olangotzat etsi zinduezanak.

LIS.—Zer diñozu? Zer diñozu, neskato? Ekin upur baten oraindik... Zur izan zadiz.

MAR.—Ene! ene! nirearen zori txarra! Neska garbi nozu, eta txarri-txoki, txarritegi onetara ekarri ninduenazkero eri edo gatxak osakairik baño karuago saitzen ikusi izan dodaz zori txar bekaiztiak ekarri nindun txarritegi onetan. Ene! yainko onak yareiko al nabe leku askarri onetatik, naiz eta aik egurats garbitan egaz dabilen txoririk zirtzilena izatera aldatu ni!

LIS.—Eneban uste nik zuk orren ederto ta egoki itz egiten zenkianik; olangoren *ame*sik be eztot egin eguño. Asmo ustel-zanta. rrik ekurri izan ba'neu be ona, zure itzaldiak aldatuko euskidan. Eutsí, zutzako da urre au: ekiozu daroazun bide garbi orri, bai, eta yainkoak adoretuko ul zauez!

MAR.—Yainko onak yagongo al zauez!

LIS.—Nigazko, asino txarrik eztodala ekarri ona uste egizu zuk; nigazko, emengo ate tct leioak eurak ba iguingarri yakoz nirs ago-^apaiari, Agur, eta onik eta ondo ibi-11. On-indar oso tci utsezko zara zu, eta eztot ezetariko ezpairik azi-ezikera zindo izan dozula, Eutsi zutzako urre geiago, Gaiztetsi ta askarri bedi, lapurtzat ilgo al du zuri zure ontasuna ostu dagiketzuna! Nire barririk izan ba'dagizu, zure anerako izango da.

BOULT aurrera ostera be, USIMAKA'k MARINE'ri ziskua emoten daragoiola,

BOULT,—Arren, yaun, ekadazu nirí be zati bat.

LIS.—Ken akit, atezai askarrl-gaiztetsl orl! Nes. ka garbi onek eutsingo ezpa'leutso zuon etxeari, lurrera letorkek eta bere azpian zapaldu ta opilduko zindukiez. Alde egik emendik! (Alde dagi).

BOUI.T.—Onangorik! beste bideren bat artu bear dogu zugazko, Eguzkipeko baserri-yatetxerik merkeeneko gosarigarri be eztan zure neskagarbitasun asarbera orrek etxe osoa oudatu ba'dagisku, txakur uletsu legetxe irendu nagiela. Erdu ona,

MAR.—Nora eroan gura nozu?

BOULT.—Zure neskagarbitasuna kendu gura dautzut, ostantxean erri-eskegitzalleak egingo dau orrako ori... Tira, onago zatoz. Eztogu gura beste aiton-samerik emendik uxatuterik. Erdu, gero,

Emagaldu-burua aurrera barriro.

EMAGALDU-B.—Kaxo! Zer yazoten da?

BOULT.—Geroago ta txarrago, andera; itzaldi gurenak egiten ibili yako Lisimaka yaunuri onuko au.

EM.AGALDU-B.—Askarri ori, alango ori!

BOULT.—Yainkoen aurrean zer andurtsu *ba'* litz legetxe darabi) no orrek gure ogibidea,

EMAGALDU-B.—Denganiñoen denganiño! eskegi dagiela ori bein betiko!

BOULT.—Andiki orrek andikiro egingo eukean no orregazkoa, eta orrek edur-bolea bestean otzik bidali dau ortik zear; *a* bera be arrenak egiten doala.

EMAGALDU-B.—Boult, kenduik ori emendik; eure gogara erabili egik: ausi egíok orren neskagarbitasunezko ieiarra, eta mallugarri egik ganetikoa.

BOULT.—Dan baño lurr-arlo arantzatsuago ba'iitz be no au, landu ta giyauko docju,

MAR.—Entzun, entzun, yuinkook!

EMAGALDU-B.—Araoka daragoio no orrek: ken egik ori emendik! ez al zoan ori eguñe etorri izan nire etxeko ate-barrura! Denganiñaen denganiño, eskegi egik ori!... Gu ondaízeko, gurea egiteko yaio dok orí. Ezton ibili yura emakumc-k dabiltzan bideak zear, ala? Denganiñoen denganiño, erdu ona, erromeru ta ereñonlzez ondutako neskagarbitasunezko yaki ori! (Alde dagi).

BOULT.—Erdu, anderaño; etorri nikin,

MAR.—Nora eroan gura nozu?

BOULT.—Zuk orren aingarriizat esten dozun zure pit-xia zuri kentzara.

MAR.—Arren, lenen zertxo bai esaidazu,

BOUI T.—Tira ba, dakusagun zure zet baknr ori.

MAR.—Zer izatea gurako, opatuko zeunskio zure arerioari?

BOULT.—Ba! níre ugazaba, naiz nire ugazabanderea langoxe izatea opatuko neunskio,

MAR.—Orreiíarik bata be ezta zu zeu bestean gaizto, zuri agintzen dautzuelako orretan zu baño oba dira-ta. Su-lezako ixerreník eloriioisueuak be eleuskitzu artuko zure lekua berearen ordez, zuk dozun entzuteagaítík: zera zara zu, emagaldu-billa datozan gizen zirtzil guztien atezai askarri; edozein dolior asairekorren belarrondokoak artzeko dagoz zure belarriak; zuk yaten dozun yanaria bera be bidietako gatsa dabenak ganera oka egina langoxe da.

BOULT.—£ta zer egiteko nik? Guduetara yoan nadilla gurozu, ala? Zango bata galtzeren alderako, an gizona zazpi urtean otseintzan ibilteko, eta azkenean zurezko zango but erosteko *aña* diru ez izateko?

MAR.—Dagizuna bagarik beste edozer egizu, Ustu egizuz zikinkeriaren ontzi zarrak, edo erri guztiaren zikinkeri-bideak; erri-eskegitzallearen otsein egin zadiz alogerean: ogibide orreitarik edozein yatzu zure oraingo au baño oba, zure oraingo ogibide ori matxangok be, itz egin al ba'leu, ogibide orren lzena karuegi erosia dala esango leuke. Yainkoak onik yareiko al nindue leku onetatik! Eutsi, eutsi diru au zeutzako! irabazia ba'litz nire ugazabak nigandik gura leukena, autor dautort ba-dakídala nik abestuten, iruten, yosten, eta yantzan egiten, eta arrokeririk e2 erakuste-arren ixilik eta ostonduta dodazan beste on-indar batzuk be; >;tu ni gertu nago onako zerok irakasteko arloa neure gan artzeko. Eztoi ezetariko ezpairik uri yentetsu onetan ikasiarik asko izcingo neunkela,

BOULT.—Baña gauz ete zara, gero, zuk diñozuzan orrako zer guztiak irakasteko?

MAR.—Erakutsi egizu ni enazala gauz orretarako bai, eta guzurrik esan ba'dot, barrlro eioan nagizu etxera, eta ara etorten dan gizonik zakarren eia ziztrinenoren emagaldu egin nugizu.

BOULT.—Tira ba, ikusiko dot ia zure alde ezer egin ul dodan: zuie gogokorik a) ba' dagit, egingo dot,

MA.R.—Baña emakume zindoen aitean, gero?

BOUI.T,—Egra esateko, orretarikoekaz arremon etu ezagutza gitxi be gitxi dot, baña nire ugazabak eta ugazabandereak erosla zaranazkero, neuk emongo dautset ai zure asmoaren barri, eta eztot ezpairik itzuliko dirala orretara, Tira, al dodana egingo dot zure alde? erdu. (Alds dcrgíe),

V EKITALDI

GOWER aurrera.

GOWER.—Onan igesien da Marine emagaldutegitík, eta etxe onera aidatzen da, gure ipuñak diñonez. Ilezinek legetxe abesíen dau, eta yainkonok lez egiten dau yantzan, bere itz neurtu arrigarriak abestu-ala: ixilazo egiten dauz yalcintsu sakonak; eta berezko langoxe irudiak egiten dauz bere orratzez: garba, loru, txori, naiz igalirenak; ain trebez iruditu be-ta, bere irudiak *b<u-*

diiídu egilen dubez bere irebetasunarsn aiztak, izakiak eurak, eursnezke larrosak; birki dirudie sedazko aren galartzuak eta kerexa gorriak; eztau ak, ez, odol zindoko ikaslaren ezik, eta eskuzabalka ixurtzen dautsoe aik altzora euren ondosunetatik. eta emagaldu-buru askarri-gaiztetsiari emoten dautso ak ikasleakandik artua. Emen izten dogu neskato ori; eta orren aitaganan-!za zuzentzen doguz ostera be gure gogaketak, a itxi gendun lekuro bertara, itsas-ganera, An gaidu gendun a; eta axeak andik, eui'au aurrean arturik, ona ekarrt ban dabe «, bers alabea bizi dan toki onotaru; eia iisasegi enelan aingurea ureiara egeizirik irudilu egizue orain a, Netun yalnkoaren urteroko yaiak egiten daragoio urfak; ba-dakus Lisimaka'k Tiro'tiko gure ontzia, beronen ikurrin baltzak ertz txairoz apaindurik; eta ara doa gogatsu ta arin bere ontzitxoan.

Beste bein iruditu egizue zuon irudimenaz Perikel naibagetua, gagozan toki au aren ontzia dala irudituaz: eta emen ikusíko dozue guk egitez erakutsiko dautzuguena, eta bai geiago be, al ba'da; yezarri ba, ta entzun, arren. (Alda dagi),

I AGERLEKU.-MiUlene'ren aurrean dagon PERIKEL'en ontzi-barrua. Txozna bat ontziganean, aurre-aldean errezel bat dauela; PEJÍIKEL txozna- barruan, oean erdietzanik. Ontzitxo bat datza Tiro'tar entzi aundiaren aldamenean.

Itsasgizon bi aurrera, bati Tiro'tar entzikoeiarikoa, bestea ontzitxokoetarikoa; ELIZAN doa eurekanantza,

TIRO'TAHRA.—Nondik da Elikan yauna? Alc ebatziko dau zure arazoa (Mitilene'ko itsasgizonari dirautso onako au). Ba! emen da bera... Yaun, emen aldameriean dago Mitilene'tiko ontzitxo bat, eta Lisimaka yaurlea dago bertun. gure ontzi onetara igongurarik. Eder deretxatzu, ala?

ELIK.—Berari eder izango al yako. Dei egiezu aiton-seine batzui.

TIRO'TAR ITS.—Eee! aiton-semeok! deiez dagotzue nire yauna.

Bi, naiz iru Aiton-seme aurrera,

1 AIT.—Deiez zagoz, yaun ori, ala?

ELIK.—Aiton-semeok, gizon aintzakogarrí bat dago ontzira igon-gurarik; arren, txera argi egiozue (Yatsi egiten dira Aiton-semeak eta Itsasgizon biak, eta ontzitxoaren barrura doaz, Aurrera datoz andik LISIMAKA ta Andikiak, arako Aiton-seme ta Itsasgizon biakin batera).

TIRO'TAR ITS.~Yaun, au yatzu zuk zer-gura ebatzi leiketzun gizona.

LIS.—Gora, yaun begiragarri ori! yainkoak yagongo al zabez!

ELIK.—Eta zu, yaun, ni naᶻsn baño zarrago egingo al zara, eta nik il gura nsunkenez ilgo *al* zara.

LIS.—Gurari onik iragarten eta opatzen daustazu orraitiño. Legorrean Netun'en omenezko yaiak andikiro egiten geragoiola ontzi au gure aurrera etorrela ikusirik, bertorako bidea artu dot, nondiko zarien yakiteko,

ELIK.—Lenen, eta oríik asíeko, ze toki da zuon au?

LIS.—Zure aurrean dozuu toki onetako yaurla nozu ni,

ELIK.—Yaun, Tiro'tiko da gure ontzi au, eta enegea dago barruan; iru ilebete onetan bere naibagea luzatu baño eztagian gizona, iñori itzik egin eztautsan gizona, eta yan be egin eztauena, bere naibagea luzatzeko laintxo bario.

LIS.—Nondik edo zetatik datorko ondoez ori?

ELIK.—Gogaikarriegi litzake orrako ori barrien barri esatea; baña aren naibagearen iturbururik beinena ak bere alabea ta emaztsa galdu izana da.

LIS.—Ez ete leuskigu itxiko bera ikusten?

ELIK.—Bai, itxiko dautzu; baña alperrik izango yatzu *a* ikustea.,., iñori be sztautsa itzik egín gura-ta.

LIS.—Orraitiño be gura dodana egiten itxl egidazue.

ELIK.— (Ba-darakutso PERIKEL) Begira egízu. Zindo zan gizon ori gau eriotzagin eta eriotzagarri batek egokera orretaratu-orteño.

LIS.—Gora, errege yaun! yainkoak gordeko al zabez! Gora, erregetur yaun!

ELIK.—Alperrík da; eztautzu egingo itzik.

1 ANDIK.—Yaun, neskato bat dogu emen Mitiiene'n, eta egingo neunke nik, ak baielz itz eragin orri.

LIS.—Ordu onean otu yak orrako ori. Ezpai bagarik ak, bere ereskidetza eztiz eta beste eratorkizun bikainez, liluratuko leuke ori. eta idigiko leuskioz orain gorturik eta erdigeldirik dauzan soin-atalak: zori ontsu du

a, lireineiaiik iirsinen daíake, ete Uaro-a!-detik dagon itzalpe ori'oUotsuan dago orctin bere neska-lagunekin, (lxilka itz egiten dautsa lenengo Andikiari, eta legorrerantza *doa au* LISIMAKA'ren ontzítxoctn).

ELIK.—Seguru seguru be, dana da aiperrik; orraitiño be osapide-izena dauen zerik eztogu baziartu ta bertanbera itxi gura. Baña zure txetakortasuna onagiño ekarri dogunazkero, ederretsiko al dozu guk zuri, urreren alderako, yanarí harririk eskatzea, ez yanaririk eziogulako, zarrez eta urdinduz aspertuta gagozalako baño,

LIS.—Oba ez! elange txerarik ukaiuko ba' geuntzue, eltxar bakotsaren alderako beldar edo zeruko katuren bat bidaliko al leuskue yainko zuzen-zuzenak, eta gure lurralds osoa ondatuko. Orraitiño be, beste bein itxi egidazue zuon erregeren naibagearen iturburua zein dan itandu ta yakiten,

ELIK.—Yezarri zatliz, yaun, ostera be eralgíko dauizui orrako ori,,, baña, ikusi,- ba-da-ioz orreik-eia, ezin dot,

Aurrera barriro ontzitxotik Lenengo Andikia, MARINE ta Andera gazts batekin,

LIS.—Amen ba, emen dogu billatuazo dodan neskatoa, Ondo etorria, lirain ori! Ez ete da eáer ikuskizun au?

ELIK.—Andera eder eia txairo, benetan,

LIS,—Ain txairo da-ta, yatorri on eta zindoko dala seguru ba'nenki, eneunke besterik obetsiko, eta zer bikaintzat neunkake orrekin ezkontzea, Lirain-Ierden ori, zure begira dago emen eskuzabaitasunean agertzen dan oníasun guztia, erregetar gexo bat dagon leku onetan; zori onez zurs irebetasun andiak ezeíariko erantzunik atera ba'legio orri, zeuk gurako zeunken langoxe saria lortu ta artuko zeunke ederlirain orrek.

MAR.—Yaun, nire trebetasun osoa erabiliko dot ori osatzeko, neu ta nire neska-laguna bakarrik orren aldamenera yoan al izatekotan.

LIS.—Goazen, itxi dagigun neskato ori; eta ondoren onik ekarriko al dautsoe yaínkoak, (Abesten daragoio Marine'k).

LIS,—Oartu ete yako zure eresiari? Iragarri dau ezer?

MAR.—Ez, ezta gu begiratu be.

LIS.—Begira, itz egingo dautso neskatoak,

MAR.—Gora, yaun! entzun egidazu, ene yaun.

PER,—Jum, ja!

MAR.—Neskato nozu ni, ene yaun, eguño iñoren begiratzerik eskatu eztauena, iñoren begiak allizarra lez bakarrik ikusi izan dabena baño; iiz dagiizunak berak be yasan izan dau neibagarik, ondo neuriu ta astatuazkero zurea baŕdindu leikenik, Zori edo alanbeaŕ gogalditsuak mustur okerrik erakutfi izan-arren niri, erregeen kide izan ziran nire yatorriaren aurretikoak: baña sustarretik erauzi, atera dau aldiak nire yatorria, eta munduaren eta munduko alanbearren otseinizara beartu nau. (Bere kiteani Bsrtanbera itxi bearko dot egikizun au: baña orraiiiño *be* zerbaitek argi egiten dau uire mosuan, eta ixil-niuxilka dabiikit nire Lelarrira: "Ez alde egin orrek itz egin-arieño".

PER.—Nire alanbearrak... yaiorrla,,, yatorri on... nirea besieko!,,, ez ete da izan olan? Zer diñozu?

MAR.—Nik diñodana zera da, ene yaun, etzeunkidala gogor egingo, nire yatorria ezagun ba'iitxatzu.

PER.—Olan usls dot neuk be. Arren, nigana itzuli egizuz zure begiak, Alangotsu zara 2u izan be. Noruiíko zara, andera? Itsasbazlar oneitako, ala?

MAR.—Ez, ezta iñongo itsasegikorik be: orraitiño be ilkizun, ilkor yaio nintzan, eta enozu nazan langoxe baño besterik,

PER.—Naibaga ta lorretan naz ni aundí, eia negarrez eralgiko doi eralgi dagidana. Neskato au langoxe zan nire emazts maits-maitea, eta alangoxe izan eiteken nire alabea be: nire enegenoaren ereduzko bepuruak; aren goí-herako, atzondo baten alderik be baga; taketa bestean artez; a legetxe urrezuri abotseko; orrenak legetxe pitxl antzeko ziran aren begiak, eta orrenak bestean eta orrenak legetxe kutxa ederretaní beste Yune, Yune barri, ibilkeraz; yaten emotsn dautse onen iízak entzungose diran belarriai, eta orrek itz eginago goseago dira belarriak, Non bizi zara?

MAR.—Arrotz eta erbestetar baño enazan íekuan: ontzi-ganetik berezi zeinke leku ori.

PER.—Non azia zara? Eta non iritxi dozuz euren yabe izateak ainbai aberatsago egiten zauezan zure emaitzok?

MAR.—Nire edeslía, níre bízitzako gora-bera ta atzera- aurreak azaldu ba'neitzuz, guzur irudituko litxaketzuz, entzungarri be elitzukezantat,

PER.—!tz egizu. arren: ezin etorri ledike guzurrik zugandik; eta izan be, Zuzentzea bestean apal dirudizu zuk, eta bere bizilekutzat Egi burestundauak dauen yauregiaren antza dozu zuk: sinistuko dautzut nik, eta nire sentzu edo oarmenai sinistuctzoko dautsedaz zure itzak ezineraño eldu-arte, nik

benetan maile nebemaren antza dozu-ta. ' Nortzuk iznn ziran zure gurasoak? Nik atzera bultzau zaudazanean ezlozu esan, •-eta orrako ori zu somatu zaudazanean yazo da--, eztaustazu esan yatorri oneti&o zareala, ala?

MAR.—Oiangoxe naz izan be,

PER.—'Zure yatorriaren barri emoidazu. Zera esan dozu nire ustez, okerretik okerragora egotzia izart zareala, eia zure naibaga-lorrak nireak besteko leitekezala, argitaratu ba'lediz.

MAR.—Olangelsu zer batzuk esan be ©san dodaz, eta eztot esari nire gogapenak egitzaí dabenoa bSEterik.

PER.—Eralcji egidazu zure edesti edo ipuñct: zuk yascna nik yasanaren miilatik bat be ba-dakt erakutsí ba'dagistazu, gizan zara su, eta neskatok Iez eroan dot nik nire lurras orraiíiño be, Epe dhudizu zuk, erregsen llobiak begíra dagoia, eriotzeak eginari irri egiten dautson Epea bera. Hurtzuk zircra zure gurasoak? Zelan galdu zenduzan? Zer yatzu izena, ene neskagarbi begikobegiko orri? Barriro eraícji egidazu, arrem erdu onct, aldarnenean yezarri zakidaz.

MAR.—Marine deretxat.

PER,—Ene! Irri egiíen daustazu, eta yainko ssarrean batek biiali zauslaz, iudiak nire iepoiik harie egin dagian,

MAR,—Epe aríuizu, yaun on, ostuiitxean oinbte berianbera itxiko dot nire ipuin au.

PER.—Ez, ez, epe urtuko dot, Gitxi be gitxi dakízu zuk zenbat ikaratu nauen Marine yaizula izena entzuteak.

MAR.—Agiiiizarik ebanak emon eustan izen ori..„ nire aiía erregek,

PER.—Osíera! errege-alaba zara, ala? Eta Marine yatzu izena?

MAR,—Sinísluko dausiazula esan daustazu; baña zu ez asaidatzeko, oiritxo ixilduko naz,

PER.—Baña aragi ta odolezko ete zara, gero? Taupadarik egiten ete dabe zure zan gorriak? Ez ete zara zu maitagarri edo olangoren bat? íibiii be ete zabiltz?... Tira, ba, ekin. Non yaio zintzazau? Ela zegaitik ezarri euizuen Marine izentzat?

MAR.—Itsasoan yaio níntzolako deitu ninduen Marine.

PER.—Iisasean! Nor zan zure ama?

MAR.—Errege-aluba zan nire arnaj eta ni yaio nintzctn une be-rean ii zan a, nire iñude Likoride'k sarriian negarrez esan izan daustanez.

PER.—Ene! gelditu zadiz apur bateu! (Bere kitecmj Áu da eguño lo motelak ergelaí irrí egiteko srabili izan dauen amesik balcanena: ezina da onako au: ilobian da nire alabea. Ori ondo: non azi zinduezan? Ondarr-ondarreraño entzun gura dodaz zure bizitzako gora-berak eta yoan-etorriak, eta bein be eztot etengo zure ekinik,

MAR.—Nekez sinistuko daustazu: nire ekina neuk etetea oba litxakit.

PER.—Azkenengo iiz-txataleraño sinistuko dot zuk esango dozuna. Orraitiño be, ekadazu zure baímena... zelan etorri zintzazan tokiotara? Non azi zinduezan?

MAR.—Tarso'n itxi nindun nire aita erregek; Kelon biotz-gogorra ta aren emazte geztoa niri bizia kentzeko asmotan asi-arte; eta egikizun orretarako dollor ziztrin bat aik erosirik, eta a ezpatea lekatik aterata egoalarik, itsas-iapur mordo bat agertu ta yarei egin nindun; Mitilene'ra ekarri ninduen. Baña, yaun on, noragiño eroan gura nozu? Zegaiiik zagoz negarrez? Ba-ledike zuk ni guzurtítzat estear ez, ez erixe; Perikel erregefeu alaba nozu ni, Periken ona bizirik ba'da,

PER.—Eee! Elikan!

ELIK.—Deiez dagokit nire yauna, ala?

PER.—Onulari ben eta zindo augu i, zur edozetan; al ba'dck esaidak nor dan neskato au, nor dan, naiz nor izan Ieiteken, onan negar eragín daustan neskato au.

ELIK.—Eztakit, bct, nik; baña emen dagon Mitilene'ko yaurleak goratzerik askogaz itz egiten dau neskato orretzaz.

LIS.—Eguño be eztau esan gura izan noren alaba danik; olangorik itanduten izan yakon guztietan yezarri ta negar egiten izan dau.

PER.—Yo naglk, Elikan orrek, yaun goragarrl ta goratu orrek; zuuritu nugik, elorrioren bat ezarri egidak; ganera etorri yatan pozezko itsasotzar onek, nire ilkortasunaren itsas-erizai gaŋaz egin, eta bere eztitasunetan iio enagÍan.-Ene! ene! erdu zakidaz, zu sortu zinduzana bera sortzen dozun ori, bízia emon eutzunari aizera bizia damotsazun ori; itsasoan yaio, Tarso'n obiratu ta barriro itausouu idoro zauguzan ori! Elika» ori, belaunbikatu adi, eskerrak emon agiazak yuinko gurenai, ostotsak zemaitzen guuzan bestean zatatatsu: Marine dok au, Zer yakon izena zure amari? Orí bakarrik esaidazu, ezpaiak betiko loak artu izan-arren, egia eguño be eztago bear bestean baietsia-ta.

MAR.—Lenen, yaun, arren, zein da zure izengoitia?

PER.—Tiro'ko Perikel nozu ni: baña nire erregeno itooren izenci esaidazu oroin; zuk

esan dozun ganetikean yainke bestean oso ta egin-egineko izan zarean legetxe, errege-errién ondorengo zara zu, eia bai bizi barri be zure aita Perikel'entzako.

MAR.—Zure alaba izatea baño geiago ete *da* nire amari Taixe yakola ízena esatea? Taixe zan nire ama ni izaten asi nintzan une berean amaitu zana,

PER.—Onespen edo oneste guztiak etorriko ai dira zugana! yagi zadiz; nire alaba zara zu. Yantzi barriak ekadazuez. Neure-neure Elikan ori,„„ nire alabea Tarso'n Kelon basatiak erail-bearreko ízan-arren, a etzoan il Tarso'n: beronek eralgi ta esango dausk dan-dana; i lurrean belaunbikatu ta autortu dagikanean ori dala ire errege-alaba, Nor dok eta zer dok au?

ELIK.—Yaun, Mitilene'ko yaurla da au, zure gogaldi motel-ilunaren barri yakin dauenean zu ikusten etorria.

PER.—Besnrtean artu ta estulen zaudaz, Ekadazuez nire yantziak, Zoraturík nago nire yardukeran. Zeruok, zeruok, onetsi egizue nire alabatxoa! Baña, entzun, ze eresi dogu uu? Ene Murine, esaiozu Eiikaii'eri, eralgiozu arlotxorik arloixo, seguru be seguru nire alaba zareala, ori oraindik be ezpaiz beterik eta sinistu-ezinik dagola dirudi-ta, Baña ze eresi dogu orrako ori?

ELIK.—Ene yaun, nik eztantzut ezetarikorik.

PER.—Ezetarikorik be ezetz! Zer borobilen eresi be eresi dok! Entzun, ene Marine,

LIS.—Ezta egoki orri bestera ekitea; amore egiozue.

PER.—Iñondiko olsak dlra orreikl Eztozue2 entzuten, ula?

LIS.—Nik ba-danlzut, ene yaun. (Eresja yoten).

PER.—Zeru-zerutika eresí! zaztadak emoten daustaz, entzun dagidan, eia lo-gura itza. la dot begien ganean; lo eçjiien itzi egidazue. {Loak artzen dau).

LIS.—Burupekoen bat imini egíozue burupean: ba, nire adiskide ta lagunok, gago-gogoían izango sauedaz. (PERIKEL'ez beste guzíiak alde).

DINE agertisn yako FERIKEL'eri ikusklzunean legetse.

DINE.-—Epeso'n yagiien da nlre yaureíxeas zoaz arin ara, eia oparia opatu egídazu nire opa-maiaren ganean. Nire yaupari neskak an batu dadizanean, erri osoaren uurrean iragarri egizu itsasoan ela zelan galdu zendun zuro emaztea; zure alabearenukaz batera zeure lor eta naibageai negar egiteko, fccirriztau egizuz, eta ostsi-i be biztu egizuz, Egizu nire agindua, ecío, ostantxean, naibagaz heterik bisúko zara? egizu orrako ori, ta zori onisu izan zadíz; unezurizko nire arranbekt-arran! Atzarri ta eralgi, iragarri zure aniesct. (A'.de dagí).

PER.—Zerutar Dino, urrszurizko yainkono ori, egingo dot zure agíndua. Elikan!

Barriro be aurrera ELIKAN, LISIMÁKA, MAríINE, eia abítr,

ELIK.—Yaun?

PER.—(Elíkan'i) Tcrso'rako asinetan nintjocm, an Kelon arrotz-arerioari zigorm ezcrtslto; baña aurreztik beste egitekorik ogin-bsarrean aurkitzen nolc: Epeso'rdntza zuzendu egizak gure ontzi-oíal puztuak; yeruago esungo daiiskat orrako orren zegaitia. (LISíMA KA'ri) Zure itsasbaztarrsan atsaden tirtu ta urre-ordez yanuri barririk erosiko ete doyii, gure aamoetarako bearreko izango yukuzeta?

LIS.—Nire bioíz osoagaz, yaun; eia legori'3-ratu zadizenerako ba-doi neuk be zuontzako eskakizunik.

PER.—Emongo yatzu eskakizun ori, nire alabearen eskua eskaizea ba'dadi bs; dirudianez, zintzo ta zindo izan zatjeakoz-eta.

LIS,—Ekadazu zure besoa, yaun,

PER.—Goazen. ene Mariiie, (Alde dagiei.

GOWER aurrera, DINE'n Epeso'ko Yaursixeaurrean.

GOW£R.—Igaro-aginik dira gure ondarr-eiloiu. ko ondar edo areak; apurtxo bat geiago, ta eginik daga, Ba-ditxarot orrenbesteka txerarik zuolcaridik-eta, azkenençjo eskuerukuísi au emoidazue, zera, egoki ía bidezko danez iruditu dagizuezakt Milileije'ko yaurleak, erregerl txera egíie-arrsn, egin izan dauzan yaiak, zaldunketak, ikuskizunak, eta bertsolarien ekiteak, eta yoale-yoíe argiak... Ainbeste irabazi dau aketci, Maríne lirainakin ezkontzeko opea egin izan yako,-baña ez ezetars be erregek Dine'ri agindu izan yakon oparia egin baño lens bitariean arako bidea artzen dogunazkero, arren eta otei egizue, arritu ta nasturik, Egodun aldi íaburrez geríatzen dira itsas-ontziak, eta gu*ta* izan-ala beieten dira. Ikusi Epesolco Dine'n yauretxea, gure erregea ta bere laguntzako guztiak, Onsn arin eldu ba'dadí a ara, zuon eslcer oneko irudimenari eskerrak izango da. (Alde dagi).

II AGEHLEKU,--DINE'n Epeso'ko Yaurelxea; TAIXE zutunik opamaiaren aldamenean, yauperlno nagusi-zurrean; neskagarbi batzuk aren aldamen bietan; KEHIMON eta beste Uritar batzuk ari laguntzen.

PERIKEL aurrera, bere Laguntzakoakin; LISIMAKA, ELIKAN, MARINE, ta Andera bat,

PER.—Gora, Dine! Zure agindua betetzen etorririko Tiro'ko Errege nazala dautort emen; aberritik biidurrez iges egin eta Pentapoli'n Tuixe lerdenakin ezkoniu nintzana, Sein-©gitaldian il zan *a,* baña Marine izeneko ulubeu argitaratu eban; etu onako onsk, yainkono ori, zure urrezuri-yantzia daroa aldean. Tarso'n, Kelon'enean azí zan au, baña au amalau urteko zala, eran egin gura izan eban ak; orraitiño be, Mitilene'ra ekarri eben au onen izar obeak; gure on-Iziak ango ilsas-ertzaren aurrean ibili ebiltzala, gure ontzira ekarri eben au neskato onen alanbearrak, eta uire alaba zala erakutsi eustan an, beronen oroimen argiaren bidez.

TAIXE.—Arexen abotsa, arexen arpegia! Zu zara, bai, zu zara... Perikel errege ori!... (Larriturik, Iurrera yausten da).

PER.—Zer esan gura dau emakume orrek? Ilten dago! lagun zakioez, aiton-semeok!

KER.—Yaun zindo ori, Dine'n opamaiari esan dautsazuna egia ba'da, zure emaztea da au.

PER.—Agertzalla begiragarri ori, ezta olangorik; neuk egotzi neban a ontzi-egalu bera itsasora, neure eskuokaz.

KER.—Itsasbaztar onetara, bai orixe.

PER.—Seguru-seguru ori be,

KER.—Begira egizu anderea; ba! pozaren poza baño eztau... Goxalde axstsu baten. goiz-goiz, egotzi eban itsasoak andera au itsasbaztar onetara. Idigi neban gorpukutxea, eta pitxi aberatsak idoro nebazan an; biztu egin neban au eta Dine'n yauretxe onetara ekarri.

PER.—Ikusi ete dagikeguz pitxiok?

KER.—Yaun aundl, nire etxerako dei dagitzut eta ara ekarriko yatzuz. Begira, obatu da Taixe.

TAIXE.—Ene! itxi egidazue begiratzen! nire ezpa'dadi izan ori, nire gurentasunak eztautso itxiko nire biotzari soin-oarmenen dei nasairi yaramonik egiten, ori ikusi-arren, gogor eginaz, soin-oarmenok benderatu baño. Ene! ene yaun, ez ete zara zu Perikel? Ak legetxe itz dagizu, aren antzeko zara: eztozu aitutu ekatxaren, yaiotzaren eta eriotzearen izenik, ala?

PER.—Taixe zanaren abots, berbaro berbera!

TAIXE.—Iltzat eta itotzat etsitako Taixe berbe*ta* nozu ni,

PER.—Dine ilezin ori!

TAIXE.—Obeto zazagudaz orain. Pentapoli'tik negarrez alde egin gendunean, nire uita erregek onangoxe erastunu emon eutsun zuri. (Erestuna eratusten dautea).

PER.—Auxe, bai, auxe; asko da, yaínkook! oraingo zuon txera argiak olgeta uts egiten dauz igaro dodazan ezbear eta zori txurrak; on eta ondo egingo dozue, orren ezpanak ukutu-aia ni urtu ta betiko ondatu ba'nagizue. Ene! erdu zakidaz, bigarren aldiz obiratu zadiz nire besootun.

MAR.—Yauzika ta ikutika dot nire biotza nlre amaren altzora yoateko (Belaunbikatu egíten yako TAlXE'ri).

PER.—Begira, nor belaunbikatzen yatzun or! Zure aragiaren aragi, Taixe; itsasoko zure zamea, eta an argitaratu zalako, Marine deretxona.

TAIXE.—Onetsi, ta neure-neure ori!

ELIK.—Gora andera, ta nire erregeno!

TAIXE.—Etzaudaz ezagun,

PER.—Tiro'tik igesi nebanean entzun zeunstan esaten ,agure bat itxi nebala nire atzean nire ordezkotzat: oroitzen ete dozu ze izen emoten neuntsan gizon ari? Sarritan aitatu izan dot nik a.

TAIXE.—Elikan zan a aldi atan.

PER.—Beste argigarri bat oralndik! besartean artu ta estutu egizu, Taixe, axe da au-eta. Luze eretxita nago orain noz entzungo zu zelan idoro zinduezan; zelan arrono biztu zinduezan; eta, yainkoez ganera, nori izan bear natxakon esker oneko alatz edo arrikizun aundi onegaitik.

TAIXE.—Kerimon aundikia yatzu orrako orl, ene yaun; gizon au yatzu beronen bitartez yainkoak euren ala erakutsi dabena; onek azaldu leisketzu dana, asieratik azkenera-**ño.**

PER.—Yaun begiragarri, yaínkoak ezin izan leikee bitarteko ilkorrik zu baño euren antzekoagorik. Azalduko ete daustazu zelan biztu zan erregeno il au?

KER.—Egingo dot orrako ori, ene yaun. Arren, zatoz lenen nikin nirera, orrekin batera an idoro zan oro an erakulsiko dautzut-eta; *za-*

lan irnint genáun ori emen yourebceans beai danlk deusik be esateka itxi bagarik,

PER.—Dine garbi, oneisia izango al zara zule ikuskizunagaitik! Gau-opariak eskeñiko dsutzudaz, Taixe, errege-seme au, zure alabeaii agindutako senargel lerden au, Pentapoli'n ezkonduko da akin, Ela orain, bere erars moztuko dot motz eta iguingarri eglten nauen adats au: eta zure ezkontzea edertzeko apaindu egingo dot amalau urteotan labañek ukutu eztauen bizar au.

TAIXE.—Ba-dau Kerimon Aniikiak idazki sinisgarririk, nire aita ilik dala diragarrenik, yaun.

PER.—Izartu egingo al dabe a zeruak! Orraitiño be, an egingo doguz orrein ezteguak, eta geuk be an igaroko doguz gure urrengo egunak: gure suña ta gure alabea izango dira Tiro'ko errege-erregeno. Kerimon Andiki, luze be luze eretxita gagoz gu, oiaindik eztakiguna yakiteko: erakutsi egiguzu bidea, yaun, (Álde dagie).

GOWER auireia.

GOWER.—Entzunik dozue zelango saii edo zigoi zuzen eta beaireko emon yakon Antioka ta aien alabearen lizunkerl zsniarrsri: Perikel'gazko, ta sren erregeno ta atabeagazko, ikusi dozue, zori txar itzal «ta zorrotzez oldartuak izan-arren, ikusi dozue on-indarra ondamendi zakarraren axe-bolodetatik yagonda, bizirik urtenda, Yaungoikoz aurrera eroanda, eta atzenean pozez eta zori onez burestundaurik: Elikon'egazko, agan errez aurkitu ziñeie egíaren, zintzotasunaren eta yatortasunaren eredurik: Kerimon begiragarriagazko, agan ondo ta argi agiri da goi-maitasun yakintsuak beti aldean dauen aintzakotasuna: Kelon gezto ta aren emazteagazko, arein egite askarria ta Perikel'en izen aintzakogarria ospeak zabaldu ebazanean, uria asarre gorr'tcin yarri ta a ta arenak aren yauregian bizirik erre ta kiskali ebazala; olan, arein erailteari ezarririko zigorraz yainkoak pozik egozala irudian, arein erailtea burutua bagarik, asmaua bakarrik izan-arren, Orrazkero ba, poz barrik sarituko al dau zuon eten bagako epea! Emen amaitzen da gure antzerkia. (Alde dagi).

Salta'n 1962-VI-7'garrenean,

LAGUNGARRI IZANGO YATZUN IZTEGITXO

ABESTI.—Abesgel edo kantogei.
ALLIZAR.—SHct ssdc buztandun izar, Meatz agertzen dira olango izarrak.
ALTXOR.—Balio andiko pitxi, naiz pitxiak, naiz ondasuntza,
ARRANBEL.—Zurezko, naiz metaiezko zer makur, moko edo punta batetik bestera idizila dauela; gezi mgko-zoiiotzak yciurtiteko erabiltsn zan beñolo guduan, naiz eizean.
ARROTZ.—Erbestetar edo atzerritar, Baita ostatuz artzen dana be,
BIUSTURI.—Zeanuri'n beínlzat erabilten dabe itz au urdaillea iragarteko.
BESTAL.—Erramarren artean yainkoen otseintzan bizi ziran neskai ereisten eutsen bestal.
BULKO.—Buruko ilzetik sortua da onako au, eta gogai esan gura dau.
AI7.TO.—ñ,iot! antzeko zeras euskalgaizioz "kubdlo",
EDSN.—Euskaiçraizloz "bersno", "pozoi", "sikilikitu",
EMAGIN.—Seín egiten dagon omakumeri lagun yíÁkon emakume,
ERAIL.—Ilazo, íl eragin, eran.
ERESI.—Ots atsegingarri, musika euskalgaiz-
107,
ERESKIDE.—Beste otaen kide dan ets,
ERESKinETZA,—Beste ots, naiz otsea kids ízatea, ereslcidetzarik ezpa'dau, belarriak minduten dauskuz,
GARBA.—Lora; baña lora batzul bakarrik emoten dautsegu izsn au, esaterako Intzaurgarba, arta-garba, gaztaija-garba,
GEZL—Arranbelaz yaurtilen dan makiltxo moko-zorrotza.
GEZNA.—Norboitefi beren beregi eroaten yakon barria.
ÍGAI.I.—fcugafzak eta landarab aziagaz *ha*tera ernoien dabena. "Frutu" euakalgaiztoz,
IKIJRDI.—Beñolo gudariak besoan soin-estalgarrltzalc eroaien eben ol, naíz sare bírí-bila; olan deretxogu papel edo ingitan ezaugarría egitoko erabilten dan zer biribilari be,
IKURRATZ.—Ikurdiak ingi edo papelean izten dauen atz edo ezaugarria.
IKURRAZTAU,—Ikurratza ezarri.
IZARBEL.—Izar ilun; izarren biran ibilten dan izar ilun, esalerako Lur au, eguzkiaren biran dabil-eta.
GOAKEI.—Goatu eáo alzsmon daiteken edezer.
IRANSUGE.—Suge antzeko mamu, ego, erpa ta beste zer bildurgarriakaz eta agotik sua dariona.
IKATZARRI.—Euskalgaiztoz "diamante",
ISKILLO.—Norbait, naiz zerboil ilteko, nalz nobere burua yagoteko gei dan zera.
LENGEI.—Lurra, ura, sua ta eguratsa zlran lengei lenagokoen ustez; izakiak aztsrtuaz azkenen agertzen diran tsatalak be lengel dira,
MEIKI.—Naparroa'ko Arbizu'n beintzat guk erren edo "koxo" esaten dautsagunari "meiki" esaten dautsoe.
ON-INDAR.—Onerako indar. On-Sndar batzuk Yaungoioak emonak dira, beste batzuk gizonak berak iritxi edo lortuak; zer bat bera sarritan eginez iristen da on-indarra.
OSTOTS.—Odei-ots. Odeiak yolen daueneao entzuten dogu ostolsa.
ORTZE.—An goian ikusten dogun got urdina,
OTURUNTZA.—Yataldi andi.
ARROLLO.—Orrillo: orridun abar.
TENISTEGI,—Tenis yokoan egiteko lekua.
UGIN.—Urutu, "olatu". Uginak sortzen dlranean itsasoaren azala izurturik egoten da.
UZTA.—Itz zar au ilik da Bizkaía'n; bere ordez "kuxetza" esaten dogu.
YAURETXE.—Yaungoiko-etxe.
YAURETXEZAL—Yauretxe-yagola.
YAURRI.—"Gobernau" euskalgaiztoz.
YA URLA.—Gobernaízalla.
YAKINKIDETZA,—"Eontzentz!" ©uskalgaiztOE.
ZENBATEKO,—Zein balioko,
ZALDUNKETA,—Zaldunak zaldi-ganean ogiten dauen norgeiagoketa.
ZEI.—"Merkatu" euskalgaiztoz,
ZURUBI.—"Eskellara" euskalgaiztos,

IZTEG! - ERASKIN

Zeanuri'n belntzaf erríok daiabilisan itzas Z ezaugarris ezarrike daulset,

A

ABANTZ.—Gaztslerazke "velocidad". "Abaniz andie daroa añinkelari onek (Z,), *llova* jnucha veloeidad ese eorredor.-- Oindlño abantza artu barik dago (Z.), aún no ha tomado velocidad.
ADABAU (Z.).—Gaztelerazko "componer", "remendar",
AZARRI.—Ausartu, atomau.
ADATS.—Buiuko uleiza.
AIAZO (Z.).—Txafcuira zíríkatu norbait naiz zerbait uKdtzeko.
AIZTO.—"Kutxilo".
AKARRO (Z.).—Gaztelerazko "raspa".
ALAKA, ALAKETA,— "Kexa".
ALAT7,.—Mirari.
ALTXORR,—Balio andiko edozer,
AMORE EGIN.—Alango baten besteren esanera burua mctkurtu; Oben egin,
ANDURR (Z.).—Usain zakarr; ur andun-ur ats, agua sulfurosa,
APEN.—"Bengantza" euskel gaiztoz.
APENTZALLA.—"Bengatzalla", euskel gaízloz,
APAOTU.—"Konjurau", euskel gaiztoz,
ARAOTZALLA.—"Koniuratzalla", euskej gaiztoz.
ARRANBEL.—Gaztelerazko "aico", Iskiiloeta. riko da.
AREKA (Oñcrti).—Ur-bide; bide-ertzeko ur-bide.
ARMOL (Z.).—Aitz bakarr, gaztelerazko "risco".
ASTATU.—"Pixetu", euskel gaiztoz; ze astuntasun dauen zerbaitek neurtu.
ATOMAU (Z.).—Ausartu; "atrebidu", euskel gaiztoz.
ATXILO (Oñcrti).—"Preso", euskel gaiztoz.
ATXIL.OTU (Oñati).—"Preao" artu, euskel gaíztoz.
AUSARTU.—Atomau.
ATZ.—lorratz; "marka", euskel gaiztoz. 2) Esku-o'n-atal, guztira ogei.
AZKARRl.—Oraniza; "labadura", euskel gtiiztoz.
AUSI (Z.).—1) Zatitu, puskatu. 2) Zaunlca: txakurr-ausi = zakurr-zaunka. 3) Gazielerazko "digerir"i "afarle ausl bcirik egoan, urrean", parece que estaba sin digerir !a cena.
AZKON.—Gaztelerazko "dardo"; gudu-lankietariko da.
AZKONDARI.—Azkon-yauriilari.
AZOKA.—"Merkat". euskal çraizioz.
AZPEGL—Gazielerazko "miembro"; Atz-begitik dator itz <ra.
AZPITIKO (Z.).—Satorr, luartz ota olango pizti lurpean dablHzanak.

B

BARRANDAPI.—"Ispixa", guaksl gaiztoz,
BEREZI (Z.).—Esituriko Lxara, 2) BesteeteUU faanandu, bera bakarrik artu.
BIUZTIIRI (Z,),~-Urdaib "biuzturiko min ™ ur. dailako min,
BHIN (2.).—Abant^ andi; "brincan yoan *áa* (Z,)„ ha ido a gran velociáad.

D

DORDO.—Esbecirr, r.ori tssarr,

E

EDEN.—Sikílíkitu, "bereno, posoi", euskol gaiztoz.
EDENDIJ,—Edena ezarri.
EGIUNE !Z.).—Itunben, "Kontraíu", euakel gaiztoz.
ENTZIN.—"Konfiau", euskel gaizto?.. Bizkai'ko itz zarrstariko dogui "Ordiaganik enzindu zeegik arean", mozkorragandik @s egik izan uste onik arean,
ENTZITE.—"KonfianUa" eualtel gaizíoz,
ENTZINGARRI,—Entzitegarri.
EORTZI.-—Gorpuri lurra ernon.
ERAN.—Hazo, erail, bizia kendu,
ERALA.—Ilazotzaila; gazielerazko "asesino",
ERDI,—Ome egin,
ERESI.—"Musika", euskel gaiztoz,
ERESKIDE,—Kideko diran otsak.
ERESKIDETZA.-—Armonia dalakoa,
EROSTA.—Negarr, negarr-arrantza,
ETOI,—Saltzalla, azpiyaks.

G

GEI (Z.).—1) Del, 2) Zerbait egiteko erabilten dan zern: gaztelerag "material", 3) Asko ala gitsi. esaterako "gsíago",
GEI IZAN (Z,),—Poder, valer, gazteleraz.
GKNTZA.—Bake, pake.
GALARTZU,—"Zinta", euskel gaiztoz.
GEZI.—"Flecha". gazteleraz. Arranbelaz yaurtitsn da gezia,
GORANTZITU,—Norbaiten alde itz egin.

I

IDORO.—Ediron, "topau".
IGITU.—Zirkin egin.
IKATZARRI.—Díamante, gazteleraz.
IKURRATZ.—Silluak izlen dauen lorratza.
IKURRAZTAU.—Silluaz yo.
IKURDI.—Antxiña gudariak soña yagoteko ezkerreko besoan eiabilten eben lanki biribiltsua.
IKUZI (Z.).—Urez garbitu, Orr dozu "garbiikuzia". lavado y limpieza.
IKUZTE.-—Ikuzitea.
ILDO.—Goldearen lorratza,
INTSIGI.—Itxiki, "pegau". euskel gaizloz,
INTRIKORR.--Eraskorr.
IÑ A RTXI.—Txibizkeri, bekaizkeri,
IRADU.—Astirik eza, "prisa" euskol gaiztoz,
IRATXO.—Gaztelerazko "duende",
IRISTU (Z.).—Argaldu.
IROZO.—Eutsin.
IRARRI.—Yarriazo, "imprhnir" gazteleraz,
1RUZURR,—Marro,
IRUZURR EGIN,—Marro egin; ziria sartu.
ISPEL.—"Ostra" gazteleraz.
ISUN.—"Multa" gaztsleraz,
ITXUNGI.—Amalau.
IZANTZA.—Izadi; diran zer guztiak batera; oro.
IZARBEL.—Izarren baten inguruan biraka dabiltzan zeretatik edozein.
IZARO.—1) Bizkaia'n Mundaka-aurrean itsasoan agiri dan legorr-arlotxoa. 2) Olan, urez inguraturik aurkitzen dan edozein legorr, "isla",

K

KAI.—Portu, euskel gaiztoz.
KAKITU (Z.).—Zerbaitez iguindu.
KAKOKETA.—Argiaz daragoiogunean, argia zerbait yo ta atzera etortea; gaztelerazko "refexión" dalakoa. A.rgia batzuetan kakotu, beste batzuetan ausi egiten da.
KIRIO.—"Nervio" gazteleraz,
KITEAN (Z.).—Kautan.
KITETIK (Z.í,—Kauialik.

L

LANKI,—Traroankulu; lanen baterako edozeln lagungan'i.
LEKA.—1) Zeruka, 2) Ezpata-zorro.
LE'NGEIAK.—Lurv, ur. aids (egurats) sta suari eresten eutsen lengei antxiñakoak.
LERR.—Piñu.
LOTSORTASUN (Z.).—Pudibundez, gazleleraz.
LUPETZ (Z.).--lokatz.
LUGAN (Z.).—"Trintxera" ete dan dlño Azkue'k bere iztegian, baña ezta olangorik lugana, lubakitik eleiaten dan iurraz egilen dan lurr-mendi luzanga-bedarra baño, Zsanuri'n beíntzat. Ganera, ítza bera dago escten.

M

MOKO.—Punta, piku. Ortik datcr Paskootan gure amabitxicik emoten euskuen "mokotza" ren izena, gitnienez iru "moko" edo punta izaten ebazan eta.
MAMI-IRUDL—-Gazteleraz "estalua" dalakoa.
MEIKI (Arbizu).—"Koxo", erren.
MUSTU (Arbizu).—Zerbait lenengoz erabilí; "estrsnar" gazteleraz,
MUSARRAKIN.—Txiribiri; zerbaiteri zerbait egiteko kentzen yakozan txatalak.

fJ

NEKOSTA.—Lerr-antzeko abe edo zugatz; "ciprés" gazteleraz,
NEURRIKOTASUN.—Gaztelerazko "moderación",

O

OBEN (Z.).—Ganeko zamaz edo beste zerbaitsgaitik esaterako olari egiten yakon sakosta edo okertze, 2) Ortik sorluriko "pekatu", pekatua okertzea da-ta,
OBEN EGIN.—-Okertu; pekatu sgin.
OGUR.—Latel-itza dogu qn, Zer yazoko zan egaztien egazkeratik-eta igarten ei eben Errom'ko augurok,
ONDARR.—Are.
ONDIKO.—Zori txarr.
ONINDARR.—"Virtud" gazteleraz, onerako (n-
darr.
OREIN.—Basauntz.
ORO.—Guztiak.
. OROKARR.—Oroen, guztien.

ORROLLO **(Z.).—Orrlllo, orrlak sldean dauzan zugatz, naiz zugazno-adan,**
OSKI.—Zapata, euskel gaiztoz.
OSTEKARI.—**Besteren erelxiren aurka yarten dana.**
OSKARBI (Oñati).—**Zeru garbi, laño bagako.**
OSTABE **(Z.).—Ostera be, barriro.**
ORTZE,—**An goian dakusgun "zerua".**
OTU' **(Z.).—Burura etorri.**
OTURUNT'ZA.—**Yalaldi, bazkatze,**

S

SAGUTO,—**Arratoi, euskel gaizlez.**
SARRANTXA (Z.).—Gaztelerazko "carlanca" dulakoaten anlzeko ianki, liñoa garbilzeko erabilten dana.
SOROTZI.—**Begiratu, yaramon, lagundu.**
SOROSLA.—**Begirala, yaiamonla, lagunlzalla.**
SUNDA (Z.),—**Usaln,**

r

TERTZIO (Z.).—Garai, oldi.
TERTZIOZ **(Z.).—Gatolz.** *"a* **tiempe" gaztele-***iciz,*
TXATARR **(Z.).—Txinparta.**
TXIBTZ **(Z.).—Bekaizti.**
TXIBIZKERI **(Z.).—Bekaizkerí.**

UGIN.—Olatu. urutu.
UKARR.—**"Erremusina", gaztelerazko "limos-**na".
UKUTARRI.—**Gazielazko "piedra de toque".**
UNATU.—**Neka-nekatu.**
URUTU **(Z.).-~01atu. ugln.**
USARTU,—**Bitartean sartu,**
USIGI (ZJ.—**Aginka egin.**
USIKADA **(Z.).—Gaztelerazko "mordisco".**
UZTA.—**"Kuxetza" euskel gaiztoz,**

Y

YAKINKIDETZA.—**"Konizentzi" euskel gaiztoz.**
YANAUSI **(Z.).—Gazteleiazko "digerir".**
YAREI (Oñaii).—**Azkatu.**
YARRAIGO.—**Norbaiterf dorraikJozanok.**
YASAN.—**Eroan, "suiridu" euskel gaizioz.**
YAUPARI.—Abode.
YAUPARINO.—**Yaupari eme.**
YAURRL—**Eskutik erabili, "gobernau" euskel gaiztoz.**
YAURTZA— **"Gobernu" euskel gaiztoz,**
YAUZI.—**Oñak sakatu, soña makurtu ta gora-goraka yagi, alzera lengo lekura, naiz beste nonbaitera yasteke; "sailtu" egin.**
YAURESLA.—**Gurtzaila.**
YEBEN.—**Gaztelerazko "mosíaza".**
YOPU.—**Bere buruoren yabe eztana; osoan iñoren bendoke.**

2

ZAMA.—**"Pixu" euskal gaiztoz.**
ZAURI-ATZ.—Gaztelerazko "eicatríz"; zauri-lo. Iorratz.
ZEI.—**"Merkatu" euskei goiitozj salgeiak sal. tzen diran lekua.**
ZENBATEKO **(Z.).—Baiio, zegange.**
ZEMAI.—"**Amenasu" euskel gaizto*.**
ZIBA.—**Mutikoals yolaserako erabilten daban "tronpea".**
ZILEGI.—**Legek galazota eztagona.**
ZIO.—**Zegaiti; zerbait egitera, naiz et egitera garoazan zegaitio.**